

**Iñaki Sagarna
Urzelai**

**Londoneko Euskal Delegaritzaren propaganda
eta kontrapropaganda Britania Handian:
Jose Inazio Lizaso eta sarraskien inguruko
eztabaidak (1936-1939)**

Historia ikerketa lan honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoari buruzko ikerketa historikoak egiteko bekak programaren barruan 2021. urtean beka jaso zuen.

Trabajo de investigación histórica becado en 2021 dentro del programa de Becas de investigación histórica sobre Gipuzkoa de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

San Sebastián, 2023

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Kultura, Lankidetzeta, Gazteria
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes



ARCHIVO GENERAL
DE GIPUZKOAKO
ARTXIBO OROKORRA

Bekak / Becas saila Gipuzkoako Artxibo Orokorren bildumetako bat da eta Gipuzkoari buruzko ikerketa historikoak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen dituen bekekin burututako lanak

Bekak / Becas es una de las colecciones del Archivo General de Gipuzkoa, que reúne trabajos realizados con las becas de investigación histórica sobre Gipuzkoa concedidas por la Diputación Foral de Gipuzkoa

Erreferentzia bibliografiko gomendatua (ISO 690-2):

SAGARNA URZELAI, Iñaki: Londoneko Euskal Delegaritzaren propaganda eta kontrapropaganda Britainia Handian: Jose Inazio Lizaso eta sarraskien inguruko eztabaidak (1936-1939). [linean]. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2023 [kontsulta: urtea-hilabetea-eguna]. World Wide Weben eskuragarri: <<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/bekak-becas19.pdf>>.

Referencia bibliográfica recomendada (ISO 690-2):

SAGARNA URZELAI, Iñaki: Londoneko Euskal Delegaritzaren propaganda eta kontrapropaganda Britainia Handian: Jose Inazio Lizaso eta sarraskien inguruko eztabaidak (1936-1939). [en línea]. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa, 2023 [consulta: año-mes-día]. Disponible en World Wide Web: <<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/bekak-becas19.pdf>>.



Liburu hau hurrengo **Creative Commons** lizentziaren mende dago:



[Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa \(CC BY-NC-ND 4.0\) Lizentzia honek obra](#) partekatu, birbanatu edozein bitarteko edo formatutan eta kopiatzeko aukera ematen du, baldintza hauek betez:

- Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu.
- Ez Komertziala — Materiala ezin duzu erabili merkataritza-xedeetarako.
- Lan Eratorririk Gabe — Materiala nahasten, eraldatzen edo horretan oinarrituz sortzen baduzu, ezin izango duzu aldatutako materiala banatu.

Este libro se difunde bajo la siguiente licencia **Creative Commons**:



[Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 4.0 Internacional \(CC BY-NC-ND 4.0\)](#) que permite compartir, copiar y redistribuir el material en cualquier medio o formato, bajo las siguientes condiciones:

- Reconocimiento — Debe reconocer adecuadamente la autoría, proporcionar un enlace a la licencia e indicar si se han realizado cambios.
- No Comercial — No puede utilizar el material para una finalidad comercial.
- Sin Obra Derivada — Si remezcla, transforma o crea a partir del material, no puede difundir el material modificado.

Argitalpena / Edita:

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentua / Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

Gipuzkoako Artxibo Orokorra / Archivo General de Gipuzkoa

<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/index.php>

<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/index-es.php>

Maketazioa / Maquetación:

ACC

**Londoneko Euskal Delegaritzaren propaganda eta kontrapropaganda
Britania Handian: Jose Inazio Lizaso eta sarraskien inguruko
eztabaidak (1936-1939)**



Iñaki Lizaso sendiarekin. Aranzadi.JEI-00148-32 (1938-07-02)

EGILEA: IÑAKI SAGARNA

AURKIBIDEA

0.SARRERA	5
1. JOSE INAZIO LIZASOREN BIOGRAFIA	16
2. EUZKADI ETA INGALATERRA GERRA ZIBILEAN ZEHAR	61
3. ERRESUMA BATUKO KOMITEAK	79
4. LONDONEKO EUSKAL DELEGARITZA	90
5.OGASUN, HORNIKUNTZA ETA LAGUNTZA SOZIAL SAILETAKO DELEGARITZAK	108
6. GERRA ZIBIL GARAIAKO PROPAGANDA-EGITURAK	128
7. EUSKAL PROPAGANDA	141
8. EUSKAL DELEGARITZAK GAUZATUTAKO PROPAGANDAREN NOLAKOTASUNA	151
9. PRENTSAN PROPAGANDA	164
10. LIBURU ETA LIBURUXKAK	170
11. HITZALDI ETA KONFERENTZIAK	181
12. FILMEAK: GUERNIKA ETA EUZKO-DEYA	187
13. BIZKAIRAKO BIDAIK: POTEMKIN BIDAIK?	192
14. EUSKAL FRENTE KULTURALA: ERESOINKA ETA EUZKADI	196
15. EUSKALDUNON LAGUNEN NAZIOARTEKO LIGA INGALATERRAKO SAILA. NAHI BAINA EZIN	206
SARRASKIZ-SARRAZKI	212
16. EUSKAL APAIZEN FUSILAMENDUAK	212
17. BONBARDAKETAK: GERNIKA ETA DURANGO	221
18. BASQUE CHILDREN	235
19.ZIBIL ETA PRESOEN AURKAKO SARRASKIAK	248
20. ONDORIOAK	257
21. BIBLIOGRAFIA	264

ARTXIBO ETA LABURDURAK

Archivo General de la Administración: AGA

Archivo General militar de Ávila: AGMAV

Archivo Histórico Nacional: AHN

Centro Documental de la Memoria Histórica: CDMH

Euskadiko Artxibo Historikoa: EAH.

- Luis Ortuzarren funtsa: LO
- Santiago Aznar funtsa: SA
 - Signatura: Si:
- Euskal Gobernuaren artxibo historikoa: EG
 - Beyris funts berezia: BEY
 - Lehendakaritza Departamentua: LD
 - Idazkaritza Orokorra: IO
 - Ogasun- Departamentua: OD
 - Industria, Marina eta Arrantza: IMA
 - Gizarte laguntza Departamentua: GLD
 - Sección: Se:
 - Sub Sección: Se:XX/XX
 - Serie: S:
 - Volumen: V:
 - Legajo: L:
 - Numero Legajo: L:XX/XX

Eusko Ikaskuntza: EI

- Manuel Irujo Funtsa: MI

Sabino Arana Fundazioa: SAF

Universidad de Navarra: UNAV

- Fal Conde Funtsa: 133

The University of Warwick Archive: UWA

- Archives of Trade Unions Congress: ATUC

Diru Britainiarra 1936-1939an eta Franco frantsesarekiko baliokidetasuna

- Libra (£)
- Chelin (s.) 20s. = £1
- Penies. (d.) 240d. = £1=12s. = 1d.

Dirua idaztean hurrenkera honetan= £- s.-d.

Francoren ekibalentzia Librerekiko gerran zehar asko aldatu zen. 1936ko uztailean 75Fr = £1, 1936 urrirako 105 Fr = £1. 1937ko ekainean 110 = £1 eta 1937ko irailean 140Fr= £1. 1938 ekainerako 178 Fr= £1.

Peseta = Pt.

Franco Frantziarra = Fr.

TESTUAN ERABILITAKO LABURDURAK

Basque Children Committee: BCC

Bizkaia Buru Batzar: BBB

Comité Central Socialista de Euzkadi: CCSE

Euskadi Buru Batzar: EBB

Eusko Alderdi Jeltzalea: EAJ

Eusko Abertzale Ekintza: EAE

Foreign Office: FO

Friends Service Council: FSC

General Relief Fund for Distressed Women and Children: GRF

Gipuzkoa Buru Batzar: GBB

Home Office: HO

International Solidarity Funds: ISF

Ministry of Information: MOI

Natioanl Joint Committee for Spanish Relief: NJC

Espainiako Alderdi Sozialista: PSOE

Spanish Medical Aid Committee: SMAC

Trade of Unions: TUC

0. SARRERA

*Everybody in Great Britain remembers the sacrifice made by Belgium during the Great War for the security of democracy. In one year from July, 1936, to June, 1937—Euzkadi, fighting for her liberty and the ideals of democracy, lost more men than Belgium did during the whole of the Great War. When settlement came, Belgium found the reward for her sacrifices. Will Euzkadi?*¹

Euzkadi, Belgika berria?

Londoneko *Euzko-Deyak* argitaratutako estraktuak argiki adierazten du Espainiako Gerra Zibilean Lehen Mundu Gerraren itzalak bizi-bizirik zirauela. Gerra Handia bukatu osteko 1919ko Versailleseko itunak ezarritako ordena berria begitan zuten guztiek. Errepublikak edo nazionalak, bai alde batek irabazi, bai eta bien arteko bitartekaritza bat izan, ziburua zen Espainiako egitura politikoak aldaketa bat biziko zuela. Testuinguru horretan, autonomia gehiago eskuratzeko aukera miazkatu zuten euskal nazionalista askok; are gehiago, Iberiar Penintsulako konfederazio federal bat edota Frantziak edo Ingalaterrak babestutako tapoi-estatu batean sinesteraino. Egungo begiradatik burutapen handinahi eta txoroak iruditu arren, bazuten edena. 1936ko azaroan, Iñaki, edo Jose Inazio Lizasok, gutxi barru Londonen Euskal Gobernuaren delegatua bilakatuko zenak, honela idazten dio Telesforo Monzoni: *Euzkadi k Ingalaterragandik laguntza itxaro lezakela. Nola guk jokatu ala izango genduke bere laguntza. Europa ko bigarren Belgika Euzkadi izan leike*².

1914-1918. urtean izandako gerraren esperientziatik abiatuta, euskal nazionalistek irabazi politikoak eskuratzeko aukera ikusi zuten, Erresuma Batua zein Frantziari fidelak izanez; Txekosloveniaren sorrera eta, batik bat, Belgikak Versaillesen jasotako abantailak zituzten erreferentziatzat³. Balizko esker on hori bideratzeko ezinbestekoa litzateke Britainiar iritzia bereganatzea belgikarrek egin zuten lez. Eta hala, Ingalaterran Jose Inazio Lizasoren agindupean egongo den Euskal ordezkartzaren helburu nagusitako bat hori bera izango da; iritzi publikoa bereganatuz, Britainiar politikan eragiteko aukera handiagoak izango zituztelarik. Hortaz, aipaturiko Belgikaren kasua ezagutzea ezinbesteko zaigu Espainiako Gerra Zibilaren garaian Britainia Handian egindako propaganda ulertzeko.

1914ko abuztuaren 4an Alemaniak Belgikaren neutraltasunari entzungor eginez, hura inbaditu zuen, aurrerago Frantzia erasotze aldera. Baliabide eta esperientzia handiko armada izan ez arren, Belgikarrek, Ypresen mendebaldeko zona txiki batean gotorturik, eutsi egin zioten erasoari; eta horrek, alemaniarren menpean gelditutako Belgikaren zatiaren aurka errepresioa abiatu. Belgikaren inbasioak, Britainia Handia Alemaniaren aurkako gerran sartzea eragingo zuen. Hori dela eta, Belgiar armadaren kemena, Alemaniarren sarraskien salaketekin batera, aliatuen propagandaren ardatz bilakatu ziren. Justiziaren izenean egindako *iustum bellum*-a zen, zibilizazioa barbarismoaren aurka kontrajarriz eta Britainia Handiaren mantra propagandistikoa bilakatuz. Hori gutxi ez, eta Lehen Mundu Gerran Belgikak izandako *exemplum*-aren ondorioz irabazitako lurralde eta abantaila politikoak gehituko zitzaizkion. Kontuan hartzekoa da 1914ko abenduan, Lord Byronek zuzenduta, germaniarren sarraskiak ikertzea helburu zuen komisio bat abian jarri zela. Horren ondorioz, 1915ko maiatzean ebatzi eta zabaldu zen Byron txostenak Alemaniarrek egindako sarraskien lekukotza ugari emango zituen aditzera. Nahiz eta, gaur

¹ *Euzko-Deya*, London, (1938-07-11)

² EAH.SA.Se:Gobernación. L:5/617 Iñaki Lizasok Telesforo Monzoni, (1936-11-15) Gutuna 1938 data bezala kalifikatuta badago ere, 1936 da zuzena.

³ *Versaillesko tratatua* (1919). Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes, 2012 <https://www.cervantesvirtual.com/nd/ark:/59851/bmcb28g7> (2022-09-10) Belgika estatu subirano bezala berrezarri eta irabazi territorialak izan zituen Eupen, Moresnet zein Ruanda eta Burundi bere kontrolpean. Austria Hungariaren disoluzioarekin, Txekoslovakia osatuko zen, besteak beste

egungo ikuspegitik aditzera emandako sarraskien egiazkotasunaren inguruan eztabaida handia dagoen, bere balio propagandistikoa agerikoa da. Gerra Handian egin bezala, Espainiako Gerra Zibilean ere sarraskien inguruko eztabaidek berebiziko garrantzia izan zuten, eta hein batean behintzat, komisio ezberdinek eraturako txostenen esku-orri, prentsa eta liburu bidez, Ingalaterran salatutako gertakarien ondorio da, Gernikako bonbardaketaren itzala bera ere⁴.

Gerran parte hartu zuten agente guztiek, bai gobernu zein elkarte politikoek, Ingalaterrako sektore ezberdinen begikotasuna jadeskoko edo, gutxienez, bestearen prestigioa mintzeko erabiliko den erretolikan egindako sarraski eta basakeriek berebiziko garrantzia izan zuten. Zehatz-mehatz aztertu ditu Hugo Garciak⁵ Ingalaterran Errepublikar eta Nazionalak martxan jarritako aparatuek eta propaganda zabaltzeko erabilitako metodoak. ez du Euskal Gobernuak egindako propagandari buruz gauza handirik esaten. Egiari sor, agentzia baten laguntzaz, E.M. Wright, Jose Inazio Lizasok egindako propaganda lana kuantitatiboki behintzat ikaragarria izan zen eta euskal gatazka ezagutzera ematea lortu zuen.

Aparatuok zabaldu eta benetan alderdi guztiek burututako sarraskien aditzeak, batik bat gerraren lehen hiru-hilabete emandakoak, batetik Espainiari buruzko aurriritzi erromantikoek, bestetik, Espainiara arraza sutua zela, salbuespeneko gerla basati eta odoltsu baten gisara interpretatutako zuten Britainiarrek. Ondorioz, Espainiako Gerla *Spanish Tragedy*⁶ deituz. Horren aurrean, Euskal Gobernuak ideia hori partekatzeaz gainera, beren burua arraza ezberdin eta moderatu baten gisara aurkeztu zuten. Bi hamarkada lehenago Belgikarrek egin zuten lez. Hala, gatazkan zehar, exenploaren eta babes internazionalaren bilaketan zentratu ziren agintariak, Euzko Jaurlaritzak abiatutako Gerraren humanizazioa, beraz, ez dugu hautu moral huts moduan ulertu behar, baizik eta iritzi internazionala bereganatzeko asmoz buruturiko instrumentalizazio gisa⁷.

Hori dela eta, garaiko nazioarteko aktore garrantzitsuenean aurrean, Ingalaterran, ideia hauek nola barreiatu zituzten aztertzea izango da gure lanaren xedea, eta beraz, lanaren jomuga, Euskal Gobernuak Ingalaterraren aurrean aurrera eramandako propaganda aztertzea da. Horretarako, Jose Inazio Lizasok gidatutako Euzko Jaurlaritzaren Deleagaritzak egindako lana historiatu eta gehienbat egindako lan propagandistiko, kontrapropagandistiko eta diplomatikoa aztertuko dugu hurrengo orrietan. Gure lanak hurrengo helburuak izango ditu:

1. Ordezkararen lana hobeto ulertzeko Jose Inazio Lizasoren biografia labur bat taxutzea. Gerra aurretik izandako ogibidea eta ideologia garrantzitsuak baitira bere Londonen eginikoa hobeto ulertzeko.
2. Londoneko, euskal deleagaritzaren lehendabiziko urteak hobeto ezagutu. Haren sorreraren nondik norakoak zehaztu eta Espainiako gerran zehar izandako inizatiba eta harreman diplomatiko eta paradiplomatikoak aztertzea.
3. Londonen Euzko Jaurlaritzak izandako agente eta misio ezberdinak zeintzuk izan ziren zehaztu: Ogasun, merkataritza eta gizarte laguntzako sailen ordezkariak.
4. Deleagaritzak Ingalaterran aurrera eramandako propaganda helburuak eta erabilitako kanalak identifikatu.
5. Sarraski-propagandak izan zuen oihartzunaren azterketa egin 1936-1939 aldirako, hau da: Euskal ordezkariak Britainiar prentsarara igorritako informazioaren azterketa ikerketa kasu zehatzen bidez aztertu: Euskal apaizen erailketa, Durango eta Gernikako bonbardaketak, *Basque Childrenen* kasua eta zibil eta preso erailketak.

⁴ Aurrekari belgiarra Gerra Zibil garaian: Ucelay (1995)

⁵ Garcia (2008)

⁶ Moradiellos (1990).

⁷ Jimenez Aberasturi (1999); de Pablo, Mees eta Ranz (1999), 20

Helburuok gauzatzeko lana, sarrera eta ondorio banak lagunduta, lau zati nagusitan banatu da. Azterketan zehar erabilitako iturriak eta erabilitako propaganda eta kanpo harreman kontzeptuak zehaztuko dira sarreran. Ondorioetan berriz, ikerketaren hasieran ezarritako bost helburuak nola gauzatu diren, eta etorkizunera begira jarraitu daitezken ildoak adieraziko dira. Memoriaren mamia, Jose Inazio Lizasoren biografia labur bat eskainiz hasiko da. Jarraian, Erresuma Batuko Gobernu eta prentsak Espainiako Gerra Zibilaren aurrean, batik bat euskaldunei begira, izandako jarrerak dira ikergai. Hurrena, Euskal Gobernuak Erresuma Batuan gerran zehar izandako ordezkariak ezberdinen ingurukoak osatzen du. Lehendakariak, Ogasun eta Gizarte Laguntzako ordezkariak izan ziren Erresuma Batuan. Azkena da zati handiena. Propagandaren ingurukoa. Lehendabizi, Gerra Zibilean penintsulan eta Erresuma Batuan sortutako aparatuen identifikatu eta aztertuko dira. Honen ostean, Lizasok, lehendakariaren ordezkariak gauzatu zuen propagandaren nolakotasuna zehaztuko da, E.M. Wright agentziak izandako paperan zentratuz. Irratiaz salbu, beste kanal ezberdinen bana-banako azterketa batek jarraituko dio eta ondorioetara heldu aurretik, hainbat sarraski-propagandako kasu izango dira hizpide: bonbardaketak eta erailketak esaterako.

Justifikazioa

Espainiako Gerra Zibilari dagokion jario akademikoa harrigarria da benetan⁸. Horrenbesteko orri kopuru handia irakurtzea, bai bibliografia zein lehen mailako iturri aldetik, ezinezkoa da. Baina, abundantzia honek bere alde ona ere badu. Gerra Zibileko gai batean murgiltzerakoan dagoeneko nonbait idatzirik aurki ditzakegu hainbat argibide. Gure kasuan, Jose Inazio Lizasok errepresentatutako Ingalaterrako Euskal Gobernuak delegaritzak aztertzea dugu lehen xedea. Hari buruz zertxobait idatzi da jada, nahiz eta lan horietan delegaritzaren azterketa ez den inoiz izan lanaren helburu zentrala. Ikerketak delegaritzari buruzko lan orokorretan⁹ edo Bigarren Mundu Guerra garaian zentratu dira¹⁰. Existitzen den uholde bibliografikoa kontuan, harritzekoa da benetan oraindik ez dela Londoneko Delegaritzari buruzko monografiarik idatzi¹¹. Are gehiago, Lizaso bera, Euskal erbesteko politikari ezagun ezezaguna dela ere esatea ez da inongo astakeria eta ezer gutxi dakigu haren biografiari buruz. Ludger Meesen iritziak Lizasok osatutako kontaktu sarea ezinbesteko gertatu zen Euskal Gobernuaren politikak aurrera eramateko 1937-1947 bitartean¹². Ondorioz pertsonaia hau nor izan zen, eta nondik zetorren ezagutzeak ere lagun dezake delegaritzak jokatutako papera hobeto ulertzen.

Hutsune hauek ikusirik, Londoneko Euzko Jaurlaritzaren Delegaritzak, Gerra Zibilean zehar izandako lana historiatzea izango da helburua nagusietako bat. Lehendakariaren ordezkariak nagusiaz gain, izandako bestelako delegaritzen berri ere emango da. Besteak beste, Ogasun, Merkataritzako eta Laguntza sozialeko sailek bidalitako agenteak ere izan zirenez, horiek aipatu eta zertxobait sakonduko ditugu. Kasu batzuetan erabat ezezagunak dira historiografiarentzat. Horrez gain, Lizaso beraren biografia ere xehetuko dugu. Hala ere, aurrean dugun lanaren denbora kontuan izanik, urte bete, batik bat Euskal Gobernuak Lehendakariaren delegaritzak nagusiak aurrera eramandako propagandan zentratzea erabaki dugu. Lanean zehar ikusiko dugun bezala, ordezkariaren hasierako helburu nagusia, propaganda egitea izan zen eta.

⁸ Viñas eta Blanco (2017).

⁹ Ugalde (1996); Alvarez, Sanz eta Morales (2011) Anasagasti eta San Sebastian (2018)

¹⁰ Jimenez (2002), 116-7 *Ibid.* (1999), 326-343. Jimenez eta Moreno (2009)

¹¹ Mota (2016), New Yorkeko ordezkariak berriki aztertu da bere diakronia osoan

¹² Mees (2008), 571: *gracias a la excelente red de contactos que en Londres cultivaba el delegado del Gobierno vasco José Ignacio Lizaso*

Euskal Gobernuaren delegaritzen inguruan ikertu ez izanaren arrazoia, delegaritzak bere egunerokoa sortutako artxiboa orain arte inon aurkitu ez izana izan liteke. Londonen 1936-9 bitartean sortutako paper-sorta, egun, Euskadiko Artxibo Historikoan gordailututa aurkitzen da 2009. urtetik. Inork gutxik erabilitako funtsak dira. Gregorio Arriek, Ingalaterrara erbesteratutako umeen gainean egindako ikerketarako erabili zituen *Salvad a los niños* lanean. Aurretiaz, Xabier Irujok Bigarren Mundu Gerran, Euskal Gobernuaren papera aztertzen du *Expelled from the motherland*. Ingelesek eta erbesteko Frantzia Askearen gobernuekin izandako hartu emanetan jarri zuen fokua funtsa ikusterakoan Irujok. Hortaz, Gerra Zibil garairako euskal umei buruz ikertzeko besterik ez dira erabili. Eta hori dela eta, argitaratu gabe eta ia inork ikusi ez dituen funtsen erabilpenak, justifikazio gehigarri bat ematen dio gure ikerketari.

Iturriak eta oinarri teorikoak eta gaiaren egoera

Iturriak

Justifikazioaren azken zatian aipatu berri dugun paper-sorta, Londonen Lizasok erabilitakoa, izango da gure lanean zehar erreferentzia nagusia. Irujoren arabera, *lo que Lizaso tiene en su poder es de lo mejorcito y más inédito que hay*¹³. Era berean, EAHko hainbat funtsak berebiziko garrantzia izan dute gure lana aurrera eramateko. Guztiak Euskal Gobernuaren egitekoarekin dute zer ikusia. Lizasoren paper-sorta kokatzen den Euzko Jaurlaritzaren Lehendakariaren atala ezinbestekoa da kanpoan izandako ordezkartzen nondik norakoak ulertzeko. Euskal Gobernuko Beyris eta Ogasuneko funtsak pista ezberdinak eskaintzen dizkigute Jaurlaritzak nola jokatu zuen ikusteko. Diruaren lorratza segituz gauza asko ulertzen dira.

Euskadiko Artxibo Historikoan gordeta dauden pare bat funts pertsonal baliagarriak suertatu zaizkigu. Santiago Aznar kontseilariaren paperetan Lizaso eta Lehendakariaren eta bere idazkariaren, Antonio Irala eta Pedro Basalduaren, arteko korrespondentziaren zati handi bat gordetzen da, 1938ko apiriletik 1939ko maiatzera artekoa. Osorik ez badago ere, delegaritzaren egunerokoa ulertzeko balio izan digu. Bestalde, Luis Ortuzarren funtsak eskaintako informazioak Ingalaterran Ortuzarrek bere kabuz eta Eliodoro de la Torrerekin elkarlanean martxan jarritako egitasmo ezberdinak argitzeko balio izan digu. Beste funts pertsonal batek ere, pista ezberdinak eskaini dizkigu Lizasoren biografia betetzeko, Eusko Ikaskuntzak gordetzen duen Manuel Irujoren funtsaz ari naiz.

Aberasgarriak gertatu dira bestalde, Sabino Arana fundazioan aurkitutako hainbat dokumentu. Gehienbat Eusko Alderdi Jeltzaleari loturiko informazioa eskainiz. Lizasoren biografia betetzeaz gain, Euskal Gobernuaren hainbat egitasmo hobeto ulertzeko balio izan digu, gehienbat *Liga de Amigos Vascos* erakundea.

Estatuko hainbat artxibotan ere aritu gara lanean, *Archivo General de la Administración*en Londoneko agente frankistei buruzko informazioa eskuratu dugu eta *Centro Documental de Memoria Histórica* artxiboan Londoneko agente frankistek Burgos eta Salamancako prentsa eta propagandarekin izandako hartu-emanen telegramak eskaini dizkigute. Ildo berean, Londoneko enbaxada errepublikarrean Pablo Azcaratek bildutako hemeroteca kontsultatu ahal izan dugu. Prentsa ingelesean Espainiako Gerra Zibilaren inguruan emandako berriak zeuden bertan.

Ingalaterrari dagokionez, Warwickeko unibertsitatean, *Trade of Unionseko* paper-sortak daude. Artxiboa online kontsultatzeko aukera izan dugu. *The National Archives*era ezin izan dugu joan,

¹³ EAH. Jon Bilbao funtsa. Si:JB-3 L:F-K 296 Irujok Leizaolari (1968-02-07)

baina Gernikako Bake Museoan Ingalaterrako artxibo nazionalen Espainiako Gerra Zibilari buruz dauden artxiboak kontsultatzeko parada izan dugu.

Bukatzeke, eta agian pista andana eskainiko ligukeen Pablo Azcarateren funtsa ezin izan dugu kontsultatu. *Ministerio de Asuntos Exteriores y Cooperación*-eko artxiboa duela hamarkada bat baino gehiago itxita dago Santa Kruzeko jauregian amaitzen ez diren obra batzuek direla eta ezin omen daiteke kontsultatu.

Oinarri teorikoa eta gaiaren egoera

Propaganda eta sarraski propaganda

Gaur egun, propaganda, erabateko gutxiespen-zentzua duen terminoa da. Esanahiak berak, beste ele askok bezala, eboluzio nabarmena bizi izan du XX. mendean zehar; propaganda bera egiteko zein hura ulertzeko moduek bezainbeste. 1930. hamarkadako prentsa nazionalistan, *EL DIA* eta *Euzkadi* egunkarietan, behin eta berriro aipatzen den terminoa da propagandarena. Normalean, *propaganda nacionalista* zabaltzeko beharraz dihardute kazeta hauetan. Hala, garai hartan duen esangura, hitzaren erro latindarra den PROPAGARE terminoak definitzen du hobekien: zabaltzen ari den doktrinara erakartzeko informazioaren barreiaketa, hain zuzen ere.

Fenomenoari eskainiko diogun definizioan, beste esanahi bat emango diogu. Gure kasuan, propagandaz hitz egiterakoan, informazioa zabaltzeaz gain, helburu politiko argi batekin egiten den komunikazio-prozesu baten aurrean gaude. Hau da, propagandak ez du soilik informatu nahi izango, baizik eta hartzailearen erantzunean eragitea ere nahi izango du; informatzeaz gain, helburua konbentzitzea delarik¹⁴. Hala, hartzailearen iritzi eta jokaerak aldatu ditzakeen prozesua izanik, benetan baliagarria da gerra testuinguru batean propaganda. Izan ere, *las palabras pueden llegar a tener la misma fuerza que las armas*¹⁵.

Espainiako Gerra Zibilean, hitzek paper benetan garrantzitsua bete zuten. Bando bateko edo besteko abangoardia eta atzeguardia, prentsan agertutako harengak hornitu zuten, eta fondoko informazioekin batera, morala altu mantentzeko bala gisa jardun. Neutralak izan zitezkeen erakarri, edo gutxienez, bando propiotik ez urruntzeko ere balioko zuten. Informazioaren kontrolaz jabetuta, gerra aurreko prentsak, benetako transformazio erradikala bizi izan zuen Gerraren eraginez¹⁶. Era berean, elea, etsaiengan eragiteko ere erabili zuten, bai prentsan zein esku-orri eta bestelako kanalak erabiliz. Adibidez, irratia erabilerari dagokionez, Espainiako Gerra mugarri da propagandaren historian. Zentzu honetan, *Radio Sevillatik*, Queipo de Llanoren irratsaioak, edota Molak 1937ko martxoan, Bizkaiko ofentsibaren testuinguruan abioiez jaurtikiko esku-orriak, argigarriak dira. Honela zioen¹⁷:

Último aviso: He decidido terminar rápidamente la guerra en el norte de España. Quienes no sean autores de asesinatos y depongan las armas o se entreguen serán respetados en vidas y haciendas.

Si vuestra sumisión no es inmediata arrasaré Vizcaya empezando por las industrias de guerra. Tengo medios sobrados para ello. General Mola.

Beste alderdiko kideei zuzendutako propagandari *psychological warfare* deitu izan zaio, eta W. E. Daughertyk horrela definitu zuen: helburu eta jomuga nazionalak betetzeko, atzerriko talde, etsai eta neutralen iritzi, emozio, jarrera eta portaeretan eragiteko, propaganda eta beste ekintza

¹⁴ Pizarroso (1990), 26-27

¹⁵ Pizarroso (2005)

¹⁶ Garitaonandia (1990)

¹⁷ EAH.Luis Ruiz de Aguirre funtsa.S:Fondo fotográfico Si:657N1_16_E3H16-E3 V:Original; Poliéster L:K01-16-E3. 1630

batzuen erabilera planifikatua¹⁸. Konplexutasunaren jabe, baina helburu analitikoaren mesedetan, Alejandro Pizarrok, definizio hori gerra propagandaren sinonimo egiten du; eta guk ere, hala ulertuko dugu¹⁹. Ondorioz, propaganda, gerratik bereizezina den fenomeno bat da. Gerrako beste alderdi bat bilakatzen da; gerraren luzapena hain zuzen ere.

Propagandaren barnean kokatzen den beste fenomeno bat da sarraski propaganda, ingelesez *atrociti propaganda*, eta beste alderdiak egindako krimen edo basakeria baten erabilera propagandistikoari deritzo. Gerra Zibilean zehar izandako propagandaren zati handi bat, sarraski propagandaren inguruan zentratu zen; eta, hasieran behintzat, gehien gailenduko zen propaganda mota izan zen. Gisa honetako berrien erabileraren lehen azterketak Lehen Mundu Gerra amaitu ostean hasi ziren, eta fenomenologia hau, historiako garaiko gerra guztietan gertatzen zela ondorioztatu zuten²⁰. Egun aldiz, Gerra Handian hartu zuen izaera zela eta, gertakizunaren modernotasuna onartzen da: estatuek zuzendu, eta mass mediaren (prentsa eta zinea) bidez zabaldu ziren albiste eta mezuak. Gainera, gerraren metodo tradizionalak arbuatu (biolazioak, erailketak...), eta Lege Internazionalarekiko eta humanitarismoarekiko zerikusia zuten diskurtsoek, indarra hartu zuten XX. mendean zehar. Hortaz, gerra, modu zibilizatu batean burutu behar zela ondorioztatu zen: alde batetik, estatuak, beraien krimenak justifikatzera behartuak ziren; eta beste aldetik, kontrako alderdiak egin zitzakeen krimenak, ordena zibilizatuaren aurkakoak bihurtzen ziren, basakeriatzat hartzen. Hala, sarraskiak, gerraren bilakaeraren narratiban txertatuko dira.

Propaganda era honek sekulako gorakada bizi izan zuen Lehen eta Bigarren Mundu Gerren artean, batez ere, erregimen totalitarioen aldetik. Adibide garbienak, SESB edo Alemania Naziak, aurkariak gauzatutako garbiketa politikoen salaketak, edo Italiar faxismoak Abisiniako konkistaren justifikazioak dira. Negusek nazioartera zuzendutako propagandak, zentzu handi batean, bide berbera hartu zuen, Italiarrek triskantza gerra bat zuzendu zutela zabalduz. Errepublikara garaietan, Espainian bertan, izango da adibideren bat edo beste. Esaterako, 1934ko Urriko Iraultzan, ezkertiarrek errepresio gogor eta neurrigabea salatzen zuten bitartean, kleroaren kontra egindako gehiegikeriak salatzen zituzten eskuindarrek²¹. Aurrekari hauek guztiak kontuan zituztela ekingo zion lanari Gerra Zibilean zehar propagandista lana egin zuen edonork.

Propagandak zuen garrantziaren jakitun, ez da kasualitatea Euskal Gobernuak, eta nazionalistek bereziki, gerra hasi eta berehala, bere burua aurkezteko, mundura bideratuta hartu zuten jarrera. Hala, konbentzimendu politikoez baino, zuen balio propagandistikoak kontuan harturik, helburu nagusietako bat gerraren humanizazioa izan zuen; hau da, XX. mende hasieran zehar garatutako lege internazionalaren baitan jokatzeko saiaturik²². Besteak beste, hasierako milizien *justizia erreboluzionarioa*²³ kontrolpean hartzea, trukaketa masiboak bultzatzea, kartzeletako egoerak hobetzea, zibilen ebakuazioa baimentzea eta bermedun justizia ezartzea ditugu adibide gisa. Ildo honi jarraituz, bestalde, beren lurraldean gertatu ziren gehiegikeriak, ezkutatu beharrean zabaldu egin zituzten (edo gutxienez ez zituzten erabat zentsuratu)²⁴. *Euzkadiren* artikulu batean, *La propaganda de la guerra* titulupean, hala zioen: *Veracidad, seriedad, sobriedad, he ahí las*

¹⁸ Daugherty eta Janowitz (1958), 2

¹⁹ Pizarroso (2005)

²⁰ Laswell (1927), 77-89

²¹ Garcia (2007), 673-4

²² Demokraziaren alde hartutako erabakiak EAJren lider batzuk tartean Iruxok hartutako bide “demokristauek” iraultzeko *turning point*-a osatzen du. (Tusell, 1993)

²³ Barroso (1996)

²⁴ Steer (2019) idea nagusi bat erabiltzen zuten sarraskiak justifikatzeko *gentes extrañas al país*

*cualidades que han de sobresalir en esta empresa de dar a conocer al mundo quienes somos y como somos en medio de la conmoción de la guerra*²⁵.

Gerra Zibileko propaganda, era zabalean ikertu dela ikus dezakegu. Izan ere, gerrako agente ezberdinek eginiko gerra propagandaren gehiengoa egiteko (bai barnera zein nazioartera begira eginikoa) antolatu zituzten erakundeak, ondo ezagutzen dira. Hala, Alejandro Pizarrosok, garai hartan eratutako erakunde gehientsuenak zeintzuk diren adierazten dizkigu artikulu batean. Bertan, lehenbizi, propagandaren oinarri buruzko hausnarketa bat eskaintzen digu, non, bere iritziz, Gerra Zibila, propagandaren historian, irratia agerkeria zela eta, mugarriz jotzen baitzuen²⁶. Dimentsio internazionalari dagokionez, gaingiroki hitz egiten du, gehienbat Falangeak sortutako *Falange Exteriorri*²⁷ eginez erreferentzia. Antonio Morenok, 1936-1945 bitartean, Britainia Handian falangearen ordezkari izandakoek egindako propaganda aztertu du²⁸. Ez Frantzian, ez eta Ingalaterran, Falangea ez zen inolaz ere eragile nagusia izan. Horrela, nazioartean izandako bestelako erakunde garrantzitsuenak, Pizarrok berak aztertu ditu. Besteak beste, Erresuma Batuari buruz, prentsan gerrako bandoekiko begiradaren nolakotasuna eta haiei laguntzeko sortutako komiteak aipatzen ditu; *National Joint Committee* eta *Friends of National Spain* izango dira, hauen artean, esanguratsuenak²⁹. Egiatan, Britainiar Irletako irudia, ez da asko aldentzen Michel Alpertek aurkeztutakotik³⁰. Erresuma Batuko kasurako baina, Hugo Garciak eginiko lana da, ez bairik gabe, Gerra Zibilaren propagandaren inguruan egin den lanik zehatz eta argigarriena. Izan ere, sarraski propagandaren barrunbeak, kirurgikoki aztertzen ditu bere tesian³¹. Herbert Southworthen tesiak ere, antzeko pulsu irmoz disezkatzen du, Gernikaren bonbardaketaren inguruan, Erresuma Batuan, eta, batez ere, Frantzian izandako eztabaida³². Azkenik, bi autore hauez gain, Enrique Moradiellos historialariak, London hiriburua duen herrialdean egindako lehen hurbilketak aipatu behar dira³³.

Euskal lurraldetik kanpo, Parisen publikatutako *Euzko-Deya* aldizkaria da, ez bairik gabe Euskal Gobernuaren saiakera propagandistiko ageriko eta garrantzitsuena. Ondorioz, historiografiak ondo aztertu du bere egituraketa eta azaltzen duen diskurtsoa. *Euzko-Deyaren* lerro nagusiak, Euskaldunak eta Errepublikarrak ondo bereizteaz gain, berriro ere, euskaldunen eredu garrantzitsuenaren ideia azpimarratzen du etengabe³⁴. Ezberdintasun horrek oinarri politikoa du; hau da, euskal ezberdintasuna azpimarratuz, irabazi politikoak eskuratu nahi ditu. Horregatik, *Euzko-Deyak* propaganda bizefaloea egiten duela argudiatu izan da³⁵. Euzko Jaurlaritzak, Bilbo erori arteko garaian, departamentu ezberdinek sortutako esku-orri eta hainbat irati-emisioei buruzkoa ere ikertu ditu Lorenzo Garciak³⁶. Erbestean, Parisko delegaritzaren baitan eratutako Propaganda departamentua (*Propaganda y Relaciones Exteriores*) ere, ezaguna da, nahiz eta ez den horrenbeste zehaztu bere egitura. Antonio Irala, lehenbizi, eta Jesus Leizaola, ondoren, izango dira departamentuaren buru³⁷. Egitura honekin, harremanetan sortutako inizatibak, nahiko ondo aztertuta daude, Euskal Gobernuaren *fronte kulturala* deitu

²⁵ *Euzkadi* (1937-04-13)

²⁶ Pizarroso (2005)

²⁷ González-Calleja (1994) FET exteriorren osaketa eta funtzionamentua aztertzen du

²⁸ César (2010), 63-67

²⁹ Pizarro (2001), 88-89

³⁰ Alpert (1984)

³¹ Garcia (2008)

³² Southworth (2013)

³³ Moradiellos (2001)

³⁴ Rojo (2008)

³⁵ Jimenez (1999)

³⁶ Sebastian (2012)

³⁷ SAF-DP-2373-2; Irala kanpora joatean Pedro Basalduak hartuko du bere gain propagandaren egite operatiboa, nahiz eta Agirrearen faltan Leizaola izango da erabakiak hartuko dituen

zaielarik. Besteak beste, Eresoinka, Elai-alai, Euzkadi futbol taldea, eta zinemaren kasuak hartuko ditu fronte horrek. Aipatutako azken arloa, Santiago de Pablok azaleratu ditu; bertan sartuko dira, bai azken arlo honetan produzitutako pelikulak, bai eta euskarri audiobisualetan, euskaldunei buruz Ingalaterran sortutako iruditegia ere³⁸.

Bukatzeko, *Liga Internacional de los Amigos Vascos* (LIAB) aipatu behar da. Nahiz eta Gerra Zibil bukaerarako osatu, Euskal Gobernuaren pantaila legala bilakatu zen Frantzia gerra ostean. Bestelako herrialdeetan, Britainiar Handiaren kasuan bezala, sekzio nazional berri bat sortzeko saiakerak izan ziren. Egindako ahaleginek ez zuten emaitza handirik eskaini, baina badirudi, historiografiak onartzen duena baino urrunago heldu zela Albion desleialean sortutako sekzioa³⁹.

Ikus daitekenez, ondo ezagutzen dira, bai Errepublikak, bai errebeldeek, bai eta Euzko Jaurlaritzak ere osatu zituzten propaganda egiturak. Hein handi batean, Erresuma Batuan, gerran zehar osatutako makinaria eta haien nondik norakoak ezagunak dira, nahiz eta hori ez den hala euskal kasurako. Bestalde, Euskal Gobernuak atzerrira helarazi zituen mezuak, orokorrean, badakizkigu zeintzuk izan ziren: euskal kasuaren singularitatea, euskaldunen eredugarritasuna eta euskal tragedia, Euzkadiren aurka egindako inbasio krudela... Hala ere, Ingalaterraren kasu konkretuan propaganda horren egituraketa eta informazioaren barreiaketaren nolakotasuna ezagutzea falta da.

Euskal nazionalismoaren Kanpo-harremanak: paradiplomazia eta protodiplomaziaren artean

Londoneko Euskal Delegaritza aztertzerako garaian, kanpo harremanei buruzko teoriak garbi izatea ezinbestekoa da. Izan ere, Gernikako estatutuaren ostean, Euskal Gobernuak bidalitako delegaritza, eta hark aurrera eramandako politika kalifikatzeko, erabat beharrezkoa da teoria hauek osoki ulertzea. Estaturik gabeko aspirazioa duten nazioak eta erregio mailako erakundeek, mundu mailako harremanetan jokotutako papera aztertzeko, hainbat termino plazaratu izan dira. Guri, bi izango zaizkigu axola: protodiplomazia eta paradiplomazia. Bi hitzak definituta, euskal nazionalismoak, kanpo-proiektzioaren aldetik izandako tokia definitu ahalko dugu.

Azken urteetan, eta eztabaida ugari izan badira ere, bi terminoen inguruan Zidane Zeraouik proposatutako esangura erabiliko dugu, ulertzeko errazena iruditzen zaigun heinean. Paradiplomazia, erregio eta aktore ez estatalek politika nazionalarekin batera egiten duen diplomaziaren pareko lanek osatuko dute, era konbergentean. Aldiz, protodiplomazia, paradiplomazia disruptibo bat bezala ulertuko dugu. Horrela, estatuaren azpiko agenteak, politika nazionalaren aurka eta euren interesen alde egiten duten kasuetan, protodiplomaziaz aritu beharko gara. Askotan, erregio eta aktore ez estatalak, autonomia gehiago, edo estatu propio bat eskuratzeko estrategiak jarraitzen dituzte protodiplomazia egiten ari direnean. Hala definitzen ditu bi terminoak Zeraouik bere hitzetan⁴⁰:

Nuestra propuesta analítica es utilizar el término de paradiplomacia, con todas sus limitaciones, como un concepto 'paraguas', que incluya a todas las demás acepciones que representan casos específicos de política internacional de las regiones. La diplomacia convergente, por ejemplo, representa una paradiplomacia de la región complementaria de la política nacional, mientras que la protodiplomacia es una paradiplomacia con visos al separatismo. (...) el alcance de la

³⁸ de Pablo eta Basterretxea (2006); de Pablo (2018).

³⁹ Larronde, (1998); Arrieta (2021), 161

⁴⁰ Zeraoui (2016), 16 eta 32

actividad internacional de los gobiernos intermedios depende de su propia voluntad y de su capacidad de negociar con el poder central.

Ondorioz, ente edo mugimendu guzti horiek egindako politikak, paradiplomazia hitzaren barnean txertatzen ditu; hau da, konbergentea edo dibergentea izan daiteke paradiplomazia. Horrez gain, paradiplomazia norainokoa izan daitekeen, testuinguruko indar korrelazioak (estatu zentral eta bestelako agenteak) eta erregio edo agenteen desioen baldintzek definituko dute.

Hala ere, Euzko Jaurlaritzak, eta zehazki, Londoneko gobernuak aurrera eramandako politikak definitzeko, ez da nahikoa bi hitz hauen nondik norakoak adieraztea. Bi termino horiek, akzioak definitzen dituzte estrategia orokorrak baino gehiago. Gerraren lurrunkortasunak eta etengabeko testuinguru aldaketek bat edo bestera hartzera eraman dezakete. Ordea, erabaki hauen azpian, estrategia konkretuak ezkutatzen badira, beste zerbaitetaz hitz egin behar dugu. Gerra Zibil garaian, Euskal Gobernuaren kasurako, Alexander Ugaldek teorizatu du goian esandakoa. Eta Jaurlaritzak aurrera eramandako politika aztertu ostean, aurretiaz zegoenarekin alderatuta *beste zerbait* sortu zela kalifikatzen du. Beste zerbait hori Kanpo Harremanetarako politika propio bat da⁴¹. Gerra Zibilean zehar osatuko den Kanpo Harremanetarako politika eratu aurretik, baina, goazen ikustera zer nolako egitasmoak eraman zituzten aurrera euskal nazionalistek.

Nazioarteko harremanen inguruan egindako lehen lana Xose Estevezena da. Bertan, proto-diplomazia terminoa erabili zuen euskal nazionalistak 1914tik 1937 bitartean izandako harremanak azaltzeko⁴². Katalanekin alderatuz, Euskal Alderdi Jelkideak (EAJ) eta euskal nazionalismoaren kanpo harremanetara bideratutako ekintzak, nahiko berantiarak direla ondorioztatzen du. Zentzu honetan, aipagarria da ez dela urratsik ematen Lehen Mundu Gerra arte. Gainera, gerraren ondorioz, mugimendu nazionalistaren barneko tentsioak nabaritzen zirela ikusi du. Aliatuen aldeko sentimenduak zituztenen eta neutralisten aldekoen arteko tentsioak, Luis Aranaren kanporaketarekin bukatu ziren. Alabaina, liskar hauek ez ziren soilik nazioarteko kontzepziara mugatzen.

Gerra bukatzean, ilusio handiz hartu zuten Wilsonen doktrina delakoa *Comunión Nacionalista Vasca* taldekoek (CNV). Polonia eta Txekoslovakiaren independentziak eredu izan zitezkeela uste zuten Euzkadiren aspirazioak betetzeko. Besteak beste, Versalleseko ituna sinatzerakoan, jelkideen ordezkari bat azaldu zen bertan. Zoritxarrez, nazionalismoaren prisma lokalista batetik irakurri zituzten *Comunione*koek presidente estatubatuarrek iradokitako puntuak. Puntu horien ondorioz sortutako Nazioen Ligak, independentziak baino autonomiak hobesten zituen, euskal nazionalismoaren planteamendu maximalistekin bat ez zetorrena. Ez da ahaztu behar CNV izena 1916an hartuko dutela. 1921ean CNV bitan banatuko da; beste taldeak Aberri izena hartuko du. 1930an berriro batuko dira bi korrante hauek.

1920ko hamarkadan, minorien aldeko autonomismo horrek sortutako desilusioak zein diktaduraren presioak, kanpo harremanetara bideratzeko errekurtsu gutxirekin utzi zituen nazionalismoaren korrante ezberdinak. 1924ean T. Uribe Echeverriak erabat utopikoa zen nazio zapalduen buruzko liga bat osatzeko proiektu bat aurkeztu nahi izan zuen. Mexikon, Aberriarrek sortutako *Comisión pro-independencia vasca*k Nazioen ligara manifestu bat aurkezteko arrakastarik gabeko saiakerak egingo ditu Peruko gobernuaren bidez. Eta, Eli Gallastegik berak, zuzenean, 100 kopia bidaliko ditu Genevara⁴³.

⁴¹ Ugalde (1996a)

⁴² Estevez (1995)

⁴³ Estevez (1995), 260 *El mismo manifiesto fue publicado por el Comité Pro-Independencia Vasca de Gallastegi en Mexico (Patria Vasca, abril-mayo 1930, 13-9 1930ko apiril-maiatza bitartean nahiko errebolta izango da gutuna jaso*

Bi kontaktu arin hauez gain, ez da ezer gehiagorik nabari. Diktadura lasaituta, eta Joan Estelrich katalanari eskerrak. 1930 irailen VI. Nazioarteko Gutxiengo Nazionalen kongresuan, Pantaleón Ramírez de Olanok parte hartuko du. Aurreko urtean, 1929koan, Odon Apraiz aritu zen (ez parte hartzaile, baizik eta behatzaile lanetan)⁴⁴. 1930ko Kongresua geroztik, eta Londongo 1937ko kongresura arte, EAJren ordezkariak izango dira ia kongresu guztietan, 1936ko irailen izandakoan salbu.⁴⁵ Londongo Biltzarrera, Ramon Sota eta Antonio Labayen joan ziren, baina argi geratu zen Alemaniarrek kontrolatutako ente bat zela Nazioarteko Gutxiengo Nazionalen kongresua. Labayeni, lehendakari eta diputatu ingeles liberalak, Lord W.H. Dickinsonek, ez zion utzi euskal kausa aurkezten; eta euskal nazionalismoaren alde eta bando nazionalaren aurkako deklarazio bat eskuratzen saiatu zirenean ere ez zuten deus eskuratu.

1930ko hamarkadan, Europan, garaian bogan zeuden Emmanuel Mounierren pertsonalismoa eta federalismo integral edo proudhonianoa uztartuz, lider nazionalistek beraien marko ideologikoa osatuko dute. Hala, nahiz eta estatuaren beraren beharra argi ikusi, Estatuak gizakia hutseratu egiten duela iritziko dute. Hori dela eta, ideologia kolektibista eta indibidualismo liberalen aurrean, subjektu zentralak pertsona izan behar duela uste izango dute, giza-harremanen garrantzia azpimarratuz, gizaki bakoitzaren komunitate naturalean eman behar diren garrantzia nabariko dutelarik. Horregatik federalismo integratzailearen ideia hauspotuko dute, *unidad en la diversidad* lemapean. Hori dela eta, estatu ezberdinen federazioa bultzatuko dute, estatu horiek berau sortzen zuten komunitateetan bildurik izango direlarik, betiere⁴⁶.

Errepublikaren etorrerarekin batera, eta osatzen zebiltzan marko federalista hori kontuan, euskal arazoa nazioartera plazaratzeko behar argia ikusiko dute lider nazionalistek. Jose Maria Izaurietak, 1931ko uztailen, kanpora begira aparatu propagandistiko bat sortzea proposatuko du. Horrez gain, aurrerago aztertuko dugun 1933ko Aberri Eguna, Euzkadi-Europa deituko da, eta bertan, Nazioarteko Gutxiengo Nazionalen kongresuko idazkaria den Ewald Ammende bertaratuko da Donostiara.

Ikus daitekenez, Gerra Zibil garairako, EAJk eta Euskal Gobernuak burututako iniziatiba internazionalak ez dira inolaz ere berriak; batik bat Errepublikaren garaian indartuko dira. Hala, ildo beretik jarraituko dute 1936ko gerra hasi ostean, nazioarte mailan antolaturiko hainbat batzarretan parte hartuz. Euzkadin bizi zen egoera latza eta euskal nazionalismoaren arrazoiketak plazaratzeko erabiliko dira ente horiek. Besteak beste, aipatu dugun Londoneko Nazio gutxituen ligara joan baino lehen, 1936ko abenduaren 19an, Parisen izandako Munduko Gazte Antifaxisten kongresura joango dira. EAEk eta EAJk bere ordezkariak propioak bidaliko dituzte. Bertan, EAEk bidalitako bi pertsonak, demokraziaren baloreak goraiapatuko dituzte. EAJk bidalitako zazpi ordezkariak, ELA eta Euzko Nekazarikoak gehienak, antzeko diskurtso bat egingo dute, baina euren posizioa azaltzean beraien katolikotasuna azpimarratuko dute. Ildo beretik, apaizen erailketak ere salatuko dituzte⁴⁷.

Budapesten izan zen 34. nazioarteko kongresu eukaristikora ere bidali zuten euskaldunen ordezkariak bat. 1938ko maiatzaren 25-30 bitartean, Aita Barandiaran, Alberto Onaindia eta

izanaren adierazpena bidali edo ez. Pablo De Azcarateri galdetzeraz helduko dira Nazioen Ligako funtzionariok. Azcaratek ez maiatzean ez du arrazoirik ikusten jaso izanaren adierazpena ez bidaltzeko. Naizoen Ligako artxiboa; R1858/1A/18990/18990 <https://archives.unige.ch/situation-des-basques-en-espagne>

⁴⁴ Ugalde (1997)

⁴⁵ Estevez (1992)

⁴⁶ Arrieta (2007), 39-40

⁴⁷ EI.MI. C.23-J-19 (4043) Informe presentado por los jóvenes nacionalistas vascos a las juventudes democráticas antifascistas con motivo de un congreso celebrado en París el 19 de diciembre de 1936. *Euzko-Deya*, Paris, (1936-12-24) (1936-12-27)

Eduardo Eskarzaga, bertan egon ziren, kontaktu ezberdinak eta Goma buru zuen komite espainiarrari kontrapropaganda egiten⁴⁸. Horrez gain, Nazioen Ligaren inguruan ere, hainbat ordezkari bidali ziren misio ezberdinekin. Xabier Landaburu bitan izan zen: 1938ko urtarrilean, Doroteo Ziarruizekin batera preso trukaketak negoziatzen; eta irailean propaganda egiten, Izaurietarekin⁴⁹. 1937ko irailean, Monzon eta Lizaso ere Genevan izan ziren; aurrerago aztertuko den bidaia batean.

Gerran zehar egindako nazioarteko bidaia hauez gain, delegazio sare bat ere funtzionamenduan jarriko da pixkanaka. Hasierako ordezkariak komertzialek, ordezkariak politikoei egingo diete bide, eta hala jaioko da euskal kanpo harreman politika. Alexander Ugaldek teorizatutako euskal *paradiplomazia*,⁵⁰ Ingalaterran, nola egikaritu zen aztertzea da, hain zuzen ere. Ez da ahaztu behar, Londoneko delegaritzak egingo duen propaganda, marko diplomatiko internazionalen eragiteria bideratzen dela. Euzkadirentzat ahalik eta etekin politiko handiena eskuratzea da azken xedea, ahal bada independentzia; eta independentzia hori, gerraren ondorioz sortuko den negoziaketa mahaitik etorriko litzateke⁵¹.

Politika horren marko orokorra, lehendabizi Bilbotik, eta ondoren Bartzelona eta Paristik zuzendu zen. Marko internazionalen Estatu bat bezala plazaratu baino, hasiera batean, kontaktuak, era ofizioso batean bilatu zituen Euzko Jaurlaritzak kanpo-harremanetarako ministerio ezberdinekin. Gerrak aurrera egin hala, Ingalaterraren kasuan behintzat, egindako proposamenak ausartagoak izan ziren. Euzkadi erdi-bakarturik zela probestuz, Euskal Gobernuaren politika, gerrak sortutako beharrak asetzeri bideratu zen: kanpo-merkatariak egin, itsas- eta aire-garraioa antolatu, ebakuazioak negoziatu edo gerra materiala erosi. Behin lurraldea galduta, propaganda areagotu egingo da, eta honekin batera, *Foreign Officerekiko* (FO) hartu-emanak ere areagotuko dira. Euskal Gobernuak jeltokideak, gerra bukatu ostean gertatuko zenaren aurrean prestatzen ari ziren, eta estatu demokratikoak bere alde nahi zituzten.

Kudeaketa horiek egitean, zeharo gaintzen ziren 1936ko urrian onartutako Estatutuaren kompetentziak. Ondorioz, autore batzuk Euzkadiri buruz, estatu ia erabat burujabe eta subirano baten gisara hitz egiten dute, minimoko estatutu batetik, gerra-egoerak lagunduta, maximoetara eramane zutelako marko kompetentziala⁵². Estatu erdi-burujabe horren helburu nagusiak, Britainia Handian, hurrengo hauek izango ziren⁵³:

- Helburu nagusia, altxamendu militarren aurrean, legitimitate Errepublikarra azpimarratzea zen. Horretara bideratu zen propagandaren zati nagusi bat eta Gerran Britainiar Handia sartzea bilatzen zen.
- Betiere, Euskal arrazaren ezberdintasuna eta euskal autonomia azpimarratzen ziren goian aipatutako propagandan; horretarako, euskal erakundeen kasu berezia ezagutarazten zen. Lortutako maila autonomikoak mantentzeri bideratzen zen propaganda hau, eta ahal izanez gero, horiek handitzera. Hala, Gobernu Britainiarrak, Euzkadi aintzatestea bilatuko zuten; ofizialki ez bazen, gutxienez, bederen, ofiziosoki.
- Isolatuta zegoen euskal lurraldeak beharrezkoa zuen oro eskuratzeko gestioak egitera bideratu zen, izan komertzialak zein humanitarioak.

Londonekoaz gain, munduan zehar osatutako delegazio sare handi bat osatu zen. Antzeko helburuak zituzten guztiek; hau da, Euskal Gobernuari gerra irabazten laguntzea, bakoitzak bere

48 EI.MI. C.23J-32 (13622) Informe de Alberto Onaindía sobre su viaje, con Eduardo Eskarzaga y José Miguel de Barandiarán, al congreso internacional eucarístico de Budapest.

49 Arrieta (2001), 122-3 eta 140-1

50 Ugalde (1996)

51 EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02

52 de la Granja (1988)

53 Alexander Ugalde (1996b)

berezitasunak mantentzen zituen arren. Hala, batzuk, propaganda eta diplomazia egitera gehiago zentratzen ziren bitartean, beste batzuk, lan asistentzialaz arduratzen ziren gehiago (hau da, aktibitate ekonomikoak eta errefuxiatuen asistentzia). Gerra Zibilean zehar saretzen hasitako nazioarteko *network* internazional honek, Bigarren Mundu Gerraren bigarren zatian, Estatu Batuarren laguntzaz, eta gerraostean Errepublikaren diruari eskerrak, unerik goxoenak bizi izango zituen. Izan ere, erbeste errepublikarrean eta mundu mailako hainbat kantzilergoetan, eragin izugarria eskuratuko zuten. Munduan zehar, Euzko Jaurlaritzaren menpe ardaztutako ordezkariak horiek, pixkanaka, gero eta gehiago ezagutzen ari gara⁵⁴. Estatu Batuetan izandako ordezkariak euskalduna historiari berri ditu David Motak bere diakronia osoan⁵⁵. Bestelako delegazioen xede eta organigramak, gehienbat delegatu eta idazkariak, zehaztuta daude, nahiz eta bigarren postuetan zeintzuk izan ziren jakitea falta den. Gainera, ordezkariak bakoitzak bere baitan ia-ia monografia bat beharko luke bere egitekoa zehatz mehatz aztertzen duena. Hala ere, ofizina komertzialak ez dira horrenbeste ezagutzen. Hortaz, egitekorik badugu aurretik oraindik ere.

Delegariak horietan, euskal nazionalisten nagusitasuna izugarria izan zen, gobernuan bezalaxe. Ez da ahaztu behar, gobernu horren hegemonia izan zuen EAJaren jarrera ezaguna dela; delegariak kontrola izatean, gisa hartara jokatzeko ordezkariak.⁵⁶ Ondorioz, alderdiko partaideak ziren pertsonaiak izan ziren, munduan zehar ezarritako ordezkariak eta azpi-ordezkariak bideratu eta zuzendu zituen gehiengoa. Noizbehinka, benetako liskarrak izan ziren, gailentasun horren kexu azaldu zirelako beste partidu batzuk. Horrez gain, EAJ barnean izandako liskarrak ere azaleratu ziren. Gehienbat, Gobernuaren eta EBBren arteko tirabirak ziren barne borroka horiek sortuko zituenak, partiduaren kontsignak jarraitu beharrean, gobernuari (Agirre edo Irujori) men egiteagatik

1. JOSE INAZIO LIZASOREN BIOGRAFIA

Memoriari hasiera emateko ezarritako helburuetako bat beteko dugu: Jose Inazio Lizasoren biografia txiki bat osatzea. Londoneko delegazioaren izaera ulertzeko instrumentala iruditzen zaigu Londoneko Euzko Jaurlaritzaren delegariaren lehendabiziko hamar urteetan bere ordezkari nagusia izandakoaren biografia xehetzea. Hutsune bibliografiko bat pixkanaka betetzen joateko parada dugu lan honekin gainera, hau da, Euskal Gobernuaren politikaren baitan bigarren lerroan izan ziren horiek hobeto ezagutzearena. Leyre Arrietak Francisco Javier Landabururi buruz egindako biografia aipatu behar da zentzu honetan. Arrietak dioen bezala Landaburu *No fue un hombre de "Primera Fila" ni es un grand personage*⁵⁷ baina euskal politikaren nondik norakoak pentsatzen lagundu eta exekutatu zituen pertsonaia izan zen, Lizaso bera bezala.

Jose Inazio Lizaso. Nor izan zen ezagun ezezagun hau?

Jose Inazio Lizaso, Londoneko delegariaren lehendabiziko ordezkaria izango dena, horren ezaguna den ezezaguna dugu. Euskal erbesteko politikari esanguratsu honek Londonen kontaktu-sare ederra osatu zuen Gerra Zibil eta Bigarren Mundu Gerra garaian eta Euskadiko Batzar Nagusiko kide izateaz gain, organismo honek Frantzia Askearekin, Euzkadiren izenean,

⁵⁴ Alvarez *et al.* (2011) Anasagasti *et al.* (2018).

⁵⁵ Mota (2016)

⁵⁶ de Pablo *et al.* (1999)

⁵⁷ Arrieta (2021), 12-13.

1941ko maiatzak 17an, izandako akordioa berak sinatu zuen⁵⁸. Rene Cassin Baionarrak sinatu zuen Frantziaren izenean. Esangura historiko handiko dokumentua da. Frantziar erakunde batek nazioarteko erakunde bat bezala kontsideratzen baitzuen Euskal Gobernu lehendabizikoz. Gertakari horren garrantzitsuetan parte hartu zuen pertsonaia honi buruz ezer gutxi dakigu. Esaterako, historiografiak berak bere jaioterria ez du garbi. Juan Carlos Aberasturik, Pedro Beitiaren autobiografiari jarraiki Donostiarra dela esaten digun bitartean, Iñaki Anasagastik, eta ziurrenik Jose Ariztimuñorekin, *Aitzol* ezagunarekin, zuen adiskidetasuna medio, Tolosarra dela adierazten digu⁵⁹.

Lan honetan donostiarra zela baieztatu dezakegu. 1907ko azaroaren 18an jaio zen Lizaso, Donostiako alde zaharreko Embeltran kaleko 4. zenbakian. Bere aita Bonifazio Lizaso zen, ofizioz arotza. Ziburukoa zuen ama, Margarita Illaraza. San Vizenteko elizan batailatuko zuen Jose Sotero de Echeverriak jaio eta bi egunetara. Ez da bere hirian hilko, amaren lurraldean baizik. Angelun zenduko da 70 urte zituela, 1978ko urtarrilaren 13an. *Unidad, El Diario Vasco* eta *La Voz de Españan Banco Guipuzcoanoko* langileek argitaratutako hil-mezuetan 70 beharrea 81 urterekin utzi zigula diote. Bere berri oso gutxi dakigula adierazten digun beste seinale bat⁶⁰.

Lizasoren lehendabiziko urteei buruz, ezer gutxi dakigu. Badakigu bere bi izeba dirudunen laguntzari eskerrak bigarren mailako ikasketak jasoko zituela Britainia Handian. Izeba horiek, Benita eta Daniela Lizaso ziren. Ez zuten umerik izan, eta Cristobal Balentziaga diseinatzaile ezagunarekin batera denda bat zeukaten Donostian. Balentziagak urte bete lehenago ireki zuen denda, inbertitu zuten 1918an eta sei urtez, 1924 arte, Donostiako Bergara kaleko 2. zenbakian izango zen *Balenciaga y Compañía* izeneko enpresaren jabe ziren. Balentziagaren amaren abizenaren omenez, Martina Eizagirre, *Eiza* izena hartzen zuen dendak⁶¹.

Ingelesa ikastearekin batera, Britainiar irletan zaletuko zen ziurrenik kirolaren praktikara Lizaso. Handik itzuli eta Jose Inaziori buruz prentsan aurki daitezkeen lehen aipamenak zentzu honetan doaz. 1925an, Gipuzkoako ohol-jauziko txapelketan hartu zuen parte. 1926an, bi urte lehenago sortutako Euskal-nafartar mendizaleen federazioan alta eman zuen Donostiako Fortuna C.D. taldearen baitan eta urte bete beranduago, 1927ko uztailean Tolosako Futbol taldeak fitxatuko du. Bertan bizpahiru urte egin eta Gipuzkoako selekzioarekin Pariseko talde baten aurka ere arituko da 1928an. Partida hau dela eta Gerra Zibilean zehar prentsa britainiarrak jokalaria internazionala bailitzan aurkeztzen du. Behin jokalaria izateari utzita, epaile lanak egingo ditu. 1931an Gipuzkoako Federazioko epaileen idazkari-diruzaina izanik⁶².

Tolosan futboleko zebilela ezagutuko zuen seguraski bere emazte bilakatu zen Carmen Saizar Galarmendi. Saizar, Amasa-Villabonako posizio oneko familia abertzale bateko kide zen. Vitoriano Saizar Arteaga zuen aita. Rufino Blenerrekin batera 1904an adreiluak egiten zituen Blener eta Saizar enpresaren jabea. EAJri afiliatua, herriko alkatea izana zen Saizar 1899 eta

⁵⁸ Mees, (2008), 576-577, *gracias a la excelente red de contactos que en Londres cultivaba el delegado del Gobierno vasco José Ignacio Lizaso, los nacionalistas vascos y los catalanes consiguieron entrar en el Foreign Office británico*.

⁵⁹ Aberasturi eta Moreno (2009), 272; Anasagasti eta San Sebastian (2018), 44; SAF-DP-883-09 Aitzolek Lizasori (1936-09-27). Aristimuñok idatzitako azken gutuna agian.

⁶⁰ Donostiako elizbarrutiko Artxiboa. San Vicente de los Martires. Libro 2. Folio 39, 246 M-418-02; Ironikoa da bankuko langileek jarritako eskeletan 81 urte zituela adierazten baita. Datu hau gaizki dago. 71 urterekin zendu baitzen.

⁶¹ EAH, Pedro Beitia funtsa Se:Funtzio pertsonala. Si:C06-06/07; Balentziaga Museoko erakusketa iraunkorra. Balentziagaren biografiaren kronologia.

⁶² *La Tarde* (1925-08-23); *La Tarde* (1926-05-6); *La Tarde* (1927-07-4), *La Tarde* (1928-05-08) *Star* (1937-01-20) *Evening Standart* (1937-05-10).

1932an. Gerra Zibilean hilko dute nazionalek. Saizarren alabarekin, Carmenekin 1932ko urtarrilaren 15ean ezkonduko da Lizaso Lezoko Santutegian. Jose Ariztimuñok egingo du ezkontzako elizkizuna, eta eztei bidaian, Frantziako kapital ezberdinak bisitatuko dituzte. 1932ko urtarrilaren 16ean *El Dia* berripaperaren kontrazalean Carmen eta Lizasoren arteko loturaren argazki familiar bat argitaratzen da [Ir.1]. Egunkariaren langileek beren *querido amigo y excompañero* izendatzen dute Lizaso, hortaz, bertako langilea izan zela badakigu. Erredaktore lanak egin zituen kazetaria izan zen⁶³.



Ir.1. *El Dia* (1932-01-16). Iñaki Lizaso eta Carmen Saizarren ezkontza

El Dia egunkaria Damaso Berenguer, *Dictablandaren*, garaian sortuko da, 1930ko ekainak 1ean. Errepublikara garaian zehar Donostiako kazeta arrakastatsuen bilakatuko den egunerokoa Okendo kaleko 6. zenbakian argitaratuko da. Argitalpenaren lehendabiziko zenbakian ala definitzen da bere editorialean *fiel y sumiso al magisterio de la iglesia* eta *sentimiento vasquista*. *El Pueblo Vasco* (1923-1930) utzitako hutsune erlijioso eta euskalduna betetzera zetorren. Aipatutako editorial horretan, *independiente de todo partido político* dela adierazten du, baina, *Comunión* lehendabizi eta ondoren EAJren bozeramaile bilakatu da. Hala ere, kontuan izan behar da organikoki ez dela inoiz inongo partidu politikoren parte izango. Gainera, arazoak izango dira EAJ eta argitalpenaren artean. Hainbeste ezen, 1935eko Zumarragan ospatuko den Gipuzkoa Buru Batzarren (GBB) urteroko bileran partiduaren bozeramaile izango zen egunkari bat erosi edo sortzeko proposamena luzatzen zen, nahiz eta iradokizuna inoiz gauzatu⁶⁴.

Jose Ariztimuñori egotzi izan zaio berripaper honen sorrera eta zuzendaritza. Egia da, artikulu ugari idazterekin batera editorial asko hark idatziak direla. 1935ean hilabetero 250 pt. jasoko zituen egunkari honetan egindako lanaren ordainetan. Hala ere, eta hein handi batean kapital euskalduna badu ere, PECSAren (Prensa Editorial Católica S.A.) eskuko kazeta da, *El Debate* madrildarra administratzen duen taldea hain zuzen ere. Egunkari honek baina salbuespena bat du, administrazioaz eta zuzendaritzaz gain *Comité de Inspiración* deituriko batzorde baten erabakitzen ziren berripaperrak jarraitu beharreko jarraibide ideologikoak. Pio Montoya, Jose Ariztimuño eta Juan Antonio Irazusta ziren batzorde hartako partaide. 1934ko maiatzean

⁶³ Amasa Billabona Oroitzen (2014-02-14); *El Dia*, (1932-01-14) (1932-01-15)

⁶⁴ *El Dia* (1935-02-12)

administrazio batzordeak inspirazio batzordearen konpetentziak zapaltzen zituela iritzita, ez datoz bat orientazio ideologiko berriekin eta ondorioz, Irazusta eta Pio Montoyak dimisioa aurkeztuko dute. Badirudi ez dutela efektibo egingo aurkeztutako nahia eta inspirazio batzordean jarraituko dutela.

Irabaziko duten beste tirabira bat izango dute inspirazio batzordeko hiru partaideek egunkariaren zuzendaritzarekin 1935 hasieran. Ariztimuñok zituen jarraibide ideologiko bezala hiru baldintza ezartzea eskuratu zuen. Euskalduntasuna eta kristautasunaren defendatzea zen garrantzizkoena. Erregionalismoen gainetik erabat euskalduna zen argitalpena izango behar zen, katolizismoaren defendatzaile sutsua. Nahiz eta bi ideia hauek defendatzen zituzten partiduekin ados egon eta horien alde egin, hau da, EAJ, ez zen inongo partidu politikorekin lotu beharko egunkaria. Bigarren jarraibidea hau da: *Atraer y defender al obrero vasco es cerrar las puertas al socialismo*. Proletargo euskaldunaren interesak defendatzeko gai baziren, Gipuzkoan bake soziala bermatu eta sozialismoari ateak itxiko zielakoan zegoen. Azken jarraibidea, euskeraren presentzia handitzean zetzan⁶⁵.

Komisioaz gain, euskal nazionalismoarekin loturiko pertsonaiak izango dira egunkariak langileak. Ricardo Leizaola, Jesus Mariren anaia eta Gerra Zibilaren hasieran Gipuzkoako defentsa batzordeko komunikazio, informazio eta propagandako bokala izango zena, zen editore eta gerentea. 1930ko ekainetik 1931ko urtarril-otsail bitartean Xabier Landaburu lehendabizi eta orduandik 1936 arte Jose Lekaroz izango dira zuzendariak. Lekarozekin batera birmodelatze bat emango da eta 1931ko otsailaren 22an birmoldeketa hori ospatzeko editorialak hala dio: *En el comienzo de la nueva etapa*. Badirudi Lizasok lehendabiziko etapan bakarrik egin zuela lan egunkarian⁶⁶.

Kazetak katolikoaren batasunaren, euskal hizkuntza eta kulturaren alde agertuko da; erabat kontserbadorea EAJren politika interklasisten alde egingo du. Hori dela eta, euskal nazionalismoak Errepublikaren garaian izandako antzeko arazoak pairatuko ditu. Adibidez, 1931eko abuztuaren 18an Jose Maria Urquijo karlistak La *Gaceta del Norte* egunkari bilbotarrean Errepublikaren aurka altxatzeko aldarria egin zien katoliko euskaldunei. Ondorioz, Miguel Maurak, 1931ko abuztuaren 20an Bilbo, Donostia eta Iruñean sei astez itxi zituen 13 kazetetako bat izan zen *El Dia*. Hain larriak izango ez badira ere, gobernadore zibilekin izandako arazoak etengabe errepikatuko dira. Ez da ahaztu behar prentsan errepikatuko zirela Errepublikaren laiktasun eta zentralismoarekiko nazionalistek izandako arazo guztiak. Errepublikan zehar, egunkariak GBBren taktika jarraiki estatutua defendatzera eramango du eta sozialismoaren igoera oztopatzeko langileen aldeko joera obrerista bat hartuko du, hau da, tradizionalismo hertsia batetik pixkanakako joera demo-kristauetaranzko bidea erakusten du. Kazetak Donostian izandako arrakastari aurre egiteko *Diario Vasco* sortuko dute Agirre Gonzalo eta Luca de Tenak⁶⁷.

Esandakoarekin badakigu Lizaso kazetaria izango zela, gutxienez urte bete. Azpimarratzekoa den datu bat da hau. Euskal kazetagintzan esperientzia hartu baitzuen eta horrek propaganda edo gutxienez informazioaren zabalketan esperientziarako asko lagunduko baitzion. Mundu mediatikoaren garrantziaz jabetun, aipatu behar da ezaguna ez den astekari bat *Azkatasuna*

⁶⁵ Koldo Michelena Liburutegia. 091 AIT doc-91 Ignacio Villarrek Jose Ariztimuñori (1935-06-19); Juan Antonio Irazustak Jose Lekaroz (1934-05-15); Pio Montoya eta J. A. Irazustak Jose Lekaroz (1934-05-21); J. Ariztimuñok PECSAKO batzorde orokorrari (1935-01-29). <https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DBKVisorBibliotecaWEB/visorDocumentos.do?cambiar&tdoc=C&vol=1&anio=1930>

⁶⁶ *El Dia* (1934-05-27) (1934-05-28) (1934-05-29) (1931-02-22)

⁶⁷ Calleja (2019), 77-105; Ibarzabal (1978), 37

eratzeko donazio txiki bat egin zuela Lizasok 1933ko urtarrilean. Saiakeran 5 pts. eman zituen. Monzonek beste 50 eman zituen bitartean. Harpidetza otsailaren 10 arte irekita utzi zuten. Astekariaren xedea Euskadiren askatasunaren aurkakoen kontra *una lucha abierta y franca* egitea da. Badirudi ez zuela behar zuen *apoyo pecuniario* lortu edo beharrezko laguntza ekonomikoa eskuratu bazuen ezer gutxi dakigu astekariari buruz⁶⁸.

Lizaso Gipuzkoa-Idazkaritzako Idazkari

Ezkonduta eta hilabete bete ez zela, 1932 otsailaren 7an, Jose Inazio Lizasori 1931an Bilbon EAJk martxan zuen Idazkaritzaren erara, Manuel Egileorren *Secretariado General Vasco*, Gipuzkoan antzeko erakunde bat ezartzeko proiektua aurrera eramateko baimena emango diote. Idazkaritza martxo-apirilak alderako zen abian. Prim Kaleko, 43. zenbakian ezarriko zelarik eta 1934ko martxoan Hondarribia kaleko 23. zenbakira leku-aldatuko da. Ezin izan dugu zehaztu idazkaritzan egindako funtzioak profesionalak edo beste lan batekin batera uztartu beharreko izan zen. Badakigu behin idazkaritza utzirik *Banco Guipuzcoanon* aritu zela lanean Gerra Zibila arte⁶⁹.

Idazkaritzaren egitekoa Gipuzkoa mailan euskal mugimendu nazionalistak antolatutako ekintzak koordinatu eta propaganda nazionalista zabaltzea izango da. Sortzen denetik, Joseba Rezolak ordezkatu arte, 1935eko martxoan, izango da Gipuzkoa-Idazkaritzako idazkari nagusi Lizaso. Hein handi batean, Gipuzkoan zenbiltzan erakunde guztien koordinazioa hobetu eta beraien beharretan laguntzea zen, gehienbat propagandara bideratutakoak. Horretarako, herri guztietan Gipuzkoa-Idazkaritzako ordezkari bat izateko helburua zuen, aktibitate guztien antolakuntza koordinatzeko. Idazkaritza GBBren eguneroko operatiboa efiziente egitera bideratzen zen. Adibidez, *Día del habereko* diru-bilketa jaso, edota 1934ko urriko iraultzaren ostean irekitako auzibideen defentsarako beharrezko dokumentuak biltzeaz arduratzen zen⁷⁰.

1933ko urtarrilean Gipuzkoa-Idazkaritzako ordezkarien bilera batean argi eta garbi ikusten da nola gauzatzen den idazkari honen egitekoa. Bilera honetara Hernani, Lasarte, Pasaia Antxo, Alegia, Azkoitia, Erreterria, Zarautz, Getaria, Deba, Albistur, Zaldibia, Lazkao, Olabarria, Eskoriatza, Arrasate, Zestoa, Lezo, Orío, Ibarra, Pasaia San Juan, Alza, Hondarribia eta Irungo ordezkariak etorri ziren. Lehendabizi, Jose Maria Agirrek erakundeak egindakoak adierazi eta ordezkarien egitekoak erregulatzeko helburuaz bildu zirela aipatuko die bertaratuei. Ondoren, idazkaritzaren genesia erreparatu zuen Jose Benegasek, Lizasori idazkaritza lanetan laguntzen zion pertsonak. Benegasek Gipuzkoa-Idazkaritza suskripzio bidez mantentzen dela adierazten digu, baina zoritxarrez, 1933 hasierarako oraindik nahiko ezezaguna zen instituzio bat delako ez du babes handirik eskuratu eta herriz-herri propagandistak bidaltzeko ideia luzatzen du. Aldi berean, eta propaganda egiteaz gain, dirua eskuratzeko Batzoki ezberdinetan afari benefikoak egitea akordatzen dute. Lizaso izango da bileran hitz egingo duen azkena. Sortutako batzokiei eta sortzeke daudenei eskaini diezaiokeen kooperazio eta asesoramendu motak aipatu ostean, lurralde eta eremu nazionalerako idazkaritzen beharra azpimarratzen du. Jelkidetasunak bere helburuen oinarriak finkatu eta exekutatzeko instrumentuak izan behar direla argudiatuz. Aipatutako kooperazio eta laguntza hauek, hizlariak kontratatu, beharrezko materialak (poster eta propaganda esku-orri zein liburuak) afiliatuen artean banatu eta erakunde ezberdinak hartutako erabakiak jakinaraztean zetzan⁷¹.

⁶⁸ *El Día* (1933-01-26)

⁶⁹ *El Día* (1932-02-07); *El Día* (1932-04-21); *El Día* (1934-02-23)

⁷⁰ *El Día* (1935-03-10) *El Día* (1932-04-15) *El Día* (1934-06-12) *El Día* (1934-09-22)

⁷¹ SAF- DP-1287-04, *El Día* (1933-01-14)

Idazkaritzaren egitekoa mugimendu nazionalistaren oinarriak fikankatu eta erabakiak zentralizatzean datza. Horrela, mugimendua hierarkizatzearekin batera propaganda eta politika koherente eta norabide berdinerantz bideratua aurrera eramateko⁷².

Lizaso politikari eta kultur zalea

Lizasok parte hartutako lehen ekintza politikoa diktaduraren azken momentuetan identifikatu dugu: Auritzen egindako ekitaldi nazionalista bat. Zoritxarrez, ez dugu zehazterik izan Lizaso zein korrontetik datorren, *Comunión* edo EAJ-Aberritik. Bere adina zela eta baliteke 1930ko azaroaren 16an Bergarako batzarraren batasunaren ostean afiliatu izana⁷³.

Errepublikaren etorreraren bezperan jazotako Bergarako bategitearekin indartsu sartu zen EAJ 1931ko apirilak 14an Eibarren aldarrikatutako erregimen berrian. Printzipio katolikoaren eta ordena sozialaren babesle bezala azaldu zen mugimendu nazionalista. Nahiz eta errepublikaren laikotasuna eta zentralismoarekiko mesfidati, ilusio handiko garaiak ziren. Hori dela eta, afiliatu eta jarraitzaile kopuruak gora egin zuen berehala. Partidu politikoa ez ezik, bere inguruan organismo politiko, sindikal eta kulturalak aglutinatu lortu zituelako, ikerlari askorentzat partidu-mugimendu edota komunitate politiko batez aritu behar gara; *Catch-all-party* bat⁷⁴.

Errepublikaren garaian, EAJren inguruko mugimendu politikoak aldaketa sakonak pairatu zituen. Argien estatutuaren inguruan hartutako erabaki politiketan ikusten da jarrera aldaketa hori. Hasiera batean, tradizionalistekin batera fronte-katolikoa osatu eta *Gibraltar Vaticanista* propio bat eskuratzeko ahaleginak egingo ziren. Lizarran ekainaren 14an lau lurraldeetako alkateen gehiengoak adostutako proiektua aurkeztu zuten. Lizasok eskainiko dituen lehen mitinak estatutuaren beharrari buruzkoak izango dira. Andoainen Ugartechea donostiarra, Olano, Añibarro eta Pablo Eguibarrek batera hitz egin zuen estatuari buruz 1931ko ekainak 23an eta hiru egun beranduago Ondarribiko Euzko-etxea inauguratuko du hizketaldi batekin. Ekainaren 28an Amasa-Villabonan Jose Zubimendi irrati esatariariak aurkeztuta Lizaso Espainiar hauteskundeetan parte hartzeko beharraz aritu zen: Espainia estatu federal bat bilakatzea babestuz. Federalismo horretan baina ez da kontsezio ekonomiko hutsal batekin konformatuko. 1839 aurreko eskubide politikoak errespetatuko dituen autonomia behar dela adierazten du. Azken ekintza honetan, errepublikar saboteadore batek *Viva la República* ohiu egingo dio. Lizasok ohiuari *¡Viva a la República!* batekin erantzungo dio, baina askatasunean oinarritutako Errepublika nahi duela gehituz. Lizasok defendatutako eta Lizarran onartutako estatutuak ez zuen aurrera egin. Besteak beste, euskal probintziek Batikanoarekin konkardatu bat izateko aukerak Madrilgo parlamentuarentzat onartezina zen proiektu bat bilakatu baitzuen. Azkar aldatuko zuen taktika alderdi jeltzaleak. Erabat pragmatiko eta posibilistak izango dira, gehienbat 1933an *Agirrerren generazio* deiturikoek partidua bere gain hartuko dutenean⁷⁵.

Ezagutzen ditugun lehenengo hiru mitinen ostean, 1931an zehar hainbat hizketaldi eskaini zituen Lizasok. Gehienetan Euzko-etxe edo mugimendu nazionalistari loturiko lokalen baten irekieraren ondorioz eskaintzen ziren propaganda ekintzok. Kontuan izan behar da, Errepublikaren hasieratik 1931ko ekainaren 7rako Gipuzkoako 42 herrietan zegoela lokal abertzalaren bat. Diktadura garaian jazarrita izandako mugimendua izanik kontuan hartzeko

⁷² Tápip (1998) Ez da kasu guztietan ematen

⁷³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:212/1 T.R. Erechunek Lizasori (1938-01-18)

⁷⁴ *El Dia* (1931-04-14); Ranz (1994), 82; Tápip (1998); Organigrama ikusteko: Ranz (1994), 84-96

⁷⁵ Integristak, Tolosako Fidel Azurza buru, betidanik Estatutuaren aurka egon ziren eta ez zuten fronte katolikoan EAJ egotea nahi. EAJ bera ere ez zen frontearen genesian izan; *El Liberal*, (1931-06-30); Kontuan izan behar da alkateen gehiengo honek populazioaren %50 inguru osatzen zuela. Hiriburuak eta industria guneak errepublikar zaleen eta ezkerren menpe zeuden. *El Dia* (1931-06-23); *El Dia* (1931-06-26); *El Dia* (1931-06-28)

zenbakia. Besteak beste, Irura, Amasa eta Antzuolako Batzoki eta Euzko-etxeen irekieretan presente egongo da Lizaso. Villabona eta Irurako Euzko-etxea zabaltzean emakumeei zuzendu zitzairen, emakumezkoek euskal nazioan jokatu beharreko misioaz eta Erdi Arotik emakumeek egindako egitandiak izan zituen hizpide⁷⁶.

Hizketaldiak eskaintzeaz gain, Donostiako Euzko Gaztediko buruetako bat ere bazen Jose Inazio. Donostiako Euzko Gaztedik abian jarritako Erdel Batzarreko (*Centro de divulgacion vasca*) lehendakaria zen. Erdel Batzarra Euzko Gaztediko lokaletan eskaintzen zen eta 1931ko uztailak 28an martxan jarritako inizatibaren helburua nazionalismoaren doktrina erderaz zekitenei helaraztea zen, astertaero 20.00etan bilduz. Erdaldunei zuzendua zenez, euskerazko klaseak ere eskaintzen ziren. Lizasok gidatutako klaseotan teoria nazionalistak, foruak eta euskal kultura zituzten hizpide. Jorrotutako gaien artean Donostian propaganda nazionalista intentsifikatzeko egin zitezken ideiak edota 1839ri buruzko datu historikoak aurki ditzakegu. 1935ean Lizasoren ordean Jose Mari Lasartek hartuko zuen batzar honen lehendakaritza eta euskal kulturari eta historiari loturiko gaiak jorrotzeko ardura⁷⁷.

Donostiako Euzko Gaztedik antolatutako Erdal batzarra ez da modu isolatu batean ulertu behar. Euskal kultura benetako loraldi bat pairatzen ari zen Gipuzkoan eta partido organikoaren paralelo, jeltkatasunaren baitan gizarteko zati handi bat biltzeko instrumentalak izan ziren mugimendu kultural ezberdinak. Ezin da Bizkaian izandako eklosioarekin alderatu, baina Guipuzkoan ere antolatu ziren hainbat batza: Euzko Ikasle Batza, Euzko Ikastola Batza, Ezpatadantzarien Batza, Kiroltzaleen Batza... Kapitala izanik eremu dinamikoena, mugimenduaren epizentro. Jose Artetxek idatzitako artikulu batean Donostiak Gipuzkoan barna nazionalismoaren aldeko zabalkundean egindako lana azpimarratzen du: euskarazko irratasioak, umeen eguna, Euzko Abesbatza eta, batik bat, Euzko Pizkundera aipatzen dituelarik⁷⁸.

Hiriburuko Euzko Gaztediren baitan, Ander Arzeluz (Luzear) eta Jose Zubimendi 1932ko martxoaren 2tik aurrera euskarazko irratasioak eskaintzen zebiltzan Union Radion. Luzear bera *El Diak* egunero argitaratzen zuen euskal orriko zuzendari zen eta Zubimendik postu bera zuen Rafael Picabearen *El Pueblo Vascon*. Noiz edo noiz Gipuzkoa-Idazkaritzako idazkari lanak aurrera eramaten lagunduko zion Zubimendik Lizasori⁷⁹. Artzeluz eta Zubimendiz gain, Jose Ariztimuño dugu Gipuzkoan zehar euskal nazionalismoaren loraldi kulturalaren erantzule handienetarikoa. Aipatutako *El Diaz* gain, *Yakintzaren* zuzendaritza bere gain hartuko zuen eta *Argia* aldizka katolikoan ere pertsona garrantzitsu bat izan zen. Era berean, Ariztimuñok berak zer esan handia izan zuen Euzko Pizkunde eta Euskaltzaleak bezalako erakundeetan.

Euskaltzalea erakundeak 1933tik aurrera *Yakintza* argitaratzearen ardura izateaz gain Olerki eta Euskara egunak antolatzen zituen. Erakundearen xede nagusia euskarazko lan literarioen argitalpena zelarik. Euskaltzaleak, ofizialki 1930ko martxoaren 9an Zumaian izandako asamblea batean eratu bazen ere, oinarria Arrasaten ospatutako euskera egunean bilatu behar da. Era berean, 1927ko irailaren 4an ospatutako jai honek bere sustraiak urte bete lehenago Elgoibarko San Lorenzo auzoan eta urte berean Mutrikun Angel Osoro elgoibartarrak antolatutako euskal jaien mamitzean ditu. Arrasaten ospatutako jaitik Zumaian izandako asamblea arteko denboran Jose Maria Agirre, Lizardiren, gidaritza azpimarratu behar delarik.

⁷⁶ Ranz (1994), 81-82. Lehendabiziko biurteko eklosioa zertxobait baretu bazen ere beste 15 lokal irekiko dira biurteko beltzean; *Euzkadi* (1931-11-04); *Euzkadi* (1931-10-03); *Euzkadi* (1931-08-01)

⁷⁷ *El Dia* (1931-07-26) (1931-07-30); *El Dia* (1931-01-05); *El Dia* (1931-11-22); *El Dia* (1935-01-29) Lasartek erdal batzarraren formatua aldatu egingo du, eta berak hizketaldiak egin beharrean, batzarkideei dagokie gaiak landu eta besteei eskaintzea. Lasartek horien superbisatu besterik ez ditu egingo *El Dia* (1935-01-30)

⁷⁸ Tapiz, (2001), 93-112; *Euzkadi* (1933-07-9)

⁷⁹ Ordozgoiti (2012)

Aldiz, 1930tik aurrera bigarren aldi bat hasiko du erakundeak Aitzol izanik eragile nagusia. Berau izendatu baitzuten erakundearen zuzendari. Lehendabiziko hiru urteetan euskal literatua europar modernitatearekin batzen saiatu zen, baina euskal gizarteak ez zuen esperotako erantzunik izan. Hasierako hautuak hustu eginda, herri literaturara joaz gainditu nahi izan zuen euskal irakurleen interes eskasa. Aitzolen desilusiorako, ez zituen bere espektatibak guztiz bete. Agian, espektatiba handinahiegiak zituen Aitzolek eta Lizardik uste bezala generazio ezberdinak behar dira kultur berpizkunde bat guztiz gauzatzeko. Hala nola, benetan garrantzi handiko mugimendua izan zen. Ereku kulturean euskalduntasuna pizten lagundu zuena. Ez da ahaztu behar Donostian antolatuta Euskaltzale Gaztedi bat izan zela, non Aitzol, Arzeluz eta Zubimendi aritu ziren irakasle. Severo Arrieta zen gazte erakunde horren zuzendari. Euskaltzaleak jeltkidesunetik oso gertu kokatzen baziren ere, mugimendu apolitikotzat hartu izan da. Besteak beste, Bizkai Buru Batzarrekin tirabirak izan baitzituen⁸⁰.

Aitzolek gidatutako beste proiektu bat izan zen Euzko Pizkundera. Donostiako Askatasun hiribideko 25. zenbakian hartuko du etxea erakundeak eta 1933. urtean inauguratuko da. Donostiako kultur atmosferan eragitea izango du jomuga. Euskaltzaleak ez bezala, jeltkideen erakunde paralelo bat zen eta bere lokalak GBBk erabili izan ohi zituen. 300 bazkide izatera iritsi zen 1933an. Donostia eta Gipuzkoako sektore ilustratuenetan eragiteko asmoz, bere egiteko nagusia euskal kulturarekiko zer ikusi zuten konferentziak eta esposizioak antolatzea izan zen. Lizaso erakundeko liburuzaina izango da 1935ean. Euzko Pizkundearen baitan antolatuko diren mugimenduen artean kokatzen da Poxpolinak dantza eta kanta elkarteak. Ramon Laborda aipaiz tenorrek zuzendutako mugimendua honek 1.500 haur biltzen ditu 1934an. Labordaren, *Saski-naski* ezagunaren sortzailea, gidaritzapean 1933an Euzko Etxean hasi eta Kurtsaal Handian egon ostean, Kurtsaala kudeatzen zuen enpresak utzita, Kurtsaal ondoko kanpa batean entsaiatzen zuten 1934an. Labordaren lana omendu nahi izan zuen Euzko Pizkundera, baina apaizak onartu ez eta omenaldiaren ordez Poxpolinaren eguna ezarri zuten. Dantza egiteko trajeriak ez zuten haurrentzako jantziak eskuratzeko jaialdi bat egiten zen egun hartan. Maria Josefa Ganuzak prestatutako koreografiak dantzatzuz, 1934ko uztailaren 1ean izan zen lehen erakustaldia zezen plazan. Lizasok berak 6 traje emango zituen. Poxpolinek Donostiako Euzko Gaztediren lokal berriak inaugurazio ere dantzatu zuten [Ir.2]⁸¹.

⁸⁰ Otaegui, (1996); Tapiz (2001), 93-112

⁸¹ Tapiz, (2001), 109; *El Pueblo Vasco*, (1935-04-12) eta *El Dia* (1935-04-03); *El Dia* (1934-06-30); *El Dia* (1934-05-15) *El Dia* (1934-12-09)



Ir.2 *El Dia* (1934-12-09) Donostiako EAJko buruak Euzko Gaztedi inauguratzen

Errepublikan eman zen loraldi kultural honek Gipuzkoan preminentzia politikoa eskuratzen lagunduko zion EAJri. Hala 1933ko iraileko 19an izandako hauteskundeetan EAJak bost eserlerku eskuratu zituen Gipuzkoan. *El Diaren* lerroburua pozik agertzen da emaitzarekin: *Triunfan esplendidamente en guipuzcoa por la mayoría los cinco candidatos del Partido Nacionalista Vasco*⁸².

1931ko hauteskundeetatik 1933ra arteko garaian hainbat gertaera izan ziren. Hasteko 1933ko urtarrilaren 29an Tolosan egindako kongresu nazionalan EAJk estruktura konfederala onartuko du. Egindako aldeka organikoak ez zuen berarekin batera inongo aldaketa doktrinalik ekarri, Ortodoxia sabinanianoa mantendu baitzen. Azken helburua ez da integrazio foral bat izango soberania forala baizik. Hala ere, dagoeneko Bergarako batzarrean zehaztutako pragmatismoaren bidea aukeratuko dute. Lizarrako estatutuarekin Euskal Errepublika osatzeko saiakerak huts eginda, ez dute aukera galdu nahi estatutu propio bat izateko. Kataluniar Errepublika ispilu, askapen nazionalaren ikuspuntutik Errepublika era positibo batean kontsideratzen da⁸³.

Begararen ostean, 1933ko azaroaren 19ko hauteskundeetako emaitzak EAJk izan zituen onenak izan ziren. Elektoralki goia jo zutela esan daiteke hein handi batean. Bozka hauetan zer esan handia izango zuen ziurrenik estatutari buruz bi aste lehenago, azaroaren 5ean, egin zen galdeketak. Ez zen oposizio handirik izan eta Alabako partizipazio txikia salbu, Bizkaia eta Gipuzkoan estatutuaren aldeko bozkek %90 izan ziren. Gaineratu behar da Nafarroa bozketatik salbu geratu zela. Erreferendumean baizkoa nabarmena izan arren, estatutua ez da Gerra Zibil hasiera arte aprobaturik. Bienio beltzan ezarritako fronte kontraerreboluzionarioak gelditu egin baitzuen bere tramitazioa gorteetan. Emaitzak 1933ko abenduaren 21ean gorteetako lehendakari Santiago Albari eman bazitzaion ere, Albaren egoerak, ardoaren zergaren auziak eta 1934ko urriko iraultzak ez zioten aurrera egiten utzi.

⁸² *El Dia* (1933-11-21)

⁸³ Ranz (1994), 182-189

Nafarroa 1931tik 1933ra bidean geratu izana bloke katolikoaren ahultzearen ondorio da, nahiz eta Erriberaren aurkakotasunak zer ikusirik izango zuen. Hasiera hasieratik, Karlismoaren barnean intransigenteen korronteko gutxi batzuk estatutuaren aurka egon ziren. Besteak beste, Tolosako alkate izango den Fidel Azurza. Behin karaktere erlijioso alde batera utzita karlismoaren zati handi bat estatutuaren aurka agertu zen. Gayarren 1932ko ekainaren 19an egindako bilkuran, aurka bozkatu zuen Nafarroako alkateen gehiengoak. Saiakeraren bat edo beste egin zen Nafarroa berrintegratzeko, baina ez zen ezer lortu⁸⁴.

Dagoeneko aipatu dugun lez, estatuta zen EAJrentzat helburu nagusia, eta egiteko horretan Gipuzkoan Jose Inazio Lizasoren papera ezinbestekoa izan zen. Egindako lan horren eskertzan, Euzko Pizkondeak omenaldi txiki bat antolatu nahi zion estatutuaren erreferendumean izandako papera zela eta. Omenaldia erreferenduma egin eta aste batera egin zioten, azaroaren 12an. Hotel Dominikan egindako bankete batean. Ehun bat pertsona gerturatu ziren eta Telesforo Monzonek Lizasori eskaini zion banketea. Lizaso estatutuko propaganda ofizinarekin zuzendaria izan zen. 1937an Lizasok Agirreri idazten dion gutun batean hala dio: *tú en Vizcaya y yo en Guipúzcoa encima de todo y de todos sacamos el referéndum del estatuto adelante*⁸⁵. [Ir.3-4]



Ir.3 El Dia (1933-11-12) Txikik egindako Lizasoren irudia



Ir.4 El Dia (1933-11-12) Estatutua aprobatu zela ospatzen. Lizaso Xduna

Estatutuaren defentsaz gain, militanteen eta herriaren defentsa aldarrikatu zuten euskal abertzaleek Gipuzkoan. Euskalduntasunaren oinarrietako bat arrazaren eta herrikideen arteko soliraditatea izanik 1933ko ekainean izandako uholdeek Gipuzkoako hainbat herritan eragindako txikisioaren aurrean laguntza bateratu bat koordinatzeko *Junta de Socorros* osatu zuen GBBk dekretu bidez. Telesforo Monzoni, Eusebio Goñi, Maria Zulaica, Jose Eizagurre, Jose Lecaroz, Vitoriano Zelaya, Agustin Ubarrechena, Miguel Urreta, Doroteo Ziarruiz, Jose Maria Extezarreta, Pio Etxebarria eta Jose Inazio Lizaso ziren batzordeko kide. Azken honek hartuko zuen juntaren zuzendaritza. Afiliatuak izendatzeaz gain, dekretuak batzoki eta zentro nazionalistei kaltetuei laguntzeko suskripzioak irekitzeko agintzen die. Asistentzia honetan GBB

⁸⁴ de Pablo (1988)

⁸⁵ *Euzkadi* (1933-09-07) *El Dia* (1933-11-12) ; EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02 Lizasok Agirreri (1937-11-1)

ez ezik Eusko Langileen Alkartasuna (ELA) eta Euzko Nekazari Bazkuna burubelarri aritu ziren batera. Guztira berreun bat familia hornitu zituztelarik. Jatekoa, erropa, altzari eta baita lanerako lanabesez behar zituzten. Mikel Aizpuruak iradoki duen bezala, aktibitate asistentzial hauek propaganda egiteko benetan baliagarriak ziren. Laguntza honen jakitun, eta errekurso publikoak EAJren mesedetan erabili ez zituzten, Gobernu Zibilak udaletxeek laguntza batzordeari laguntzak ematea eragotzi zuen. Ondorioz, afiliatuei harpidetzak egiteko eskatu eta hainbat ongintza ekitaldi antolatu zituzten, Bilbon eta Lasarten esaterako⁸⁶.

Propagandarako erabili zen beste lan asistentzial bat preso nazionalistei laguntzeko laguntza-sareak dira. Nazionalismoaren aldeko ohiuak edo propaganda nazionalista egiterakoan Ondarretan kartzelaratutakoei laguntzeko dirua bildu zen. Diru horiek kudeatzeko Abertzale Espetxeratu Aldeko Batzorde bat osatuz. Lizasok gutxienez 6 pts.-rekin lagundu zien. Diru ematea ez ezik bisitak egitera animatzen zituzten abertzaleak⁸⁷.

Presoetz ari garela, Bigarren Errepublikan zehar izan zen auzi mediatikoena gogoraztea garrantzitsua deritzogu: Francisco Idiakezen auzia hain zuzen ere. GBBk suskripzio bat ireki zuen bere defentsan laguntzeko 1934ko urtarrilean, eta berriro ere bertan agertzen zaigu Lizaso. 1932ko otsailaren Ciriaco Gachaga hiltzeaz akusatu zuten Idiakez. Ondarretan espetxeratu zuten getariarra eta urte bete beranduago izandako epaiketan fiskalak eta akusazio partikularrak eskatzen zutena baino 10 urte gehiagoko kartzela zigorra ezarri zioten, 25 urte. Fiskalak eta bi akusazio partikularrek, *Union Republicanaren* ordez, Carlos Soto eta Gachagaren emaztearen ordez, Fermin Vega Seonaek, 14 urte eta 15.000 pts. isuna eskatu zuten bitartean, Inazio Usandizagak, defentsa abokatuak, absoluzioa eskatu zuten Idiakezentzat⁸⁸.

Hildakoaren kondizio errepublikarra eta akusatuaren perfil nazionalistari, epaiketan zehar euskararen erabilera gehituz, zama politiko handiko auzia bilakatu zuen. *El Diak* argudiatzen du Idiakezek bere buruaren defentsan hil zuela Gachaga eta epamahikide zein Idiakezek gazteleraz ez jakiteak epaiketa baliogabetzen duela gaineratzen du, ezin izan baita epaiketa zuzenik eman. *La Voz de Guipuzkoak* berriz, gogor kritikatu ditu Getariako autoritateak, errepublikar bat egun erdian kalean hil zelako eta justizia eskatzen zuen. Era berean, *El Diari* epaiketa akusatuaren alde politizatzea egozten diolarik⁸⁹.

Lehen epaia eman ostean *El Diak* kanpaina gogor bat hasiko du prozesu juridikoa berriz ospa zedin. Argumentu nagusia zera zen, epaimahiak eta kondenatuak ez zekitela gazteleraz. Ondorioz, bidezko epaiketa bat ez izateaz gain, justizia euskaldunizatzeko kanpaina abiatzen du. Dena dela, Idiakezen zorionerako lehendabizi 8 urtera jeitsi zioten kondena eta 1934ko uztailean amnistiatu. Amnistia eta errebisioaren aurretik baina, kasuari kutsu internazaiola ematen saiatu ziren. 1933ko apirilaren 16an Donostian ospatutako Aberri Egunean, Ewald Ammende, gutxiengo nazionalen kongresuko idazkari nagusia, eta Francesc Maxpós katalanista eta momentuan kongresu berdineko presidenteordea Idiakezi bisita egitera eraman zituzten.

1933ko Aberri Eguna honek Euzkadi-Europa goiburuararekin benetan nazioarteko proiektzio garrantzitsu bat nabari zitzaion. EAJren proiektzio internazionala indartzeko erabili zen eta aipatutako bi pertsonaia horiek etortzeaz gain, partido galleguistako Ramon Oterok ere hartu

⁸⁶ *El Dia* (1933-06-18); Aizpuru (2017), 270 *En vista de la orden gubernativa prohibiendo a los Ayuntamiento que ayuden a la Junta de Socorros del Partido Nacionalista Vasco, este les recomienda que engrosen sus donativos la suscripción oficial*

⁸⁷ *El Dia* (1935-03-06)

⁸⁸ *El Dia* (1934-01-14)

⁸⁹ Roquero Ussía, (2013). Ikusi garaiko prentsak epaiketari buruz izandako harrera.

zuen parte. Beraiekin batera Euzko Gaztediko Teodoro Ernadorena eta GBBko buru zen Telesforo Monzonek hitz egin zuten ekitaldian. Jose Antonio Agirre diputatuak bexalaxe. Termino independentistetan aritu zen azken hau. Euzkadi-Europako eguna pasa eta hiru hilabetera, 1933ko uztailaren 25ean, kataluniar, galiziar eta euskaldunek GALEUZKA sortzeko Konpostelako ituna sinatu izana ez da kasualitate hutsa⁹⁰.

Aberri egun hau ez da pazkuako igandera mugatuko eta kulturaz eta hitzaldiz jositako aste oso bat antolatuko du GBB Gipuzkoa Idazkaritzaren bitartez. Beraz, Lizaso izango da antolakuntzaren arduradun nagusia. Ezpatadantzarien erakustaldia eta Euzkadiko batel txapelketa, Euzko Pizkundearen lokalen inagurazioa eta Bartzelonako eskola erritmikoko poxpolina katalanez gozatu zuten etorritako 60.000 pertsonen. Lizasok berak gidatutako koral batek kantatutako *himno nacional* batekin itxi zen jaialdia⁹¹. Gipuzkoa Idazkaritzaren ardura izan zen Aberriko Eguna antolatzeko nazioarteko hartu-emanen batzordea. Beraz, Lizasoren ardura izan zen Katalan, Galiziar eta Ammenderekin harremanetan jartzea⁹².

Ikusitako aktibitate guzti hauez gain, Lizasok mitinak antolatzen eta ematen jarraitu zuen 1933 bitartean. Apirilean Soraluzeko batzokia erasotu zuten, eta bertan hitz egin zuen Aitzol eta Izaurietarekin batera. Berriro ere Aitzolekin arituko da Urretxu eta Zumarragan ELAK antolatutako jaietan. Biak langileen batasuna eta euskal anaitasunaz aritu ziren⁹³.

1933ko aktibitate frenetikoa ez da gutxituko 1934. urtean zehar. Halere, urtea ez da ondo hasiko, urtarrilean bere ama zenduko baita. Gainera, konbultsioak jotako urtea izango da eta lan eskerga izango du Gipuzkoa Idazkaritzan. Pixkanaka postu organikoetan esangura eskuratzen ari zen Lizaso. Esaterako, GBBren delegatu lanak egingo ditu EBBek urte honetan izango dituen bi asanblea nazionaletan. Politika nazionalean, eskuinarekin erabateko haustura gauzatuko den urtea da. Bi auzi nagusik izango dute horren errua; bata ardoaren gerra eta bestea 1934ko urriko iraultza⁹⁴. Ageriko bi gertaeron atzean, ez da ahaztu eskuinak gehiengo zuen espainiar parlamentuan alde batera utzita zutela euskal estatutua, aparkatuta.

1934ko ekainaren 12an Espainiar auzitegiak, Generalitatearen lege bat, *ley de cultivos* atzera bota eta honek autonomia urratzen zuela iriztean ERCKo 18 diputatuek dimisio aurkeztuko zuten. Berdin egin zuten EAJko hautetsiek, EBBren oniritziarekin, anaitasunez. Ez zen eguneko gertaera bakarria izan. Ekainaren 12 hartan 140 parlamentariak 1932an onartutako Ardoaren estatutua martxan jartzeko eskatzean hasi zen Ardoaren gerra. Indarrean jarri nahi zen legeak edari alkoholikoen gaineko zergak arinduko lituzke, Euskal udaletxeen diru-sarreretan eragin nabari bat sorraraziz. Adibidez Andoainen aurrekontuaren %38 ingurua izango litzateke eta Donostian %11. Nazionalisten iritziz, sortu zezakeen arazo ekonomikoa zela eta kontzertu ekonomikoari erasotzen zion zuzenean. Halere, ez ziren nazionalistak bakarrik oldartu legearen aurka, sozialista eta errepublikar askok bat egiteaz gain, mugimenduan nazionalistekin batera Gobernu zentralaren aurka arituko dira legearen aurka⁹⁵.

Aferari aurre egiteko, eta 1931tik hauteskunderik eginda ez zegoenez Diputazioen kudeaketa zuten gestoreak berritzeko hauteskunde deialdi bat antolatu zuten abuztuaren 12rako

⁹⁰ *El Dia* (1933-04-01), Estevez (2009), 72-83. GALEUZKAREN osaketan nabarmena da GBBren eragina. Hala ere, 1933ko paktuak ez zuen uste bezain besteko arrakasta izan, batik bat Lliga desmarkatu zelako. Horrez gain, Gipuzkoa Idazkaritzak Galiziara joateko bidaia bat antolatu zuen uztailaren eta gainera Euzkadi-Europa egunaren garrantzia onartzen da hiru nazionalitateen arteko paktuan; *El Dia* (1933-07-16)

⁹¹ Lizaso bera, hala Guillermo Lizaso edo Felipe izan zenik ez dakigu ziur.

⁹² *El Dia*, (1933-03-28), *Euzkadi* (1933-04-18); *El Dia* (1933-04-07)

⁹³ *Euzkadi* (1933-04-18); *Euzkadi* (1933-05-07)

⁹⁴ *Euzkadi* (1934-01-06); *Euzkadi* (1934-01-30) (1934-06-12)

⁹⁵ Barruso, (1995)

udaletxeetatik. Madrileko gobernuak legez kanpo utziak. Ospatu zirenez, Gobernu zentralak gogor erantzun eta hurrengo egunean alkate eta kontzejal asko kargugabetzeari ekin zion. Kargugabetzeen ondorioz, irailaren 2an Zumarragan biltzeko deia zabaltzen dute nazionalista, sozialista eta errepublikarrek. Polizia indarrak bilkura eragozten saiatu arren, hainbat alkatek eta diputatuk Zumarragako udaletxean biltzea lortuko dute, baina beste asko kontroletan geratu zirenez, Indalezio Prietok zuzendutako batzarrak ez zuen erabaki politikorik hartuko, baina nazionalista eta ezkerren arteko entente bat adieraziko zuen. Zumarragako besarkadaren ondoren, errepresioa handitu eta kargugabetze gehiago izateaz gain, ez dira berrezarriko kargugabetutako ordezkari publiko hautetsiak⁹⁶.

Testuinguru honetan, gerra autonomikoarekin zuzenean zer ikusia ez duen beste gertaera bat jazoko da. Urriko iraultza deitua. Zumarragan erakutsitako ententea berretsiko du, nahiz eta, ikusiko dugun bezala, EAJk beti zentratu zen bi suren artean balego bezala eszenifikatzen.

Generalitatearekin eta Ardoaren gerraren ondorioz sortutako inestabilitate politikoa probestuz, CEDAK bere babesak kendu zion Samperren gobernuari. Berau erortzean, gobernu berria bere ministroak sartzeko egin zuen presio. Orduan, Lerrouxen gobernu berria eratzean CEDAKo hiru ministro gobernuan sartzean greba orokorra deitu eta sekulako iskanbila piztu zen Espainia osoan. Katalunian ez bezala, izaera erabat obrerista izan zuen Euskal lurraldeetan Asturiasen bezala. Urriaren 5ean hasi eta aste betez luzatu zen. Gipuzkoa mailan, Eibar eta Arrasaten iraultzaileak udaletxearekin egin ziren eta Tolosan eta Donostian eta bere inguruko herri industrialetan (Pasaia, Errenteria eta Hernani) ere intentsitate handiko borroka eman ziren. EAJk eta ELA-STVk ofizialki neutraltasuna edo beligerantzia eza adierazi bazuten ere, badirudi, batik bat, ELAren sektore batzuk parte hartu zutela liskarretan. Parte hartu edo ez, errepresio gogorra jasan behar izan zuten nazionalistek. Bizkaian EAJ eta ELAren lokalak itxi eta ehun bat preso izan zituzten. Urriaren 11an etxea erregistratu eta irrati emisore bat muntatzeko hainbat pieza aurkitu zituzten aitzakiaz Lizaso bera ere kartzelaratu zuten. *El Diaren* hitzetan aparatua muntatzeko zati garrantzitsuena falta zuen Lizasok eta irratiarekiko afizioa izatea ez zitzaion norbait atxilotzeko nahiko arrazoi iruditzen. Gobernu Zibilean izan zuten preso urriaren 13 arte. Autoritate militarren esku utzi zuten bi egun horietan eta behin estamentu militarrek hala erabakita aske utzi. Irratiarekin Kataluniar matxinoekin harremanetan jartzea egozten zitzaion. 1935eko maiatzean urriko gertaeren prozedimendu judizial zibilean edozein kargutik salbu geratuko da⁹⁷.

Erreboluzioaren harira izandako errepresioak eskuinaren gandik erabat aldentu zuen EAJ. Nahiz eta Madrileko gobernuari bere laguntza adierazi eta erreboluzioan zuzenean parte hartu ez, eskuinaren propagandak katoliko askoren babesak galduarazi zion. Aldiz, ezkertiarrek ere EAJri borroketan parte hartu ez izana leporatzen zioten. *El Dian* argitaratutako *sketch* batek ederki irudiztatzen du hurrengo biurtekoan EAJk izango duen rol politikoa, zentroa bezala saltzearena hain zuzen ere [Ir.5]. Polarizazio honek baina, eta oraindik ere, indar nagusia izaten jarraituko duen arren EAJk pairatutako hazkundera geldiaraziko du⁹⁸.

⁹⁶ *Ibid.*

⁹⁷ de la Granja (2004), dio ez dagoela partehartzea zehazterik. Aldiz, Tolosako adibidea ematen du. Dionez Tolosako euzko etxean bildu ziren sozialistak.; *El Dia* (1934-10-12); *El Dia* (1934-10-14); *La Humanitat* (1935-05-28) Iñaki Lizasoren deklarazioa

⁹⁸ *El nacionalismo vasco ...* (1936); *El Dia* (1934-10-14); de la Granja, (2004)



Ir.5 *El Dia* (1934-10-14)

Ardoaren gerrak eta Urriko iraultzak, bien artean 1936ko hauteskunde arte sekulako lorratza utziko dute. Tarte honetan, Lizasok politikarekiko deskantsu txiki bat hartuko duela dirudi, gutxienez 1936ko hauteskunde kanpaina arte. 1935ean Gipuzkoa Idazkaritza utzi eta ez du protagonismo handirik izango urte hartan. Hala ere, kulturgintzan arituko da. Euzko Pizkundeko liburuzain izateaz gain, euskaltzaleak antolatutako eta Aretxabaletako Bedoña auzoan izan zen VI Euskal Poesia egunera gerturatu zen. Lekuona, Aitzol, Altzeta eta Guameko artzapezpikua ere izan ziren bertan. Horrez gain, uda Oiartzunen pasatzen du familiarekin “Sein Txiki” etxean. Bere aitaren herria zen Oiartzun. Bizitza sozialari dagokionez, Telesforo Monzonek ezkongaiaren agurrean izan zen GBBko beste kideekin batera. Badirudi benetan laguntasun estua izan zuela Monzonekin urte hauetan. 1942an Lasarteri idatzitako gutun batean Mexikon dagoen Monzoni buruz hala dio⁹⁹:


Telesforo no me ha escrito nunca demasiado. Desde que llego a México no se ha dignado a mandarme unas líneas. En nuestra amistad bien sincera y probada su silencio, ha sido siempre un valor entendido. Sin embargo, el actual podría ser interpretado de otra manera por otro que no le quisiera como yo.

Lizaso 1936ko otsailean berragertuko da jarduera politikoetan, Pasai Donibanen otsailaren 8an hitzaldi bat eskainiz. 1936ko hauteskundeetan EAJren kanpaina goiburua hurrengo hau izan zen: *¡Por la civilización cristiana, por la libertad de la patria, por la justicia social!* Argi eta garbi adierazten ditu partiduaren lehentasunak: Katolizismoa, euskal burujabetasuna eta bake sozial interklasista oinarritutako gizartea. Idea horiek Aitzolek idatzitako *El Diako* editoriala eta artikuluetan garbi islatzen dira. Adibidez, 1935eko ekainaren 23an *¡Evolución si, revolución no!*. Iraultza gertatzeko arriskua gizarte barruan dauden desoreken seinale dela dio. Arazo hauen aurrean estatuaren makinaria errepresiboak ez du posible benetan bidegabeak diren eskaerak denbora luzez eusteko baliabiderik. Horregatik, egun dauden desoreka sozio-ekonomikoei, batik batik langabeziari, irteera eman behar zaiela adierazten du. Beraz, berehalako aldaketa bat beharrezkoa irizita bidezko akordio bat onesten du, ez aldiz sistema osoa hankaz gora jarriko luken erreboluzioa. Eskatera obrerista hauez gain, demokrazia ezkerren ondare eskusibista ez

⁹⁹ *La Humanitat* (1935-05-28) Mariano Ruiz Funes abokatuak eta Izquierda Republicanoko kideak Urriko iraultza eta udal herrien mugimenduaren artean loturarik ez zegoela adierazi zuen. *Euzkadi* (1935-06-04); *Euzkadi* (1935-05-15); *El Dia* 1935-03-05); Jimenez (1991). 632.

dela justifikatzen saiatzen da. Demokrazia interklasista, kristau, kontserbadore baten aldeko hautua eginez¹⁰⁰.

Hauteskundeak ez ziren batera xamurrak izan. Tentsio nabari zen. Esaterako, GBB antolatutako 64 mitin debekatu zituen Gobernu Zibilak. Beraz, eskubiak gogor erabiltzen zituen gobernuak eskaintzen zizkion metodo hertsatsaileak. 1933tik 1936 partiduaren egitean eta ideologiaren artean jasandako kontraesan pragmatikoez desgaste txiki bat ekarri bazioten ere, Gipuzkoan lehen indarra izaten jarraituko du EAJk¹⁰¹.



Ir.6. *El Dia* (1936-02-18) hauteskundeen emaitzak

Hauteskundeetan gailenduta eta eskuinarekin etsaituta, ezkerrarekin zituzten harremanak ez ziren askoz hobeak [Ir.6]. 1936ko martxoaren 22an Hernanin izandako liskar baten harira 22 urteko Jose Aranburu Lasa nazionalista hil zuten sozialista batzuk. Oraingoan ere, Lizasotarren familiak Aranbururen familiari laguntzeko harpidetzan dirua jarriko du¹⁰². Batez ere Bizkaiari buruz ari bada ere, Manuel Iruixoren hitzak argigarriak dira sozialistekin garai hartan zituzten harremanak deskribatzeko: *socialistas y nacionalistas eran como el diablo y el agua bendita; no se podían ver*. Iradi, Ander Plazaola eta Joaquin Zubiriak gogoan dutenez, Aranbururen heriotzaren ostean *Ya no había más lucha que izquierdas y PNV* eta *Las Juventudes Nacionalistas estaban radicalizadas en ese enfrentamiento y mentalizadas para ese fin*. Aranbururen heriotzaren harira hainbat eraso egin zituzten beraiek ere eta argigarria da 1936ko maiatzaren leian jatzotako anekdota bat. Gazte Sozialistak Donostian zehar desfilatzen zenbiltzala Euzko Gaztediren aurrean geratu ziren jarrera probokatzailearen. Lokalak itxita bazeuden ere, barruan dozena bat gazte eraso bat ekiditeko pistolak zituzten. Azkenean ez zen ezer gertatu, baina tentsio noraino heltzen zen adierazten digu gertaerak. Pistolak horiek ziurrenik Elias Etxebarriak elkarrizketa batean iradokitzen duen erosketa batean eskuratu ziren. Ariztimuño, Lizaso eta Lasarte eta Benegasekin batera Etxebarriak partiduaren autoritateetatik at paramilizia sekretu bat sortu baitzuten iraultza komunista bati aurre egiteko¹⁰³.

Gerra Zibil arte doan denbora honetan politika eta armen erosketetan laguntzeaz gain, ez zuen bazter batera utzi euskal kulturarekiko apeta. Euzko Pizkundearen baitan, Lizasok euskal kultura eta nazionalismoa hobeto ezagutzeko lau saioko ikastaroa antolatu zuen. 1936ko

¹⁰⁰ *El Dia* (1936-02-04); *El Dia* (1935-06-23); *El Dia* (1935-08-17)

¹⁰¹ *El Dia* (1936-01-14)

¹⁰² *El Dia* (1936-03-20); *El Dia* (1936-04-07)

¹⁰³ Iruixoren hitzak, Ibarzabal (1978), 16; Blasco (1983), 14; EGI (1966), 90-92; Meerrek (1992) *nacionalista vasco* Elias Etxebarria dela iradokitzen du: 69-70

maiatzaren 7an izan zen lehendabizikoa. Ildefonso Gurrutxagaren eskutik XIX. mendeko euskal foralista garrantzitsuenen berri eman zuen hizketaldian. Lizasok aurkezle lanak egin zituen. *El Diaren* iritziz, Lizaso *inteligente como activo organizador y entusiasta animador de iniciativas vasquistas* da. Azken hitzaldia, Sabinoren lanen laburpen bat egingo du Jose Antonio Agirrek ezagunak¹⁰⁴. Ez zen Euzko Pizkundearen babespean egindako jarduera bakarra izan. Lizasok Union Radioko mikrofonoak hartu eta euskarazko emisio bat eskaini zuen. Txirritaren memoriaren ohorean bere poesiak errezitatu ziren eta Zubizarretak zuzendutako Bilboko *Schola Cantorumekoek* erriko *jaieteka* musika kantatu zuten¹⁰⁵.

Jose Inazio Lizaso errepublikar garaiko Gipuzkoako jelkidetasuna ulertzeko pertsonaia garrantzitsua da. Gipuzkoa Idazkaritzan egindako lana ez ezik, propagandista ezagun bat izan zen. Horrez gain, kulturgintzan ere aritu zen. Donostiako Euzko Gaztediko Erdel Batzarra martxan jartzeaz gain, Euzko Pizkundeko kide gogotsu eta aktibo bat izan baitzen. Maila politikoan EAJk aurrera eraman zuen estrategia pragmatiko eta posibilistaren barnean koka dezakegu. Estatutuaren alde egindako lanak argi erakusten digu hori, alabaina, mitinetan emandako diskurtsuekin Euzkadiren subiranotasunaren aldeko katoliko sutsu bezala kontsidera dezakegu eta estatutua momentuko aterabide onena bazen ere, azken helburua betetzeko erdi-bide bat besterik ez zela uste zuen abertzale zintzoa zen Lizaso.

Lizaso Gerra Zibilean

Orokorrean, Marokoko protektoratuko matxinadaren aurrean EAJk hartu zuen jarrera erabat zalantzatia izan zen. Estatutuak eta euskal auziak eskuin monarkikotik eta tradizionalismotik urruntzen zuen bitartean, partiduaren izaera erlijioso-integrista eta iraultzarekiko beldurrak aldentzen zion ezkerretik. Bi aldeekiko zituzten ezberdintasunen baitan nazionalismoko sektore batzuk erabateko neutraltasuna mantendu nahi izan zuten. Jagi-jagiko sektore bat da adibide adierazgarriena. 1934tik estatutuaren beraren kontra zeuden talde bat zen, Eli Gallastegui delarik adibide garbiena. Ez ziren postura hori defendatzen zuten bakarrak. Luis Aranak, Sabinoren anai eta 1932 arte partiduko liderrak izan zenak, afiliatu izateari uzteaz gain, protesta gogor bat igorri zion Doroteo Ziarruiz EBBko buruari EAJk Errepublikar gobernuarekin kolaboratzearen. Txomin Epalzak diosku neutralak izatea nahi zutela espainiarren arteko liskar horretan, baina, egia esan, azken hau ez zen postura errealista¹⁰⁶.

Lurraldeka EAJk emandako erantzuna benetan ezberdina izan zen. Araban eta Nafarroan altxamenduaren alde, edo gutxienez, kontra ez ziren agertu. Nafarroan 19an atxiki zuten NBBren lehendakaria zen Jose Aguerre eta NBBk hurrengo egunean altxamenduaren alde aurkeztutako nota bat idatzi ostean utzi zuten libre. Nafar jeltzide batzuk ihes egin zuten arren, beste batzuk behartuta hartu zuten parte altxamenduan eta beste askok gogo handiarekin ekin zioten Errepublikaren konkistari. Azken taldeko adibide garbientako da Ramon Goñi. ABBk egun pare bat gehiago behar izan zituen bere erabakia plazaratzeko, baina Nafarroan bezala presio militarrek eragin handia izan zuen hartutako erabakian. Azkenean, presio ezberdinen ostean uztailearen 22an altxamenduaren aurka ez egiteko erabakia luzatu zieten afiliatuei¹⁰⁷.

Gipuzkoan eta Bizkaian bestelako egoera eman zen. Bizkaian ez zen apenas ordena publikoan arazorik izan, eta Gipuzkoan Leon Carrascoren zalantzak zirela eta berandu altxatu ziren Loiolako kuarteleko militarrek. Kuartelen erreboltak Gasteizera zoan zutabea Eibartik berriro

¹⁰⁴ *El Dia* (1936-05-08); *Euzkadi* (1936-05-08)

¹⁰⁵ *El Dia* (1936-06-07)

¹⁰⁶ Arrieta (2018); SAF- EBB-307-1; Meer, (1992), 92

¹⁰⁷ Altxamenduaren oinarri sozialak ezagutzeko ikusi Ugarte (1998); Meer, (1992), 94-7 Arabako kasurako Arrieta (2021), 92-99; de Pablo (2008)

kapitalera itzularazi bazuen ere, Errepublikarren uztailaren bukaerarako kontrolpean zuten Donostia¹⁰⁸.

Gipuzkoako egoerari dagokionez, behin altxamenduari buruzko zurrumurruek konfirmatuta, Jose Maria Lasarte eta Manuel Iruok Errepublikaren aldeko nota bat egin zuten publiko irratir bidez, partiduko buruekin kontsultatu gabe. Komunikatua eztabaidatzean, GBB barruan nota hau ez argitaratzearen alde agertu ziren Avelino Barriola eta Jose Arteché. Ildo beretik, EBBk ere idatziaren aurka egin zuen. Uztailaren 18an Donostian urgentziaz bildu ostean Jose Lekarozik *El Día* egunkarian irratian esandakoak gezurtatzeko agindua pasa zioten, baina honek Iruorekin kontsultatuta ez zuen agindua bete, neutraltasuna EAJren kaltetan izango zelakoan. BBBk ere EBBren erabakiari jaramonik egin ez eta gau oso bat eztabaidatzen pasa ostean, Errepublikaren aldeko mezu bat atera zuen hurrengo egunean. Notak hark markatu zuen EAJren jarrera¹⁰⁹. Erabakia ez zen batere erraza izan. Esan bezala, eskuinetik bezain urruti zegoen ezkerretik. Iradik honela gogoratzen du momentua¹¹⁰:

Por lo tanto, estallado el 18 de Julio era muy difícil mentalizar a la juventud para ir unidos con las izquierdas, que además de no querer saber nada de autonomías eran contrarios a las ideas religiosas del PNV. El tema social tampoco sirvió de elemento fusionador pues la lucha de las juventudes nacionalistas estaba cerrada en torno a la cuestión nacional, haciendo dejación en la práctica, de motivaciones económico-sociales. Todo ello referido a Donostia... A nivel provincial el DIA sí que trata de realizar una aproximación a estos movimientos; pero siempre desde la prudencia y la lealtad interclasista priorizando la cuestión nacional.

Ateratako komunikatuak Errepublikaren alde lerrarazi bazioten ere, ez zuen EAJren berehalako inplikazioa aktiboa ekarri. Hasieratik EAJ eta bere inguruko partiduen orbitako kideak fronteetan borrokatu arren, ez dira multzo bezala abuztuaren 18 arte arituko. Egun hartan, mendigoizale eta euskal nazionalistak: *han dejado de ser la parte civil colaborante para convertirse en la parte civil actuante. Es decir, en elemento de lucha.* Abuztu hasieratik Azeptian, EAJk monopolizatutako nazionalisten frontea (EAE, ENB, Mendigoizaleak...) egituratzen ari ziren miliziak prest zeuden seinale¹¹¹.

EAJk hartutako erabakia ez zen musutruk. Hasieran ordena publikoa mantentzera bideratu zuen bere militantzia eta asko pentsatu ondoren, kontrapartida politikoak eskatu zizkion Errepublikari. Irailak 4ean Deban egindako bilera batean Euskal Gobernuak ordezkari bat gobernuan sartzeko aukera zabaldu zuen. Ez zuen euskal nazionalista izan behar, baina ordainetan *previamente se diese vigencia al Estatuto plebiscitado por nuestro País*. Negoziaketa gogorren ostean, urrian onartu zen estatutua ofizialki. Aste pare bat lehenago, gerra markatuko zuten bi gertakizun garrantzitsu jazo ziren. Lehendabiziko gertakizuna, armak heldu zirela da. Lezo Urreizietaren bidez Santurtziko portura irailaren 25ean sartu ziren. Laupabost egun lehenago, Sasetak Onaindiari Saturrarango komandantzia adierazi zion bezala errepublikar osteak ez zuten muniziorik eta ondorioz ez zegoen inongo frontierik ezartzeko aukerarik. Armen etorrerak gerraren zoria aldatu zuen. Bigarrena gertakizuna, altxatuen proposamen bat ez onartzearen erabakia da. Mutrikutik Lekeitiora etorri zen Onaindia eta Molaren mezu bat zekarren Iparraldetik. Errepublikaren akordio kinka larrian jar zezakeena. Molak jeltzaleei ordena mantentzeko eskatzen zien, eta ordainetan erresistentziarik erakutsiko ez balute autonomia errespetatuko zela. Diputaturik gabe burukideak ordu eta erdi deliberatu ostean

¹⁰⁸ Luengo (1987)

¹⁰⁹ Artetxe (1970) eta Meer (1992), 93 Juan Antonio Irazusta ere Barriola eta Artecheren erabakiekin bat zetozela dio Buces (2017), 24

¹¹⁰ Blasco (1983), 15

¹¹¹ *Frente popular* (1936-08-18); Buces (2017), 34-35

eskaintzari ez erantzutea erabaki zuten. Transmitituko informazioaren sentiberatasuna zela eta Axuriagerrak hala esan zion: *si no fuera quién eres merecerías ser fusilado*¹¹².

Ondorioz, hasierako zalantza eta mesfidantzak gaindituta eta negoziaketa gogorren ostean, EAJk Errepublikarekin lerratzea erabaki zuen 1936ko irailean. Larritasun handiko momentu hauetan ez dakigu ondo Lizasok nola jokatu zuen. Badirudi partiduaren esanetara jarri zela eta Radio San Sebastianen aritu zela errebeldeak errebelatu zirenean¹¹³. Altxamenduaren berri izatean, *Jefatura de Telégrafos de Guipúzcoa* langile komiteak berehala kargugabetu zuten zuzendaria eta karlistek Donostia konkistatu arte mantendu zuten beren kontrolpean. Hala ere, Gerra Zibilean zehar Lizasori buruz dugun lehen notizia ziurra Donostia jauzi osteko momentua da eta haren aitagarreba, Vitorino Saizarrekin du zer ikusia¹¹⁴.

Saizarrek 1936ko abuztuaren 16an nazionalak Amasan sartzean ihes egin zuen. Carmen eta Jose Inazioekin batera Gipuzkoaren ebakuazioaren testuinguruan, Bilborantz zihoazela Getarian geratu eta ezer egin ez zuelako hustean etxerantz abiatu zen. Errebeldeek atxiki izan zuten Lasarteko kontzentrazio esparruan, aharik eta urriaren 9-10eko gabeen Orioko gainean hil eta Zarautzen ehortzi zuten arte. 1937ko urtarrilean Monzoni Londonetik igorritako gutun batean, Vitorianoren heriotzaren berri ematearekin batera, Lizasok Carmenen anaia Claudio non dagoen argitzeko eskatzen dio. Egoeraren sentiberatasunak jota honako hitzok eskaintzen dizkigu *badakit zure emaztea zurekin dela. Nork izan alako zoriona*. Karmenekin ez da Londonen 1938 arte bilduko. Gerran zehar bere familiaren alde hainbat gestio egingo ditu. 1937ko abenduan Burgosen nazionalen aurrean Ingalaterrako ordezkari ofiziosoa bilakatu den Robert Hodgsoni karta bat igorriko dio 1939ko urtarrilaren 29an. Gerraren ondorioz 4 senide galdu dituela adierazita Claudiore buruz interesatzeko eskatzen dio. Santoñan preso egon ostean, eta Santa Mariatik pasata Granadan dagoela uste du. Gaixorik dago. Giralek Julian Manuel Hildagoren ordezkari aldatzeko eskaria luzatu duela esan ostean, zerbait egiteko eskatzen dio. Zoritxarrez, 1942an orainik ere Ceutan Langile batailoi batean dihardu Claudiok. Familiarekin bukatzeko, *Euzkadi* egunkarian 1936ko urriaren 17an aipatzen zaio Lizasori. Burdeosoren aurkitzen den Marcial del Pozok, Lizasoren arrebaren senarrak, Jose Inaziori buruz jakin nahi du¹¹⁵.

Aitagarreba Getarian utzita, Carmen eta bi seme alabekin, Iñaki eta Maite, Bilbora helduko da. Bilbon dauden eta Errepublikarekiko zintzoak diren Gipuzkoako aurrezki kutxako bankuko langileen zerrenda batean aipatzen zaiolako dakigu bertan izan zela. Bilbon dagoela BBBren esanetara jarriko da eta baieztatu dezakegu gerraren aurrean Lizasok zuen iritzia EAJk hartutako erabakien berdina dela, EAJren alde aktiboki kolaboratzen baitu. Are gehiago, altxatuei aurre eginez eta Euzkadiren kontrol efektiboa eskuratuz Euskadirentzat askatasun politiko gehiago eskuratuko zuela amesten zuen. Bere egiteari dagokionez eta BBBren aginduak jarraituz irailaren 21etatik irail bukaera arte Jose Luis Cortinarekin batera, London eta Dublinen egongo dira bertako prentsa eta gizartearen animoa neurtzen. Urri erdialde aldera, Donibane-Lohitzüenen dagoela Bilbora itzuli nahi duela idazten dio Monzoni. Itxaropentsu dago *guda gogor onetan azkatasunaren ateak irikitzea gure eskuetan degu*. Iralak bere atsekaberako Euskadi kontinentalean geratzeko eskatzen dio, nahiz eta Lizasok ez du ezer egin gabe geratu nahi, *Aberri alde lan egin nai det*¹¹⁶.

¹¹² Meer, (1992), 138-9 eta 175

¹¹³ EAH.S.A.Se:Gobernación L:5/617 Lizasok Monzoreni (1936-11-15)

¹¹⁴ Cal (2001), 15

¹¹⁵ Gurrutxaga (2013); Amasa Billabona Oroitzen (2014-05-19) EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/02 Lizasok Monzoni (1937-01-18); Jimenez (1991), 632; *Euzkadi*, (1936-10-17).

¹¹⁶ CDMH-PS-Santander Carp.21 Serie E. 18, 230 *Empleados de la Caja de Horros Provincial de Guipuzcoa que se hallan en Bilbao y se les considera afectos al Régimen*; SAF-BBB-281-1 Rapport que presenta a las autoridades del

Urritik ia azaro arte izango da Iparraldean. Antsietate handiarekin zerbait egiteko eskatuko du etengabe, nahiz eta ez den geldi geratuko. Tarte honetan, Pepe Michelenaren ardurapean Euskal informazio eta propaganda zerbitzuak bilakatuko diren zerbitzuentzat Bilbo eta Iparraldearen arteko komunikazioa ahalbidetuko duen irratia jarriko du martxan. Irrati hori Trintxerpe itsasontzian dagoena izango da. Urritik aurrera egongo da eskuragarri. Gernika ibaian zegoen Domayo itsasontziarekin komunikatuko da. Halere, Ingalaterran eta Irlandan ikusi duena kontatzeko gogoia izango du, eta Euskal Gobernu osatu berriak kanpo politika bat hasteko beharra ikusten du. Besteak beste, Euskal Gobernua eta Irlandarekin harremanetan jartzeko eskaerak luzatuko dizkio Monzoni. Itzultzen utzi ez eta bere ideiekiko apatia dela eta oso kritiko agertuko da Axuriagerrarekin, zeinek partiduak kanpora bidalitako misio guztien kontrola duen. *Jefe faxista en esta guerra contra el faxismo* bezala kalifikatzen du. Axuriagerraren pertsonalitate autoritarioak gerra garaian gora egin zuen. EAJ barnean BBBk izan zuen benetako agintea eta bertan bere burua zen Axuriagerra zen erreferentziazko pertsona. Eugenio Ibarzabalek idatzitako biografia batean dioen bezala, partidu barruan aginduen hierarkia ezartzean hala zioten: *lo ha dicho el Bizkai* esatetik *lo ha dicho Ajuriaguerra* pasa zen. Gainera, Lizasok eskatutakoa, hau da, Agirrerri bere txostena pasatzea ez dute beteko BBBko buruek. Honek Iruxori idatziko dio etsita. Iruxok Agirrerri egotziko dio benetan barkaezina dela Lizasoren iradokizunen berri ez izatea. Iruxoren ustez, Gobernuak hartu zezaken taktikan erreboluzio bat ekar baitzezakeen¹¹⁷.

Politikaz haratago lagunekin bilduko da Donibanen izandako denboran, Jose Ariztimuñorekin elkartuko da esaterako. Aitzolek idatzitako azken gutunetako bat da Lizasok jasoko duena. Lizaso Donibanen dagoenaren berri izan ostean idatziko dio. Bien artean dagoen konfiantzaren eta laguntasunaren seinale da hurrengo esaldia: *Nere mezatxoan egunero eskatzen nitxoan Jaungonkuari iregatik*. Ezagunei buruzko hainbat ohar egin ostean, elkar ikus daitezen eskatzen dio abadeak. Gerraren ezjakintasun, ziurgabetasun eta albisteen beharraren adibide garbia den gutuna da¹¹⁸.

Azkenean, eta denbora luzez Donibanen egon ostean, Bilbora bueltatuko da abenduan. Agirre eta partiduko autoritateekin bildu ostean, Euskal pasaporte bat seilatuko diote abenduaren 8an Euzkadiko hiriburuan: *Delegado oficial del Gobierno Vasco para el Reino Unido de la Gran Bretaña y el Estado Libre de Irlanda* kargua duela baieztatzen duen dokumentua da [Ir.7]¹¹⁹.

Partido Nacionalista Vasco el que suscribe, Jose Ignacio de Lizaso, salido de Euzkadi para Londres y Dublin en compañía de Don Jose Luis Cortina el día 21 de Septiembre en misión política. Urriaren 29an Lizasok Donibanen erreportai idatzi; EAH.SA.Se:Gobernación Legajo: 5/617 Lizasok Monzoni (D.g. ziurrenik urrian)

¹¹⁷ EAH.SA.Se:Gobernación L:5/617 Lizasok Monzoni (1936-11-15); Domayo eta Trintxerpe ontzietan buruz ikusi Jimenez (1999), 142; Ibarzabal, (2019), 32; EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, BAcelona, Paris). Secretaria V:100 L:23/04 Iruxok Agirrerri (1936-11-1) Lizaso. *Acudió a mi cansado de que no le hacíais caso. Y resulta que no os habíais enterado. Eso es imperdonable. El asunto tiene toda la transcendencia de una revolución a fondo en la táctica a seguir y en las ulteriores posibilidades. Sera imperdonable el que no hagáis caso de esa propuesta alhagadora [halagadora] y magnífica; Iruxok Agirrerri (1936-11-11) Oficialidad irlandesa = Me remito al rapport Lizaso y a la información Ajuriaguerra. Mi voto es el de que admitíais cuantos sea posible a esos señores, fogueados, valientes, buena raza, nos daría distinto carácter militar.*

¹¹⁸ SAF-DP-883-09 Ariztimuño Joseba Iñaki Lizasori (1936-09-27)

¹¹⁹ Amasa-villabona oroitzen dokumentuak: Carnet de Identidad de Jose Ignacio Lizaso Ilarraza



Ir.7 Amasa-villabona oroitzen dokumentuak: Carnet de Identidad de Jose Inazio Lizaso Ilarraza

Euskal autoritateek Eduardo Mendibilen bitartez abenduaren 11an luzatuko diote Bartzelonako kontsulari Lizaso Ingalaterran sartzeko baimena, baina ez diote berehalakoan onartuko. Lizasok propaganda eta hizketaldi politikoak egitera doanez ez baitiote sartzeko utziko. Aldiz, Espainiar gobernuak misio ofizial bat aurrera eramatera datorrela eta propaganda politikoa ez egiteko konpromisua hartu ezker baimena emango zitzaion herrialdean sartzeko. Agirrek telegrama bat jarriko dio Azcarateri¹²⁰:

Ruego V.E facilite gestione entrada Inglaterra Jose Ignacio Lizaso representante intereses Gobierno Vasco Londres detenido Folkestone policia que prohíbe continuar viaje. Igualmente recomiendo V.E advierta policia sobre viaje comerciales particulares autorizados este Gobierno Rafael Ferrer, Juan Mº Agirre, Gabriel Goiri. Saludale. Bilbao.

Tramiteak luzatu eta Folkestonen denbora luzean izan ostean, Pablo Azcarateren laguntzari eskerrak lortuko du herrialdean sartzeari¹²¹. Lizasok izandako arazoak eta Londona euskal delegatu bat heldu dela notizia izango dira herrialde hartako prentsan. Azkenean, urtearen amaierarako ezarriko du, zehazki abenduaren 31an. Lizasok Londoneko Espainiar Enbaxadan Euskal Gobernuaren Londoneko ordezkaritza. *Central Park* ondoan zegoen Goodwood hotelean (57 Queensborough terrace) hartuko du probisionalki ostatu¹²².

Hasiera-hasieratik dinamismo ikaragarria erakutsiko du. Notizia agentzia bat martxan jartzen saiatuko da eta etengabe kontaktuak berriak egingo ditu. Zoritzarrez, bere egoera diplomatikoak eta Euzkadirekin izango dituen komunikazio arazoak ez diote bere proiektuak erabat gauzatzen utziko. Halere, egingo dituen saiakera politikoak lan honen beste zati batean sakonduko ditugu.

¹²⁰ EAH.EG.LD.S:Secretaria General (Bilbao, Barcelona, Paris). Secretaria V:500 L:28/01; CDMH-PS-Santander 40, 12 Agirrek Pablo Azcarateri (1936-12-11).

¹²¹ AGA 54/7201: Azcaratek Walter Robertsi (1937-1-1): *I thank you for your letter of the 30th December. The Spanish government, in agreement with the autonomous Basque Government, decided that it would be convenient for Sr. Lizaso to come to London in order to assist me in matters particularly related to the Basque country. To this effect Sr. Lizaso has been provided with diplomatic passport, and has already arrived in London. I would take this opportunity of confirming most categorically my verbal assurance that Sr. Lizaso would not indulge in any propaganda while in this country and would conform to the regulations in force.*

¹²² Ingalaterran, *Star* (1937-1-20) Euskal prentsan: *Euzkadi Roja* (1937-01-22) Altxatuen prentsa: *La prensa* (1937-1-22)

Hasieran ezarri zen hoteletik, beste batera pasako da urtarrilaren 17an Hotel Mount Royalera lehendabizi eta bi hilabeteren ostean martxoaren 14an 10 Pembridge Place helbidean duen *bed and breakfast* batera. Bertan ostatu hartuta duela hasiko da Bizkaiaren aurkako ofentsiba Martxoaren 31an. Testuinguru honetan, Euzkadiren kontuek garrantzia politikoa hartzen duten bitartean, Lizasoren pertsonaia gero eta ezagunago bilakatuko da *Cityan*. Bilbo eta London artean ibiliko da Euskal propaganda zabaltzen, eta Bilboko blokeoaren baitan eta are gehiago Gernikako bonbardaketaren ondoren prentsan nahiko paper garrantzitsua jokatuko du. Hainbesteko sona hartu zuten Euskaldunek ezen, Walter Citrineren bidez FOkin biltzea lortu zuela Lizasok. Robert Vanssittart, FO buruarekin (permanent under-secretary) eta George Mounseyrekin bilduko da maiatzaren 3an. Britainiako funtzionarioen aurrean Euskal kasuari buruz Lizasok, eta estentsioz jeltzetasunak, duen ikuskera partikularra erakusten die, hau da, espainiarrekin alderatuz arraza ezberdineko pertsonak direla eta jomuga euskal askatasuna dela hain zuzen ere. Gainera, errepublikar eta nazionalak ez bezala euskaldunak bakea eta ordena katolikoa mantendu dute. Espainiar enbaxadako langileen bizkarrera egindako bilera honetan egindako adierazpenak euskaldunek aurrera eramandako paradiploiaz eta propagandaren erakusle garbia dira. Lizasok benetan uste zuen ez alde batek, ezta besteak ere ez zuela irabaziko eta Espainiaren patua nazioarteko artekaritza baten ostean erabakiko zelakoan zegoen. Momentu hartarako prestatzen ari ziren. Bilera honetatik aurrera gero eta komunikazio hobea izango du FOekin eta kazetariekin osatzen duen sarea hasi egingo da. Guzti honetan zer ikusia izango du E.M. Wright konpainia kontratatu izana 1937ko apirilean¹²³.

Bilera ematen den momentu berdinean, NJCko Wilfrid Roberts Ingalaterran eta Leah Manning Bilbon euskal umeak Britainia Handirantz ekartzeko asmoak errealitate bihurtzar daude. Lizasok rol garrantzitsua izango du egiteko honetan. Umeen ondorioz, baina kanpaina militarra pil-pilean dagoelako, kazetari eta politikariekin dituen kontaktua are gehiago ugartuko dira Bilbo erori eta Iparraldeko Kanpaina bukatu arte. Kontaktu horiek erabiltzen saiatuko da uztailan euskal errefuxiatuak itsasoz Frantziara lekualdatzeko edota Santanderko blokeoa arintzeko.

Urtariletik uztail artera dioan tarte honetan, Euskal Gobernuari hainbat kritika egingo dizkio. Nahiko bakarrik sentituko da eta behin eta berriro eskatutako laguntza ukatu edo ez da garaz iritsiko. Egia da ekainaren hamaseirako helduko dela idazkari lanetan arituko den Angel Gondra¹²⁴, baina Lizasoren kexak beste ildo batetik doaz. Argi dauka Euzkadiko autoritateak gerran dutela beren foku eta lehentasuna, baina Bilbora eskatutako eguneroko informazio eta bere jarduna markatuko duten irizpideak oso berandu helduko dira, inoiz heltzen badira. Gainera finantzaketa eskasa izango du bere ustetan. £50 soldata besterik ez. Nahi duen zirkuluetan sartzeko ez da nahiko eta horregatik, egin beharreko dituen gastuetarako oso baxua deritzona.

¹²³ UWA.ATUC:292/946/16a/45-6 Lizasok Citrini apirilaren 26an eskatuko dio FOekin kontaktuan jartzeko

¹²⁴ Gondrak guraso Emeterio eta Casilda zituen. Mundakan 1908ko azaroaren 5an jaioa. Jaioterrian Menesianoetan aritu ostean, Tolosako eskolapioetan merkataritza ikasi zuen 1925 arte. Handik, urte hartako irailean St. John's College ikasi zuen Southsean. 1926ko abenduan itzuli zen Mundakara. Bilboko Firestone urte bete lan egin eta Arrigorriagako Hilados Ibazabal Ltd. zegoen gerra hastean. Errepublika denboran EAJko militante. Larrinagako kartzelan izango da horregatik 1934an. 1930ean artillerian egin zuen soldaduzka. Azaroan Bilboko kostako goardian arituta, Lehendakariak zifratuaren buru egin zuten; aharik eta 1937ko ekainean Londonera idazkari bezala bidali arte. Idazkari eta ordezkari lanak egingo ditu 1949 arte. Orduanik aurre ordaintzeke lan egingo duen delegaritzan eta dirua eskuratzeko 1951 arte Isleworth Polytechnicen espainiera irakatsiko du. Ondoren, 1952-3 bitartean Burbridge Gamboa & CO Ltd lan egin eta enpresa likidatzean *Central Office of Informationentzat* arituko da itzultzaile gisa. 1956ean Mundakara itzuli eta Concepcion Ezkurdia Aboitzekin ezkondu ostean 1958ean jaioko da beraien semea: Martin. Tolosa eta Bilbo artean biziko zen. Haren emaztea karlismo aldeko familia bateko alaba zen; hortaz, Tolosan karlismoaren inguruan bizi bazen, Bilbon badirudi Axuriaguerrarekin batera jarduera subertsibotan aritu zela. HO 405/16449 eta CDMH // PS-Bilbao 183, 16

Kritikez ari garela, 1937ko azaroan euskal nazionalistak ez diren kontseilarien ahotsak Lizasoren egitekoaren aurka oldartuko dira eta horregatik dimisioa aurkezten du honek. *En su criterio [sozialistak] los intereses políticos de Euzkadi no se hallan representados en este país con eficacia y normas de actuación que ellos estiman necesarias*. Agirrereren babesa jasota bere asmoak birkontsideratzen ditu. Hala ere, egoera aprobetxatuz Iparraldean zuen familia Ingalaterrara ekartzeko eskatzen du postuan jarraitzeko kondizio gisa¹²⁵.

Azaroko krisi aurretik, 1937ko irailean 21etatik 24ra Lizaso Monzonen eskaera bat zela eta Genevara abiatuko da. Nyoneko paktua sinatu berri, kontrol sistema berri bat ezartzeko negoziazioen garaia da. Ordezkaritza espainiarraren baitan Negrin, Nicolas D'Olwer eta Alvarez del Vayorekin batera abiatu ziren Genevako Nazioen Ligara. Monzonen misioa Santoñako paktuaren ondorioz preso geratutakoei laguntzeko gestioak egitea zen. Ordezkaritza espainiarrekin bildu bazen ere, zailtasun handiak izan zituen eta denbora labur batez hitz egin zuen bakoitzarekin. Ordezkaritza honen politika ezberdin bat ez egiten saiatu bazen ere, Madama Malaterrearen laguntzaz Txileko ordezkariarekin bildu zen, Enrique Gajardo eta Agustin Edwards. Santoñako presoen laguntzan Txileko gobernuak ahal zuena egitera konprometituko zela adieraziko diote hauek. Kudeaketok direla eta, Alvarez del Vayok leporatuko dio ordezkariatza espainiarraren bizkarrera jokatu izana¹²⁶.

Bidaia honi buruz, Lizasok Londonen idatzitako txostenak informazio gehiago eskaintzen digu. Nazioarteko egoerari buruz informazioa bildu eta Monzonen, hau da euskal delegatu baten berri ematea izango dira Lizasoren egitekoak. Genevan kazetari ezberdinekin bildu zen. Gehienbat britainiarrekin. Aurretik Londonetik ezagutzen zituenak. Ez zen eskusiboki kazetariarekin bildu eta beste nazionalitateko kazetariarekin ere aritu zen euskaldunen posizioaz solasean. Halere, euskaldunon egoera eta posizioa azaltzeko kazetari ingelesak egoteak asko lagundu zion. Lizasoren hitzetan kazetariaren gehiengoak euskaldunon ikuskera argia zela adierazi zioten. Aipagarria da Vernon Bartlett ezagunarekin eta *Daily Telegraph* kontserbadoreko Genevako korrespontsalarekin, E. Ibbetson James, izandako elkarrizketa. Bartlett, *News Chronicle* liberaleko korrespontsal diplomatikoa zen. Lizasok 1937ko urtarriletik ezagutzen zuen eta Euzkadira etortzen lagundu zion. Kazetariak zin egin omen zion, euskaldunon alde momentu erabakigarrian bere esku zegoen guztia egingo zuela Britaniar Gobernuaren presionatzeko. Jamesek ere bere egunkarian Euskal arazoarekin zer ikusia zuten gaiak txertatzen saiatuko zela zin egin eta iradokizun interesgarri bat egiten dio Euskadik ordezkariatza bat izateko Suitzako herri honetan. Kazetarietz gain, Monzon eta Lizaso Zeelanda berriko ordezkariarekin, Jordan jaunarekin ere aritu ziren hizketan. Ez interbentzioko politika fartsa bat zela iritzita oso kritikoa zen Jordan politika honekin. Uste zuen Espainiako guda bukatzeko lehendabiziko pausua potentzia handiek babestutako interbentzio bat beharrezko zela eta hala adierazi zuen Ligako bilera. Jordan NJCKo Henri Brintonen ordezkariaren bitartez ezagutu zuten¹²⁷.

¹²⁵EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02 Lizasok Agirrerri (1937-11-1) Lizasok Iralari (1937-11-6)

¹²⁶ Jorge (2012), 1456-7 Txileko funtzionarioak Madrilko enbaxadak sortzen zizkien gastuak kendu nahi, eta trukearekin Francori onura diplomatikoak eskuratu zitzaizkeela konbentzitzen saiatu ziren. EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:50 L:34/04 *Breve informe del señor Monzon de su gestión en Ginebra* (1937-09-28)

¹²⁷ EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:50 L:34/04 Viaje realizada a Ginebra por Don Jose Ignacio de Lizaso 21/24 septiembre 1937. Jarrarian datorren informazio hemen; 1938ko irailean Landaburuk eta Izaurietak ere antzeko zerbait proposatuko dute Ugalde, (1996), 655 Landaburu e Izaurieta *después de un viaje en septiembre de 1938 a Ginebra proponen abrir una oficina o una delegación vasca. Nos han aconsejado como muy conveniente al pueblo vasco la difusión del conocimiento de su caso en los países del Centro y de Oriente de Europa. Derivada hacia esa zona del continente parte de nuestra propaganda, es muy conveniente que sea Ginebra el centro de la misma*

Lizaso eta Monzonek egindako bidaia honetan, informazioa biltzeaz gain, 1937ko abuztuan Santoñako paktuaren ostean giltzaperatutako gudarien patua aldatzea bilatzen zuten. Lizasok Agirrerren ordenei jarraitzeaz gain, lagun eta familiarrak zituen Santoñan, hortaz ez da harrizkoa benetako interesa adierazi izana. Monzonek Genevan Txileko ordezkariekin hitz hartutakoak FOera eramango ditu azaro-abenduan zehar Lizasok. George Mounseyrekin bilduko da azaroko hirugarren astean eta Errepublikaren eta Francoren aldekoen artean bestelakoa negoziaketak abian diren arren, horiek luze joko duten ustean Txileko Madrileko enbaxadan zeuden iheslariak Santoñako presoen ordezkarietako eskaeraren gainean presio egiteko eskatzen zion. Funtzionario ingelesek ez zioten inolako aterabiderik ikusten inizatibari. Franco armada errepublikarraren ofizialen beharren jakitun, ez zizkion ofizialak itzuli nahi. Beste militar batzuen truk ez bazen behintzat. Azkenean inizatiba ez zen gauzatu eta Gurutze Gorriaren bidez negoziatu ostean 1938ko urtarrilean 41 gudari besterik ez ziren trukatu¹²⁸.

Ez zen Santoñako presoak askatzeko edo gutxienez beraien bizitzak bermatzeko egindako kudeaketa bakarra. George Lansbury laborista eta parlamentari zaharrena ere inplikatu du Lizasok. Lizasoren telegrama bati erantzunez, Lansburyk Cianori presionatuko dio 1937ko irailaren 11an eta Italiako atzerri ministroak Salamancako enbaxadari Francori bere izenean mezu bat igortzeko eskatuko dio¹²⁹.

Santoñako presoek kezka ez zuten egiteko bakarrak izan. Bilbo erori eta berehala hasiko zen nazionalen umeak aberriratzeko kanpaina. Halere, gero aztertuko dugu sakonago gai hau. Santoñako eta umeen kudeaketekin lan gutxi ez eta Landaburuk nazioartean Euskal Gobernuak dituen ordezkariak plan bat egiteko eskatzen dio 1937 abuztu-irailean, hau da Kanpo Harremanetarako idazkaritza bat sortzeko proiektu bat osatzeko. Landaburu Alava sarearen bidez askatu berri Parisa bidali zuen partiduak. Parisen EAJren ordezkari izateaz gain, Euskal Gobernu eta partiduaren arteko lotura lanak egiten zebilen¹³⁰.

Aipatu berri dugun berrantolaketa plana euskal lurraldea galdu ostean egingo da eta ez da propaganda plan berri bat. Kanpo akzioa zuzentzeko plan bat baizik, nahiz eta biak ia eskutik emanda joan. Ordurako lehentasunak aldatu egin dira, eta gerra baten egunerokotasuneko arazoak ahanzi eta lehendakaritza *ahora (...) está dispuesta a poner todo su esfuerzo, antes forzosamente repartido a tantos problemas en la única tarea de extender por el mundo nuestro anhelo de pueblo*. Lizasok gerraren balorazio batekin hasiko du txostena. Haren ustez, bi aukera daude gerra bukatzeko: bake inposatu bat edo Mundu Gerra. Gertatzea zaila bada ere, bestelako emaitza bat ere eman zitekeen: bandoetako batek irabazi zezakeela, alegia. Euzkadirentzat ez litzateke notizia ona, nazionalistentzat behintzat. Horregatik dago Lizaso Londonen lagunak egiten. Etorriko den gerraren fase garrantzitsua prestatzen dihardu. Euskaldunok izan duten jarreragatik¹³¹:

tenemos derecho a gozar de la paz que haga justicia a los caídos y preparar una vida libre en una Euzkadi libre a las generaciones vascas futuras que honraran la memoria de los caídos. Hau gertatzeko baina, es indudable que no existe otro camino para emplazar a Euzkadi en la paz que una propaganda bien orientada de una intensidad tal que cuando llegue el momento en que la suerte futura de España se plantee, la opinión mundial exija los actores de las negociaciones de paz una solución justa a los derechos y anhelos de nuestro pueblo.

¹²⁸ CDBG 21 FO 371/?W 21519 eta CDBG 22 FO 371/?W22035

¹²⁹ Zubiaga, (2016), 262-264 *del asunto al General Franco [y] dígame en mi nombre que un gesto suyo de clemencia provocaría reacciones benéficas en la opinión pública inglesa*


¹³⁰ Arrieta (2021), 117-121

¹³¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02

Lehen Mundu Gerrako Belgika eta Txekosloveniaren ereduak ditu buruan. Propaganda hori egiteko argi du toki bakoitzean:

habría que organizarla con un sentido práctico, ajustándola y orientándola de acuerdo con la especial idiosincrasia y psicología de los países en las que se tratara de realizarla (...) plantearse nuestro problema en tal forma (...) sientan simpatía por él, después y lo consideren por último como necesario sea solucionado. Pero para ello es preciso adoptar para cada pueblo sistemas distintos, que se ajusten a sus gustos e inquietudes. Argumentos que encajen (...) En una palabra la propaganda debe ser racional y dirigida, y su única finalidad, la eficacia. Behin, propagandaren helburuak eta ortzi-muga argi, eskema bat proposatzen du Europako txoko guztietara eta Amerikako herrialde nagusietara propaganda bidaltzeko.

Guztia koordinatzeko, Parisen sekzio ezberdinekin idazkaritza nagusi bat ezartzeko iradokitzen du [Ir.8]. Estrategiak definitzeko gobernuaren xedeak ezagutu behar ditu eta horregatik Lehendakariaren azpian hauekin harreman zuzenean dagoen idazkari orokor batek zuzendua. Besteak beste, Euskadiren kausa nola azaldu, hau da, soberania osoko estatu edo penintsularen barneko estatu federalista bat sortzea, edota katalanekin batera edo ez propaganda egitea. Irudian ikus daitekeen antolakundea da proposatzen duena:



Ir.8 Lizasok proposatzen duen Idazkaritzaren eskemaren

- Prentsa eta aldizkari irakurketa saila: Munduko prentsa eta aldizkari garrantzitsuenak aztertuz, haien ildo ezagutzearekin batera interesekoak diren oharrik hartzeaz arduratu
- Ofizina: Pertsonal laguntzailea
- Artxiboa
- Idazketa saila: Kolaboratzaile ezberdinekin esku-orriak, liburuxkak eta liburuak sortu. Laguntzaile eta itzultzaile plantilla batekin osatua.
- Editoriala
- Bidalketak eta frankeo atala

Planaren aurkezpena ordezkarietzi so eginez bukatuko du. Esandako egikaritzeko ondo antolatutako delegazio sare bat erabakigarria dela deritzo. Nahiz eta propaganda onena Euzko Jaurlaritzaren konportamendua bera izan dela iritzi, eta horregatik mundu mailako prentsan euskaldunak modan izan, ez zen momentua probestu. Gobernuaren zailtasun ekonomikoek Paris eta Londonetik salbu, ordezkarietza gehiago ezartzea galarazi baitzuten. Horregatik, ordezkarietza faltagatik ez zitzaion balio diplomatiko-politiko atera testuinguru apropos horri. Hori eraldatzeko proposatzen duen ordezkarietza sarea da irudian ikus daitekeena. Idazten

duenean, Paris, London, Mexiko, Vatikano, Baiona, Bartzelona eta Valentzian baziren ordezkariak; baina sare-handiago bat mahaigaineratzen du: New York, Kopenhage, Buenos Aires eta Pragakoak lehentasun bat izan beharko liratekeelarik. Gainera, ez da beharrezkoa herri guztietan ordezkariak izatea. Hierarkia handiarekin antolaturiko sarea izan daiteke zeinetan azpi-ordezkaritzen bidez, ordezkari nagusi batek lurralde handiago bat hartu dezakeen bere gain.

Alemania, Italia eta Errusian, baita Nazioen Ligaren aurrean ere ordezkariak ezartzeko beharra ikusten du. Azken batean, nahiz eta ez asko gustatu aipatutako hiru herrialdeak, bake-negoziaketa hipotetikoan mahaian izango dira, eta erabat beharrezkoa da horiekin hitz egitea.

Txostena ordezkari eta idazkarien egitekoak zehaztu ostean bukatuko du. Funtzioak zehazterakoan nahiko zehazkabe agertzen dela esan dezakegu. Herrialde bakoitzak bere ñabardurak dituen horietara egokitu beharko da ordezkari bakoitza. Hala ere, ordezkariaren lehen eginbeharretako bat herri bakoitzeko politikaren eta prentsaren analisia eta eboluzioa aztertzea dela irizten du. Aurrera egiteko ezinbestekoa den zerbait. Gainera, ordezkariaren independentzian sinisten du. Herri bakoitza ezberdina denez, finkatutako ordezkariak ezagutuko du ondoen bertako psikologia eta horregatik propaganda bere eskuetan egon beharko litzateke. Ez du txostena erabat bukatzen. Ordezkariak prentsa eta politikako pertsonaiekin kontaktuak ezarri behar dituela esan eta orduan bukatzen da idazkia.

Dena dela, Lizasok ordezkariari buruz aipatu dituen inpresioak, bere egitekoan oinarritzen ditu. Ingalaterran egindako propaganda bere eskuetan egongo da eta Frantzia eta Erresuma Batuen herrien kultura (eta *psikologia*) ezberdinak izanik, hainbat eztabaida izango ditu Parisekin. Lizasok proposatzen duena ez da adierazi bezala gauzatzen, baina ordezkari sare bat ezarriko da mundu mailan Paristik, lehendakariak eta lehendakari ordeak, hau da Agirrek eta Leizaolak zuzenduta. New Yorkera abiatu aurretik Antontio Irala izango da sarearen idazkari nagusi eta ondoren Pedro Basalduak hartuko du paper hori. Gainera, kolaboratzailez osatutako erredakzio talde bat ere jarriko da martxan Paris eta Baiona tartean. Aita Barandiaran, Onaindia, Rodriguez eta Pantaleón Ruiz de Olano adibidez.

1937ko abendua Errepublikarrek hasitako Teruelgo ofentsibarekin bukatuko da urtea. Mundu mailako prentsaren lehendabiziko orrialdeak hartuko ditu Vicente Rojok koordinatutako erasoaldiaren garaipenaren berriak¹³². Tropa Errepublikarrek 1938ko urtarrilaren 8rako errendituko dute plaza eta haiek konkistatutako lehen kapitala da. Nahiz eta otsailaren 22rako nazionalen esku egongo den, Teruelek esperantza izpi txiki bat ireki zuen errepublikarrentzat. 1936an hasitako gerra erabat totalizatuko dela adierazten duen bataila da eta herriaren ejertzitza defentsibara ez ezik, ofentsiban ere aritu zitekeen demostrazio. Oraindik ere gerrak luze iraungo zutenaren seinale. Gainera, urte honetan *appeasementaren* inguruko ingeles gobernuko kabinetearen lehen krisi larria emango da otsailaren 20an, Anthony Edenek dimisioarekin.

Berri guzti hauen jakitun, Lizaso bere aberkideen patua arintzen saiatzen jarraituko du. Urtarrilean Euskal kleroa sufritzen ari den errepresioari buruzko datuen notiziak prentsara igortzeaz gain, Atholl dukeari eskerrak emango dizkio hainbat ofizial bizitza salbatzearen¹³³. Sufirimendua gutxitzeaz gain, lanez gainezka arituko da 1938an zehar. Euskal Gobernuak lurraldea galdutakoan sekulako ofentsiba propagandistikoa hasiko du atzerrian. Horregatik, Londonen zuen kontaktu sareak gora egingo du. Gehienbat mundu kontserbadorean zentratuko da. Adibidez, 1938ko martxorako Vyvyam Adams *tory* gaztearen lagun egingo da. Ezagutu eta

¹³² Aupi (2017).

¹³³ *Manchester Guardian* (1938-01-26) (1938-01-29) *Sunday Times* (1938-01-30)

berehala Adams *Basque Children Committeera* elkartuko delarik¹³⁴. Adams Chamberlainen politikarekiko oso kritiko agertuko den *toryetako* bat da. Municheko akordioekin partiduaren ildotik aldendu egingo da Duff Cooperrekin batera. Adams Lizasok izango duen aliatu baliotsuenetarikoa bilakatu da. Artikulu ezberdinak idazteaz gain, kontaktuak erraztuko dizkio. 1938 bukaeran martxan jarriko dira Lizasok *House of Commonseko* lokalean diputatuen aurrean egingo dituen afariak eta Adams bera izango da afari guzti horietan *chair* eta babeslea.

Kontserbadoreak bereganatzea ez da taktika hutsa, hau da, ez da soilik boterea beraien esku dutelako hurbiltzen, estrategikoa da. Liberal eta laboristen gehiengoak euskaldun eta Katalanen autonomia nahiak ulertzen badituzte ere, ez dira hortik pasatzen. Adibidez, 1938ko apirillean Arthur Sinclair liberalarekin izandako bilera baten ostean Lizasok argi utzi zion Agirrerri britainiar oposizioak Espainiarekiko zuen ikuskera: *La oposición tiene un sentido UNITARISTA por eso plantea el caso vasco abiertamente a los conservadores y no a la oposición. (...) La oposición es útil a España no a Euzkadi y a Cataluña*¹³⁵. Sinclairri euskaldunen benetako egitasmoak adierazi ezkerer ziu asko Azcarateri esango lizkioke. Azcaratek berak hasiera batean mundu tradizionala defendatzen zuten kontserbadoreen babeska eskuratzen saiatu zen. Bere hautaketa bera, Espainiaren irudi errespetagarri baten irudia ematera bideratuta zegoen. Ongi ikusi zuten bere izendapena gobernuak zein *The Times* influentziagarriak. Bere zoritxarrerako, benetako babeska eta laguntza mugimendu laborista eta liberaletan besterik ez zuen aurkitu¹³⁶.

Nahiz eta euskaldunok *toryen* gehiengoan gutxieneko abegikortasuna eskuratu, Euskal Gobernuaren obsesio bat betetzeke geratu zen: Winston Churchillekin elkartzea. Ez zuten lortu. Churchillek hainbat artikulu idatzi zituen Espainian bitartekaritza bat ematearen alde. *Evening Standard* argitaratuta *The Red Sunset* da adibide garbiena. Edozein alde irabazi ezkerer fakzio ezberdinen borroka bat iragartzen zuen. Errepublikar zaleek komunista eta anarkisten arteko borrokaldi bat ikusi beharko lukete. Nazionalak osteralemaniar inposizioa. Hori ekiditeko, dei egiten die galtzen ari diren errepublikarrei Frantzia eta Britainia Handiari artekaritza bat eskatzeko¹³⁷.

Artikuluaren izaera eta tonua ikusirik euskaldunok interesatuta zeuden bi aldeak nahiko ahulduta zeuden momentua euren interesetara aprobeztatzeko. Horra hor bileraren nahia. 1937 abendurako bi saiakera egin zituzten, baina Churchill erregezaleen aldekoa izanik ez zuen bildu izan nahi¹³⁸. Ez dugu ahaztu behar *Morning Posten* eta gero *The Daily Telegraph and Morning Posten* aritu izan zela urte luzez lanean Ingalaterrako lehen ministro bilakatuko zena. 1938ko martxorako Edward Griggsek beste saiakera bat egin zuen. Berriror ere ez zuen funtzionatu. Ordurako Churchillen inguruko bospasei pertsonaren bidez elkartzen saiatu baziren ere, bazirudien ez zela inoiz momentu egokia¹³⁹. Gerra bukatu aurretik 1939k otsailean Churchillen ilobaren bidez, Duncan Sandys, beste saiakera bat izan zen. Sandys Adamsek antolatutako afarietako baten ostean prestatu zen hori egitera. Ez zuten lortu. Zuzenean lortu ez zutena, bestelako bide ez zuzenetik lortu zuten. Lizasok Batista i Rocari eskerrak eta Churchillen iloba baten bitartez bi nazioen arazoak helarazi zizkieten, alabaina elkartzeko eskaerei entzungor egin zien beste behin. Hauen eskaerak gogoan bazituen ere, ez zuen ikusten nola lagun ziezaiekeen. Hauekin biltzeko zituen erreparatzaileak, ez zituen erakutsi 1938 erdialdean Andres Codorniu karlista Londonen egon zenean. Arazorik gabe bildu eta laguntza eta guzti eskaini zien gainera.

¹³⁴ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V 300 L:294/01 1938 ,arch report

¹³⁵ EAH.SA.S:Delegación de Londres L:9/910 Lizasok Agirrerri (1938-04-05)

¹³⁶ Azcarate (1976), 42 eta 50

¹³⁷ *Evening Standard* (1938-04-05)

¹³⁸ EAH.EG.LD.S:Delegaciones.En Londres Se:LizasoV:275 L:297/04 1937 november- december report

¹³⁹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se Lizaso V:300 L:294/01 1938 march report

Espainiaren norabide autoritarioa gustuko ez eta hala esan zion bake-negoziaketa batzuei buruz¹⁴⁰:

hombre listísimo (...) y me habló de España con un conocimiento de causa, como hasta el momento nadie me había hablado en el extranjero. Tiene su opinión formada de las cosas de España, con un criterio muy práctico tanto que preveía la posibilidad de una gestión por nuestra parte cerca de Inglaterra. Esta dispuesto a ayudarnos.

Pertsonalitate ezberdinekin bildu eta sortu zuen kontaktu sarea sortzea ez zen posible izango E.M. Wright agentzia gabe. *Cityko* mundu politikoaren berri emateaz gain norekin elkartu eta nola hurbil zitekeen adierazi zioten hauek Lizasori. Bestelako ekintzetan ere, bai propagandistiko zein diplomatikotan lagundu zioten. Besteak beste, errepublikaren politikarekin bat ez zetorren memorandum bat idatzi zuten. 1938ko ekainaren 23an entregatutako memorandumua Batista i Rocarekin batera eman zioten Alexander Cadogani. FOean Edenen dimisioaren ostean Robert Vanssitarren postua hartu zuen pertsona. Bigarren Mundu Gerran izango duten erlazio estua 1938an hasiko da. 1938ko apirilean helduko da Batista Londona. Orokorrean ados egongo dira aurrera eraman beharreko politiketan, baina hasiera batean Lizaso izango da Batistari kontaktuekin lagunduko diona. Lehen une horietan nahiko galduta ikusiko du¹⁴¹:

me parecio que Batista estaba un poco desorientado (...) No trae orientacion ni plan. Companys debe tener confianza completa en el. (...) creo que colaborando con lealtad con los catalanes debemos cotizar nuestro prestigio en este pais. (...) su posicion es mas firme que la nuestra porque ellos tienen el territorio que a nosotros nos falta

Parafraseatu berri dugun gutunean Lizasok eta Gondrak izango duten arazo baten berri ematen da soldaduzkarako deia. Espainiako armadak nahitaez errekrutatzeke deia egingo die eta ez dute garbi ikusiko beraien egoera. Azkenean badirudi Agirrek Negrinekin 1938ko uztailean hitz egin ostean salbuetsita geratuko direla zerbitzu militarra egitetik¹⁴².

Zerbitzu militarren ondorioz benetako arazoak izango dituen Ramon Sota da. 1938ko martxo-abuztu bitartean izango da Sota Lizaso eta Gondrari laguntzen, baina honek ezin izango du Espainiako enbaxadan azaldu. Sota Espainiatik atera egin zuen bere aitak gatazkaren hasieran¹⁴³. Zuen adina zela eta herriaren ejerzitian aritu beharko litzateke eta Azcaratek ez dio hori barkatuko. Horregatik, E.M. Wright agentziaren ofizinetan egingo du lan. Azcaratek Sotarekiko zuen obsesioa, Lizasorengan pasako du. 1938ko udaran konturatuko da Lizasok darabilen azpijokoa. 1938ko irailean Municheko paktuaren baitan, euskaldunok Sudeteetan gertatzen den minorien arazo berbera Espainian jazotzen dela adieraziko dute eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatu. Gainera, antzeko momentuan *German Intervention in the Basque Country* argitaratuko dute Euskal Gobernuaren zigiluarekin. Bi ekintzek iskanbila eragingo dute. Lizasok enbaxadan geratu nahiko balu baldintza bat bete beharko du. Argitaratuko diren liburuxka guztia enbaxadaren prentsa zerbitzuek argitaratuko dituztela hain zuzen ere.

Enbaxadatik ateratzea erabakiko dute, eta tentsioko momentuak biziko dituzte euren artean. Agirrerri hala diotsa gutun batean: *Supongo que el Sr. Azkarate sabrá a estas horas que he regresado a Londres y francamente no me gustaría encontrarme con el en la calle. Me resultaría muy violento*¹⁴⁴. Bisitako tentsioa zela eta Londoneko delegatuak prentsara igorritako

¹⁴⁰ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/915 Lizasok Agirrerri. (1938-05-16); UNAV 177/278

¹⁴¹ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/912 Lizasok Agirrerri. (1938-04-21)

¹⁴² EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/899 Lizasok Agirrerri. (1938-07-20) Se:Delegación de Londres L:9/912; SAF-IRUJO-K.28, C.4

¹⁴³ Ibarzabal (2021), 391-5 Fondo beyris

¹⁴⁴ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/902 Lizasok Agirrerri (1938-09-01)

anuntzio asko era ez zuzenean egitea pentsatuko du, Londonekoak beharrean, Parisko ordezkarietatik igorritako deklarazioak balira azalduko lirateke. Ez dira eskema hau erabiltzera helduko.

Azcaratek Londoneko enbaxadatik egotziko duen pertsona bakarra ez da Lizaso izango. Antonio Cruz Marin Londoneko enbaxadako ministro kontseilaria ere beste toki batera lekualdatuko baitu. Cruz Marin Lizasoren konfidente nagusia zena, ez zetorren bat Espainiako enbaxadoreak zeraman politikarekin. Esan daiteke *azañista* zela, Azcarate *negrinista* zen bitartean. Horregatik, Washingtonera bidaliko dute zerbitzu diplomatikoei, Washingtoneko kontsul orokorra postua betetzera¹⁴⁵. 1938ko abendu aldera Irujori eta Bosh Gimperari Katalan eta Euskal ordezkariak Espainiar enbaxadara etor zitezela eskatuko die Azcaratek¹⁴⁶.

Espainiar enbaxada urrian utziko zuten Lizaso eta Gondrak ofizilaki, nahiz eta lehenengoa denbora luze batean ez zen hara joan. Lekua bilatzen ibili zen bitartean, E.M. Wrighten ofizian erabili zituen. Berehala aurkitu zuten agentzia honen laguntzaz toki txukun bat: 14, Eccleston Square. 1940 arte izango da Euskal Delegaritzaren egoitza eta bien bizileku. Ondoren, 7/8 Hobart Squarera pasako dira. Ecclestoneko ofizian behar zutena omen zen¹⁴⁷:

gran suerte de encontrar lo que necesitábamos. Una hermosa casa donde podremos vivir y al propio tiempo montar una oficina hermosa. (...) cerca de la embajada; salón precioso donde espero poder recibir con la dignidad necesaria a personalidades políticas o (...) suficiente capacidad por si alguna persona delegada del Gobierno de Euzkadi tenga necesidad de venir. (...) alquiler no creo que supere 35-40 libras.

Egoitza aldaketarekin enbaxadak eskaintzen zituen zerbitzuak erabiltzeari utzi behar izan zioten. Horregatik, telegrafista bat behar-beharrezko zuten. Pertsona hori Aurora Untzueta zen. 1938ko irailean etorri zen Biarritzetik Londona. Gerra Zibil hasieran Bizkaiko defentsa batzordeko ogasun komisioko eta ondoren Euskal Gobernuaren ogasun saileko idazkaritza eta interbentzioko artxiboan takimekanografa aritutakoa¹⁴⁸.

Euskal ordezkariarentzat, 1938ko independentziaren garaia da. Sekulako propaganda kanpaina martxan jartzeaz gain, ofizina propioa izango baitute, Belgrave Squaretik gertu gainera. Lizasok bere familia ekarriko du 1938rako Londona. Carmen eta hiru- seme alabak izango ditu berekin eta politika eta kanpaina militarren gorabeherei hobeto eusten lagunduko dio horrek. Esan bezala, 1938an hasitako kanpaina urri aldera zeharo indartuko da. Garaia hartan bitartekaritzaren inguruan zeuden espektatibak benetan ziren altuak. Euskal interesen mesederako, errepublikar eta frankistak nahiko ahituta ziruditen gainera. Euskal lurraldearen kontrola galtzea (nahiz eta herri sentimendu altua alde izan) prestigio internazionala zen geratzen zitzaieen arma indartsuena eta horregatik Britainiar iritziaren laguntza bilatzeaz gain, britainiar interes geopolitikoek interes zekiekeen aspektu ezberdinak azpimarratu zituzten aipatutako propaganda kanpainan. Baionako Villa Mimosan bildutako informazioa Britainiar Gobernuari eta Britainiar politikan eta prentsan influentzia zuten pertsonen pasatzeaz arduratzen zen Lizaso.

¹⁴⁵ *Ibid.* Lizasok Agirrerri (1-09-1938) Cruz Marini buruz ikus Viñas (2009), 480 Gerra hasieran, Irailean, izendatuko dute kontseilari Londonen. Paristik zetorren. 1937ko ekainean Kontseilari ministro izendatuko dute. New Yorkera lekualdatuko dute 1938ko urriaren 20an.

¹⁴⁶ EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:150 L:256/02 Irujok Agirrerri (1938ko azaro eta abenduan)

¹⁴⁷ EAH.SA.Se:Delegación de Londres Legajo: 9/902 Lizasok Agirrerri (1938-09-01)

¹⁴⁸ CDMH PS-SANTANDER-HA,C.4,EXP.3. Nominas del departamento de finanzas de la Junta de Defensa de Vizcaya correspondiente al mes de septiembre de 1936 y probablemente en poder del departamento de hacienda del Gobierno de Euzkadi; PS-SANTANDER_HA,C.4,EXP.5 Relación nominal, probablemente del personal del departamento de hacienda del Gobierno de Euzkadi. Ikus. Iñaki Anasagasti eta Koldo San Sebastian,(2018), 44

1938 bukaeran, Manuel Irujo ministro ohiak bizpahiru asteko bidai bat egin zuen Ingalaterrara. Lizasok Irujo bere kontaktu sarearekin bildu zuen. Euskaldunon jarrera argi azaltzeko erabili zituzten bilerok. Mundu mailan eta Espainiako agintarien artean, Irujo gerra humanizatzearen adibide garbiena zen. Gainera, errepublikarren aldean bere izan zen Sir Philip Chetwodek martxan jarriko zuen truke batzordearen alde azaltzen lehendabizikoa. 1938ko martxoaren 16an onartu zuten Frankistek Chetwoderen Batzordea. Euskaldunek ere 1938ko martxorako prest zeuden *hard-die tory* hau onartzeko. Nahiz eta kontserbadorea izan *honorable man* bezala ikusten baitzuten¹⁴⁹. Errepublikarren mesfidantzak medio, 1938 irail aldera martxan jarriko zen misioa. Benetako porrota izan zen Chetwoderen atsekaberako, batik bat, nazionalak ez zeudelako prest akordio bat erdiesteko¹⁵⁰.

Presoen trukea eta preso zeudenen ongizatea izan ziren Lizasok 1939 hasieran gerra bukatu arteko doan garaiko kezka nagusienetarikoa. Hori dela eta, Francok otsailean erantzukizun politikoen legea argitaratu bezain pronto ingelesera itzuli eta berehala pasa ziren mezua parlamentariei eta prentsa britainiarrari. Legearen atzeraeraginezotasuna zen Francoren mendeku nahia adierazteko argudio nagusia. Parlamentariekin izandako afari batean lege hau ezarri beharrean Francok amnistia ezarri behar zuela iradokiko du Lizasok.

Gerra Zibileko azken momentuak aberkideen sufrimendua ahalik eta gehien arintzen emango du, etsita, Negrinek Francorekin armistizio bat ezarri behar duela iritziz. Negoziatutako aterabide bat hain zuzen ere. Lizasok, euskaldun askok bezala, ez zuen irudi guztia ikusten. Nahiko inozenteak izan zirela pentsa daiteke. Benetako arazoa ez zen Negrinek publikoki erakusten zuen zorrotasuna. Benetako arazoa Francok erabateko garaipena eskuratzeko nahia zen. Negrinek irmo eutsi behar zion Francoren aurrean indar handiagoarekin negoziatzeko, nahiz eta diplomaziaren edozein kanalen bidez saiatu aterabide duin bat eskuratzen.

Gerraostea eta Bigarren Mundu Gerra

1939ko apirilaren 1etik 1947. urte arte luzatzen den denbora gora-behera handiko garaia da. Atsekabea eta ilusioa behin eta berrero elkar nahastuko diren momentua. Juan Carlos Jimenez de Aberasturik idatzitako titulua *De la Derrota a la Esperanza* gogoan, ilusioak etsipenak baino indar gehiago izango du garai honetan. Aliatuengan jarriko dituzte esperantzarik baikorrenak, federalismo baten barruan Euzkadi subirano bat ikusteko. Hala ere, ez dira beste bideak, monarkiaren berrezarpenarena bezala, itxiko. Behin Mundu Gerra bukatuta uste zuten totalitarismo guztien gainetik ezarriko zela demokraziaren ideia eta Francorenak egingo zuela. Oker zenbiltzan.

Aliatuen babesarekin eta Espainiako oposizio ezberdinekin, azken helburua betetzeko, Euzkadi independente eta aske bat, bide ugari ireki zitzaizkien. Erabiliko diren estrategiak benetan pendularrak izango dira. Ia-ia erabateko isolazionismo eta bide bakartasun batetik, non Katalanen babesa besterik ez zen bilatzen, Errepublikaren euzkaldun sartzerraino eramango dituen. Politika aldaketa honek Lizasori EAJ barruan benetako buruhaustea sortuko dizkio. 1946an partidutik egozteraino. Era berean, 1940an, batik bat Agirre desagertzean, eta Aliatuekin izan beharreko harremanak zirela eta sekulako ika-mikak eman ziren. Hautu estrategikoak interes pertsonalekin are gehiago nahastuz

Gerraostetik *Phony War* eta Bigarren Mundu Gerra arte

¹⁴⁹ EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:150 L:294/01(1938-03-05)

¹⁵⁰ Anderson, (2012)

Franco Madrilen garaile sartzan den momentutik, Britainia Handian lau zutabe nagusitan oinarrituko dira Lizasoren egitekoak. Lehendabizi, gerra garaian egindako kontaktu sarea handitzen jarraituko du. Horretarako, LIABek martxan jarraitzen saiatzen den bitartean, parlamentariekin elkartzan jarraituko du, baita editore eta kazetari ezberdinekin ere. Bigarren zutabea, Euskal Herrian interesa duten pertsonaiei informazioa helaraztean datza. Alde batetik, alemaniarrek euskal lurraldeetan duten ezarpenaren gaineko informazioa eskainiko zaie. Ezarpen honek Frantziarekiko duen arriskua eta Euskal lurraldeak Ingelesen itsas-bide inperialetan duten garrantzia azpimarratuz. Horrez gain, aberkideen sufrikarioa arintzeko ere egingo du lan, Ingalaterran eta Frantzian dauden errefuxiatuei laguntzen jarraituz. Ingalaterran geratuko diren itsas gizonen kudeaketa ezberdinak egiten lagunduko die. *Trade of Unionsen* bidez laguntzeko jarriko zaien eskeman parte hartu eta Latinoamerikara emigratzeko eta hauentzat lana bilatzeko saiakerak eginez. Azken ildoan, Espainian daudenen errepresio geldotzeko ahalegina izango da. Aipatutako lau zutabe hauei beste bat gehitu behar zaie eta aipatutako lau zutabeek egiten diote oinarri eskaerari: Francoren erregimenaren zilegitasun falta salatzea izango da. Demokraziek errepresentatzen duten baloreen aurkako erregimen totalitarioek Europan lekurik ez dutela izango da erabiliko den diskurtsoa.

Guzti honez gain inteligentzia bildu eta Agirreri helarazten jarraituko du. Mundu mailako egoera zein den, Espainiako gainontzeko fakzioak zer egiten ari diren eta Britainia Handiak hauekiko zer nolako postura hartuko zuen informatuz. Lizaso benetan pertsona idealista da; baina Agirre bera bezala benetan pragmatikoa. Gerra ostean eta behin Mundu Gerra hasita Euskal Gobernuak *línea nacional vasca* deituriko ildo politikoa hartuko du Frantzia gerran sartu aurretik. Halere, bide hau aukeratu baino lehen, beste ideia batzuk planteatu ziren: Alfonso XIII. jarraitzaileekin ituntzea esaterako.

Gerra Zibila bukatzean, monarkikoen atsekaberako, gero eta influentzia gehiago eskuratzen zebilen Ramon Serrano Suñer. Falangearen aparatua erabiliz ententerako bira nabarmena emanaz gainera. Gerra Zibila irabazi ostean, espero zutena eskuratu ez eta gero eta kritikagoak ziren politikaren aldaketa horrekin. Beraz, badirudi, monarkikoekin lehen hizketaldiak izan zituztela nazionalistekin. Are gehiago, ezaguna den bezala, Britainia Handiko presidentea izatear zen, Winston Churchillen aterabide gustukoena zen. Ondorioz, 1940 urtarrilean, aukera hau kontsideratzen dute. Lizasok Agirreri hurrengo hau aholkatzen dio: *ni deberíamos estar ausentes los vascos en este primer periodo de tantos, ante una posible restauración monárquica*. Badakite Alfonso XIII. erregimen berri batek autonomia eskaini diezaakeela, Halere, kontuan dute gizartearen iritzia ezin dela egun batetik bestera aldatu. Gaineratzen dio Lizasok Agirreri euskaldunak monarkia baino, monarkiak euskaldunak behar dituela eta monarkiaren barneko lehen autonomia hori federalismorantz joateko pausu bezala ikusten du. Betiere, dituen inplikazioengatik, kontu handiz hartu beharreko erabakia dela esanz¹⁵¹. Negoziaketok aurretik datoz. 1939ko Iruxok Agirreri idazten dion lez, Jack Lecheren bidez Don Juanekin kontaktuan zeuden. Negoziaketok, Telesforori uzten zaizkio eta Iruxok Agirreri Britainiarren lehentasunak zerrendatzen dizkio: Francoren neutraltasuna da lehen aukera. Bigarrenik, Don Juanen monarkia bilatzen dute eta autonomien Espainia demokratiko bat da hirugarren aukera. Beraz, kontuan izateko aukera zen. Gutun horretan, Lizasok familiarekin

¹⁵¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:257/02 Reunión con Mr Stevens. Lizasok Agirreri (1940-01-10) eta Agirrek Lizasori (1940-01-27)

batera etxe berri bati hartu duela dio Agirreri: 12, Bushetts Grove-Villa Balrose- MERSTHAM (SURREY)¹⁵².

Azkenean, eta ondo pentsatu ostean, ez dira, orduan behintzat, monarkiaren bidearen alde agertuko eta ildo nazionalista euskaldunari eutsiko diote. Bide honetan, katalanekin eskua emanda joaten saiatu dira. Esaterako, biek batera 1940ko martxoan Londonen zegoen Summer Welles, Estatu Batuetako idazkari-ordeari memorandum bat idatziko diote. Welles Latinoamerikako gaietan zen aditua, baina gerrak eztanda egitean Europako arazoak ere hartuko ditu bere gain. Aurretik FOri idatzi dioten tonuan idatzia, Katalan eta Euskaldunen independentzia eskatzen diote gerra bukatuta, eta ondoren Iberiar Penintsulako gainontzeko estatuekin lan eginez, baita Portugal ere, konfederazio bat osatuko lukete. Arrazoi historiko, ekonomiko eta politikoz betetako eranskin luze batekin argumentatzen dute memorandumean proposamena¹⁵³.

Linea nacional vasca aldebakartasunaren bidea esan nahi du hain zuzen ere. EAJk gerra bukatuta 1939ko Meudoneko bileretan hartutako erabakia, Euskal Gobernura zabalduko da. Gobernua osatzen zuten partiduei Espainiarekiko zituzten loturak alde batera utzi eta Euskal Gobernuarekiko obedientzia totala eskatzen zitzairen. 1940ko maiatzean izandako bilera batean itunduko da politika hau *Comité Central Socialista de Euzkadirkein* (CCSE). Bertan demokrazien printzipioak dituzten herrialdeen alde egitearekin batera Euzkadi nazio bezala onartu eta euskaldunon esku geratuko litzateke askatasun hauen norainokoa ezartzea¹⁵⁴. Zoritxarrez, paktua Agirre Belgikatik itzuli ostean firmatzeke gelditu zen. Orduan, maiatzaren 10ean, *Wehrmachtak* Belgika eta Frantzia inbadituko ditu *blitzkrieg* taktika erabiliz. Belgika osoa eta Frantzia Iparralde-mendebaldea hartuta ekain bukaerarako akordio batera iritsiko zen Frantziarekin Alemania. Orduan, Alemaniak zuzenean kontrolatutako eremua eta *Vichyren* gobernu txotxongiloaren artean banatuko zen galiarren lurraldea.

Testuinguru honetan eman zen Agirreren odisea ezaguna da. 1940 maiatzean Belgikan zen familia bisitatzen. Alemaniarren konkistarekin batera galdu zuten bere berri eta Europa Iparraldean eta Latinoamerikan Jose Andres Alvarez Lastra doktore panamarraren izenpean aritu ostean, 1941eko azaroan azalduko da New Yorken. Bitarte horretan erbestean euskal nazionalistek izandako turbulentzia handienak biziko dituzte. Londonen izango dute mugimendu bortitz horiek epizentroa. Jose Inazio Lizaso, Manuel Irujo eta Luis Ortuzar izango direlarik protagonista.

Borroka horietan zentratu aurretik garrantzikoa da bi puntu aztertzea. Alde batetik, ordezkariak *Ministry of Information* (MOI) britainiarrekin izandako hartu-emanak aztertu eta Euskadiko Batzar Nagusia (EBN) edo *Consejo Nacional de Euzkadi* zer zen azalduko dugu.

Britainiar gobernuak MOI 1939ko irailaren 4an eratuko du ofizialki. Aliatuen kolaboratzeko hartutako erabakiaren ildoan, Euskal ordezkariak berehalakoan hasiko dira ministerio berriarekin elkarlanean. Batik bat, Espainiako eta Latinoamerikako herrialde ezberdinetako prentsa nazionalen laburpenak eta itzulpen lanak egingo dituzte. Denys Cowan, Espainia eta portugalerako zerbitzu burua, eta Kenneth George Grubbekin, Latinoamerikako herrialdeetako zerbitzu burua izango dira hauen kontaktuak. Cowan ministerioa osatu aurretik ezagutzen zuten.

¹⁵² Goigana *et al.* (2007), 125-8 Agirre Irujori (1939-09-27) *Sobre los monárquicos ya saben los minimos que exigimos*

¹⁵³ EAH.SA.Se:Delegacion de Londres. L:8/839 Lizasok Agirreri (1940-03-12) EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:257/02 memorandum to Summer Welles. Special envoy of his excellency the president of the united states of America. The royal institute of international affairs-i ere bidaltzen diote.

¹⁵⁴ Goigana *et al.* (2007), 210-11: Proyecto de programa para el Gobierno de Euzkadi, April 12, 1940

Philip Chetwodek Tolosan ezarritako truke ofizinarene idazkari izana zen eta Lizaso eta Iruixoren bermea izango da¹⁵⁵.

Kolaboratzen hasi eta hiru aste pasata, elkarlan estuago batean aritzeko proposamen bat luzatuko dio Lizasok MOIri. Antzeko dokumentu bat pasako zaio Frantziarrei Paristik. Bertan, Espainiara eta Latinoamerikara begira elementu ezberdinak garatzeko zein akzio egin ditzaketen zehazten dituzte nazionalistek. Adibidez, Ingalaterratik nazio bakoitzean interesatzen diren gaiak iradoki eta materiala sor dezakete, artikulu eta gutunak idatziz. Latino Ameriketara berriz, euskal ordezkariak dauden herrialdeetan informazio bildu eta enbaxada ingeleseko prentsa *attachéarekin* elkarlanean kanpaina ezberdinak aurrera eramane ditzakete. Bi aspektu nabarmentzen dituzte eskaerari indarra emateko. Alde batetik, espainiera ezagutzen dutela eta bestetik, euskaldun kolonia asko daudela hego Amerikan. Ondorioz, influentzia izateaz gain herrialdeak ondo ezagutzen dituzte¹⁵⁶. Proposamena onartu ezker, britainiar eta frantziar bide-diplomatikoene bidez komunikatuko ziren elkarrekin ordezkariak ezberdinak eta gainera, aliatuene alde lan egitearekin batera, propaganda ia dohainik egin eta aliatuene interesentzat konfiantzazkoak zirela erakusten aukeratu zuten.

Frantziarrek Espainiarekin zituzten kontaktu diplomatiko hauskorak zirela eta, ez zuten nahi izan proposamena onartu. Aldiz, Britainiarrek interesa agertu zuten dagoeneko zuten elkarlana sakontzeko. Cowan eta Grubbek urriaren 2an oso baikor agertu ziren proposamena aztertu ostean. Grubb urriaren 12an Londonen Iruixo eta Lizasorekin bildu ostean, azaroan Parisen zegoela Lehendakariarekin biltzen saiatu zen. Ez dakigu ziur harekin bildu zen edo Iralarekin, baina kolaborazio akordio batera heldu zirela ziurra da. Hasteko komunikazio kanal seguruak irekiko zizkion Euskal Gobernuari eta ondoren, herrialde bakoitzean interesatzen zen aspektuene inguruan emandako irizpideekin egingo zuten lan hauek¹⁵⁷.

Euskal Gobernuaren zorigaitzerako Frantziarren kezka elkarbanatzen zituen FOk eta ez zuten kolaborazioa onartu. Ez zuten komunikazio diplomatikoak euskaldunek erabiltzerik nahi. Hala eta guztiz ere, 1940 maiatzera arte gutxienez itzulpen zerbitzuak mantentzen dira Londoneko delegaritza eta MOIren artean¹⁵⁸. Badirudi, bide honek ez zuela segidarik izan, baina handik gutxira Ameriketara jarraituko zuten hartu-emanak errazteko balioko zuten.

Britainiar zerbitzuak eta euskaldunak berriro topatuko ziren urte gutxira Latinoamerikari buruzko kontuetan. Kasu honetan, Agirreren bidez egingo dira negoziaketak. Lehendabizi, zerbitzu sekretuene arteko kolaborazioa eman zen *The British Security Coordinationekin* (BSC). Guri propaganda ekintzak interesatzen zaizkigu eta horiei dagokionean 1941ko apirilaren 1ean Agirre, MOIk sortu zuen *British Press Serviceko* H. Mackintoshekin bildu zen New Yorken. Penintsula eta Latin Amerikan propaganda egiteko hitz egin zuten, alabaina bi arazorekin

¹⁵⁵ Angel Gondraren semeak, aita hil ostean, amari oraindik ere £ batzuk iristen zitzaizkiola gogoratzen du; Central Office of Informationentzat lanean aritu zen 1950. hamarkadan. Cowan aurrez ezagutzen zuten Lizaso eta Gondrak

¹⁵⁶ FO 930/148 eta FP 1/113 Note presented to HIS BRITANNIC MAJESTY'S GOVERNMENT by the Basque's Government Delegation in London. (1939-09-26). Txosten berdina agertzen da. Proposamene hau bi aste lehenago FOari egiten zaion proposamene baten segida da. Kasu hartan, ez diete onartuko.

¹⁵⁷ EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:75 L:44/02 Grubbek Iralari (1939-11-09) Lizasok Iralari (1939-11-15) Denys Cowan eta K.G. Grubb The Basque delegation's proposals and publicity in Latin America (1939-10-2); Grubbek Iralari (1939-11-09) Lizasok Iralari (1939-11-15). Ikusi Jimenez eta Moreno (2009), 276-84

¹⁵⁸ EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:75 L:44/02 Iruixok Agirreri (1939-10-24) *Los mejores deseos expuestos por este organismo han encontrado una rotunda y categórica negativa por parte del Foreign Office. (...) tenemos el propósito de ofrecer nuestros servicios al Ministerio de Información (...) poder colaborar estrechamente con el Departamento de Propaganda para Sud-América (...) en principio, aquella colaboración ha sido aceptada*; MOIko funtzionarioa zen J. Duval Ricekin 1939ko irailetik-1940 maiatza arte korrespondentzia. Cowanekin bezalaxe.

aurkitu ziren. Espainian propaganda nazionalista egiteko ezintasunean ziren bide honetatik, ez baitzitzaien Britainiarrei hori interesatzen eta Latinoamerikari dagokionez, Britainiarren influentzia eremua beharrean, Estatu Batuarrena zen. Horregatik, bigarren gobernuarekin izango zituzten harremanak¹⁵⁹.

Frantzia erortzearekin batera, badirudi Euzko Jaurlaritzaren eta MOIren arteko kolaborazioa Londonen aldatu egin zela. Adibidez, Onandia 1940ko irailetik 1948ko uztail arte itzulketak eta artikuluak idazteaz gain, BBCk Espainia eta Latin Amerikara zuzendutako irratsaioak eskainiko ditu.

Frantzia erortzean eta Agirre lehendakaria galdu zenean Iruok eta Lizasok Euskal Gobernuaren politika erabat eraldatuko zuen erakunde bat sortu zuten hutsunea betetze aldera. Ez zekiten non zen lehendakaria eta munduan zehar sakabanatuta geratu ziren kontseilariak. Batzuk Frantzian eta beste batzuk Ameriketan. Marseillan geratu zen behin-behineko lehendakaria zen Leizaola lehendakari ordea. EBBko eta Euskal Gobernuko funtzionarioa batzuek ekain bukaeran *Barón Nairn* britainiar ontzian ihes egin zuten Donibane Lohitzünetik eta ekainaren 28an sartu ziren Ingalaterran. Luis Arredondo, Antonio Gamarra eta Elias Echeverria burukideekin batera Pedro Ormaechea ELAkidea, Onandia eta zerbitzuetako Zarranz, Olariaga, Echeverria, eta Agestatarrak heldu ziren uhartera.

Esan bezala, zegoen errepresentazio falta betetzeko behin-behineko erakunde bat, EBN fundatu zuten Euskal delegaritzako partaideak 1940ko uztailaren 17an. Atzean utziko da 1931ko konstituzioa eta printzipio bezala planteamendu erabat maximalistak izango ditu, hau da, izaera nazionala izango du, ez autonomista. Gainontzeko ordezkartzeekin adostuta sortu zen eta hiru burukideak zalantzak izan arren, onartu egin zuten erakundea eratzea. Hurrengo eskema hartu zuen:

- Presidente: Manuel Iruko
- Bokalak: Jose Inazio Lizaso (Londoneko Delegetua) Ramon Aldasoro (Buenos Airesko ordezkaria) Pablo de Archanco (Buenos Airesko kontseilaria), Santiago Cunchillos (Buenos Airesko kontseilaria), Isaac Lopez Mendizabal (Buenos Airesko kontseilaria), Manuel Sota (New Yorkeko ordezkaria) Francisco Belaustegieta (Mexikoko ordezkaria), Juan Olazabal (Caracasako ordezkaria).
- Idazkaria: Angel Gondra.

Praktikan Londonen ezarrita zegoen triadak zuen erakundearen kontrola, batzorde iraunkorra Iruok, Lizasok eta Gondrak osatzen baitzuten. Erakundeak ildo nazionala ezarri eta praktikatu bazuen ere, ez zituen Errepublikarekiko izan zitzakeen lokarriak erabat apurtu. Adibidez, 1940ko abenduan Errepublikar demokrata ororekin harreman pertsonalak izatera ireki eta 1941ko irailean Mexikoko ordezkartzari Diego Martinez Barrios, Mexikon zegoen Espainiako gorteen presidentearekin kolaboratzeko baimena emango dio. Oraingoan harreman pertsonaletatik, erakunde errepublikarretara luzatuko da kolaborazio apustua. Betiere, *organizaciones nacionales demócratas que de buena fe aspiran a colaborar con los propósitos enunciados*¹⁶⁰.

Irekiera txiki bat izan bazen ere, ez zen hori lehentasuna. Errepublikaren bizkarretara eta autonomia osoz, harreman bilateralak ezartzen saiatuko baitziren beste estatuekin. Erbestean

¹⁵⁹ Goigana (2018), 189; 195-200 William Stephenson 1940 maiatzean Churchillen aginduetara New Yorken montatu zuen inteligentzia gorputza da. Lau sekziotan banatzen zen. Bill Ross-Smistek zuzentzen zuen Inteligentzia; Ingram Fraserren operazio bereziak, John Pepperren ekonomia inteligentzia eta Cedric Belfrage buru zuen propaganda eta politika borroka saila. Euskal Gobernuak lauekin kolaboratu bazuen ere, gehienbat Bill Ross-Smithekin izan zuen hartu eman gehien. Batik bat, Euskal itsasgizonak erabili zituen informazioa eskuratzeko.

¹⁶⁰ Anasagasti *et al.* (2019), 326

zeuden, Txekoslovakia, Yugoslavia, Belgika, Norvegia eta Poloniako gobernuekin zein Londonen zeuden enbaxada ezberdinekin, eta bereziki, Estatu Batuak eta nazio iberoamerikarrekin mantendu zuten. Helburu nagusia Euskadiren gatazka Penintsulako arazoetatik atera eta testuinguru kontinentalean jartzean zetzan¹⁶¹. Horregatik, izandako harreman guztietan garrantzitsuenak Ingalaterrarekin eta Frantzia Askearekin izandako negoziaketak dira. Azken honekin, 1941ko maiatzaren 17an, Lizasok eta Rene Cassinek akordio batera helduko ziren¹⁶². Euskal Gobernu batek berdinen artean beste estatu batekin lehen aldiz sinatu zuen akordioa zen. Negoziaetak 1940ko azaroaren 15 hasi eta luze jo zuten. Zazpi hilabete. Akordio itxi eta berehala FOaren erresistentziak pairatu zituen hitzarmenak. Erresistentzia horien ondorioz, 1941ko ekainerako bertan behera geratu zen, ezin baitzen praktikan jarri ordezkari galiarraren, J. Escarra komandantea, iritziz. Lizasoren hitzek argi erakusten dute ados zeudela erabakiarekin¹⁶³:

El Gobierno británico estima indispensable, de una parte que el acuerdo permanezca enteramente en secreto, de la otra, que su puesta en ejecución sea suspendida hasta nueva orden (...). El deseo expresado por ese Gobierno constituye un hecho nuevo ante el cual nos vemos obligados a inclinarnos. Ni qué decir tiene que esta suspensión de ejecución no resta nada de valor a un acuerdo debidamente otorgado (...). Dado que nosotros somos, unos y otros, huéspedes de la Gran Bretaña, tenemos obligación de honor de no hacer nada que no tenga la conformidad del Gobierno de su Majestad.

Dena dela, akordioaren proiektu batek aurrera egin zuen. *3er. Batallón de Fusileros Marinos*¹⁶⁴. Batik bat, Muselier almirantearen, *Forces navales françaises libres-eko* (FNFL) komandantearen, babesa jaso zuelako. De Gaullerekin izandako tirabiren ondorioz, 1942ko martxoan Philippe Auboyneauk ordezkatu zuen almirantea. Kargu aldaketarekin batera bukatu zen batailo honen abentura, 1942ko maiatzean. Unitate militarra 1941eko irailaren 11an jarri zen abian unitate eta 1942ko otsailean FNFLko Estatu Nagusiko burua zen Moret kapitainaren gainbegirapean desfile bat eta guzti egin zuten Camberleyen (Ingalaterra). Zortzi euskaldun, hamaika errepublikar, bost Frantziar eta 59 latino-amerikarrez gain, beste 110 pertsonak izena-eman zuten batailoian aritzeko. Halere, behin FOak batailoia estraktu euskaldunaz jabetuta eta espainiaren neutraltasuna arriskuan ez jartzeko, unitate militarra bertan behera uzteko agindua eman zen¹⁶⁵.

Akordioaren beste puntuetako bat zerbitzu sekretuen arteko kolaborazioari zegokion. Ordurako Frantziar zerbitzuekin izandako kolaborazioa ez zen berria, nahiz eta Frantzia erortzearekin batera *Deuxieme Bureaurekin* zuten elkarlana eten. Akordio berrian bazegoen informazio zerbitzuen arteko elkarlana bultzatu nahi zuen puntu bat. Ironikoki Britainiarrek interesa zuten Euskaldunen informazio zerbitzuan. Lizasok ondo zioen bezala, *son los servicios de inteligencia vascos el elemento único con el que podemos jugar en nuestra política con los ingleses*¹⁶⁶. Ingelesak zerbitzuak bereganatzeko bi bide erabili zituzten. Alde batetik, Euskal Ordezkaritzako Iruxo eta Lizaso negoziatu zuten. Bestetik, Luis Ortuzarrekin. Bideetako bat ere ez zen ireki¹⁶⁷.

Ortuzar eta Iruxo mokoka zenbiltzan Ingalaterran. Lehenari Leizaolak partiduaren errepresentazioa eman omen zion 1940ko maiatzean Parisen izandako bilera batean, bere pisua indartuz. 1940. zehar tentsioak areagotu egingo ziren *Continental Transit* enpresaren auzia zela eta. Continental 1938ko martxoaren 17an Euskal Gobernuak (Eliodorok) emandako £30.000

¹⁶¹ Jimenez (1999), 97

¹⁶² Anasagasti *et al.*, (2019), 325-331 De gaullek ez sinatzean, Iruxo Lizaso, EBN idazkaria bidali zuen

¹⁶³ San Gil (2012), 555

¹⁶⁴ *Ibid.*

¹⁶⁵ Francok Samuel Hoare, enbaxadorearen bitartez estutu zituen agintari britainiarrak Marquina (2006), 427

¹⁶⁶ Jimenez eta Moreno (2009), 303. Lizasok Sotari (1941-07-9)

¹⁶⁷ Jimenez eta Moreno (2009) 290-320

osatutako enpresa zen. Ortuzar, David Barnett eta C. Morgan ziren zuzendariak. 1938ko azaroan, £20.000an igo zen euskal kapitala, Elias Etxeberriak Comité Basque de Secourxeko idazkaariak kontrolatua. Ortuzarrek £10.001, *Managment & Shipping* £19.998 (Ortuzarren konpainia bat) eta Barnettek £1, guztira £80.000. Iruxo eta munduko euskal delegaritzak diru beharrean ziren 1940 erdialdetik, baita Leizaola eta Torre. Marsellatik jendea ebakutzeko behar zuten dirua. Irukok Ziarruizek emandako *power of attorney*-a erakutsiz likidatzeko agindua eman zuen; baina Torrek Ortuzarri eskaini zion konfiantza. Ortuzarrek Iruxoren likidazio eskariei kasu ez egitean, auziak 1941 erdialdetik aurrera auzitegietan bukatu zuen. Halako larritasuna izan zuen auzian ezen Agirreren hitzetan auzia *el único grave durante mi Gobierno en Euzkadi y en el exilio* izan zen. Agirrek 1942-3an Ortuzarren alde egin zuen; baina 1945ean arte itxoin beharko zen auzia erabat ixteko¹⁶⁸.

Borroka honi delegaritzaren eta zerbitzuen arteko sintonia txarra gehitu behar zaio. Ortuzarren auzia zela eta, zerbitzukoak heldu zirenean, Iruxo eta Lizaso oso mesfidati zenbiltzan. Ondorioz, beraien autoritatea garbi uzten saiatzerakoan txokeak izan zituzten. Kontseilu nazionala sortu zenetik, Iruxo eta Lizasoren helburua Britainia Handiarekin konpromiso minimo batzuk eskuratzea zen. Charles Willsen laguntzaz, 1940ko uztail eta abuztuan Carey almirantea eta bere lehengusu zen Robert G. Boothby, Janariaren ministerioko idazkari parlamentarioa eta Churchillen gertukoa, negoziatzen egon ostean lau puntu izango zituen akordio minimo batetara heldu ziren. Euskal kausarekiko sinpatia agertzeaz gain, Espainia eta Erresuma Batua gerran hasiz gero EBN aitortuko du euskal lurraldeko zilegizko gobernu; eta gerra irabaziko balu Euskal estatua sortzeko ahaleginean lagunduko luke, mugak aurrerago erabakiko liratekeelarik. Negoziaetekin aurrera jarraitzeko Churchillekin, Lehen Ministroarekin, bilera eskatu zuten. Churchillen ordez ordea, FOko burua zen Alexander Cadogan azaldu zen, beraz, Iruxo ez zen bildu harekin, Lizaso bakarrik. Espainia gerra sartzeko aukerak beldurtuta aurreko negoziaketen berri ez zekiela adierazi zion. Lizasok aurretik egindako eskaerak errepikatu ostean, Cadoganek bere nagusiei inoiz onartuko ez ziren eskaerak pasa eta Frantzia Librearekin ituntzeko iradoki zion Cadoganek.

Iruxo eta Lizasok ezer sinatu ezean, ez zuten Britainiarrekin kolaboratzeko asmorik. Ageriko irabazi politikorik eskuratuko ez balute, *Intelligence Servicen* beste adar bat besterik izango zirenaren beldur ziren. Errealistagoa zirudien Ortuzarrek, paraleloki eta John Hichman agentearen bidez zerbitzuko kideekin negoziatu zenbilen. *Ascensin Housen* bizi ziren zerbitzukoekin delegaritzak zituen arazoek jakitun egindako mugimendua zen. Zerbitzukoideek Euskal Gobernuarentzat beharrean, kasu honetan ENB, partiduaren aparatua zirela argumentatzen zuten eta EBBk baimentzean hasi zituzten kontaktuak. Halere, Irukok negoziaketak desautorizatu zizkien 1940ko irailean.

Kontseiluak Carey eta Boothyren bidez eta zerbitzuak Ortuzarren kanala erabiliz kontaktuan jarraitu zuten Britainiarrekin; alabaina, 1941eko otsailerako, Ortuzarrek ingelesen nahiak aldatu egin zirela eta Cecilio Zarranz eta Candido Echeverriaren zerbitzuak bakarrik behar zituztela jakinaraztean apurtu egin ziren kontaktua. Beitiak hurrengo hau egotzi zion Ortuzarri¹⁶⁹:

Olvidando Ud. que el Servicio reúne un complejo de actividades de las que la labor informativa- la única que afecta al organismo inglés- es quizás la menos interesante bajo el aspecto patriótico, y naturalmente, derivada de las restantes. Y estas son terreno vedado para Ud.

¹⁶⁸ EL.MI, Caja 30 Agirrek Iruxori (1941-11-28). Auzia Luis Ortuzar Funtsa ikusi. Continentalen auzia ikusi Aberasturi (1999), 304-6 EAH LO. Agirrek Ortuzarri (1945-04-26) £30.283 - s.16- d.7 jasoko ditu lehendakariak enpresa 1943 erdialdera likidatu ostean. Halere, gerraren ondorioz aktiboak blokeatuta egon ziren. Agirreren alde egitean, Ortuzarrek sekulako banketea eskaini omen zuen Dorchester Hotelean.

¹⁶⁹ Jiménez eta Moreno (2009), 315 Beitiak Ortuzarri (1941-02-17)

Azkenean, Joaquin Eguia kapitainaren bidez eta Alianza demokratikoari loturiko espainiar batzuekin jarriko dute ingelesek zerbitzu bat martxan¹⁷⁰.

Agirre etorri bitartean beraz, akordio internazionaleri dagokionean behintzat ez zuten zorte handitik izan. Iruixoren benetako helburua euskal arazoa testuinguru iberikotik atera eta kontinentera, hau da Frantzia eta Europara mugitzea zen. Agirre etortzean, Akordio politikoen bidez lortu ez zuena, bide kulturetik eskuratzen saiatuko da aurrerago: *Union Cultural de los Países de Europa Occidental* sorkuntzarekin.

Bitarte honetan baina, euskal kausa bizirik mantentzeaz gain, aliatuen aldeko propaganda egiten jarraitu zuten. Demokraziaren balioei gorazarre eta totalitarismo eta autokrazien aurkako aldarrietan jarriko zuten enfasia. Lotura politikoez gain, Charles Wills, batzuetan John Wills goitizena hartzen duenak, lagunduko die propaganda lanetan. Euskal demokrazia oinarri, Britainiar Demokrazia aztertzen zuen liburu bat egiten ziharduen. Bukatu arte £20 ordainduz mantenduko diote hileru Willsi. Harreman estua izango da eta kontratutik haratago luze iraungo duen laguna izango dute Charles¹⁷¹.

Gorago ikusiko dugun bezala, Latinoamerikan BSCrekin izango zituzten kontaktuak Agirre etortzean, baina Britainiar eta Frantzia zerbitzu sekretuak alde batera utzi eta Estatu Batuetako zerbitzuekin kolaboratzera ekingo diote. Kolaborazio honen hasiera gainera Britainiarren kontaktuei eskerrak hasiko da. Ez da ahaztu behar Latinoamerika Estatu Batuarren influentzia eremua bilakatuko dela. Latinoamerikan zentratzearekin batera, European federal baten ideiak gero eta indar handiago hartzen joango zen bai Agirre eta Iruixoren ideetan. Lizasok ere federalismo horretan amestuko du.

Hala 1941ean Iruixok De Gaulle eta Edeni, berriro ere Erresuma Batuko Atzerri ministro, nazioarteko *League of Federation*¹⁷² baten proiektuaren memoranduma igortzen die. Hiru nibel politiko-administratibotan banatuta egongo zen erakundearen egitura. Xedea nazio guztiek demokrazian eta beraien artean armonian, bakoitzaren bizitza aurrera eramatea zen. Lehendabiziko maila Portugal, Galizia, Gaztela, Andaluzia Kataluniak eta Euzkadik osatuko zuten. Bakoitzak, *full national political sovereignty, and the right to cultivate its language, strengthen its race, develop its own culture, secure its own particular institutions, increase its wealth, cultivate its civic genius and encourage the enterprise of its national spirit* izango zuelarik. Ondoren hau Frantziarrek gidatutako Europa Okzidentepko konfederazio batean integratuko zen, Belgika Holanda eta Rhineland edo Alemaniako Nazioekin (eta ez gerran zeuden alemaniar Estatua). Azken nibela: Europa Okzidentea, Zentrala, Balkanak, Ekialde Sobietarra eta herrialde eskandinaviarrak integratzen zituen aipatu dugun *League of Federation* zelarik¹⁷³.

Idea honen ildoan, 1942ko irailean osatu zen *Unión Cultural de los Países de la Europa Occidental*. Talde euskaldun bat ere eratuko zen mugimenduaren barnean: Uzelai buru zela. Harekin batera, Gondra, Iruixok, Zabalo, Zubelzu eta Lizaso bera aurki ditzakegu. Euskaldun eta Katalanak talde Espainiarrean sartu ezean Salvador Madariagak ez zuen talde espainiarra osatuko. Iruixok arazo euskalduna kontinentera bideratu nahi zuen eta aukera ematen zion, Agirre egiten ari zenaren aurka EBN hasitako politika jarraitzeko. Agirrek, Iruixoren antzeko

¹⁷⁰ Eguiaren bidaiaren inguruan

¹⁷¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:291/02-03; Giogana et al. (2007), 479 Iruixok Agirreri (1942-02-12) *Wills, es un inglés del que disponemos para la propaganda y que en estos momentos prepara - parece ultimándose- un libro de actualidad, con el estudio de la democracia inglesa, tomando por base la vasca. Mientras no vaya a las cajas del Editor el libro, venimos sosteniéndole*

¹⁷² Jiménez (2002), 121-4 Ameskeria bezala katalogatzen du proposamena

¹⁷³ Ugalde (2019), 36-40

posturetan sinistu arren Espainiako beste indarrei hurreratzeko saiakeretan zebilen. Horregatik, Pi i Sunyerrek printzipio geopolitiko arriskutsuen ondorioz kritikak jaso ostean, Agirre bera ere proiektuaren aurka oldartu zen. Gainera, 1943rako, FO presioen ondorioz bertan bera, ezkutuan, geratu zen erakundearen egitea.

Ironikoki, FOek ezkutuan hauspotutako erakunde batean integratu ziren, *Federal Union*, 1938an William Beveridge sortutako erakundeak *Federal Research Institute* bat abian zuen. FO bertan egoteko arrazoia Iruixok Leizaolari idatzitako gutun batean argi uzten du: FOek *siguiendo la táctica de estar situado en todas partes, sin comprometerse en ninguna*. Badaezpada daude halako mugimenduetan, zeren *no significa hoy una realidad política, baina quizá pueda serlo el día de mañana*. Hala gertatu zen *Federal Union*ekin. Hayako kongresuaren antolatzaile, Nazioarteko Mugimendu Europearen bultzatzaileetako bat bilakatuko baita. Munduan zehar antzeko proposamen eta erakundeetan hartu zuten parte euskaldunek. Esaterako, 1943ko martxoan New Yorken osatu zen *Consejo de Europa en Américako* kide zen Agirre.

Euskaldunak mugimendu federalistan zer esan handia izan zuten eta paper handia jokatu zuen federazioaren ideian Pedro Beitiak pentsatutako Eusko Etxeak, zeinetan, bera izango zen entitateko idazkari. 1943ko uztailaren hasi eta 1945 bitartean funtzionatu zuen n° 8 de Cromwell Place, South Kensingtonen kokatua. 160 kide izatera heldu eta Euskal Delegaritzaren dependenzietan *Gernika. Boletín de Información de los Vascos en Inglaterra* argitaratzen zen. Ziren partidu politikoak zirelarik, Euskaldun guztiak biltzeko asmoarekin sortua. Aberasturiri utziko diogu Eusko Etxea zehazki zer zen azaltzen¹⁷⁴:

Esta especie de club de debate, que venía a ser una entidad extraoficial, fue conocido con el nombre de "Comunidad Ibérica de Naciones" y estaba integrado por cuatro personalidades político-culturales: Irujo, exdiputado y exministro, presidente de la Delegación Vasca y de "Euzko-Etxea"; el doctor Carlos Pi i Sunyer, presidente del Consejo Nacional Catalán; el socialista Luis Araquistáin, delegado en Londres de la Junta Española de Liberación de México, y Armando Cortesao, cartógrafo, exdirector general de Colonias y escritor portugués.

1944ko abenduaren 16an Arakistainek eskatuta, Cortesao portugaldarraren *Portugal-Inglaterra-Iberia* diskurtsua eman eta 1945ko apiril arte Iberiari penintsulako konfigurazio politiko berriari buruzko hainbat eztabaida-hizketaldik jarraitu zioten. Arakistainek jarritako baldintza batzuek bete ez zirenean bukatu ziren horiek. Baldintzetako bat 1931ko konstituzioa onartzeko beharra zen. Berau errebisatzeko aukerara irekita bazegoen ere, ez zuen separatismoaz ez eta autodeterminazioaz hitzegiterik onartuko. Beste bat, Komunista eta Negrinisten eskusioa zen. Ezin zezaketen eztabaidetan parte hartu. *Hogar Español* bat zuten azken hauek¹⁷⁵.

Euzko-Etxea bezalako proiektuak, Irujo eta Lizasok 1940. hamarkada hasieran zituzten posizio politiko erradikalak aldatzen joan ziren seinale dira. Pixkanaka EBNaN egin zuten bezala, hasiera batean, eta Agirre itzuli ostean, euskal soberania onartzen ez zuen indar politikorekin kontaktuak ez mantentzea erabaki arren, posizioak lausotu zituzten. Hasierako jarrera intransigenteak zirela eta Gobernu Britainiarrarekin erlazioak asko tenkatu ziren Bigarren Mundu Gerran zehar. Horrenbeste ezen Arrendondo eta Etxeberria burukideak hurrengo hau idatziko zioten Agirrerri igorritako txosten batean *coincidir la antipatía por Inglaterra con la postura intransigente de tipo JAGI*. Poliki-poliki, baina, jagi-jagismoa alde batera utzi eta

¹⁷⁴ Jimenez (2002), 124-6 Lizasok Agirrerri (1943-10-01) Euzko Etxea abian jartzeko Aketxe eta Vitoria jaunak jarri zuten Euskal Etxea alokatzeko abala. Domingo Astuy, banco bilbaoko langile ohia, izango zen diruzaina.

¹⁷⁵ Cortesao, Araquistáin, Irujo eta Pi i Sunyer (1945)

Agirreraren politika errealarantzko joera erakutsi zuten. Arazo kontinentalak, penintsulako arazo bezala ikusten bukatu zutelarik¹⁷⁶.

Agirrek 1942an Ameriketara zehar emandako hitzaldietan garatu zuen jarrera errealista. Inongo hitzarmen politiko argirik gabe Estatu Batuentzako lan egingo baitzuten aurrerantzean, fruituak onduta etorkizunean eroriko zirelakoan. Horregatik, oposizio erreala bat sortze aldera, Errepublikar zaleek egindako batasun saiakeretan parte hartu zuten, edo gutxienez hizketaldietan egon zen. 1942-3 bitartean Diego Martinez Barriosek eratutako *Acción Republicana Españolakina* (ARE) Monzonek eta Jauregik negoziatu zuten. Agirre eta Katalanak printzipio batzuk onartzen zituen minimoen testu bat akordatzera heldu ziren, baina badirudi EBB burukideek ez zutela berau onartu. AREko ordezkariak Ingalaterran Alvarez-Buylla eta Luis Portillo izan ziren¹⁷⁷.

1943ko azaroan Indalecio Prietok gidatutako beste egitasmo berri bat sortu zen. Habanako deklarazioari erantzunez, hau da, erbesteko indar guztien batasuna aldarrikatzen zuen mezua, Prietok *Junta Española de Liberación* (JEL) eratu eta AREko *antinegrinista* egitasmora batzera gonbidatu zituen. Haren presidente zen Diego Martinez Barrios, erakunde berriaren buru bilakatu. JELe 1931 konstituzioa alde batera utzi eta berriro zerotik hasteko helburua zuen. Nazionalismo periferikoekin akordio txikitara heltzea lortu bazuen ere, errepublikanismoaren arteko tentsioak eta Juntako lehendakaria eta idazkari orokorraren, Prietoren, arteko tentsioek proiektua ez-tandarazi zuten. Gainera, Iruyok planteatutako bidea hartu zuen EBBk, hau da autodeterminazioa onartu ezean ezer ez ituntzea. Beraz, ez zuten esanahi handiko itunik itxi.

JELen aurrean hartutako bidea, 1944-5 bitartean bide hori egokiena zen edo ez zehaztu behar izan zuten EBB eta Jaurlaritzaren artean. Frantziako burukideak, Iruyoren doktrina aldatzea erabaki zuten. Honek dimititu egin zuen ondorioz. Hortaz, JELekin izandako negoziaketek huts egin bazuen ere, EAJ eta Euskal Gobernuaren posizioak etorkizunerako moderatu zituen¹⁷⁸.

Moderazio horren ondorioz eta Meudonen 1939an hartutako bideari muzin egin ostean, Euzko Jaurlaritza berriro osatu/berritu zen 1945ko martxoan Baionako ituna sinatuta. Autodeterminazio eskubideari aipamen labur bat besterik egiten ez zaiolarik¹⁷⁹. Paktua sinatzeko arrazoi nagusia, egoera internazionala zen. Bigarren Mundu Gerra bukatzean, frankismoa erabat isolatuta geratuko zela zirudien. Estatu Batuek erregimenari ez zioten Nazio Batuen Erakundearen sartzen utzi eta demokrazia aldarriak entzun zitezkeen edonon. Halere, 1946ko martxorako, EEBB, Frantziak eta Ingalaterrak, esku hartuko ez zutela esan eta Errepublikarren esku utzi zuten erregimena erausteko edozein akzio mota. Horregatik, alternatiba erreala bat zela erakutsi nahi bazuen, oposizioak batu beharra zuen. Errepublikarrek ez zuten eskuratu Euskal Gobernuak lortutako batasuna eta San Frantziskoko konferentzian hiru talde egon zirela esan daiteke. JELaren bi fakzioak, prietistak eta Jose Giralen inguruan bildutakoak eta bestetik Negrinen taldea. Agirrek Giralen gobernuaren mesedetuko zuen.

Lizasoren iritziaren aurka egin zen hori. Ingalaterrako ordezkariaren ustez, Negrinekin adostu behar zen. Fakzio ahulena izanik, prebenda onenak eskainiko baitzituen. Hala ere, baliteke

¹⁷⁶ SAF-PNV-NAC-EBB-109-1 Arredondo eta Etxeberria (1945-05-15) Aunque no duda del patriotismo del CNV critica la falta de flexibilidad y sobra de personalismo de esta institución. *Además, menciona que Manuel y Lizaso no pueden aquí hacer una labor efectiva ya que no son personas gratas en ciertos centros*

¹⁷⁷ Aberasturi (1999), 410-4; Mees (2006), 102-3

¹⁷⁸ Mees (2006) 107-9

¹⁷⁹ Francisco Mendez (PCE), Candido Armesto eta Felix Liuquiano (CNT), Ascension Lasa (ELA), Fernando Sasia (Partido Errepublikarra) Paulin Gomez Beltran, Fermin Zarza, Angel Gimenez Ancisar (CCSOE), Candido Arregui (Euzkadi Mendigoizale Batza), Gabriel Goitia (EAE), Gregorio Ruiz de Ercilla (EAJ), José Campos eta Ángel Giménez (UGT), Ambrosio Garbisu, Ignacio Campoamor eta Rufino Garcia Larrache (Ezker Errepublikarra)

guztia Agirreren esku ez izana. Martinez Barriosek Agirreri gobernuko presidente lanak egiteko aukera iradoki zion Agirre Negrinekin adostasun batera heldu behar zela jakin zuenean. Erantzun baino lehen, Agirrek kanariarrarekin bildu nahi izan zuen, baina bilera izan aurretik Giralek 1945ko abuzturako gobernu bat eratu zuen. Meesen iritziz, orduan, lehendakariak gobernu honen alde egin zuen eta parte hartze erabakikorra izan zuen 1947ko urtarril arte iraun zuen exekutiboan. Iruxo Nabigazio, Industria eta Komertzioko ministro aritu zen. Bai euskaldun eta Katalanek kontrapartida ederrak jaso zituzten ordainetan.

Hasteko, finantzaketa handia izango zuten bai Katalan eta Euskaldunek. 1947ko udatik haratago luzatzen ziren diru-laguntzok, beraz, ezin dira gobernuan parte-hartzeari bakarrik mugatu, EAJ eta ERC gobernutik atera ostean ere jarraitu baitzuten. Ogasun errepublikarraren marko operatiboa kontrolatuko zuen Euskal Gobernuak. New Yorken Antonio Irala eta Parisen Agustin Alberro ogasunaren jaun eta jabe aritu baitziren. Haien bidez gauzatzen ziren operazio garrantzitsuenak. Euskal delegaritzak askok gobernu espainiarraren delegaritzak bilakatuko ziren gainera. Euskal Gobernuak hartzen ari zen pisuaz kezkatu agertu ziren Negrin eta Prieto.

Finantzaren kontrolak izanagatik eta zuen prestigioa lagun, Agirre Espainiar Errepublikaren politikaren zuzendari bilakatu zen. Horregatik, 1946 maiatz eta abuztuan presidente izateko aukera luzatu zioten. Lizasori bere kontaktu sare laboristek Agirre presidente ikustea gustatuko litzaiekeela konfirmatu zioten eta haren alde agertzen zen Lizaso bera. 1947an, Gerra Hotza errealitate bat zen. Kanpoko laguntza militarra eskuratzeko aukera bakarra, akzio hori kaos eta biolentzian ez bukatzen zetzan, batik bat komunista. Horren adibide dira 1947 maiatzeko greben harira Gobernu Britainiarrak Lizasori igorritako kezkak. Agirrek zuzendutako gobernu batek kaos horretan ez jausteko garantiak eskaintzen zituen, baina EBBk erabat arbuatuko zuen burutapena¹⁸⁰.

Iruxo Giralen gobernuaren kolaborazioan aldeko agertu zen azkenean. 1946ko maiatzean idatzitako txosten batean, Errepublikarekin kolaboratzerakoan lortutako abantailok goraiatzatzen ditu. Bestelako jarrera isolazionistekin ezinezko izango zirenak. Bigarren Mundu Gerran pairatutako arazo ekonomikoak ez zituzten izango garai honetan. 1940ko irailetik Londonen £350ko aurrekontua izan bazuten ere, hilabetero gainditu zuten zifra hau. Guztira bi urtean, ordezkari eta kontseiluaren artean, £10.000tik gora xahutu zituzten. Arazoak ez ziren hor bukatu, eta, nahiz eta 1942-4 artean ezarritako aurrekontu behin bakarrik gainditu, 1943ko urrian £384, 1942ko maiatzetik 1944ko martxo arte ia soldatarik jaso gabe egon ziren Lizaso, Iruxo eta Gondra. Kontrol ekonomikoa ezarri zenetik, orotara £2.938 gastatu zituzten, horietatik £2.766 delegaritzako funtzionamendurako erabili zirelarik. Milford Havenen ezarritako Elias Esnarrizaga eta batez ere, Mikel Laboa arrain-enpresarioak ziren hartzekodunak. £6.708 sor zitzaizkion azken donostiar honi. Zorraren zenbatekoa £20.000 zen. Ondorioz, 1944ko martxotik aurrera £225 murriztu zen hileroko aurrekontua. Are gehiago, 22 hilabetean sor zitzaizkien soldadak ez ziren osorik ordainduko. Bizitzeko behar zutena bakarrik emango zitzaien¹⁸¹. Baldintza horiek, Errepublikaren egituretan sartzearekin aldatu egingo ziren.

Garai berri honetan, dirua zegoelarik, 1946ko martxotik 1947ko martxo arte, gutxienez, Lizasoren ordezkariak Leslie Sheridan teniente-koronela kontratatu zuten Ingalaterran Errepublikaren alde propaganda gaiez arduratzeko. Sheridanek informazio eta inteligentzian lana egindako zen Bigarren Mundu Gerran. Hilabetero, Wright agentziak egin bezala *report* bat

¹⁸⁰ Mees (2006), 137-8,145; Irujo, (2012), 173

¹⁸¹ Mees, (2006) 152-3. Arrien, (2014), 583. EAH.EG.LD.S:Delegaciones.En Londres Se:Lizaso V:300 L:261/02; Goigana *et al.* (2008), 629-3 Agirrek Iruxori (1944-03-03)

egiten zuen bere lana justifikatuz. 140 Strenden zuen helbidea eta hurrengo bost helbururekin kontratatu zuten¹⁸²:

1. Gobernu berria “mapan jartzea”
2. Iruxo, Lizaso eta Errepublikako Londoneko ofizina aholkatu
3. Errepublikaren izenean notak igorri
4. Interesatzen diren artikuluen argitalpena eskuratu, izan berak edo beste batzuk eginak
5. Kazetari, politiko eta pertsonaia publikoak influentziatu eta ahal bada kausarako erabili

Errepublikarentzat lan egin bazuen ere nazionalistek ondo erabili zuten beraien interesentzat. Esaterako, 1946ko martxoan Royal Anthropology of Institutuen 1946ko apirilaren 10ean klase bat eman zuen euskaldunen inguruan. Sheridanen laguntzaile zen Wintlek izeneko bat aritu zen.

Aspaldiko lagunez osatutako *Friends of Spain* bat ere jarriko zuen martxan. 160 inguru parlamentarik emango zuten izena 1946ko irailerako, eta hurrengo hauek osatuko zuten komite exekutiboa 1946ko uztailean:

- Lehendakari. H.B Morgna
- Azpi-Lehendakari: Wilfrid Roberts
- Idazkariak George Jeger eta Francis Noel-Baker

Wilfrid Roberts, Lady Laton eta Jeger jaunaz gain, besteak ez ziren oso aktiboak izango.

Txosten hauetan erreferentzia bat egiten dio 1946ko maiatzean Lizasok Norvegia eta Danimarkara egitekoa zuen bidaiari. Errepublikak Herrialde horien aintzatespena bilatzen zuen. Joanaldia prentsa bidez publiko egin ez bazuen ere, kazetari eta diplomazia zirkuluetan zabaldu zuen. Gainera, argazkilari bat bidali zuen Lizasoren etxera. Etxean bere familiarekin aterako zizkion argazkiak horiek gero prentsan erabiltzeko. *A family man such as English people like and admire* itxura emango zuen argazkiokin [Ir.9]. Txekoslovakiara egindako misioa eta argitaratzen zirenerako Eskandinaviako herrialdeetan zegoela zabaltzeko erabiliko ziren dokumentu grafiko horiek.



Ir.9 Lizaso eta sendia Bigarren Mundu Gerran. Irujo (2012), 281

Txekoslovakiara egindako bidaia hori zela eta EBBk EAJtik egotzi egin zuen. 1946ko martxo bukaeran Fernando de los Riossek, Giralen Gobernuko Estatu ministroak, aipatutako herrialdea hauen gobernu onartzeko prest zegoela eta Pragan Espainiar gobernuko ordezkari izendatu

¹⁸² EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:150 L:254/04-5 Hilabeteroko txostenak

zuten. Ez da gainetik pasa behar, Masarykekin erlazio estua zuela Lizasok. Erabakia alderdiari kontsultatu beharrean, Euskal Gobernu eta lehendakariarekin kontsultatuta onartu egin zuen postura. Agirrerentzat, *con su marcha me facilita dar una solución al problema de la Delegación de Londres*, eta gainera, *ello nos favorece en el fondo*.

Hurrengo informazio hau zutela apirilaren 1ean barrualdeko EBBren iritziz, *El PNV no puede autorizar a ningún afiliado suyo para que representa a España políticamente y por lo tanto el nombramiento de Lizaso (...) no puede hacerse*. Ez dute uste zer ikusirik duenik, ordezkartzak teknikoki edo noizean behin Espainiar Gobernuak erabiltzea eta Espainiako enbaxadore izateak. Horregatik Doroteo Ziaurritzeko 1946ko apirilaren 6an Lizaso espulsatzen zuen gutun bat idatziko du. Informazio gehiagoren zain *no remitida*. Dirudenez, Lizasori esleitutako misioa, zituen laguntasunak erabiliz, Errepublikaren onarpena eskuratzeko misio bat besterik ez zen, gero Norvegia eta Danimarkara egingo zituen antzekoak. Txekoslovakiako onarpena lortu bazuen, ez zen hala izan Danimarkarekin. Norvegiarekin aldiz, agente ofiziosoen izendapena eskuratu zuen¹⁸³. Kanporatzearen erabakia, errebisatzeen ari zirela baina Lizasok apirilaren 23an partidutik baja ematea erabakitzen du¹⁸⁴.

EBBko Londoneneko hiru burukideak Doroteori hala idazten dute Lizasoren kasuaren inguruan:

*Es un incidente que apena. No está en nuestro ánimo el justificar la actuación de este compatriota, pero pensamos que se ha sido demasiado duro con él, no porque el acto en si no es grave, sino porque los antecedentes pueden servir para quitar hierro a su falta. (...) Teniendo en cuenta este ambiente [de colaboración y transigencia con el Gobierno Republicano] al que habíamos llegado, por lo que decimos que quizás se ha sido demasiado duro con el compatriota Lizaso. Porque si podía ser representante del gobierno Giral en Londres – al mismo tiempo que Delegado del Gobierno de Euzkadi- sin por ello ser amonestado, no parece disparatado que interpretara podría representar a la Republica Española en Praga sin incurrir en delito punible. Posiblemente se creyó suficientemente autorizado al contar con la aprobación del Lendakari (...) POR ESTO CONSIDERAMOS HUBIERA SIDO CONVENIENTE LLAMAR LA ATENCION PRIMERO, RESERVANDO EL CASTIGO DE EXPULSION PARA EL CASO DE QUE SE DECLARARA EN REBELDIA. Hau esan ostean, halere, nahiko molestiarekin agertzen dira Lizasok 23an idatzitakoarekin *recabo libertad para explicar conductas, lealtades y procedimientos*. Partiduaren zuzendaritzaren aurkako mehatxu bat dirudi. Gainera, oraindik ere maiatzak 7an *enviado especial de Giral para Europa* zen. Denborak gauzak lasaitu eta ez zuten kanporatu.*

1947 apirilean, Lizasok delegaritza utzi eta Frantzian kokatzeko asmoa zuen. Agirrek Gondrari horrela zuzentzen saio 1947ko uztailaren 18an *acercándose el día en el que Jose Ignacio Lizaso saldrá de Londres, dejando en sus manos la Delegación de nuestro Gobierno en esa capital*. Jarraibideak ematen dizkio, eta tartean hurrengo hau da interesgarriena¹⁸⁵:

la presencia de los Srs. Gil Robles y el Duque de Alba en Londres, y el anuncio de la próxima llegada del Sr. Prieto, no son sino reacciones similares producidas por la nueva etapa en la que Europa entra. Todos estos señores vislumbran que la exclusión de Franco y la necesidad de la cooperación peninsular en la restauración europea han producido ya o van a producir pronto una lima apta para que la oposición a Franco deponga sus diferencias y llega a una solución. (...) Ante estas realidades política el Gobierno Vasco tiene adoptada una posición clara: facilitar todo aquello que leal y honradamente vaya a una solución que restaura la libertad en la Península y con ella, la libre expresión de la voluntad popular. El Gobierno Vasco no entorpecerá estos propósitos, pero tampoco rendirá su bandera, ni su programa (...) responde a

¹⁸³EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se.Gonda. V:150 L:302/04 Delegación del Gobierno de Euzkadi en Londres. Actividades desarrolladas por la delegación del Gobierno de Euzkadi en Londres, por delegación del Sr. Irujo ministro y representante en Londres del Gobierno de la República Española. Octubre 1945-marzo 1947

¹⁸⁴ SAF-PNV-K.109-1 Lizasok Doroteori (1946-04-23) Doroteok Lizasori (1946-04-6) *No remitida* Etxeberria, Arredondo eta Gamarrak, EBBri.; SAF-EBB- 298-6 *Informe sobre el caso Lizaso* maiatza hasiera arte bakarrik kontatzen du kasua

¹⁸⁵ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se.Gonda. V:150 L:302/04 Agirrek Gondrari (1947-07-18)

los principios básicos del Pacto de Bayona. Gaineratzen dio, El señor Lizaso deja la delegación, pero no la relación con Londres, pues posiblemente en más de una ocasión se utilizaran sus servicios para gestiones que la oportunidad o conveniencia de cada momento aconsejen. Conviene pues advertir a los amigos y autoridades que el Sr. Lizaso al venir a Francia llamada por mí, no deja la relación con ese país, en el que tantas vinculaciones han sido creadas y a cual podrá ir de vez en cuando, con carácter oficial.

Udara hartan hartuko zuen Gondrak Lizasoren postua. Hurrengo atalean ikusiko dugun lez, Lizaso Frantziara bueltatuko da eta Londonen Gondrak hartuko duen behin-behineko postua, 1953 arte behin-betiko bilakatuko da. Lizaso postutik kentzean, delegaritza lekuz aldatu zen 39, Victoria Streetera. Egiatan, Gondrak delegaritzako eguneroko ofizina lana 1952ko maiatzean utzi egingo du, nahiz eta 1953ko azaro arte mantenduko den karguan¹⁸⁶. Ondoren John Hickman Urrutia eta Berta Echeverriak beteko dituzte ordezkari lanak.

Lizasok bidaien bat edo beste egingo du Londona. Bidai horiek aprobetxatuz, Gondrak bere delegatu postu utziko du noizbehinka, baina arazo politikoak baino jite pertsonaleko kontuengatik izango da gehienetan. Agirrek Gondrari idatzitako gutun batean hori argi ikus daiteke¹⁸⁷:

Le supongo con Ud a Antón Irala: Quisiera hacerle llegar mi sentido pésame por el fallecimiento de su madre. La mía esta también en Mundaka. No la he visto hace diez años. Es posible que arregle su documentación para salir a Donibane durante unos días. Me gustaría verle ahí, aprovechando quizá los días que con motivo de la traída de su chico al colegio de Eastbourne tenga que vivir Lizaso aquí a fines de septiembre o primeros de octubre.

Lizaso, politikatik ihesi, baina ezin. 1947-1978

Partiduarekin izandako arazoak gainditu arren, nekatuta izango zen Lizaso. Gainera, Londoneko delegaritzan zuen soldata nahiko baxua zen. Inolaz ere ez zen nahikoa Carmen eta 3 seme neraberekin bizi maila duin bat mantentzeko. Ingalaterrako abenturari amaiera eman eta 1947 bukaera aldera ezarriko da Lizaso Euskal Herri kontinentalean. Ez du bat batean politika utziko, eta hein handi batean Euskal Gobernuarekin zuen lotura nahiko estuki mantenduko du. Hasiera batean, Espainiar Errepublikako parlamentuan arituko da. 1948ko urtarrilean EAJren gutxiengoko kongresuko idazkaria izendatuko dutelarik. Euskal gutxiengoaren presidente Iruxo zen. Nizan 1948ko apirilean izango den kongresuan talde interparlamentario baten ordezkari gisa arituko da¹⁸⁸.

Behin lan hauek eginda politikaren egunerokotasunean lanean aritzeari utziko dio. Ez du baina partiduarekiko lotura etengo. Profesionalki politikatik biziko ez bada ere, bere iritzia elkarbanatu eta nazioarteko kongresuetan parte hartuko du. Gainera, hasiko dituen enpresa abenturak Euskal Gobernuarekin lotura zuzenak izango dituzte. Bestalde, erbestean ernatzen ari zen Euskal kulturarekin zer ikusia zuten ekintzetatik at ez da geratuko. Bere bizitza laboralari dagokionez, hainbat proiektu ezberdin aktibatuko ditu: Laborategi bat ireki, inportazio-espportazioa enpresa batean lan egin, bidai agentzia bat, arte erakusketa zentro bat eta antigoaleko gauzak saltzen zituen denda bat jarri zituen martxan. Ez dirudi negozioak oso ondo joan zitzaizkionik. Horrez gain, topatu ez dudana edo bukatu ez zuen memoria bat ere idazten hasi zen¹⁸⁹.

¹⁸⁶ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Gonda V:75 L:306/05 1955-03-03ko txostena

¹⁸⁷ EI.MI: C-34-J88 (11622) Gondrak Agirrerri (1947-08-29)

¹⁸⁸ EI. MI 2 J5-6

¹⁸⁹ EAH. Jon Bilbao funtsa. Si:JB-3 Legajo:F-K. 296 Irukok Leizaolari (1968-03-30). *Se proponía al llevarse el archivo [Lizaso] hacer sobre él unas Memorias. Pero está enfermo. Se siente viejo. No esta para Memorias.*

London utzi ostean, Lehendakariak Parisen gauzatuko ez den prentsa eta politika anglosaxoiari buruzko analisiak egiteko idazkaritza tekniko bat sortzeko proposatzen dio. Azkenean, antzeko lanak egiten kolaboratuko du *Oficina Prensa Euzkadi* eta *Radio Euzkadirentzat*. Prentsa anglosaxoiaren analisiak egin eta EEBB eta Britainia Handiarekin zer ikusia zituzten albisteen berri emanez¹⁹⁰. Alberrok 25.000 Fr. soldatxo bat pasatzen zion eta 1948ko urri arte aktualitate politikoari buruzko laburpenak egin eta filosofeaten arituko da. Londoneko delegaritzan dituen zorrak kitatzeko ez du nahikoa soldata honekin, £81 eta Iñaki semearen eskolaren matrikula¹⁹¹.

Hori dela eta abentura enpresarial bat abiatuko du urri hartatik aurrera, JOSCAR izeneko laborategia. R-A sistema berezi baten bidez, ura purifikatu eta manipulatzeko duen sistema berezia ikertu eta aplikatzen dituen negozio bat da. JOSCAR laborategietan marko operatiboa Lizasoren esku bazegoen ere, euskal erbesteko pertsonaia garrantzitsuek inbertitu zuten bertan. Lizasok akzioen %55 izango zuen bitartean, José Antonio Agirre, eta Juan Manuel Epalzak bakoitzak %10 zuten. Francisco Javier Landaburu, Vilallonga, Manuel Irujo, Alberto Onaindia eta Agustín Alberro bakoitzak %5ren jabe zen. Ideia 1948ko urrian egituratzen hasi bazen ere, ez zen operatibo izango 1949ko apiril arte. Bitarte horretan, Lizaso soldata gabe aritu zen lanean; baina hortik aurrera 50.000 Fr. soldata ezarri zitzaion. Zazpi hilabete soldata gabe izan zenez, 175.000 Fr. jasoko ditu, hilabete bakoitzeko 25.000¹⁹². Diru horrekin, Londoneko ordezkariarekin zor zizkion zorrak kitatu zituen.

Proiektua ondo hasi bazen ere, arazo finantzariekin ibili ostean, ofizinak enbargatu eta 1960. urtean Euskal Gobernuak berau likidatzeko agindua eman zuen. Enpresa honentzat lan egiten zuen bitartean, Enrique Sautok Donibane Lohitzüenen, 53 Boulevard Victor Hugon zuen inportazio eta bidaia agentzia antzeko batean, E. Sauto & CO, egingo du lan. Euskal Gobernuarekin tratu ezberdinak zituen negozio honek ere¹⁹³. Bere bizitza laborari buruz badakigu 1960ko hamarkadan harzuria salerosten zuen konpainia bat izan zuela *De Lizaso & Co. compagnie Française de l'Albâtre*, 1, Victor Hugo, Biarritzen. Hamarkada horretan, bere alabetako bat, Maite, 1962an ezkondu zen, Marc Cuvertekin urriaren 27an. Aitita egingo zuen Maitek zazpigarren aldiz 1966ko maiatzean¹⁹⁴. 1960ko hamarkada erdialdetik aurrera zuen enpresa berdinarekin *Galeria Ederti* ireki zuen [Ir.10]. Zendu arte izango zuen galeria horretan artea, antzinako altzariak eta antigoallak saltzen zituen.


¹⁹⁰ SAF-PNV-NAC-EBB, K.54,C.9: Expediente informativo generado por el EBB del PNV, sobre Andrés de Arzeluz "Luzear", miembro del GBB y del EBB. Lasartek Ander Arzaluzi (1948-01-30) Radio Euzkadin prentsa anglosajoiaren O.P.E. eta Radi Euzkadirentzat

¹⁹¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Gondra V:25 L:303/02 Lizasok Gondrari (1948-03-19)

¹⁹² EAH.EG.OD.S:Agustin Alberro. Oficina Comercial. V:150 L:758/03; V:250 L:755/11

¹⁹³ EAH.EG.OD.Se:Agustín Alberro. Oficina Comercial V:13. L:756/09

¹⁹⁴ EI.MI.C.3 J.4 (9043); C.8 J.31 (2506) Lizasok Irujori (1966-05-23)



Ir.10 Galeria Ederti. Lizasoren negozioia. MI funtsa

Izandako azken ogibidean, artea eta antzinako gauzekiko interesa nabarmentzen da. Bere bizi osoan izango du kultur orokorrarekiko, eta bereziki euskal kulturarekiko, jakin-mina Lizasok. Pertsona oso jantzia izango da eta bere amaren lurraldeko mito, kanta eta bertso zaharretan interes berezi erakutsiko du. Frantziara lekualdatzean, euskal kulturarekiko gaztaroan zuen grina berrartuz Eusko Ikaskuntzan kide bilakatuko da. 1948ko irailaren 12-19 bitartean Biarritzen antolatu zen VII. biltzarren genesian hartu zuen parte. Atzean Euskal Gobernua izan zen. *Ez dadila hil euskal arima* lelopean antolaturiko kongresua antolatzen lagundu zuen. Barandiaranen egunerokoa dugu esandakoaren erakusbide¹⁹⁵:

Dia 19 Ekainak 1948. Eusko Ikaskuntzaren L'aren idazkaritza salak bere biltzar bat Donibane Loitzun enizan du: Monzon jaunaren etxean. An giñen Intxausti, La Sota (manu) Oihanburu, Eizagirre Bilbao, Monzon, Lizaso ta ni. Gaia Eusko-Ikaskuntzaren VII. Biltzar Nausia, zein jakintsu ideia egin, nola deiak Bidasoaz beste aldekoiei egin, etc.

Kulturgintzara mugatzen ez zen jarduera hau egiteaz gain, politikari lotuta jarraituko du. Federalista konbentzitua izango da. Aipatutako kongresuan, Iruxok *Union Culturelle des Pays de l'Europe Occidentali* buruzko mintzaldian euskaldunek izan zuten papera deskribatu eta Lizasok izandako rola azpimarratzen du. *World Reviek* 1943ko azaroan argitaratutako *The Rights of Small Nations* artikulua idazleaz gain, *Union Culturelle des Pays de l'Europe Occidentalen* euskal ordezkaria izan zen Lizaso. Aipaturiko artikuluan kultura autonomia mantentzen zuen Europa batu eta demokratikoaren osaketaz dihardu. Organismo federal honek izan beharko lituzkeen printzipioak azpimarratuz. Frantziara lekualdatzean ere, ideia berberekin jarraitu zuen. 1947ko martxoan osatu zen Euzko Ituntzalle-Aldezko Ekintzaren kideetako bat izan zen. Ez da harrizkoa beraz, mugimendu honen Europako sailak antolatutako 1962ko Munichko *Contubernioan* parte hartu izana. Bertaratutako 118 espainiar delegatuak, gutxieneko bost puntu adostu zituzten. Salvador Madariagak zuzenduta errepublikar zaleak, sozialistak, nazionalismo periferiko eta monarkiko liberalak batu ziren. Espainian egoera politiko soziala aztoratuta zebilen uda hartan eta Lizaso itxaropentsu bezain zuhur azaltzen zen Iruxori idatzi zion gutun batean: *las noticias que llegan del otro lado hacen presumir que hemos entrado en la última etapa del reinado del Caudillo a no ser que una vez más sean los americanos quienes le saquen del atolladero que todo pudiera ser*¹⁹⁶.

¹⁹⁵ Barandiaran (2009), 519; Larraonde (2003), 28

¹⁹⁶ Irujo, (2003); Ugalde (2019), 41-2 eta 92 Ohorezko lehendakaria: José Antonio Agirre Manuel de Irujo (EAJ). Lehendakari-orde Laureano Lasa (PSOE), Ramón María de Aldasoro (IR eta Euskal Gobernuakidea) eta Juan Carlos Basterra (EAE). Javier Landaburu (EAJ) idazkari. Partaideak: José María de Lasarte (Euskal Gobernuakidea), José

Francok eutsi egin zion berriro oposizioak egindako kanpo eta barne presioei. Barne presioaz ari garela, barnealdean Francopcan geratu ziren euskal lurraldeetan generazio aldaketa bat nabaritutako du Lizasok¹⁹⁷.

Gazte berri hauentzat Euskal Gobernua ezezaguna da, *quienes viven hoy en Euzkadi y tienen menos de 35 o 40 años, no tienen, en su inmensa mayoría, conciencia de la existencia actual del Gobierno de Euzkadi y, mucho menos, naturalmente de su obra. Hala ere, jaurilaritza oraindik funtzionatu dezakeen erakundea izan daiteke, baina errealista eta erabilgarria izan behar da. Quiere que la Jaurilaritza sea un instrumento de utilidad y realista. Horregatik, uste du, propaganda egiteko moduak aldatu egin behar direla. Generazio berri hauek konbentzitzeko literaturaz ahaztu eta mezu zuzen eta zehatzen bidez irabazi behar dituztelakoan dago. Para subsanar este error como se puede y debido a la mala alfabetización del interior sugiere dejarse de literatura y hacer hojas con un lenguaje directo a base de afirmaciones contundentes, fácilmente asimilables y que lleguen al corazón (...) no se trata de lanzar octavillas desde un automóvil o desde un teatro, si son buenas pasaran de mano en mano*

Generazio aldaketa horrexek, 1950. hamarkada bukaeran EKINekin izandako tentsioak ETAREN sorreran bukatu zuten. Lizaso oso kritikoa izango da gazte hauekin hasieratik. Itsason izan zen 1963ko aberri egunean, zeina ETAK eta ENBATAren artean antolatua izan zen, Leizaolari hurrengo hitzen bidez bere egonezina adierazten dio *el aberri eguna celebrado en Itxasu me dejó un mal sabor de boca. Intencionadamente, a mi juicio, los organizadores ofrecieron una plataforma a quien, para mí, personifica la disidencia frente a nuestro Gobierno y a nuestro Partido. Esto es lamentable y puede ser un grave mirando al futuro*. Konbentzimendu demokratauetan oinarrituz, moralki biolentziaren aurka agertuko da Lizaso. Nire iritzi apalean, ez da erabat biolentziaren beraren erabileraren aurka dagoela, baizik eta indar korrelazioa kontranzitateaz gain, kantzilerri internazionalak arbuaitzen dutenez ez zaio hautu egokia iruditzen. Hala, 1969an honela idazten dio Leizaolari:

*La declaración del gobierno de Euzkadi a la que me refiero tendría a mi juicio, muchísimo mayor peso moral, si no se omitiera en la misma la denuncia, repulsa y condena, claras de ciertos hechos que son perpetuados por individuos de nuestra raza son ... como bien lo señala Monseñor Cirarda, en homilía reciente verdaderos asesinatos. Nuestro gobierno tiene el deber de denuncia con valentía estos hechos, querido Jesús. Si no lo hace, los argumentos morales en los que fundamentamos nuestras reivindicaciones, como hombres y como pueblo carecerá de fuerza moral y contribuiremos con nuestro silencio, a la deformación de la conciencia de la juventud de Euzkadi y de paso haremos el juego al franquismo*¹⁹⁸. Ez die baina, Francoren errepresioaren aurrean laguntzarik ukatuko biolentzia praktikatzen ari direnei.

Lizaso lagun zuen Albisuren semearen egoeraz interesatua Leizaolari gutun bat idatziz semearen bi abokatuak nortzuk izango diren jakinarazten diote. Donostian bi bandera erre eta Gipuzkoako frontean parte hartu zuten erreketete beterano batzuen omenaldia eragozteko Bilbo-Donostia tren zerbitzua eteten saiatu ziren 1961ko uztailaren 18an Rafael Albisu, Manuel Laspiur eta David Dorronsoro. Bigarren bandera erretzean matrikula ikusi eta kide batzuk harrapatuko zituen Brigada-sozialeko poliziak. Torturatu ostean, hogeita hamar bat ETAKide atxiki eta kupula desegin zuten. Hauen atxiloketen aurrean zigorrak arintzeko nazioarteko presio egiten saiaturiko da jaurilaritza. Besteak beste, Irujok Hickmani urrian ohar bat pasako dio *Spectator* edo *Guardiana* pasa diezaion. Eibar, Donostia, Bilbon eta Gasteizen ehun bat atxiloturen berri eman eta Eyman koronelak Carabanchelen galdekatu eta torturatzen dituztela

Inazio Lizaso, Rufino García Larrache y Julián Arrien. Delegatuak Ángel Gondra (Londres-EAJ), Jesús Galíndez (Nueva York-EAJ), José Olivares (Buenos Aires-EAE) y José Luis de la Lombana (Bogotá-EAJ). 1962an Munichen EAJren delegatuak: Landaburu, Onaindia, Alberro, Lizaso eta Iñaki Azpiazu. Gogoratu partaidetza pertsonala dela, ez ordezkariakoa. EI. MI. C3-J14 (9293) Lizasok Irujori (1962-08-27)

¹⁹⁷ EI. MI. C5-J7 (1970) Lizasok Irujori (1963-06-8)

¹⁹⁸ EAH.EG.LD.S:Jesús María Leizaola. Correspondencia General Se:Lehendakari V:125 L:376/02 Lizasok Leizaolari (1963-04-19) (1969-05-13) Julen Madariagak 1963ko aberri egunari buruz: Erref:BIL-004/002 <https://ahotsak.eus/bilbo/pasarteak/bil-004-002/>

esan ostean, Albisuren kasu konkretuari egiten dio so. Goardiak erreleboak emanaz Itaunketa 80 orduz luzatu zuten¹⁹⁹.

Esan bezala, eta nahiz eta ez arrasto askorik aurkitu, Lizasok aktiboki jarraituko du jaurlaritzaren eta EAJren politikaren inguruan iritzia ematen. 1969an Leizaolari bere usteak agertu zizkion. Berdina egingo du 1973an. Alderdi eguneko komunikatuari aztertuta, Leizaolaren idatzian ETA eta komunistak Euzko Jaurlaritzan sar daitezkeela iradokitzean, hauek hartutako biolentziaren dinamikarekin ados dagoela aditzera ematen duelakoan idatzia kritikatzeko du Lizasok. Uste du ez dela *desigual y suicida* den bide hau egokiena. Euskadi sortzen ari zen European sartzeko politika moderatuarekin jarraitzeko hautuaren alde agertzen da *llegara el momento, quizá no lejano, en que exista coincidencia de interés entre las fuerzas y corrientes europeístas de España y la convivencia y paz social para las cuales los postulados autonómicos de Euzkadi y Catalunya constituyen una garantía indispensable*. Leizaolak Lizasori erantzuten dio mezu hori estrategikoa dela, ez komunistak eta ETA batzeko, baizik eta Karlistak eta baita CNTk ikus dezaten talde hauen eskariak kontuan hartzen dituela Euskal Gobernuak²⁰⁰.

Jaurlaritzaren mezuak hartzen ari diren bide estrategikoak kritikatzeko gain, partiduaren jokaera batzuk gaitzetsiko ditu. Borroka honetan generazioen arteko beste talka bat nabari da. Kasu honetan partidu barruan emango zena. 1972ko ekainean, Laburdiko batzorde municipalak izandako urteroko bileran, EBBk Alderdiren, EAJren boletinaren, argitalpenaren inguruan izandako hainbat erabakirekin ez da ados agertuko. Bere kexak adierazteko, 1972ko abuztuan Manuel Iruoren 80. urteurrena ospatzeko afarira ez zen agertu²⁰¹.

1969tik, zehazki, Iñaki Unzeta zuzendariaren kargugabetzetik *Alderdi* boletinak argitaratu dituen hainbat artikuluren esanahiak EAJren ortodoxiaren, batik bat konfesionalaren, aurka doazenaren ideiarekin kexu agertuko da. Besteak beste, Uzturrek, Jesus Insaustik, idatzitako artikulua bat aipatuko du. Humanismo sozialista konfesional bat defendatzen omen du eta hori partiduaren balore eta ortodoxiaren aurkako da. Lizasok eskatzen du lotsarik gabe betiko, gutxienez 1933an Tolosan ezarritako, baloreetara bueltatzeko *SIN COMPLEJOS DE INFERIORIDAD, a los valores cristianos, patrióticos y de justicia social para el logro de los cuales NINGUNA FORMA O VERSION DEL SOCIALISMO CONVIENE A NUESTRA PATRIA ni en su marco específico, ni en el más amplio peninsular, ni en el superior de las instituciones comunitarias europeas*. Ideiok zuzendariaren gain, batzorde batek, non burukideak ongietorriak diren, zaindu behar ditu. Adibidez, Unzueta zuzendari zenean hamar bat pertsonak, tartean Lizasok bera, osatzen zuten prentsa eta propaganda batzorde hau, zeinak argitalpenen doktrina zaintzeaz arduratzen zen²⁰².

Frantziara bueltatu zenean ere ez zuen politika erabat baztertu, eta goian ikusi dugun lez, oso aktiboki hartu zuen militante bezala parte, bai Euskal Gobernuan zein EAJren ibilbidean. Gainera, edozein momentutan prest agertuko da Londoneko ordezkaria izan zenean

¹⁹⁹ EAH.EG.LD.S: Jesús María Leizaola. Gobierno de Euzkadi Se:Lehendakari V:150 L:403/02 Lizasok Leizaolari (1961-09-09) Sobrevila (2018): 26-31; Rafael Albisu, Madariaga, Del Valle, Txillardegiarekin EKIN eta gero ETArek sortzaileetako bat da; EI.MI C 35 J 35 (4448)

²⁰⁰ EAH.EG.LD.S: Jesús María Leizaola. Correspondencia General Se:Lehendakari V:300 L:380/01 Lizasok Leizaolari (1973- 05-06) eta Lizasok Leizaolari (1973- 05-18)

²⁰¹ EI.MI. C-14 J.9 (1404) Lizasok Iruori (1972-08-25) Iruok Lizasori (1972-09-1) *Me limito a tratar de entenderme con los de Beyris, a los que he expresado mi manera de pensar y mi deseo de que se trate con decoro a Solaun*.

²⁰² EI. MI C15-J-3, (6547) Lizasok EBBri (1973-02-20)

eskuratutako kontaktuak aktibatzen. Esaterako, azkenean bidaia bertan behera geratu bazen ere, 1960an Leizaolarekin batera Euzko Jaurlaritzaren izenean Londres joatekotan izan zen.

Jose Inazio Lizaso, trantsizio bete-betean, 1978ko urtarrilaren 13 zenduko da Angelun. 1977ko ekaineko hauteskundeak bizitzeko aukera izan zuen zorionez. Hala ere, ez zen jaioterrira inoiz bueltatu. Emaztea aldiz bueltatu zen. Carmenek 1979 apirilean aita hil ziotelako, 1978ko azaroaren 16ko lege-dekretua aldarrikatuz pentsio bat eskatzeko izapidea abiaraziko du. Madrilera 1980ko irailaren 27an luzatuko du eskaera eta urte gutxira, jaioterria, Amasan zenduko da²⁰³.

2. EUZKADI ETA INGALATERRA GERRA ZIBILEAN ZEHAR

Kapitulu honetan, Britainia Handian Gerra Zibilean zehar euskaldunekiko izan ziren jarrerak aztertuko dira. Lehendabizi, Britainiar Gobernuak gerrara nola hurreratu zen izango dugu hizpide. Prentsak eta partidu politiko nagusiek gerraren aurrean izandako begiradak aztertuko ditugu jarraian. Bukatzeko euskal nazionalismo eta gobernuak Britainiar Gobernuarekin izandako hainbat kontaktu aipatuko ditugu.

Britainiar Gobernuaren neutraltasuna?

Britainiar Gobernuak Espainiako Gerra Zibilaren aurrean erakutsitako jarreraren inguruko azterketa ugari egin dira. Orokorrean, eztabaidagai nagusia Stanley Baldwinnek eta Neville Chamberlainek gidatutako exekutiboak Errepublikarrekiko eta errebeldeekiko izandako jokabidea izan da aztergai. Frantziarekin elkarlanean sustatu eta Londonen ezarritako Ez interbentzio batzordearen babesle nagusia izan zen Britainiar Gobernuak. Egun inork gutxi ukatzen du batzordeak berebiziko papera jokatu zuela gerraren bilakaeran eta errebeldeek laguntza gehiago izan zutela jakina da. Horregatik, Manuel Tuñón de Lara ezarritako eskemari *la gran farsa*²⁰⁴ deritza. Nazioen Ligatik *ad hoc* eratutako sistema honekin, Erresuma Batua eta Frantziaren helburu nagusia gerra-pizte orokor bat saihestea zen. George Mounseyek, FO Mendebaldeko Departamendu burua, argi zuen Gerra Handia geroztik munduak izan zuen mehatxu handiena zela penintsula barneko gatazka²⁰⁵. Horregatik, Europar gerra bat ekiditeko baretze politika (*appeasement*) deituriko estrategia abian jarri zuten, hau da, Britainiar interesak bermatzen ziren heinean diktadurei kontzesioak egitea. Abisiniako Italiar inbasioarekin hasiko da politika hau 1935ean. Italiarrei ez zitzaizkien inongo sartzio berezirik ezarriko. Era berean, Ingelesek ez zieten Alemaniaren nahi espansionistekiko erresistentzia handirik erakutsi. Adibiderik garbienak Renaniako militarizazioa, Anschlussa, eta batez ere Municheko konferentzia dira. Bertan joko zuen goia politika honek. Esan gabe doa, Alemania eta Italiak Gerra Zibilean izandako interbentzioa baimendu, edo gutxienez, ezikusiarrena egin zuela Erresuma Batuak.

Historialari batzuen ustetan Gerra Zibilean baretze politika presente izango da hasiera batetik. Beste batzuek aldiz, uste dute benetako *appeasement*-a berandu sartuko dela jokoan. Espainiako gatazkaren genesian, komunismoarekiko ezinegona eta errebeldeen aldeko sentimenduak pisu gehiago izan zutela uste dute. Azken ideia honen jarraitzaile den Enrique Moradiellosek Douglas Littlelek erabilitako *asmo gaiztoko neutraltasuneko* terminoa erabiltzen du Britainiar

²⁰³ 35/1978 Errege dekretua [indargabetutako xedapena], 1936-1939ko gerraren ondorioz hildako espainiarren senideei pentsioak emateko. 1974ko azaroaren 16koa, BOE, 276, 2625-6 Billabonako artxibo muniziala. 663-1 Expediente de pensión de viudedad de Carmen Saizar Galarmendi, hija DE VALERIANO Saizar Ateaga.(1979-04-3)

²⁰⁴ Tuñón Lara, (1991), 185

²⁰⁵ FO 371 /20534 W 9331

Gobernuak Errepublikar gobernuarekiko izandako jarrera azaltzeko²⁰⁶. Are urrutiago doa Angel Viñas. Hasiera-hasieratik Britainiar gobernuak *estalitako etsaitasun* argi bat adierazi zuela argudiatzen baitu²⁰⁷.

Moradiellosen iritziz, neutraltasun ezaren jarrera argi geratu zen Jose Giralen gobernuko ontzidiari Gibraltarren petrolioia saldu ez ziotenean. Adibidez, Jose Yanguas Messiassek, Burgoseko Batzorde Teknikoko diplomaziaren kabinete buruak, Ingalaterraren jarrera ospatu zuen²⁰⁸. Behin lehendabiziko borrokaldiak gerra luze bati bide ematean, orduan hitz egin daiteke benetako *appeasement* politikaz aipatutako autoreen iritziz. Britainiar kabineteak jarraitutako politikaren inguruan zeuden irizpide eta ikuskera ezberdinak argi geratuko dira 1938ko martxoan Anthony Edenek, Atzerri ministroak dimisioa aurkeztean.

Viñasen iritzia are ezkorragoa, FO eta kabineteko funtzionario garrantzitsuek errebeldeen alde erakutsitako jarreretan oinarritzen da. Francisco Franco Las Palmasetik Marokora eraman zuen Dragon Rapide abioian MI6 agente bat izan zela argudiatu eta Ingeles gobernuko *Air Intelligence Service* agentziak Italiarren komunikazioak deszifratzen zituela jakinik egoera uste baino hobeto ezagutzen zutela dio²⁰⁹. Anthony Eden berak egoerari buruz gezurrak ere esan zituen Parlamentuan. 1936ko azaroaren 19an Alemaniak eta Italiak nazionalak gobernu legitimo bezala onartzeak ez interbentzio urratzen zuela itaundu ziotenean dagoeneko partaide guztiek hautsi zutela adierazi baitzuen. Bereziki Sobietarrei egozten die akordioa urratzearen errua. Edenen hitzen ostean, Walter Robersek *War Officer* urratzei buruzko txosten bat eskatu zion hitz horiek egiaztatzeko eta Estatu Nagusiko komandantea zen C.S. Napierrek FOera hurreratu zen afirmazioa gezurtatzera²¹⁰.

Bestelako iritzia duten historialariek ere badaude. Berriki, Scott Ramseyek Britainiar Gobernuaren *appeasement* politikaren barnean txertatzen du Britainiar gobernuak Francoren aldeko neutraltasunerako erakutsitako jarrera²¹¹. Zehazki *denying allies* estrategiapean. Jokabide honen funtsa bigarren mailako arerio bat baretzean datza. Arerio nagusi batekin aliantza edo laguntza militarra izan ez dezan hain zuzen ere. Kasu honetan Espainia Italia eta Alemaniarekin aliatu edo laguntza militarra ematea eragozteko zen xedea. Ramseyek onartzen du Gobernuko ofizial ugari Errepublikaren aurkako sentimenduak bazituztela²¹², baita komunismoak izutzen zituela ere, baina erabaki estrategikoak interes britaniarrak babestera bideratu zirela dio. Britainiarrentzat Espainia neutral mantentzea ezinbestekoa zen eztanda internazional bat eman ezker.

Orokorrean, Espainiar Gerra Zibilarekiko Britainiar Handiko gobernuak erakutsitako erantzunak izan bat edo beste, are gehiago korapilatzen dira euskal kasuari dagokionean. Euskaldunei loturiko bi kasu aipatzen ditu Ramseyek Gobernuaren ez interbentzio politika jakean jarri zituzten adibidean artean: 1937ko apiril-maiatzeko populazio zibilaren ebakuazioa eta Gernikako bonbardaketarena. Bi kasu hauetan oposizioa kapaza izan zen britaniar iritzipublikoa mugitu eta Britainiar Gobernuari humanitarismoaren izenean esku hartzerak behartzeko. Are gehiago, 1937ko Apirilaren 20ean Bilboko blokeoari buruz David Grenfell laboristaren

²⁰⁶ Moradiellos (1990); Douglas (1985); Douglas (1988), 310–1; Moradiellos, (1991), 340–5, 359–61

²⁰⁷ Viñas (2006), 438

²⁰⁸ Moradiellos (1990), 48

²⁰⁹ Viñas (2006), 66-70; Macklin, (2006)

²¹⁰ Viñas, (2007), 17-8 Edenek berak ere hasiera batean Errepublikarekiko higuena adierazten du. 1936ko Azaroan Errusiarrei egozten die

²¹¹ Ramsay (2019)

²¹² Britainiar diplomaziak Errepublikarekiko erakutsitako jarrera aztertzen da. Esan izan denerako ikuskera nahiko positiboa marrazten du Ramsayek (2020). Aurkako irakurketa bat: Jorge, (2017)

erreplika bati hala erantzuten dio Anthony Edenek parlamentuaren: *Espanian aukeratu beharko banu, uste dut Franco eta Errepublikarekin alderatuz Euskal Gobernuak dela gure sistematik gertuen dagoena*. Hitzok euskaldunekiko abegikortasuna darie²¹³. Hala ere, esaldi hau, oposizio liberal-laboristak behin eta berriro gobernuari egozten dion Francoren aldeko partzialtasuna lasaitzeko esaten du.

Gainontzeko lurraldeekin ez bezala, askoz ere inpartzialago aritu zen Britainiar Gobernuak Euskal Gobernuari zegokien kasuan. Betiere, iritzi publikoa lagun izatearekin batera interes komertzial garrantzitsuak izateak, Bilboko minerala kasu, lagunduko zuen zertxobait.

Britainiar prentsa eta politika

Propaganda aztertzea helburu izanik, ezin dugu propaganda kanaletan efizienteena den prentsa idatziaren analisia alde batera utzi. Nazionalismoaren eskola modernistaren bide-urratzaileetako bat den Benedict Andersenek nazioaren *imagined community* errealitate egiten duen eta berau etengabe erreproduzitzeko tresna garrantzitsuena dela aitortzen du. Parte zaren komunitate hori sortzeaz gain, inguruan ematen ari diren ekintzen berri eta haien kausak eta ondorioak azaltzeko datuak gizartera zabaltzen dituzte. Hortaz, iritzi-sortzaile eta eraldatzaile agente nagusia da. Prentsa bera partidu politikoen bozeramaile ere bada. Hori dela eta, bera aztertuz politikaren sentsibilitate ezberdinak aztertzeko parada ematen digu. Ez da batere arraroa Gerra Zibilak irauten dituen ia hiru urteetan aldizkarian kontraesankorrak diren ideiak azaltzea. Ale berdin batean ere eman daiteke hori. Partidu politiko batean begirada ezberdin eta kontraesankorrak egotea ez da arraroa. Gerrak politika-internazionalan zituen inplikazio handiak, benetan hurbilketa ezberdinak hartzerantz eraman zituzten politiko asko, nahiz eta agerkariak ildo orokorretan nahiko kontsistente izango dira.

Idea hauez gain, Ingalaterrako prentsak inpartzialtasun edo gutxienez, erosezina zelaren fama zuen. *Sub-Ouesti* Euskal Gobernuak 10.000 Fr. laguntzen zion hilero, eta ordainetan orri bat eskaintzen zion euskal gaiei. Pentsaezina zen prozedimendu bat zen hura Ingalaterran. 1938ko azaroaren lehen Wrightek Jose Antonio Agirre lehendakariarekin eta Eliodoro De La Torrerekin, Ogasuneko sailburuarekin, izandako bilera batean horixe adierazi zion. Kazetari ordaindu beharrean, Agirrek eta Torrek kazetari edo figura garrantzitsuei ordaintzeko iradokizuna egin zitoten, baina berriro ere *in this country any attempt to do so would be dangerous*²¹⁴.

Gerra Zibilean murgildu aurretik baina goazen 1930. hamarkadako prentsa eta politikaren testuingurua aztertzerantz. Ingalaterran 1930. hamarkadan prentsa nazionala eta probintzietako prentsa dugu. Gobernuaren politikan prentsa nazionalak garrantzia gehiago bazuen ere, probintzietako prentsaren garrantzia ezin da gutxietsi. Ez da ahaztu behar Ingalaterrako parlamentariak probintzietako hauteskunde-barruti edo *constituencies*-etan jokatzeko zela. Hortaz, barruti bakoitzeko prentsaren eragina handia izan ohi zen. Gainera, Espainiako Gerrak eragindako pasioak eta Espainiara bidaltzeko laguntza komite lokalen bidez kanalizatu zen askotan, gehienbat NJC eta *Labour movementekoa*. Astekari eta hilabetekariak rol esanguratsua

²¹³ Hansard. HC Deb 20 April 1937 Spain (British Shipping) vol 322 cc10712-3 Hemen: [https://hansard.parliament.uk/Commons/1937-04-20/debates/a615fcd3-0a9d-44e1-86d2-cabba6cf9de7/Spain\(BritishShipping\)](https://hansard.parliament.uk/Commons/1937-04-20/debates/a615fcd3-0a9d-44e1-86d2-cabba6cf9de7/Spain(BritishShipping))

²¹⁴ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:295/01 Torre, Agirre eta Wrighten bilera (1938-11-01): Pertsonaia nagusiei beharrean hauen lagunak diren kazetari eta politikoei ordaindu diezaiokete, hauek Euskal Gobernuaren alde presio egin dezaten. Horretarako, hilabetero ematen den diruaz gain funts berezi bat ere badutela ziurtatzen du Agirrek. Southworth (2013), 49-50: Dio askoz ere politikagoa zela Frantziako prentsa Ingalaterrakoarekin alderatuz.

jokatzen zuten, gehienbat kristauak eta tematikoak zirenak ere bere garrantzia zuten, kulturari zegokion *The Spectator* edo ekonomiaz arduratzen zen *The Economist* esaterako²¹⁵.

Politikari dagokionez, 1930. hamarkada *National Government* deritzen gobernuen garaia da. Zortzi urtean 4 gobernu ezberdin izango dira hamarkadan. 1929 crackak eragindako krisiaren eraginez, indarrean zegoen Ramsay McDonaldeen gobernu laboristak krisiari erantzuteko gastu publikoan sekulako murrizketa plana eraman zuen aurrera. Horren aurrean, gobernu laborista desegin eta kontserbadoreak, liberal eta laborista disidenteekin batera jarraituko zuten gobernatzen. Korrante kritiko horiek beste bi partidu politiko eratzerraino helduko dira. John Simonsen zuzendaritzapean osatuko da *National Liberal Party* eta *National Labour Party* McDonalder aita semeak izango ditu buru²¹⁶. Gerra Zibilak eztanda egiterako, kontserbadoreek gehiengoan duten eta lehen ministro Stanley Baldwin duen hirugarren *National Governmenta* izango da indarrean. 1935 ekainean sortua 2 urte iraungo du, 1937ko maiatzean deseginez. Ondoren, Exchequerreko ministroa zen Neville Chamberlainek hartuko du Erresuma Batuaren gidaritza Bigarren Mundu Gerran Frantziak inbasio hasi arte, 1940ko maiatzean.

Espainiako Gerra Zibilaren inguruan gobernu kabineteak, kontserbadoreak partidu barruan izango dituzten antzeko arazoei egin beharko die aurre. Gerra-pizte orokor bat saihestu eta Espainiako Gerra Zibila Espainiara mugatu nahi zuten bitartean, Italiar eta Alemaniaren esku-hartzeak Britainiar interesei eraso egitea ekiditea zuten xede. Hala, Espainiako lehen mailako materialak jasotzen jarraitu eta lurralde integritate mantendu ezkerer bederen, Britainiar Gobernuari ez zitzaion hainbeste axola nork irabazi²¹⁷.

Interes horiek arriskuan ikustean, gobernuko eta kontserbadoreen arteko desadostasunak 1938ko otsailan egingo zuten eztanda, Anthony Eden, atzerri ministroak dimisioa aurkeztean. Churchillen iritzia ere prentsan zabaldu ziren 1938ko apirilean. *Red Sunset* titulupean Franco jasotzen ari den laguntza atzerritarren berri eman, eta Naziak falangismoaren bidez Espainia nazifikatzen ari direla aipatzen du. Alemaniaren arriskuaren inguruan areagotu egin ziren ezinegonak 1938ko irail-urrian, Municheko akordioen inguruan izandako eztabaidetan. Hartutako erabakiaren ados ez eta Duff Cooperrek, itsas-ministroa, kabinetea utziko zuen orduan. Vyvyan Adams, Harold Macmillan edota Robert Boothy bezalakoek ere politika horren kontra zoazen²¹⁸.

The Times egunkaria izango da lasaitze politika aurrera eraman zuen gobernuaren bozeramaile. Hasieratik ez interbentzioaren alde zegoen agerkariak 193.000 ale botatzen zituen eta Geoffrey Dawson zuen editorea. Gobernuaren politikak babestu eta hartuko zituen erabakiak lehenago ematen zituen aditzera²¹⁹. Antzeko linea izan zuen 491.000ko tirada zuen *The Daily Telegraph*ek. Partidu kontserbadoretik gertukoa, Arthur Watsonen zen editore. Bi kazeta hauek neutralistatzat hartu izan dira eta hein batean egia da. *The Times*en linea editoriala gobernuaren aldeko izan bazen ere, nahiko askatasun izan zuten korrespondenteak. George Steerrek Gernikaren inguruan bidalitako mezuak dira adibide garbiena. Aldiz, *The Daily Telegraph*,

²¹⁵ Buchanan, (2003), 66

²¹⁶ 1931ko Bigarren gobernu laboristan liberalak ere egongo dira. Halere, Ottawako konferentzia dela eta 1932 erdirako Archibald Sinclair dimititu egingo du.

²¹⁷ Crowson (2002). Appesementaren aurkako hiru talde ezberdintzen ditu. Eden/Amery taldea, Churchill eta Skeptikoak. Azken horretan kokatzen du Vyvyan Adams eta Atholkeko dukesa. Lizasok kontaktu asko izango du bi hauekin. Era berean, Eden/Laval taldeko askorekin ere komunikazio zuzenda izango da Harold Macmillan, Edward Spears edota John Macnamara, Churchillen taldean sartzen saiatuko bada ere, Churchill berak monarkisten eta karlisten aldeko hautua egin zuen jada, hala eta guztiz ere, Duncan Sandys eta Robert Boothyrek inharremana ona izango da.

²¹⁸ *The evening Standard* (1938-04-05).

²¹⁹ *The Times* (1936-08-10) eta (1936-08-15) BBB-281; Lizasoren iritziak, errebeldeen aldekoa zen

alemaniarren interbentzioaren aurka oldartu bazen ere, behin eta berriz atzera bota zituen argitaratu gabe Lizasok eta euskaldunok bidalitako gutunak. 1937an *The Daily Telegraph*eko jabeak, William Berry, Camroseko bizkondeak, *The Morning Post*, ultrakontserbadorea erosi eta biak fusionatzeak zer esana izango zuen ziur asko. *Morning Post periódico de extrema derecha y que no faltaba en la mesa de desayuno de ningún aristócrata inglés que se respete*. Gobernu Errepublikaren aurkakoa izan zen hasieratik eta nazionalen diskurtsua defendatu zuen, hau da, Errepublikar gobernu *gorriaren* legitimotasun eza²²⁰. 120.000 ale-kopurua zuen agerrikari editorea Howell Gwynne zen. Londoneko enbaxada errepublikarreko Antonio Ramos Oliveirarekin, lanean zehar aztertuko dugun, benetako iskanbila izan zuen.²²¹

Are zakarragoa eta partzialagoa zen 175.000 ale saltzen zituen *Daily Mail*. Esmond Cecil Harmswortheren, Rothermere bizkondearen, jabegoa. Lizasok ondo ikusi zuen bezala, *British Union of Fascists* (BUF) lider faxistak, Oswald Mosley, proposatutako postulatuek defendatzen zituen berriperrak, nahiz eta Mosleyen BUFek partiduko ideologia, Alexander Raven, editore zuen *Action* egunkaria argitaratzen hasi. Rothermere totalitarismoekin liluraturik zegoen eta mespretxu handiarekin egiten zion erreferentzia Errepublikari. Arthurd Cranfiel aritu zen editore gisa. Gerra hasi eta lehen astean, Ferdinand Touchyk *The Red Carmens, the women who burn churches* artikuluan emakume espainiarrek, zeinak %65 letragabeak diren, armak hartuta sistema patriarkalaren ordena apurtu dutela salatzen du. halako genero berdinketek zibilizazioaren bukaera ekarriko dutelako iritzita, ekintza honekin Errepublikarren amoralitatea agerian geratu omen da. Irun konkistatzerakoan, nazionalen konkista kristautasunaren, dezentziaren eta gizartearen ordenaren mesedetan, Espainia eta Europaren askatasuna baimentzen duen garaipenaz hitz egiten du²²².

Prentsa kontserbadorearen artean, Francoren alde hasi, baina denbora pasa ahala Errepublikaren alde lerratu zen egunkari garrantzitsu bat izan zen: *Daily Express*. 2.156.000 tirada zuen eta gehienbat klase baxu eta ertaineko kontserbadoreei zuzentzen zitzaien. Max Aitkenek, Beaverbrookeko baroia, zuen jabegoa eta Arthur Christiansen zen editore nagusi. Politika isolazionistak bultzatzen zituen. Euskaldunekiko zuten jarrera nahiko egokia zen. 1939ko urtarrilean, adibidez, Luis Ortuzarri elkarrizketa bat egin eta Irujori buruzko informazio biografikoa eskainiko dute²²³.

Lord Beaverbrookek igandekari bat ere bazuen: *Sunday Express* eta *Evening Standard* arratsaldeko kazeta kontrolatzen zuen. Azken hau 450.000ko tiradakoa. Biak ala biak, *Daily Express*en antzeko iritziak zabalduko zituzten. Euskal Gobernuari buruz nahiko adeitsu mintzatuko dira. Ez da ahaztu behar baina *Sunday Express*eko kazetari batek, Euskaldunok Vyvyan Adamsekin zuten elkar ulermena apurtu zuela ia. Euskaldunak, Adamsen bidez, parlamentariekin bildu afariak ordaintzen zebilela salatu zuen. Euskaldunen aurka baino gehiago, badirudi Adamsen aurkako eraso pertsonal bat izan zela²²⁴. Beste arratsaldeko kazeta baten kontrola, *Evening News* Lord Rothermorek zuen eta *Daily Mailek* zuen linea jarraitzen zuen, hau da, kontserbadore gogor eta faxisten berdina.

Igandeetan argitaratzen zen egunkari garrantzitsuenen artean kokatzen zen James Garvin kontserbadoreak editatzen zuen *The Observer*. 200.000 ale inguru editatzera heldu zen agerpena Walford eta David Astor aita-semeena zen. Francoren alde egin zuen argi eta garbi. Beste

²²⁰ Azcarate (1976), 115; *The Morning Post* (1936-07-20).

²²¹ Gwynne eta Ramos Oliveira (1937)

²²² *Daily Mail* (1936-07-27) (1936-09-05)

²²³ *Daily Express* (1939-01-12)

²²⁴ *Daily Express* (1939-03-26)

igandekari bat *The Sunday Times* zen. Lord Camrose zen jabe eta editore. Politika neutralista eraman zuen.

Oposizioko sentsibilitate ezberdinak kontrolatzen zituzten agerkariek, kontserbadoreek kontrolatzen zituzten argitalpenen antzeko tirada zuten. Liberalen kontrolatutako *News Chronicle* eta *Manchester Guardian* berripaperen artean 1.400.000 ale saltzen zituzten egunero. Gerald Barry zen lehendabizikoaren editore orokorra. John Langdon-Daviesek egiten zuen lan eta Vernon Bartlett zen diplomazia editore. Biak ala biak Errepublikarren gertuko ikuspuntuarekin notiziak argitaratzeaz gain, Lizasorekin harreman estua eratuko dute. *News Chronicle* 1936ko urrian errebeldeek Errepublikari sarraski ugari egoztean, nazionalek beraiek egindakoak onartzen ez dituztela salatu zuen lehen egunkarietako bat izango da. William Crozier editore zuen *Guardianek* antzeko artikulu bat argitaratu zuen²²⁵. 200.000 tirada besterik ez izan arren, influentzia handiko egunkaria zen. Independentzia editoriala mantentzeko John Scoot Rusell jabeak, elkarte bat sortu zuen berau gidatzeko, Scoot Trust. Arratsaldeko kazeta bat ere kontrolatzen zuen trust honek: *Manchester Evening New*. *News Chroniklesen* arratsaldeko edizioa aldiz *The Star*-rek betetzen zuen 495.000 alerekin eta *Reynolds News* igandekariak antzeko ideiak jarraitzen zituen, nahiz eta azken hau kooperatiben mugimenduarekin lotu behar dugun.

Egunkariok Errepublikarren alde egin zuten eta hasiera batean ez interbentzioa ondo ikusi bazuten ere, behin Alemania eta Italiak armak bidaliz apurtzen zutela ikusita gogor egingo dute politika honen aurka. Liberalen jokaera berbera izango dute. Aldaketa hau 1936ko urri-azarorako zertuko da. Ikerketa batzorde batzuk egindako bi txostenen ostean erabat lerratuko dira Errepublikarrekin liberalak. Lehendabiziko txostena *Committee of Enquiry into Breaches of International Law Relating to Intervention in Spain-ek* osatutakoa da. Unibertsitatetik aukeratutako parlamentaria zen Eleanor Rathbonek zuzenduta eta bokal bezala hainbat laborista: Gavin Hendersonek (Lord Faringdon), John Hagger eta Robert McKinnon Wood; Jonh Trend hispanistak, Mallalieu eta John Davies kazetari liberalak eta Geoffrey Bing abokatua idazkari zituztela batutako ebidentziak zehazten zuen Alemania eta Italia Espainiara laguntza bidaltzen ari zitzazkiola Francori eta ondorioz ez interbentzioa urratzen ari zirela. Are influenziagarriagoa izan zen azaroan Frederick Seymour Cocks laboristak antolaturik sei parlamentari Espainian izan ostean sinatutako agiria. David Grenfell laborista eta Wilfred Roberts liberalaz gain hiru kontserbadore abiatu ziren. Crawford Greene, John Macnamara eta Wing Commander Archibald James buru partidu guztietako sei parlamentari Espainiara bisita ostean sinatutako txostena. Bertan gobernu zentrala gerra humanizatzeko egiten ari zen lana goraiatu eta jasaten ari ziren aire bonbardaketak salatzen ziren²²⁶. Behin Londoneko gobernuak abian jarritako eskemak balio ez zuela ikustean, Liberalak gobernuak hartutako politikaren kontra joan ziren berehala. Hala ere, 1931ko krisiko zauriak itxi gabe zeuden eta 20 parlamentari besterik ez zituzten.

Dena dela, liberal artean entzute gehien zuen lehen ministro ohia, David George Lloyd izango zen errepublikaren alde gehien egingo zuen pertsona. Lloydek bere iritzia zabaldu izan zuen, eta euskaldunon kasuari dagokionez, Bilboko blokeoan laguntza handia emango zion bere adierazpenekin. 250 Libra dohaintzan emateaz gain, Galestarrak eta euskaldunak arraza berdinekoak direla esan eta euskaldunak Lehen Mundu Gerran Erresuma Batuaren alde

²²⁵ *News Chronicle* eta *Manchester Guardian* (1936-10-30)

²²⁶ *Report and findings* (1936). *The Times* (1936-11-20) (1936-12-18) Wing Commander James Azaroak 25-29 besterik egon ez zenez, ez du handik aurrera egindako ondorioetan zer esanik. Crawford Greene kontserbadoreak ez zuen sinatu nahi izan. Buchanan, (2003), 27-8

egindakoak gogoratzen ditu. Propaganda elementu bikainak²²⁷. Euskal autonomiaren aldekoak izan arren, oso unitaristak ziren. Horregatik, Lizasok Agirrerri idatzitako gutun batean hala adierazten dio: *La oposición es útil a España no a Euzkadi y a Cataluña*²²⁸.

Laboristak 154 parlamentari zituzten guztira, beraz kontserbadoreen 249ren aurka egiteko ez zuten zenbakiak ematen parlamentua. Hala eta guztiz ere, erabiliko zen nazionalen gehiegikerien aurka denuntziak egin eta Errepublikari ahal zuten neurrian laguntzeko. Liberalek egin bezala, laboralistak hasiera batean ez interbentzioko eskemarekin bat egin zuten. Herbert Morrison izan zen bere genesitik aurka agertu zitzaion politikari nabarmen bakarra²²⁹. Gerora bestelako indar liberal, komunista eta *Independent Labourrekin* fronte bateratu bat, *United Front*, osatzen saiatuko zen Stafford Cripps bera ere ados agertu zen hasiera batean. Gogoan izan behar da liberalak bezala, 1931. urtetan izandako zatiketaren ostean partidu laborista nahiko ahul geratu zela. Horregatik, partiduko liderrak, Clement Atleek bezain besteko indarra zuten Walter Citrine eta Ernest Bevin *Trade of Unionseko* sindikalistek. Horregatik, Espainiarekiko politika ulertzeko, laborismoa bere mugimendu osoan aztertu behar da, partidura mugatu gabe.

Ahuldadean izatearekin batera, Espainiako gerrak arazo berriak planteatu zizkion. Bestek beste, opzio erradikalagoen aurrean afiliazio galtzea eta gehienbat katolikoen auzia. Katolizismoa britainiarraren hierarkia azkar lerratu zen Francorekin eta ez da ahaztu behar, base sozial hau ia osorik laborista zela. Ondorioz, Espainiako gerrak kinka larrian jarri zuen mugimendu laborista. Nahiz eta gerra hasieran mugimendu sindikalista eta katolikoen arteko apurketa bat eman zen ia, egoera bideratu egin zen azkenean. Tentsioak latente mantendu arren, bi aldeei ez zitzairen apurketarik interesatzen. Ondorioz, elizak Francori laguntzen jarraitu zion bitartean, laboristak Errepublikaren alde egin zuten. Halere, laguntza humanitarioan biek kolaboratu ere egin zuten. Euskal umeak etortzean, *Basque Children Committeren* (BCC) baitan batera aritu baitziren. Hemen ere tentsioak emango ziren eta kolaborazioa umeen aberriratzeak hastean bukatu zen²³⁰.

Gerran zehar mugimendu laboristaren kazeta ofiziala zen *Daily Herald*. Berau irakurrita nabari daiteke Laboralistek aurrera eramandako politika. 2.000.000 alerekin irakurleko zabala zuen. Lizasok 1936ko urrian hala idazten du egunkari honi buruz²³¹:

Francamente favorable al gobierno, pero respondiendo siempre a la orientación de su partido que voto en el último congreso de Edimburgo la adhesión de Inglaterra al pacto de no intervención. Cada vez más favorable a la supresión del pacto citado. Ninguna información de Euzkadi.

Lizasok ondo ikusten duen bezala, mugimendu laborista ez interbentzioko eskemarekin bat etorri zen. 1936ko abuztu bukaeran mugimenduaren lidergoak politika hori jarraitzea erabaki baitzuen. Walter Citrineren aburuz gobernu laborista batek Balwinen gobernuaren antzeko jokaera bat izango zuen. Hala ere, masa sozial laboristaren baitan berehala hasi ziren kritikak eta Edinburgon *Labour Partyko* urteko kongresuan 1936ko urrian ez interbentzioa mantentzea

²²⁷ *Manchester Guardian* (1937-04-21) *The Newcastle Sun* (1937-04-23)

²²⁸ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/910 Lizasok Agirrerri (1938-04-05)

²²⁹ Morrison, (1960). 165 *Baldwin's retirement in May, 1937, had accentuated the appeasement policy with the arrival of Neville Chamberlain as Premier. My own view was that the chances of avoiding war were nearly over but there was still time with a definite policy of standing up to the Fascists over Spain. I opposed nonintervention in Spain and was speaking for a minority within the Labour Party. As much as feeling that it was in the interests of peace to do so I felt that this was a question of principle. It was the elementary duty of all socialists to back up the legally elected Republican Government of Spain*

²³⁰ Buchanan (1997), 178-182

²³¹ BBB-281-1

erabaki bazen ere, uste batekin hartu zen: Errepublikarentzat onuragarria izango zelakoan. Gainera, ahots kritiko nahikotxo entzun behar izan zituzten buruzagiek²³².

Behin erabakia hartuta estruktura ofiziala laguntza humanitario minimo batera besterik ez da mugatuko Espainiari dagokionean. Erresuma Batuan bozka katolikoa ez galtzeko Espainiar hierarkia katolikoari eraso egingo dio propaganda laboristak. Esan bezala, laboristak humanismora besterik ez dira mugatuko eta gainera kontu handiz ibiliko dira bestelako partiduekin, ez komunista, ez liberal, ezta *Indepent Labour*-koekin ez batzeko lan humanitario honetan. Horregatik, eremu lokalean militantziak eratuko diren komite askotan parte hartuko badute ere, kanal ofizialak komite ia guztietan parte hartzeari muzin egingo diote. BCCn besterik ez dira arituko beste erakundeekin elkarlanean.

Bai Sindikalista zein partidu laboristako goi karguek ez interbentzioa benetan efektiboa izango balitz, hautu onena bezala ikusten zuten. Ez zuten Espainiagatik gerrara joateko inongo intentziorik. 1937ko martxoan jo zuen goia postura isolazionista honek Labour Socialist International (LSI) kongresuan. Goizean sindikalista britainiarren liderrak *control was better than no control*, esan ostean arratsaldean *Labour Party*ko liderrak, Attle, Noel-Baker eta Grenfellelek ez interbentzioa *was the right policy provided if it was equally applied* adierazi zuten. Horregatik, kongresu ostean Edeni bisita egin zion Citrinek eta politika hura bere osotasunean ezartzeko eskatu. Hala ere, gerra fase berri batean sartu zen. Bizkaiko kanpainak eta Guadalajarako batailek ez interbentzioaren eraginkortasun eza erakutsi eta masa laboristen haserrea eragin zuten²³³.

Horrela, 1937 bitartean militantziaren presioaren eraginaz, Espainiarekin zer ikusia zuten ekintzetan parte hartzen hasi ziren, nahiz eta ofizialki 1937ko irail-urri arte itxaron beharko da ez-interbentzio politika bertan behera usteko. Hori 1937ko urriko partidu laboristaren kongresuan izan zen. Hugh Dalton presidente izan zuen Bournemoutheiko biltzarrean hain zuzen ere. Martxo-urri bitartean, Errepublikarren alde egitea baino errazagoa gertatzen zitzaion Citrineri gehienbat Gernikaren ostean euskaldunen alde egitea. Hala hainbat ekintza publiko eta pribatutan arituko zen Euskal Gobernuari laguntzen. Bilboko blokeoan emango ziren eztabaidetan frankisten eta almirantego britaniarraren aurka *Daily Herald* benetan erasokor aritu zen. Laborista parlamentariak bezain beste. ISF sindikatuak apirilaren 15ean 3.000 libako balioa zuen kargoa pletatu zuten S.S. Backworthen. Testuinguru horretan bildu zen Apirilaren 20an Citrine Santiago Aznarrekin Londonen. Lagunduko ziola hitz eman ostean, gogorregi ez aritzeko eskatzen dio. Aznar sozialistak ez omen zuen ulertzen Londonen joko parlamentario eta mediatikoren funtzionamendua. Citrine Edenen aurrean euskaldunon alde presio egiten saiatuko da eta egun horietan ahalbidetuko du Lizasok FOarekin izango duen lehen bilera²³⁴.

Laguntza humanitario eta hainbat kontaktu politiko ahalbidetzea lortzen badute ere, mugimendu laboralista nahiko ez gai izango da benetan gobernu kontserbadorean eragiteko. Adibidez, euskaldunei eta Iparraldeko frontea erortzean errefuxiatuak artatzeko saiakerak egingo ditu. Baita errepresioaren aurreko kexak azaldu ere, baina protestez gain ez du benetako ahalmenik ezer gehiago egiteko. Gainera, 1937-1939 bitartean mugimendu laboristak ez zuen uste

²³² UWA. ATUC:299/946/14/5 Repot of joint meeting between the Trades Union Congress General Council and Executive Committees of the Labour Party and the Parliamentary Labour Party. The Situation in Spain

²³³ Buchanan (1997), 86-87

²³⁴ UWA. ATUC: 292/946/16a/31 Minutes of General Council (extract) : with appendix A: statement by the National Council of Labour on the bombing of Guernica Minutes of General Council (extract) : with appendix A: statement by the National Council of Labour on the bombing of Guernica

parlamentutik kanpoko presiorik egon behar zenik eta hiru zutabetan oinarritu zituzten Espainiarekiko laguntzak²³⁵:

- Parlamentuaren bidez gobernu presionatu ez interbentzio eskemarekin bukatzeko
- Laguntza humanitarioa ahalbidetzeko funtsak jaso
- Mugimendu laboristaren akzio batasuna bermatu.

Hortaz, eta parlamentuan zuten gutxiengoaren jakitun nahiko eraginkortasun gutxirekin arituko ahalko da mugimendu laborista gerran zehar.

Behin eta berriro aipatu dugun bezala, militantzia laboristak aktiboki kolaboratuko du mugimendu hartatik at Espainiari laguntzen ibiliko diren batzordeetan. Hala ere, askotan batzorde hori politiko bilakatu eta herri mailatik pasatzen zenean militante askok ez zuten kolaboratzen jarraitzen. Batzuek baina presio egiten jarraitu zuten eta faxismoaren aurka egiteko fronte batera baten ideia handitzen hasi zen. Ideia honek laborismo eta liberalismo barruan hainbat jarraitzaile izan bazituen ere, partiduko estruktura nagusiak gogor egingo zuten haren aurka. *United Frontaren* ideia nagusia laborismotik hasi eta ezkererago zeuden sentsibilitate guztiak faxismoaren aurkako kanpaina batean batzean zetzan. Izan komunistak edota *Independent Labour Party* (ILP).

United Frontaren auzian sartu aurretik ikus ditzagun bi partidu hauei buruzkoak. Bost parlamentari besterik ez zituzten bien artean, guztiak eskozian eskuratuak. Komunistak parlamentari bat zuten, William Gallacher, Fifeko barrutian eta *Independent Labourreko* laurak Glasgowekean eskuratu zuten euren eserlekua: George Buchanan, Campbell Stephen, James Maxton eta John McGovern katolikoa ziren. Azken hauek 1932an partidu laborista barneko korrante izatetik partidu bilakatu ziren, eta sekulako beherakada pairatu zuten afiliazioan. Orohar, erradikal eta gazteak, Espainian POUMekin identifikatzen ziren eta hainbat militante, tartean *Homage to Catalonia* idatziko zuen George Orwell, Aragoiko frontean izan zituzten. Liburuan aditzera ematen duen lez, 1937ko maiatzeko istiluen ostean, oso kritiko agertuko dira errepublikarekin. McGovern parlamentariak Espainiara egindako bigarren bisitaldian esku orri batean, *Terror in Spain*, gogor kritikatu du POUM pairatzen ari den jazarpena. Fenner Brockway editatutako *New Leader* zen ILPreko bozeramaile. Kritikak kritika, Errepublikaren alde lerratuko dira. Brockwayek *Trade of Unionsi* eskatu zien Nergini eskatzeko anarkisten aurkako epaiketak justuak izan zitezen²³⁶.

Komunisten aldetik, altxamendua hasi zenetik zihoazen Espainiarentzako armak eskatu eta laguntza bidaltzen. Isabel Brownek gidatu zuen lehen laguntza komiteetako bat, *Spanish Medical Aid* da adibide garbiena. *Daily Worker* zen beraien ahotsa. 1936an Britania Handiko partiduko zuzendaritzan zegoen R. Palme Dutt zen editore eta 1938tik aurrera Espainian borrokan egon ostean, David Springhall beteranoak hartu zuen bere tokia.

United Fronten kanpaina 1937ko urtarrilen 17an *Socialist Leaguaren* Manchesterreko kongresu ostean hasiko da. Kanpainaren alde egiteko *Labour Partyko* bi parlamentarik, biak ala biak, *Socialist League* erradikal ildokoak, Safford Cripps eta George Straussek jarri zuten *Tribune* astekaria sortzeko kapitala 1937ko urtarrilean. Lehendabiziko editore William Mellor izan zen, baina 1938an *United Front*-a partidu politiko bilakatzeko ideiarekin aurka azalduenez bota eta H. J. Hartshorn ordeztu zuen. *Tribune* berak batasunaren inguruan aritzerakoan ez zuen zehazten zer nolako batasuna bilatzen zen. Kanpainaren hasieran, ildo sozialista eta partidu laboristaren arteko talka eman eta 1937ko martxoan *Labour Partyan Socialist Leagu*

²³⁵ Buchanan, (1997), *passim*

²³⁶ McGovern, 1938; Buchanan (1997) 115, 187-185

militatzearen bateraezintasuna aldarrikatzean, bere militanteak partidu laboristatik ez egozteko ildo erradikala desegin egin zen. Maiatzean, *United Front* kanpaina militante laboristek ez indartzeko, bertan indibidualki parte hartu ezkerro espulsatzeko mehatxua luzatu zuen laboristen exekutiboak²³⁷.

1937ko maiatzeko iskanbilen ostean, atzeraldi nabarmen jasoko zuen kanpainak eta nahiko ahulduta geratu. Hala ere, 1938an berriro hartu zuen indarra fronte bat osatzearen ideiak. Ezkertiarrek ez ezik, *appeasementaren* aurkako hainbat *Tory* gehitu nahi izan zituen egitasmo berriak. 1938 martxoaren 20an, kooperatiba mugimenduaren ildo jarraitzen zuen *Reynolds Newsek United Peace Alliance* bat gauzatzeko deitu zuen, hau da, fronte bateratu bat. Aldarria editorea zen Sydney Elliotek luzatu zuen²³⁸. Liberal gehiengoak, Wilfred Roberts bera barne eta laboristen militantziaren zati handi batek ilusio handiarekin hartu zuen idea. Hala ere, laboristen batzorde exekutiboaren errefusa jasoko zuen. Laboristen lidergoak kolaborazio minimo baterako prest agertzen bazen ere, ez zeuden prest metodo politiko berriak esperimentatzeko. Politika bateratu bat jarraitzeko momentu handiena Municheko akordioen ostean eman zen. Charles Trevelyan laboristak batasunaren alde hitz egin zuen 1938ko urrian laboristen Espainiako komitearen konferentzian. Etxean fronte bateratu bat sortu ostean Frantzia batuta mundu mailako fronte bat osatuz. Ez zuen aurrera egin²³⁹.

1939ko urtarrilean eman zen azken saiakera. Crippsek Frente Bateratu bat sortzeko deia luzatzen zuen memorandum bat bidali ostean, partiduak ia berehala egotzi egin zuen. Harekin batera, Aneurin Bevan eta Charles Trevelyan ere egotziak izan ziren. Cripps, arrakastarik gabe, 1939 Bigarren Mundu Gerra hasi arte saiatu zen ideia gauzatzeko.

Behin laborismoaren eta fronte bateratuei buruzkoa irakurrita, goazen aldizkariekin bukatzera. Astean behin argitaratzen ziren agerkari garrantzitsuenetarikoetan kokatzen dira aldizkari katolikoak. Jarraian, hauek euskaldunetako izan zuten jarreraren zentratuko gara gehienbat.

Astekariei dagokionez, Lizasori hasiera batean ez zaizkio garrantzikoak irudituko: *Los periódicos semanales no tienen mayor influencia en la opinión inglesa y no los mencionamos*²⁴⁰. Benetan, uste baino influentzia gehiago zuten. Gehienbat Lizaso eta Euskal Gobernuak interesa zuten iritzi katolikoa kontrolatzen baitzuten. Gainera, Kingsley Martin editore zen *The New Statesman* eta Margaret Lady Rhonda sufragistaren *Time and Tide* ezkertiarrez salbu, bestelako astekariak neutralak edo Francoren aldekoak ziren. Chamberleinen gobernuak sutsuki defendatu zuen aldizkarietako bat izan zen John Evelyn Wrenchen *The Spectator*. Aldizkari kontserbadoreko editore Henry Wilson Harris zen. Alemaniarekin oso kritikoa bada ere, Municheko akordioekin Gobernu Ingelesak hartutako posturarekin bat etorri eta Espainian Britainiar gobernuaren politika defendatuko du. Ildo horretan, 1939an, George Edingerrek Aranda jeneralarekin izandako elkarrizketa batean, Espainiak Britainiarren diruaren beharraz dihardute. Alemania eta Italiatik armak besterik ez zituzten nahi nazionalak eta Espainiaren nazifikazioaren teoriak baztertu eta hezkuntza elizaren, hau da demokraziaren aldeko erakunde baten, esku dagoela gaineratuz bukatzen da elkarrizketa. Ez da lehendabiziko aldia Edingerrek Francoren alde idatziko duela, nahiz eta bere analisisetan nahiko orekatu agertu²⁴¹. Ildo hau

²³⁷ *The Times* (1937-01-28) (1937-03-25)

²³⁸ *Reynolds News* (1938-03-20)

²³⁹ Newcastle University Archives. CPT183: Labour mugimenduak *must make events (...) It must not stand alone. It must collect all forces round it (...) We ought to build a popular front at home, and by collaborating openly and constantly with the French parties of the left, and with the Russian government itself, build up a popular front of nations* (Charles Trevelyan notes 1938-10-23)

²⁴⁰ SAF-BBB 281-1

²⁴¹ *The Spectator* (1939-07-14)

jarraitu arren, *The Spectator*ren Gernikako auzian Steerri hitza eman eta euskaldunen aldeko hainbat artikulu zabalduko ditu²⁴². Aztertuko dugun azkena *Nineteenth Century and After* da. Hilabetekari honen editore Arnold Lunn katoliko izan zen 1938 arte. Erresuma Batuko nazionalisten propagandista handietakoa. Aldizkarian, Francoren aldeko jarrera argia zen. Llunen ondoren, Frederick Voigt izendatu zuten editore. *Manchester Guardianeko* atzerri gaietarako korrespontsalak giro erradikal bat emango zion magazinari. Voigt antikomunista bazen ere, faxismo eta, batez ere, Alemaniarekiko oso kritikoa zen. Espainiako gerrako arazoa totalitarismoek eta batez ere Alemaniak Europan ezarri nahi zuen nagusitasun militarren baitan ikusten zuen. Alemaniarekiko ezinikusia probestuaz, 1938ko abenduan Charles Towersek, *Yorkshire Post* egunkari probintzial kontserbadoreko atzerri gaietarako korrespontsalak eta Wright agentziako langileak Municheko hitzarmenen eta *appeasementaren* aurka egindako artikuluan naziek euskal flotaren eta metalurgia erabiliz eskuratzen ari diren abantaila ekonomikoak kritikatzeko ditu. 1938 bigarren erdi aldean hasita aldaketa hau argitalpen askotan nabari daiteke²⁴³.

Behin aldizkari nagusiak ikusita, Britania Handian kristautasunak zituen argitalpen erlijiosoen analisi txiki bat gauzatuko da zati honekin bukatzeko. Ezbairik gabe argitalpen garrantzitsuen, *Church Times* anglikanoa dugu. Sidney Darkek editatua delarik oso kritiko zen altxamenduarekin eta ironiaz mintzatu zen kristauen garaipena eskuratzeko moroak erabili beharraz. Hala ere, gure interesa aldizkari katolikoek iritzia aztertzean datza. Orokorrean, nazionalekin lerratu ziren aldizkari gehienak. Hasieran zalantzaren bat izan zuten agerkariak ere ehuneko ehunean egin zuten bat elizaren aurkako sarraskien berri izatean. Javier Tusellen iritziak, jarrera hau errektiboa izan zitekeen hein handi batean. Eliza anglikanoak Espainiar hierarkiaren aurka jaurretiko iritziak, besteak beste, jazarpena justifikatzen zutenak katolikoek kontzientzian eragingo zuen. Ez da ahaztu behar Ingalaterrako katolikoak historikoki jazarpena pairatutako eliza bat zela²⁴⁴.

Era ia akritiko batean, nazionalekin lerratuko zirenen artean dugu *The Month* jesuita. 1912tik Joseph Keating izango da editorea. Jada 1936ko abuztuan altxamendua opresio sekularista-marxistaren aurka egiteko eman dela diosku. Inbertitu egiten du altxamenduaren noranzkoa: *An attack but the secular State against the idea of God upon which, notwithstanding, the stability of the State is based*. Eta Ingalaterrako prentsa gogor kritikatzeko du, Tusellen erreakzio ideari indarra emanez²⁴⁵. Euskal Gobernuaren aurkako hitz gogorak izango ditu, *miguided, treacherous, friends of Russia*. Behin eta berriro, errepublikaren alde egindako katoliko eta euskaldunek erlijioaren aurretik politika jarri dutela salatzen du. Hain handia izango dira erasoak,

²⁴² Inpartzial sarraskien inguruan izandako eztabaidetan: *The Spectator* (1936-10-02) Gernikaren inguruan: *The Spectator* (1937-04-28)(1937-07-01)(1937-07-30). Euskaldunen berri ematen du Bilboren inguruan, Euskal kirol eta tradizioei buruz (1937-04-16) (1937-12-31) (1938-03-30)

²⁴³ Voigt (1938), 213-48 Totalitarismoekiko kritikak eta Espainiako Gerra Zibilari buruz

²⁴⁴ Tusell (1993), 249-58

²⁴⁵ *The Month*, (1936 Abuztua): *The conflict which has broken out in Spain has long been impending. If the elementary rights of liberty and conscience, the rights of parents, the rights of religion, were to survive the oppression of the secularist wresting the forms of all to the destruction of freedom, the final appeal to the sword had to be made. The issue is primarily moral and religious- whether a godless tyranny inspired by Marx is to prevail in the Peninsula or the Catholicism which is the guardian of civil and political rights as well as of the rights of God. If ever revolt, against existing authority was justified it is so here, when the government is notoriously abusing its powers in the endeavor to deprive a large section of the population, almost certainly the majority, of its power to fulfil its duties towards God and the responsibilities. He has entrusted to them. No unprejudiced mind, free from anti-Catholic obsessions, can doubt that Spain is now witnessing an attack but the secular State against the idea of God upon which, notwithstanding, the stability of the State is based. Yet how few members of the secular English Press make any effort to shake off their traditional bigotry and recognize at work abroad the evil principles which they condemn at home*

ezen Parisko *Eusko Deyak* ere erantzungo doi behin edo behin²⁴⁶. Euskal kasua, Allison Peersekin hitzak mailegatuz *Paradox of the Basque* bezala izendatuko du, hau da, *their attitude in the civil war was dictated solely by politics and that the majority of them, instead of putting their religion before everything else*. Nazionalak ongia eta erlijioarekin alderatuko dira, besteak komunismoa eta antikristoa diren bitartean. 1938ko abenduan Keating editoreak idatzitako artikulu batean berriro aipatzen du idea²⁴⁷.

with the belief that the Spanish Reds are honest democrats trying to put down a Fascist rebellion! The fact that to their eternal shame some Basques and Catalan Catholics, for political reasons, took the side of the communists against religion, has given occasion to some Catholics also to proclaim an impossible neutrality or even to support the cause of Antichrist.

Ez dira atzean geratuko Ingalaterrako hiru astekari nagusiak nazionalen alde egiteari dagokionean. *The Universe*, *Catholic Times* eta *Catholic Herald* irakurrita argi eta garbi irakur daiteke beraien lehenetsuna zein zen. Edozein egi eta frogen arrazoiketa pausatuen aurretik zetorren bando bati edo bestearen propaganda zabaltzea. Egiten zuten erabilera partziala zela eta Londoneko Euskal delegaritzak informazio bidaltzeari utziko dio. Lerraketa hau ezin da ulertu elizaren hierarkiaren sinpatiarik gabe²⁴⁸. Frank Sheedek ederki laburbiltzen du jarrera honen zergatia²⁴⁹:

Like the majority of Catholics of the English tongue I wanted Franco to win. We did not know much about conditions in Spain, but as between people who murdered priests and nuns and people who didn't, we preferred those who didn't. It was practically a reflex reaction.

Beste bi agerkariak ez bezala, *Heraldek* uztailaren 24an zalantzati agertuko bada ere, berehala, hasiko da gorrien gehikeriak salatzen. Michael de la Bedoyerrek editatutako paperak baino sosegu gehixeagorekin hitz egingo du gatazkaz *The Tabletek*. Douglas Woodruff, Michale Derricken laguntzaz editatzen zuen astekaria Britainiar garrantzitsuena ez ezik, mundu mailako erreferentetako bat ere bazen. Nazionalen aldeko agertu zela ezkutatu gabe, beste kristau aldizkariarekin alderatuz orekatuagoa izango da.

Prensa ingelesak jazarpen klerikala eta gerraren genesia hierarkia espainiar katolikori egozteaz ez zuten onartzen. Esan daiteke, *The Tabletek* eliza kontrairaultzailea ez zela adierazi nahi izan zuela eta CEDAren diskurtsua mantentzen saiatu. Gerran zehar gainera, eta partekatuko ez bazituzten ere, errespetuarekin onartuko zituen Maritain eta Sturzoren kritikak. Euskaldunei dagokionez, Espainiarekiko beste indar errepublikarregandik ezberdindu eta gerra humanizatzeko saiakerak aitortzen zizkieten noiz behinka²⁵⁰. Halere, euskaldunen aurka kritika gogorak ez ziren falta izan. Abuztuko editorial batean *The Tabletek* gatazkarekiko bere jarrera argi azaldu zuen: *Religious issues are as much at stake as purely political or economic ones, and all those Spaniards who wish to see the Church survive in Spain will have had to side with*

²⁴⁶ *Euzko-Deya*. Paris (1936-12-13)

²⁴⁷ *The Month* (1937 urtarrila) "Religion's all or nothing": *to these deChristianized folk it is the latter. It matters little to them that Caballero is a godless anarchist and Franco a practicing Catholic. But Catholics, once they know the facts, have no right to be neutral or hostile in regard to the campaign of the latter which has been, almost from the start, a defense of the Catholic religion. (...) Irish Quarterly, Studies, the competent pen of Professor E. Allison Peers deals with what he rightly calls the "Paradox of the Basques," showing that their attitude in the civil war was dictated solely by politics and that the majority of them, instead of putting their religion before everything else, contracted with the enemies of the Church for the measure of Home Rule which they felt her defenders would be unlikely to grant them. Yet these same Basques fought vehemently in the Cortes of 1931 against Azaña's anti-clerical legislation; The Month* (1938, abendua). It is not the first time, in history that the interests of religion have been sacrificed to those of nationality:

²⁴⁸ Tusell (1993), 253. 1936ko urriaren 20an egindako bilera batean Soutwartheko obispo auxiliarra bakarrik zegoen nazionalen aurka;

²⁴⁹ Flint (1987), 368

²⁵⁰ *The Tablet* (1936-08-22) (1936-09-12) (1936-11-07)

*the insurgents*²⁵¹. Ondorioz, euskaldunei kristautasunaren aurretik politika jarri zutela egozten zitzaizkion, elizaren aurka haritzea leporatzen zitzaien.

Argumentu teorikoez gain, 1937ko otsailaren 27ko artikulua nagusian, apaizek Bilbon apaizez jantzi gabe ibili behar ziren gezurrak ere nahastu zituen *The Tabletek*; alabaina, akusazio honi erantzuten utzi zitzaion. Domingo Epalza gutun batekin apirilaren 3an egingo zuen hori. Akusazio egiten zen zenbaki berdinean Mgr. Knox, *Why Basques fight franco?* itauntzen duen titulupean euskaldunon argumentuak adierazten uzten zaie ere. Gerra konponente erlijiosotik haratago doan euskaldunon aurkako mugimendu monarkikoa dela hain zuen ere. Honen aurrean hasieran euskaldunak neutral mantentzen saiatu ziren. Ordena mantendu eta Donostia suntsipenetik babestuta, Frente Popularrarekin hitzartzea besterik ez omen zaie geratu; Molak baldintzarik gabe errenditza besterik ez baitie eskaini eta hori eginez gero, indar ezkertiarrek txikitu egingo zituzten. Gauzak hala, ordena soziala mantendu eta gerra humanizatzeo saiakerak egin dituzte. Baina Francok irabazi ezkerko euskal nazio txiki hau birrintzeari ekingo dio. Horregatik hainbat galdera luzatzen dizkie irakurleei: *Is hope of an intervention to enforce humanitarian behaviour out of the question ? Belgium found sympathy in 1914. Will the Basques be let down to suffer the Barbarian's sentence, "Vae Victis"?*²⁵² Halere, bi argitalpen hauek salbuespentzat har ditzakegu.

Ikus daiteken bezala, Francoren alde agertuko zen errebista honek inpartzialtasun minimo batzuk errespetatzen zituen gutxienez. Benetan erdiko bidea hartu zuen agerkaria izan zen Predikarien ordenak argitaratzen zuen *Blackfriars*. Editore zen Hilary Carpenter eta editorearen laguntzaile Victor White. Bigarrena *Euzko-Deyak* Ingalaterran izandako argitalpenaren zuzendarietako bat izango da. Whitek *Penguin* izengoitiarekin idatziko du bere zutabea, *Extract and Comments*, 1934ko urtarriletik 1939ko irailera arte. 5 urte hauetan zehar Whitek zutabea gerra eta ekumenismoaren inguruan beteko du. Gerra Zibil garaian luze eta zabal arituko da Espainiako gerrari buruz eta bere hitzen artean gerraren inguruko analisi sosegatu bat nabari da, gai nagusia gerraren izaera izango delarik. Whiten interes nagusia gerra eta moralitatean den heinean, horri buruz idatziko du gehien. Ez dago gerraren aurka *per se*, benetan justua kontsideratzen bada egin daitekeela irizten baitu. Espainiako gerraren kasuan altxamendua justifikatzeko erabiliko diren argumentuek, ez dute hortaz konbentzitu eta prentsarekin, batik bat, katolikoarekin oso haserre agertuko da²⁵³.

Penguinek 1936ko irailean aztertzen du sakonki gatazka. *Must God go fascist?* artikuluan gogorarazten die irakurleei ezkerren aurka joateko ez duela denak balio. Katolikoak izanagatik ere, totalitarioak badira aliantza arriskutsuegiak izan daitezke. Beraz, ez du merezi horiekin ezer hitzarterik. Gerrari dagokionez bi aldeekin kritiko agertzen da²⁵⁴:

I deplore that these insurgents have had to confide the cause of national order to rebel generals and mobilize colonial troops against their own flesh and blood. And I deplore the loyalty of these republicans who defend a blood-guilty government which is powerless to restore the order it has allowed to be destroyed.

Klerikoen jazarpena onartzen badu ere, zeinari *hideous persecution* deritzo eta, oso kritiko agertzen da prentsa katolikoarekin. Hildako martir hauen odola ez da Francoren alde esplotatu behar. Propaganda erabilera erabat kondenatzen du. *The vilest feature of modern warfare—viler than poison-gas which kills only the body—is the spiritual poisoning of the masses.* Katolikoek

²⁵¹ *The Tablet* (1936-08-1)

²⁵² *The Tablet* 1937-02-27 1937, 03-13; 1937-04-3)

²⁵³ White (1902-1960) Oxforden zegoen 1930 hamarkadan. PAX Society inguruan mugitzen zen. Berkman (2021), 712-3

²⁵⁴ *Blackfriars* (1936 iraila)

ez dute gerra santu bat bezala ikusi behar, baizik eta *detestable and sinful business* baten antzera baizik.

Gerrari dagokionean, prentsa katolikoak eta ezkertiarak egingo duten analisiekin kritikoa izango da etengabe. Ondorioz, saldu nahi den gerra santuaren ideia desmitifikatzen saiatuko da. Hala diosku, 1937ko uztailean *The Tableteko* erreferentzia bat berrikusten: *We notice with thankfulness that THE TABLET (May 15th), in reviewing Canon Rocafull's Crusade or Class-War, explicitly repudiates the view still fanatically maintained elsewhere that General Franco's campaign is a 'crusade'*. Uztail horretan *La Nouvelle Revue Francaisen* Jacques Maritainek Gerra Santuaren ideiarekin desmitifikazioarekin bat egin eta Gerra Santua beharrean interes internazionalen eta ideologien, zeinak biak beraiekin artean nahasten diren, arteko gerra bat dela onartzen du²⁵⁵.

Euskaldunei ere egingo die erreferentziarik. Pairatu behar izan duten bidegurutzean banakako buru-hilketa eta talde suizidioa ondo saihestu eta aterabide egokia atera diote Estatutuarekin Agirreraren jarraitzaileek. Gernikaren auzian prentsa katolikoak eskaintzen dituen diskurtsoak gaitzetsiko ditu²⁵⁶.

Prentsa katolikoaren barnean *Blackfriarsek* defendatu zuen linea inpartzial edo neutralista gutxiengo korrante bat suposatzen bazuen ere, existitu zen. Azken honi Frantziar eta Belgikar korranteak eragin zioten gehienbat eta *The Tablet* berari ere momentu batzuetan kontraesan nahikotxo sortu zizkioten pentsalari Frantzesen azterketek. Hala ere, *The Tabletek* gainontzeko ia prentsa katolikoaren eran nazionalen aldean jarri eta ez zen hortik mugituko. Lizaso saiatuko zen mugimendu katoliko bereganatzen, baina BCCrekin elkarlanean (eta tentsio askorekin) aritzeaz gain, ez zuen lortu hasieran espero edo desio zuen sektore honen babesa.

Euskal eta Britainiar Gobernuaren harremanak

Britainiar munduan euskaldunei buruzko informazioa eta euskal kasua ez zen horren ezaguna Espainiako Gerra Zibilak eztanda egitean. Lotura historikoak bazituzten ere, hauek itsas eta mineralen negozioen mundura eta turismora lotzen dira gehienbat. Itsas eta mineralei dagokionez, XIX. mende erdi-bukaera aldera, Gales aldean eta Liverpooletan ezarri ziren hainbat euskaldun²⁵⁷. Alderantzizko norabidean, Bilbon kolonia Britainiar nahiko handi bat bizi zen. Gehienak *Euskalduna* eta antzeko enpresetan lan egindako ingeniariak. *Direct Spain* telegrafia konpainian ere ari ziren lanean ingeles batzuk gerrak eztanda egitean²⁵⁸. Bilbo inguruko interes ekonomikoak garrantzia gehiago jokatuko bazuten ere, Ingelesen artean, politikari eta erdi mailako jendearen artean Donostia, edo San Sebastian kosmopolita udatiarra, Bilbo bezain ezaguna izango zen.

²⁵⁵ *Blackfriars* (1937 uztaila) (1937 iraila)

²⁵⁶ *Blackfriars* (1937 apirila) *The position of the Basques involves particular complications: honour is due to THE TABLET for its fairness in publishing a statement by a Basque priest of the tragedy and the difficulty of the position into which the followers of Aguirre seem to have been forced as the alternative to individual and collective suicide. The Basque case may also be studied at length in the articles on Euzkadi which the Brussels Catholic daily AVANT-GARDE has serialized during the past few weeks. The leading Dutch Catholic daily DE TIJD (quoted by CITE CHRETIENNE of February 20), under the heading Linksgerichte katholieken, turns attention to the more difficult problem presented by those thousands of Catholics (or ex-Catholics) of Spanish blood who fight on the side of the Frente Popular; and draws an interesting comparison from Netherlands history; Blackfriars* (1937 ekaina)

²⁵⁷ Valdaliso, (2003): Álvarez Gila, eta Murray (2013)

²⁵⁸ AGA 21/1358 P.Fitzgeladek Aris Pazi (1937-08-30) 37 urteko Fran Millington Ingalaterratik bueltatzeko eskatzen du. Tnt. Coronel Ingenierol del Cuartel General del Generalismo a Jefe Ejercito norte (1937-08-19) *Para asegurar el servicio del cable Direct Spain de Bilbao, disponga VE que los funcionarios siguientes residentes en Bilbao; Santiago Urquiri Castelu reemplazo 1930- Emilio Gutiérrez Rocha, reemplazo 1932- Pablo sangrado Mendieta. Reemplazo 1933 Pedro Contreras Bartolomé, reemplazo 1932- Jesús Serafín Llendiri Aguillo reemplazo 1934, continúen si por su conducta lo merecen prestando servicios en dicho cable, aunque sean movilizados*

Espainiako udaleku ezagunena zen Gipuzkoako hiriburua. Britainiar ugari mugitzen ziren bertara udaran. Horren adibide da 1935an Trevor C. Smithek idatzitako gida liburua. Allison Peers hispanista ezagunak bere hitzaurrean aditzera ematen duenez, Liverpooleko unibertsitateak antolatzen dituen udako eskoletako programaren barruan bakarrik ehundik gora ikasle etortzen dira urtero²⁵⁹. 1933 datuei erreparatu gero, 1205 Britainiarrek zentzatu zituzten Donostian bisitari bezala. Donostian Britainiarrek izango zuten esperientzia hurrengo hau izango zen²⁶⁰:

But a visit to San Sebastian would be likely to convey to most British tourists a sense of Spanish prosperity, order and conservatism more conducive to support for the right than for the left in the great conflict. Those who, like Eden and Vansittart, had special sympathy with the Basques when the Civil War broke out, might well have developed their sense of Basque distinctiveness and virtue from reports on, or experience of, San Sebastian and its environs

Idea mitifikatu honek lagunduko zion Euskal Gobernuari beraien propagandan. Gainera, altxamenduak udaldi bete-betean harrapatu zituen hainbat turista britainiar Euskal lurraldeetan eta horrek hasierako interes-gune bilakatu zuen. Henry Chilton britainiar enbaxadorea bera ere Donostian zen. Berehala eta Chiltonek dioen bezala *force majeure* bidez lekualdatu zuten Zarautza bi komunistak. Abuztuaren 1ean HMS Kempenfeltek San Juan de Luzera eramango zuen. Lekualdatzea ez zen esperientzia atsegina izango eta eragina izango zuen Chiltonek Errepublikarrei adieraziko zien ezatsegintasunean²⁶¹. Halere, Chiltonen sinpatiak ederki azaltzen ditu Claude Bowersek, *Chilton was violently against the loyalist from the first day, and he habitually called them reds*²⁶².

Chiltonekin egin bezala, Ingelesek Euskal lurraldeetan hartuko duten lehen neurria beraien hiritarrei ontzi militarretan Espainia usteko aukera eskaintzea izango da. Estatu Batuar eta Alemanek ere antzeko ebakuazioak babestuko dituzte. Azken hauek esaterako, Daniel Garcia-Mansilak, Enbaxadore Argentinarrak, gerra hasieran bere Zarauzko etxean babestu zituen isolatuak *Deutschland* itsasontziak Deban jasoko ditu. Honen inguruan Garcia Mansillak 1939an idatzitako memorandum batean Getariatik torpedo-ontzi ingeles batean atera zirela dio²⁶³. Gerraren lehen garaiotan, informazio politiko eta militarra helarazteaz gain, gerraren humanizazioa bermatzea izango da diplomatikoen lana. Betebehar horretan Errepublikar aldean saiatuko dira gehiago. Horregatik, emaitza hobekak eskuratuko dituzte. Ironikoki, askoz ere kritika zorrotzagoak botako dizkiete Errepublikaren aldekoen²⁶⁴.

Altxamendua eman zen momentuan, Gipuzkoan gehienbat Frente Popularreko kide eta militante anarkistei eskerrak kontrolatu zen. Bizkaian ez zen errebolta izan eta EAJak zain egoteko erabakiak, gerran inongo saiakerarik ez egitera eraman zituen. Gerraren lehen fasean gizarte eta lurraldearen kontrola ziurtatzen saiatuko dira partiduak, eta Defentsa Batzordeak ezarriko dituzte koordinazioa hobetzeko. Era berean, negoziaketa ezberdinak eginda, Euzkadin edo hobeki esanda Bizkaian, Euskal Gobernuak sortuko da urrirako entitate bezala. Nazionalisten gehiengoak, sozialista eta errepublikazaleek osatutako entitate berri honek konpetentzia minimo batzuk izateaz gain, faktikoki Bizkaiko lurraldea kontrolatuko du. Hori aprobeztatuz, pixkanaka Ingalaterra eta Frantziar gobernuarekin harreman paradiplomatiakoak ezartzen hasiko dira.

²⁵⁹ Smith, (1935)

²⁶⁰ Walton; (1994), 288 eta 294-295

²⁶¹ *The Times*, (1936-07-28), Edwards (1979), 7-8; FO 371/2056 W7648/62/41; Barruso, (2011)

²⁶² Bowers (1954), 291; Bowers euskaldunen ikuskera oso baikorra zuen ikus 339-353 The most progressive

²⁶³ Barruso (2001), 33; Gely, (2004)

²⁶⁴ Barruso eta Jimenez (2011)

Urriaren 7an Gernikaren arbolapean Jose Antonio Agirrek lehen lehendakaria izendatu baino lehenago ere egingo dira lehendabiziko saiakerak Britainiar gobernuarekin. Abuztu hasieran, EAJren ordezkariak Henry Chiltonekin bildu ziren Erregimen Gorriarekin amaitzeko asmotan eta bi asteren buruan, abuztuaren 20an, Rafael Picabea eta Francisco Basterretxeak Pariseko Ingeles enbaxadari bisita egin zioten. George Clerk enbaxadorea ez zegoenez kontseilari batekin elkarrizketatu ziren. Euskal autonomia/independente baten aurrean, Erresuma Batuko gobernuaren babesa eskatzen zuten. Ez dago batere argi zertarako eskatzen zuten zehatz mehatz: Espainia barnean autonomia handiagoa hala sezesio baten aukera²⁶⁵. Bileran, Rafael Picabeak planteatutako tesiak Gerra Zibil osoan zehar erabiliko diren berberak dira. Euskaldunak arraza diferentekoak, katolikoak eta Komunismoaren aurkakoak izateaz gain, ordena zibil eta bake soziala maite eta gerra honen erdian harrapaturik geratu zirela iradokiz.

Idea horiek nabariarazteko, Euskal Gobernuak aurrera eramandako politika nagusietako bat izan zen gerraren humanizazio. Kanal humanitarioen bidetik izango zituen Gobernu Britanikoko funtzionarioekin lehen harremanak. Bilboko kontsulak, Ralph Stevensonek Henry Chilton eta Agirrereren arteko bideak irekiko ditu eta Bilbo erori arte egongo dira irekita. Behin Bilbo erorita, Bartzelonatik, Manuel Iruok bestelako kontaktuak garatuko ditu. John Lecherekin izandako harremana da interesgarriena²⁶⁶. Iruok Lecherekin izandako harremanen gehiengoa gerraren humanizaziora eta eremu Errepublikarrean preso eta askatasun indibidualen garantiak ezartzera bideratuko ziren. Frantziako Tolosan ezarritako Chetwoderen batzordean, Iruoren eskua oso garrantzitsua izan zen. Londonen gainera, bestelako kontsulta politiko-diplomatikoak egingo zituzten. Ingalaterran Jose Inazio Lizasok 1937ko maiatzetik aurrera FOarekin harreman zuzenak hasiko ditu eta Bigarren Mundu Gerra pasa arte irekita mantenduko den kanala izango da. Hala ere, azken harreman hauek hurrengo atalean ikusiko ditugu.

Esan bezala, Euskal Gobernuak sortzean gertuen izango duten agentea, Ralph Stevenson kontsula izango da. Stevensonekin batera, Angel Oyanguren arituko da kontsul-orde lanetan. 1920dik egiten zuen Britainiarrentzat lan Bilboko Estazio kalean kokatzen zen kontsulatuan Oyangurennek. 1936ko urriaren 8an, estatua onetsi zela ospatzeko Bilbon egindako desfile militarrean, bera izan zen Britainiarren ordezkari. Estuki arituko da Stevensonekin elkarlanean Euskal Gobernuaren alde²⁶⁷.

Kontsulatu lanez haratago, Stevensonek Chiltonekin eta FO txosten eta mezu ezberdinak bidaliko ditu. Informazio emateaz gain, aktiboki harituko da lan humanitarioa gauzatzen. Orokorrean, euskaldunon alde agertuko da, erabat partisanso bilakatuz. Chiltonen hitzetan *extremely sympathetic* bilakatu omen zen. FOko Arthur Packen arabera horretarako joera eman zen Gerran zehar. Lehen lerroan zeuden funtzionarioak zeuden aldearen alde agertzen ziren: *the tendency of the man on the spot to become partisan*. Hainbeste ezen, nazionalen bonbardaketen jo puntuan izateraino iritsiko den Stevenson. Gerra nazionalisten begietatik ikusiko du, eta haien postulatuekin bat erabat bat egin. Britainiar almirantegoak 1937ko apirileko blokeoa onartzean

²⁶⁵ Jimenez (1999), 98; Meer (1992).169; Viñas (2006), 301-2: FO 371/20535

²⁶⁶ Leche *All for Franco* izan arren, bere iritzia aldatu egingo ziren. Buchanan (2003b), 294-5; Rainbird (2018)

²⁶⁷ Ugalde, (1999), 546; Oyanguren (1990). Bilbo erortzean Santanderra arte joan eta San Juan de Luza ebakuatuko du Abuztuan. 1937ko irail arte egingo du lan diplomazia britainiarrentzat Thompsonnek bere zerbitzuak bukatu direla adierzten dion arte. Gerra ostean Londresa joango da eta Time Charterreko zuzendari bilatuz; Kontsulatuaren lana hemen ikus daiteke: EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París) Secretaría V:300 L:25/04 Interesgarria, Jose Eguia 1937ko martxoan Vice-consula izendatuko dute une baterako. John Hugh Innesek Ralh Stevenson oporretan dagoen bitartean Bilbon pro-kontsul lanak egingo dituela dirudi.

Euskaldunak espainiar arrazarekin alderatuz goi-mailakoak balira ikusten ditu: *Is he [referring to the Basque Men] not superior in every way except numbers, to his Spanish oppressor*²⁶⁸.

Politizatzeak ez zuen bere lana zabartu. 1936ko urrirako Gurutze Gorri Internazionalaren batera trukaketak gauzatzeko eskema bat abian jartzen hasia zen. Trukaketa hauetan Marcel Junod, Gurutze Gorriko delegatua, buru-belarri aritu zen. Urriaren 10ean, emakumeak libre usteko akordioa sinatu zuten Agirrek eta Junodek. Agirrereren testigu Garcia Mansila zen bitartean Ralph Stevenson izan zen Junodena. Orotara, Angel Custodiosoeko kartzelan zeuden 168 emakume libre utzi zituzten. Horietako 30 Bilbon geratzea erabaki eta 130 emakumek Plentzian H. Burough komandantearen Exmouthen sartu eta Donibane Lohitzünera abiatu ziren. Frankistak ez zuten hitza bete. Halere, ordainetan 1936ko urri bukaerarako Exmouth itsasontzia, Junoden burugogorkeriak, Cardeña-Jimenon zeuden Getxoko 40 ume ekartzea lortu zuen²⁶⁹. Azaroan 4an, emakume, haur eta 60 urtetik gorakoak aske lagatzeko agindua eman zuten Salamancatik eta Gasteizeko kolonia batean zeuden 100 ume eta 6 emakume ekarri zituen Bilbora. Guztira nazionalen aldetik Euskal Gobernuak kontrolatutako eremura, 340 bat pertsona mugitu zituen Junodek

Trukaketa horiek ahalbidetzeko eremu internazionala eratu zen Getxon abuztu-irail aldera. Ideia Bilbon zeuden kontsulatuaren babesarekin jaio zen. Eremua babesteko EAJri Monzonek, Ortuzarren ideia bati jarraiki, gizonak eskatu zizkion. Behin EBBren baiezkoa jasota gizonak errekrutatzeari ekingo zion Ortuzarrek. Dr. Obietaren -gerora fusilatua- ikuskaritzapean 25-35 urtekoak eta 1.80m gorakoak izan behar ziren guztiak. Hala, sortu zen Ertzaña, polizia internazionala. Abrako klub maritimoan zuten komandantzia. Irailaren hirugarren aste aldera jaiotako indar hau gerora, Euskal Gobernuaren polizia militarra bilakaraziko dute. Azaroaren 3rako Ortuzar berak hartuko du Ertzaintzaren lidergoa, baina bere aitagarrearen, Wilhelm Wakonigg, espioitza-auzia dela eta kargugabetu egingo dute²⁷⁰.

Trukaketa guzti hauen helburua, gerra humanizatzearekin batera propagandistiko-diplomatikoa da. Euskal Gobernuak esku-orrien bitartez propagandan txertatuko ditu gertakizunak berehala. Gainera, bide hauek kontaktu diplomatikoak garatzea baimentzen zion. Hiru dimentsio horien mesedetan - humanistiko-diplomatiko-propagandistikoa- jarraiki jarriko zuten martxan 4.000 pertsonako truke orokor handi bat. Nicolas Franco eta Jose Sangronizek bertan beherako utziko dute 1937ko urtarrilaren 5ean. Mansillaren eta Chiltonen interbentzioari eskerrak, 1937ko otsail-martxo aldera trukaketa orokor berri bat izateko aukera emango da. Orduan, Agirrek 1937ko martxoaren 9an Stevensoni botere osoa utzi zion negoziaketetan bere izenean aritzeko. Martxo bukaerarako lehen akordio bat itxi zela zirudien, kargurik gabe kartzelan zeuden pertsona guztiak trukatzeko alegia. Aurrekariak kontuan, Euskal Gobernuak garantiak eskatzen zituen. Geneva eta Hagueko itunetara lotzeko ere eskatzen zitzairen nazionalen. Durangoko bonbardaketa lehendabizi eta Gernikakoak ondoren pikutara bidali zituen trukeak. Apirilaren 8an, Chiltonek Edeni bidalitako despatxu batean Salamancari leporatzen die negoziaketak etetearen erruaz²⁷¹:

The negotiations for an exchange of prisoners and hostages were brought one day to a sudden end by the insurgents (...) The Basque Government, by introducing the new conditions mentioned by Mr. Stevenson unluckily provided the necessary excuse for the rupture but I feel from my experience of Salamanca's attitude toward the whole subject, that the rupture and the attack would have

²⁶⁸ CBDG 7 FO 371/21291

²⁶⁹ Anasagasti eta Junod (2007), 50-52; EAH.LO. L:62 ERTZAÑA, Luis Ortuzarren idatzi solteak

²⁷⁰ Niebel (2009).

²⁷¹ CBDG Kew I FO 371/ 212289 W7084 Edeni (1937-04-08)

taken place in any case. Nonetheless, the Basques yesterday allowed a few Right-wing sympathisers to leave for France

Onaindiak ondo azaldu zuen bezala, trukaketa indibidualen bat edo beste eman zen bai, baina ez askoz gehiago. Euskal Gobernuak trukaketa masibo hori egiteak nazioartean sekulako prestigio emango zion. Inplizituki ia estatu edo gutxienez indar berdineko agente politiko bat bezala onartzen baitzuten nazionalek²⁷².

Stevensonek ikusi dugun bezala lehendakariaren konfiantza osoa zuen. Trukaketen negoziaketetan haren ordezkari aritu zen. Horrez gain, Durango eta Gernikako bonbardeoen berri ere emango zion. Gernikan bonbardeoa izan zela adierazi zion gutun batean Eden, atzerri ministroari. Durangoren kasuan, Chiltoni idatzi zion Durangok bazuela interes militarra, baina ez zirudien interesgune horiek izan zirenik hegazkinen xedea²⁷³. Era berean, Durango eta Gernika aurretik salatu zituen zibilen aurkako bonbardaketa sistematikoak Stevensonek. Bi bonbardaketa horien artean, frankistek Bilbo blokeatua zutela esan eta Almirantego britainiarrak aldarrikapen hori onartzean, azkar atera zen berau gezurtatzera²⁷⁴. Era berean, zibilen ebakuazioa zela eta, bere txosten eta aldarrak kontuan izan ziren. Nahiz eta iritzi publikoak eta Frantziaren exempluak indar gehiago jokatuko zuen ziur.

Euskal umeen ebakuazioan ere paper garrantzitsua izan zuen. Leah Manningek Stevensonekiko deskribatzen digun irudi ezkerrok ez dio justizia egiten. Apiril hasierarako iradoki zituen umeen ebakuazio masiboak. Gainera, Frantziara eta Erresuma Batuko ontzidiak zibilak ebakutzeko makina bat eskari egin zituen. Umeez hari garelara, interesgarria da Stevensonek Agirreri idatzi zion ohartarazpena. Maiatzeko bigarren astean, ebakutzera zihoazen 2.000 umek internazionala kantatu zuten. Chilton eta FO aurrean defendatu behar izan zuen Euskal Gobernuak eta hala idazten dio laster Erresuma Batura bidaiatzekoak ziren umeen inguruan, *En cuanto a la selección de los niños para evacuación el Reino Unido es conveniente que tengan Ustedes presente la necesidad de mantener la alta opinión conseguida en mi país del pueblo vasco en cuanto al nivel moral, social y religioso*²⁷⁵. Bilbo nazionalen esku erori arte mantendu zen hirian Stevenson. Azken momentuan egin zuen ihes suntsitzaile britainiar batean²⁷⁶. Bilboko etaparen ostean, Britainia Handia eta Bigarren Mundu Gerra garaian Brasilen zegoela Euskal Gobernuarekin kontaktua mantendu zuen.

3. ERRESUMA BATUKO KOMITEAK

Britainia Handian Espainiako Gerra Zibila zela eta eratutako batzorde eta erakundeak aztertuko dira jarraian. Erakunde hauek bi motatakoak izan ohi ziren. Alde batetik, erakunde politikoak ditugu, hau da zuzenki Gobernuaren politikan eragiteko sortuak eta bestetik humanitarioak. Politikoetan ez dago zalantzarik. Errepublikarekin edo nazionalekin lerratuko dira. Aldiz, laguntza humanitaria eskainiko duten erakundeak anbiguotasun handiagoa izango dute. Sortuko diren gehiengoak partisanoak izango dira, politikaren estentsio bat gauzatzeko egituratuak hain zuzen ere. Katolikoek osatutako dituzten funtsak errebeldeen aldera bideratuko diren bezala, gerra hasieran sortuko diren elkarten gehiengoak Errepublikari lagunduko diote gehiago. Aldiz, Gurutze Gorria, kuakeroen *Friends Service Council* (FSC), *Salvation Army* ebanjelikoa, *Save the Children Fund* edota euskal umeak artatzeko osatuko den *Basque*

²⁷² Onaindia (1973), 150-169; Anderson (2012), 242-4; FO 371/ 212289 Stevensonek Chiltoni.

²⁷³ CBDG Kew I FO 371/ 212290 W8383 Stevensonek Chiltoni (1937-04-03) FO 371/21291, W8661 Stevensonek Edeni (1937-04-28)

²⁷⁴ Cable (1979), 107-1

²⁷⁵ EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París) Secretaría V:300 L:25/04 Stevensonek Agirreri (1937-05-15)

²⁷⁶ Ojanguren (1990), 57

Children Committe (BCC) ez-politikoak bezala katalogatu daitezke. Komite hauek guztiek emandako laguntza £1.000.000 erraz gaindituko dute, nahiz eta ez diren £2.000.000 iritsiko²⁷⁷.

Errepublikaren alde erabat politikoak izango diren komiteen artean kokatzen ditugu *The Friends of Spanish Republic*, *The Friends of Spain* eta azkenetik eratorrita osatuko den *Parliamentary Committee Friends for Spain*. Orokorrean, talde guzti hauek laborista ezkertiar eta liberalek osatuko dituzte. 1936 bukaeran sortua, *The Friends of Spanish Republic* Victor Churchillek zuzenduko zuen, baina ez zuen Azcarateren babes handirik jaso. Churchill *Spanish Medical Aid Committeko* ordezkaria izan zen 1936ko abuztutik 1937 bukaera arte eta 5.000 ale argitaratzen zituen agerkaria ahalbidetzeko, *The Spanish News. The organ of the Friends of Spanish Republic*, Espainiar enbaxadak £20 eman zizkion hilero 1937 urtarriletik urte bereko apiril arte. Erakundea 37, Furnival Street, London kokatu eta hurrengo hauek osatzen zuten:

- Lehendakari: Jack Tanner
- Lehendakari orde: Willian Dobbie
- Diru-zain: John Jagger
- Idazkari: Dick Beech.
- Exekutiboan: Stafford Cripps, Lord Faringdon, Ellen Wilkinosn, Jack Carney, A. Campbell, Alex Gossip, A.J. Gillian, E. Collins, Harold Laski, David Low, Nora Connocllu O'Brien, Brn Tillet, E.J. Hill, Tom Quelch, H. N. Brailsford, J.F. Horrabin. W.A., Peacock. Dr. Edwar Conze, Joe Reeves, Tom Baker, Geo Marrin eta W. Hannington.

Halere, Churchillengan zuen desconfiantza zela eta *League of Nations Union* batzordeko partaide zen Philip Noel-Bakerren liga hartako prentsa arduradunari £300 eman eta Espainiako Errepublikaren bozeramaile ofizioso izateko komite berri bat ezarri zuten: *Friends of Spain*. 1936ko azaroan osatuko zen erakundeak hiru partidu nagusietako zazpi parlamentario izango zituen: Athollko dukesa (kontserbadore-unionista), Wilfred Roberts (liberala), Eleanor Rathbone (independentea) eta Philip Noel-Baker (errepublikarra). *News Chronicleko* Philip Jordan eta *Church Timeseko* editore zen Sidney Dark kazetariak eta Henry Briton anglikano-laboristek osatzen zuten. Egoitza 11 Hart, Street, Holborn, Londonen zuen eta aipatutakoez gain, *League of Nationsko* H.W. Le Prevostek, M.R. Irmingek et Ann Sitwelek idazkari orokorrak osatzen zuten²⁷⁸.

1938 bigarren erdi aldera, *Friends of Spain* desegin eta, *Parliamentary Committee for Spain* eratuko dute. Hamabost parlamentarik hasitako ekimena berehala gorpuztu eta John Jagger eta Wilfrid Roberts ohorezko idazkaritzan izanik, *advisory council* batek gidatuko du²⁷⁹. Margaret Stewart izango da 11a Bloomsbury Way-en ezarriko den erakunderen egunerokoaren pisua eramango duen *organizing secretary*. Elkarteak propaganda bortitzaren ondorioz britainiar gizartera heltzen zen informazio egokia ez dela irizita horri buelta ematen saiatuko dira.

Sortuko diren lehendabiziko komiteak, laguntza humanitarioarekin izango dute zer ikusia, zehazki laguntza medikoa eta anbulantziak bidaltzeaz arduratuko ziren. Laguntzan zentratu arren, horrek ez die kutsu politikorik kentzen. Isabel Brown komunistak hauspotutako *Spanish Medical Aid* eta politikoki neutralagoa zen *Scottish Ambulance Unit* izango dira lehenengoak.

²⁷⁷ Warwickeko Unibertsitateak lan eskerga egin du duten dokumentazioa ordenatzen. Gehienbat Errepublikarekin kolaboratu zuten erakundeei buruz ezagutzeko ikusi hurrengo esteka: https://warwick.ac.uk/services/library/mrc/archives_online/digital/scw/aid; Alpert (1984)

²⁷⁸ UWA ATUC: 292C/946/3/1 Friends of Spain (1937-08-30). Ingalaterra, Eskozia eta Galesen 47

²⁷⁹ UWA ATUC: 292/946/30/37 Organismoaren lehen zirkularra. Hasierako hamabost parlamentariak honako hauek dira: Richard Acland, The Duchess of Atholl, Aneurin Bevan, David Grenfell, Megan Lloyd-George Philip Noel-Baker, D. N. Pritt, Eleanor Rathbone, S. Silverman, G.R. Strauss, Edith Summerskill, Ellen Wilkinson, H. Graham White

Lehendabizikoa 1936ko abuzturako osatu eta berehala jasoko duen babesari eskerrak hiru asteren buruan Aragoiko frontean unitate bat zuten jada, eta urrirako bigarren unitate bat prest zuten. Komunistekin lotuko den erakundea izanik mugimendu laboristarekin eta *Scottish Ambulancekin* bere talkak izango ditu. Hasierako anbulantzien bidalketan lagunduko badute ere, laboristak 1936ko azaroan erakunde honekin ez kooperatzea erabakiko dute, nahiz eta, ez ofizialki bazen ere, Hyacinth Morganen bidez errepresentatuta zeuden TUCak²⁸⁰. Erakunde honek £60,000 baina gehiago gastatu zituen guztira. Horri errefuxiatuentzako batu zuen dirua gehitu behar zaio. Hurrengo estruktura hau izango du *Spanish Medical Aidek*:

- Presidente: Lord Christopher Addison.
- Lehendakari: Hyacinth Morgan.
- Lehendakari-orde: Somerville Hastings.
- Diru-zain: Hastings, bizkondeza eta Professor J.R. Marrack, Churchill bizkondea.
- Ohorezko-Idazkari Secretaries: Lehendabizi, Charles Brook eta ondoren 1936ko abendutik aurrera Leah Manning (Dec 1936-1939).
- Erakundeko idazkari: George Jeger.

Scottish Ambulancek aldiz, Daniel Stevenson, industrial liberalak osatuko du eta *Mrs. Cameron* izango du idazkari. Madrilerako bidalkiko du unitate bat 1936ko irailerako; eta Errepublikarren laguntzan ez ezik, George Ogilvie-Forbes diplomatikoaren bidez, Madrileko enbaxadan dauden eskuineko jarraitzaileak ere sorotsiko ditu. Janaria ematez gain, Espainiatik aterako dute errefuxiatuaren bat edo beste. Isabel Brownen erakundeak besteko laguntza eskuratuko ez eta nahiko arazo izango ditu bere misio medikua mantentzeko. Gerra bukaerarako £21.000 bidalkiko ditu Espainiara²⁸¹.

Lehendabiziko erakunde hauek Espainiako Gerra Zibilaren ondorioz *ad hoc* sortu baziren ere, gerra aurretik lanean ziharduten erakundeek ere bideratuko zituzten laguntzak Espainiarantz. Hor kokatu behar ditugu, *International Solidarity Fund (ISF)* eta *Nazioarteko Laguntza Gorri* komunista. Lehendabizikoa, mugimendu laboristak atxikitako nazioarteko langile eta sozialisten elkarteak kontrolatzen duen funtsa da eta Erresuma Batuko atalak indar handia zuen funtsek banatzerako momentuan. Erresuma Batuko komitea TUCen kontseilu orokorrak eta partidu laboristaren batzorde exekutiboak osatzen zuten. Funtsaren dirua *International Federation of Trade Unions* eta *Labour and Socialist International*etik zetozen eta Erresuma Batuan *National Council of Labour*ren, hau da, TUC, partidu laboristaren exekutiboa eta talde parlamentarioaren arteko koordinazio batzordearen, bidez batzen eta banatzen ziren bai nazioarteko funtsera bideratuak, eta baita bere kabuz antolatuko ziren egitasmoak egikaritzera bideratuak. Organismo horretan hiru idazkariek, Walter Citrine TUCen partez, James Middleton, exekutiboaren ordez eta talde parlamentariko H.Scott Lindsayk osatzen zuten. Batzordean partidu laboristako exekutiboko lehendakaria, Hugh Dalton eta TUCeko *General Council*eko lehendakaria, Ernest Bevin zeuden. Talde honek, *Spanish Relief Committee* ezarriko du diru-bilketak banatzeko eta funtsak *Spanish Worker's Fund* bidez jasoko ziren.

Mugimendu laboristak bere kabuz bestelako erakundeekin, batik batik bat komunistekin, koordinatu gabe egituratu nahi zuen laguntza humanitarioa. Halere, noizbehinka diru-laguntzak emango zizkien kontrolatzen ez zituen laguntza lanetan zebiltzan beste inizatiba eta erakundeei. Laborismoko funtsetatik ateratako diruak mantenduko zituen 1939 aurrera Ingalaterran geratutako euskal itsasgizonak. Espainian PSOE eta UGTK bideratuko zizkieten laguntza gehienak eta Bilboko blokeoaren erdian, ISFren £3000z pleitatuko zen S.S.Backworth ontzia.

²⁸⁰ Buchannan (2003), 107-9

²⁸¹ Alpert (1984), 425-6; UWA ATUC: 292/946/42/27 Daniel Stevensonek Walter Citrini.

1937ko urtarrilerako 15ean ISFk £130.000 banatuta zituen Espainian. Horietatik £21.000 Erresuma Batuan jasoak. 1938ko abendurako 68.000.000 Fr., hau da, £390.800 inguru gastatu zituen zuzenean ISF funtsak. Horri beste kantitate batzuk gehitu behar zaizkio. *British Mineworkers Federationek* Umeen Kataluniako kolonietarako £40.000 zituen gordeak eta BCCko Erresuma Batuko funtsetara £6459ko donazioa egina zuen. Funts hauetaz haratago, beste herrietako elkarrekin independenteki beste 34.000.000 Fr. inguru bildu zituzten. Frantziak horietako 26 milioi. Orotara, £190.000 gorako laguntza izanik²⁸².

Nazioarteko funtsak *Spanish Medical Aidekin* azaro arte kolaboratu zuen. Bere kutsu komunistak zela eta lankidetzaren zuten arte. Nahiz eta noizbehinka ISFrako donazioak egingo dituen SMACek eta baita jarraian hitz egingo dugun hainbat talde komunistak²⁸³.

ISFk ez du *Nazioarteko Laguntza Gorriarekin* kooperatuko, SMACen izaera komunistak berbera baitzuen. *Kominternaren* elementu osagarri hau, Errusiako txotxongilo komunistak bat iruditzen zitzairen. Funts honek sekzio internazional, nazional eta lokalen bidez funtzionatzen zuen. Espainiako gerran errefuxiatuei lagundu eta higienean zaintzeko 200 ospitaletik gora ezarri eta anbulantzia eta transfusio unitateak zein umeen ebakuazioak diruz lagundu zituen²⁸⁴. Komunistak sobietarrak bezala, POUM troskistak ere bere sekzio internazionala izango du: POUMen *Nazioarteko Laguntza Gorria*. Partiduko partaide guztiak derrigor izan behar ziren nazioarteko erakunde honen militante.

Aipatutakoak ez ziren komunistek osatuko zituzten laguntza komite bakarrak. *International Brigade Dependants' and Wounded Aid Committee* eta *Relief Committee for Victims of Fascism* aipatu behar dira. Mugimendu laborista erakunde hautatik at mantenduko da eta beraien militantziak erakunde hauetan parte ez hartzea eragozten saiatuko ziren. Brigada Internazionaleri laguntzeko osatu zen lehena 1937an. Brigadistek diruz lagundu eta laguntza medikoa eskainiko ziren. Hurrengo hauek osatzen zuten:

- Lehendakaria: Sam Wild.
- Lehendakari-ordea: Malcolm Dunbar, Alan Gilchrist.
- Ohorezko idazkari eta idazkariak: Charlotte Haldane, Jack Brent, Nan Green, Alec Digges.

Bai batek zein besteak izena aldatuko dute gerra bukatzean. *International Brigade Association* eta *Anti-Facist Relief Committee* bilakatuko da bigarrena eta pairatuko duen aldaketa bakarra diru zainaren aldaketa izango zen. Boydek Haldani utziko zion tokia:

- Lehendakaria: Dr J. Kershaw.
- Diru-zaina: Dr H.C. Boyde, Professor J.B.S. Haldane.
- Idazkaria: sabel Brown.
- Mundu mailako lehendakariak: Lord Marley, Paul Langevin.

Komite hau Gerra aurretik existitzen zen; 1933. urtetik zetorren erakunde baten jarraitzaile zen. Otto Katzek Austria eta Alemaniako faxismoen aurka egiteko sortua, Espainian 1934. urteko urriko iraultzan ondoren lagundu zuen jada. Ellen Wilkinson eta Lord Listowel erakunde honen ordezkari izateagatik egotzi zituzten Espainiatik 1934an²⁸⁵.

Mugimendu laboristaz hitz egiterakoan ez dugu aipatu *Labour Party Spain Campaign Committee*. Mugimendu honek hobekien azaltzen du mugimenduaren barruan Espainiaren kiko

²⁸² UWA.ATUC: 292/946/28/39: Statement on the Labour Relief Work for Spain; 292/946/32/10 *International Solidarity Funds* (1938-12-21)

²⁸³ UWA ATUC: 292/946/28/48: Spanish Workers' Appeal Fund for Period Ended 9th March, 1937

²⁸⁴ Branciforte (2006)

²⁸⁵ Bartley (2019), 101

hartu behar ziren erantzunek eragin zituzten tentsioak. 1937ko urriko partidu laboristaren urteko batzarraren ostean Britainiar Gobernuaren ez interbentzioaren aurka egiteko sortua. Zuzendaria George Dallas zen eta idazkariak William Gilles eta Ellen Wilkinson. Bokalak ziren Stafford Cripps, Joseph Henderson, Stanley Hirst, James Walk. Partidu laboristaren propaganda eta laguntza humanitarioa koordinatzeko sortua; mugimenduak propaganda egiteko bilkura handi batzuk proposatu zituzten, 1937ko abenduaren 19an *Albert Hall-en* egindako manifestazio handian goia jo zuelarik. 1938. urtean politika berdina jarraitu zuen: Espainiar Gobernu legitimoarentzat armak eskatu, nazionalen guda eskubideak ez ematea eta atzeritar bolondresen aberriatzea. Egindako laguntza humanitarioari dagokionez, *Milk for Spain* kanpaina azpimarratu behar da.

Ez zuen lan humanitariotik haratago gauza handirik lortu. Gainera, hein handi batean, zehazki esan ezin bada ere, militantziak bere kabuz osatutako beste komite bat baretzeko hartutako erabakiaren ondorioz sortu zen komitea. Ez da ahaztu ez eta konfunditu aurretik existitzen zen *The Labour Spain Committeerekin*. Buchanaen hitzetan partiduko *left-wingers* batzuk ziren azken honen fundatzaileak²⁸⁶. C.J. Garnsworthy zuzendaritzapean hasi eta ondoren 1938an Brailsfordek, britainiar fronte popularraren defendatzaile sutsuenetako batek, hartu zuen lidergoa. Idazkari Felix John Clewett Pole zen eta diru zain Austen Albu. Bokalak Mollie Millar eta Sybil Wingate ziren. Hauek 1937ko martxoan eratu zuten, eta gerran zehar, ez interbentzioa irauliz, laguntza humanitariotik haratago joan nahi zuten. Pole idazkariaren hitzek ederki laburbiltzen dute komitearen porrota: *We failed wholly in our objective which was to persuade the National Executive and the Labour movement as a whole to challenge the government dramatically on its attitudes and policies, so-called non-intervention and neutrality in the Spanish War*²⁸⁷.

Mugimendu laboristako sindikatuei estuki loturiko beste erakunde bat izan zen *Voluntary Industrial Aid for Spain*. Plymoutheko TUC urteko bileraren ostean, 1937ko irailean Citrinek sindikatuei Espainiaren alde agertzeko eskaerari heldu eta eratu zuten aipatu berri dugun erakundea²⁸⁸. Garraio sindikatuekin loturiko liderrak pentsatutako eskema zen, aparteko orduak ordaindu gabe egin eta balioa Espainiaren laguntzarako bideratzeko asmoz. Sindikatuen erakundeak ez zuen babestu ekimena. Ez zitzaion aproposa iruditzen doako lan-orduen ideia. Eskuratutako diruaz, garraio pisutsuko ibilgailuak bidali ziren Errepublikaren lurraldera. Hurrengo hauek osatzen zuten:

- Zuzendaria: Harry Adams
- Idazkaria: Geoffrey Pyke
- Batzordearen bokalak: Alfred Barnes M.P., A.C. Bassebe, H.G. Brotherton, A.W. Coster, J. Dunnage, J. Dagger, R.H. Edwards, Lord Faringdon, Bert Joy, J. Reeves, Joe Scott, J.R. Shanley, Jack Tanner, Councillor D.C. Webster, A.M. Wall

Laborismoarekin zuzenki loturik ez bazegoen ere, bere gazte jendeak parte hartu zuen hurrengo komitean. *Spanish Youth Foodship Committee*. Hurrengo zuzendaritzak osatzen zuten:

- Lehendakari: W. Spence
- Idazkari: Helen Jeger
- Diru-zain: Mr E. Goodman
- Propaganda idazkaria: L. Birch

²⁸⁶ Buchanan, (1991), 80-1

²⁸⁷ Fleay eta Sanders (1985)

²⁸⁸ Bodelyan Library, Stafford Cripps funtsa, MS. 9661/99 Memorandum to Labour party committee on help for Spain, (1937-11-21) Nov. 1937,

Janaria bildu eta umeen koloniak babesteko sortu zen 1936an. Gazte organismo askorekin elkarlanean osatu eta sortu zen. *Labour Party League of Youth, the Young Communist League, the League of Nations Union Youth Groups, the University Labour Federation, the University Liberals, the Young Liberal Association and the Clarion Cycling Club*. Laguntzaileen artean Harold Laski, Churchileko bizkondea eta Harold Brailsford ditugu.

Aipatutako guztien artean, *National Joint Committee for Spanish Relief* (NJC) izango da laguntza elkarte nagusia eta Britainiar Gobernuak koordinatu ez zuen laguntza antolatzeke sortu zen. Gobernu Britainiarrak ezkortasun handiarekin hartu zituen laguntza komiteen gehiengoa eta inizatiba pribatuei ez laguntzea erabaki zuen. Saiatu zen Nazioen Ligari lotuta zegoen *International Relief Union* bidez laguntza humanitario bideratzen, baina Italiar senatari bat buru zuenez, Espainiar Gobernuak ez zuen bide hori onartu. Parte hartzeko izan zituen tentsioak-tentsio, Iparraldeko kanpaina *Royal Navyko* ebakuazioek £73.000 kostua izan eta gerra bukaeran Britainiar Gobernuak Frantziako hegoaldean errefuxiatuei laguntzeko £50.000 eman zizkion Britaniako Gurutze Gorriko sekzioari²⁸⁹. Sekzio britainiarrak gerran zehar apenas izan zuen garrantzirik. Independente aritu beharrean, *International Red Cross* bidez egon ziren presenta laguntzan eta £1.500 besterik ez zituzten bildu gerra osoan. Gurutze Gorri Internazionala laguntza humanitario klasikoa (janari, arropak, ekipo medikoak...) eskaintzeaz gain, gerra humanizatzen saiatu zen (presoen arreta, erailketak ekidin...). Horregatik, zentratu ziren preso eta zibilen arteko trukaketak egiten eta pertsonen inguruko informazioa ahalbidetu zuen. Euskal lurraldean Marcel Junoden lana goraiatu behar da. 1936ko azaroan Alfredo Espinosa osasun sailburuak sortu zuen Euzkadiko Gurutze Gorria eta Genevako ofizinala ofizialki onartu ez bazuen ere, sortutako sekzioarekin kolaboratuko zuten. Bestalde, Gerra bukatzean Moralko markesa bilakatuko da Gurutzeko Gorri Internazionalaren Espainiako sekzioko ordezkaria Ingalaterran²⁹⁰.

Laguntzak eman arren, Britainiar gobernuak ez zuen inongo organorik sortu. Hortaz, erakunde honen faltan, laguntza koordinatu eta eraginkorrago bilakatzeko beharrak eraman zuen NJC eratzeraz. Benetan partianoak ziren pertsonak, neutralagoak zirenekin batera aritzeko estruktura bat eratzea lortu zuten. 1937ko urtarrilerako osatu zen erakundea. Genesia 1936ko azaroan Espainia Errepublikarrean izan ziren sei pertsonako talde guztietako batzorde parlamentario baten harira sortu zen. Esan bezala, neutralak ziren erakundeak (*Christian Foodship Committee, Save the Children Fund* edota *Service Council of the Society of Friends, Southern Spanish Relief Committee*) aipatu ditugun errepublikarrena aldeko hainbat erakunderekin batu zituen (*Scottish Ambulance Unit, Spanish Medical Aid Committee, Spanish Women's Committee for Help to Spain, Spanish Youth Foodship Committee, Women's Committee Against War and Fascism*). Kasu honetan ere, laboristak maila organikoan ez zuten zuzenki erakundearekin kolaboratu, nahiz eta maila lokalean benetako esfortzu bateratuak emango ziren. Komite honek laguntza medikuaren, janariaren eta arroparen bidalketez gain, kolonien eta ospitaleen

²⁸⁹ *International Committee of the Red Cross* buruz. Petrus (2011), 35-39 eta 297; Vallelanoko kondea nazionalen aldeko Gurutze Gorriko presidente zen. 1936ko abendurako Euzkadin sekzio bat sortu zen. Delegatu neutralen artean Errepublikaren aurrean: Marcel Junod izan zen ordezkari nagusia. Bilbon George Graz izan zen, 1936ko azaroaren 8tik ekainaren 14 arte. Ondoren, delegatu nazionala izan zen Lt. Raymond Courvoisier. 1937ko uztailaren 7tik urriaren 27 arte. Comte Grace de Purtales izan zen delegatu nagusia nazionalen aldean 1936ko abendutik 1938ko azaro arte. Donostian Courvoisier bera egon zen 1936ko abendutik 1938ko otsail arte. Ondoren, gerra bukatu arte, aurretik Burgosen izan zen Captain Jean d'Amman izan zen.

²⁹⁰ Alpert (1984); Petrus (2011). Cambridge University Archive- Lord Hailsham funtsa, GBR/0014/ HAIL/1/4/51, Moralek Hailshami (1939-02-29).

mantenuan lagundu zuen. Hurrengo estruktura izango du 53 Marsham Street Londonen egoitza zuen erakundeak²⁹¹:

- Lehendakari: The Duchess of Atholl M.P.
- Lehendakari-orde: The Earl of Listowel, Eleanor Rathbone M.P.
- Diru Zain: Wilfrid Roberts M.P., Viscount Cecil of Chelwood.
- Ohorezko idazkariak: D.R. Grenfell M.P., Captain J.R.J. Macnamara M.P., Wilfrid Roberts M.P.
- Idazkari-orokorrak: Elizabeth Macadam, Mary M. Miller, Betty Arne, Dr Betty Morgan.
- Idazkari laguntzailea: Felice Clark

NJCK euskaldunekin harreman estua izango zuen. Esaterako euskal umeak Erresuma Batura bidaltzean zer esan handia izan zuen Leah Manning erakunde honen ordezkari gisa joan zen Bilbora. 1937ko apirilean, harantz NJCK ordaindutako anbulantzia unitate bat zeraman.

NJCKo pluraltasuna zela eta, komite lokalek autonomia handia izan zuten, nahi eta ahal zuten eran dirua biltzeko. 1938ko 150 taldez osatzen zen eta, guztira 180 komite izango zituen. 1937an bakarrik £35.000 bildu zituzten. BCCrentzat eskuratu ziren beste £36.000 gehitu behar zaizkio aurreko zenbakiari, £71.000 1937an. Are diru gehiago bildu zuten hurrengo bi urteetan. 1938ko azarotik 1939ko ekaina bitartean bakarrik £115.000 jaso zituzten. Diru horrekin 1.800 errefuxiatu Mexikora eraman zituen *Sinai* ontzia alkilatu eta 29 ontzi janariz beteta bidali zituzten. Beste zati handi bat 1939ko otsaileko Kataluniako erretretan Frantziara joan ziren erbesteratuak artatzeko sortu zen *British Committee for Refugees from Spainek* erabiliko zuen. 1939ko otsailean sortu zen batzorde hau NJCK Frantzian lan egiteko erakunde pantaila bat izan zen. Pixkanaka eta estuki loturik jarraitu zuten arren, Frantziako erbesteratu eta kanpamenduez gain, Erresuma Batuan zeuden 325 lagun ekonomikoki eusten zituen. Batzuk brigadistak ziren. Beste batzuk espainiar errefuxiatuak. Euskal umeekin etorritako 100 *señoritas* ere laguntzen zieten²⁹². *British Committee for Refugees from Spainen* hurrengo pertsona hauek osatzen zuten:

- Lehendakari: Eleanor Rathbone, M.P.
- Ohorezko-idazkaria: Wilfrid Roberts, M.P.
- Idazkari orokorra: Elizabeth Montagu-Pollock.
- Idazkari-laguntzailea: Miss. I.E. Bafico
- Hospitalitate Idazkaria: Joan Priestley

NJCK babespean sortutako beste erakunde bat izango da BCC. Gernikaren sarraskiak hartu zuen dimentsioa aprobetxatuz, Euskal Gobernuak gerraren izugarrikerietatik ihesi, 4.000 ume inguru Erresuma Batura bidali zituen. Sekulako astindua eragin zuen ume hauen etorrerak. Gobernuak errefuxiatuekiko politika aldatu bazuen ere, baldintza bat jarri zuen: diru-publikoko zentimo bat ere ez zuela ipiniko alegia. Batzorde honek jada NJC barnean bildu ziren mugimenduez gain, batzordea mugimendu laborista eta eliza katolikoarekin lankidetzaz hornitu zen. Jose Inazio Lizasok, Walter Citrine, haren idazkari Vicent Tewson eta partidu laboristako idazkariarekin James Middletonekin 1937ko maiatzaren 4an izandako bileran mugimendu laboristak NJCKekin kolaboratzeko batzorde berri bat sortzea erabakitzen dute, Lizasok bi kondizio eskatzen dizkio: propagandarik egingo ez duen batzordea izan eta katolikoekin kolaboratu beharko zutela. Lortu zuen bere asmoa. Esan behar da baina, Kuakeroek ez zutela hasieran inizatiba gogo askorekin hartu. Nahiago zuten laguntza Espainiara mugatzea²⁹³. Hurrengo hau izan zen batzordearen zuzendaritza:

²⁹¹ Aurretik 35 Marsham Streeten egongo da eta ondoren 30 Eccleston Street

²⁹² UWA.ATUC: 292/946/38/69 Report of the work of the National Joint Committee for Spanish Relief. The British Committee for refugees from Spain Basque Children Committee

²⁹³ UWA.ATUC:292/946/16a/39 Memorandum Citrine, Lizaso, Middleton Tewson (1937-05-04). *Senor Lizaso stated that it was essential that the committee should not be used for any political propaganda purpose. It would*

- Lehendakaria: The Duchess of Atholl M.P.
- Lehendakari-ordea :Eleanor Rathbone M.P., Vincent Tewson.
- Ohorezko-idazkaria: W. Roberts M.P., J. Macnamara M.P., D. Grenfell (Labour Party)
- Ohorezko diru-zaina: Viscount Cecil of Chelwood.
- Idazkari orokorra: Betty Arne lehendabizi eta ondoren Betty Morgan.
- Bokalak: Canon Craven (*The Crusade of Rescue*), Barnnett komandantea (Salvation Army), Miss Lloyd William, Edit Pye eta Miss Anderson (FSC) Dr.Kahl eta J.D. Watson (Save the Children Fund), Hyacinth Morgan (SMAC) E.P. Harris (TUC) J.S. Middleton (*labour Party*), Leah Manning, Philio, Noel Baker, Janet Campbell, Dr. Russell, Mrs. Wood. Miss Odd.

Ofizinak 53 Marsham streeten izango zituen erakundeak aldaketa nabarmenak pairatuko ditu gerra aurrera doala. 1937ko urri aldera aberriratzeak hasten direnean adibidez, Macnamara Frankistek sortuko duten aberriratze komitera pasa eta 1938ko martxoan Vyvyan Adams kontserbadorea *boarden* sartuko da. Gerra bukatzean *trust* batean bilakatuko da batzordea, eta 1951 arte iraungo du umeei laguntzan eskaintzen. 1940. urtean egindako txosten batean, 1937ko maiatzaren 1ean *The Times* egunkarian Atholleko dukesak, Ellen Wilkinson, Eleanor Rathbone, Irene Ward, Megan Lloyd George, John Withers, Harold Nicholson, Thelma Cazalet, Philip Noel-Baker, Anthony Crossley, Lytton, Patrick Hannon, David Grenfell, Noel-Buxton, Arthur Salter sinatutako gutunean hasitako diru-bilketa eskaerak 1939ko irail arte £165.000 jaso zituela kalkulatu da²⁹⁴. Logikoki euskal delegaritzarekin harreman handia izango du batzordeak eta Euskal Gobernuak Gizarte Laguntzaren sailak ordezkari bat jarriko du 1937ko abuztuan umeen kudeaketaz arduratzeko: Miguel Uranga.

BCC ez zen umeei lan egin zuen komite bakarra. 1937ko urtarrilean John Langdon-Daviesek bultzatuta sortu zen *Foster Parents' Scheme for Spanish Children*. Kolonietan bizi ziren, izan Katalunian, Frantzia edo Erresuma Batuan, ume bat adoptatu egiten zen eta diruz laguntzan zitaion. Ordainetan umearen argazkiak, gutun eta marrazkiak jasotzen ziren. Erakunde hau Ameriketara ere pasa zen. Eric Muggeridge izan zen New Yorken ezarri zen ofizinarekin idazkari eta David J. Algase zen diru-zaina. Estatu Batuetako lehen dama, Elenor Rooseveltek, programaren bultzatzaileetako bat izango zen. Hiru ume hartuko zituen eskema honen bidez, besteak beste, Kerman Mirena Iriondo²⁹⁵.

Aztertu berri dugun NJC barnean, bi aldeei laguntza eskain zieten erakundeak neutralistak zeudela aipatu dugu. *International Red Cross* gain, Kuakeroen *Friend Service Council* eta *Save the Children* erakundeak. Azken bi hauek, dirua batera bilduko zuten eta hein handi batean *Save the Children Internationalen* (SCIU) eta *Service Civil International* zein Amerikako Kuakeroekin osatutako proiektuen bidez arituko ziren Espainian²⁹⁶. Gainera, *General Relief Funden* parte hartu zuten bi erakundeok. Beherago sakonduko dugu, komite hau zergatik ez dugun neutralisten artean sartu.

defeat its own object and the Basque people would suffer in consequence. He repeated that he thought it essential that the Catholic organizations should be associated with this work. He had addressed a meeting in the House of Commons some days before, and Mr. Logan, M.P., of the Labour Party, had made the suggestion that the Catholic organization should participate. He, Mr. Logan, had undertaken to get in touch with the Catholic Archbishop of Liverpool, and through him with the Catholic Archbishop of Westminster, Dr. Hinsley. Petrus, (2011), 40 eta 307-8 ebakuzioan Kuakero eta Save the Childrenen retizentziak:

²⁹⁴ UWA.ATUC:292/946/38/69 Report of the work of the National Joint Committee for Spanish Relief. The British Committee for refugees from Spain Basque Children Committee

²⁹⁵ University of Rhode Island Foster Parents Plan International Mss.Gr.117.2; Box 77, 208; FDR National Library, Anna Eleanor Roosevelt Papers, Part 1, Anna Roosevelt korrespondentzia Eric Muggeridgerekin

²⁹⁶ Koordinatuta arituko baziren ere, erakunde ezberdinen pertsonen artean tentsioak nabari dira eta SCIU eta Friends Service Councilen zuten akordioa eten egin zuten 1937 bukaeran. *Save the Childreneko* Mme Small and Mlle (Dr) Pictetek Alfred eta Norma Jacobekin zituzten ondorio izan zen. Pretus (2011), 63-4

Ingalaterrako kuakeroak neutralak izanda ere Errepublikaren alde gehiago egin zutela esan daiteke. Nazionalen alderako, beste erakundeen bidez dirua bildu bazuten ere, ez zuten inongo proiekturik izango 1938 arte. Aurreko urte bukaeran osatuko zen *International Commission for the Assistance of Child Refugees in Spain*. Hainbat kuakerok, Edith Pye, Hilda Clark eta T. Edmond Harveyk, zer esan handia izango zuten batzorde honen eraketan. Hogeita lau gobernuk, tartean britainiarra, emandako laguntzen bidez eratu. Erakundeak britainiar kuakeroez gain, Amerikako lagunak eta SCIU eta *Service Civil Internationalek* kolaboratu zuten laguntza honetan. 1938 hasieran, FSCk funts honetatik ateratako dirutik, errerepublikaren eremuan zeuden 5.000 ume eta nazionalen eremuko 2.000 elikatzen zituzten²⁹⁷.

Ikus daiteken lez, Errepublikari gehiago lagunduko zioten. Arrazoi erlijiosoak adierazi izan badira ere (ez ziren katolikoak), badirudi, arrazoi nagusia hasieran FSCk Espainiarako osatutako batzordean lanean zebiltzanen afinitate politikoei zor zaiela²⁹⁸:

The exclusion of the Nationalist Zone as an initial target of the British Quakers' relief work was arguably related to the political feelings of those involved in the early days of the Quaker action, who despite their formal commitment to neutrality, favored the Republicans

Lan hauetan zebiltzanen artean, John Harvey, Alfred Jacob, Edyth Pye, eta Francesca Wilson azpimarratu behar dira. Hasieran Bartzelonan zentratu baziren ere, Murtzia arteko eremuan umeentzako hainbat kolonia eta jateko leku ireki eta mantendu zituzten. Horietako bat. Gracia izena zuena *General Relief Fund for Distressed Women and Children* (GRF) finantzatzeko zuen. Sants eta in Carmen kalean zeuden beste bi establezimendu GRF eta FSCren artean mantentzen ziren. Kantinez gain, ospitaleak, janaria, arropa eta bestelako elementuak ere eramane zituzten espainiarra Britainiar Kuakeroak £87.314ko balioa mugitu zuten Gerra Zibil garaian.

Bi aldeetan lan egin zuen GRF neutralistatzat ez kontsideratzearen arrazoi nagusiak bi izango dira. Alde batetik, batzordeko partaideak nortzuk diren ikustea besterik ez dago. Beatriz de Orleans aristokrata Espainiarrak sortua izan zen eta diru eta errekurtsu gehiago bidali zituen Espainia nazionalera. Hala ere, funts honek autoritate nazionalekin izan zituen bere arazoak. Henry Robinson 1937ko urtarrilean Irunen sartzea eragotzi zioten²⁹⁹.

Bishop's Committee for Distressed Women and Children izan zen finantzatzeko zuen batzordeetako bat. 1936ko urrian osatuko zen hurrengo helburuarekin: *The object of the Committee is to co-ordinate and extend the efforts now being made to assist the sick, wounded, refugees and children*. Hasiera batean honela osatuko zen³⁰⁰:

- Presidente. Hinsley artzapezpikua
- Presidente Orokorra:
- Lehendakaria: Mr. A. Pollen
- Ohorezko diru-zain: Martin Melvin,
- Ohorezko-Idazkaria: Marques del Moral
- Kontseilariak: Lord Fitzalan, Sir Cecil Pereira
- Bokalak: Lady Armstrong ; Rev. Dr. Grimley, D.D. ; Miss Gabriel Herbert ; Lady Howard of Penrith ; Mr. E. Vernor Miles ; The Marquesa del Moral ; W. J. O'Donovan, M.D. ; and Richard O'Sullivan

1938ko maiatzean aldaketa txiki bat emango zen batzordean. Pollenen heriotzaren ostean, lehendakari bilakatuko zen Cecil Pereira eta John Henry Hope izango zen lehendakari-orde. Richard O'Sullivanek utziko zuen exekutiboa eta hurrengo hauek sartuko ziren: Madame de

²⁹⁷ Petrus (2011), 127-9

²⁹⁸ *Ibid.* 40

²⁹⁹ Keene, (2001), 61-96-270-3 *non-sectarian* deitzen dio hala ere

³⁰⁰ *The Tablet* (1936-10-03)

Albeniz, Bower komandantea, Chambers. Mosingnor Elwes, Audrey Herbert eta Raphael Jackson militarra eta James Walsh³⁰¹.

Gabriela Herbert anderea izango da 38 *Eccleston Squarren* kokatuko den erakundearen ordezkaria Espainian³⁰². Batzordeak bildutako diruarekin osasungintza zerbitzu bat jarriko zuen martxan Espainiako Iparraldean: *Anglo-Spanish Medical Service*. Osoki pertsonal espainiarrez osatuta, Inazio Urbina doktoreak zuzendu zuen. Ezarriko zen lehen zerbitzua Samaniegon, Araban izan zen. Frontearen arabera mugitu zen zerbitzua. Unitateaz gain, oheak, kamioiak, arropak, osasun-zuzkidurak... eramango zituzten Espainiara. Aldizkari katolikoek bildutakoarekin finantzatzen zen. *Catholic Times* eta *The Universen* bakarrik £14.000 bilduko dituzte. 1937ko uztaileko, *Entrega de la octava ambulancia por los Católicos ingleses a la esposa del general Franco*³⁰³.

Egitasmo hauetatik haratago, nazionalisten alde dirua bildu zuten beste erakundeak ez ziren arrakastatsua izan. Ezerezean geratu ziren saiakeren artean dugu, *The Spanish Relief Fund for Sufferers from Red Atrocities*. *Cavendish Squaren* kokatzen zen elkartearen asmoak jakinda, FOek ez zion batzordeko diru-zainari, Edward Bellinghami, baimena eman laguntza Espainiara bidaltzeko eta disolbatu egin zela dirudi³⁰⁴.

Argi eta garbi, Errepublikaren aldeko elkarteak, nazionalen aldekoak baino askoz ere hobeto eta azkarrago antolatu ziren. Diru-bilketak hobeto egin zituzten, hala osatutako erakundeak askoz ere kontsistentzia gehiago eskuratuz.

Nazionalen alde laguntza humanitarioarekin lotu daiteken beste erakunde bat da *The Spanish Children Repatriation Committee*. 1937ko urria hasieran eratu zen, Albako dukea eta Hinsley artzapezpikuak bultzatuta. 1937ko maiatzean Erresuma Batura eramandako haurrak aberriratzeari zuzen helburu. Hurrengo hauek osatuko dute komitea³⁰⁵:

- Lehendakari: Wellington dukea (Chairman)
- Lehendakari-ordea: Sir Arnold Wilson (deputy Chairman)
- Idazkari: Arthur Loveday.
- The Marchioness of Londonberry
- Castlereagh bizkontea
- Naine Stewart Sandeman
- Douglas Jerrold
- Canon Craven (Westminsterreko artzapezpikuaren ordezkaria)
- Fitz Alan bizkondea (Westminsterreko artzapezpikuaren ordezkaria)

Aberriratzea bultzatzeko, FOri presio egin eta iritzi publikoa bereganatzen saiatu ziren. Horretarako, aldizkari katolikoak eta prentsarako gutunak erabiliko zituzten. Aldizkari katolikoetan umeak beraien herrian gurasoekin hezteko beharra bezalako argumentuekin, sekulako isekak nahastuko dira. *Catholic Timesen* terrorista gorriak izatetik, ume zoroak, *stooges*, izatera pasa ziren euskal umeak. Arthur Lovedayk, batzordeko idazkariak ehundaka gutun idatziko zituen kausaren alde propaganda eginez. Gehienbat prentsa probintzian

³⁰¹ *The Catholic Herald* (1937-02-05) AGA 54/6701 Jose Villaverdek Iruneko comandante Militarrari (1938ko maiatza)

³⁰² Catholic Truth Societyk utziko dizkio ofizinak *The Catholic Herald* (1937-04-16)

³⁰³ Keene (2001), 264-8; CDMH- INCOPORADOS 1484 DELESROK ALBARI (1937-07-24)

³⁰⁴ Alpert, (1984), 428 *noble, chivalrous, tradition-loving Spaniards ... [against] ... the unbridled rabble, whipped up by Moscow ... by the officially-countenanced prospect of wholesale murder, desecration, loot and rapine*

³⁰⁵ CDBG FO 371/ W 18763

argumentuak plazaratu eta ateratzen ziren informaziook. 149, Picadillyn zituen ofizinak. Batzordeko gastuak Burgosek zuzenki finantzatzen zituen³⁰⁶.

Aberriratzten batzordean ikusten diren izen ugari, nazionalek erabili zuten elkarte politikoenaren kideen artean ere ikus daitezke: *Friends of National Spain*. 1937ko maiatzerako erabat operatiboz zegoen elkarte, 1937ko martxoan jaio zen. Sortu eta berehala arriskuan izan zen. Bilboko blokeoaren baitan Moraleko markesak Erregearen kontseilu pribatuan zegoen Lord Howard of Penrithi igorritako gutun bat kopia zuen *Daily Workerrek*. Bertan Penrithi eskatzen zion Bilbon sartzeko ari ziren ontzien aurkako kanpaina bat egiteko³⁰⁷. Ondorioz, elkartearen aktibitatea isilpean eramango zen urte bukaera arte eta 1938an zehar saiatuko ziren ekintza publikoak gauzatzeko. Hurrengo hau zen hasierako komite exekutiboa:

- Lehendakaria: Lord Philipmore
- Ohorezko-Idazkaria: Lawrence Venn
- Bokalak: Brig. Gen. Sirn Henry Page-croft, Captain Victor Cazalet, Douglas Jerrold, AF Loveday, Marquis del Moral

Elkarte ofizialki 1937ko urrian jaio eta 1938ko martxoaren 22an emango da ezagutzera. Hasieran nahiko arrakasta izan baduzuen ere, ez zuen lortuko masako erakunde bat bilakatzea. Bere partzialitateak ez zuen britainiar gizartean funtzionatuko. Hala ere, paper garrantzitsua jokatu zuen lobby bezala, batik batik, Kabinete eta kontserbadoreen artean³⁰⁸. Ingalaterrako taldeaz gain, eskozian ere ezarri zen sekzioa bat eta baita Kanadan ere 1938an. Behin Gerra Zibila bukatuta, *Friends of Spain* izena hartu eta luze biziko da. Esaterako, 1950, erakunde honen errautsetatik eskoziako sekzioa izen berri batekin jaioko da *The Scottish Society of Friendship with the Peoples of Spain*. Segidan Ingalaterrako sekzioa, Alexander Rodger, ex-ministro ohiaren, gidaritzapean *Anglo-Spanish League of Friendship* bilakatuko delarik³⁰⁹.

1937ko uztailaren 23an Henry Llunek proposatu zuen *United Christian Front* osatzeko. Espainiako jazarpena aitzakia hartuz, baina, batez ere, etor zitezkeen pertsekuzio erlijiosoei aurre egiteko batasunera deia luzatzen zuen kristauen artean. Metodistaren deiari positiboki erantzun zion Hinsley artzapezpikuak, Pio XI. *Divini Redemptoris*-en oinarrituz, totalitarismoei batera egin behar zieten aurre. Batzen ziena, bien arteko distantziak baino askoz handiagoa baitzen. Egiatan, Ingalaterrako eliza anglikanoak Espainiarekiko hartutako jarrera kritikatzeko sortzen zen organismoa da.

Henry Llunen deiari erantzunez, 1937ko irailean Archibal Ramsayek hartu zuen batzordearen lehendakaritza eta hurrengo hauek osatu zuten komite exekutiboa. The Earl of Dalhousie, Lord Ruthven, Lord Philipmore, Bishop Brechim, Bishop of Glasgow and Galloway, Sird Donald Camero of Lochiel, Sir Archibal Hurlid, Hnery Lunn, Rev. Cyril Aligton, JB Atkins, Canon

³⁰⁶ *Catholic Times* (1938-04-29). AGA 54/7246 1938ko uztailetik abendura bakarrik ehun gutun bidaliko ditu, gehienbat prentsa probintzian. Erdiak argitaratuko dizkiete. Douglad Jerroldek Lovedayri (1937-12-16) Jerrolden ustez, batzordea *advisory body* bat da. Aberriratzearen erresposabilitatea NJC erortzen da eta hala ulertzen dute Burgosetik. Ondorioz, dirua biltzetik salbuetsita egon beharko lirakeke. Eta Burgostik ordaindu beharko lukete elkartearen idazkaritza.

³⁰⁷ AGA 54/6803 Marques del moral txostena (1937ko uztaila). Erakundeko partaideen zerrendak dauden kaja berean. AGA 54/6700 Albak Francori (1937-07-19) Garcia (2009), 57; AGA 54/6803 Friends of Spaineko idazkariak Villaverderi (1939-09-27) elkartearen batzorde berriaren berri ematen dio: Philipmoren, Moral, Jerrold, Loveday JF Crowley, Don Carlos Gonsales Gordon, James komandantea, Alfred Knos, Lord Rankeillour, J. Sandeman-Allen, Nairne Stewart-Sandeman, Alfred Wright.

³⁰⁸ Egitasmoaren genesian Moralgo Markesak izan zuen papera azpimarratu berri du: Ramsaey, (2021) Lord Halisham ministroa erakundeko kide bilakatuko da 1939an.

³⁰⁹ Molas (2020), 10-11

Douglas, Rev, Dr.Hall, Rev. Benhamin Gregory, Rev Canon Mozley, Rev. Dr. Rattenbury, Angus Watson, Athlesen Riley Esq., Rev Canon, NP Williams, Rev D. Workman³¹⁰.

Sortu eta bi hilabete eskasera komite barnetik bertatik kexaka hasiko ziren. Angus Watsonek mugimenduaren izaera alderdikoia kritikatu eta utzi egin zuen. Dimisio horri hainbat anglikanoren gaitzespenak jarraitu zioten. M.E. Aubrey, Sidney Berry, S.C. Carpenter, Henry Carter, A.S. Duncan-Jones, William Ebor, H.E. Hickam Jognson, Edarw Lichfield, A.D. Lindsay, W.R. Matthews, Walter J. noble, E- Benson Perkins, Geoffrey Ripon, J.H. Rushbrooke, J. Scott Lidgett, Donald O. Siper, Henry Soutwell, William Upright. Erakundearen alde eta kontra erabilitako argudiaketak Espainiaren inguruan zegoen desinformazioaren seinale argia ziren. Katolikoek zioten, Espainia nazionalen protestanteek ez zutela meza emateko arazorik eta protestanteek erantzuten zieten apaizek eremu errepublikarrean elizkizun ugari ematen zituztela³¹¹.

Erakunde eta batzordeekin bukatzeko, *The Loyal Friends and Chritisan Spain* aipatuko dugu. Nahiko ezezaguna den erakunde honek Brightoneko hondartzatik Espainia nazionalaren interesak defendatzen zituen erakunde txiki bat zela diotsa Jose Villaverdek Sans Agerori. Brightoneko 3, Lewes Crescent eskusiboan helbidea zuen organismoa integratzen zutenak, ez dira horren ezezagunak. Ia denak ikus ditzakegu goian aipatutako erakunde batean edo bestean: Regidor, Regidor anderea, Castlereagh bizkondea, Victor Cazalet, Canon Craven apaiza, Fitzalan bizkondea, Douglas Jerrold, Arthur Loveday, J.R.J. Macnamara, E. Vernor Miles, Sir Nairne Stewart, Wellingtoneko Dukea, Sir Arnold Wilson, Londonberry markesa³¹². Ez dakigu bere egiteari buruz ezer gehiago.

Bai Errepublikarren eta nazionalen aldeko zein neutralak ziren erakundeetan gauza bat nabari daiteke. Behin eta berriro izenak errepikatzen direla. Gehienetan, entzute handiko pertsonak dira, eta ziurrenik diru-bilketak eskuratzeko hartzen zituzten ohorezko eta zuzendaritzako postuak. Are gehiago, postu hauek hartzerakoan, konpromezu handia erakusten zuten alderdi baten edo bestearen alde. Erresuma Batuko kultura politikoan arriskua izan zatekeen halako argi lerratzeak, hasiera batean behintzat, Britainiarra ez zen kanpo arazo batean³¹³.

4. LONDONEKO EUSKAL DELEGARITZA

Dagoeneko xehetu dugu Jose Inazio Lizasoren biografia, eta bertan argi eta garbi ikusi den moduan berau izan zen Londoneko Euskal Gobernuaren ordezkartzaren buru 1936 azken egunetatik 1947 erdialde arte. Atal hartan baina, ez gara horrenbeste zentratu Euskal Gobernuaren lehendakaritzaren ordezkartzak aurrera eramandako politketan. Horixe izango da atal honen helburu nagusia.

1936 eta 1937 urteen arteko bueltan hasiko da forma hartzen Londoneko delegaritza. Hasieran, eta 1938ko urri arte, Londoneko Espainiar enbaxadan kokatua; 1938ko irail aldera, 19, Ecclestone Squaren pasako da, aharik eta 1940ko udan 7 Hobart Place, Eaton Squarren bukatu arte.

Hasieran, Lizaso izango da Londonen Euskal Gobernuaren funtzionario bakarra, baina *Cityan* egiteko zegoen lan karga handia eta bertako politikak gerraren geroan zuen garrantziaz jakitun,

³¹⁰ *The times* (1937-07-23) (1937-07-26) (1937-09-20)

³¹¹ *The Times* (1937-11-22) (1937-11-29); Tusell, (1997), 260-1

³¹² AGA 54/6701 Villaverdek Sans Agerori (1938-01-28)

³¹³ Ez du esan nahi kalkulu elektoralak egiten ez zituztela. Adibidez, Atholleko dukesak bere kanpainan garrantzia eman zion Kanpo Arazoei, nahiz eta kalkuluak ez zituen ondo egin: Ball. (1990), 77-78; Badirudi tokiko liberalekin ika-mikak izan zituela Pugh (2006), 1344-5

1937ko apirileko blokeoaren ostean, 1937ko ekainaren 1an Angel Gondra ordezkari izendatuko dute. £40 soldata izango duelarik. Gondra urtez luzez arituko da delegaritzan lanean eta Lizasok delegaritzan usterakoan bilakatuko da ordezkari nagusi 1953-4 arte³¹⁴. 1938ko martxo eta abuztuaren bitartean Ramon Sota MacMahonek ere egingo du lan euskal ordezkarietan. Sota 1937ko urtarriletik zegoen London eta Biarritz artean eta orduan kolaboratuko du beraiekin. Gondrak Sotaren designazio ofiziala eskatuko du 1938ko urtarrilean³¹⁵ eta hilabetera izango dira batera lanean. Sotak Londoneko *Euzko-Deya* editatu eta propagandaren inguruko gaiak hartuko ditu bere gain: euskal liburuen edizioa edota prentsa deklarazioak prestatzeaz arduratu arren, ezin izango da Espainiar enbaxadan lanean aritu. Pablo Azcaratek, Antonio Ramon Oliveiraren iritzia jarraituz, iheslaritzat zuten Getxotar gaztea. Horregatik, *Mid-Atlantic* eta E.M. Wright publizitate agentziako ofizinetan egingo du lana eta *Mid-Atlantic* enpresatik £35 soldata jasoko duelarik. Abuztuan New Yorkera abiatuko da bertako ordezkarietan idazkari lanak egiteko³¹⁶.

1938ko irailean, Espainiar enbaxada uzterakoan, aurretik ez zituzten behar berriak sortuko dira. Telefono, korreo eta garbiketa gastuak azaldu eta takimekanografista baten beharra ere izango dute. Aurora Unzueta bidaliko du Euskal Gobernuak. 1938ko urritik 1939ko otsail arte £13 besterik ez dizkiote ordainduko eta orduan aurrera Lizasoren kexa baten ostean £18 igoko diote soldata. Behin gerra bukatuta, 1940rako frankisten inteligentzia zerbitzuen txosten bati eskerrak badakigu Maria Iruzquieta eta Josefa Jaureguizar lanean dabilzala. Jaureguizar garbitzailea zen eta £2 ordaintzen zitzaizkion 1939ko maiatzetik aurrera³¹⁷. Bigarren Mundu Gerran Clark andereak Gondrari lagunduko dio idazkari lanetan.

Hasierako ofizinarik gabeko delegatu bakarti bat izatetik, sasi-enbaxada bat izateraino heldu ziren Gerra Zibil garaian. Lortutako kontaktuek, eta 1937ko uztailetik aurrera lurralderik *de facto* kontrolatzen ez zutela kontuan, egindako lana laudagarria da, nahiz eta hasieran pentsatutako helburuak ez ziren osorik bete. Egia da, *toryen* artean prestigio handia eskuratu zuela, gehienbat Munichko paktuaren ostean, baina laguntza hau erabat informala izan zen eta instrumentalizatzerako orduan ez zuen dimentsio humanitario erabat gainditu. Joko diplomatikoan kontaktu garrantzitsuak izan baziren ere, ez ziren oso efektibo suertatu. Beste jomuga garrantzitsu bat izan zen zirkulu katolikoak bereganatzea. Hain agerikoa izan zen hierarkiaren etsaitasuna, ezen gerturatzeko egindako saiakerak euskaldunen aurka bumeran baten antzera kontrari bueltan etorri ziren.

Delegaritzak egindako lana aurrera eramateko aurrekontu bat izan zuen. Dirua ez zegoen soberan eta abiatu bezain pronto sekulako arazo eta eztabaidak izango dituzte honen inguruan. Hasteko soldata baxua dela irudituko zaizkio Lizasori eta asko kexatuko da honen harira³¹⁸. Ondorioz, errepresentazio gastuak izatea eskuratuko du, horiek hileroko £3 eta £12 tarteko gastua

³¹⁴ EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:75 L:17/01

³¹⁵ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Paris. Se:Secretaria. V:50 L:332/01 Sotak Picaveari (1937-1-11) Catholic Herald lan egindakoa zenez Merry del Valen gutun bat erantzuteko prest aegrtzen da; SAF-DP-206-11: Gondrak Zarrabeitiari (1938-01-29) Marinok *Mid-Atlanticen* lan egitea eskaintzen dio. Harentzat 12 urte egin zituen lan gerra aurretik. Halere, Lehendakari eta Axuriagerrari egindako zina eta bera nacionalista izanda ezin du delegaritzan utzi inoiz baino lan gehiago dagoenean.

³¹⁶ Anasagasti *et al.* (2019), 114-115

³¹⁷ AGA 82/6490 Londoneko Espainiar Enbaxadatik Juan Beigbeder Espainiako Atzerri ministroa (1940-07-05) *En el número 14 de Eccleston Square, S.W. 1, existe otra oficina roja, conocida por Basque Delegation, El supuesto delegado es Jose Lizaso, que tiene un secretario llamado Angel Gondra y dos sirvientas llamadas Maria Iruzquieta y Josefa Jaureguizar*; Mundakarrak dira biak, ama alabak, Maria (1891-1974), Josefa (1917-2001) eta Maria Concepcion Jaureguizar (Concharekin) batera exilioan egon ziren hiruak Britania Handian. Amak Venezuelara alde egin zuen.

³¹⁸ SAF-DP-206-11 Lizasok Zarrabeitiari (1937-11-24) £431 azaroko gastuak; Ibid. (1937-12-02) 1938ko urtarrilean £102 Wrightez gain fijo jasoko ditu; Ibid. (1938-01-28) emazte eta familia Londonen dituela soldata igotzeko eskaria.

suposatuko dutelarik. Gainera, oso aldakorra izango da hilabeteko gastua. Gondra etortzean, eta gero Aurora, hilabeteko soldatak £90-110 inguruan mugituko dira. Delegazioaren bidez ordainduko ditu kultura departamentuak euskal umeen maistren eta apaizen hilabeterako soldata gastuak, £89, nahiz eta hauek ezin diren aurrekontu barruan konputatu. Propagandan xahutuko da diru gehien, 1937 apiriletik 1938ko irail arte £317 ordainduko zaizkio Wright Agentziari eta urritik, 1939 abuztu arte £500. Horrez gain, kulturatik eta lehendakaritzatik ordainduko dira aparteko itzulpen eta inprimakien gastuak. Hilabeteko gastuari prentsako harpidetza eta ordezkartzaren eguneroko lana ahalbidetzeko gastuak gehitu beharko zaizkio (eta behin espainiar enbaxada utzita telefonoa eta telegrafoa gastuak)³¹⁹. Bataz beste, 1937ko ekainetik hurrengo urteko urri arte, £440 inguruan mugituko da hileroko gastua. Ondoren, propaganda gastuak gora egiten dutelako, eta hiru hilabetero errenta ordaindu behar delako (£35/hilabetea) £650 inguruan kokatuko da. Baina esan bezala oso aldakorra izango da.

Ikus daitekenez fase ezberdinak nabari daitezke aurrekontuetan, eta marko politikoarekin bat datoz fase horiek. Ondorioz, faseka aztertuko dugu delegaritzaren egite politikoa. Lehendabizi, ordezkartzaren ezarri aurretik egindako bidaia aztertuko dugu, ondoren, ordezkartzaren lehen fasea, 1937ko lehen erdialde arte. Bigarren fasea, FO eta Wright agentziarekin harremanetan jartzean hasiko da. Hirugarren fase bat nabari daiteke, 1937 bukaera eta 1938. urtean zehar. Hau izango da kontaktu politiko handieneko momentua. Azkenik, 1939tik gerra bukaera arte, ahalik eta jazarpen gutxienarekin eta akordio bidez gerra finitzen saiatuko dira ordezkartzatik.

Denbora honetan zehar delegaritzak kontaktu sare ederra osatuko du Erresuma Batuan. FOeko funtzionario eta diplomatikoez gain, parlamentari, kazetari eta politikarien artean ere saretuko dute lobby talde bat. Gehienbat mundu kontserbadore eta katolikoan muturra sartzea nahi zuten. Uste zuten, laborista eta liberalak ez bezala, horiek zirela euskaldunen eskaerak hobekien ulertuko zituztenak.

Euskal Gobernuaren benetako asmoa nazioarteko potentziek babestuta bake-paktu batera heltzea zen bitartean, Britainiar gobernuak euskal nazionalistak mundu Errepublikarrarengan bake eta trukaketa negoziaketak errazteko erabiliko dituzte. Negoziaketa horietan potentzia handiek (Britainiar eta Frantziak) beraien interesak defendatzea espero zuten, horregatik bi aldeak ahalik eta ahituena heltzea interesatzen zitzairen. 1938 bukaera eta 1939 hasieran, batik bat, otsailetik aurrera, antzeko ildoak jarraituko du. Halere, azken fasean nazioarteko bitartekartzak gutxieneko irtenbide duin bat bilatzera mugatuko da: populazioaren jazarpena gutxitzea.

Lehen prospekzioak: Jose Luis Cortina eta Jose Inazio Lizasoren txostena³²⁰

Estatu Kolpeak eztanda egiterakoan, lurraldeka EAJk erantzun ezberdinak izan zituen. Hasiera batean ordena publikoa bermatzera besterik ez zen mugatu Bizkaian eta Gipuzkoan. Araban inongo parte hartzetik abstenitu eta Nafarroan altxamenduaren aldeko manifestua idatziko zuten. Altxamenduak gerra konbentzional bateranzko bidea hartu zuenean armen beharrak kanporantz begiratu beharra ekarri zion. Zoritxarrez, bere aliatu nagusiak izan zitezkeen Ingalaterra eta, batik bat, Frantziak armak saltzeari uko egitean benetako *handicapa* ezarri ziolarik. Besteak beste, Irun, Hendaian zeuden, munizio faltagatik galdu, eta hargatik Donostia eta Gipuzkoa ia osoa abandonatu zuten. Tesitura horretan, BBBk hainbat delegatu bidali zituen nazioartera arma bila. Halako bidaien gehiengoa gerraren hornikuntzarako beharrezko materialen erosteko egin ziren, baina bestelako proposamen bat luzatu zioten Jose Inazio Lizaso

³¹⁹ EAH.EG.OD. S.Contabilidad. Se:Cuentas. L:638/01 eta 647/05 bitartean ikusi.

³²⁰ SAF-BBB-281 Lizasok eta Kortinak egindako txostena

eta Jose Luis Cortinak Axuriagerrari. Irlanda eta Londona bidaiatuz bertako iritzia ezagutu eta kontaktu ezberdinak egiteko hain zuzen ere. Bidaia horretan jasotako informazio guztia urriaren 29an idatzitako txosten batean bildu zuen Lizasok.

Bi aberkideak Parisen Telesforo Monzonekin bildu ostean abiatu ziren Londonera urri hasieran. 15-20 egunetan lehendabizi Londonen eta gero Irlandan prentsaren joerak aztertuz eta pertsonaia ezberdinekin bilduz osatu zuten idatzia. Bidaian jasotako inpresioez beteko du eskribua. Erresuma Batuko prentsaren analisi batekin hasiko da. Agerkari nazional nagusiak zerrendatuz eta duten tirada eta norabide politikoa azalduz. Orokorrean, altxatuen aldeko iritzia nabari da prentsan, ziurrenik nazionalen agenteen egindako jardunari eskerrak. Errekurtsuetan erreparatu gabe, Londoneko Hotel onenean ezarrita, Dorchesterren, Burgosekin etengabeko harremana mantenduz, kazetari eta politikoen zirkuluei informazio etengabea eskaintzeko enbaxada beltz bat ireki dute. Hala prentsan anarkistek burututako erlijiosoen hilketak aipatzeaz gain, gobernu legitimoaren izena eta *The Reds* sinonimo bilakatzea lortuz. Komunismoaren mamua beste bandoaren izenean irudikatzeak sekulako garrantzia propagandistikoa izango du. Errepublikarren izena boltxebismoarekin lotuz, zirkulu kontserbadore eta kristauen antsietatea puztea eskuratu baitzuten. Azken aldian baina aldaketa bat nabari du egunkarietan. Italiar eta germaniar interbentzioak Espainian faxistizazio prozesu bat eragiten dabilela nabaritzen hasi eta totalitarismoak begi onez ikusten ez direnez, oposizio liberal-laboristak Errepublikarren alde jartzen hasi baita.

Prensa aztertuta ondotik, Lizaso eta Cortinak egindako jarduera deskribatzen da. Robert N. Hawesen laguntzaz prentsan kokatzen saiatuko diren zazpi bat artikulu idatzi dituzte³²¹. Idatzitako tituluak argi adierazten dute artikuluon helburu kontrapropagandistikoa, *Why call a legitimate government Red?* Hawesen garrantzia handia duen pertsona da, euskaldunek kontratatuko duten E.M. Wright agentziako langile izango baita, eta ziurrenik hark jarriko ditu harremanetan. Idazkiez gain, pertsonaia garrantzitsuekin kontaktuak izateko aukerak aipatzen ditu. Jarraibiderik ezean biltzea ez zuen egoki ikusi. Dena dela, Samuel Hoare *First Lord of the Admiralty*, eta lider liberal eta laboristekin biltzea posible izango zutela nabarmentzen du.

Ondoren, Irlandari buruz hitz egiten du txostenean. Laguntza handia espero du handik. Euzkadiren independentziaren alde egiteko prest besterik ez dira aurkitzen. Gobernuko aldeko *Irish Republican Army* eta *Fiana Faileko* nagusiko buruekin bildu eta laguntza eskaini omen diote. Are gehiago, *amigos de euzkadi* batzorde bat bilduko omen da urrian eta Cortinak hainbat bilera izango ditu Gobernuko funtzionario batzuekin³²².

Txostena iradokizun eta orientazio ezberdinekin bukatzen du. Euskal Gobernuak bere sorrera eta jarduna mundura zabaltzeko beharraz dihardu: kanpoko enbaxada, ofizina komertzial eta bestelako erakundeek betebeharrak hori bete behar dutelarik. Ez baldin badago dirudik. Gutxienez ordezkari bat jarri beharko litzateke eta egoitza gisa Espainiako enbaxadak erabili. Euskal partikulartasunaren ideia zabaldu nahi bada beharrezkoa da agenteak izatea munduan zehar. Mundu diplomatikoaren inguruan ordezkariak izateak bestela ezinezkoa den bide berri bat irekitzen du: kantzilerietarako sarrera.

Dagoeneko ikusi dugun bezala, Lizasok urrian idazten du txosten hau eta denbora luzez erantzunik gabe izango da. Azkenean, Iruixoren bidez azaroan Agirre abisatu eta Bilbora deituko

³²¹ Euzko-Deya. Paris (193)

³²² SAF BBB-281-1 Lizasok Iralari (d.g.) *Cortina marchó el jueves a Irlanda. Me escribe hoy que ha tenido conversaciones muy interesantes con el Secretari del primer ministro de De Valera y con la secretaria del ministro de Hacienda. Se proponen constituir un Comité especial de amigos de Euskadi. Muy interesante*

du abendurako. Iruxok txostenaren garrantzia azpimarratzen du: *El asunto tiene toda la transcendencia de una revolución a fondo en la táctica a seguir y en las ulteriores posibilidades. Sera imperdonable el que no hagáis caso de esa propuesta halagadora y magnífica.* Gehien interesatzen zaiena Irlandak eskaini dezaken laguntza da. *Me remito al rapport Lizaso y a la información Ajuriaguerra. Mi voto es el de que admitáis cuantos sea posible de esos señores fogueados, valientes, buena raza, nos daría distinto carácter militar.* Zoritxarrez, inoiz eskuratuko ez den zerbait³²³.

Delegaritzaren sorreratik 1937ko apiril arte.

Bilbon jaurlaritzaren izenean abendurako ordezkari izendatuta eta Britainiarrek Folkestonen sartzen usteko arazoak izan ostean, helduko zen Londonera urte bukaerarako Lizaso. Pablo Azcarate enbaxadoreari eskerrak egin zien iskin mugako arazoei eta enbaxadoreak lagunduta, FOaren aurrean Espainiako enbaxadako agregatu bezala ekin zion bere abenturari. Betiere, ofizialki propaganda Erresuma Batuan ez egiteko promesarekin.

Heldu zenean ez zen inor. Apenas zuen kontakturik. Aldiz, ideia eta gogoz beteta zegoen. Euskal lurraldeetako esperientziak kontatuz Britainiarren iritzia aldatzeko esperantzaz josita bertaratu zen *Cityan*. Lehendabiziko hilabeteak, bere burua kazetari eta politika zirkuluetan ezagutarazteko erabili zituen. Hartara, agentzia informatibo eta prentsako munduko pertsona askorekin bilduz. kontaktu guzti hauek egiterakoan enbaxadore eta prentsa agregatu espainiarrak asko lagunduko zion. 1937ko otsailean txosten baten arabera: *tengo [Lizaso] la satisfacción de hacer constar que he logrado canjearme la confianza y amistad personal del Sr. Azcarate y del resto de las personas de la Embajada, donde desde luego no he perdido jamás mi independencia*³²⁴. Hasieran kolaborazioa eta laguntasuna nagusitu zen espainiar enbaxadako buruekin, baina zituzten agenda ezberdinek harremanak gaiztotuko zituen. 1938 erdialderako gauzak asko aldatuko dira.

Prentsarekin eguneroko harremana izanaz Euskal lurraldeetan gertatzen zena ezagutaraziz informazio iturri nagusia bilakatu eta pixkanaka Euzkadiko berezitasuna prentsa nabarmenduko zen esperantza zuen. Zoritxarrez, Mendigurenen departamentuak zituen mugaketan ondorioz, harekin harreman zuzenik lortzea ezinezko izan eta bere egitasmoa bertan behera ustea eragin zion. Zuen beharrea, derrigor Baiona edo Paris bidez komunikatu behar zuen eta horrek atzeratzen zuen guztia³²⁵:

Lizaso comunica que prensa Londres no admite información más tarde nueve noches (...) Opina que resultara costoso contratar operador telegrafista y adquirir receptor solo para esto. Sera preferible dar desde Bilbao a Paris alrededor cinco tardes información especial para Londres que Paris dará a Lizaso por teléfono. Dicen también necesita unas tres horas para preparar información inglés y repartir a la prensa. Solamente caso información muy importante podrá interesar prensa después nueve (...) en tales casos vía cable directo o vía Delegación Paris. Conferencias telefónicas con Londres nada costaran pagada Embajada Londres.

Hortaz, notizia freskoen faltan du, proiektua ezin izan zuen gauzatu, hau da, agentzia informatibo antzeko bat sortu. Halere, eskuratutako informazioaz artikulatu eta gutun ezberdinak idatziko ditu altxatuen propagandari kontrari egiteko. Kazetariekin izandako kontaktuekin batera, Agirrek agindu zion moduan, ahalik eta kazetari gehien bidaliko ditu Bizkaira, George Steer esaterako. Orutezabalari bidalitako gutun batean honela dio: *gusto de presentar a Steer del*

³²³ EAH.GE.LD.S:Secretaria General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaria V:100 L:23/04 Iruxok Agirreri (1936-11-1 eta 11).

³²⁴ SAF-DP-1184-08 Raport que presenta el delegado de Londres (1937-02-11)

³²⁵ EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01

The Times que ya anteriormente visito Euzkadi en compañía de Malaterre-Sellier y que se propone volver a Bilbo para proceder más tarde a Asturias. Halako bisitekin egiten zuen bezala, Air Pyrenneseko Tolosa-Bilbo zerbitzuan sartzeko eskaera luzatzen du. Antzeko izapideak abiaraziko ditu Euskal lurraldeak bisitatu ditzakeen pertsonaia interesgarri guztiekin. Besteak beste, 1937ko otsailean Henri Britonek zuzendutako espedizio erlijioso edota Canterburyko apaizaren batzordeko kideak. Leah Manning eta Edith Pye ere gomendatuko zituen³²⁶.

Politikarien zirkuluei dagokionez, arazo gehiago izan zituen Lizasok. Enbaxadako agregatua zenez, ezin zuen errezepzio ofizialetan parte hartu. Zailtasunak zailtasun, saretxo bat ehuntzen hasiko da. 1937ko otsailean Frantziar enbaxadako lehen idazkariarekin, M. Marquis de Castellanneren, Frantzia Ez interbentzioko komiteko ordezkariarekin, lagun egin zen.

Bestelako praktika ere gauzatu beharko ditu. Eskatzen dizkieten liburu eta materiala erosi, mezuak banatu, aktualitate politikoaz informatu eta praktika kontsularrak ere egiten hasiko da. Batik bat, gaixorik eta Bilbora itzuli nahi duten Sota eta Aznar etxeko langileei lagunduko die. Hainbeste izango dira, ezen, Oruetazabala Lizasori kexatu egingo zaio etxe honen jokabidea dela eta. Sota-Aznarrek langileak Euzkadira ia diru gabe bidaltzen ditu; baina gerra dela eta Baionan edo bestelako tokietan denbora bat pasa behar dutenez, ezin dira beraien kabuz mantendu eta Baionako ordezkari etxe hari zuzendu behar zaio, horrek suposatzen duen denbora galtzarekin, Baionako Sota-Aznarreko ordezkari den Celhay jaunak artatu ditzan³²⁷.

Aitzina aipatu bezala, lehen aldi honetan, kontaktuak egiten hasiko da Lizaso; pixkanaka zirkulu ezberdineko jende esanguratsua ezagutzen. Gainera, 1937ko martxo bukaeran Mola jeneralak Bizkaiaren aurka hasitako ofentsibarekin Euskal lurraldeak aktualitate informatiboaren erdian jartzean, euskaldunekiko interesak esponentzialki egingo du gora. Ofentsiba horren testuinguruan emango diren bonbardaketa eta Bilboko blokeoak sortutako sumindura erabiliko ditu, lehendabizi oposizioarekin (TUC eta Labour eta Liberal Party) eta baita gobernuarekin, FOaren bidez kontaktuak egiteko. Kasualitatez, (edo ez horrenbeste) 1937ko apirilera, politika eta kazetaritzako munduan harremanak errazten lagunduko dien, Wright agentzia kontratatuko du ordezkari etxe euskaldunak.

Bizkaiko ofentsibatik- Santoñako paktura

1937ko apirilean, euskaldunekiko atentzioa estuki jarraitu zuten zirkulu diplomatikoek. Bizkaiko erasoaren baitan, zinetan Chiltonek Edeni dioen lez, *Fighting is of a most intense and stubborn nature, the Basques fighting for their very existence*³²⁸ emango ziren Durango eta Gernikako bonbardaketak eta bien artean, Bilboko blokeoaren inguruan izan zen auziak, Britainiar iritziaren gaurkotasunaren erdi-erdian lekutu zuen euskal auzia. Wrighteko kontratua sinatu berri, apiril erdialdean Lizaso bueltan zen Bilbon. Lehendakaria eta Mendigureneik bilduko zen Londonen aurrera eraman behar zuenaren propagandari buruzko jarraibideak jasotzeko.

Fronte ezberdinetan arituko zen Lizaso. Jasotako jarraibideekin Bilboko blokeo gezurtatu eta lehen ontziak sartzean helduko da Ingalaterrara. Dimentsio propagandistikoari dagokionez, lan honetan zehar beste ataletan ikus daiteke egindako lana. Beraz, dimentsio diplomatikoan

³²⁶ *Ibid.* Lizasok Oruetazabalari (1937-03-22) Steer tuvo la desgracia de perder a su esposa durante su primer viaje a Euzkadi y se proponer estar varios días en Biarritz para proceder a dar sepultura (...) posible que se persone en esas oficinas; Britonen espedizioa ez zen Euskal lurraldeetra joan.

³²⁷ EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01 Oruetazabalak Lizasori (1937-05-03)

³²⁸ CBDG Kew I FO 371/ 212289 W 7016 Chiltonek Edeni (1937-04-10)

zentratuko gara zati honetan. Francok Bilboren gainean ezarritako balizko blokeoren baitan, mugimendu laboristak gogor erantzun behar izan zuen euskaldunen alde. Apirilaren 14, 16 eta 20 laboristak, Attleek eta Noel-Bakerrek, eta liberalek, George Lloyd eta Arthur Sinclair parlamentuan Gobernuaren eta almirantegoaren aurka egin zuten. Churchillen iritziz, zeinak Edenekin ados agertu zen neutraltasunaren alde, apirilaren 14ko eztabaida³²⁹:

really never have seen for a very long time a Debate in which there has been such a vast number of interruptions. Another thing that I notice about all these interruptions is that hardly one of them has come off.

Laborismoa bete-betean arituko zen lehendabizikoz gobernuaren neutraltasun politikaren aurka. ISFk £3000 balioa zuen ontzi bat, S.S. Backworth, bidali zuen Bilbora. Egoera probestuz, Walter Citrine, TUCeko General Council-eko idazkari nagusia, bisitatu zuen Lizasok, beste bi euskal ordezkariarekin batera apirilaren 26an. Honek espero ez zuen bisita izan zen. Citrinek bost egun lehenago Vansittartekin bilera bat izan zuen. Blokeoa onartzean Gobernu Britainiarra oker zegoela esan zion Citrinek eta Vansittartek Edenek hartutako postura bera izan zuela dio, hau da, Gobernu Britainiarrak intzidente internazionalak ekidin nahi zituela. Halere, *He [Vansittart] thought, however, that Franco was making a profound mistake in attacking the Basque*. Citrinek izandako jarrera eskertu zioten euskal ordezkariak. Laborismoak euskaldunen aldeko jarrera hartzeko zailtasunak argitu ostean, euskal ordezkariak ez interbentzioaren inguruko hainbat hausteri buruzko informazioa helaraziko diote honi eta Citrini Vansittartekin bilera bat errazteko eskatuko dio Lizasok³³⁰.

Gernikaren ostean, eta bonbardaketa eta zibilen ebakuazioaren polemikaren erdi-erdian Citrinek eskatutako bilera maiatzaren 3an izango da. Lizaso Vansittart eta George Mounseynek inbiduko da. Bertan Euskal Gobernuaren intentzioak argi eta garbi erakutsiko ditu. Lehenik eta behin, ontziak babestearren eskerrak emango dizkio Erresuma Batuko Gobernuari. Ondoren, euskaldunak bi aldeekin bat ez datozela adieraziko die:

Francok has no control over his forces and atrocities being perpetrated on his side are carried off by people of no moral side. On the other side is Caballero who, if he obtained control of the provinces would suppress their liberties and bring Basques under a State of the Reds.

Euskaldunon sufrimendua arintzeaz ari zirela, Ingelesek *neutral zone* bat sortzeari buruz itaunduta, ezinezkotzat jotzen du Lizasok, zeinek Churchillek proposatutako bitartekaritzaren inguruko aukerei buruz *impertinent*-eki galdetuko die bi funtzionarioei. Oraindik bitartekaritza baterako goizegi bazen ere, Lizasok bitartekaritza iristean:

hoped that the mediating powers would insist that under the terms of settlement there should be established such essential conditions for peace as freedom of thought, order and self-determination of the people. There was no possibility in Spain of on region ruling another and the future regimen which must be secured against further outbreaks of civil strife must be based on some kind of confederation of Spanish people enjoying these essential privileges.

Lizasok bilera konfidentzial mantentzeko eskatu zuen, batik bat, Azcaratek jakin ez zezan. Bilera honen berri *Wester Departamenteko* buru zen Walter Roberts eta Chiltoni igorri zitzaion. Azken honek bilerak hurrengo adierazten zuen: euskaldunek *perfectly logical plan which the Basques have been following almost since the outbreak of the civil war* Plan hori Britainiar iritziaren aurrean aipatutako hirugarren bide horretan aurkitzen direla adieraztea da, hala

³²⁹ Hansard. HC Deb 14 April 1937 The Situation on Bilbao vol 322 cc1066. Hemen

https://api.parliament.uk/historic-hansard/commons/1937/apr/14/situation-at-bilbao#column_1066

³³⁰ UWA. ATUC. 292/946/16a/44 Situation in Spain. Bilbao : memorandum of interview with Jose I. de Lizaso and two other Basque representatives (1937-04-26); Situation in Spain - Bilbao : memorandum of interview with Sir Robert Vansittart (1937-04-20)

laguntza eskuratzeko. Lortutako *echoe* nabarmentzen badu ere, euskaldunok margotzen duten irudi miragarria modernotzat du eta oso kritikoki erlatibizatzen du³³¹.

Aipatutako irudi hori dela eta, Citrinek, *it was much easier to act on behalf of the Basques than Spanish in general*. Horrexegatik, adostu zuten gerra guztian saihesten ziharduten ekintza *non political* batean, komunista eta liberalekin, baita katolikoekin ere parte hartzea: *Basque Committee Children*³³².

Elkarte hori sortu duen matrizearekin, NJCren, batera Lizasok lan handia egingo du Bilboko blokeoaren ostean populazio zibila ebakutzeko. Oposizioa parlamentuarekin bilduko da apiril bukaeran hainbat aldiz, eta NJCren eta Citrinen bidez BCCren sorrera katolikoek parte hartzearekin ahalbidetuko du Lizasok. Umeak Ingalaterrara bidaltzearekin, printzipioz behintzat, irabazten zituzten onura politikoak kontuan, argi dago, xede humanitarioez gain azpian ezkututzen ziren nahiak zeintzuk ziren. Katolikoak BCCn sartzea eta bertan kolaboratzea lortu bazuen ere, ez zituen Euskal kausarako politikoki irabazi. Aurkakoa gertatuko zen. Adibidez, irailaren 3an *The Catholic Herald*ek Wright agentziako hilabeteko egiten zuten propagandaren laburpenaren txosten bat eskuratu eta Euskal Gobernuari zortzi agenteren bidez Erresuma Batuan propaganda egitea leporatu zioten, tartean umeak erabiliz³³³.

Erresistentziak erresistentzia, liberal eta laboristen gehiengoekin zituen kontaktuak asko estutuko ziren BCCn egindako lanaren bidez. Aurretik ere ezarriak zituen Lizasok harremanak. Wilfrid Robertsekin 1937ko otsail-martxoan hainbat bilera izanak zituen dagoeneko. Gerraren inguruan informatzeaz gain, NJCren bidez medikuntza-hornidurak eskuratzeko eskaerak luzatu zizkion euskal ordezkariak. Atholl (kontserbadorea) eta Rathbone andereak Euskal sufrimendua arintzeko behar beharrezkoak bilakatuko ziren, baita Citrinen idazkari zen Vincent Tewson. Zer esanik ez dago Philip Noel-Baker eta Clement Attlek parlamentari laboristak ere lagunduko ziola Lizasori Euzkadiko gerran zehar gobernuaren gainean presio egiten. Lizasok erailketa eta eskubide urratze zein Italiar eta Alemaniarren neutraltasun urraketari buruzko informazio ezberdina kazetetara pasa eta parlamentuak gobernuari neutraltasun politikak aldatzeko eskatzeko eta nazionalak euskal zibil eta presoak hobeto tratatzeko erabiliko zuten³³⁴.

Maiatzean zehar populazio zibila ebakutzeko baimena segurtatu, eta Gobernu Gernikaren inguruan azkenean egingo ez zen nazioarteko ikerketa batzorde bat ezartzera behartu nahi zuten goian aipatutako diputatuek. Egitasmo humanitarioez gain, Euzkadiko frontean ematen ziren gertaera militarren berri eman eta egoera militarra hobetzeko eskaerak luzatuko ditu Lizasok eta Alemaniar eta Italiarren aire indarrei aurre egiteko abiazioa pasatzen utz dezatela behintzat eskatuko du³³⁵. Bilbo erortzeaz dela, ekainaren 16an, Vansittartekin eskuratuko ez duen bilera bat lotzen saiatuko da³³⁶. Aipatu dugun lan kargu guztia zela eta, Lehendakariak Angel Gondra bidaliko du idazkari bezala Lizasori laguntzeko 1937ko ekainerako.

³³¹ CBDG Kew I FO 371/ 212290 W8936 Record of a CONVERSATION between Vansittart and Lizaso, at which Mounsey present. (1937-05-05). Ezer zehatzik nahi ez zuela iruditzen zaie, batez ere, Britainiarren laguntasuna nahi dute, eta hauek euskaldunak aurkitzen diren *terrible dilemma in which it finds itself plunged owing to the civil dissensions of two totally unsympathetic and foreign sections of the Spanish peninsula*

³³² Buchanan, (1997), 100

³³³ *The Catholic Herald*, (1937-09-03)

³³⁴ EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:245/01; Athollen korrespondentzia gehiago SAF-DP-1306-02

³³⁵ FO 371/21336 W 11093 Proposed international enquiry into destruction of Guernica (1937-06-8) Alemanek erantzun ez, eta Italiar eta Portugalدارren aurkakotasuna zela eta, egitasmoarekin aurrera ez egitea erabaki zuten

³³⁶ EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:246/02 Lizasok Vansittarti (1937-06-16)

Behin Bilbo galduta, presioa ahalik eta eraiketa gutxien izateaz gain, uztail hasieran Santanderko portuaren blokeoa ez onartzera bideratuko zuen lana, apirilean Bilbon bezala. Portuaren blokeoaz gain, sekulako errefuxiatuen krisia pairatzen ari ziren Kantabriako hiriburuan. Rathbone andereak uztailaren 9an parlamentu eta prentsaren bidez Britainia Handiari zabalduko zizkion bere kezka. Presio demografiko itzela pairatzen ari zen Santander. 20-30.000tik 70-120.000 inguruko populazio batera pasa baitzen. Gehienbat emakume, ume eta gizon zaharrak. Jateko eta lo egiteko tokirik gabe, etengabeko bonbardeoak josirik. Habana itsasontziaz gain zortzi ontzi ziharduten errefuxiatuak atera, eta janaria sartzen, baina Britainiarrak antzina hitz emandako protekzio nabalaren ez zen nahikoa, hau da, lurraldeko-uretan ez zituzten babesten. Rathbonek errefuxiatu hauekin Erresuma Batuak betebeharrak moral bat zuela irizten zuen. Ez interbentzioa aplikatuko izan ez balitz, armada errepublikarra izango baitzen egoera militarren kontrolan³³⁷.

Lizasoren, Athollen eta Rathbonen saiakerak ez ziren nahikoak izan. Bilboko krisiaren ostean iritzi publikoak interesa galdu zuen, eta Britainiar Gobernua neutralitate mantendu behar zela argudiatuz, ez ziren ausartu lurraldeko-uretan Francoren ontzidiarekin borrokarik izaten. Santanderreko britainiar kontsularen, Bates kontsularen, absentsia arrazoituz, errefuxiatu asko ez zituzten hartu. Halere, Angel Ojanguren pro-kontsula eta Harry Pursey, NJC ordezkariaren lanari eskerrak, uztail eta abuztuaren Santandertik 31.000 bat errefuxiatu ateratzea baimendu zuten³³⁸.

Francoren osteak erraz ari ziren aurrera egiten, eta gero eta desertore gehiago zituen euskal armadak³³⁹. Egoera humanitarioaren antzera, egoera militarra okerrerantz zihoala, Lizasok Atholleko dukesari aditzera ematen dio bi aukera besterik ez zitzaizkiela geratu:

There were only two ways out (1) to fight to the bitter end, a course which naturally would have cost the lives of thousands of rebels as well as Basques (2) to surrender to the invader under certain conditions laid down by the commanders. They chose the latter and on August 29th surrendered to General Mancini, Commdadner in-Chief of the Italians (the only troops fighting on the front)³⁴⁰. Bigarrena aukeratu zuten Euskal agintariek.

Errepublikar autoritateek, Bilbo arriskuan ikustean, euskaldunok borrokan jarraituko ez zutela uste zuten. 1937ko maiatzean Azañaren pentsamenduak argi eta garbi adierazten digu susmo hau³⁴¹:

temo que Bilbao, ciudad, no se defiende cuando el enemigo este a sus puertas. No me refiero solo a las razones de orden militar que aconsejan no encerrarse con grandes fuerzas en una plaza que no puede ser socorrida (...) motivos de orden moral y político que tal vez se produzcan en el abandono de la villa.

Ez zitzaein arrazoirik falta. 1937ko maiatzetik Onandiaren bidez, Italiarrekin negoziaketetan ziharduen EAJK. Azkenean eta presa handiekin, hasieran bete ez zen, 1937ko abuztuaren 24ko gabeko hamabietan errenditzea adostu zuten, pakto bat sinatu zuten. Euskaldunok beste 48 ordu eskatu ostean, abuztuaren 25-26 bitartean armak utzi eta Italiarrei errenditu ziren. Halere, Manciniren osteak, gudariak kopatu zituztenaren ustean, errendizio total baten antzera hartu

³³⁷ Athollen arabera NJC edo Parlamentuan Rathbonek zuzendutako azpi-komite bat ezarriko da Santanderko errefuxiatuen krisia konpontzeko. Parliamentary Archives, ST/259/2: The Refugee Question at Santander

³³⁸ Anderson (2017a), 80. Mayoral (2013), 195

³³⁹Candano (2006); CDMH-INCORPORADOS, 1484, DELEPRO ONALOri (1937-06-24) *London se presentan 526 milicianos vascos con armas. Cantidades granes de armas abandonadas incalculables los tuéneles abarrotados de municiones. El orden y Vida en Bilbao y se reparan puentes destruidos por la barbarie roja. Se han pasado 7 oficiales 16 sargentos y 86 individuos con armamento*; DELEPRO a Alba (1937-07-30) *Gran masa de gudarís a ejército general Franco resto de tropas marxistas consideranles como traidores. Amenaza para seguir luchando, 23 de los capturados dicen que sus familias obligadas abandonar Bilbao*

³⁴⁰ SAF- DP-1306-02 Atholli (1937-10-21)

³⁴¹ Azaña (2000), 974

zituzten preso. Orotara 30.000 bat gudari. Horietako 400 *Sevens Seas Spray* eta *Bobbytik* jaitzarazi zituztenetik paktua betetzeko asmorik ez zutela uste da³⁴².

Santoñaren inguruan dauden eztabaida historiografikoak alde batera utziz, Leizaola eta Troncosoren arteko negoziaketetan Santanderko kontsulak izandako papera azpimarratu nahi da. 1937ko abuzturako Britainiar autoritateen bitartekaritzari eskerrak, euskal nazionalista eta nazionalen arteko paktu antzeko bat jaso zen. Bazirudien Euskal Gobernuko 400 bat ofiziali, gehienbat EAJkoak, ateratzen utziko zitzaizela. Troncoso kapitaina, Leizaola eta T. W. Bates *HMS Keiten* abiatu ziren Donibane Lohitzünetik Santanderra. Bidaian, Leizaola destruktoareak jaso zitzakeen 150 pertsona salbatzeko aukera errefusatu zion eta Leizaolak gutxienez 50 pertsona ontziratzeko eskatu bazion ere, 17 bakarrik sartzeko baimena emango zion azkenean. Ontziko kapitainak ezkutuan 10 bahitu, sei goardia eta 19 euskal ofizial sartzeko aukera ere errefusatu zuen³⁴³. Esan daiteke, Gobernu Britainiarren desiren aurka, *save those in peril*, aritu zela kontsula.

Santoñaz gain, 1937ko abuztu-urrian euskal umeen aberriatzearen auziak, aurretiaz eskatzen zion denboraren bikoitza eskatuko dio Londoneko ordezkariari. Hala ere, ez dugu honetan sakonduko zati honetan. Gainera, Lizaso eta Gondrari, gizarte laguntzako departamentuko, Miguel Uranga eta kultura departamentuko Pedro Atutxa apaizak egiteko zuten lan karga eskerga arinduko diete.

Guzti hau gertatzen ari zela, Britainiarrak nazionalengandik gero eta gertuago zeuden. Azañaren ustetan Bilbo erortzeaz gerta zitekeena gertatzen ari zen. *Consumada su perdida [Bilbo] se presentará la conveniencia de acomodarse al hecho irreparable, y puede cambiar todo*³⁴⁴. 1937ko martxoan Chiltonek iradokitako, Robert Hodgson izendatzeko pausuak hasi ziren eta azarorako adostuko dute Burgosen agente komertzial-politiko bat jartzea³⁴⁵. *De factoko* onarpenerako lehen pausua hasiko da Bilbo eta Iparralde nazionalen alde erortzean.

Santoñatik - 1938ko bitartekaritza saiakeretara

Tarte honetan, Lizasok hiru helburu nagusi izango ditu, bizitzak salbatu, errefuxiatuak artatu eta bakea. Euskal Gobernuak Santoñan egin antzera nazioarteko bitartekaritzaren bitartez, bakea bilatzen zuen. Iruxori gobernu errepublikarrean jarraitzen utzi zion. Beraz, Lizasok bake hori errazteko kontaktu eta informazioa eskuratu behar zuen. Kontaktua horien bidez gainera, autoritate frankistak ezartzen ari ziren zigorrak ahalik eta gehien murriztu nahi zituzten. Trukaketak ere lehentasuna bilakatuko dira garai honetan.

Santoñako kapitulazioaren harira, atxilotuta geratu zirenak askatzera bideratuko du abuztu bukaera eta iraileko lan diplomatiko gehiena. Oposizio osoari idatziko dio Lizasok laguntza eske. Rahtbone eta Athollek hainbat telegrama igorriko dizkiote Edeni eta Lord Cranbonekin

³⁴² Onandia (1983) Paktua: De parte de las fuerzas italianas

- a) *Garantizar la vida de todos los combatientes vascos, tenerlos hasta la terminación de la guerra bajo su mando sin entregarlos al General Franco*
- b) *Garantizar la vida y autorizar la salida al extranjero de todos los hombres políticos y funcionarios vascos existentes en territorio de Santoña y Santander*
- c) *Considerar a los combatientes vascos sometidos a esta capitulación libres de toda obligación de participar en la guerra civil*
- d) *Garantizar que nos sea perseguido la población vasca leal al Gobierno Provisional de Euzkadi*

Seven Seas Spray eta Bobbytik jeisterako italiarrak Francoren esanetara daudela uste du Badiola (2015), 20.

³⁴³ Anderson, (2017a), 81

³⁴⁴ Azaña, (2000), 984

³⁴⁵ FO371/21287 eta Moradiellos (1990), 211-220

elkartuko dira³⁴⁶. Luis Ortuzarrek abuztuaren 31an Wilfrid Roberts, Ralph Stevenson eta Burrough komandanteari urgentziaz BBB osoa atxiki dutela eta hil ez ditzaten ahal dutena egiteko eskatzen die³⁴⁷. Aldarri berdinekin, Lizaso FO *Nations League*ko departamentuko D.F. Howardekin bilduko da irailaren 8an³⁴⁸. Britainiarri egiten dieten presioaz gain, britainiarren bidez Italiarengan eragiten saiatuko dira. Hori George Lansbury laboristaren bitartez egingo dute. Lizasoz gain, Santiago Aznar ere kontaktatuko du parlamentaria. Cianori telegrama bat idatziko dio irailaren 9an Lansbury³⁴⁹:

Implore you to use your good offices with general franco to secure release of leading civilian political party members military officers and Basque government officials who surrendered to general Macneci (...) coronel lieutenant Gergasi and coronels Farina and Piersh on Sunday august 20. Surrender follows an agreement (...) Mancini has most honourably fulfilled his part of the agreement but these civilians and officials detained at Santoña and Laredo (...) here in Britain very grave fears are entertained concerning their present and future safety. I am asked by a large body of people in this country to make this appeal that you will do you very utmost to secure that pledge. Bi egunetara Salamancako Italiar enbaxadak pasa zuen Cianoren mezua. Badirudi hasierako asmoekin alderatuz eskaera hauek lagundu zutela.

Behin eta berriro errepikatuko den jokia izango da. Autoritate frankistak errepresio lasaitu eta azeleratzen dabiltzan heinean, EAJ eta Euskal Gobernuak kanpotik errepresio geratu dezaketenei presio egiteko eskaerak etengabeak izango dira³⁵⁰. 1937 bukaerarako 400 bat preso Larrinagara ekarri eta heriotza arriskuan zeudenez, hauek salbatzeko asmoz, 1938ko urtarrilaren hasieran Atholleko dukeak esku hartuko du. Hala EAJko hainbat agintariren biziak salbatuko dira, tartean Rezolarena. 1938ko martxoan Lizasok Vansittarteri operazio horietan egin zuena eskertuko badio ere, berriro beste 41 bat hiltzeko arriskuan daudela esan eta laguntzeko eskaria luzatuko dio. Zoritzarrez, eta Vansittarten esku hartu arren, 61 pertsona, tartean hiru emakume erail zituzten martxoaren 10-12 bitartean. Vansittart Hodgsonen bidez ari zen heriotzak prebenitzen saiatzen³⁵¹.

Denak ez dira notizia txarrak izango. 1938ko urtarrilean nazionalekin Santoñan kapitulatutako 41 pertsona trukatu zituzte. Negoziaketetan 200 pertsonako trukaketa batez hitz egin bazen ere, Errepublikak ez zuen onartu gudarien ordezkari militar profesionalak trukatzea. Trukaketa hauek, hein batean, Monzon eta Lizasok Genevan Txileko ordezkarien bitartez hasitako negoziaketan emaitza ziren. Madrileko Txileko enbaxadan 600 bat errefuxiatu zeuden eta horiek Santoñako 800 funtzionarioekin trukatzea nahi zuten bi aldeek. Arazo bat zegoen, errefuxiatuok militarrik izan ezean, Franco ez zegoen interesatuta.

1937ko azaroan, Vyvyan Adams kontserbadorearen bidez elkartu zen berriro George Mounsaynekin. Goiko negoziaketan berri emango zion. Bilera honen ostean, lortutako kontaktua gutunen bidez mantenduko du Lizasok. Espainian gertaeren aurrean Euskal Gobernuaren erabakiak justifikatu eta arrazoitzeko erabiliz. Besteak beste, 1937ko abenduan Iruko Errepublikaren sistema judizialean ezartzen saiatzen ari den garantien berri emango dio.

³⁴⁶ SAF- DP Lizasok Atholli (1937-08-30) (1937-09-03/04)

³⁴⁷ EAH.LO.L:37 *The Whole Biscay buru Batzar has been caught prisoner in Santoña. Please do your utmost save their lives thanking you. Ortuzar.* (1937-08-31)

³⁴⁸ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:246/02 Howardek Lizasori (1937-09-16)

³⁴⁹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:25 L:243/02 Gondra-Gamarra. EAH.EG.IMA. Se:Secretaría General Secretaría V:7 L:767/18 Aznar-Lansbury. Archives of London School-en artxiboan daude George Lansburyren paperak. Ezin izan ditut kontsultatu baina 1937ko irailean Lizasok eta Cianorekin hainbat gutun daude.

³⁵⁰ Santoñako epaiketak ikusteko Onaindia (1983); bizitzari buruz Mendizabal *et al.* (2006); Hernandez (2019) 169-172; 188; 221-222; Zubiaga (2016)

³⁵¹ EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:246/02 Lizasok Vansittarti (1938-03-14) (1938-03-25) Vansittartek Lizasori (1938-03-25)

Katalanen laguntzaz, komunisten kriterioari gailentzen ari direla jakinaraziz. Mounseynekin izandako bilera baino garrantzitsuagoa da Adamsekin izandakoa. Parlamentuko *tory* garrantzitsuenetarikoa zen. *Antiappeaser* bat. Francoren aurkako eta benetan uste zuen Euskal independentzia zela Britainiar interesentzat egokiena³⁵².

Adamsekin izandako bilera *turning point* bat kontsidera dezakegu Lizasoren politikan. Liberal eta laborista, zein laguntza humanitarioan aritzen diren politikariek bilerak izaten jarraitu bazuen ere, bere benetako xedea *toryak* bereganatzea zen. Kontaktu honekin bere asmoa lortzen hasiko da. Egiatan, Azcaratek berak ere ildo bera jarraitzen zuen. Biak bazekiten ez interbentzioarekin bukatzeko modua hori zela. Hala ere, Azcaratek sekulako gaitzespenarekin hartu zuen mundu kontserbadorearen artean, Lizasok ez bezala. Horregatik, Azcarate, laboral eta gehienbat liberaletan oinarritu zen. Lloyd George, Wilfred Roberts eta Archibald Sinclairrekin harreman sendoa izan zituen. Lizasok ere izan zituen tratuak pertsona hauekin. Adibidez, Lloyd Georgek euskaldunen alde sekulako propaganda egin zuen eta Sinclairrek Santoñako paktuaren inguruan Euskal Gobernuaren defentsa egin zuen Britainiar parlamentuan. alabaina, 1938ko apirilean, Lizaso berekin bildu zenean, ez zen ausartzen *plantear demasiado el problema vasco, tal como nos gustaría resuelto*. Euzkadi eta Katalunia Estatu top bezala sortzeko aukeraz mintzatuta, arazo penintsular bezala ikusten du. Horregatik, Agirreri hurrengo hau dio: *La oposición tiene un sentido UNITARISTA por eso plantea el caso vasco abiertamente a los conservadores y no a la oposición (...) La oposición es útil a España no a Euzkadi y a Cataluña*³⁵³.

Trukaketaz eta *toryes* ari garela, hitz egin dezagun Field Marshal Sir Philip Chetwodek Frantziako Tolosan lehendabizi eta ondoren Pauen 1938ko abuztuan ezarritako batzordeaz. Heine handi batean, euskaldunek behin eta berriro bilatzen zuten trukaketa masiboak gauzatzeko ideiarekin jaioa, euskal agintariak izan ziren Errepublikari presio egin ziotenak berau onar ezan. Chetweode War Officeko *die hard tory* bat zen, ziurrenik maila pertsonalean frankistekiko sinpatia zuena. Horregatik, Salamancak batzordea 1938ko martxorako onartu zuen. Aldiz, Errepublikarrek denbora gehiago behar izan zuten. Lovellek eman zion Chetwoderen berri Lizasori: Kontserbadore eta frankista izan arren, ohorezko pertsona da. Eginbeharrak, bere gustu pertsonalen aurretik jartzen dituen. Informazio hau kontuan bere alde egingo du Iruok Errepublikar gobernuaren aurrean. Behin lurzoru etikoa zehaztuta, 1938ko maiatzean onartuko diote trukaketak negoziatzeko ahalmena. Lizasok batzordea martxan jarri aurretik bilera bat izan zuen Chetwoderekin. Inpresio honarekin atera zen³⁵⁴.

Gerra Zibilak aurrera egin ahala, frontetik gertu lanean ziharduten Britainiar diplomatikoak gero eta beldurtuago zeuden Franco gatibuen aurka erakusten ari zen metodoekin. Horregatik, Chetwoderen batzordea abiarazi eta trukaketa handi bat egitea erabaki zuten. Zoritxarrez, ez zuen inoiz ondo funtzionatuko, gehienbat frankistek ezarritako zailtasunen eraginez. Chetwoderekin batera, Coloney Hay eta McNeece Fosterrek eta Power-Carver idazkariak osatzen zuten batzordea. Nazionalekin lehendabizi Charles Dick aritu zen, ondoren Mosley koronela eta gero MacNeece Foster. Errepublikarrekin Denys Cowan aukeratua zuten ordezkari. Batzordearen inguruan euskaldunon ordezkari, 1938ko abendutik aurrera Jose Villalonga aritu

³⁵² *Ibid.* Howardek Lizasori (1937-09-16) Lizasok Mounseynekin (1937-12-11)] EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:275 L:297/04 Report November 1937

³⁵³ Azcarate (1976), 50; EAH.SA. Se:Delegacion Londres L. 9/910 Lizasok Agirreri (1938-04-05)

³⁵⁴ EAH.SA.Si:90 L:11/1066 Leizaolak Lizasori (1938-02-17); EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Lovellek Lizasori (1938-03-05)

zen. Iruxoren idazkari izan zen Francisco Velarrek ordeztuko zuen 1939ko otsailean. Errepublikaren ordezkari ere arituko zen, nahiz eta ez zen lan horietarako oso fidagarria³⁵⁵.

Ez zen oso batzorde eraginkorra izan. Batik bat, nazionalek erakutsitako jarreragatik. Andersonek erakutsi duenez, Salamancak hilketen jarioa gutxitu bazuen ere, ez zituen fusilaketak bertan behera inoiz laga. Francoren aldekoek erabilitako argudioa, errugaberik hiltzen ez zutela zen. Presoen erailetak Municheko garaian, nazioarteko akordio bat erabat galarazteko erabili zituzten³⁵⁶. Beraz, euskaldunok bilatzen zuten trukaketa masiboa ez zen gauzatu. Trukaketez gain, 1939ko otsailean bake-negoziaketa batzuk aurrera eramaten saiatu zen batzordea. Ez zuen arrakasta askorik izan.

1938ko martxoan, Chetwoderen komisioa sortzen zen garaian, bitartekaritza baten ideia indarra hartzen hasi zen. 1938ko apirilaren 30ean, Negrinen Nazioen Ligaren aurrean 13 puntuko programa bat aurkeztu zuen. Bi bandoen arteko hitzarmen bat negoziatzen hasteko beharrezkoak. Horren ondorioz, *Comité por la Paz Civil y Religiosa en Españak* bultzatzen zuen armistizioa indarra hartzen hasi zen. 1937ko otsail aldera Frantzian sortua. Lehendabizi euskal kasuan bakarrik zentratu arren azkar zabaldu zen. 1937ko irailetik aurrera ez interbentzio batzordeko zuzendariari, Lord Plymouthi, armistizio lortu eta adiskidetze nazionala eskuratzeari ekiteko bultzatzen zitzaion, hau da, Maritainen hitzetan batzordeak, *bakea eskuratzeko interbentzio batzordean* bilakatu beharko zen. 1937-1938 bueltan Terueleko borroken ostean egon ziren kontaktu batzuk, baina ez zuten aurrera egin. 1938ko maiatzean berriro zabaldu zen bakerako aukera. Maritainek berak *The Timesen* potentziei mahaigainean esertzeko dei egingo die. Britainia Handiko sekzioaren presidente zen Wickham Steedek zuzentzen zuen erakundea eta Luigi Sturzo komitearen parte zen³⁵⁷.

Egoera berri honen aurrean, euskaldunok kontaktu diplomatikoak indartuko dituzte. Bakarrik aritu beharrean, 1938an apiril erdialdera Londona heldu zen Batista i Rocarekin batera, fronte bateratu bat osatuko dute. Maiatza eta ekainean, Sturzo eta Steedekin bilduko dira, baita Mounseyekin eta Vansittartekin. Autonomien garrantzia azpimarratuko diete lehendabiziko biek izandako bileran. Nazionalistentzat interesgarrienak izan daitekeen proposamena egin dezan Steedek zuzendutako elkarteak. FOan Mounseyekin hilaren 4an elkartu eta Maritainen karteren inguruan arituko dira hizketan. Ez omen zekien ezer armistizio posible bati buruz. Halere, Mounseyen iritziz, bi aldeetan nagusi den intrantsigentzia dela eta ezinezkoa eszenariotzat jotzen du borroken etetea. Gainera, negoziaketa posible batzuetan, ez zuen uste Francok inoiz autonomiak onartuko zituela. Lizasok aterabide zentralista batek Espainiar arazoekin ez zuela bukatuko erantzungo zion. Mounsey informatu bai, baina ez zuen ingelesan jarrerari buruz ezer argirik atera. Hori bai, dagoeneko kontaktu zuzena zuten funtzionario hauekin. Hala dio Agirreri Lizasok³⁵⁸:

*Y estos es todo, querido Jose Antonio. Yo sé que tu hubieras querido algo más positivo. También yo. Pero en estas conservaciones con el Foreign Office uno debe ir dispuesto a no sacar nada. Bastante es el poder ser escuchado*³⁵⁹. Agirrek Lizasori Mounsey bisitatzea diskrezioa mantentzeko erantzuten dio eta: *satisfecho de nuestros asuntos se oigan. Te repito (...) menester ser machacón y constante. Poco a poco el ambiente va acelerándose. Para ser un país el nuestro en poder del enemigo nuestra propaganda es probablemente de las más efectivas y que no se estilan corrientemente. Nuestro nombre suena bastante más en la Prensa que el de casi todos los*

³⁵⁵ Anderson, (2012); EI.MI. C-24-J 1-2 (10646) Informe de Marzo 1939

³⁵⁶ Anderson, (2012)

³⁵⁷ Tusell (1993), 141-156; *The Times* (1938-05-06)

³⁵⁸ EAH.SA. Se:Delegación de Londres L:9/914, Lizasok Agirreri (1938-05-11); EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:150 L:256/02 Lizasok Agirreri (1938-05-19)

³⁵⁹ EAH.SA. Se:Delegación de Londres L:9/914 Lizasok Agirreri (1938-05-04)

pueblos de Europa. Propaganda ona egin arren, ez du erraza ikusten bitartekaritzarako aukerarik, las posibilidades de mediación en estos momentos son difíciles.

Bando frankistari ez zitzaion inolaz ere bitartekaritza bat interesatzen. 1938an bitartekaritza saiakeren inguruan Albak honako iritzia hau zuen³⁶⁰:

Chamberlain deseaba la victoria de la España nacional, pero también simpatizaba con la idea de la mediación, en parte por la «inveterada costumbre» británica de hacer concesiones a la oposición y a la opinión pública. Alba estaba convencido, como era común en los ambientes de la derecha autoritaria española, de que la masonería era un poder oculto y maligno que movía muchos hilos, por lo que atribuía un origen masónico a las iniciativas favorables a una mediación, como las promovidas por el Comité por la Paz Civil y Religiosa en España.

Aukerak murrizak izan arren, Batista eta Lizaso zirkulu diplomatikoetatik gertu mantendu ziren eta errepublikar enbaxadaren bizkarretara 1938ko ekainaren 23an, Britainia Handiko Gobernuari armistizio bat egiteko memorandum bateratua igorri zioten. Britainiarrek babestutako bitartekaritza batean, Errepublikarrak negoziaketa mahira ekartzeaz arduratuko ziren. Aurretik, armistizio oso bat eman behar zen horretarako. Fronteetatik militarrek kendu, atzerritar bolondresen aberriratzeari, presoek trukatzeari eta askatzearen proposatzen zuten. Honen ostean, negoziaketa mahian Katalunia eta Euzkadi presente izan beharko ziren, eta autonomiak errespetatuz³⁶¹.

Ustekabe handiarekin hartu zuten Britainiarrek proposamena. Ordurako erabakia zuten Francori laguntzea. Gainera, ez zuten proposatutako eskemak benetako baliorik zuenik. Itun batera heltzeko arazo ez ziren Errepublikarrak, nazionalak baizik. Alexander Cadoganen argigarriak dira zentsu honetan: *Confieso que tengo algunas dudas sobre su utilidad. Hablan mucho de la influencia que podrían ejercer en Barcelona a favor de la mediación. Pero es en el otro bando donde quisiéramos que se ejerciese dicha influencia*³⁶². Gobernu Britainiarrek, ez zuten jaramon handirik egin iradokizun hauei. Ohartu ziren horretaz euskaldunak. Lizasok Agirreri hala idazten dio uztailean³⁶³:

En este momento sería posible que comenzara la colaboración de Euzkadi y Catalunya contenida en el documento que sabes. Hasta ahora, ni Batista ni yo hemos sido llamado por Halifax. Por ahora por lo visto no os necesitan. Están más preocupados en ver la forma de forzar la aceptación de una mediación por parte de Franco, que es decir Mussolini. Nosotros no perdemos el tiempo. Mientras llegue el momento trabajaremos sin descanso para irnos colocando bien para cuando llegue el momento.

Hurrengo hilabetean iritsi zen momentua. Uztailearen 21ean, Alexander Cadoganek, FOaren izenean lehendabizikoz deituko zituen Lizaso eta Batista. *el hecho de la llamada representa ya el comienzo de una nueva etapa en nuestras relaciones con el FO* Aurreko egunean, Parisen bildu ziren Halifax eta Cadogan, Bonnet, Daladier, Herriot eta Blumekin. Txekoslovakia eta Espainiako auziak batera, eta behin betikoz ebazti nahi zituzten. Ondorioz, aurreko hilabetean ez bezala, Cadoganek *muy cordialmente* Bartzelonari atzerriko bolondresen aberriratzeko planean presionatzeko eskatzeko deitu zien. Bi autonomiek ekainean aurkeztutako proposamena aztertu dutela gaineratzen die. Luze eta zabal aritu ziren Espainiaren auziari buruz, eta Cadoganek bere iritzia pertsonalean esan zien

Estar seguros que lo mismo que nos esforzarnos en ver resuelto el problema de los sudetes si llegara el momento queríamos también ver resuelto el problema de vascos y catalanes. Inglaterra en este aspecto de querer ver satisfechos los derechos de las minorías sin perjuicio de la soberanía estatal ha marcado su política favorable en cuantas ocasiones ha podido hacer valer su

³⁶⁰ Aviles (1996), 166

³⁶¹ EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:246/02

³⁶² Moradiellos (2015), 370

³⁶³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:150 L:256/02 Lizasok Agirreri (1938-07-06)

influencia. Creo que, en el caso de ustedes, si llegara el momento, el Gobierno Ingles no modificaría su criterio y aportaría los deseos de vascos y catalanes.

Promesa lauso horiei eutsiz, Euskaldun eta katalanak haiengan konfia zitekeela erakutsi nahi zuten. Horregatik, uztailearen 28an, ministro komunistek irizpideei gailenduz, ez interbentzioko komiteak atzerritarren aberriratzeko plana bi herri hauen ordezkarietara eskerrak espainiar kabineteen aprobaturik jartzea jakinarazten die³⁶⁴.

Hurrengo egunean, Azañak Lecheren bidez, Lizaso eta Batistak proposaturako antzeko eskema bat aurrera eramateko asmoa adierazten die Britaniarrei. Hauen oniritzia izan ezkeren Komunista eta Negrini, zeinak Azañaren ustez, armistizioaren aurka dauden, kontra egingo diela adieraziz. Halere, eta hainbat bileraren ostean, Halifaxek Lecheri agintzen dio irailaren 12an erantzunik ez emateko³⁶⁵.

Abuztuan zehar uztailean izandako kontaktuak zertxobait lasaitu egingo dira. Ez da ahaztu behar parlamentua geldirik dagoela eta funtzionario asko oporretan zeudela. Halere, presoen inguruan eta errepublikarren barne-politikaren inguruan informazioa pasatzen jarraituko dute. Lizaso eta Batistak abuztu bukaeran, Irujo eta Ayguadé dimisioen berri eman eta justifikatu egingo dituzte. Beste behin, hirugarren Espainia bat osatzen dutela argudiatzen dute. Printzipio humanitarioak defendatzen dituztenez, ezin dutela Espainiar Gobernuak justiziaren inguruan hartutako erabakia babestu. Egiatan, konpetentzia autonomikoak urratzen zituzten beste bi gerra dekreturen ondorioz dimititu zuten³⁶⁶. Errepublikar lurraldean exekuzio ezberdin eta indiskriminatuak ekidin nahi zituzten bezala, abuztu eta iraileko lan diplomatiko handi bat bideratuko da Salamancak berdina egin dezan presionatzera. Leizaolak hala eskatuko dio Lizasori: *Procura gestionar cesen todas ejecuciones invocando acuerdo republica relativo canje general y suspensión ejecuciones durante mes de septiembre*³⁶⁷.

Uztailean hasitako Ebroko ofentsibak pausan utzi zituen bitartekaritza aukerak. Halere, Munichek akordioek, Hitler eta Chamberlain gerturatzean, berriro plazaratu zuen nazioarteko potentziek babestutako akordio baten aukera. Euskaldun eta Katalanak argi eta azkar ibili ziren Chamberlain herri txiki eta zapalduen txapelak aldarrikatzen. 1938ko ekainean egin bezala, Paris eta Londonen batera aurkeztuko zituzten antzeko memorandumak. Katalanek ere aurkeztuko zuten antzeko dokumentu bat. Bai Katalan zein euskaldunek aurkeztutako mapa berdina izango zuten eta Chamberlaini Europako bakea mantentzeagatik zoriontzeko zuten. Memorandumean, penintsularen bakea erabat ziurtatzeko bi anexo luzez aurkezten dira autoderminazio eskubideak aldarrikatu eta justifikatzeko. Wright agentziak lagundu zien memorandumak prestatzen³⁶⁸.

Memoranduma Alexander Cadoganen azaldu zioten 1938ko urriaren 12an. Bilera luze bat izan zuten, Cadoganek uste zuen Sudete eta penintsulako arazoak ezberdinak zirela eta zuzentzeko behar handiarekin Lizasori begira, erdi serio erdi txantxetan hau esan zion: *Quiza la mejor solución para ustedes los vascos seria que Francia invadiera Euzkadi y la ocupara*. Egia izatekotan garrantzi kapitala zuen euskaldunentzat. Hortaz, Agirreri, Lizasoren lagun eta

³⁶⁴ Jimenez (1999) 122; EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:150 L:256/02 Lizasok Agirreri (1938-07-21)

³⁶⁵ Moradiellos, (2015), 378-80

³⁶⁶ Moradiellos (2015), 384

³⁶⁷ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:246/02 Memorandum Lizaso eta Batistak Halifaxi (1938-07-28); Memorandum Euskal Gobernu eta Katalanak (1938-08-29); Leizaolak Lizasori (1938-09-16)

³⁶⁸ FO 371/ 22639 W13619 eta W13620

Quay d'Orsayeko Espainiako gaietarako funtzionario gorena zen Castellanos markesarekin hitz egiteko esaten zion³⁶⁹.

Munichen ostean, bazirudien nazionalak ez zutela asko aurrera egiten. Gainera, Hortaz, Albako dukeak urrian britainiarrek bitartekaritza baterako momentu egokia zela pentsatzen zutela uste zuten. Bazekien Chamberlainek Francoren aldeko apustua egiten zuela, baina iritzi britainiarra Errepublikaren aldekoa zen. Frantziarrak ere gero eta errezelo handiagoarekin begiratzen zioten Francori. Egoera honetan, Gobernu Britainiarrari aurkezteko Sturzoren taldea proposamen berri bat prestatzen ziharduen. Lizasoren ustez *Comité por la Paz Civil y Religiosakoak* prestatzen ari ziren proposamena ez zen egokiena, nahiz eta Steed eta Sturzok babesten zuten egitasmoak arazo nazionalak kontuan izango zituen³⁷⁰.

Azaroan euskaldunok bi egitasmo gauzatu zituzten Britainia Handiaren inguruan. Lehendabizikoa, Luis Aranak egin zuen. Bigarrena, Manuel Iruxok. Alemania bake gerrak ahituta omen zegoen eta Espainiako Gerratik atera omen nahi zuten. Lechek London eta Parisen alemaniar enbaxadoreak ideia horixek britainiar gobernuari helarazi zizkietenaren berri emango zion Iruxori³⁷¹.

Egoera horretan, Aranak Lezo Urreiztietarekin batera azaro hasieran heldu zen Londona. Titulu pertsonalera Lord Halifaxi Euskadi eta Aragoi-Katalunia bi estatu tapoi bilakatzeko proiektu bat eman nahi zion. Estatu hauek Frantzia eta Britainiaren protekzioaren truk bi nazio hauen interesak zainduko zituzten. Planaren prestaketetan Ramon de la Sota Aburtuk lagundu zion. Ministroarekin biltzeko, Luis Ortuzarren kontaktuen bidez saiatu ziren. Halere, F. Roberts funtzionarioen erresistentzia zela eta ezin izan zuten hori gauzatu. Ordainetan Ralph Stevenson kontsulak lagunduta, Alexander Cadoganekin biltzea lortu zuten³⁷².

Lizasok gestio hauen berri izan zuen Ortuzarren bidez eta Arana Cadoganekin bildu eta hurrengo astean Iruxo etorri zen Londona. Gondrak Iruxo Halifaxekin biltzeko eskatu arren ezezkoa jaso zuen. F.Robertsek barne nota batean hala idazten du: ministroak *no puede perder el tiempo*. Konpentsazioan, Cadoganekin biltzeko aukera eman zien. Cadogan gaixorik zelako eta gero Parisa joan behar zuelako ez da Iruxorekin bilduko azaroaren 28 arte. Bitarte horretan Iruxok Lecheren bidez hainbat afari eta bilera informal izango ditu Robertsekin eta Goerge Mounseynekin ere elkartzeko da. Bilera guzti hauetan. Frantziak Espainiar muga bakean izateko beharra Frantziarentzat ez ezik, Ingalaterrarentzat ere lehentasun bat da. Cadoganekin biltzea lortzerakoan, euskaldunak bake-konferentzia baterako plan bat idatziz aurkeztekotan geratuko dira. Behin idatzia aurkeztuta, behingoaz Halifaxekin bilera bat egiteko promesa egiten diote Iruxori.

Plan hau, Agirrek idatziko du eta Londonen Iruxok atondu eta itzuli. Proiektua armistizio batekin hasiko zen. Ondoren, Euzkadi (Nafarroa barne) eta Katalunia desmilitarizatu egingo ziren. Desmilitarizaziori erreferendum batek jarraituko zion eta hura autonomiaren aldeko emaitza ematen bazuen Gobernu Autonomoak osatuko ziren. Behin hau jasota, Errepublika eta

³⁶⁹ EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:150 L:256/02 Lizasok Agirrerri (1938-10-12)

³⁷⁰ Aviles (1996) 168 Albaren ustez prentsa britainiarra juduek kontrolatzen zuten EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:150 L:256/02 Lizasok Agirrerri (1938-10-22) (1938-10-26)

³⁷¹ CBDG Kew 1 FO/371/22661 W14772; Iruxok Agirrerri (1938-11-18)

³⁷² Partiduaren eta Euskal Gobernuaren laguntza ez zuela izan esan ohi bada ere, izan zuen. SAF- PNV-NAC-EBB-00308-11 Irlanda eta Londresera joandako txostena. Urriaren 29 atera eta abenduaren 2an itzuli. Londresen Azaroaren 2tik 11ra. Ondoren Irlandara, non Eli Gallastegi eta Ambrose Martin, De Valera, Patrick Llite eta Gerard Boland agintari irlandarrekin bildu ziren. Ortuzarrerri oso eskertuta dago, tartean Uzelaren freskoak zeuden Cervantes euskal jatetxean afaldu; PNV-NAC-EBB-00317-12 Ramon Sotarekin korrespondentzia. Jimenez eta Moreno (2009), 28-31; FO 371/ 2261/ W14701; 2269 W1873

Burgosko administrazioa deitu eta aurretik eginiko hauteskudeen emaitzak aldatu ezin zituen erreferenduma egingo zen Espainian. Hauteskunde horietatik ateratako erakundeak Espainia konfederal bat osatu nahi zuten ala ez erabaki beharko zuten³⁷³.

Aipatutako eskema, Irukok abenduaren 7an aurkeztuko zion Cadogani. Halere, Halifaxekin egitekoa zen bilera ez zen inoiz gauzatu. Nazioarteko momentua aldatu egin zen eta, ordurako, Britainiarrei ez zitzairen interesatzen plana. Chamberlainek erabaki zuen Mussolinirekin hitz egin aurretik ez zela bitartekaritza hitz egingo. Ondorioz Eskema honetaz, *no puede esperarse otra cosa sino el que pase a fichero en el dossier correspondiente llevando un dato más a la historia*. Cadoganek proiektua, isilean gorde beharrean, euskaldunok aurkeztutakoaren berri eman zioten Batistari, honen haserrerako. Egitasmoak arrakasta izan nahi bazuen ez Negrinek ezta Francok ezin zuten euskal eskua nabari eta horregatik isilpean mantendu zuten ekimena. Horra hor ingeles seriotasun Iruko *dixit*³⁷⁴.

Saiakerak saiakera diplomazia Britaniarrak beste lehentasunak zituen. Zorte gehiago edo gutxiagorekin, euskaldunen alde gerraren humanizazioan eta trukaketetan laguntza eskaini eta bitartekari egiteko ez zuten inongo arazorik. Baina, Euskal ordezkariak Erresuma Batuari behin betiko negoziaketa mahai edo akordio bat erabakitzeke beharraz konbentzitzea ez zuten lortu 1938an zehar.

1939: Espainiako gerrako azken urtea

1938ko azken aldian izandako politika irauli egingo zen Euskaldunentzat 1939an. Urtarril eta Otsailean nazioarteko bitartekaritza eskuratzen saiatuko dira. Behin otsailean porrota errealitate bat bilakatzen denean, gutxieneko akordio bat segurtatu eta jazarpen nazionala ahalik eta txikiena izan dadin egingo dute lan.

Ikusi berri dugun bezala, urri eta azaroko bitartekaritza aukerak moteldu egingo ziren abenduan. Francok 1938ko abenduaren 23an Kataluniako konkista hasiko zuen eta 1939ko urtarrilean Chamberlainek Mussolinirekin izandako elkarrizketan, italiarrek entzungor egin zieten bitartekaritza posible bati. Halere, Britaniarrek behar zituzten ziurtasunak eskuratu zituzten. Besteak beste, Italiarrak Balearretatik aterako zirela gerra amaitzean.

1939ko urtarrilean gerra era batera edo bestera bukatzeko saiakerak egiten jarraituko zuten. Urte hasieran Agirrek Carvajaleko markesarekin hitz egingo du Belgikan eta konstituzioa berrezarri Negrinekin negoziaketak aurrera eraman nahi omen zituen Londonen. Lizasori Carvajalek Azcarate eta FOrekin trataturik izan duen arakatzeko agintzen dio. Bitartekaritza posibleez hari garelara, Iruko berriro bueltatu zen urtarril erdialderako eta 16an Iruko eta Lizaso Robertsekin bilduko dira. Bi euskaldunak kexu ziren. Errepublikak demokraziek eskatutako guztia egin du, tartean Errusiarengandik alden, ez dute haatik erraztasun gehiago aurkitzen, alderantzizkoa gertatzen ari da: nazionalak nahi dutena egin eta gero eta erraztasun gehiago dituzte³⁷⁵.

³⁷³EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:150 L 256/02 Irukok Agirreri (1938-11-22).

³⁷⁴ *Ibid.* Liz Irukok Agirreri (1938-12-12) Ingeleseki erreferentzia egiten *nequaquam tibi chiribitam bolo* (Inoiz ez dizut musurik emango) (1938-12-13) Batistari erantzuna. Irukoaren proposamen pertsonala izan zelaz justifikatzen da. (1938-12-16)

³⁷⁵ EAH.EG.LD.S:Delegaciones En Londres Se:Lizaso V:300 L:257/01

Nazionalak Katalunian aurrera zihoazen eta diplomazian edozein leialtasunaren gainetik hori da garrantzitsua. Frantziak orduan zabalduko zion armei muga. Beranduegi zen. Bestalde, Euskal gobernuak bazekien armadak atzera egiten bazuen, Katalunian zeuden presoak arriskuan zeudela. Ondorioz, beteko ez den proiektu bat aurkeztuko du. Urtarrilaren 24an Chetwodek zuzendutako batzordeak presoak Frantziara ebakutzea proposatuko dio FOrri. Halere, plana gorpuzteko denborarik gabe, 1939ko otsailean Kataluniako armada errepublikarra desegin zen. Testuinguru honetan, Euskaldun eta Katalanek otsailaren 14an memorandum bat aurkeztu zioten Halifaxi. Memoranduma aurkeztean Lizasok esperantzak ditu ingelesak Francorengan influentzia dutela *ingleses confían poder neutralizar la influencia Italiana y alemana a fuerza de oro (...)* posibilidad de que los esfuerzos de mediación de los ingleses, puedan tener eco en los rebeldes³⁷⁶. Aurreko notetan egin bezala, bitartekaritza eskatzen zioten Britainiar Gobernuari. Bi autonomiak ahal zutena egingo zuten proposatutako eskema aurrera eramateko. Gaineratzen zuten autonomia eskariak ase ezean, konkistatutako Katalunia eta Euskal lurraldeetan ez dela benetako bakerik emango. Lizasok Agirrerri elkarrizketaren berri ematen dionak argi adierazten du Euskaldunen egoera³⁷⁷:

Después de leerlo, Cadogan responde que Inglaterra estaría contenta si llegasen a un acuerdo. A la respuesta de si ostenta alguna influencia sobre Negrin Lizaso responde que los vascos siguen detentando influencia ante Negrin. No saben los ingleses si Franco aceptaría los tres puntos propuestos. (...) Cadogan sonriente me contesto que se pueden dar consejos cuando hay alguien dispuesto a escucharlos, como queriendo decir que Franco no les atiende. Al responderle yo que solo una solución federal podría ser garantía de paz durable me contestó lo principal es que la guerra termine. (...)

Eskaerak eskaera, izan Euskaldun edo Errepublikarrenak, ez dute negoziatzeko nazionalen baimena eskuratuko. Gainera, Ingelesak Frantziarrarekin batera nazionalen garaipena onartzeko prestatzen ari ziren. Bi astera, otsailaren 25ean onartuko zuten Salamancako gobernu *De jure*. Hau gertatzerakoan Euskaldunon diplomaziaren presentziak arriskua izan zezakeela pentsatu zuen Lizasok. Hemendik aurrera tentu handiz jokatu beharko zuen Gobernu Britainikoen eskuetan baitzegoen. Zentzu honetan baina, ez da arazo nabarmenik nabari Bigarren Mundu Gerra arte.

1939ko martxoan errefuxiatuen alde lan egiten jarraituko dute ordezkarietatik. Martxoaren 17an Lizaso Robertekin bildu zen Chetwode komisioari buruz hitz egiteko. Lizasok Francisco Velarren bidez trukeak jarraitzea nahi zuen. Bestalde, Ingalaterran dauden marinelei buruz, Frantziara eraman nahi zituztela baieztatzen dio Lizasok, nahiz eta azkenean TUCen laguntzari eskerrak mantenduko dituzten Ingalaterran. Marinelez ari garela, Aldasoreen eskari bat helarazten dio Lizasok Roberts: Valentzian erabilitako Britainiar ontzietan hainbat euskaldun zeuden lanean. Ontzi horietan itsasgizon eta Madrilen dauden euskaldunak Ingalaterrara ekartzea. Ez dakigu erantzuna zein izan zen, baina Galatea ontzian 194 errefuxiatu bakarrik etorri zirela kontuan, ez dugu uste baiezkoa izango zenik. Horrez gain, Ingalaterrak euskal errefuxiatuei zuzen zitzakeen baliabideak Euskal Gobernuak kontrolatzeko eskatu zioten. Iruxok Agirrerri bidalitako hitzetan nabari daiteke euskaldunak aterabide humanitario bilatzen zutela garai honetan³⁷⁸:

³⁷⁶EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:5/566 Lizasok Agirrerri (1939-02-09); EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:246/02

³⁷⁷ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:5/566 Lizasok Agirrerri (1939-02-11)

³⁷⁸ EAH.EG.Iruxok Agirrerri (1939-03-19) Era berean Iruxo erreketeeekin politika bateratu bat ezarri nahi du, edozein momentutan Euskal independentzia aldarrikatzeko aukera eskaintzeko FO eta Quay d'orsiri *la comunicación con los requetés nos permitiría entrar en nuestro país sin disparar un tiro, aunque pasáramos porque se llamara Navarra y fuera monarquía, haciendo rey al candidato carlista. Pararíamos a ser la mayoría republicana gobernante con una monarquía ¡que más da!*

Otra cosa es, intentar que en Madrid se da un recuerdo a nuestro problema, no bajo el punto de vista político- lo creo inútil- sino del humanitario. En Madrid debe encontrarse Velar en estos momentos. Con Madrid hay clave para que puedas dirigirte allí. Los periodistas de aquí aseguran que, Besteiro va a entenderse con Franco, Creo que no perderíamos nada con intentar plantear a Besteiro la verdadera situación- persecución, presos incauciones, Ley de Responsabilidades, prohibición de hablar el euskera... conjunto de matices a los que alcanza la norma de no represalias que parece va a adoptarse, forzado Franco por la situación internacional.

Azkenik, Gerra Zibila akordioarekin bukatzeko saiakerak jarraitu zuten Lizasok honako hau idazten dio Agirrerri³⁷⁹:

le informa dada por el abogado Stevens, sobre el fracaso de la iniciativa de una convocatoria de conferencia de poderes amigos de la paz, para acordar una acción conjunta contra los agresores, debido únicamente a Inglaterra; y la divergencia de criterio entre los responsables de la política inglesa. Hay dos grupos capitaneados por Lord Halifax (alianza Rusia) cree que deben acordar con Rusia garantizar las fronteras de Hungría y Rumania mientras el grupo liderado por John Simons aboga (alianza Italia romper entente) de que Inglaterra NO Puede garantizar las fronteras de Norte de Turquía. Posible más dimisiones como Cooper y Eden.

Argi dago Ingelesak Espainiako auzia behin betiko bukatzea nahi zutela. Franco lasaitzeko garaia heldu zen. Behin gerra bukatuta delegaritzaren lana asistentzia eta hartu eman diplomatikoetan zentratuko da propagandan bezain beste. Azken batean asistentzia eta diplomazia eta ildo beretik propaganda ia-ia eskua emanda joango baitira.

Orokorrean, Gerra Zibil garaian Delegaritzak sekulako lan diplomatikoa eraman zuten aurrera. Iruxo abenduan etorri zenean oso pozik zegoen Lizasok eta Gondrak egindako lanarekin. Propaganda ezin hobea zela irizten zuten eta E.M. Wright agentziari eskerrak eskuratutako kontaktu-sare informala ikaragarriak iruditu zitzaion. Bartzelona eta Paristik egindakoa ikustea zaila omen zen. Horrez gain, Katalanekin sintonia ona bazen ere, Batistaren jokatzeko modua ez zitzaion gustatzen. Lizaso Batista bezalako pertsona batekin, akzio koordinatu bateratu minimo bat eramateko gai zelako goraiatzen zuten.

5. OGASUN, HORNIKUNTZA ETA LAGUNTZA SOZIAL SAILETAKO DELEGARITZAK

Jose Inazio Lizasok gidatutako ordezkariak ez zen izan Euskal Gobernuak delegaritzak bakarrik. Lehendakariak gain, Ingalaterran Euskal Gobernuaren beste sail batzuk izan zituzten ordezkari ezberdinak. Besteak beste, Eliodoro de la Torrek zuzendutako Ogasun sailak edota Santiago Aznarrek zuzendutako Industria eta Ontzidi departamentuak, Ramon Maria Aldasororen merkataritza eta hornikuntza sailarekin elkarlanean martxan jarritako delegaritzak ezarri ziren. Frantzia izandako hedadura izan ez bazuen ere, Laguntza Sozialeko hainbat ordezkari ere aritu ziren Ingalaterran. Erresuma Batuak Gerra Zibilerako politikan eta hornikuntzan zuten papera zela eta Laguntza Sozialeko sailburuak salbu, Antonio Gracia jauna, beste hiru sailburuak, Torre, Aznar eta Aldasoro Ingalaterran izan ziren. Alfredo Espinosa, osasun sailburua ere bertan izan zen 1937ko otsailean erosteta batzuk zehazten. 1938an Aldasororekin batera Leizaolak Erresuma Batuan zehar propaganda bisitaldi bat egin zuten³⁸⁰.

Bisita horiek baino, Ingalaterran ezarri ziren ordezkariak aztertzea izango da sail honen xedea. Ogasun eta hornikuntza sailekin hasiko gara. Elkarren arteko koordinazio benetan altua izango dute bi departamentu hauek batera arituko dira askotan.

³⁷⁹ EAH.SA Se:Delegación de Londres L:5/569 Lizaso a Agirre (1939-03-22)

³⁸⁰ CDMH PS-Bilbao 39. Frantzia eta Ingalaterrara egindako bideiaren Alfredo Espinosaren txostena. Otsailaren 2tik 16ra egon zen bertan. Besteak beste home Officeko Oliver jauna eta Nicholas Straussllerr, Basterrecheari 25 Hawker Fury hegazkinen erosteta faltsu batean 240.000 libranen estafan.

Ogasun-ordezkarriak

Euskal Ogasunak interbentore ezberdinak ezarri zituen enpresa eta ordezkaritzetan eta Ingalaterrako ordezkaritza hori Kepa, edo Pedro, Albisuren, gain erori zen. Londoneko ofizinara 1936ko irailean heldu zen *Banco del Comercio de Bilbako* ahaldun bezala eta Parisko ofizinako Banco Bilbaotik Antonio Goiri zuzendariak, Txomin Epalzaren (aita) oniritziarekin, inspektzio bat egitera bidali zuen. Urriaren 10an Albisu Parisko Euskal ordezkaritzako diru-zain izendatu bazuten ere, haren egitekoa Londonetik errazago egingo zuelakoan hara mugitu zen, Banco Bilbaoren egoitzan ezarriz.

Horregatik, Paris-London-Bilbo artean ibiliko da 1937ko martxo arte. Orduan Londonen ezarri eta Marino Ganboarekin batera arituko da *Mid-Atlanticen Shipping Co.*-en. Euskal ogasunarentzat enpresaren kontuen kontrolaren ardura izango du. Honen sorkuntzatik, 1937ko uztaitetik 1938ko urtarril arte egingo du bertan lan. Errepublikak ez zuen begi onekoa, beraz azkar dimititu zuen espainiar funtzionario gisa aritzen ari zela iruditzen baitzitzaion. Horri, Ortuzarrekin izan zituen arazo pertsonalak gehitu zitzaizkion. Baionan euskal ogasuneko interbentore karguari muzin egin ostean, Ziburun ezarri zen bere familiarekin. 1947an zenduko da³⁸¹.

Albisuk *Mid-Atlanticeko* kargua utzita, Elias Esnarrizaga, aurretik Bilbon eta Burdeoson ogasuneko ordezkaritza izandakoak hartuko du bere postua enpresa britaniarrean. Kasu honetan ere, ez da Ortuzarrekin ondo moldatuko³⁸². Gerra bukatzean, eta Marino Ganboaren laguntzaz *Pair Fishing Co.* gerente bilakatuko da.

Marino Gamboa, Ogasun, Industria eta Komertzio sailen ordezkaritza izango da. Filipinetan dirua egindako familia batean jaioa, Gamboak Lekeition igarotzen zituen udaldiak. Gerra hasi eta berehala euskal agintarien esku jarriko da. Finantza munduak ederki ezagutzen zituenez, 1936ko azken hilabeteetan Londonen eta Parisen arituko da, dibisak sal-erosi, kontuak zabaldu eta dirua mugitzen. 1937ko martxoan, euskal ongietekin librak egiteko *Marino Gamboa Ltd.* irekiko du Londonen. Albisuren eta Finzi-Laymaneko gerente zen Burbridgen laguntza izango du lehendabiziko momentuetan. Eskuratutako diruarekin Euzkadin behar ziren materialak erosi eta errefuxiatuontzat laguntzeko.

1937ko uztaietan Campsa-Gentibusen filiala izango den *Mid-Atlantic Shipping Co.*-ko gerenteetako bat izango dugu Gamboa eta gerra bukaeran Mexikora abiatuko den *Vita* ontzi ezaguna alkatuko du Pablo Azcaratek hala eskatuta.

Euzkadiko hornikuntza eta finantzak

Euskal lurraldeetako hornikuntza bermatzeko gerrak aurrera egin zuela sistema ezberdinak jarri ziren martxan³⁸³. Hasiera batean, 1936ko irailaren 10ean Espainian eta atzerrian erosketak gauzatzeko *Comité Regulador de Abastecimiento del Norte de España* izeneko organismo bat sortzen dute Bizkaiko defentsa komiteak eta Asturias, Santander eta Gipuzkoako autoritate zibilak, 15.000.000 pts. hasierako kapitalarekin. Halere, bi hilabete eskas betetzean, Euzkadiko gobernuak azaroaren 10eko dekretu baten bidez desegin, eta Ramon Aldasorok zuzendutako

³⁸¹ Goigana *et al.* (2007), 702 Manuelek Agirrerri (1944-07-02) Albisuren heriotzaren berri ematen dio

³⁸² EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:258/02 Irujori Esnarrizagak sekulako kritikak egiten dizkio Ortuzarri eta *Mid-Atlanticeko* langileen gehientsuenei. Gamboa eta Albisu ez dira gaizki ateratzen Esnarrizagaren kritiketatik

³⁸³ EAH.EG.Hornikuntza eta merkataritza.S: Dirección General de Comercio y Abastecimiento del Norte de España V:3. L:476/03. Hornikuntza eta Merkataritzak idatzitako informe batean eskaintako datuak dira. Viñas (2007) 195-197 Regionalismo handia izan zela salatzen du.

hornikuntza eta merkataritza departamenduaren menpeko zuzendaritza bat eratuko da: *Dirección General de abastecimiento de Comercio y Abastecimiento de Euzkadi, Santander y Asturias*. Bilbon ezarri eta Amador Fernandez asturiarra izendatuko du buru. Erosketak biztanleriaren dentsitatearen arabera neurtuko dira, nahiz eta Asturiar meatzarien lan gogorra dela eta %1 gehiago emango zaie. Printzipioz eskuratutako hornigaiak hurrengo ehunekoetan bananduko %41 Asturias, Euzkadi %36,3 eta Santander %22,7. Errepublikako gobernuak kredituan 60.000.000 pts. utziko dizkio hornikuntza bermatzeko, hilabetero 15 miloi. Abian jartzerakoan eta nazionalen itsas-blokeo ekiditeko, *Time-Charter* formatuan bandera britaniarreko ontziak kontratatuko dira.

Erakunde honek baina ez du asko iraungo. Hasierako ordainketak Euzkadik aurreratuko ditu. Asturiarrek ordaindu ez eta bete beharrekoak huts egitean sortuko diren arazo finantzario eta politikoak zirela eta Fernandezek 1937ko otsailak 18an dimititu eta bere inizatibaz desegin zen ordu arte zuzendu zuen zuzendaritza³⁸⁴. Dagoeneko pleitatuta zeuden azken ontziak iritxi arte funtzionatu zuen zuzendaritzak martxoaren 31 arte.

Apirilerako Euskal Gobernuak kanpo komertziorako ministerio-arteko sekzio bat abian jarriko du. Sekzio hori, Eliodoro De la Torreren, Ogasuneko, Santiago Aznarren, Industria eta Marinakoa, eta Ramon Aldasoren, Komertzio eta Hornikuntzako, departamentuko kide banak osatuko dute eta esportazio-inportazioko sekzio buruak operatuko ditu batzorde honek aprobatutako erosketa-salmentak. Gerra egoeran zeudenez, eta Estatutu eta botere zentralaren arteko kompetentzia arazoak izan zitzakeenez gobernu akordio baten ostean eratuko da. Ez da Boletín ofizialean azalduko. Ofizialki aterako den dekretu bakarra ogasuneko departamentuak atzerriko sal-erosketak burutzeko eskumena izango duela da. 1937ko apirilaren 2ko dekretu baten ostean, Torrek *Euzkadi'k o kaltetatik atzerrira gauzak bidali al izateko Ogasun Zaingoak emango duan baimena aski izango da, gudak diraun bitartean*. Beraz, ogasunak esportazioen kontrol osoa izango du. Dena dela, batzorde hau Euzkadiko ekonomia batzorde antzeko bat izango da hurrengo sei eskumenekin³⁸⁵:

1. *Ordenar y dirigir toda la vida industrial, minera, navegación, comercio etc. Con una libertad de acción de aumentar o reducir la producción según la Sección de Comercio Exterior, juzgue necesario.*
2. *Atenderá a las peticiones de divisas extranjeras de acuerdo la preferencia necesaria, en aquellas industrias que sus productos puedan ser objeto de exportación o incrementará la obtención de moneda extranjera.*
3. *Deberá conocer las necesidades todas de abastecimiento civil y militar, para poder atender con preferencia sus necesidades.*
4. *Organizará en aquellas naciones que puedan ser convenientes una delegación o representación, que nos tenga al tanto de los posibles negocios y que su nombramiento y relación dependa exclusivamente de esta Sección*
5. *Siendo un factor importante la exportación del mineral y explotación de nuestros barcos, es necesario sea un organismo solo, el que acuerde con la Sección de Comercio Exterior lleve la gestión de estos dos asuntos*
6. *A través del Departamento de Hacienda, se controlará todo el movimiento de divisas extranjeras que podrá conceder petición alguna sin V.B. de Comercio Exterior.*

Esportazioak euskal ogasunaren menpeko egiteak, Negrinen haserrea eragin zuen. Euzkadiko Boletín Ofizialean idatzitako dekretuaren kariatara, apirilaren 13an Negrinek, oraindik ogasuneko ministro, konstituzioaren 14. artikulua aipatuz Lehendakariari jakinarazten dio

³⁸⁴ EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:100 Legajo: 25/03 Ramon Aldasoro eta Amador Fernandezeko korrespondentzia.

³⁸⁵ EAH.EG.OD:S:Secretaría General Bilbao. Secretaría General de Hacienda Se:Expedientes V:13 L:569/01; CDMH-PS-Bilbao, 258-3 Inportazio-exportazio sekzio buruak Ogasun departamentuari (1937-06-09); Euzkadiko Aldizkari Ofiziala (1937-04-02)

Gobernu zentralaren konpetentzia eskusiboa dela aduanen erregimena eta ondasunen zirkulazioa. Hortaz, Torrek igorritako agindua eraginik gabe dagoela ulertzen du³⁸⁶.

Eliodorok igorritako dekretuan, gerraren genesitik eutsitako patroiekin jarraitzen du. Euskal Gobernuaren helburu handienetakoa atzerriko dibisa erreserba handi bat izatea izango da. Hala, herrialdeak behar duenaren analisisa egin ostean erosiko dira ongiak, batik bat esportatzeko sor daitezkeen ondasunetan zentratuz. Batzorde ekonomikoak zer erosi eta zer produzitu agindu badezake ere, ez du enpresan gain osoki hartzen. Ekonomia zuzendu bat da eta batzorde honen bidez ekonomia osoa askoz gehiago erregulatzen bada ere, ez da erabat gobernuaren eskuetan jarriko.

Hornidura erregulatu zen bezala, aldaketa ekonomiko nabarmenak eragin zituzten erregulazioak abiatuko ziren Gerra Zibilean zehar. Eliodoro de la Torrek, lehendabizi Bizkaiko Defentsa Batzordeko ogasuneko buru eta jarraian, Euskal Gobernuak ogasun sailburuak gauzatuko du aldaketa, gerrarako beharrezko baloreak ziurtatzeaz gain, ekonomia lokala egonkor mantentzen saiatuz. Horretarako, errentak erregulatu, zerga berriak ezarri (transakzio guztietan %2ko zerga esaterako), negozio eta partikularrek zirkulazioan izan zezaketen diruari topea jarri eta, batez ere, zirkulazio monetarioa egonkortzeko neurriak hartuko ditu. 1937ko martxo alderako, moneta berri bat jaulki zuen, *Euzkoa*³⁸⁷. Aipatutako guztia lortzeko, Errepublikak 1936ko irailean sortutako *Caja de Reparaciones* erara Batzorde Probintziala Bizkaikoak altxatuen aldeko pertsoneri multak ezarri eta haien ondareaz jabetu ziren Gerra esfortzua ordaintzeko. Euskal Gobernuak praktika berdinarekin jarraitu zuen eta *Junta Calificadora Central* izeneko erakunde baten bidez, traidore horien ondasunak konfiskatu³⁸⁸. Azkenik, atzerrian ongiak erosteko Errepublikak hasieran egin bezala finantzatzen jarraitzen zion Euzkadiri. Horren adibide da 1936ko abenduaren 21ean bukaeran Frantzia Negrinekin izandako bilera. Negrin, orduan ogasun ministro eta Delgado, ekonomia zuzendaria Justo Zubizarretarekin, Parisko sekzio komertzialeko delegatuarekin, bildu ziren. Euskal Gobernuak behar zuen irina erosteko funtsak eskatu zituen bileran Zubizarretak. Eskaera zela eta Delgadok Frantzia diru gabe daudela adierazi eta Negrin kexu zen. Behin eta berriz errepikatu omen zuen bezala, hilabeteko abisua eskatzen zuen funtsak prest izateko. Arazoari aterabidea emateko, eta halako beharren aurrean funts gabe ez geratzeko eta erosketak eraginkorrako egiteko Campsa monopolioari eskumen gehiago emango dizkiote. 1937ko uztailean ofizialki Campsa-Gentibusek hartuko dituenak hain zuzen ere. Errepublikaren behar duen janari eta materialak erosi eta saltzeko enpresa izango da³⁸⁹.

Ogasun sailak banketxe eta elkarte finantzarietan ere esku hartuko zuen. 1936 abenduan, Ogasunak ordezkari bat berezi bat sortuko zuen banka pribatuaren jardura ikuskatzeko, eta otsailaren 9 eta 10eko dekretuekin, ekonomia fiduziarioran aholkatzeko Euzko Diru-etxeen Batzordea eratuta Euskal Gobernuaren kontrolpean dagoen eremuan egoitza duten banketxe eta kreditua jaulki dezakeen edozein sozietateko aurretik zeuden kontseiluren edozein akzio baliogabetzen du. Neurri hauekin, ekonomiaren kontrola hartzearekin batera gerra aurretik euskal lurraldean, hobeki esanda, Bizkaian, egoitza zuten elkarten baliabideen erabilera ziurtatzea zuten jomuga.

³⁸⁶ EAH.EG.OD.S:Secretaría General. Bilbao. Secretaría General de Hacienda Se:Expedientes V:150 L:559/01 Negrinek Agirreri (1937-04-13)

³⁸⁷ Sanchez (2012) Datu ekonomiko eta banketxeei buruzko informazioa hemendik.

³⁸⁸ Sebastian (1999)

³⁸⁹ EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:100 L:26/01 Justo Zubizarretak Euskal Ogasun sailari (1936-12-12)

Espainiako banketxe garrantzitsuenetarikoak egoitza zuten Bilbon. *Banco Bilbaok* Espainiako merkatu kuotaren %11 zuen 1936ko martxoan eta Banco Vizcayak %8. Nazioarteko markoan Banco Bilbao zen sare onena zuena. 1902an ireki zituen bere ofizinak Parisen eta 1918an Londonen. Espainiako sare onena izan arren, Sanchez de Asiainek finantzazio ikuspuntu batetik ez du uste errekurtsu asko mobiliza zitzakeenik, nahiz eta nazioarteko salerosketak egiteko diru kopuru interesgarri bat bazuen. Horregatik Errepublikak, nazionalek eta Euskal Gobernuak sare hauek kontrolatzen saiatuko dira³⁹⁰.

Beherago aztertuko dugu borroka hori. Lehen zati honetan, Euskal Gobernuak beharrezkoak zituen hornidurak ekartzeko eta horiek erosteko beharrezko dirua biltzeko hartutako neurriak ikusi ditugu. Ogasunean sakon sartu zuen eskua, baina Torrek Negrini bidalitako eskutitz batean argi lagako du bere asmoa: *Nuestro propósito es ir a una economía dirigida, con exclusión de todo control, intervención, colectivización y demás monsergas de que esa Ciudad se halla plétórica*³⁹¹.

Ofizina Komertziala

Gerra hasi zenean, defentsa batzorde eta partidu politikoek lehendabizi eta baita Euskal Gobernuak berak ere, lurraldean gerra aurretik abian zeuden enpresa pribatuekin elkarlanean aritu ziren. Halere, gerraren esfortzuen eskakizunei so eginez, pixkanaka egitura berriak sortzen hasi ziren.

Abuztu eta irailean EAJren izenean hainbat misio ezberdin bidaliko dira arma bila. Antonio Irala eta Monzonek, irailean Lezo Urreizietak Hamburgkotik euskal lurraldean sartuko zituen 5.000 mauserak Pragan erosiko zituzten. Bilbon Espainiako Bankuan zeuden urre kutxa batzuk Ondarroako portutik Baionara pasata finantziatuak. Egon ziren operazio gehiago. Halere, aipatu izan diren guztiak ez ziren armak erostera bideratu. Errusiar zerbitzu sekretuak lagunduta, Londonen Marino Gamboak *Howard Tenenses Ltd.* enpresa sortu eta Walter Kritvistkyren aginduei jarraiki Espainiara armak bidaliko zituela iradoki zuen Iñaki Egañak. Ganboak beste enpresa bat sortuko du eta aipatzen den laguntza hau, *Anglo-Soviet Shippinekin* itxitako akordio bati dagokio. 1937ko maiatz-abuztu bitartean emandakoa. Euskal barkuak alokatu zitzaizkion *Time-Charter* bidez enpresa honi, ez armak erosi³⁹².

Gerra hasi zenean, Francisco Mendiialdua enpresariak hauspotuta, irailerako martxan zen *Junta de Defensa del Norte*. Iparraldeko eremu Errepublikarrari armak erosteko organismoa zen eta Kantabria, Euzkadi eta Asturiasko ordezkariak osatzen zuten. Potez hegazkinak erosi eta pilotuak kontratatzeaz arduratu ziren. Adibidez, Galy, Rene Boyer, eta Domenge anaiak, Rene eta Willey. Bertan Mendiialdua anaiak, Daniel eta Francisco ziren EAJren ordezkariak. Pedro Leiva anarkista tartean zen, baita Eusebio Rodrigo sozialista. Armak erostea ez zen beraien funtzio bakarra. Nazioarteko merkatuaren inguruko gomendioak ere eskaintzen zituzten. Mineral esportazioarekin £ eskuratzeko aukera ezberdinak adierazi zizkioten jaurlaritzari. Ingalaterrarekin indarrean zegoen merkatal-akordioaren erruz, Euskal Gobernuak saltzen zituen esportazioengatik ez zuen £rik eskuratzen, ingelesaren esku geratzen ziren Clearing ofizinan. Mundu hartan aritzen ziren esportatzaileak etxe gutxi zirenez, Loeck, Wild, Martyn, Wakkonig, Mendiialdua, *clearingna* aldatu gabe etxe horiekin eskema berri bat abian jarri ezker £ horiek

³⁹⁰ Sanchez (2012), 881-891

³⁹¹ CDMH. Negrin Funtza MGO.4.01.05.00.02.00.01

³⁹² Aizpurua (2009) Egaña (1998) jarraituz iradokitzen du. Alfonso Olaso izeneko ABWHERreko espia bat izan omen zen enpresa hartan. Armak ekarriko zituzten barkuok ziur, baina ez Euskal lurraldera. EAH.EG.OD.S:Secretaría General. Secretaría Se:Documentación GeneralV:50 L:578/09

jaurlaritzaren ogasunarentzat eskuratzeko aukera aipatzen du³⁹³. Ez dakigu eskema hori martxan jarri zen.

Behin Euskal Gobernuaren osatuta, eta nahiz eta uste zuten Iparraldeak bere komisioa mantendu behar zuela, erakundea desegin egin zuten Euskal Gobernuaren egokiespenak jarraituz. Errepublikak armak erosteko ezarritako egituretan Francisco Mendialduak eta Pedro Leivak ordezkatzeko zuten Euskadi³⁹⁴.

Arlo ekonomikoari dagokionez, Mendialduatarrak Euskal Gobernuarekin kolaboratzen jarraitu zuten. Delegaritza politikoa izateaz gain, sekzio komertzial bat ere izango da Parisen. Euskadiko enpresek ez ezik, Frantzia operatzen duten euskal enpresarioek harekin estuki kolaboratuko dutelarik. Mendialduatarrak dira agian adibide garbiena. 2 Lord Byron kalean zuten *Societe Anonyme des Etablissements Mendialdua* eta Londonen 81 Gracechurch street, *Mendialdua & Ore* enpresen bidez operatuko zuten. Hauen aitak, Nicomedes Mendialduak, 1920an, mende hasieran irekitako Bilboko *Mendialdua y Compania Limitada* zen matritzea³⁹⁵. Minerala esportatzen zuten Ingalaterrara. Euskal Gobernuak agindutako operazioak egingo zituzten. Adibidez, Air Pyreneeseko Galy pilotuari nomina ere ordaindu zuten. Horrez gain badirudi, *Société Manufactures d'armes* enpresa armamentistikoan inbertitu zutela³⁹⁶.

Torrek, 1936 hasieran Espainia eta Ingalaterraren artean sinatutako *Anglo-British clearing* britainiarrarekin hainbat arazo zituenez, Mendialduaren kontua erabili zuen Euskal Gobernuaren ordainketak aurrera eramateko. *Clearing* hau 1936ko abenduan bukatuko zen, *oficialmente anunciase hoy suspensión clearing. Pagos podrán hacerse directamente a exportadores de mercancías importadas reino unido después sábado día 19*³⁹⁷. Marino Ganboak Parisen zuen egoitzarekin ere kontaktuak izango dituzte. 1936ko azaroan Torrek Parisko *Banco Bilbaotik National City Bankera* \$2.000 pasako dizkio³⁹⁸. Gamboak urri eta azaroan Londonen, Torreren aginduetara izango den Albisuri lagunduko dio dirua mugitu, urrea saldu eta bankuko kontuak irekitzen. Nahiko arazo izango dituzte. Albisuk adibidez honela idatziko du: *Estos ingleses, muy imparciales según ellos, exigen lo inexplicable(...) aquí la Banca y City es tan contraria a nosotros que temo no decreten alguna medida, aunque tal como estan abiertas las cuentas será difícil nos las quitan*. Kontuak kendu ez baina, ireki eta mugimenduak egiteko arazo askori egin beharko diete aurre. Adibidez, Gamboarekin batera City Bankera joan zirenean ez zuten lortu kontua irekitzea³⁹⁹:

Referente CityBank Londres: como te decía ayer hemos ido hoy marino Gamboa y yo al banco mencionado, donde tantas facilidades nos ofrecieron ayer y ha sido grande nuestro disgusto, al oír decirle que no podríamos abrir la cuenta que la víspera solicitamos. Su hermetismo ha sido

³⁹³ EAH.EG.OG.S:Secretaría General. Eliodoro de la Torre Se:Hacienda-Londres-Correspondencia V:200 L:801/05; CDMH-RRPP-75-707 Mendialdua familiarentzat sekulako isunak jarri zizkion erresposabilitate politikoko epaitegiak. Franciscori 200.000 pts. Ez dakite bere filiazioa. Danieli 500.000 pts. Euskal Gobernuko delegatua eta Frantziako gobernuarekiko lotura lanak egiteaz egotzita. Nicomedes aita La Rochelleko epaiketaren nazionalisten alde egiteagatik 250.000 pts. Rosario arrebak 100.000 pts ordaindu behar. Gizona Mexikon zegoenez dibortziatu egin da

³⁹⁴ EAH.EG.LD.S:Secretaria general (Bilbao, Barcelona, Paris). Secretaria. V:100 L:26/01; D.Mendialduak Agirreri (1936-10-14) Urri erdialdera Patxik (Mendialdua edo Basterrechea?- ziurrenik lehena-) 10.000.000 pts. gastatu zituen. *Ibid.*:26/02 Lizasoren txostenaren ondorioz (BBB-281-1), IRAko O'Donellekin elkartuko da urri-azaroan; Espainiako arma batzorde ezberdinen inguruan Komisio ezberdinen inguruan ikusi: Viñas (2006), 128-32 *Société d'études et d'Entreprises*-ekin monopolioa; Viñas (2007) 90-121: Servicio de Adquisiciones Especiales de Paris. Zehazki, Iñiguez, (2016), 183-4 Mendialduak bi Gordou Leseurre erostea lortu zuen 1936ko abuztuan hasitako gestio batzuen ostean 1937 hasieran valentziara heldu ziren.

³⁹⁵ Mendialdu *Euzkadi* (1936-08-18) 100 pts. Emango dituzte gerra esfortzurako.

³⁹⁶ CR.K.00013.C.5 UR partiduko Juan Sanchez Asiainenek utzitako diruaz gain 800.000 (Fr. Suposatzen dugu, ez baita zehazten) inbertitzen ditu

³⁹⁷ EAH.BEY.Si:LEG 298 DOC 63 ARCH 21 Albizuk Torreri (1938-12-18)

³⁹⁸ EAH.BEY.Si:LEG 298 DOC 17 ARCH 21; *Ibid.* Si:LEG 298 DOC 24 ARCH 21

³⁹⁹ Albisuk Urtanteari (1936-10-23) (1936-11-13)

completo. Solamente nos dijeron que no querían intervenir su “political acts” (fines políticos). (...) maldiciendo a toda la gentuza financiera del orbe. Hau esan ostean, hurrengo egunean Irlandara zuzendu behar zen, Irish Banken kontu bat irekitzera.

Albisu eta Gamboak gero ikusiko dugun ofizina osatu arte, informazio ekonomikoaren berri eta dirua mugitzen zuten, hau da, kontuak Euskal Gobernuarentzat kontabilitatea eramanez eta dirua eskuragarri jarri. *Marino Gamboa Ltd.* sortzean beste dimentsio bat hartuko du ofizinak. Dirua mugitzeaz gain, £ gehiago eskuratzeko beharra argi ikusten dute 1936ko abendurako Daniel Mendialduak eta Torrek. Beraz, Londonen Parisen antzeko ordezkari bat, sekzio komertzial bat, ezartzea beharrezkotzat jotzen zuten 1936ko abendu hasieran. Torre Londonen izango zen goian aipatu dugun *Clearing*-ari buruzko akordioak kudeatzen. Negrini idazten dion gutunean argi geratzen da zein asmo zituen ofizina komertzial horiek irekitzeko. Azcarate eta Fernandez Shaw diplomatikoak Torrek iradokitakoarekin ados daudela esan ostean honela jarraitzen du gutunak⁴⁰⁰:

Gestionare en Bilbao la centralización en una oficina de Londres la Gerencia de los barcos de aquella matrícula para obtener el rendimiento debido en Libras. Igualmente, hare que la cámara minera de Bilbao me venda la totalidad de su producción para que por medio de la oficina de Londres se venda a los centros consumidores y la moneda que se obtenga a nuestra disposición. En ambas oficinas, por tratarse de intereses vascos, intervendrá personal que conozca nuestro problema y por lo tanto de absoluta confianza, que actuara de acuerdo con la sección comercial de la Embajada con la que estoy de perfecto acuerdo porque he observado que entienden la cuestión admirablemente.

Hoy empiezan las gestiones para solucionar la cuestión del Clearing y confió llegaran a una solución ventajosa para nosotros. Para ayudar en esta función y actuar en lo sucesivo en moneda extranjera, hemos quedado de acuerdo en que la persona indicada sería nuestro representante Pedro de Albizu, a quien ruego a V. nombre financiero para ayudar a V. en el Centro de Contratación de moneda en Valencia, le enviare en cuanto llegue a Bilbao a un empleado de no menor categoría apellidado Amuritza y que tiene experiencia bancaria de muchos años [Clearing-a abenduaren 19an konponduko da.]

Si usted puede centralizar en ese puerto (Valencia) toda la fruta y otros materiales y exportarla OBTENDRIAN gran cantidad divisas.

Para intentar centralización envío a ese amigo de Prieto Manrique Diez. Por mi parte, si V. accede a la designación indicada a favor de D. Pedro Albizu y este puede desarrollar la labor encomendada en cuanto a fletamentos y minerales, creo poder disponer mensualmente de unas 50.000 libras esterlinas.

Hortaz, bi proiektu zituen Torrek buruan. Euskal lurraldeko esportazioak kontrolatuz eta euskal flotaren potentziala esplotatuz £ eskuratzeko. Horretarako bi proiektuok zentralizatu ditzakeen ofizina bat irekitzea zen helburua. Lortutako libreakin *banco exterior de Euzkadi* bat osatzeko proiektua aurkeztuko du Daniel Mendialduak abendua erdialdean⁴⁰¹. Proiektuan, saltzen ziren mineralei zerga txiki bat ezartzeko iradokizunak ere luzatzen ziren.

Kontuan izan behar da ordurako Euskal interesen alde arazo bat gainditu zela. Ez zen *Anglo-Spanish Clearingaren* bidez traturik egin behar eta zuzenean enpresekin adostu zitzaketen prezioak⁴⁰². Albisu eta Torreren arteko telegramak ikusirik argi dago, Albisuren eskuetan zegoela kontratuak negoziatu eta operazioak egin zirela ikuskatzeko lana. Albisu baina urtarril hasieran Bilbora bueltatu zen. Urtarrilaren 28an, Humphrey Robertsek gidatutako *Fullerton Rose* ontzian Londonera bidali behar ziren 21 urre sakuen inbentarioa egin behar baitzuen.

400 MGO.4.02.02.00.01.002 Torrek Negrini (1936-12-09)

⁴⁰¹ EAH.BYE.Si: LEG 297 DOC 5 ARCH 21 Torrek lan egindako Westminster bankuarekin gauzatu nahi proiektua

⁴⁰² Torrek Albisuri (1936-11-21) Si: LEG 298 DOC 35 ARCH 21: *Todos embarques mineral pendientes que son numerosos. Comunica también formula dicho deposito libras para proponerla todos compradores minerales incluso Orconera. Te recuerdo que caso no resultar favorable esta fórmula dejaríamos perder importantísima partida libras muy necesaria (...) insiste Iñaki como sea*

Londoneko Banco Bilbaora pasa zituzten balore hauek diskrezio handiarekin⁴⁰³. Falta izan zenean, Parisa desbideratu ziren operazioak, Justo Zubizarretarengana, zeinak 1937ko abuztu arte izango zen Parisko ofizina komertzialaren sekzio buru.

1937ko urtarrilean Justo Zubizarretak Torreri abisatzen dio pezeta depreziaturik, Euskal lurraldeetan dauden mineral eta itsasontzien potentzialtasuna esplotatzeko garaia heldu zela:

Creemos necesario iniciar cuanto antes el proyecto de establecimiento de la oficina de compañías nacieras vascas en Londres, controladas por el Estado Vasco (...) Los fletes suben de día en día y la flota vasca puede ganar muchos miles de libras que hacen falta, ahora más que nunca en Euzkadi

Eskema hau abian jarri ezkerro hurrengo onurak eskuratzeko aukera izango zuten⁴⁰⁴: *La trama del proyecto estriba en sacar de Bilbo las casas para que en Londres o donde sea trabajen con más tranquilidad e independencia. Que sus libros y negocios estén bajo nuestra inspección, y que las libras de utilidad liquidan nos las den a cambio de pesetas en Bilbao. Urge hacer algo con los barcos.*

Ofizina Marino Gamboak irekiko du 1937ko martxoan. Euskal Gobernuak banketxeen erreforma egitean, Gamboa *Banco Vizcayako* presidente hautatu nahi zuen Torrek. Estatu Batuarrek muzin egin zion postu hari, baina bere burua bestelako misio baterako eskainiko zuen, halere. *Recogido con el mayor agrado el ofrecimiento (...) para que se te designe un puesto en el que puedas servir a tu patria. Y no creo que pase mucho tiempo sin que se te hable de alguna misión*⁴⁰⁵, Zeregina Londonen porlan, burdina, altzairua...esportatuz eta Euskal Gobernuak bere esku konfiskatu zituen barkuak pleitatzearaz £ egitea zen⁴⁰⁶. Ez dakigu ziur enpresa hau edo gero hitz egingo dugun *Mid-Atlantic Shipping Co.* hasteko, baina Eliodorok £20.000 kapitala aurreratuko dio Marinori. Gerra bukatzean eztabaida izango dute funts batzuen inguruan⁴⁰⁷.

Martxoan Banco Bilbaoko egoitzan, Bilbao Housen, 36-38 New broad Streeten ezarri zen Albisurekin batera. Euskal Gobernuak bankuarekin auzitegietan zituen arazoak zirela eta 77-78 Gracechurch Streeteko lokala alokatu zuen 1937ko maiatzean⁴⁰⁸. Lokalen alokairuen berri ematerakoan, diruz larri dagoela adieraziko dio Torreri. Eskuratutako irabaziak errefuxiatuentzat bidali ditu Baionara, eta ez du likidezirik industriak eskatzen dizkion 65.000 tona ikatz erosteko. Errusiarrei hainbat ontzi *Time Charterrean* alokatu eta laster funtsak izatea espero zuen. Dirua baina ez da arazo bakarra. Negozioen munduan erresistentziak nabari ditu. Horregatik, enpresa ezberdinek botereak bidaltzeko eskatzen du⁴⁰⁹:

se va dilatando la cuestión de Banco Bilbao y si ganamos apelaran por los que ha alquilado unos locales (...) ·acrecentando las dificultades con el National City Bank (...) ruego el envío de esas representaciones mineras y navieras etc, pues temo que cualquier día se nieguen a operar con nosotros

⁴⁰³ Lezamiz (2016), 72-76 Ramirez de Olano eta Alfredo Espinosa joan ziren Londona barkuan. EAH.BYE. Si: LEG 298 DOC 106 ARCH 21 Azcaratek Torreri (1937-01-14) Urre sarrera libre. Abisatu behar dute Albisuri sartzeko baimena lortzeko. BAdirudi ez diotela lortuko eta barkuan etorri beharrean abioiez etorriko dela

⁴⁰⁴ EAH.EG.OD.S:Secretaría General. Bilbao. Secretaría General de Hacienda Se:Expedientes V:300 L:557/04 Zubizarretak Torreri (1937-01-13) (1937-01-19) Ideia Mendialdua anaiak, Lezok izandakoan oinarritua.

⁴⁰⁵ Torrek Gamboari (1937-01-12)

⁴⁰⁶ EAH.BEY. LEG 298 DOc 219 ARCH 2 Gamboak Torreri (1937-03-24) Cardiffko Emili Jones Euskal Gobernuaren ordezkari bezala mineralak saltzen ari da. Aklarazioak eskatzen ditu.

⁴⁰⁷ EAH.EG.OD.S:Secretaria General. Eliodoro de la Torre. Se:Correspondencia. V:800 L:607/05 Hasierako kapital horrez gain, Torreren iritziz Marinok zituen £56.000 gobernuarenak ziren. Marinoren iritziz, Bilbon zeuden enpresariak eskatu zitzaizketenez, badaezpada gordetzen zituen, epai galdu ezker bere poltsikotik ordaindu beharko baitzuen dirua

⁴⁰⁸ *Ibid.*

⁴⁰⁹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:100 L:282/04 Gamboak Torreri (1937-05-24); ALto

Horrez gain, Euskal Gobernuak kontratatuta dituen barkuen erlazio bat pasatzen dio eta Banketxeko botereak, eta beste enpresenak ere pasako dizkiote negozioak egin ditzan. Aznar kontseilaria Londresetik bueltan datorrenean, *Sota-Aznar* eta *Naviera Guipuzcoana* salbu beste enpresa guztien botereak, pertsonalki Marino Ganboak izango ditu⁴¹⁰:

Le adjunto las cartas credenciales de todas las Compañías Marítimas con residencia y matricula de Bilbao, para que Vd. Pueda manejar esos buques según sus conveniencias y necesidades (...). Vera Vd. Que en la que se refiere a la Casa "Sota y Aznar" se ha hecho una excepción en atención al comportamiento de esta Compañía y que de Vd facultado para intervenir en sus cuentas principalmente para controlar la producción de libras que hade ser después de los gastos imprescindibles de los buques de la misma entregadas a Vd. Para liquidarlas nosotros en pesetas.

Albisuk Marinorekin batera bere ofizinetan egingo du lan ogasuneko interbentore bezala. Luis Ortuzarrek hemen lan egingo ez badu ere, inguruan ibiliko da. Ingalaterrara 1937ko martxoan heldu eta C. Morganen *Cory's Trading Ltd.*ren inportazio-espertazio agente bezala zebilen lanean. Ortuzarrek, euskal negozio guztiak Gamboaren bitartez egiten zirela jakitun, hori aldatzeko eskatu zion Torreri *Una pena que los que conocemos el asunto bien y que podriamos hacer grandes ventas que proporcionarán a Euzkadi muchas libras sterlingas nos veamos puestos a un lado en nuestras propias actividades*⁴¹¹. Ez dakigu nahi zuena lortu zuen, baina badakigu, Ortuzarrek, 1937ko irailean *Mid-Atlanticen* lan egiten hasi zela. Bertatik errepublikarrek bota eta Orcina izeneko bat bere ordeztu jarri ostean, 1938an, beste enpresa batzuekin batera, EAJren diruarekin *Continental Transit* irekiko zuen. Hori 1938ko martxoan izan zen. *Continental* EAJren jardueretarako librak eskuratzeko sortu zen.

Continental £40.000 kapitalarekin hasiko du Ortuzarrek 1938ko martxoan. £10.000 bereak diren bitartean, £30.000 Torrek emango dizkio eta D.P. Barnetten, zuzendariaren izenean jarriko da enpresa. 1938ko azaroan £80.000 arteko kapital handiketa bat eman zen. £30.000tik £50.000ra igoko du EAJk bere parte hartzea. Ortuzarrek bere partehartzea zuzenean handiko ez badu ere, *Managment & Shipping. Co.* bitartez, zeinetan bera den lehendakaria, £20.000 jarriko ditu. %75ean *Continentalek* eta Ortuzarrek kontrolatzen zuten beste enpresa bat zen hura. Kapitala handitzean D. Barnett, C. Morgan eta Ortuzar ziren *Continentaleko* zuzendari. 1939ko otsailean Barnett gaixorik zelako, Doroteo Ziaurrizi pasa zion enpresaren kontrola, eta honek *Comite Basque de Secours aux refugiesi* emang dio *Dead of Trust* baten bidez.

Benetan irabazi handiak emango zituen enpresa da, adibidez 1939ko apirilean %40ko dibidendoak eman zituen. Euskal Gobernuak diru-beharra zuela eta, *Continental* 1940an likidazio prozesu batean sartuko da. Likidazioaren harira Ortuzarrek Manuel Iruxorekin zekulako borra izango du 1940ko hamarkadan⁴¹².

*Marino Ganboa Ltd.*ra bueltatuz, maiatzeko arazoak gaindituta, sistemak ondo funtzionatzen du aharik eta Bilbo erortzerakoan, Gamboaren enpresak porrot egingo duelakoan, Errepublikarrek batera Campsa-Gentibusen filiala izango zen *Mid-Atlantic Shipping Co.* osatuko duten arte. Errepublikaren babespean sortzen bada ere, euskaldunok aurretik pentsatutako eskema baten gainean eraikiko zen. Organismoaren helburua, Campsa-Gentibusek egindako erosketak Espainiara eramatea zen. Ia-ia Espainiarekiko esportazio-inportazio negozio osoa monopolizatu zuen eta hainbat filial sortu behar izan zituen bolumen guztia xurgatzeko.

⁴¹⁰ *Ibid.* Ogasuneko langile batek Gamboari (1937-05-29)

⁴¹¹ EAH.LO. L 14 EAH.BYE.LEG 298 DOC 176 ARCH 21 Ganboak Ortuzarrek egindako ofertaren berri ematen du.

⁴¹² EAH.EG.OD.S:Secretaría General. Eliodoro de la Torre. Se:Correspondencia V:40 L:621/02 Txomin Rola txostena. 1939 urtarriletik ekain arte lan egin zuen bertan. Ortuza eta Barnettek ez zioten erraztasunik eman. *Continentalen* egitea kritikatzeko du. Flete baxuegiak zituen negozio izateko. Dirua irabazi bazen ere, *Debia haberse ganado más*; EAH.LO.L:19-21

Esan izan denaren aurka, Gobernu agentzia bat zen, nahiz eta itxurak gordetzeko enpresa pribatu baten gisan mozorrotu. Abuztuaren 14an behean aipatuko ditugun hiru enpresariak hala onartzen zuten Sanchez Romanek sinatzea egin zien dokumentu batean. Ez da ahaztu behar Errepublikak ekainaren 28an dekretu bidez konfiskatutako ontziak erabiliko zituela⁴¹³.

£3.000 kapitalarekin osatuko zuten 1937ko uztailearen 21ean Marino Gamboa filipinarrak, Jose Inazio Aldama, sozialistak eta Edward Leader Burbidge ingelesak. Felipe Sanchez Roman abokatuak, Ingalaterrako beste abokatu batekin adostasunean idatzi zuen enpresaren araudia.

Gamboa eta Burbidge Euskal Gobernuaren konfiantzazko pertsonak ziren. Orain arte, *Mid-Atlantica* gehien aipatu duen autoreak, Francisco Olayak, Burbidge Francoren jarraitzaile zela iradokitzen du. Ez dirudi hori egia denik. Ziurrenik gerra bukatzean Gamboak Agirrerren aginduak jarraituz errusiarren esku zegoen Euskal flota nazionaleri pasa zieneko txostenen baten ondorioz pentsatu zuela. Gambak Agirre eta EAJren konfiantza osoa jarraituko du izaten eta 1950. hamarkadan, *Gamboa, Burbidge & Co.* izango dute bi hauek batera. Angel Gondra berak bertan egingo du lan. Traizioez ari garela, Aldama sozialista SIPM zerbitzu frankistako agente bezala identifikatzen duen dokumentu bat aurkitu dugu⁴¹⁴. Halere, eta erbestera joango delarik, ez dakigu zein puntu arte zen agente frankista ala Errepublikarekin batera pentsatutako azpijokoan zebilen. Zerbitzu ingelesek Errepublikari jakinarazi zion, hainbat ontzi errepublikar atxilotzeko *Mid-Atlantic* barnetik ateratako informazioa erabili zela. Hortaz, Aldama izan zitekeen informazioa ezkutuan pasatzen zuena, nahiz eta badirudien Marsellako ofizinetan ere bazituzten infiltratuak⁴¹⁵.

Zuzendariak bakoitzak £100 eta langileek £50 soldatak dituzte. Agentzian lan egin zutenen artean, euskaldun askotxo ditugu, Roque Vitoria, Echeverria, Angel Ojanguren, Victor Saez, Elias Esnarrizaga, Martin Lasa, Luis Ortuzar eta Manuel Urrutia. Manuel Urrutia Santiago Aznarrek Industria eta Itsas-merkataritzako delegatu bezala bidali zuen 1937an. Gamboaren ofizinatik kontrolatzen zituzten itsasontziak kontrolatzeko izendatu zuten⁴¹⁶. Ingalaterran geratu ziren 280 itsas-gizonak artatzerakoan hitz egingo dugu Urrutiari buruz zertxobait zabalago. Haren izendapenaren egitekoa, *Mid-Atlanticeken* ere egin baitzuen. Hartako ontzien ikuskatzaile bilakatuko zen eta rol garrantzitsua izango du TUCen babesa eskuratzen 1939ko martxoan. Albien, Sierra, Colas, Marcelino Gonzalez, Manresa, Olcina (edo Orcina) dira beste langile batzuk.

Luis Ortuzarrek hasieratik egin zuen lan *Mid-Atlanticeken*. Aldamak asko presionatu zuen hori gerta zedin. 1938ko otsailean baina, Gentibusek *Mid-Atlanticekin* zuen harremana eraginkorrago egite aldera, Bartzelonara joateko agindu zitzaion. Ortuzarrek aginduari entzungor egin eta kaleratu egingo dute. Aldama edo Delgado Torres ekonomia sailburuari egozten diote Ortuzar *Mid-Atlantitetik* bota izana. Egindako kontsulten ostean, ez zaigu erabat argi geratu zeinen aginduz bota zuten, ez dirudi Aldama izango zenik eta korrupzio salaketak daude tartean. Ortuzarrekin arazoak izan zituzten bakarrak ez ziren izan. Tentsio nabariak izan

⁴¹³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:100 L:282/04

⁴¹⁴ Olaya (2004), 163. Burbidge AGA.82/3103 Leg.832 Exp.1 SIPMek Jordana eta Francori (1938-08-18). Ontzi merkanteen klabeak pasa dizkie. Espia bat al zen?

⁴¹⁵ Monferrer (2007), 35

⁴¹⁶ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se: Lizaso V: 600 L: 611/01 Lizasok Vicente Alvarez-Buyllari (1937-07-01) Urrutiarentzat pasaporte berezi bat eskatzen dio, zein *nombrado por el Gobierno de Euzkadi como Capitan-Inspector de la Flota Vasca que controla dicha oficina* [la oficina de Gamboa] EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Gondra V:75 L:306/05

zituen euskal ogasuneko ordezkariekin. Albisu eta Esnarrizagarekin ondo konpondu zenik ez dirudi⁴¹⁷.

Ikusi dugun bezala, euskaldun ugarik egingo dute lan enpresa honetan. Euskaldunok itsas negozioetan zuten kontaktu eta esperientziaz gain, Euskaldunok egin zuten presio politikoaren ondorioz eman zen fenomeno da. Esan behar da gainera, ahalegin komertzial bateratu honetan, arazo asko sortuko direla Errepublika eta nazionalisten artean.

Goian esan bezala, abuztuan konfidentzialki bada ere, *Mid-Atlantica* gobernuaren agentzia balitza onartu zuten hiru zuzendariek. Horri beste buruhauste bat gehitu behar zaio enpresa abian jarri eta berehala. Sota-Aznar enpresaren ontzidua. Etxe honek erakutsi zuen leialtasun eta zintzotasuna zela eta inongo menpekotasunik gabe, aske operatzen utzi zitzaizen gerran zehar. Sota Bilbon geratu bazen ere, kontseilukideen beste zati bat, tartean Jose Luis Aznar nazionalen aldekoa zen eta haiekin ziharduen Bizkaiko ofentsiban⁴¹⁸.

Sotatarrek Euskal Gobernuarekin izandako akordioak zirela eta 24-26 barku zituzten 1937ko uztailean euren esku. Negozioarekin jarraitu eta Francoren ezta Errepublikarren eskuetan ez erortzeko enpresa bat sortu zuten Ingalaterran, *Bay of Bizcay Shippin Co.* Sota-Aznarrek enpresa honi saldu zizkion ontzi horiek, £750.000 truk. Errepublikak 1937ko ekaineko dekretua kontuan, ontziok *Mid-Atlanticera* pasa behar zirela uste zuen eta pasa ezean gelditu izatera behartu. Aldi berean, nazionalak Bilbon sartu eta nazionalen aldeko fakzioak, Aznarrek gidatuta, uztailearen 16an egindako akziodun bilera batean gerente postua kendu ziola esanaz, Sota-Aznar konpainiaren kontseilua legitimoa Bilbon zegoela aldarrikatzen zuen 1937ko abuztuan hasitako izapide judizial batean. *Bizcay* bertan behera laga eta ontziak konpainiari itzultzeko eskatu zuen Ingeles auzitegietan. 1938ko martxoan, Sotak irabazteko ezintasuna ikusirik akordio bat erdietsi zuen Aznarrekin. *Bizcay* enpresa bertan behera utziz.

Enpresen arteko epaiketa bukatuta, gobernuen arteko leia hasiko da. Frankistak eta Errepublikak barkuak bereganatzeko hainbat dekretu aterako dituzte jarraian. Auziak funts politikoa hartuko du erabat ea Franco burujabe zen edo ez ebatzean erabaki zen. Hala, Francok 1938ko martxoaren 2an ateratako dekretuak, Errepublikak 1938ko apirilaren 22an Sotaren 26 barkuak espresuki bereganatzeko dekretuari gailenduko zaio. 1938ko maiatzaren 28an, Arantzazu-Mendi ontziaren auzian nazionalak, Bilboren *de facto*-ko jabetza onartzean, arrazoa emango diete britainiar auzitegian. Jurisprudenzia ezarrita barku guzti horiek bereganatuko zituzten frankistek. Iskanbilak Lorden ganbara arte jarraitu bazuen ere, 1939ko otsailaren 2an, emaitza berretsita itxiko zen nazionalen alde.

Sota-Aznar eta Errepublika eta nazionalen arazoak alde batera utziz, goazen *Mid-Atlantic* barruko arazoak aztertzeraz. Albisuk, Aldama eta Sanchez Romanek enpresaren jaun eta jabe eta Errepublikaren interes eksklusiboetara jokatzeko zutela nabarmentzen du. Horregatik ez zegoen pozik 1937ko abuztuaren 17an⁴¹⁹:

La Mid-Atlantic puede sernos útil si conseguimos encauzarla debidamente, pero por los derrotos que ha comenzado a caminar bajos los impulsos imperialistas de los españoles incrustados en ella será un arma que nos herirá vivamente” (...) “Crearon esta compañía (el Gob. Republicano), porque sabían íbamos a constituir la nuestra, de la cual solo la inscripción faltaba. La más ardua labor, la de organización, encontrar locales, habilitarlos, empleomanía, etc. Etc. En una

⁴¹⁷ EAH.LO.L:3; EAH.EG.LD.S:Delegaciones En Londres Se:Gondra V:75 L:306/05 Korrupzio salaketei erantzunez, Ortuzarrek lapurtutakoa euskadiri ematen omen ziola argudiatzen du

⁴¹⁸ Ibarzabal (2021), 237-328

⁴¹⁹ EAH.EG.OG.S:Secretaría General. Eliodoro de la Torre Se:Hacienda-Londres-Correspondencia V:200 L:801/05 Albisuk Torreri (1937-08-17)

palabra echar a rodar su funcionamiento no les ha costado nada, lo han encontrado todo hecho, con la razón social de MARINO GAMBOA, que el Gobierno de Euzkadi, creo.

Albisuk bezala, Gamboak ere iskanbilak izan zituen *Mid-Atlanticekin*. Euskal lurraldea galdua zenez, Errepublikak estatutua errespetatzeko asmorik ez zuela zirudien. Gamboak Euzkadik Errepublikarekin elkarlanean bere flota administratzeko eskubide eta beharra zuela uste zuen. Horregatik, Albisu eta Gamboaz gain euskal errepresentazio handiagoa beharrezkotzat jo eta eskubide horiek defendatuko zituzten. Negoziaketa zailak medio, Gamboa posizio estu batean zegoen, Errepublikarentzat lanean zebilen euskal nazionalista zen, horregatik hurrengo hau eskatzen du: *una constancia escrita de que mi actuación merece su plena aprobación (...) antes de que se me pueda con el menor fundamento aplicar por nadie el calificativo de traidor a Euzkadi optare por dimitir en mis funciones*⁴²⁰.

Arazoak ez ziren hor bukatu. 1937ko maiatzean hasi eta abuztu arte Errusiarrei hainbat euskal ontzi alokatu zitzaizkien. Errepublikaren ustez berari sor zitzaion ontzien dirua. Marinok berriz, Euskal Gobernuarena zela irizten zuen. Ia kargua hutsi bazuen ere, azkenean Santiago Aznar Valentziara joanda konpondu zen auzia⁴²¹. Halere, Euskaldun eta errepublikarren ika-mikak etengabeak izango ziren. Hainbeste ezen, Pedro Albisuk 1938ko urtarrilean dimititu egingo zuen. Dimisioren arrazoietakoa bat Errepublikar eta Euskal arazoak izango dira. Bestea Luis Ortuzarrekin elkar ezin aditua. Albisuren ostean, Elias Esnarrizaga izendatuko du ogasunak *Mid-Atlanticeko* kontuak gainbegiratzeko.

Muskulu handiko enpresa bilakatu zen, baina gerra bukatzean, 1939ko martxoa aldera, agindu judizial baten ostean konpainiaren ontzidiaz Erresuma Batuak nazionaleraino pasa eta bukatu zen negozioa. Honen ondorioz, 280 marinel, gehienak euskaldunak, 14 portutan sakabanatuta geratuko dira eta beste 100 inguru Frantzia. Organismoa azkar likidatu eta eskuratuko diren £3.500 marinel horien mantenturako erabiliko delarik.

BANCO BILBAO

Sotatarren ontzien pleitua ez zen izan Ingalaterran eman zen auzi bakarra. Londoneko *Banco Bilbao* sukurtsalaren inguruan, hainbat pleitu eman ziren 1937ko martxotik aurrera. *Banco Bilbao* kontrolatzeko botereen zilegitasunaren eta bertan zeuden baloreen jabetzaren inguruko epaiketak izan ziren. Gerra aurretik ezarritako kontseiluak izendatutako bankuko ahaldun, Luis Sancha eta Juan Antonio Rey ziren alde batean. Bestean, Bilbon Euskal Gobernuak izendatutako kontseilu berriaren agenteak, Albisu, Perea eta Epalza. Nazionalen aldeko jarrera izan zuen Reyek, Burgosen zegoen kontseiluarekin estuki kolaboratuz. Aldiz, Sancha Reyren arabera, neutral mantentzen saiatu zen, eta eramandako azpi-joko guztiaren berri ez zuen 1937ko martxo arte jakin. Bankuak, Perearen urrea konfiskatzean Sanchak *no podía consentir tal robo*, baina martxoan Sanchari ere boterea baliogabetu ziotenean *le supo muy mal que los rojo se los hubiesen a él revocado (...) poco a poco le fueron convenciendo al final hemos podido arreglarnos con el sin dificultades*⁴²².

Goian ikusi bezala, Banco Bilbaok estatuko nazioarteko sare garrantzitsua zuen Paris eta Londoneko egoitzekin. Egoitza nagusia Bilbon izanik, Euskal Gobernuak bi ofizinen kontrola eskuratzen saiatuko da eta arazo nahikotxo izango ditu Errepublika eta Burgeseko gobernuarekin honen ondorioz. Esaterako, Parisen Errepublikar kontu-hartzaile bati sarrera ukatuko zioten. Han tentsio ikaragarria izan zen, biolentzia fisikoa erabiltzerainokoa. Polizia frantsesak berehala

⁴²⁰ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:100 L:282/04 Gamboak Torreri (1937-08-19)

⁴²¹ Gamboak Agirrerri (1937-09-23) Agirrek Ganboar (1937-09-24)

⁴²² Aceña eta Schwartz (1997), Hirugarren bat ere izan zen, Errepublika eta Banco Bilboaren artean. AGA 54/6875

kanporatuko baditu ere 1937ko maiatzean Luis Ocerinek gudari batzuen laguntzaz armak erabiliz ofizina okupatuko baitzuen⁴²³.

Gure kasuan, Londoneko ofizinarengatik ingurukoa aztertuko dugu. 1937 arte, tentsioren bat edo beste izan bazen ere, orokorrean, badirudi, Euskal Gobernuak Londoneko ofizinarengatik kontrola edo gutxienez, neutraltasuna zuela uste zuela. 1936ko azarorako bankuko urre, balore eta dibisa guztiak bere eskuetan jartzeko agindua eman du Euskal Gobernuak. Londonen Aceña eta Schwartz ustez, ez zen agindu hau beteko. Ez gaude horren ziur. Bestela, ez da ulertzen Albisuk eta Pereak 1937ko otsailean eta martxoan *Fullerton Rose* eta *Marclyn* ontzietan diru askoko balioa zuten balore ezberdinak bertan gordailatu izana. Beraz, autoritate euskaldunekin zuten harremana ezin zen txarra izan. Gainera, AGAn aurkitzen den Juan Antonio Rey txosten konfidentzial batek, 1937ko urtarrilean Albisuk £50.000 balio zuen urre bidalketa bat egin zuela *-Fullerton Roseko* balioa-, adierazten du eta Torrek erabili zuen diru hau. Aldiz, martxoaren 3ko urre-bidalketa, Olano, agente frankistaren aginduak jarraituz, konfiskatu egin zuen Reyek. Konfiskazio honen harira hasiko da botereen epaiketa eta baita baloreena ere⁴²⁴. Halere, goazen guztia lasaiago aztertzeraz.

Albisu 1936ko irailean bertaratu zen lehendabizikoz Londoneko bankuan. *Banco del Comercio de Bilbao* ahaldun bezala eta Parisko ofizinarengatik Banco Bilbaotik Antonio Goiri zuzendariaren aginduz inspektzio bat egitera bidali zuen. Egiatan, EAJren ordenei jarraiki hainbat operazio egiten ziharduen Europan zehar. Urriaren Euskal Gobernuaren Parisko ordezkarietako diruzain izendatu zuen Torrek; baina bere jarduna Londonetik errazago egingo zuelakoan hara mugitu zen guztia kontrolatzeko, Banco Bilbaoren egoitzan ezarri. Besteak beste, Torreren izenean kontu bat zabaldu zuen eta martxoan bota zutenean £15.000 libra zituen kontuak. Reyek kontatzen digunaren arabera, Albisu irailean Paristik inspektzioa egitera etorri zenean Bilbotik ihesi, babesteko bidali zuten. Bilbon Komunistak desarmatu zituelako bere bizitza arriskuan omen zegoelakoan. Gainera, Albisuk Atzerriko dibisen merkatuan zuen jakintza baliagarria zenez, bertan aritzeko eskatu omen zuen Bilboko bankuko kontseilari zen Epalzak (aitak). Kasualitatez, EAJri erabat leiala zena. Denbora horretan Albisu oso eskertuta agertzen omen zen, baina behin Francok Bilborako ofentsiba alde batera ustean maskara kentzen hasi zen. Eremu gorritik zetozen jendearen bisitak jasotzeaz gain, enbaxada gorrian euskal ogasuneko ordezkari kontsideratzen ziotela jakin zuten. Halere⁴²⁵:

Albisu sostuvo siempre, hasta que se le despachó, el criterio de que la Sucursal de Londres, por radicar en el extranjero y tener oficinas establecidas en ambos bandos, debiera ser apolítica operando con ambos lados sin distinción; aunque y se le advirtió que el tinte de neutralidad que indicaba no era consistente con su presencia personal en la sucursal.

Ez dakigu Albisuk neutraltasun hori benetan nahi zuen, ala haren ustez bankuko pertsona garrantzitsua euskal nazionalista izanda nahikoa zen haren kontrola mantentzeko, nahiz eta langileen gehiengoak altxatuen aldeko sinpatiak izan. Azaroan hainbat gestio egin eta Torreren kontua ireki ostean Londonetik mugitu behar zen. Kudeatu beharrekoa esku honetan geratzen zela pentsatzen zuen Albisuk: *Deja al cargo al Director [Angel Cendoya] y contador del Bancobilbao (Londres) afectados totalmente al (PNV) para que no se demore nada, pero antes*

⁴²³ Sanchez (2012), 881-891

⁴²⁴ Aceña eta Schwartz (1997), 141-2 *aunque desconocemos si lo ordenado se cumplió, no parece que lo fuera dado que el asunto iba a ir a los tribunales (...)* [las relaciones] *no parece que fueran malas, al menos hasta finales de año, pues a los empleados de la Sucursal de Londres fue a los únicos a quien la Conserjería de Hacienda del gobierno de Euzkadi permitió mantener sus poderes como representantes de los intereses del Banco de Bilbao en la capital británica;* Lezamiz (2016), 72-6

⁴²⁵ AGA 54/6875

*comunicara a Eliodoro salida por cable*⁴²⁶. Bestelako iritzi bat zuen Daniel Mendialduak. 1936 bukaeran kezu zen Banco Bilbaoko bi sukurtsalek, Paris eta Londonekoa, altxamendutik erakutsitako jarrerarekin: *Dada la composición de su plantilla, ez zen batere harritzen*⁴²⁷.

Gerraren ondorioz, gerraurretik zetozen arazo ekonomikoak asko okertu ziren banketxearen britainiar ofizinan. Ez zuen likidezirik. Euskal Gobernuak, banketxea erabiltzeaz gain, bizirik mantentzen lagunduko zion. Bidali zituen urre bidalketez eta Eliodoro Torreren kontuaz gain, Errepublikak £400.000 ematea/uztea lortu zuen. Diru honen kontura, Iruxo 1937ko otsail bukaeran banketxearen Londoneko ofizina defendatzen ari zen Negrinen aurrean⁴²⁸.

Negrin eta Iruxoren eztabaida epistolarra jazo zen bitartean, Parisko ofizinarako buruak, Antonio Goiri, eta, Reyek Angel Cendoya, Londoneko ofizinarako zuzendaria, Burgosko gobernuko delegatu eta Banco Bilbaoko kontseilaria (Euskal Gobernuak kargugabetutakoa) zen Julio Artecherekin⁴²⁹ biltzera joateko presionatzen ari ziren. Azkenean, hauei kasu egin eta Artech eta Goirirekin bildu zen Parisen Cendoya. Bilera hartan hitz egindakoa Rey eta Caranderi kontatu zien otsaileko azken egun edo martxoko lehen egunetan. Albisu botatzeko agindu zioten. Berak ez bazuen egiten, Goiri etorriko zen, horretarako botera *solidarioa* baitzuen. Albisurekin eta bere familiarekin, zeinak herri berekoak ziren, eta Epalzatarrekin zuen laguntasuna zela eta ez zuen nahi hauek botatzea. Edo hori da gutxienez Reyek eskaintzen digun bertsioa. Ziurrenik, EAJrekiko sinpatiak ere izango zituen Cendoyak⁴³⁰.

Dena dela, martxoaren 3an *Marclyneko* urrea Cardiffera heltzean Reyek Andres Perek egindako bidalketaren berri eman zion Goiriri eta hura Paristik Londona etorri zen. Hurrengo egunean, Goiri eta Rey, Dorchesterren bildu ziren Alfonso Olanorekin eta urrea konfiskatu eta Albisu botatzea erabaki zuten. Behin Albisu botata hurrengo hau egingo zuten⁴³¹:

Convencidos que nuestra actuación suponía la revocación inmediata, de nuestros poderes en la Sucursal del banco y con nuestros Corresponsales, de acuerdo con la Banque de Bilbao en Suisse, Ginebra y su Sucursal de Londres, donde ya habíamos trasladado la mayor parte de los valores del Banco de Bilbao, Paris y Londres, tras pasamos el saldo que teníamos en Barclays Bank a aquella entidad de Ginebra, fuera de la jurisdicción de estos Tribunales, y esperamos acontecimientos.

Hitz hauek argi eta garbi adierazten dute Bilboko Bankuko boteredunak, Banco Bilbaoren hobe beharrez, hau da, *negozioaren* edo enpresaren alde lerratu beharrean, Burgosen alde jardun zutela. Reyek azpijokoan aritu zen hasieratik. Aldiz, Sanchak bere botereak baliogabetzean, Euskal Gobernuak neutraltasuna urratu zuenaren ustean, Burgosen alde agertu zen. Diru guztia badaezpada tokiz aldatu, eta galdutzat ematen zuten prozesu saihestezin bat zetorrela bazekiten.

1937ko martxoaren 3an Torrek, Albisuk igorritako informazioarekin Bilboko kontseiluari jakinarazi zion, Londoneko sukurtsalak ez zituela Bilbotik bidalitako aginduak betetzen.

⁴²⁶ EAH.EG.OD.S:Secretaría General Eliodoro de la Torre Se:Hacienda-Londres-Correspondencia V:200 L:801/05
Albisuk Torreri (1936-11-13)

⁴²⁷ EAH.BEY.Si:LEG 300 DOC 7 ARCH 22

⁴²⁸ Asiain (2012), 891 Euskal Gobernuak Burgosekoak baino gehiago egin zuen ofizinari laguntzeko; EAH.EG.OD.S:Secretaría General. Bilbao. Secretaría General de Hacienda Se:Expedientes V:150 L:559/01 Iruxo eta Negrinen arteko korrespondentzia (1937 otsaila)Diru honen harira Negrin eta Iruxoren arteko eztabaidak. Irukok zioen dirua pezeten ordez aldatu zela. Negrinek zioen, hori hala egin behar zelako egin zela, baina diru hori bueltatzekoa omen zen. Horrez gain, Albisu Londoneko agregatu finantzari izendatzera ukatzen da Negrin

⁴²⁹ Julio Artecheri *Junta Calificadora Central*ek 1937-04-03an espediente bat ireki zion. EAH.EG.OD.S:Secretaría General. Bilbao. Secretaría General de Hacienda Se:Expedientes V:75 L:559/03 *Obrando en su calidad de exconsejeros del Banco de Bilbao, cargos en el que fueron depuestos (...) han procedido en todos los casos a conseguir que las sucursales del Banco de Bilbao en Paris y Londres se declaren abiertamente a favor del Gobierno militar de Franco.*

⁴³⁰BOE (1940-11-12) *paradero desconocido* dagoelako demandatu egingo du akziodun den Amaya S.A. konpainiak

⁴³¹ AGA 54/6875

Horregatik, Sancha eta Reyeri boterea kendu eta Albisuri pasa zioten. Martxoaren 10an Albisuk eta Pereak Reyeri botereak erakutsiz urrea itzultzeko eskatu eta hori ez betetzean, martxoaren 11an ordena judizial batek urrea ibilgetzeko agintzen zien. Martxoaren 12an Bilboko zentralak Sancha eta Reyeri bankuaren boterea kentzen ziela jakinarazi zien. Hiru agindu hauei entzungor egin zieten Sanchak eta Reyek. Sei egunetara, martxoaren 18an, aurkeztu zen Albisu, Epalzarekin (semea) Londoneko ofizinetan. Haien botereak baliogabetuta zeudela adierazi eta Bankuaren kargu egin nahi izan zuten. Agindua onartu ez eta Sancha eta Rey martxoaren 22an epaitegietara eraman zituzten⁴³².

Auziak iraungo zuen bitartean, hiru neurriak suspentsioan geratu eta Sancha eta Reyk jarraituko zuten bankuko ofizinen egunerokoa zaintzen. Hala ere, azkar hartu zuen erabakia J. Lewis epaileak. 1937ko ekainaren 4ean Euskal Gobernuak 1937ko urtarrileko dekretuan ezartzen zuen kontseilu bat izendatzeko botererik ez zuela ebatzi eta Sancha eta Reyeri arrazoia emango zien. Arrazoia eman bazien ere, interbentore ingeles bat ezarriko zien operazioak kontrolatzeko. Benetan egoera ekonomiko kritiko batean aurkitzen zen Londoneko ofizina.

Euskal Gobernuak autuari erantzunez, Epalza eta Albizuren bidez ekain-uztailean bitartean apelatu zuen. 1938ko otsailaren 22 arte atzeratu zen apelazio epaiketa. Bitartean uztailearen 19an nazionalek osatutako kontseiluak Euskal Gobernuaren disposizio guztiak ezeztatu zituen. Azken epaian, Gobernu britainiarrek nazionalekiko zuen jarrerak berebiziko garrantzia izan zuen. Horregatik, apelazio epaiketa hasi eta berehala FO galdegin zioten Espainiako gobernuekiko zuen iritziaz. Errepublikaren autoritatea *De jure*ko zela onartu arren, nazionalek Bilbo *de facto* administratzen zutela onartu zuenez, epaileak 1938ko martxoaren 17an Sanchari eta Reyri eman zien arrazoia. Epaian, nahiz eta gobernu bat *de jure* onartu, hark ez badu lurraldearen kontrol efektiboa ezin ditu bere izapide judizialak legitimatu eta ondorioz, ez dute baliorik. Epaitza berri hau Loren Ganbaretara apelatu zen. Halere, gerraren norabidea ikusirik eta inongo erabakirik hartu aurretik 1939ko otsailean euskaldunek auzia bertan behera ustea erabaki zuten.

Botereen auziaren norabide berbera jarraitu zuen Perearen errearen auziak. Londoneko sukurtsalak Britainiar auzitegiek eskatzen zizkieten frogak aurkezteko ezintasuna eta existitzen ziren bi administrazio kontseiluren zilegitasunaz erabakitzeko ezintasuna zelako muga gabe atzeratu zen 1937ko martxoan hasitako auzia 1938ko apirilaren 29an. Hasiera batean, Pereak pertsona fisiko bezala bere urrea zela aldarrikatuz, aise irabaztea espero zuen Euskal Gobernuak, kostu handirik gabe. 1938ko maiatzean justizia ingelesak auzibidean Francoren gobernua sartzea baimentzean aldatu egin ziren gauzak. Euskal Gobernuak botereen auzia irabaztean automatikoki irabaziko zutela uste zuten, Azkenean, botereen epaiketa galduta justiziak ez zuen Perearen auziaren inguruko epairik eman behar izan, auzi-jartzaileak erretiratu egin baitziren⁴³³.

Bi pleituak ez ziren galdutako bakarrak izan. Hirugarren bat ere izan zen. Kasu honetan, 1937ko martxoaren 17an Sancha eta Reyek, Burgosko administrazio kontseiluaren izenean Espainiako Bankuko Londoneko egoitzaren aurka emandako. Bilboko bankuak 4 miloi pts. pasatxo (£100.000 inguru) gordailatu zituen urre-bonutan, baina Espainiako bankuak Londoneko sukurtsalari interesak emateari uko egin zion. Azkenean, Londoneko epaitegiak botereen auzia argitu ostean eman zuen bere irizpena. Espainiako bankuak, Londoneko Bilboko Bankuko sukurtsalaren urre-bonuen interesak bidegabeki atxiki zituela, alegia.⁴³⁴

⁴³² Aceña eta Schwartz (1997), 146-157; AGA 54/6875

⁴³³ Aceña eta Schwartz (1997), 143-5

⁴³⁴ *Ibid.* (1996), 145-6

Gizarte Laguntza

XIX. mendetik aurrera Bilbo eta Britainia Handiarekiko erlazio komertzialen ondorioz Euskal kolonia txiki batzuk ezarri ziren Liverpool, Manchester eta Cardiffen⁴³⁵. Ez ziren oso kolonia zabalak. Gerrak eztanda egitean beraz, Ingalaterran zeuden euskaldunen kopurua ez zen oso altua. Horrez gain, Ingalaterran errefuxiatuekiko indarrean zeuden politika gogorak eta Whitehalleko agintariak gerrarekiko hartutako neutraltasun jarrerak ez zuten lagundu errefuxiatu asko irlara etortzen. Hala eta guztiz ere, Gerra Zibilean zehar *Home Officek* (HO) 4000 bat errefuxiatu pasatxoan, gehienbat ume eta marinelen, sarrera baimendu zuen. Euskal Gobernuaren izenean bidalitako ume hauen ardura NJC baitan sortutako BCC hartu zuen. Horiez gain, gerra bukatzeaz zela merkataritza ontzidiko beste 300 bat marinel ere onartu zituzten. Horien mantenua TUCeko sindikalistek bermatu zuten. Bi kasuetan, gobernuak baldintza bat jarri zien erakunde hartzaileei: mantenua gauzatzeko dirua kanal pribatuetatik eskuratu behar zuten.

Hasiera batean errefuxiatuei asistentziarik emateko beharrik ez bazegoen ere ondoren lan karga eskerga sortu zen guzti hauen inguruan, eta Gerra Zibil eta Bigarren Mundu Gerran zehar asistentzia hori bermatzeko Eusko Gobernuak Gizarte Laguntzako departamenduak hainbat delegatu izendatu zituen. Bigarren Mundu Gerra garaian, 1940. urte ondoren sortutako beharrek, eta gehienbat Euskal Etxearen inguruan hainbat pertsona arituko dira, Pedro Beitia esaterako. Lan honetan baina, 1940 baino lehen izandako ordezkartzez bakarrik hitz egingo dugu. Hor sartzeko Miguel Uranga sozialista eta Victor Saez solidarioa. Lehendabizikoa, euskal umeen asistentziaren arduratuko bada, bigarrenak itsasgizonak laguntzea izango du helburu.

Miguel Uranga eta Euskal umeen zaintza

Britainia Handira 1937ko maiatzean Southamptonera bidalitako umeek lan karga eskerga suposatzen zion Ingalaterran zegoen Euskal Gobernuko ordezkartzeari. Hasteko umeekin batera joan ziren maistra, laguntzari eta apaiz guztien inguruan sor zitezkeen arazoak (ordainketak, behar bereziak...) lehendakaritzaren ordezkartzearen sorbaldaren gain erortzen ziren. Adibidez, maistrak eta apaizek umei eskolak emateko behar zuten materiala eskatu zuten etengabe. Horrez gain, guraso eta umeak harremanetan jartzeko Espainiako Enbaxadan kokatzen zen ordezkartze erabiltzen zuten bitartekari moduan eta horri, BCCrekin egin beharreko koordinazio lanak gehitu behar zitzaizkion. Lizasok Graziari Uztailaren 21ean bidalitako txosten batean adierazten den bezala, asistentzia lan hauek ez ziren delegaritza politikoaren eginbeharren artean sartzen. Lizasok era ez-ofizialean nahasi zen gai guzti hauek konpontzeko. Aipatutako idatzian Graziari proposatzen dio ofizina bat irekitzeko eta kanpamenduetan inspektzioak aurrera eramateko pertsona bat izendatzeko. Ofizina horiek enbaxadan jarri ezin direnez, Gamboaren ofizina komertzialean tokia dagoela adierazten dio⁴³⁶. Ordu arte, Jesus Irarragorrik buru zuen *North Stoneham Comittie* batek zuzentzen zuen umei zegozkien gaiak, gehienbat osasunari zegozkionak. Laguntzaile zituen Severino Achucarro eta bi erizain, Juanita Estrada de Alba eta Emilia Garcia eta bi hauen laguntzaile Angeles Cartagena eta Adela Huelves⁴³⁷. Irarragorrik lan ona egin bazuen ere ez zekien ingelesez eta erizainetako batek egin behar zituen itzultzaile lanak. Gainera, paradoxikoa zen egoera batean aurkitu zen. Alfredo Espinosa Osasun sailburuak izendatu zuen umeen zaintzaz arduratzeko. Espinosa sailburua

⁴³⁵ Valdaliso (1991), 56-57

⁴³⁶ EAH. EG. GL.Se:Secretaria particular V:200 L:410/09

⁴³⁷ EAH. EG. Osasun departamentua. S: Secretaría General Se: Correspondencia V: 500 Legajo: 786/01 1938ko urtarrilean 10.000 Fr. kostua zuten langileok osasun departamentuarentzat. 1938ko martxoan, £104ko medikuntza zerbitzu bat abian jartzeko proiektu bat prestatu zen. Ez zuen egin aurrera.

atxiki egin zuten ekainak 21ean Zarautzen. Frantziako Tolosatik Santanderra bidean, *Air Pyrenessetako* Yanguas pilotuak traizionatu eta gero. Beraz, izendatu zuten departamentua Torrek hartu zuten bere gain⁴³⁸.

Kanpamenduaren organizazioa nahiko kaotikoa izan zen. 2.000 pertsonarentzat pentsatuta hasi ziren guztia antolatzen eta azkenean, biderkatu egingo zen zenbaki hori. Gainera, aste betean muntatu zuten guztia, gerra departamentuko utzitako dendetan eta boluntario ugariaren artean.⁴³⁹ Arazo ugari sortu ziren ondorioz. Horregatik, aldaketa nahikotxo izan ziren kanpamenduaren ardura izan zutenen artean.

Muntaketa lanak Jack Parvey, Henri Briton eta H. Samsen artean koordinatu zituzten. Azkenengoa izango zen, Briton laguntzaile zuela kanpamenduko zuzendaria. Halere, Samsen lehendabiziko bi egunetan, kanpamenduak ez zuten behar bezala funtzionatu. Egoerak gainditu Briton bera jarriko zen maiatzaren 24an kanpamenduaren zuzendari. Inozokeria bat irudituz dezakeen anekdota batek ondo azaltzen du guztia. Umeei jaten ematerakoan sekulako errenkadak eman ziren. Goseak pasatakoak zirenez, ume askorek birritan errepikatu eta batzuentzat jatekorik ez zen geratu. Halako gertaera inozo, baina garrantzitsuak oztopatu egiten zuten kanpamenduaren funtzionamendua. Ez da ahaztu behar sekulako proiektua zela. 70 pertsonak lan egin eta 1937ko ekain bukaerarako ia £11.000ko gastua izan zuen.

Funtzionamenduarekin desadostasunean, Britaniako Gurutze Gorritik, Boy Scouts and Guidestik eta Southamptoneko parlamentari batek ere HO kexatu ziren Britonek bere egitekoa ondo egiten ez zuelakoan, alabaina Robertsen arabera kexak *ill founded* omen ziren. Ekainaren 8an Tifus epidemia bat eman zen eta hura kontrolpean izateko Major Irwinek hartu zuen Britonen tokia. Azkenean Irwinek, bestelako egitekoak zituela eta kanpamendua utzi behar izan zuen hilabete baino lehen eta uztail-irail bitartean Major Hunter izan zen kanpamenduaren antolamenduz arduratu zena. Hunterrek egindako eskaerak kontuan, abuztutik aurrera umeak egoera nahiko tamalgarrian bizi izan zirela dirudi. Horregatik, bestelako kanpamendu edo etxeetara ahalik eta azkarren lekualdatzeko eskatzen zuen⁴⁴⁰.

Guztira laurogei bat aterpetxetan banatu ziren etorritako haur, maistra eta pertsonal laguntzailea. Haurren eta nagusien beharrak ase behar ziren; soldatak, eskaera pertsonalak, ikasteko materiala... Lan karga guzti hori kudeatzeko, Juan Graziak⁴⁴¹, Gizarte laguntzako sailburuak, 1937ko abuztuaren 26ean izendatuko du Miguel Uranga laguntza sozialeko ordezkari⁴⁴². Nahiz eta, Lizasok eta Gondraren ordezkariak hainbat lan bere gain hartzen jarraitu, batik bat eskola materiala zegoikiona. Orokorrean, lan ona egingo du bi horien ustetan Urangak. BCCk zituen ofizinetan kokatu zen, 53 Marsham Street, London. Ofizina horietan instalatu aurretik Leah Manningek utzitako leku batean izan zen, 9 Red Lion Square. Komitea Marsahm Streetetik aldatu zenean, Uranga ere lekualdatu egin behar izan zen, eta 4 Great Smith Streetera pasa.

Grazia, Bilbo erori ostean, Parisen ezarriko da, eta bertatik zuzenduko du Euskal Gobernuaren egiteko asistentziala. Urangak bere ordenak jarraitu beharko ditu, eta horregatik bien arteko korrespondentziari eskerrak ezagutu daiteke bigarrenak egindakoa. Miguel Uranga Donostian jaiotako kazetaria dugu. Hari buruz hala idazten dio Gondrak Atutxari: *Uranga Jauna*

⁴³⁸ Sebastian (2007)

⁴³⁹ Jim Fyrth (1986), 220-242 Denbora gutxian eta britainiar komunitatearen esfortzuar eskerrak egin zela aitortzen du. Kanpamenduaren bizitzari buruz, Cloud (1937)

⁴⁴⁰ UWA. ATUC. 292/946/39/101; Administration of the camp (1937-06-14); *Ibid.* 292/946/39/82 Camp Expenses, 21st May to 30th June; Minutes BCC *Ibid.* 292/946/39/83(iv) (1937-07-05)

⁴⁴¹ Peche (2016)

⁴⁴² EAH.EG.LD.S:DelegacionesEn Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01 Graciak Lizasori (1937-08-26)

donostiarra da. Ez gure alderdikoa baina gukin lan egin dau Bilbao-ko Lendaritzan. Oraingo puestua Mrs. Manning´ek topau dautso Garcia´ren bitartez; Mrs. Mannig erurekin egon zan Bilbao´n. Ori arren, uste dot geure aldera dala aspaldijon. Dana dala ezta gu lakoxia. Gerran zehar lehendakaritzari atxikita egon zen sozialista zen. Gerra aurretik urte luzetan Ameriketara zehar ibilitakoa. Manningekin sekulako harremana garatu zuen. Bilbon elkar ezagutu eta bere emaztea Leah Manningek berak hogeita bat umerentzako Theydon Boisen jarri zuen Leah Manning housen arduraduna izan zen⁴⁴³. Ideologiak ideologia, oso hitz goxoak izango dituzte Lizasok eta Iruok bere jardunaz hitz egiterakoan. Lizasok *Trabajó mucho y muy bien* idatziko dio Iralari⁴⁴⁴.

Gerra ostean, 1939ko ekainean bere familiarekin eta Isidoro Calvete nafarrarekin batera *Reina del Pacífico* itsasontzian Liverpooletik Ekuadorra abiatuko da abeltzaintza enpresa bat abiatzeko asmoz⁴⁴⁵. Bide batez, Jaurlearitzaren ordezkari gisa arituko dira hara euskaldunak ebakutzeko planak egiten. Negozio ezberdinei buruz informatu eta Ekuadorreko industrial, politiko eta *El Comercioko*, nazioko egunkari garrantzitsuko, jabearekin harremanak izango dituzte. Bertan ere idatziko du Urangak⁴⁴⁶. Limosner izeneko pertsona batekin kolaboratuko dute. Agirrerren partez, 1939ko azaroan, eta euskal agintariak *Ministry of Information* Britainiarraren planaren baitan ezarritakoarekin bat, Britainiar enbaxadarekin kolaboratzeko agindua jasoko zuen: *reserva en el cumplimiento de las instrucciones recibidas, manteniendo siempre su significación de delegado vasco. Es esta la mejor garantía que podemos ofrecer a las autoridades británicas*⁴⁴⁷. Saiakerak saiakera, ez dirudi proiektuak aurrera egingo duenik eta azkenen, 1939ko abenduan, Venezuelara joateko eskaera luzatzen du. Agirrek Iruori abendu erdialdera hala idazten dio: *He leído con mucha atención cuanto Uranga ha escrito desde el Ecuador. Como sabrás ha pedido su traslado a Venezuela. Lo lamento porque os autorice su nombramiento para ciertas gestiones importantes*⁴⁴⁸.

Baina, Bigarren Mundo Gerrako gaiez ahaztu eta Gerra Zibil garaira bueltan, Uranga abuztuaren 31an helduko da Ingalaterrara. Doverren sartzeko arazoak baditu ere, azkenean HO hilabeterako bisa berezi bat emanda sartuko da emaztearekin batera.

Heldu bezain pronto ekingo dio lanari. Lizasorekin elkarrizketa bat izango du egoeraren berri izateko. Eskola material arazoez jabetzearekin batera sazerdoteekin eta umeen portaeren inguruko kexa eta konfliktuez ere informatuko da. Egoera zein zen jakinda, umeen kolonia guztiak bisitatuz inspezio orokor bat eramango du aurrera, beraien beharrak hobeto ezagutzeko. Horrela, kanpamenduan egiten hasi ziren fitxero orokor bat osatzeko aukera izango du eta umeek behar duten hezkuntzari buruzko irizpide batasun bat ezartzen ere saiaturiko da.

Urangaren lana Ingalaterran zeuden umeen inguruan sortutako arazoei aterabideak ematea izan zen. Umeen inguruko informazio galderak erantzun. Kolonietan zeuden maistra eta laguntzaile, mediku eta apaizek izan zitezkeen arazoak lagundu eta BCCrekin koordinazio lanak aurrera eramanez, formalki Euskal Gobernuaren ardura baitziren umeak.

⁴⁴³ Arrien (2014), 195, Gondrak Atutzari; EAH.EG.LD.Se:Secretaria General (Bilbao, Barcelona, Paris). Secretaria. V:75 L:17/01 Lehendakaritzari atxikita Santandarren 1937ko ekainean

⁴⁴⁴ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01 Lizasok Iralari (1938-04-08)

⁴⁴⁵ Calvete 1917 Londresen ekipo medikoa eta ileapaindegietako ekipo elektronikoak saldu eta konpontzen ziren denda bat ezarri zuen Londreseko West Endean.

⁴⁴⁶ Bidalitako txostenak eta Iruorekin izandako hartuemanak 1939ko abuztutik urri arte. EAH.OD.S:Secretaría General. Eliodoro de la Torre. Se:Correspondencia V:93 L:619/09; EAH.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:277/01;EAH.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:277/01

⁴⁴⁷ Arrien (2014) 581

⁴⁴⁸ Goigana, *et al.* (2008)

Londoneko delegaritzarekin oraindik ere hartu-eman estuak izan zituzten, ez baita ahaztu behar umeentzako eskola material ekartzeko saiakerak egingo dituela Lizasok, gehienbat kultur departamentuko bidez. Materialen bat edo beste ekarriko bada ere, ez da sekula nahikoa umeen instrukzio egoki bat ahalbidetzeko. 1937ko uztailean Lizasok eskaera luzatzen dio Iruxo ministroari. Uztailean hasiko zen Bartzelonan Iruxo Lizasoren eskaerari bide ematen eta erosketa handi bat egiteko mugitzen hasiko da. Hala idazten dio, Manuelen idazkari zen Andres Irukok Bartzelonako idazkari nagusia zen Altabari⁴⁴⁹:

Mi ministro recibe de Londres la siguiente:

quiero encomendarte un asunto de suma importancia. Ya sé que tu estas muy ocupado (...) los niños evacuados que se encuentran en este país están muchos de ellos en plan revolucionario. No hay quien pueda con ellos y lo peor es que ellos no tienen la culpa, si no nosotros que no les proporcionamos libros de texto de enseñanza(...) ya que a Bilbao y Santander otros asuntos más urgentes tienen, y Bayona y Paris no le hacen caso...

Abuztuan, beste eskaera bat jasoko dute. *Labour Party*ko Fenner Brocwayk liburu sorta bat eskatuko die. Eskaera hauen ondorioz eta, Lizaso eta Alfredo Ruiz de Castaños kulturako delegatuaren artean izandako korrespondentziak adierazten duen lez, egon zen Bartzelonako CAMI dendari egindako eskari handi bat baina, azkenean ez zen gauzatu. Avelino Barriolak, Lizasori idazten dio 1938ko martxoan hobe izango dela beste bide bat bilatzea. Bartzelonan ezin omen dituzten liburuak eskuratu eta hurrengo hau gaineratzen du: *tarde es muy tarde ahora que muchos ya están de vuelta.*

Urangak Margarita Comasen, Espainiar enbaxadako kultura agregatuaren, bidez Espainiako instrukzio publikoko ministeriotzat liburu stock bat bidaltzea lortu zuen. Hala ere, Comasek Regina Lagoren, *Consejo Nacional de la Infancia Evacuada* sekzioko Parisko delegatuaren, bidez eginiko tramiteak izan ziren eta hau propaganda delegatu izatera pasatzean eten egin zen bidalketa. Hau 1938ko maiatzean izan zen. Honen ostean, Avelino Barriolak, Euskal Gobernuko kultura saileko langilea, Parisko Garnier liburu dendatik maistra bakoitzarentzat liburu batzuk eskuratu zituen. Vicente Amezaga, arduratu zen pertsonalki liburu hauek bidaltzeaz. Amezaga Euskal Gobernuko lehen mailak hezkuntzako zuzendari orokorra zen eta Ingalaterran izan zen 1938ko irailean Euskal umeen kolonien egokitasuna aztertzen⁴⁵⁰:

Casi todas las colonias que he visto las he encontrado instaladas en casas muy bien adaptadas a su actual destino y dotadas, salvo alguna rara excepción, de extensos parques o jardines, Prescindo de las religiosas que en este aspecto son indudablemente las mejoras de las que he visitado, cosa comprensible porque ya de antes estaban preparadas para este servicio. Entre las demás, casi todas reúnen condiciones satisfactorias, existiendo desde luego, una escala que va desde aquellas que con toda justicia podemos calificar de magnificas, pasa por unas cuantas muy aceptables, gasta llegar al extremo opuesto a alguna, como la de Birkenhead, en tan deplorables condiciones que creo obligación mía el señalarlo. No es posible en un edificio como aquel pueda desarrollarse normalmente una institución colonial por grandes que sea la capacidad y voluntad del personal encargado.

Kultura departamentuak ere izan zuen bere ordezkaria Ingalaterran. Umeekin zer ikusi zuen ekintzak aurrera eramateko izendatua, Pedro Atutxa apaiza izan zen. Bere egitekoa, apaizez, eta pertsonal laguntzailearen inguruko kudeaketez arduratu, baina batez ere, umeen hezkuntza zuen xede. Gehienbat katolikoak ziren haurren beharrak behar bezala artatzen zirela gainbegiratu behar zuen⁴⁵¹.

Itsas-gizonak artatzen

⁴⁴⁹ CDMH, PS-BARCELONA 315,1,5 eta 6 Andres Irukok Luis Areitoartenari (1937-08-12) Irukok Altabari (1937-07-21)

⁴⁵⁰ EAH.GLD.S:Idazkaritza partikularra V:200 hojas L:410 10; Arrien (2014), 290-6

⁴⁵¹ Arrien (2014),

Aztertuko dugun azken kausa, gerra bukaeran Ingalaterran geratu ziren itsas-gizonena izango da. Euskal delegaritzaz gain, STV-ELAren ordezkari batek ere hartuko du parte errefuxiatuen laguntzan. Victor Saez Murua kapitainia izango da ELA sindikatuko delegatua 1940 erdialdera Venezuelara emigratu arte⁴⁵². Iruxo eta Lizasok Roblez-Aranguizi eskatuta, 1939ko apiril-maiatzerako izendatuko dute. Errefuxiatuei laguntzea baino, izendapenaren helburu nagusia mugimendu laboristarekin kolaboratzen jarraitzeko errepresentazio gehiago izatea zen. Hala, delegaritzak politikoa mundu kontserbadorean askatasunez mugitzeko⁴⁵³. ELAren ofizinak euskal delegaritzan kokatuko dira.

1939ko maiatzerako, Euskal delegaritzak emakumeak hezkuntza jaso eta Erresuma Batuan lan egiteko erakunde bat sortu edota marinelak Grezia eta Panamako banderadun ontzietan kokatzeko proiektuak jarriko dituzte martxan. Ingalaterrako *Oficina de Colocación obrera*. Hori gauzatzeko £1.000; £500 eta £800 laguntzak jasoko dituztelarik. £2.300 horiekin, kutxa autonomo bat osatuko dute. Kolokazio hauetan egindako lanagatik Lizasok eta Gondrak £10 jasoko dituzte. Saezek ere beraiekin kolaboratuko du. Emakumezkoen ideia ez da gauzatuko eta *Young Women's Christian Associationen* bidez, banan-ban kokatuko dituzte emakume batzuk. Elkarte honek, atzerritik Erresuma Batura mirabe etorri nahi dutenak kolokatzan zituen⁴⁵⁴.

Saez ordezkari izendatzen dutenean, laboristekin duten harreman garrantzitsuena Britainia Handian geratu diren marinelen inguruko auzia da. Gerra bukatzeaz zela, eta *Mid-Atlanticen* kudeatzen zituen ontziak nazionaleri eman behar izan zirenean, ontzi horietan *Mid-Atlanticentzat* lan egiten zuten 280 marinel inguru, gehienak euskaldunak, Erresuma Batuko hamalau portutan Errepublikar gobernuak eta *Mid-Atlanticen* abandonatuta laguntzarik gabe geratu ziren.

Egiari sor, 1939ko martxoan *Mid-Atlanticen* lan egiten zuten Marcelino Gonzalez eta Manuel Urrutia, enpresako ontzidiaren ikuskari nagusia, saiatu ziren itsas-gizonei laguntzen. 1939ko martxoan, Vicent Tewson sindikalistarekin harremanetan jarri baitziren. HO itsas-gizonak hilabete Erresuma Batuan geratzeko baimena eskuratu eta Britainia Handian dauden guztien zerrenda bat pasatzen dio Urrutiak Tewsoni. Urrutia, Londona Santiago Aznarren industria kontseilaritzaren ordezkari etorriko zen lehendabizikoz. Horren ostean, *Mid-Atlanticen* lanean hasiko zen. Gerra Zibila bukatuta, *Pair Fishing Co.* lanean hasiko zen. Beste 30 bat euskaldunekin batera, hor ziharduen 1944an⁴⁵⁵. Herbert Morrisonek, barne ministroak 1944 erdialdera Milfred Havenetik ez mugitzeko agindua isuri zuen. Urrutia, espainiarrek osatutako sindikatuaren Milfred Haveneko ordezkaria zen⁴⁵⁶.

Mid Atlanticeko Urrutia eta Gonzalez langile eta Euskal Delegaritzaren eskaerak entzunda 1939ko martxo eta apirilean zehar Britainiar sindikalismoko sekzio ezberdinek £2.000 pasatxoko, ITFk

⁴⁵² *Euzkadi* (1919-07-07) (1927-08-04) (1927-11-15) EAH.OD.S:Secretaría General. Eliodoro de la Torre. Se:Correspondencia V:93 L:619/09 Iruxo Torrerri (1939-07-13); Victor Saez Murua 1927. urtetik itsas-merkataritzako kapitaina, urte berean ezkondu zen Basilisa Franco Ruiz de Barquinekin Gerra hasi ostean, 1937ko martxoan Parisko ordezkariartzara lanera bidali zuen Euskal Gobernuak. Parisen Errepublikako ogasunarentzat lan egitera pasa eta Valentziara bidali zuten aharik eta, *Mid-Atlanticentzat* 200 ontziren kudeaketan egin zuen lan. ELAren ordezkariartzak ez duenez egun osoko lana eskatzen, *Mid-Atlanticen* lanean jarraituko zuen Saezek maiatze-kain arte eta hala dirudik xahutu gabe ordezkari bat gehiago izango du Euskal sindikatuak. *Mid-Atlanticen* botatzen diotenean £20 kobratuko ditu 1937ko uztailetik aurrera EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:215/01 Iruxo Victor Saezi (1937-07-21)

⁴⁵³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:217/01 : Lizasok Roblesi (1939-04-05)

⁴⁵⁴ EAH.EG.LD.S:Ponencia interdepartamental. Correspondencia V:150 L:350/03 Lizasok Epalzari (1939-05-18)(1939-06-02) Frantziar Jose Epalzak antolatuko du emakumeen bidalketa. 10 emakumerekin hasiko dira "stock" moduan. Denak kokatuta gehiago ekarriko dira. 18 urtetik gora, fisikoki ondo egon behar dira. Hilean mantenuz gain, £3-4 jasoko dute eta urte bete egon beharko dira gutxienez lanean.

⁴⁵⁵ UWA.TUC: 292/946/25a/142

⁴⁵⁶ UWA.TUC: 292/946/1/124

bakarrik £1.000; diru laguntza bildu eta ostatu hartzen lagundu zieten itsas-gizonei. Diru-laguntzak segurtatu bazizkieten ere, itsas sindikatuak itsas-gizonek britainiar itsas-merkataritzako ontzidian lan egiteari uko egin zioten. Kontuan izan behar da Ingalaterran garai hartan langabezia tasa altua zela.

Lana topatu ez bazuten ere, *Mid-Atlantic* disolbatzean eta gorabehera askoren ostean, £3.500, hau da, £10 gizoneko ziurtatu zituen Lizasok. Diru hartako £1.000 frankotan Frantziako itsas-gizonak artatzeko bidali eta beste £2.500 Tewsoni pasa zitzaizkion, TUCek laguntza kudeatu zezan. Diruaren berri izatean, Cardiffeko bost marinelekin sekulako iskanbila izan zuten Lizasorekin. Scotland Yarderi eta guzti deitu behar izan zuen honek. Sindikatuek ez inork ez omen zien ordaintzen Gerardo Moran, Angel Sanchez, Mario Gandiaga, Sebastian Goitiak, beraz beraien £10 jaso nahi zituzten. Gerrako politika zintzoa jarraituz, eta euskaldunak zibilizatuak zirela erakusteko barkamena eskatzen dio Lizasok Tewsoni *sorry for the behavior of these sailors, one invariable finds black sheep amongst any considerable group of men*. Gizon hauek benetan dirudik jasotzen ez bazuten, normala da egoera larri horretan haserre egotea⁴⁵⁷.

Maiatzerako nahiko diru bildu zuten, hala ere, diru-sarrerarik gabe pixkanaka ahitzen zioan diru-poltsa. Ondorioz, eta Ingalaterran lan egiteko ezintasuna kontuan, 1939 uztail-abuztuan hainbat gizonak Latinoamerikara emigratu eta 231 itsas-gizon geratu ziren⁴⁵⁸.

1939ko irailean gerrak eztanda egin eta Victor Saezek egunero Ingalaterran dauden itsas-gizonek Britainiar agintariei lana eskatzeko erregutzen idazten diotela esango dio Walter Citrini. Lan ministroari hiru eskaera luzatzeko aprobetxatzen du gutuna: Itsas-gizonei itsasoratzeko aukera eman, nekazariak direnei *land armyra* batzen utzi eta ingeniariari fabrika edota lantegietan beraien jakinduria erabiltzeko⁴⁵⁹. Lan hauek ez dituzte berehalakoan lortuko.

Denbora batera, behin gobernuak eskaera onartuta, 1940 hasierarako ofizina bat ezarriko da itsas-gizonak kolokatzeko hasteko. Ofizinen buru Marcelo Arenaza mundakar kapitaina jarriko dute. Greziar eta Panamako banderapean lan egin, baina Londonen zentrala duten hainbat enprekin dituzten harremanak aprobetxatuz, postu hutsak dituzten bakoitzean euskaldunetz beteko dira. Arenazarekin 10-12 gizon egongo dira beti, eskaerei ahalik eta azkarren erantzuteko. Helduko diren eskaintzak ez dira beti langileen gustukoak izango, eta beraien gradu azpitik askok ez dute lan egin nahi. Horregatik 1940 otsailean Lizasok edozein lan onartzeko zirkular bat bidaliko du. Ordurako, 134 itsas-gizon besterik ez dira egongo Ingalaterrako portuetan geldirik⁴⁶⁰.

Itsas-gizon batzuk kolokatu arren, dirua baina pixkanaka xahutzen zoen. Hiru bide hartu nahi zituzten itsas-gizonen arazoari aterabidea emateko. Alde batetik, SEREko funtsekin eta TUCen laguntzarekin emigrazioa bultzatu. Bestetik, Britainiar gobernuak presionatuko dute euskaldunak *friendly alien* kontsideratuz, nekazari edota britainiar ontzidian lan egiteko aukera ziurtatu. *Friendly alien* etiketa jasota asko erraztuko ditu lan egiteko aukerak. Hala 1940ko ekainerako 76 besterik ez dira izango lanik gabe⁴⁶¹.

⁴⁵⁷ UWA.ATUC:292/946/25a/99Lizasok Tewsoni (1939-05-09)

⁴⁵⁸ UWA.ATUC:292/946/25b/2 History of a case 1939ko martxotik 1940ko uztail arte

⁴⁵⁹ UWA.ATUC:292/946/25a/79 Saezek Citrini (1939-09-14)

⁴⁶⁰ UWA. ATUC:292/946/25a/66 Lizasok zirkularra (1940-02-12) Frantziar zeuden itsas-gizonen bat edo besteri lana emateko aukera izan zuten bide honetatik. Soldatak: ofizialek; £25-35; Makinistek £85; £20-5 Monferrer (2007), 54: Espainiara itzul zitezten Falangeak itsas delegatu bat izango du Cardiffen H. Ormaza

⁴⁶¹ UWA.ATUC:292/946/25a/41 Tewsonen Bevini (1940-06-05)

Zaindu beharreko kopurua, asko murriztea lortu arren, TUCek jarritako dirua bukatu egin zen. Halere, 1940ko uztailean aurreko urteko diru laguntzak berrituko dira. £1.000 zertxobait gehiago. Era berean, britaniar gerra esfortzuan lagunduko dute, eta horregatik 1941ko urte hasierarako 25 marinela baino gutxiago zeuden lanik egiteke. Beraz, ia-ia arazoa osorik konponduko da 1941erako. Orduanik, kasu indibidualez besterik ez dira arduratu behar⁴⁶².

6. GERRA ZIBIL GARAIAKO PROPAGANDA-EGITURAK

Bando guztiek Espainian eta Ingalaterran eratutako propaganda egiturak izango dira hizpide atal honetan. Lehenengo, Espainian sortutako erakundeak aztertuko dira, kanpo-propagandara bideratuta Erresuma Batuan eratutako egiturak ulertzeko ezinbestekoak bazaizkigu. Ikusiko dugun lez, bi bandoak lehen momentutik jabetu ziren propagandaren balioaz. Hasiera-hasieratik, hasiko dira garatzen egitura ezberdinak eta kaos eta organizazio faltatik zentralizazio efizienteago bateranzko joera erakutsiko dute. Hasierako dibertsitatea ere pixkanaka bateratzen joango da.

Errepublikar gobernuaren propaganda egiturak⁴⁶³

Uztaileko estatu kolpearen ondorioz, eta hasierako kaosaren erdian batik bat partidu politikoek irriaren, kartelen, esku-orrien eta, nola ez, prentsaren bidez hasiko dira propaganda egiten. Propaganda honen garrantziaren jakitun, eta hasierako zabukada erreboluzionarioak pixkanaka kontrolatuz Errepublikar Gobernuak propaganda koordinatzeko erakunde bat sortuko du Presidentziaren idazkariordetzaren baitan abuztuaren 21ean, *Oficina de Propaganda e información*.

Koordinazioa nahikoa ez eta Largo Caballero egindako azaroak 4ko gobernuaren berregituraketaren baitan, Ezker Errepublikano alderdiko Carlos Esplaren zuzendaritzapean Propaganda Ministerioa eratuko da, idazkariorde Federico Martínez Miñana arituko delarik. Erakunde berri honek propaganda zuzentzea izango du jomuga. Gobernu guztiarekin batera, testuinguru militarren erruz, ministerioa berehala Madrildik Valentziara lekualdatuko da.

Lekualdatzearen ondorioz, Madrilen azaroaren zortzian *Junta de Defensa de Madriden* osatuko da gobernuak utzitako funtzioak betetzeko. Santiago Carrilo izendatuko dute Ordena Publikoaren komisario, eta bere agindupean arituko dira Fernando Claudinek zuzendutako prentsa kabinete bat eta irri emisioen delegatu bat, Alfredo Cabello, prentsa eta irriari dagokion oro kontrolatzen saiatzen. Behin Madril erortzeko arriskua pasata, Defentsa Batzordea Gobernuko delegaritza bilakatuko da abenduan, eta orduan, batzorde delegatuaren baitako Propaganda eta Prentsarako delegazio berezi bat sortuko dute, Jose Carroñeroren aginpidean. Bi idazkaritzatan banatuta zegoen departamentua. Angel Herrerosek prentsari zegokion guztia kudeatzen zuen bitartean, Gerardo Saurak argazkilaritza, zinema, esku-orriak eta irratia zituen bere gain.

Sortutako Propaganda Ministerioaren egitekoa barne propagandan zentratzen zen gehienbat eta ez horrenbeste kanpora igortzen zen informazioan. Konpetentzia hori Estatu Ministerioak betetzen zuen *Oficina de Prensa Extranjera* bitartez. Estatu ministroak, Julian Alvarez Vayok, Luis Rubio Hildago izendatu zuen ofizinarene buru. Atzerriko korrespontsalak artatu eta hauen informazioa zentsuratzea ziren ofizinarene ardura nagusiak. Irailean, ofizina Estatu ministeritzak egoitza zuen Santa Cruz jauregian zegoen. Gobernuak Madrildik alde egitearen harira sortutako kaosa pasata, Espainiako plazako Telefonikakara pasa zen. Gobernuak Valentziara alde egin eta

⁴⁶² UWA.ATUC: 292/946/25a/8 Gondrari (1941-03-05)

⁴⁶³ Iglesias (1993). Kontrakoa ezaten ez bada hemendik hartuta dago informazioa.

Defentsa Batzordea eratu arteko garaia ederki laburbiltzen du Arturo Barea *La forja de un Rebelde* memoriatan. Gerra hasieratik Estatuko Ministerioaren atzerriko prentsako ofizinan lan egiten zuen zentsorea zen Barea. Gobernuak alde egiterakoan utzitako hutsunea aprobetxatuz azaroaren 7an inongo zentsurarik gabe aritu ziren atzerriko kazetariak informazioa nazioartera igortzen. Arazoa ikusirik, egoera kontrolpean ezartzen saiatu zen Barea. Bere lan eraginkorra zela eta azaroaren 12an Alvarez Vayok, atzerri ministro eta Gerrako komisario jeneralak, Madrileko Juntaren baitan prentsako buru izendatu zuen. Behin egoera lasaituta, eta Luis Hidalgorekin, bildu ostean, Barea berriro egingo dute Estatuko ministerioko funtzionario eta Hidalgo Valentziara lekualdatuko den bitartean Madrilgo ofizinarene buru geratuko da Barea berriro ere egoitza Espainiako plazan kokatzen den Telefonikako eraikuntzan duelarik. Madrilgo ofizinak Madrilgo Defentsa Batzordetik jasoko zituen instrukzioak⁴⁶⁴.

Pixkanaka eta hasierako arazoak gaindituta, Valentziara lekualdatutako Propaganda Ministerio martxan jarriko da. Abendurako bere gain hartuko ditu *Patronato Nacional de Turismo* eta Instrukzio Publikoko Ministeritzaren egitekoak eta 1937ko urtarrilaren 23ko dekretu bidez zehaztuko dira bete behar dituen funtzioak. Ezarritako konpetentziak aurrera eramateko hurrengo sekzioak izango ditu: prentsari eguneroko datuak eskaintzeko informazio zerbitzu bat, edizio eta argitalpenak, zinema, irratia, diskoteka, argazki zerbitzua eta goian aipatutako Atzerriko prentsa ofizina. Hala ere, eta nazioarteko duen garrantziaz jakitun Estatu Ministerioarekin elkarlanean aritu beharko da. Propaganda ministeritzak 1937ko maiatza arte iraungo du, eta hasieran kostata izan bazen ere estruktura nabarmena hartuko du. Besteak beste, behegaro ikusiko dugun bezala, Parisen *Agence Espagne* sortuko da 1937ko hasieran. Informazio zerbitzuak eta irratikoak boletinak kaleratuko dituzte. Irratiko boletina hilabetekaria izango da, eta informazio zerbitzuek argitaratutakoa hamabost eguneroko. Azken honek hurrengo sekzioak hauek izango ditu: aurkibidea, nazio eta nazioarteko gaiak, albiste militarrik, atzeguardia errepublikarra, ekonomia, ogasuna, industria eta merkataritza, kultura eta irakaskuntza, atzerriko prentsaren laburpena, prentsa eta propaganda, erlijio eta justizia eta Francoren aldeko izandako batek atzeguardia errebeldea nola ikusten duen.

1937ko maiatzean, Negrinen lehendabiziko gobernua osatzean beste berregituraketa bat pairatuko du Espainiar gobernuak. Propaganda ministerioa desegin eta Estatuko ministeritzaren egituran Propaganda idazkaritzaorde bat eratuko da. Carlos Espla ministro izatetik Estatuko ministeritzako idazkariorde izatera pasa eta propagandako idazkariorde Leonardo Marin izango da. Biak ala biak, 1938ko apirilak 10ean apirileko gobernu berriaren, *Union Nacional* deiturikoa, berrantolaketa dela eta dimititu egingo dute. Jose Quero Morales eta Manuel Sanchez Arcasek, ordu arte Propagandaren zuzendari orokorra zena, ordeztuko dituzte hurrenez hurren. Hurrengo 6 sekziok osatuko dute idazkariordetza hasiera batean:

- Propagandarako zuzendaritza nagusia. Informazioa eta prentsa, arte plastikoak eta edizioak, irratia emisioak, zinea, argazkilaritza eta fonografiaz arduratuko da.
- Erregistro, pertsonal prestaketa eta kontabilitaterako sekzio zentrala.
- *Patronato Nacional de Turismo*
- Aholkularitza juridikoa
- Nazioarteko eta nazio barneko delegaritzak
- Agentzia autonomoak

Irizpide batasuna ezarri eta zentralismoaren mesedetan, hasieran ezarritako funtzio eta lanak gero eta gehiago hartuko ditu idazkariordetza honek. Besteak beste, Gerrako komisariotzak

⁴⁶⁴ Barea (2012), 297-304

egiten zituen emisio eta argitalpenak zein Justizia ministerioaren informazio, prentsa eta propaganda sekzioaren lanak idazkariordetzaren gain geratuko dira.

Lan karga handia zela eta, 1938ko uztailak 1ean Propaganda Idazkariordetzaren baitan Jose Lino buru duen Idazkaritza orokor bat eratuko da. 1938ko abenduaren 21 dimititu eta bere tokia Antoni Bertak beteko du. Hiru funtzio nagusi izango ditu idazkaritzak:

- 1- Idazkariordetzako langile guztien buru izan.
- 2- Zerbitzu guztien ikuskaritza eta beharrezko xedapenak hartu.
- 3- Idazkariordearen sinadura behar ez duen edo 50.000 pts gainditzen ez dituzten espediente guztiak ebaztea.

Madriren delegazio berezi bat ezarriko du propaganda idazkariordetzak, aurretiaz Juntako prentsa eta propagandaren arduraduna zen, Jose Carreño izendatuko dute 1937ko ekainaren 19an idazkariordetzaren delegatua Espainiako hiriburuan. Honek, 1938ko maiatzean dimititu eta Miguel San Andresek hartuko du bere lekua. Era berean Euskadi eta Kataluniako ordezkari bana ere izango dute idazkariordetzan.

Katalunia galtzean eta Negrinen gobernua erortzean, martxoaren 5ean, azarriko den *Consejo Nacional de Defensas* maiatzaren 19ko dekretu bidez propaganda idazkariordetza Estatuko kontseilaritzaren menpe ezarriko du eta gerra bukatu arte Angel Martinez Carmona izango da haren buru.

Negrinek egindako berrantolaketa ez da batere hutsala izango. Estatu ministerioaren baitan idazkariordetza bat ezartzean propagandari dimentsio internazionala emateko helburu argia ikus daiteke. Gainera, gero eta funtzio gehiago hartzen ditu propaganda idazkariordetzak eta propagandari loturik dauden erakundeen koordinazioa handitzen da; propaganda koherente bat ezartzeko nahia adieraziz. Horrela, kanpora igortzen den informazioaren gainean batasuna bermatzea bilatzen du.

Comissariat de Propaganda de la Generalitat de Catalunya⁴⁶⁵

Ofizialki 1936ko urriaren 3an osatutako organismoa da *Comissariat de Propaganda*. Generalitateko presidentearen departamentura atxikitako organismo independente bezala funtzionatzen zuen. ERCko militante zen Jaime Miratvellesek zuzenduko du ofizina. Gerra hasieran, Miratvelles Batzorde Antifaxistetan integratuta egon zen eta organismo horretan ere bera arduratzen zen propaganda zuzentzea. Propaganda eta informazioaren bikoiztasuna ekiditeko sortua, organigrama potente bat osatu zuen. Horrenbeste ezen, Bigarren Mundu Gerran zehar eredu bezala erabiliko duten hainbat agenzia.

Esan bezala bere zuzendari izan zen Miratvelles, eta nahiko independentzia izan bazuen ere, partidu politikoen delegatuak izan zituen bere ondoan *Comissariata* gidatzeko. Hasiera batean, Eusebi Carbó, CNTko ordezkari, eta UGTko Emili Graneir-Barrera izan ziren Miratvellesen ondoan. Graneir-Barrerak dimititzean Joaquin Almendrosek hartu zuen bere tokia. Hirukote honi, POUMeko delegatua, Mary Low, gehitu zitzaion 1936ko azaroan eta 1937ko maiatzeko gertaerak arte aritu zen. Espainiar gobernuak ere bere delegatua izendatuko du, Joaquin Astor, eta era berean *Comissariatak* Gobernuko estruktoretan bere delegatua izango du, Miquel Mora. *Comissariatak* fronteetan dagoen moralala eta ematen diren notiziak kontrolatzeko Salvador Grau izendatuko du Fronteko ordezkari.

⁴⁶⁵ Boquera (2015), 193

Delegatu politikoak alde batera utziz, eta *Comissariataren* organigrama profesionalera joaz, idazkari orokor bezala arituko da Francesc Requena i Mas, eta Miratvellesen eskuineko eskua zen Victor Artís *Comissariateko* zuzendari orokorra izango da. *Comissariataren* estrukturak ez bezala, zeinak aldaketa nabarmenak pairatuko ditu, bi kargu hauek egonkor iraungo dute gerra guztian. Orokorrean, hurrengo sekzio nagusiak izan ziren *Comissariatean* barnean⁴⁶⁶:

- Prentsa eta irratia (Buletinaren sekzioa): Ernest Saludes i Rubiesek gidatutako sekzio honen egiteko garrantzitsuenak egunero *Comunicat de premsa* buletina ateratzea zen. Egunero izandako notizien laburpena zen. Katalanez, Gaztelera, Esperanto, Frantsesez, Alemanieraz, suedieraz eta Ingelese ateratzen zen. Elizabeth O. Deeblee zen ingelesezko sekzioko burua. *Manchester Guardian* eta *Washington Post* ere egiten zuen Deeblek eta Agence Espagneko delegatua ere bazen⁴⁶⁷.
- Zinema: enpresa pribatuaren antzera funtzionatuko duten hainbat erakunde aritu ziren zinemaren. *Laya Films* produktora izan zen nagusia eta *Catalonia films* distribudora ere sortu zuten 1937 bukaeran.
- Edizioak.
- Erakusketa eta manifestazio internazionalak: Katalunian eta munduan zehar egindako erakusketez arduratzen zen.
- Administrazio eta habilitazioa.

Katalunian ez ezik *Comissariat* hainbat delegazio izango ditu Europan zehar. Frantzia eta Erresuma Batukoa ziren garrantzitsuenak. Bruselan eta Stocholmon ere kokatuko dira beste batzuk. Propaganda eta prentsa zerbitzu bat baina gehiago izango dira delegaritzak horiek. Delegaritzak politikoak eta informazioa eskuratu eta helarazteko kanal bat gehiago bezala jokatu dute. Londonetik eta batik bat Parisekin egunero komunikatzen zen *Brain-trust* antzeko bat osatu zuten Josep Maria de Sucre eta Miquel Coll i Alentornek telefonistek. Beraien egitekoa eskuratutako informazioa Companyri pasatzea zen. Horrela, gertakizun internazional garrantzitsuen jabe zen Kataluniako Presidentea. Komite horren parte izan ziren momentu batean edo bestean Josep Maria Batista, Rubió i Tuduri anai-arrebak Nicolau eta Maria, Josep Maria Miracle eta Ferran Maria Ruiz Hébrarb.

Parisen izango den delegazioaren buru POUMeko Lleo Dalty izango da. Ez da propagandako delegazio huts bat. Gai komertzial eta politikoez ere arduratuko da ordezkaritza. Aldiz, Euskal Gobernuaren ordezkariarekin gertatzen den bezala, Londoneko txikiagoa izango da. Donald Darling eskoziarrak zuzentzen zuen ofizina hau. Urte luzez Katalunian bizitako pertsona zen. Bartzelonako kontsulatu funtzionario izan zen gerra aurretik. Badirudi Britainia Handiko zerbitzu sekretuentzat lan egiten zuela⁴⁶⁸. Behin Gerra bukatuta, NJC ordezkari arituko da eta 1941eko udan Lisboko kontsulatu *Repatriation Officen* dabil lanetan⁴⁶⁹.

Londoneko ofizina irailaren 20erako funtzionatzen zebilela dirudien arren, ofizialki 1936ko urrian eratuko da⁴⁷⁰. Hasierako lekua Richard Stafford Cripps laboristak utziko die, 3 Victoria Streeten. Darling 1939ko apirila arte arituko da bertan. Darling eta Lizasoren arteko korrespondentzian bien arteko elkarlana ikus daiteke. Gainera, NJCrekiko zituzten haserrealdiak nabari ditzakegu gutunotan. Besteak beste, funtsak eskuratzeko proiektuen artean euskal margoen erakusketa bat muntatzeko laguntza, errepresioari buruzko informazioa elkarbanatu, argazkiak trukatu eta prentsari erantzuteko informazio ere elkar banatzen zuten. Adibide bezala,

⁴⁶⁶ *Ibid.*

⁴⁶⁷ Preston (2007)

⁴⁶⁸ Mir (2006), 77

⁴⁶⁹ UWA.ATUC: 1939an maiatzean Frantzian. EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:224/06 1941eko Lisboako kontsulatuan.

⁴⁷⁰ Boquero (2015), 219 eta 274-5

Arthur Lovedayek *The Timesen* 1937ko ekainaren 4an idatzitako *Basque Nationalists* erantzuteko Lovedayen informazioa igortzen dio⁴⁷¹.

Kataluniako Euskal Delegazio Orokorretik Irurok Agirrerri bidalitako txosten batean arabera, 1936ko azaro aldera beste ofizina bat ezarriko zuten Katalanek Londonen. Ez dago informazio askorik azken honen inguruan, baina badirudi Batista i Roca Londona, Sbert Parisa eta Nicolas Rubio Tuduri Genevara informazio bila bidali ostean, ofizina politiko bat ezarriko zuela lehenak Joan Gili- The Dolphin Bookshop 5 Cecil Court, Carhing Cross Rd. Londonen⁴⁷².

1936 bukaerarako, Generalitatearen Londoneko ordezkari izateko izendatu zuten Emma Goldman anarkista ezaguna. Ingalaterrara iristean, Generalitatea eta CNT-FAI bien ordezkari izateko ezintasunaz jabetuta CNT-FAI ordezkatzearabaki zuen⁴⁷³. PSUC ere izango zuen bere ordezkaria Londonen, Ronald Stewart. Jose Manyé, G. Kavannagh eta Joan Alcoverro ere arituko dira lanean delegaritzan⁴⁷⁴.

1937ko ekainerako 17, Fleet Streeten izango dituzte ofizinak. Londoneko egunkari nagusien egoitza hartatik hasiko zen Donald Darling 1937ko uztailearen 16an *Comment: on Spanish Affairs, Committee. for Defense of Spain-ek* argitaratua, argitaratzen zen gerran zehar. 1938ko apirilera etorriko da Josep Maria Batista i Roca eta orduanik aurrera hark hartuko du Generalitatearen ordezkari politikoak, ordezkari 47 Montpellier Squarera lekualdatuz. Batistarekin batera elkarlana sendotu eta batera hasiko dira, ikusi dugun bezala, FOari proiektu ezberdinak bidaltzen.

Errepublikaren Kanpo-Propaganda Erresuma Batuan⁴⁷⁵

Errepublikak atzerrira bideratutako egiten zuen propaganda gauzatzeko enbaxadetan prentsako sekzio bat izan ohi zuten. Hasiera batean, sekzio hauek izango dira munduan zehar propaganda zabaltzen arituko direnak. Londoneko kasuan, prentsa agregatua zen Antonio Ramos Oliveira sozialistak zuzentzen zuen. Enbaxadorearen konfiantza osoa zuen Ramos Oliveirak Stanley Richardson, poeta eta enbaxadako itzultzailea, eta Enrique Moreno irakaslearekin batera prentsako gutunak erantzun, artikulua idatzi eta liburuxka ezberdinak ere osatuko dituzte. Enbaxadako prentsa departamentuak eta *National Council of Labourrek* argitaratuko ditu azken horiek. Espainian gertatzen dena azaltzen saiatzen dira. Errepublika erreformista hiltzeko saiakera egozten diote altxamenduari eta demokraziatik berriro diktadurara bueltatu nahi izana. Horretarako modu oso positiboan Errepublikan zehar egindako erreformak aipatu eta aristokrazia eta kapital handiak horien kontra aurkeztu duten erresistentziak aditzera ematen dituzte. Horrez gain, saiakera handiak egiten dituzten mugimendu nazionalaren katolizismoaren ezereztatzeko. Eliza katolikoa bere interes ekonomikoak defendatzeko lerratu omen da nazionalekin. Are gehiago, bere osotasunean ez da lerratu eta hori adierazteko euskal apaizen eta hainbat katolikoren adibideen berri ematen da. Azkenik, sarraskiei ere egiten zaiei erreferentzia. Errepublikaren sarraskiak onartzen badituzte ere, errebeldeek egindakoak

⁴⁷¹ EAH EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:212/1 Darlingek Lizasori (1938-01-04) *Do you know if some Basque Children are to appear in the B.B.C. television programme soon, or is this another secret manouvre from Marsham Street? In any case it should be good propaganda.*

⁴⁷² EAH EG.LD.S:Secretaria General (Bilbao, BAcelona, Paris). Secretaria V:100 L:23/04 *La gravedad del momento presente*

⁴⁷³ Fundación Anselmo Lorenzo CNT artxiboa. Amsterdameko Funtsa. 63-C

⁴⁷⁴ Boquera (2015)

⁴⁷⁵ Moradiellos (2009)

zabaltzen saiatzen dira. 1937ko abuztu arte £3.400 gastatu zituzten inprimitutako 30 bat argitalpenetan. Guztira 175.500 ale⁴⁷⁶.

Enbaxadarengatik independente sortuko da *Spanish Press Agency* 1937ko urtarrilaren 20an 151 Fleet streeten kokatuz. 1936ko abenduan Parisen osatuko den *Agence Espagneren* filial britainiarra izango da. Frank Jacksonek zuzenduko du. Vicktor Bodker, Reuterseko Berlineko korrespontsala izandakoa 1937ko martxorik urri arte izango du berarekin. Bodkerrek Parisetik *Spanish Press Agencyren* aurrekontuan £210tik £160ra jaistean dimititu zuen. Egia esan, 1938ko martxorako Parisekin alderatuz oso argitalpen gutxi zituen, 692. Gehiengoa horrenbeste interesatzen ez zen argitalpenetan: *Manchester Guardian*, *Reuters*, *Central News* eta *Daily Worker* komunistan⁴⁷⁷.

Propagandaren ikuspuntutik, *Agence Espagne* errepublikaren lorpen handienetako bat da. Mutzenberren ideietatik abiatu eta Otto Katzek, agentziako lehen zuzendariak, aurrera eramandako inizatiba da. 1936ko urrian pentsatua, agentzia 1936ko abenduan jarri zen abian, errepublikarren arteko tira-bira batzuen ondorioz. Parisen zuen egoitza, 13 de al rue l'Ancienne Comeduen eta ironikoa bada ere, Ingalaterrara begira egindako agentzia bat da. 15-18 miloi frankoko, 3 errepublikarenak, inbertsioa duen enpresa hau Errepublikaren eta Kominternaren arteko kolaborazioaren ondorioz osatu zen⁴⁷⁸.

Negrin gobernuburu bilakatzean enbaxada eta Estatu ministerioaren arteko koordinazioa indartu egingo du, Estatu Ministerioaren baitan sortu zuen propaganda idazkariordetzaren inguruan zentralizatuz. Honek Pariseko delegaritzaren baitan koordinatuko ditu Atzerriako prentsa ofizina eta *Agence Espagene*. Zentralizazio honetan, Londoneko enbaxadak diru gehiago jasoko zuen.

Diru hori 1937ko erdialdera Charles Duff irlandarrak, errepublikaren £300rekin, sortutako *United Editorial* indartzeko baliatuko dute, nahiz eta enbaxadak bere kabuz hainbat esku orri inprimitu. Gerra hasieran FOeko prentsa departamentuan egiten zuen lan Duffek. 1937 hasieran dimititu eta Carlos Espla eta Luis Rubiori iradokizun interesgarri batzuk egin zizkien. Sentsazionalismoa baztertu eta estatistiketara jotzeko, hau da arrazoia emozioari gailentzeko hautua egiteko esanez. Sarraskien berri sentsazionalistak kaltegarriak izan daitezke, eta gainera gizartea ez zegoen horietan interesatua. Propaganda kanal *ez ofizialetatik* egitea ere iradokitzen die. Britainiar batek zuzenduta eta enbaxadatik aparte, izen neutro bat erabiliz. Betiere, atzerriko prentsa ofizinarekin kontaktua izan behar zuen, baina agentzia handiak eskaintzen zituzten berri diplomatiko eta militarrek alde batera utziz britainiar iritziko liderrak erakarri behar zituen. Lehen Mundu Gerran FOaz jabetu zen erakunde agresibo bat baino hobe zela erakunde pasibo baina ondo dokumentatua zegoena⁴⁷⁹.

Charles Duff bera editore dela antolatuko da erakunde hori. Astekari bat, *The War in Spain* (1939ko urtarrila-abendua) eta hilabetekari bat *Spain at War* (1938ko apirila-abendua) argitaratuko ditu. *Spain at War The Voice of Spaine*k (1939ko urtarrila-martxoa) ordezkatuko du. Liburuak eta esku orriak editatzeaz arduratuko da organismoa eta 15 bat liburuxka emango ditu argitara. Besteak beste, *Controversy on Spain*⁴⁸⁰ da interesgarria. *The Morning Post*eko editore zen H. Gwynne eta Londoneko Espainiako enbaxadako prentsa agregatuarekin, Ramon

⁴⁷⁶ de los Rios (1937); Ramos (1936) (1937); Moreno (1936) Kontaketa: Garcia (2008), 96-7; propaganda eta enbaxadari buruz gehiago Moradiellos (2001); *Ibid.* (2009)

⁴⁷⁷ Garcia (2008), 92 g

⁴⁷⁸ *Ibid.* (2008), 90-2

⁴⁷⁹ Garcia (2008), 106-107

⁴⁸⁰ Gwynne eta Ramos Oliveira (1937)

Oliveira, izandako Letter to editor eztabaida da. 1937ko uztailaren 14tik azaro arte luzatzen diren gutun hauetan atzerriaren partehartzea, izandako sarraskiak eta bi bandoen legitimitatea dira eztabaidagai.

Bando Nazionala

Eremu errepublikarrean geratu ziren estatuko hiri nagusiak eta Madril, Bartzelona edo Bilbon kokatzen ziren egunkari, irrati emisore, estudio eta material zinematografiko garrantzitsuenak. Horregatik, hasiera batean, errepublikarrek baino baliabide eskasagoak zituzten propaganda egiteko eta arlo militarrean gertatu bezala, aparatu propagandistakoa osatzeko ere, Alemani eta Italiar laguntza izan zuten⁴⁸¹.

Propaganda aparatu ofiziala eratzeko lehen urratsak Burgosen osatu zen Defentsa Batzorde Nazionalak eman zituen. Uztailaren bukaeran sortu zen erakundeak Juan Pujol jarri zuen Prentsa Kabinetearen buru abuztuaren 5ean. Pujol *Informaciones* kazetako kazetari monarkikoa zen eta bere laguntzaile izan zituen Joaquin Arraras, Francisco Melgar eta Gonzalo Aguilera. Abuztuaren 24an izena aldatu, eta *Oficina de Prensa y propaganda* osatuko da. Defentsa Batzorde Nazionalak Francisco Franco estatu buru hautatu eta estatu egiturak aldatu egin zituzten. Hala, urriaren 1ean, ofizinarene funtzioak Estatuko Batzorde teknikoko kultura eta irakaskuntza batzordeak hartuko zituen bere gain. Prentsa eta propaganda sekzio bat izango zuen Jose Pemanek zuzendutako batzorde honek. José Millán-Astray jeneral izango zen sekzioaren buru. Prentsa eta propaganda ofizina Salamancako Anaya jauregian ezarri zen eta Pablo Merry de Val, Agustín de Foxá, Ernesto Giménez Caballero, Gonzalo de Aguilera eta Luis Antonio Bolín izango zituen inguruan. Prentsa ofizina honetan, atzerriko korrespontsalen buru izango zen Bolín 1937ko maiatza arte. Bere lana korrespontsalei lagundu eta zentsuratzea zen. Pablo Merry del Valek ordeztuko zion zentsura lanetan⁴⁸².

1937ko urtarrilaren 14an Estatuko idazkaritza nagusiaren azpian *Delegación del Estado para Prensa y Propaganda* jaio arte iraungo zuen egoerak. *Acción Católica*ko Vicente Gay izango zen lehendabiziko delegatua. Monarkiaren alde egitearren eta falangistekin dituen arazoak medio, Arias Paz komandanteak ordeztuko dio 1937ko apirilean. Delegazio honek pixkanaka propaganda aparatuak zentralizatu zituen, gehienbat Bateratze dekretuaren ostean. 100.000 pesetako aurrekontu txikia izango zuen hilabetero. Halere, asko hasiko zen. Bederatzi azpi-delegaritza izango zituen. Donostin Joaquin de Entrambasaguas zen ordezkaria eta Ramon de Dalmases Bilbon. Salamancatik kontrolatzen zen erakundeak 500 funtzionario zituen 1937ko urrian. Sekzioen gehiengoak diru-falta sumatu bazuten, ez zen atzerriko prentsaren kasua izango⁴⁸³.

Atzerriko prentsa sekzio sustatuko zuen Ariasek. 1937tik aurrera *Boletín de Prensa Extranjera* argitaratuko zuen informazio sekzio bat gehitu zion, eta ofizina kanpo propaganda egiten hasiko zen. Besteak beste, area ezberdinetan (nazio lagunak, etsaiak eta neutralak) banatu zen sekzioa. Ingalaterra, Estatu Batuak eta Frantzia etsaien artean kokatzen ziren. Jesus Pabon zen area honetako burua. Zentralizazioaren bidean sakonduz, zentsura ere berrantolatu zuen. Manuel Lambarri, Gasteizko prentsa ofizinarako burua bilakatu zen korrespontsalen arduraduna eta Pabon

⁴⁸¹ Thomas (1978), 565-566 1936ko abenduak Hamburgotik Vigora Lorenz markako irrati transmisore bat heldu zen. Espainian zegoen transmisorerik indartsuena baino hiru aldiz potentzia handiagoa zuen. Espainia Nazionalen ez ezik, Salamanca eta Burgosko ahotsa Espainia Errepublikar osoan entzun zitekeen

⁴⁸² Arias Gonzalez (2013). Espainiatik zehar beste ofizina erregional batzuk ere izan ziren. Arambarri kapitainak zuzendutakoa kasu. Ofizina hauen funtzioa 1939an Suñerrek sortutako "Secretaría de Prensa y Propaganda" hartuko ditu bere gain. Garcia (2008) 61 Luis Maria de Lojendiok hartuko du Pablo Merry del Valen postua 1938 inguruan.

⁴⁸³ Garcia (2008) 61-63. AGA 21/1358 1937an Adrian Loyarteren izena ere ikus dezakegu Donostian

eta Lambarrik Antonio Barroso, Estatu Nagusiko operazioaren buruarekin elkarlanean arituko ziren. Pabonek Barrosori prentsaren orientazioen berri eman ostean Lambarri zentsura irizpideak ezartzen zizkion Barrosok. Hiru hauen lotura Francoren kuarteleko prentsa ofizinarekin buru zen Manuel de Lojendio izango zen.

Sekzio hau erbestean zeuden intelektualak kausa nazionalaren alde erakartzen saiatuko da. Ordu arte isilik mantendu ziren, Jose Ortega Gaseet, Gregorio Marañonekin, Perez Ayalarekin harremanetan jarriko zen Arias. Perez de Ayala enbaxadore ohiak aurrerago *The Timesen* artikulua idatziko zuen. 1938ko ekainean izango zen, eta armistizio baten aurrean, hura *unthinkable and unfeasible* zela irizten zuen.⁴⁸⁴ Esan bezala, Espainiar intelektualak bereganatzen saiatu ziren eta atzerrirako ez ezik, barnera begira egindako mugimendua zen. Pio Baroja hilabetero sei artikulua idaztera hitzeman zuen⁴⁸⁵.

Arias Pazek Goma artzapezpikua, eta ondorioz espainiar elizarekin, zituen loturak indartu egin zituen. Elkarlanaren adierazle da Zaragozan, *Acción Catolicako* gaztediaren laguntzaz, tartean Albert Bonet, Francisco Luis eta Gomak berak martxan jarri zuten *Oficina de Información Católica*. Hasieran izan zitzakeen espektatibak ez zituen bete. 1938tik aurrera ofizinak *De Rebus Hispanae* egunkaria eta panfleto eta liburu pare bat bakarrik argitaratu zituen. Hasieran zentsura saltatu zezaketen, baina behin *Synthetic vision of the movement that must save Spain* argitaratuta, zentsuratik pasarazi zitzaizen argitaratu beharreko guztia. Ingeles oso eskas batean idatzita zegoen esku-orria⁴⁸⁶.

1938ko urtarrilean Lehen Gobernu nazionala osatzean, partidu bakarreko eta estatuko kompetentzia guztiak Delegazioarenpean geratu ziren. Kasu honetan, Ramon Serrano Suñerrek zuzentzen zuen Barne ministerioaren esku. Falangistak hartuko zuten pisu handiena berrantolaketa honetan. Arias Paz kargugabetu eta bi falangistak hartu zuten propaganda eta prentsa euren kargu. Propaganda Dionisio Ridruegok eta Jose Antonio Gimenez-Arnauk prentsa⁴⁸⁷. Azken honen kargu geratuko zen kanpo propagandaren zati handiena. Pabonek bere postua mantendu zuen Atzerriko prentsaren buru eta Pablo Merry del Valek jarraituko zuen zentsuran. Ramon Garriga informazio sekzioaren jabe zen. Arias Pazen denbora pasata, zentsura berriro ere gogortu egingo zen 1938an zehar.

Aipamen garrantzitsu bat merezi du EFE agentziak. Nahiz eta Gerra Zibilean zehar ez zuen esanahi haundirik izan, gerora izango du. Prentsako delegazio nazionalak bidalita, 1938ko abendurako heldu zitzaion Vicente Gallegok agentzia sortzeko idatzitako proposamena Francori. 1939 hasieran enpresa pribatu bezala sortu zen Gallego zuzendari zela. Agentzia gobernuaren bozeramaile ez-ofiziala zen eta Reuters eta Havasen erara egituratu zen⁴⁸⁸.

⁴⁸⁴ *The Times* (1938-06-10) Garcia (2008) 62 or. Paboneri momentu erabakigarrietan mugimenduaren alde egin zuela adierazi zionean ziurrenik artikuluarik egiten zion erreferentzia.

⁴⁸⁵ AGA 21/320 Ingeniariari komandanteak Pio Barojari (1937-12-09) Arias Pazen kargu-ustea adierazi ostean, bere artikulua ez dela publikatu esango dio. Londres, Parisa eta New Yorkera bidali dela lehendabizi. Hilabetero sei artikulua idaztea zaila dela irizita, nahi duena idazteko esaten dio. 175 pts. Ordainduko zaizkiola artikulua bakoitzagatik.

⁴⁸⁶ AGA 21/320 Sub-Delegado de Zaragoza a Delegado de Propaganda (1937-10-17) Ofizinarekin proiektua hemen: CDMH. Fundacion Franco Rollo 26955: 24.400 pts aurrekontua eta Roma, Belgikan eta Parisen korrespondentsalak.

⁴⁸⁷ Idazkariorde: Pepe Lorente Sanz. Propagandako zuzendari orokorra: Dionisio Ridruejo; Prentsako zuzendari orokorra: José Antonio Giménez-Arnau; Irratiaren zerbitzuen arduraduna: Antonio Tovar; Edizioak: Pedro Lafn Entralgo; Kanpo-Propaganda: Jesús Pabón; Prentsa zerbitzuen informazioaren zuzendari: Ramón Garriga; Zinea: Augusto García Viñolas; Teatroa: Luis Escobar; Arte ederrak: Eugenio D'Ors; Propaganda Zuzena: Juan Ramón Masoliver; Zerbitzu plastikoak: Juan Cabanas

⁴⁸⁸ Garcia (2008), 66

Falangearen estruktura ⁴⁸⁹

Altxamenduaren aurretik Falangearen propaganda ez hainbat aldizkari klandestinitara besterik ez zen mugatzen. Jazo zen momentua, Vicente Cadenas zen falangeko Prentsa eta propaganda burua. Uztailak 18an Hondarribian zen eta berehala alde egin zuen Frantziara. Hortik Iruñara lekualdatu eta Manuel Hedillak, falangeko buru probisionalak Burgosa deituta hara joan zen, aharik eta bando nazionalak Donostiaz jabetu eta bertan ezarriko zen 1936ko irailaren 13an *Jefatura Nacional de Prensa y Propaganda*. Idazkari bezala Vicente Gaceo del Pino hartu zuen eta José Antonio Giménez Arnau, José Villanueva de la Rosa eta Maximiano García Venero izan zituen laguntzaile.

Buruzagitza hartatik zentralizatzeko proiektu bat pentsatu bazuten ere, *Consejo Nacional de Prensa y Propaganda*, hasierako kaosa eta lurraldeen arteko komunikazio faltak lurralde bakoitzean taifa antzeko egoera bat izatera eraman zuen. Tropa nazionalak aurrera egin ahala inprentak konfiskatu eta makina bat berripaperrez jabetu ziren 1936ko irailaren 13ko dekreatuari eskerrak. Frente Popularren alde agertu ziren partiduak legez kanpo utzi eta beraien ondasunak konfiskatzea ahalbidetu zuen dekretua zen⁴⁹⁰. Konfiskatze horien artean Nafarroako Arriba España zegoen.

Egunkariez gain, hainbat aldizkari ere atera ziren. Garrantzitsuenak Burgosen Burgosen 1937ko martxoaren 6an sortutako *Destino* eta Donostian aste pare bat lehenago Manuel Fernandez Cuestak abian jarritako *Fotos* ditugu. *Vertice* hilabetekaria ere Donostian argitaratu zen apirilaren 1etik aurrera. Bukatzeko, *Jeararquía* aipatu behar da. Fermin Yzurdiaga apaizaren zuzendaritzapean Falangearen estetika klasizistaren erakusgarri, benetako buruhauste ekonomikoa izan zen. Horregatik lau zenbaki besterik ez zituen izan, hala ere, saiakera intelektual interesgarria da.

Falangismoaren espantsio azkarrak, militanteei zein argitalpenei dagokionez, koordinazio falta bat ekarri zuen. Esan bezala, Taifen erreinu bat bilakatu ziren probintzietako egunkariak eta prentsa eta propaganda falangistaren marko ideologikoa mantendu eta norabide berdineren bideratzeko 1936ko azaroan Donostiako buruzagitzaren baitan prentsa ofizina bat eta kolaboraziorako agentzia bat sortu ziren. Bien helburua falangismoaren prentsaren ideologia eta propaganda norabidea bateratzea zen.

Bukatzeko, eta Donostiako jefaturaren antzeko helburuarekin Salamancan *kokatutako Junta del Mandoren inguruan* Delegación de la Jefatura Nacional de Prensa y Propaganda bat sortu zen. Martín Almagro zuzenduta Donostiako estruktura hartzen ari zen indarrari itzala egiteko eratu zen. Prentsaren buru Giménez Arnau eta propagandaren buru Tito Menéndez izendatu zituen Hedillak, Cadenasen babesik gabe. Barne borroka hauek sortutako koordinazio eza probestuz, 1936ko abendurako Salamancan Maximiano García Venero eta Angel Alcazarrek gidatutako *Agencia de Información, Control y Colaboraciones*en menpe geratuko dira prentsa falangistako artikuluen autorizazio eta zentsurako konpetentziak.

Karlismoa eta bateratzearen ostekoa FET de la JONSEN egitura

1936ko abuztuaren 28an Nacho-enean eratuko zen Manuel Fal Conderen lidergoan Burgosen ezarriko zen *Junta Nacional Carlista de Guerra*. Bi sekziotan bananduko zen estruktura: Militarra eta Gai orokorrak. Bigarren goaren barnean kokatzen da *Delegación de Prensa y Propaganda*. Julio Muñoz Aguilar izango delarik honen buru. Ildo beretik, eta autonomia

⁴⁸⁹ Gonzalez Calleja (2012)

⁴⁹⁰ B.O.E. (1936-09-16)

handiarekin *Junta de Central Carlista de Guerra de Navarra* aginduetara Iruñean prentsa ofizina bat sortuko da abuztuan. Hasieran Escolapioseko eskolaren erreketen kuartelaren ondoan ezarriko da. Ondoren, San Frantzisko plazara lekualdatuko da. Atzerriko prentsa analizatu, korrespontsalak artatu eta atzerrira bideratutako berriak sortzea zen. Batzorde nazionalako delegaritzarekin harreman zuzena zuen.

Nahiz eta karlistek errepublikarren lurraldean geratu ziren egunkari nagusiak, *El Siglo Futuro* eta *El Correo Catalán*, galdu, Falangismoarekin alderatuz argitalpen gehiago eta indartsuagoekin hasi ziren. Hala ere, azkenean Batasuneko dekreturako nahiko ahulduta helduko dira, eta mugimendu batuaren kontrol askoz ere indartsuagoa izango dute. Prentsa tradizionalista gehienbat euskal lurralde eta bere inguruetara mugatuko da.

Karlismoak falangismoak bezala lurraldeak irabazi ahala kazetak konfiskatu eta bere bozgoragailuak sortuko ditu. Horren adibide da *La Voz de España*, *La Voz de Guipuzkoako* inprimategia hartu ondoren sortua 1936ko irailaren 15ean. Julio de Aguilar Muñoz eman omen zion hura martxan jartzeko agindua eta Espainia osora zabalduz 27.000 ale inprimatzeraino heldu omen zen. Aguilar berak dionez, propaganda eta prentsa ordezkari izan zen lehendabizi, eta gero prentsarena bakarrik. Orduan, *Boletín de Campaña de los Requetés* argitaratzeaz ere arduratu zen. Argitalpen hau Burgosen 1936ko abuztuaren 8an hasi zen. 1937ko otsailaren 17an adierazten dio Fal Conderi gogo handiz hartuko duela Irratiaren buruzagitza⁴⁹¹.

Lau egun lehenago, otsailaren 13an, Insuako jauregian egindako biltzar batean izendatuko dute Aguilar Karlismoaren Irratiaren buru. Karlismoaren Junta nazionalaren berrantolaketa bat planteatuko da bilkuran eta Jose Maria Valientek hartuko du prentsa eta propagandaren delegaritza. Aguilar irratiari sartuko den bitartean, Ignacio Romero *Requeté* editorialaren buru izango da eta Alejandro Ruiz de Grijalba akto publikoen kargu egongo da. Prentsako kontseilaria eta ikerketen sekzio buruak ez dira izendatuko. Utzik geratutako Ikerketa eta prentsa atalak hurrengo erara antolatuko dira. Ikerketen sekzioa tradizionalismoaren inguruko pentsamendua teorizatzeke eta artikulu ezberdinen bitartez prentsara igortzeko artikuluak sortzeko kabinetea izango da. Aldiz, egunkariei norabide ideologikoak eta materiala igortzeko agentzia ezberdinez osatuko da. Publizitateaz agentzia bat arduratzen den bitartean, bestea informaziora bideratuko da eta zuzendaritza baten ardura izango da tradizionalismoko argitalpen guztiak bere magal ideologikoan biltzea⁴⁹².

Erresistentzia batzuek egon baziren ere, aparatu propagandistiko osoa Unifikazio dekretuarekin batera erori egingo da, eta mugimendu bakarraren baitan txertatuko dira Falange eta Karlismoaren estrukturak. Prentsa eta propagandaren delegatu izendatuko dute Fermin Yzurdiaga 1937ko maiatzean *Celestino Minguela* idazkari zuela. Estatuko Prentsa eta propaganda delegazioarekin paralelo arituko den estruktura honetan, prentsaren zuzendari arituko da Eladio Esparza eta propagandaren kargu izango da, Dionisio Ridruego. Ridrugoren azpian, Joaquin Gortazarrek 1941 arte zuzendutako *Secretaria de Intercambio y propaganda exterior* izango da⁴⁹³.

Londoneko nazionalen propaganda estrukturak

⁴⁹¹ UNAV 133/307 Julio Muñoz Aguilar Fal Conderi (1937-02-17) *Nuetsra voz de España como dijo felizmente Jose Maria Pema, era ya un poco la voz del Mundo. Y ahí sigue en pie, viva y palpitante, mi obra... ¡jnuetsro mejor periodico se lee mas que el pensamiento y el diario (...)*

⁴⁹² UNAV 133/306 *Nueva constitución de la Junta Nacional Carlista de Guerra.*

⁴⁹³ Thomas (1978), 808-809 eta Martínez (2011), Yzurdiagak dimisioa aurkeztuko zuen Marcelino Olaechearen presioen ondorioz 1937ko abenduan.

Erresuma Batuan nazionalen alde propaganda egiten aritu ziren organismo ezberdinak izan ziren. Hasieran,. Espainiarekin kontaktu zuzena izango zuten bi batzordetan antolatuko ziren. Autoritate nazionalekin harreman zuzena izango bazuten ere, autonomia handia zuten. Gerrak aurrera egin ahala, Espainiarekin harremanak indartu gero eta zentralizatuago eta zuzenduago egindako propaganda garatuko zuten organismoak eratuko zituzten.

Gerra Zibila hasi eta egun gutxira bi batzorde sortu ziren Ingalaterran. Lehendabizikoa, *Small Committe* izenez ezagutzen da. Bestea, Dorchester hoteleko *enbaxada beltza*. Dorchesterren kokatzen zen behin-behineko errebeldeen enbaxadan Portagoko eta Merry del Val markesak zuzentzen zuten. Bertan egiten zuen lan Fernando Valdes Londoneko enbaxadako idazkari ohiak. De Valek Burgostik hartutako enkargua betetzen zuten hotel horretan, hau da, Gobernu Britaniakoarekin komunikazio ezartzea. Portago eta Del Val izango ziren altxatuen enbaxadore ez ofizialak 1937ko ekain arte. Lizasoren iritziz, Dorchesterren ezarritako enbaxadatik egindako propagandari eskerrak, Ingalaterrako prentsaren gehiengo errebeldeen aldekoa zen. Hasieran, Errepublikarren Londoneko aparatuek ezin izango diote altxatuen propagandari aurre egin. Arrazoi nagusia enbaxadorearen *ineptitud*-ea da. Hala, anarkisten hilketak eta jazarpena erlijiosoak titularretan zabalduko ziren bitartean, alde nazionalaren erailketak ez zuten inongo jarraipenik izan. Izenean ere irabazi egin zieten⁴⁹⁴:

Han tenido los rebeldes la habilidad de conseguir que casi unánimemente se califique con el nombre de reds – rojas- a las se tropas gubernamentales. Esto tiene una importancia capital pues el fantasma del comunismo causa verdadero pánico en la opinión ingles que, por otra parte, está convencida de que los rebeles, calificados como “nacionalistas”, defienden un orden contra una anarquía, orden que quieren los ingleses exista en Europa para que su país, actualmente en disfrute de una ascendente prosperidad económica, no pueda ser inquieta por una guerra. En esto está acorde unánimemente toda la prensa. Inglaterra no debe intervenir en los asuntos de España porque ello podría suponer el primer paso de una posible intervención en una conflagración que se teme próxima.

Lizasok aipatzen duen arrakasta ez zen enbaxada horren ondorio bakarrik. Moralgo markesak zuzendutako *Small Committe* delako bat izan zen kanpainaren arrakastaren erantzule nagusia. Hau Errepublika garaian 1932-1935 bitartean aktiboki Errepublikaren nazioarteko sinesgarritasuna ahultzeko osatu zen propaganda batzorde bat zen. Prentsara gutun eta artikulua igorri eta *Anonymous* izengoitiarekin Luis Bolinek *The Spanish Republic* liburuaren bidez Errepublika erasotu zuten. Hala ere, 1935 diru babesik gabe zegoenez biltzeari utzi zioten. Gerra hasi eta berehala Moraleko markesaren liderpean berriro aktibatu zen batzordea⁴⁹⁵.

Altxamendua hastean Bertolanok berak prentsari mugimenduari buruzko informazio igorri zion. Uztailaren 31an, Goizueta komandantearen, Molaren ordezkariaren, bisita jaso zuen. Prentsan altxatuen aldeko propaganda egiteko eskatu zion eta bi egun beranduago, Juan de la Cierva, Alfonso de Olano eta Portagoko markesak bisita egin eta Erresuma Batuan nazionalen propaganda egiteko eskatuko zioten.

Abuztu horretan, aurretik Bertolanorekin batera lan egin zuten Douglas Jerrold eta Arthur Lovedayekin elkarlanean 71 Jeremyn Streeten ezarriko zuten batzordearen ofizina. Jose

⁴⁹⁴ SAF-BBB-281-1; Garcia (2008)

⁴⁹⁵ AGA 54/6803 Moralko markesaren txostena eta Garcia (2008), 36 Charles Petrie monarkikoak, Douglas Jerrold katolikoak eta Victor Rakes parlamentariak zein Luis Bolinek osatzen zuten Errepublika garaian eta *Morning Posteko* Ian Colvinekin zuten laguntasuna erabiltzen zuten kazeta honetan Errepublikarri eraso egiteko. Timeseko suplementu literarioak liburua errepublikaren aurkako eraso serioena zela zioen.

Fernandez Villaverde Londoneko enbaxadako idazkari ohiak eta Eduardo Danis, Estatu ministerioko prentsa arduradun ohia aritu ziren lanean bertan⁴⁹⁶.

1936ko urrirako ezarriko zen Londoneko Hotel Claridgen Albako dukea eta aipatu berri ditugun bi elementuekin kontaktuak izan zituen. Azaro bukaeran egitura guztiak bateratzeko beharra ikusi eta Herbert O'Neill FOeko langile ohia, itzultzaile eta kazetari talde bat, tartean Alfonso eta Pedro Zulueta, kontratatu eta Dorchesterren jarri ziren lanean. Egoitza hartan 1937ko martxo arte lan egin ondoren, 22 Hans Palacen ezarriko ziren. O'Neill eta Moral bera ere kexu agertuko ziren zituzten baliabide urriak zirela eta. Diru eta informazio faltari, aparatu nazionalekin komunikatzeko zailtasunak gehitzen zitzaizkion. Gainera, bidaltzen zituzten agerkarietako editoreak kazetariei ematen zitzaien tratu txarraz kexu ziren.

1937ko ekainean helbide horretan ezarriko zen Albako Dukea Francoren enbaxadore *oficiosoa*. Ordu arte, Moralek hizketaldi eta manifestaldi ezberdinak antolatu eta eman zituen Erresuma Batuan zehar eta prentsan egindako lan guztiaz gain, guztira hogeita hamar bat liburu eta panfleto ezberdinak subentzionatu zituzten. Garrantzikoena 1936ko urrian azaldu zen *Red Terrorek* egindako sarraskiei buruzko txostena. Txosten hori eta baita bigarrenaren publizitate eta inprimatzean, hurrenez hurren, 1237 eta 1080, guztira, 2317 gastatu ziren, 1

Alba etorri zenean, nahiko diskrezio handiarekin jokatu zuen publikoki eta gestioak modu pribatuan eramaten saiatu zen. Prentsan gutxi hartzen zuen parte bere izenarekin eta horretarako aurretik Ingalaterran zeuden egituretan lanean ibilitako pertsonak erabiltzen zituen egite horretarako. Era berean, propaganda egiturak askoz ere garatuago zeuden nazionalen eremuan eta diru gehiago zuten. Horregatik, prentsa eta propaganda delegaritzak ordezkari bat zuen Ingalaterra: Juan Mata. Azken honek, propaganda berrantolatu nahi izan zuen. Eraginkorrago eta zentralizatuago egiteaz gain, Ingelesen izaerara moldatu nahi izan zuen.

Isilean bazen ere, Matak berak zuzenduko zuen Regent Streeten kokatzen zen *Spanish Press Services*. Hilabetero £1000 aurrekontua zuen agentzia honen buru ziren ofizialki behintzat aurretik aipatu dugun Herbert O'Neillek eta Frederick Bowenek, Londoneko falangeko burua. Panfleto eta esku-orri ezberdinak argitaratzeaz gain, *Spain* astekaria publikoari heltzeaz arduratzen zen editoriala. 1937ko azaroaren 10an atera zen lehendabizikoz. Kazetari eta intelektual ingeles ezagunek idazten zuten bertan (Douglas Jerrold Cecil Gerarthy, Arnold Wilson, Douglas Organ...). Beste artikuluak argitaratzen ez zen, baina halako agerkarietan artikuluak prestatzeko prentsa eta propagandako delegaritza nazionalak bidaltzen zien *Noticiero de España*-k bildutako materiala erabiliz idazten ziren.⁴⁹⁷ SPSk sortutako materiala banatzeko, Albak pentsatutako eskema bat erabiliko zen. Albaren eta SPSren komunikazio zuzenean eta £ 35 aurrekontuarekin sei azpi-agentzia ezarri ziren Erresuma Batuan zehar: Cardiff, Southampton, Newcastle. Glasgow, Manchester, eta Dundeen. Guztietan aktiboena Glasgoven ezarrita zegoen Rafael Gorro izango zen. Gorro bera izango zen Eskoziako falangearen burua.

Matak berak Falangeko ordezkari britainiarrekin nahiko arazo izan zituen. Mataren iritzi, koordinazio gehiago behar zen, eta zentralismotik haratago inongo irizpide gabe egiten ziren diru-bileta eta egitasmorekin kritiko agertzen zen. Ingalaterrako falangeko buruarekin, Sturrupekin etsaitasun handia zuen. Beste arazoan artean, Sturrupek Falangearen aldizkari bat egin nahi zuen, nahiz eta Mataren zerbitzuek argitaratzen zuten *Spain* aldizkaria arazo ekonomikoak izan.

⁴⁹⁶ Moradiellos (1990), 189-192 arabera Ramon Perez de Ayala, enbaxadore ohiak, eta Antonio Pastor irakasleak kolaboratu egin zuten ofizina honekin.

⁴⁹⁷ Pulpillo (2018)

Ikus daitekenez, *Falange exterior* bera, beste organismo propagandista bat izan zen Erresuma Batuan. Falangearen zerbitzu hau Gerra Zibil aurretik sortu zen. 1936ko urtarrilaren lehen egitarak Milanen 71 del Foro Bonaparten ezarriko zen nazioarteko lehen egoitza. Gerrak ezta egitean, eta Falangearen agente egiturak berrantolatzean Felipe Ximenez Sandoval izendatu zuen Manuel Hedillak, falangeko buru probisionalak, *Falange Exteriorren* buru. Behin bateratzea errealitate bilakatuta, sortuko zen partidu bakarreko *Delegacion Nacional de Servicio Exterior* delakoa eta 1937ko abuztutik 1939 maiatzera Jose Castaño izango da zerbitzuko buru. Zerbitzuaren irizpideak Federico Urrutiak idatzitako esku-orri batean ikus ditzakegu⁴⁹⁸:

la formación de las Organizaciones de Falange Española Tradicionalista y de las JONS en el Exterior, dirigiendo, encauzando e impulsando sus actividades, mediante una comunicación constante y directa con los Jefes de aquellas Organizaciones. Pero la función de la Delegación Nacional del Servicio Exterior no se limita sólo a esto, pues colabora intensamente en la propaganda del Estado en el extranjero.

Ingalaterrari dagokionez, Oswald Mosleyren partidu faxistaren oso gertuko zen Felix Sturru izango da falangeko burua. Harekin batera arituko dira Enrique Trull, R. B. Midelton eta propagandaz arduratuko den Federico Bowen. Bowen 1938ko uztailaren kargu gabetuko dute. Haren ordez, Enrique Trull eta R. de Pinedok, errepublikar ohiak, hartuko dute falangearen buruzagitza. Espainiako komertzio kamarako idazkaria zen eta bertako ofizinetan ezarri zuten falangearen Londoneko egoitzak 5, Cavendish Squaren⁴⁹⁹. Irlandan, falangeko 1938ko abuztutik aurrera K. C. Cahill izendatuko dute azpi-ordezkarari probisonala eta Eskozian dagoeneko aipatu dugun Rafael Jorro zegoen.

Falangeak gehienbat hizketaldia antolatzen zituen prentsaren *propaganda vergonzosa y mentirosa* gezurtatzeko. Sturru araberak 54 bilera antolatu zituen 1937ko apiril arte. Horietan garrantzitsuenak Newcaslen egindako, non 6.000 pertsona izan omen ziren. Sturruarekin kritiko agertzen diren bezala, bera ere oso kritikoa da aparatu estatalekin. Ez zuen uste lan onik egiten ari zirenik eta gainera falangearen aurkakoak zirela ere azpimarratzen zuen. Bestalde, Jorrorrekin oso pozik daude guztiak orokorrean. Antikomunistekin aliatuz, kanpaina Errepublikarrari kontrapropaganda egiteko agente ezberdinak bidaltzen zituen oposizioaren bileretara⁵⁰⁰.

7. EUSKAL PROPAGANDA

Errepublikaren eta Nazionalen osatu zituzten propaganda egiturak aztertu ostean, Euskal lurraldeetan sortutakoak aztertuko ditugu. Gure helburua kanpora begira egindako propaganda aztertzea denez hor jarriko da arreta nagusia. Hala ere, Errepublikaren alde lerratutako lurraldeetan eratutako aparatuak azaltzea ezinbestekoa da kanpokoak ulertzeko. Gehienbat Errepublikaren aldeko egiturak aztertuko diren arren, errebeldeak osatzen zituzten alderdi ezberdinek osatutako estrukturak ere aipatuko dira.

Altxamenduaren lehen fasea

1936ko uztailaren 18tik 1936ko urriaren arte doan garaian Bizkaia eta Gipuzkoako zati txiki bat besterik ez zen geratu Errepublikaren aldeko ostean kontrolpean. Kolpearen ondorengo egunetan Bizkaian zein Gipuzkoan Defentsa batzorde ezberdinak sortu ziren eta botere efektiboa beraien eskuetan geratuko da nazionalen konkistatu edota Euzkadiko Gobernu osatu arte. Uztailaren 27an osatu zen Gipuzkoako Defentsa Batzordea. Haren baitako komisioetako

⁴⁹⁸ Moreno, (2006), 113

⁴⁹⁹ Moreno (2010), 64-5 Argi ez badago ere, balizko bi arrazoiekin justifikatu izan da bere kargu-uztea. Lehena, New Yorkeko ordezkarari Zeitlin-Zetland izendatzean gehikeriaz jokatu zuela. Bigarrena, Mata eta Albarekin zituen ika-mikak bere kargugabetzera eramane zutela

⁵⁰⁰ Moreno (2010), 64-7

bat zen informazio, komunikazio eta propaganda. Batzordeko buru Miguel Gonzalez Inestal CNTko anarkista zen eta. Ricardo Leizaola (EAJ) Ricardo Urondo (PK) Tomas Michelena (EAE), Jose Zubillaga eta Ricardo Morenok errepublikarrek osatzen zuten⁵⁰¹. Partidu politiko gehienak biltzen zituen komisariotza plural honek, Ramiro Perez Montesinosen zuzendaritzapean, argitaratuko du uztailaren 27tik irailaren 12 arte *Frente Popular* egunkaria. Gipuzkoan argitaratuko den gerra berripaper hau *Diario Vasco*k Garibai kalean zituen tailerretan inprimatuko da. Morala altu mantentzeko sortua, uneoro lasaitasuna zabaltzen saiatuko da. Ordena eta seriotasuna mantentzeko dei egingo du behin eta berriro⁵⁰².

Bizkaian abuztuaren 12an osatu zen Bizkaiko Defentsa Batzordea. Defentsa komisariotza orokorraren tokia hartu zuen honek. Gipuzkoan ez bezala, ez zen giro erreboluzionariarik izan Bizkaian eta normaltasunez inprimatu ziren egunkariak. Konfiskatzeak Euskal Gobernuaren garaian eman ziren. Abenduaren 10en *El Pueblo Vasco* itxi eta bere lantegian *Tierra Vasca* (EAE) *Euzkadi Roja* (EPK) *Union* (errepublikarrak) editatu ziren. 1937ko martxoan berriz, *La Gaceta del Norte* katolikoa itxi eta *La Lucha de Clases* (PSOE) eta *Lan Deya* (ELA) aldizkaria editatu ziren bertan. *Euzkadi Roja* itxi egin zen *Noticiero de Bilbaoko* ofizinetan argitaratu zuten, eta *El Nervión* kazetarenetan *CNT Norte*. Anarkistak ez zeuden ados, konfiskazioaren aurretik *Noticieroko* ofizinak erosi baitzizkioten Echeverria familiari. Arazo hau zela eta martxoaren 23tik apirilaren 29ra ez zuen Bilbon egunkaririk argitaratu eta ia-ia Gerra Zibil txiki bat izan zuten Euskal Gobernuarekin⁵⁰³. Kazeta hauez gain, EAJren *Euzkadi* eta Prietoren *El Liberal-ek* ez zuten arazo handirik izan publikatzeko. Adibidez, *Euzkadi* aldizkariari 12 artikulua besterik ez zizkioten zentsuratu 11 hilabetetan zehar. Gehiengoa Bilboko presoek hilketak salatzeagatik⁵⁰⁴. Eguneroko prentsa honekin bukatzeko, interesgarria da *El Liberalek* euskal prentsa nazionalista eta komunistarekin, *Tierra Vasca Euzkadi Roja*, *Euzkadi*, izandako ikamikak. Madrileko *El Socialistaren* erredaktore zen Francisco Cruz Salido 1936ko abenduan etortzean hasiko zen polemika. Auzi nazionala eta sozialen arteko tirabirez aritu ziren⁵⁰⁵.

Egunkariez gain, bestelako aldizkariak ere izan ziren. Betiere, gehiengoa eragile politikoa batek edo bestek kontrolatuko zuen. Prentsa idatziaz gain, zinema, teatrogintza eta irratia ere baziren. Zinema eta espektakuluak Defentsa Batzordeen esku eta ondoren Euskal Gobernuaren Gobernazioaren menpean geratuko dira, aharik eta 1936ko abenduan Asistentzia Sozialak errefuxiatuentzat dirua eskuratzeko konfiskatuko dituen arte. Zinea autoritateentzat dirua irabazteko balioko duen bezala, bizi ziren garai latzetan ebasio instrumentu bat izango da biztanleriarentzat.

Irratiari dagokionez, altxamendua ematen den momentuan Donostiako *Union Radio* eta Bilboko *Radio Emisora Bilbaína* konfiskatuko dira. Donostiaren kasuan *Jefatura de telégrafos de Guipúzcoa*ko langile komiteen izenean okupatu eta zuzendaria kargugabetuta kontrolatu zuten. Bilbon ere antzeko konfiskazio bat eman eta Gobernu Zibilak bere propaganda barreiatzekoa erabili zuen⁵⁰⁶.

Union Radioko aparatuak Gobernuak bere bozeramaile egingo duen irratia sortzeko erabiliko da: *Radio Euzkadi*. Donostiatik atzera-egitean lehendabiziko emisioak Deban izango dira. Hala kontatzen digu Palanka mediku udatiar ezagunak fenomenoak *La radio del monte Igueldo se la*

⁵⁰¹ Barruso (1996b)

⁵⁰² Teixedor (1990)

⁵⁰³ Garitaonandia, (1990), 38

⁵⁰⁴ de la Granja (1990)

⁵⁰⁵ de la Granja (2018), 24-25

⁵⁰⁶ Cal (2001) 15 Bilbon Ejerzituak uhin motzeko beste irrati mugikor bat ere bazuen.

llevaron y la instalaron en un hotelito que estaba situado en la playa a la entrada del pueblo y que conocíamos con el nombre de “Hotel del notario.” Mejor dicho, ahí tenían una estación receptora, mientras que la emisora la pusieron en Iciar.” Itziaroko Getari baserrian kokatua eta iraileko erdialdean hasiko da emititzen *Radio Euzkadi*. Frontea hurreratzean, 10 egun geroago Galeko golf zelaian ezarriko zuten emisorea⁵⁰⁷.

Nazionalak altxamenduaren aurrean

Iruñean errebeldeak kontrola hartu bezain pronto itxi zuten jeltzaleen ahotsa zen *La Voz de Navarra*. Lokal horietan, Fermin Yzardiagak gidatuta inprimatuko zen *Arriba España* falangista. Karlismoaren munduarekin loturiko *Diario de Navarra* eta *Pensamiento Navarro* martxan jarraitu zuten. *Diario de Navarra*ko zuzendaria Raimundo Garcia, *Garcilaso* bezala ezaguna, Molaren urpekaritzat hartu izan du Fernando Mikelarenak. Haren ustetan, altxamenduaren arrakastarako instrumentala izan zen pertsona⁵⁰⁸.

Aipagarria da Nafarroan eratu zen *Junta De Guerra Carlista de Navarra* jokatu zuen papera. Beste probintzietan bezala osatu zuten Nafarroako batzorde karlista, baina, izan zuen segida handia eta garrantziak Batzorde Nazionalarekiko sekulako autonomia eskaini zion. Javier Ugartek *cuasi-estado* bat bezala kalifikatu du⁵⁰⁹. Prentsa eta propagandako delegaritzak propio bat izan zuen. 1937ko apirilean Miguel Madoz zen sekzio honetako burua eta batzorde honek sortutako *Radio Requetere* gerentea Adolfo Goñi⁵¹⁰. *Radio Requete* bezala, *Pensamiento Navarro* zuzenean kontrolatzen zuen batzordeak eta ez bazen lortu ere, *Diario de Navarra* integratzeko kontaktuak izan ziren 1937ko urtarrilean⁵¹¹. Delegaritzaren egunerokoa aurreko atalean aipatu den prentsa eta propaganda ofizinak eramaten zuen aurrera. Prentsako sekzioak hainbat atal zituen, atzerriko iritzi eta berriak, itzulpenak, pentsa gorria. Bitartean, propaganda sekzioak esku orriak eta argitalpenak, kartelak eta atzerriko prentsarako informazioa zabaltzen zituen. Lotura sekzio bat ere bazuten. Konkistatutako lurraldeetan ordezkari bat izateaz gain, Donibane-Lohitzüinen kokatutako *Nacho-enea* etxearen bidez eskuratzen zuten kanpoko informazio eta atzerriko prentsa. Parisen Manuel González de Andía eta Primitivo Ervitik zuzendutako ordezkari bat zabaltzera heldu ziren. Lotura *Nacho-enearen* bidez egiten zen⁵¹². Bide batez, *Nacho-eneak* espioitza zerbitzu eta enbaxada ofizioso bezala ere funtzionatzen zuen.

Arabian bi egunkari nagusi zeuden⁵¹³. Oriolen *Pensamiento Alaves* tradizionalista-intrantsigentea eta bestetik *La Libertad*. Hasierako zalantzak uxatuta uztailaren 22tik aurrera bando nazionalaren alde agertu zen. Bigarrena aldiz, Luis Dorao erradikalak zuzendua, falangek erosi zuen. Altxamenduaren lehen egunean errepublikaren alde agertu bazen ere, progresiboki, diskurtsu aldaketa bat nabari zaio. Berehala, Luisen semeak, Hilariok, hartu zuen egunkariaren zuzendaritza eta erredakzioan hainbat falangista sartu ondoren 1937ko urtarrilaren 18rako izena aldatuko zioten: *Norte*.

⁵⁰⁷ Palanca (2015); Erref: AZP-106 /003 <https://ahotsak.eus/azpeitia/pasarteak/azp-106-003/> Garitaonandia (1990), 36; Arrieta (2008)

⁵⁰⁸ Mikelarena (2015)

⁵⁰⁹ Ugarte (2009)

⁵¹⁰ UNAV 133/307 Asamblea extraordinaria de la Comución Tradicionalista Navarra (1937-04-16)

⁵¹¹ Ugarte (2009), 63-4

⁵¹² *Ibid.* 64

⁵¹³ López de Maturana (2016)

Euskal Gobernu⁵¹⁴

1936ko urrian euskal exekutiboa osatzean propagandak benetako erreboluzio bat jasango du. Argitalpenak partidu politikoaren esku jarraitzen bazuten ere, propaganda zentralizatu eta atzerrira begira egindako propaganda eta informazio jarioak beste dimentsio bat ematen saiatuko dira. Hasteko exekutiboak lehendakaritzaren baitan *Sección de propaganda y relaciones exteriores* osatu eta Bruno Mendiguren izendatuko dute sekzio buru⁵¹⁵ eta Juan Ramon de Bilbao propagandako idazkari⁵¹⁶. Lau azpi sekzio edo kabinete izango ditu:

- Prentsa: Prentsa eta irratan, izan atzerritar, euskaldun edota espainiar, bildutako informazioarekin boletín bat osatuko dute: *Boletín de Información Radiotelegráfica, Radiotelefónica y de Prensa*.
- Argazkilaritza kabinetea: Agirreren aginduz. 1936ko abenduan sortua
- Zinema kabinetea: Teodoro Hernandorenak osatuko du lehendabizi, geroago Sobrevila jauna izango da bere buru. Zinema kabinetearen inguruan hurrengo atal batean sakonduko da gehiago.
- Inprenta, "Arte:" Euskal Gobernu probisionalak sortutako esku-orriak inprimituko ditu.

Lehendakaritzari atxikitako organismo honek propaganda sortzearekin batera Euzkadirako datozen kazetariak artatzeaz eta Euskadin dauden kontsulei harrera egiteaz arduratuko da. Kazetariei harrera egiteko hainbat gerra korrespontsal aritu ziren. Gida-bezala egiteaz gain, egiten dutena kontrolatzen arituko ziren. Esteban Urkiaga *Lauaxeta* izan zen korrespontsalen kontrolaz arduratzen zena.

Propaganda sailari bere egitekoa aurrera eramatea asko kostatu zitzaion. Beharrezko zuen material ia gehiena inportatu egin behar baitzuen. Esaterako, ez zuen irrati egokirik atzerriarekin komunikatzeko. Horregatik, 1937ko urtarrilaren 25ean Juan Callen komunikazio zuzendariarekin batera Mendigurenek irrati berezi bat (R.C.A. modelo A.C.T. 260W potentziaduna) erosteko memoria aurkeztuko du⁵¹⁷. Argazkilaritza sailak ere nahiko arazo izan zituen abian jartzeko. 1937ko martxo aldera aurki daiteken idatzi batean, lokal egokirik gabe zeuden eta material zein pertsonal falta ere bazuten. David Seymour, *Chim*, euskal lurraldeetan izan ostean Parisera zihoala aprobetxatuz, Urkolari hiru hilabeterako behar zuten stockaren erosketara zerranda bat emateko enkargua pasa zioten. Besteak beste, ez zuten argazki kamera egokirik. Leicarik gabe zebiltzan. Argazkilari baten beharra ere aipatzen da⁵¹⁸.

Orokorrean, eta Bruno Mendiguren 1936ko azaroaren 13an izendatzen bada ere. Material eta pertsonal falta zela eta sekzioa ez da erabat operatibo izango otsail-martxo arte. Iralari idatzitako gutun batean Mendiguren kexu agertzen da. Zuzentzen duen sekzioa oraindik eraikuntza fasean dagoenez, bere sekzioari esleitutako konpetentziak ez betetzeko indikazioak jasotzen ditu⁵¹⁹:

⁵¹⁴ Sebastian, (2012) Propagandaren oinarriak eta Euskal Gobernuak argitaratutako liburuxkei buruzko informazioa hemendik atera da.

⁵¹⁵ Bruno Mendiguren (1910-1950) Mungiarra. Euzko Ikasle Batzako zuzendari. Injenieria. Bruselan ikasia. Eden euskalduna deitu zion George Steerrek. 1937ko ekainak 14an bere familiarekin Frantziara joan zen Ciscar ontzian. Gerora argentinarara erbesteratuko zen. Steer,(2019).70 eta 127 Anthony Eden euskalduna vasco. Argentina exiliatuko da. *La Nación*, (1950-12-30)

⁵¹⁶ EAH.EG.LD.S: Dirección General de Administración V:33 L:487/05 Euskal ejertzitza kantabrian dagoela honako hauek jarraituko dute lanean. Idazkari: Juan Ramon Bilbao; Traduktore: Nemesio Izuazuza; Langile: Inocencio Ibañez; Takimekanografo: Jose Antonio Iñarra; Mekanografoak: Gregorio Erroteta eta Jesus Andicoechea; Margolariak: Jose M^o Uribarrem eta Emilio Acero; Kazetaria: Daniel Rodriguez. Argazkilaritza kabinetea: Esteban Gueriquiz, Eduardo Arrillaga, Felix Villar, Valentin Berradre, Vicente Garay

⁵¹⁷ EAH.EG.LD.S: Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:200 L:30/03

⁵¹⁸ EAH.EG.LD.S: Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría L:18/05 Argazkilari falta zuten. Esteban Guerequizek kabinetea artxiboan egiten du lan eta Eduardo Arrialaga laboratorian errebelatzen ibiliko zen.

⁵¹⁹ EAH.EG.LD.S: Secretaría General (Bilbo, Barcelona, París). Secretaría L:18/05 Mendigurenek Iralari (1937-02-16)

Toda ésta sería de cosas, aparte de otras muchas, impiden que esta sección de Propaganda y Relaciones Exteriores pueda desarrollar la labor que se le tiene confiada pues como en los momentos actuales por estar en formación (excesivamente duradera) hay infinidad de asuntos que a ésta Sección no le incumbe resolver, según indicaciones.

Egindako propagandari dagokionez, prentsan igortzeko komunikatu eta plantilla ezberdinak sortu, zinta pare bat grabatu, eta deklarazio ofizialak idatzi eta hainbat esku-orri ere argitaratu dira. Bi motatan bana ditzakegu Lehendakaritzatik argitaratutako liburuxkak. Alde batetik, Euskal Gobernuak ezagutarazteko egindakoak ditugu. Exekutiboa oinarritzen den Euskal Autonomia Estatutua da lehena. Bestea, Agirrek 1936ko abenduaren 22an irratian emandako diskurtsoa. Euskal Gobernuak lehen hiruhilekoan egindakoa errebasatzen zuen. Azken honetan, hildako apaizei eta gatazkaren sakoneko arrazoiei ere egiten die erreferentzia.

Apaizen hilketak sarraski bezala saldu ziren Agirreraren diskurtsuan eta izaera hori dute Lehendakaritzak argitaratutako beste bi liburuxkak. Durango eta Gernikako bonbardaketei egiten diete erreferentzia hain zuzen ere. Sarraski propagandaren adibide garbiak dira. Argazki gogorrekin apainduta, bando nazionalari eta alemaniarrei interes militar gabeko defentsarik gabeko herriak bonbardatzea egozten zaie.

Lehendakaritzak ez ezik, Gobernuko beste departamentuek ere argitaratuko zituzten liburuxka ezberdinak. Joseba Rezola idazkari nagusi zuen Defentsa sailak hiru liburuxka argitaratu zituen. *Reglamento del Cuerpo de Capellanes del Ejército Vasco* da interesgarriena. Euskal osteen kristau izaeraren erakusgarri baitira. Beste araudi liburu bat, *Reglamento para la instrucción de los Oficiales afectos al servicio de Guerra Química*, eta Osasun militarreko memoria bat ere argitaratu zituen.

Sozialista bana buru zituzten Gizarte Laguntza eta Lan Sailak beste bi memoria argitaratuko dituzte. *Memoria de la labor realizada por la Asistencia Social* eta *Registros y Oficinas de Colocación del País Vasco*. Sindikatuen lana aditzera ematen da baten eta besteak errefuxiatuek artatzeko egindako lana du hizpide.

Leizaola buru zuen Justizia eta Kultura sailak lau liburuxka idatziko ditu, horietako batzuk gero ikusiko dugun bezala ingelesera itzuli eta Ingalaterran propaganda egiteko erabiliko dira gainera. Justiziako sailak besterik ez ditu argitaratuko foiletoak. Txosten modura, “objektibotasun” handiarekin egindako lan estatistikoak dira. Faxismoaren barbarismoaren aurrean egindako lan eredu garria ezagutaraztea dute helburu:


- *Información sobre actos de hostilidad contra el Poder legítimo en territorio vasco*
- *La conducta de los facciosos ante la iniciativa de la Cruz Roja Internacional por la humanización de la guerra. El trato a las mujeres y niños*
- *Los facciosos son los culpables de la ruptura de las negociaciones de canje general de detenidos, ancianos, enfermos, mujeres y niños. La inhumana expulsión de Guipúzcoa de niños y mujeres a través de las líneas de fuego*
- *La intervención de Alemania en favor de Franco en las operaciones del territorio vasco.*

Kultura sailak foiletorik argitaratuko ez badu ere, hainbat erakusketa antolatuko ditu. Garrantzitsuena 1937ko Parisen Espainiaren pabiloian antolatuko den euskal zatia. Gainera, ondare artistikoa zaindu egingo du. Arriskuan dauden elizetako ondasunak gorde eta Bilboko museoetan zein kolekzio pribatuetan balio handiko margolan eta eskulturak atzerrira bidaliz⁵²⁰.

⁵²⁰ Muñoz, (2017)

Mendiguren saila osatzen duten langileak Kantabriara arte jarraituko diote Lehendakaria. Mendiguren Ciscar ontzian aterako da Bilbotik Euskadi kontinentalera 1937ko ekainaren 14an eta gero Argentinara abiatuko da. Behin euskal lurraldeak galdua, propagandaren eta kanpo harremanetarako sekzioak berrantolatu egingo dira.

Propagandari dagokionez, Estatu Ministeritzako idazkariordetzan euskal propagandaren buru Eduardo Diaz Mendibil⁵²¹ arituko da, nahiz eta kanpora begira egindako propaganda Paristik gidatuko den, Agirrerren gidaritzapean lehendabizi eta ondoren Leizaolak izango dute propagandaren kontrola.



Ir.11 1938 bukaerako berregituraketa. EAH.EG.Defensa.S: Información General (Secretaría General) V:2 L:512/03

Diaz Mendibil Estatu ministerioaren baitako langile bilakatuko da 1937ko ekainean. Estatu Ministerioaren baitan propaganda zentralizatzeko eta efizienteago bilakatzeko sortuko den propaganda idazkariordetzako euskal sekzioaren gain hartuko du. Lehendabizi Valentzian eta ondoren Bartzelonan arituko da lanean idazkariordetzan, ahirik eta 1938ko abuztuan Parisa lekualdatuko den arte. Orduan, zinema kabineteaz arduratuko da aurrerago ikusiko dugun bezala. Parisa lekualdatzeko arrazoi nagusietako bat, behin eta berriro bere aurka bideratutako espioitza eta traidore salaketak izango dira⁵²².

Euskal propagandaz hitz egiten ari garela, ezin dugu inolaz ere ahaztu estatu eta nazioarte mailan gerran zehar sortu ziren ordezkaritzak. Espainiar barnean, Bartzelonakoa dugu ziurrenik esanguratsuen. Manuel Irujo ministro izendatzean Bartzelonan ezarriko da eta Irun erortzean sortutako behar asistentzialak erantzuteko Euskal idazkaritza orokor bat eratuko du. Eduardo Diaz Mendibil delarik idazkari nagusi. Idazkaritza honek, *Secretariado Vasco*, ez du izaera

⁵²¹ CDMH- PS-315,23 eta de Pablo (2006), 90-1 Bilbon jaio eta Donostian hezia. EAJ eta *Juventud Vasca*ko kidea. Kazetaria zen eta Amerikan zehar ibili zen urte luzez. Habanan 1924an Euzko Etxearen sustatzailetako bat izan zen. Ameriketara bizi ziren euskaldunen fitxero bat egituratu zuen. Gerra Zibil aurretik etorri zen berriro euskal herrira eta EAJko kide zen. Bartzelonara lekualdatu zen altxamendua baino hilabete pare bat lehenago eta Bartzelonako batzokiko kide zen.

⁵²² de Pablo (2006)

ofiziala izango lehenengo momentuan. Azaroaren 5ean baina, Euskal Gobernuak ofiziala egingo du *Delegacion Vasca de Cataluña*ren sorrera hauspotuz. Ordezkarri nagusia Irujo izango bazen ere, *de facto* Ricard Altaba katalana, idazkari nagusiak, hartuko zuen behin-behinekoz delegatuaren papera. Hainbat idazkaritza ezarriko ziren delegatuari laguntzeko. Santiago Dañobeitia (politikoa), Eduardo Díaz de Mendibil (ekonomiakoa), Juan Vila Escola (propaganda) eta Manuel Lasalde (laguntza soziala)⁵²³. Badirudi, Santiago Dañobeitia propagandaz ere arduratzen zela 1937ko martxo arte.

Delegaritzak ofizialak nahiko arazo izan zituen Katalunian zeuden guztiak batzeko, eta sozialistek osatutako talde bat izan zuen aurrean, *Euzkadi en Cataluña*. 1937ko apirilean EAEko Luis Areitioaurtena ordezkarri nagusi izendatzean bi korronteak bat egin zuten arte. Ildo berean, propagandak hartu zuen garrantzia zela eta departamentu bat eratuko da Areitioaurtena etortzerako eta Mendibil izango da sekzio honetako idazkaria ekainean Valentziara joan arte. Ondoren, propaganda ofiziala zen Juan Adarragak hartuko du bere tokia⁵²⁴. Euskal Gobernuak Bartzelonan ezartzen denerako Altaba-Planuch da *jefe de relaciones y propaganda*⁵²⁵. Bartzelonako delegaritzapean argitaratuko zen *Euzkadi en Cataluña*⁵²⁶ astekaria eta Ameriketara eta estatua esku-orri eta informazioa zabaltzen arituko zen. Katalunian antolatutako ekintza ezberdinetan ere egingo zuen propaganda, *pro-semana Vasca* esaterako⁵²⁷.

Ikertuko dugun hurrengo estruktura ziurrenik garrantzia gehien izan zuena da, Baionan kokatuko zen *Servicios Vascos de Información y propaganda*⁵²⁸. Hasieran Axuriagerraren agindupean eta BBB-ren zerbitzura osatuko zen informazio zerbitzua. Gerrak aurrera egin ahala jaurlaritzaren agindutara jarriko zen Lehendakariaren baitan kokatuta 1937ko otsaila inguruan. Barnealdetik kanpora eta alderantziz informazioa eta berriak trukatzeko eta lotura lanak egiteaz gain, atzerriko prentsa eta prentsa nazionalaren boletinak idazteaz ere arduratzen ziren. Egitura estrukturatu hala, propaganda lanak ere bertan gauzatuko zituzten.

Irun jauzi eta berehala EAJren aginduak jarraituz, Pepe Michelenak bere anaia Juan Jose, Gabriel eta Ramon Agesta anaiak eta Candido Etxeberria *pasaiatarrerikin* batera, guztiak jeltzideak, Michelenatarrek Hendayan zuten beren aduana enpresako sukurtsalean ezarriko zuten zerbitzuon lehendabiziko ofizina. Lehendabiziko helburua euskadi kontinentala eta Errepublikarekiko leialak ziren lurraldeen arteko komunikazioa erraztea zen. Ontzi txiki batekin Deba eta Zumaiaren arteko loturak egin ostean, beste ontzi batzuen bidez komunikatzen hasiko ziren. Mourisca ontzia edo bi txalupa azkarrekin, Txepetz eta Kayue. Guztiak Euzkadiko ontzidi laguntzailerak atxikita zeuden.

Lotura lanak errazteko eta informazio fluxua azkartzeko 1936ko urritik aurrera irratik bidez komunikatzen hasiko dira. Trintxerpe eta Domayo itsasontzien arteko lotura bat ezarri zen, aharik eta Michelena abenduan Bilbora joan eta lotura-sistema hobetu zuten arte. Aurrerago,

⁵²³ Alvarez Gila *et al* (2010)

⁵²⁴ EAH.EG.OD.S:Contabilidad Se:Presupuestos V:500 L:700/04 1937ko abuztuko eta iraileko aurrekontuetan “Jefe del Departameto de Propaganda” utzik agertzen da. Juan Adarraga “Oficial de la Secretarian” dabil lanean, eta auxiliar bezala Cesareo Ruiz Aldamendiri du ondoan.

⁵²⁵ CDMH Barcelona PS-315, 5 eta PS 315, 23

⁵²⁶ CDMH Barcelona PS-315,4; eta PS-315, 12 Hasieran independentea zen 1936-12-12an argitaratzen hasi zen astekaria abian jartzeko 1500 pts. laguntza eskatu zuten Ramon Auz eta Felipe Parcha, kazetariak eta Gregorio Lana Diez de Ulzurrun linotipistak. EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Prensa y propaganda V:100 L:106/ 01: Parcha, Lana eta Auzek Agirrerri (1937-03-29) kexu agertzen dira Euzkadiko Bartzelonako delegaritzak 1950 aleren ordainetan 462,5 pts. oradaintzen dizkiolako. Aldiz, beraiek 600 pts gastua dute horiek produzitzeko. Laguntza eskatzen diote lehendakariari.

⁵²⁷ Bou eta Medina (2000)

⁵²⁸ Aberasturi eta Rafael moreno (2009); 41-50 eta 115-119

lehendakaritzak, 1936ko azaroaren 9an, Ramon M^a Lili Galdames izendatu zuen Trintxerpe-Domayo eta T.S.H. Artazaren arteko komunikazioak ahalbidetzeko⁵²⁹. Zifratze-sistemarako *El Quijoteko* ale bat erabiltzen zuten, eta Bilbon errezeptorea Artxandan jarri zuten. Kasu honetan, Tomas López Otamendi zen mezuak hartzen zituen funtzionario. Santoñan hil zuten egin zuen lana zela eta.

Zerbitzu honen buru politikoa Jose Maria Lasarte izango zen, nahiz eta Pepe Michelena izan buru teknikoa. Michelenak zerbitzua hobetzen joan zen, eta bere lokalak txiki geratu ostean, Jose Manuel Oruetazabalak eskainita, Baionako euskal ordezkartzara lekualdatuko ziren, 8 Avenue Maréchal Fochera. Berriro ere zerbitzuaren beharrak zirela eta, 1937ko otsailean EAJk txalet txiki batean kokatzea erabaki zuten. Orduan, oraindik ere Oruetazabalaz salbu, EAJrentzak egiten zuten lan zuzenean zerbitzudeek. Bakoitzak 1000 Fr. kobratzen zituen hilabetero partidutik. Agesta eta Michelena anaiez gain, Cecilio Zarranz eta Jose Luis Ituartek egiten zuten lan. Hala ere, berehala, txertatuko da estruktura Euskal Gobernuan. Hori gertatzean, pertsonal gehiago hartzeko parada izango dute. Bilbo erori aurretik Pedro Maria Urquiri sartuko da plantillan eta iparraldeko frontea erortzeaz dela, Pablo Beldarrain militarra, Perico Olariaga eta Pedro Beitia ere batuko zaizkie. Orduan ezarriko dira *Villa Mimosasen*. Mimosas txaleta Cardinal Lavigerien kalean kokatzen zen. Erabiliko zuten lekua zela eta *servicios* edo *mimosas* izena hartuko zuen informazio eta propaganda zerbitzu honek. Mimosasen kokatzen denerako nahiko estrukturatuta egongo da zerbitzua. Bi sekzio bereiziko dira: Informaziozko sekzioa eta propagandakoa. Bi sekzio hauek fisikoki 1938ko irailean bereiztuko dira. Informazioko sekzioa *Villa Gordokira* lekualdatuko da. Bestea Baionako delegazioko bigarren pisura.

Informazioko sekzioren buru izango dira Michelena anaiak eta hurrengo atalak jorratuko zituzten⁵³⁰:

- *Recogida de información del interior (boletín, declaraciones evadidas...)*
- *Informaciones al interior (recogida de información internacional para el interior)*
- *Organización del interior (Red Álava y todos sus agentes)*
- *Informaciones especiales (contraespionaje es decir identificación de agentes franquistas,*

Bestalde, propagandako eta administrazioko sekzioaren buru Jose Lecaroz arituko zen 1937ko urritik aurrera. Lecaroz gerra aurretik Donostiako *El Día* egunkariko editore, gerra garaian Euzkadiko *Diario oficial* argitaratzeaz arduratuko da lehendabizi eta gerrak aurrera egin ahala maiatza-ekain aldera *Jefe de Sección II (información) Estado Mayor* izendatuko dute⁵³¹. 1938 urtarrilean Pedro Beitiak ordeztuko zuen Mimosasen. Beitiaren memoriak jarraituz, Michelena eta Lasartek Lecarozekin pozik ez eta Bartzelonara bidaliko dute han argitaratuko den *Euzkadi* zuzentzeko aitzakiarekin. Ez dakit Beitiaren azalpena egokia den, baina azaro bukaeran Bartzelonatik Lasarteri Lecarozen presentzia eskatu zioten *Euzkadi* berrargitaratzeko, baina honek horrela erantzun zien⁵³²:

En esta Oficina es necesario el trabajo de un periodista. Y Lecaroz aparte de hacerlo hasta ahora a entera satisfacción, tiene para este trabaja una especial preparación adquirida durante la guerra en su puesto de jefe de la Sección de Estado Mayor.

Azkenean Lecaroz joan eta Beitiarekin batera lanean, Jose Maria Urkiri arituko zen. Beitiaren lana prentsa agentzia handien (AP, UP, Reuters, Havas) eta korrespontsal lokalekin Espainiako gerrari buruzko hartu-emanak aurrera eramatea zen. Horrez gain, eta Alejandro de la Sotaren

⁵²⁹ EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París).Secretaría V:75 L:17/01

⁵³⁰ EAH.EG.OD.S:Contabilidad. Se:Cuentas. L:648/04

⁵³¹ EAH.EG.Defensa.S:Información General (Secretaría General) V:200 L:518/02

⁵³² AGMAV, 69, Lasartek Agirreri (1937-11-26)

laguntza erabiliz, ingeleseko prentsa, gehienbat Londoneko *The Times* itzultzeaz ere arduratzen zen. Sullivan Prendegarst irlandarrak denboralditxo batean kolaboratuko du antzeko lanak egiten.

Baionan bildutako informazioarekin boletin bat editatzen zen. Zortzi-hamalau orri arteko lanean Espainiako prentsan esandako gauza garrantzitsuenak eta gertaera nagusiak zein nota konfidentzialak biltzen dira. Horrez gain, bi astero Espainia barneko ekintzak eta nazioartean gertakari nagusiak biltzen zituen boletin bat idazten zuten zerbitzuok. Pedro Beitiak auzi politikoei buruz idazten zuen bitartean, Pablo Beldarrain auzi militarrez arduratzen zen⁵³³.

Bi sekzio hauez gain, mekanografiaz, desplazamenduez, artxiboaz eta komunikazioez, eta irriti zein automobilak, arduratzen zen ofizina orokor bat ere bazegoen. Iñaki Ugarte, Agesta anaiak, Cecilio Zarranz eta Candido Etxeberriak egiten zuten bertan lan.

Pedro Beitiak editatzen zuen Boletinari erreferentzia eginez, hura Frantziako inteligentzia zerbitzuei entregatzen zitzaion; *Duxieme Bureau*-ri. Euskaldunok eskuratutako informazioa mugaren alde batetik bestera zetozen pertsonen elkarrizketak eginez eskuratzen zuten. Iheslariak batzuetan, bestelako bidaiariak besteetan. Hala ere, EAJren bidez inteligentzia sare bat jarri zen abian, *Servicio Interior*. Espetxean, erbestean eta Espainia barnean zeuden buruzagien arteko korrespondentzia ahalbidetzeaz gain, funtzionatzeko beharrezkoa zen informazio politikomilitarra elkarbanatzea errazten zuen estruktura bat osatu zen. Bere buruzagiaren fusilamenduaren ostean, Luis Alava, Alava sarea izena hartuko zuena hain zuzen ere⁵³⁴. Gainera, ihes-sare bat bezala ere funtzionatu zuen, 200dik pertsona gora pasa zituzten Espainiatik Frantziara. Tartean Beldarrain bera edo Landaburu.

Sarearen genesisia 1937ko abuztu bukaeran aurki dezakegu. Delia Laurobak EAEko komandantea zen Jose Azurmendiren emazteak El Duesotik informazioa pasatzen zion Itziar Mugica donostiarrari. Ondoren, Mugicak Bittori Etxeberriari informazio pasa eta honek Iruñatik gora Elizondotik pasako zuen muga. Guztira 71 joan etorri eta 1242 dokumentu pasa zituzten.

Hasieran, sarea saretu aurretik, Agesten lehengusina zen Mugicak, bere lana zela eta, Baionara kotxez pasatzeko baimena zuen. Bera izango zen informatzaile aktiboena. Bilbon kokatuta Tere Verdes zen informazioa pasatzen zuena eta Alavako ordezkari eta ia lehenengo momentutik sarearen buru Gasteizen kokatutako Luis Alava zegoen. 1938 bukaerarako lurraldeko sareak antolatzeke ardura zuen delegatu bat zegoen probintzia bakoitzean.

Sarea 1940ko abenduan eroriko zen. Naziak Parisen sartzean Avenue 11ko delegaritzan utzitako dokumentu konprometitua Espainiar poliziarri pasa ostean⁵³⁵. Horien artean garrantzitsua *Informe sobre el Servicio Interior de 15 de marzo de 1939* da. Parisko euskal funtzionarioek egindako txosten horretan sareari buruzko informazio guztia dago. Sarearen estruktura, joan etorriei eta agentei buruzko informazioa ere eskaintzen da dokumentuan. Izengoitiak erabiltzen baziren ere, ez zen zaila agenteak identifikatzea. Txostena oinarri 1941eko uztailaren 3an epaile batek sarea osatzen zuten 19 pertsonentzako heriotza zigorra ezarri zuen. Azkenean, *Consejo Supremo de Justicia Militarrek* pena kapitala Luis Alavara mugatu zuen. Besteei 20-30 urteko kartzela-zigorra ezarri zitzaion. 1947 hasierarako libre geratu ziren 1945. urtean emandako indultu dekretua erabiliz.

⁵³³ EAH, Beitia funtsa Se:Funtzio pertsonala. Si:C06-06/07 *The Fantastick Life of Pedro Beitia* 157.22-24 eta 157.27

⁵³⁴ Alava Sareari buruz Jimenez eta Moreno (2009), 119-130 Sabino Arana Fundazio (2019); Mikelarena (2020), 274-279

⁵³⁵ AGMAV 70-74 daude Avenue 11 espainiarrek hartutako paperak

Alava sareari eskerrak hainbat pertsonaren bizitza salbatu zen. Iheslari sarean pasatako 200 pertsoneri, Burgosen errekrutatutako beste agente batzuei eskerrak, Aniceto Anton eta Federico Gurtubay, pena kapitaletik salbatutako beste 200 pertsona inguru daude. Gerra auditorian lan egiten zuen Gurtubayk pasatako espedienteak FOera pasa eta britainiar presioari eskerrak ez zituzten fusilatu. Horrez gain, auditoria berean zigilua faltsifikatu eta hainbat espediente artxibatzea lortu zuten⁵³⁶.

Errepresioa baretzeaz gain, eskuratutako informazioak ere balio handia izan zuen. Baionara pasako zen inteligentzia horrekin hainbat txosten, liburu eta artikulua idatzi ziren Euskadiko ekonomia, egoera eta estruktura militarrez (alemaniarren influentzia).

Artikulu eta liburuez hari garelara, Mimosas eta Parisko delegaritzaren inguruan osatutako azken estruktura propagandistiko bati buruz hitz egin behar dugu: Liburu eta liburuxken edizioa. Bilbo erori aurretik Agirrek iritzi internazionala Euskal Gobernuaren alde jartzeko liburu eta liburuxka ezberdinen argitalpena bultzatu zuen. Are gehiago indartu zen praktika hau euskal lurraldea galtzerakoan. Parisko delegaritza liburu eta liburuxkak editatzeaz arduratuko zen bitartean, errefuxiatu talde bat originalak idazteaz arduratzen zen. Marko horretan kokatu behar ditugu Jose Miguel de Barandiaran (Angel Zumenta) *la teología de la invacion fascitas. Los documentos episcopales y los ancionalistas vascos*, Iñaki Azpiazu (Iñaki de Abergoyen) *Le clerge Basque* eta Victor Tarragoren (Victor Montserrat) *Sept mois et sept jours dans l'Espagne de Franco*⁵³⁷. Idatzi hauek egiteko gobernuaren laguntza ekonomikoa izan zuten, eta ez bakarrik edizioan, soldatapean ere aritu ziren. Liburu hauek Frantzian publikatu ziren eta gero lanean zehar ikusiko dugun bezala Ingalaterran ere argitaratzea zen helburua.

Liburuen proiektuan parte hartu zuen Jose Miguel Barandiaranek, beste egitasmo batzuetan ere aritu zen. Mimosasen bulego txiki bat izan zuen eta bere lan akadamekoarekin jarraitzeko soldata ez ezik diru-laguntzak eman zizkion Euskal Gobernuak. Azken finenan, bere lanak balio propagandistikoa eskaintzen baitzion. Horregatik, 1938ko abuztuan Endaram izandako Agirre, Onaindia, Landaburu eta Barandiaren arteko elkarrizketa baten ostean Euzko Ikaskuntzako Etnologiako laborategia eta historiarreko departamentua abian jarri ziren berriro. *XVI. anuario de Etnologia y Eusko Folklore* ere argitaratu zen gobernuaren *dirulaguntzari* eskerrak⁵³⁸.

Liburu eta kulturgintzako propaganda mota hauez gain, eta Euzkadi eta *Euzko-Deyaren* aparatuetatik at hainbat lan prestatzen izan zituzten hainbat errefuxiatu Euskal Gobernuaren soldatapean. Pantaleon Ruiz de Olanoren kasua da esanguratsua. Bildutako materialarekin azkenean liburu bat osatu bazuen ere, hasieran artikulua serie bat prestatzea zen helburua. Badirudi, Ruiz de Olano *Comite de Secourx Basqueko* propaganda sekzioaren burua izateko proiektu bat egon zela. Propaganda ofizina honek hainbat helburu zituen. Dagoeneko bilduta eta sortuta zegoen materiala berrantolatu eta Frantziako Ingalaterrako eta Amerikara distribuitzeaz gain hura kustumatzea zuen xede. Olanorekin zuzendaritzapean arituko ziren Manuel Egileor, Victor Ruiz de Añibarro eta Jose Albinez⁵³⁹.

⁵³⁶ Jimenez (1999), 150-1

⁵³⁷ Aizpurua (2009), 14-17

⁵³⁸ Aberasturi eta Moreno (2009), 117 Aberasturik aipatzen duen bezala, ziurrenik Garai horretan idatzi Gamboa eta Larronde (2005); EAH:EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V: 100 L:41/06 Jose Miguel de Barandiaran, Memoria del Laboratorio de Etnologia y de Euzko-Folklore y del Centro de investigaciones Prehistoricas vascas. Trabajos de Septiembre-Diciembre de 1938 (1939-02-07)

⁵³⁹ SAF-EBB-362-3 "Section de Propagande" (1938-03-04)

Hala ere, ez dakigu hirurak batera edo Olano bakarrik aritu zen aipatutako materialak sortzen. 1938ko apirileran Lehendakariak Zarrabeitiari Pantaleon Olanori lehendakariak kontrako esan arte hilabetero 2.500 Fr. ordaitzeko agintzen dio⁵⁴⁰. Gero ikusiko dugun bezala, prentsa ingelesean zabaltzeko asmotan hainbat artikulu idatziko zituen.

Ikusi daitekeen bezala, Bilbon, Bartzelonan, Baionan, Parisen eta Valentzia artean sakabanatuta estuktura propagandistiko ezberdinak osatu zituen Euskal Gobernuak. Londonen izango duena aztertzea da lan honen helburu nagusia; baina kontuan izan behar da, Londona aipatu ditugun tokietatik bidalitako informazioa erabiliko dela. Igorritako material guztia Ingalaterran interesatzen zen audientziarako prestatzea eta argitalpenetan kokatzea izango da Londonen egingo den lana.

Londonen Lizasok nahiko arazo izango ditu Bilborekin mantendu beharreko komunikazioarekin hasiera batean. Behin eta berriro kexu agertuko da berriak ez zaizkiolako Bilboren bidez garaiz iristen. Bilbon dauden baliabide faltak direla eta Baionaren edo Parisen bidez komunikatzen ziren, hau da, Bilbo-Baiona-London edo Bilbao-Paris-London eta alderantziz. Bartzelona erortzean berdina pasako da.

8. EUSKAL DELEGARITZAK GAUZATUTAKO PROPAGANDAREN NOLAKOTASUNA

Altxatuena, Errepublikar gobernuaren eta Euskal Gobernuaren propaganda egituren nondik norakoak ikusi eta gero, Euskal Delegaritzak Londonen Gerra Zibil garaian aurrera eramandako propagandaren nolakotasuna aztertuko dugu jarraian. Propaganda egiteko modu eta baliabideak kontuan hartuta hiru fase ezberdinu ditzakegu Gerra Zibil garaian. Lehendabizikoa, 1937 hasieratik 1937 apiril arte doan garaia da, E. M Wright prentsa eta propaganda agentzia kontratatzen den arteko unea hain zuzen ere. Suposatzen duen salto kualitatiboa eta kuantitatiboa dela eta, agentzia kontratatzean hasiko da bigarren aldia. Hirugarren aldia, *Euzko-Deya the voice of the Basque*, boletinaren argitaratzearekin batera ezar dezakegu 1938ko uztailean. Nahiz eta irregulartasun handiko argitalpena izan, paper benetan garrantzitsua jokatu zuen. Gainera, 1938ko urrian Wright etxearekin duten kontratua berrikusi eta handitu egingo da. *Euzko-Deyaren* Londoneko edizioaren argitalpenak euskaldunek propagandan egindako esfortzu handienaren garaiarekin egiten du bat. Horregatik, hain agerikoa izan ez arren, paradoxikoki aldizkaria desagertzean, 1938ko abenduan, euskal propagandak ez du behera egingo eta Gerra Zibila bukatu arte eta baita ondoren ere, 1938an zehar zehaztutako fondoko mezu eta propaganda kanalak erabiltzen jarraituko dira 1939ko abuztu arte. Ondoren, arrazoi finantziero-politikoak direla eta estrategia aldatu eta beste era batera jokatu dute, adibidez, 1939ko irailean propaganda ministeritzarentzat lanean hasiz. Halere, azken hau ez da gure azterketaren barruan sartzen.

Lehen aldia: 1937ko urtarriletik 1937ko apiril arte

Lehen aldia, Jose Inazio Lizaso Londona delegatu kredentzialekin heltzen denetik E.M. Wright agentzia kontratatzen duen arteko garaiera luzatzen da. Lehendabiziko aldi hau da agian propagandaren ikuspegitik ahulena edo inprobisatuena. Euskal delegatua heldu berria denez, Ingalaterrako prentsan eta politika munduan kontaktuak egiten saiatuko da. Egindako kontaktuak indartu eta ahalik eta korrespontsal gehien Euzkadira bidaltzea izango du helburu nagusietako bat. Horrez gain, Euskal Gobernuak Londonen aterako dituen komunikatuak eman

⁵⁴⁰ EAH.EH.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París) Secretaría V:450 L:19/15 Zarrabeitiari (1938-04-26).

eta prentsara informazioa igorriko du. Informazio hori Espainiar enbaxadari ere erraztuko dio, beraiekin aktiboki kolaboratuz⁵⁴¹:

la Embajada está realizando una gran labor y es necesario que colaboremos a ella intensamente suministrándole la mayor información de los acontecimientos de Euzkadi. Horretarako, es preciso que se establezca rapidísimamente el servicio telegráfico de la Presidencia y yo haré lo necesario para recoger toda la información montando un servicio de recepción telegráfica. Komunikazio bide hau ez da ezarriko Lizasoren atsekaberako eta ezin izango du berak pentsatuta zeukan bezala agentzia eta prentsa organismoei egunero informazio freskoa banatu.

Lizaso iristen denerako nazioarteko interesa piztuko duten hainbat gertaera jazoko dira. *Palos* ontziaren kasua, Bilboko espetxeetako hilketak eta Gurutze Gorriaren izenean Euskal Gobernu eta Salamancaren artean preso-trukeen negoziaketak. Makina bat aldiz kexatuko da Bilbotik jazokizun hauen inguruan informazio urri eta berandu helaraziko diotelako.

1936ko abenduaren 23an *Palos* itsasontzi alemaniarra atxiki zuen Euskal Gobernuak. *Palos* itsasontzia euskal itsasertzeko 3 millatik haratago 5 millara zegoela dirudi. Beraz, lege internazionalaren ikuspuntutik atxiloketa ez zen zilegia, nazioarteko uretan baitzegoen ontzi germaniarra. Ontzian zioan eta espainiar nazionalitatea zuen pertsona bat atxilotu, Santa Luziako kondea, Jose Moreno Elorza, eta gerra materiala (2500 kg zeluloide eta irratitelefoniko materiala) kontsideratzen zuten oro ebatsi zioten. *Palosen* laguntzan *Konigsberg* ontzia bidali zuen *Kriegsmarine*; atxikitako kondea eta materiala itzultzeko exijitzeko. Euskal Gobernuak jaramonik egin ez eta hainbat ontziri eraso egingo dio destruktore alemanak. Urtarrilaren 1ean *Soton* errepublikarrari eta *Blackhill* ontzi ingelesari, azken eraso honek nazioarteko tentsioa igoaraziz. Auziak prentsa ingelesaren interesa piztuko du. *Daily Mail*ek abenduaren 28 eta 29an lehen orrialdean⁵⁴² emango du berria eta Ingalaterrako egunkari nagusiek jasoko dituzte Berlin eta Baionatik, Euskal Gobernuak, igorritako hitzak, baita Valentziako adierazpenak ere. Lizaso enbaxada espainiarra gertaeren jakinean jartzeko eta prentsara igortzeko interesatzen den informazioa eskatuko du. Bilbotik denbora gehiegi hartuko dute erantzuteko. Adibidez, urtarrilaren 4an *Palosen* zeraman kargoa eta zehazki non gelditu zuten adierazteko eskatzen du. Informazioa urtarrilaren 6an emango diote. Gaiaren inguruan *The Times*ek hurrengo egunean, Alvarez del Vayoren, Espainiar Estatu ministroaren, *Palosen* auzia Nazioen ligara eramateko adierazpenak argitaratuko dituela, baina, gaiak aktualitatea galdu duenerako pasako diote behar zuen informazioa⁵⁴³. *Palosen* auziaren inguruan, hainbat eta hainbat egunkarik atxiloketa Euskal Gobernu gorriak exekutatu zuela adieraziko dute. Ondorioz, Lizasok Euskal Gobernuaren konposizioa nolakoa den notizia igorriko dio prentsari. *Daily Herald*ek argitaratutako notizia *Basque "Red Cabinet" Four Catholics and one communist!* Lizasok pasatako informazioaren ondorioz eman zen. Propagandaren ikuspuntutik puntualizazio garrantzitsua⁵⁴⁴.

Antzeko egoeran aurkituko da beste bi gertaerekin. Bilbon jazotako bonbardaketaz eta bertan gertatuko den sarraskiaz ez duela deus jakingo urtarrilaren 7 arte *absurda noticia bombardeo día cinco aparezca hoy incompleta periódicos por desconocer yo hecho criminal inmediatamente produjese* eta egun bat beranduago presoekin trukearen negoziazioen eteteaz informatuko dute. *The Daily Telegraph*ek urtarrilaren 8an bertan jakinaraziko du notizia. Ez da Lizasok pasatakoa izango. Baionatik datorren informazio da. Bertan negoziaketan egon den

⁵⁴¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02 Lizasok Agirrerri (1937-01-02)

⁵⁴² *Daily Mail* (1936-12-28) (1936-12-29)

⁵⁴³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02 Lizaso Lehendakaritzari (1937-01-04) Lehendakaritzako idazkaritzak Lizasori (1937-01-06)

⁵⁴⁴ *Daily Herald* (1937-01-06)

breakdown-a emango da aditzera. Euskal Gobernuak bere hitza bete duela ere esaten du, baina Burgosek trukeak masiboki egiteari uko egin eta banakako trukaketak besterik egingo ez dituztela adieraziz⁵⁴⁵.

Nahiz eta informazioa ez azkar jaso, Lizaso nahiko arin mugitu zen Euzkadiren informazioa prentsara helarazteko. Hainbat kazetarirekin elkartu eta Agirrerren ordenak jarraiki Euzkadi bisitatzeko konbentzitzen saiatzen dabil. Besteak beste, *News Chronicle*ko, Manuel Lopez bidaliko du urtarrilaren 5ean. BBC-ko esatari den Ralph Murray ere abiatuko da San Sebastian egunean. *The Daily Telegraph*ek ere korrespontsal bat izango du uneoro Bizkaiko frontean⁵⁴⁶.

Ildo beretik kazetaritza agentzia garrantzitsuenak komunikazioan jarriko da (Havas, United Press, Press Association, Reuter, United Press of America, Central News, Exchange Telegraph), Lizasok Bilborekin eguneroko komunikazio zuzen bat ezarri nahi zuen. Bere ustez, eguneroko informazio freskoa izanda posible izango litzateke ia-ia agentzia baten antzera informazioa pasatzeko aukera izatea⁵⁴⁷. Zoritxarrez, ez da inoiz Bilborekin inongo komunikabide zuzenik ezarriko eta *Palos* eta beste bi kasuetako auzietan ikusi dugun bezala ez du nahiko informazio izango. Behin ete berriro eskatuko du kable bidez zuzenean Mendigurenek zuzendutako ofizinarekin harremana izateko, baina, Mendigurenek berak aitortuko dio propaganda sekzioak ez dituela baliabide nahikoa Lizasok eskatutako komunikazioa mantentzeko⁵⁴⁸.

1937ko apirilean Bilboko blokeo dela eta emango da euskal delegatua prentsan ezagutzera, alabaina, kasu honetan, berriro ere, ahalmen informatibo gabe sentituko da Lizaso. Informazioa geldo jazotzeaz gain bera informatzea ez zen lehentasuna, korrespontsalei lehenago uzten baitzitzaien Bilbotik mezuak bidaltzen⁵⁴⁹.

Bilboko blokeoa ofizialki apirilaren 11an Britainiar kabineteak Bilboko portua minaz josita zegoela onartu ostean hasi zen. Berehala prentsa eta parlamentuan benetako iskanbila sortu zen deklarazio honen harira. Espainiar enbaxada ofizialki kexatu eta enbaxadorearen zein Agirrerren kexak oihartzuna jazo zuten oposizioaren prentsa. Parlamentura helduko ziren aldarririk⁵⁵⁰. Blokeoa onartzean, Francoren hitzaren aurka men egiten zutela adierazten zuten titularrak jarriko zituzten. Esaterako, *New Chronicle*sek esaterako *Mr. Baldwin surrenders to Franco's threats* idatziko du⁵⁵¹. Azkenean eta apirilaren 20an Seven Seas Sprayk blokeoa gaindituta areagotu egin zen Britainiar gobernuarekiko presioa. *Daily Herald*ek Baldwinen blokeo, *Baldwin's blockade*, bezala kalifikatuko du Almirantegoak Bilbon ez sartzeko gomendioa. Hiru egun beranduago *Hamsterley*, *Macgregor* and *Stanbrooke*ek Donibane-Lohitzünetik atera eta Bilbon sartuko ziren. Berehala informatuk zuten hainbat egunkarik⁵⁵². Apirilaren 24an *The Guardian*ek argitaratutako erreportai batean, Lizasoren hitz batzuk argi eta garbi adierazten dute Bilbo eta Londonen artean zegoen arrakala informatiboa. Barkuak goizeko 10etarako heldu

⁵⁴⁵ *The Daily Teleprah* (1937-01-08)

⁵⁴⁶ Arrien (2014), 95-6; EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02

⁵⁴⁷ *Ibid.* Lizasok Agirrerri (1937-01-05) (1937-01-06)

⁵⁴⁸ *Ibid* Mendigurenek Lizasori (1937-02-18)

⁵⁴⁹ *Ibid* Lizasok Agirrerri (Data gabe; 1937ko apirila) *Te ruego con todo encarecimiento ordenes que toda información que prensa y agencias periodísticas de Londres nos piden con interés reiterado como ha ocurrido hoy con la noticia de la llegada de los tres barcos mercantes ingleses nos sea suministrada cablegráficamente a esta delegación con prioridad a todo cable que puedan cursar periodistas o corresponsales de agencia en Bilbo pues lo contrario coloca esta delegación situación incapacidad informativa stop todos periódicos confirman llegada barcos sin haber recibido nosotros confirmación oficial stop saludos*

⁵⁵⁰ *The Guardian* (1937-04-14; 15); *Dally Herald* (1937-04-17); Preston (2018)

⁵⁵¹ *News Chronicle* (1937-04-13): *British ships are to be warned against attempting to carry milk to starving Basque babies because a Spanish pirate has said that he will fire upon them if they do*

⁵⁵² *Daily Mail* (1937-04-23); *The Midland Telegraph* (1937-04-23); *Citizen* (1937-04-23); *Derby Evening Telegraph* (1937-04-23); *Leicester Evening Mail* (1937-04-23); *The Gloucoshire Echo* (1937-04-23)

ziren portura, baina Lizasok lau ordu beranduago, 14etarako, jasoko du konfirmazio ofiziala. Lizaso bera Bilbon egona zen 48 ordu lehenago eta bertan Ingalaterrara bideratutako irratsaioetan hitz egin zuen blokeoaren inguruan⁵⁵³.

Ondorioz, lehen momentu honetan Lizasoren esfortzu eta lan handia ikus daiteke Ingalaterrako prentsa zirkuluan kontaktuak egin eta ahal duen neurrian kazetariei berri interesgarriak helarazteko. Hasieran, Euzkaditik Londona igortzen ziren berrien gehiengoan iturburu bilakatu nahi zuen, baina, Bilborekin harreman zuzenak izateko zituen eragozpenek proiektua aurrera eramatea eragotziko zion. Eginahal handi honek huts eginda ere, 1937ko otsailean Lizasok Francisco Basterrecheari igorritako txosten batean laburbiltzen ditu eskuratutako emaitzak⁵⁵⁴.

- Kazetaritza agentziekin kontaktu zuzena izango du, Londoneko egunkari nagusietako erredakzioetan bezalaxe: *The Times*, *Manchester Guardian*, *Daily Herald*, *News Chronicle*, *Star*, *Evening Standard*, *Daily Worker* eta *Sunday Chronicle*.
- Artikulu eta nota ezberdinen bidez Euzkadiko arazoak zabaltzen saiatu da.
- Politikaren munduan pertsonaia garrantzitsuak ezagutu eta Euzkadiko arazoak azaldu. Bere ustetan hau da propagandarik onena, eta gehien jorratuko duena izango da.
- Ahalik eta atzerritar korrespondentsal gehien bidali ditu Euzkadira. Haien errealitatea ikusi eta gero Ingalaterran horixe kontatuko zuten esperantzan.
- Enbaxadak hainbat panfleto itzuli eta editatzea lortu du: *Juventud Nacionalista en el Congreso Antifascista celebrado en Paris en Diciembre*. Argitaratzearen otsailean Leizaolak zuzendutako Kultura eta Justizia departamentuak egindako “La intervención extranjera” foiletoa itzuli eta *Palosi* buruzko informazioak gehituz liburuxka bat. Gurutze Gorria Internazionalarekin Euskal Gobernuak egindako elkarlanaren memoria itzultzen ari ziren eta berehala argitaratuko zen: *Rebel opposition to efforts for the humanisation of the Civil War in Spain*.
- Kontrapropaganda ere egin du. Adibidez, Gil Roblesek urtarrian *The Universe* katolikoan altxatuen alde eta Euskaldunen kontra egindako adierazpenak beste artikulu batekin erantzun ditu magazinean bertan.

Bigarren eta hirugarren aldia aztertu aurretik, garrantzizkoa deritzogu E.M. Wright etxearekin izandako kontratuaren nondik norakoak adierazi eta *Euzko-Deyari* buruzko hainbat aspektu formalez hitz egitea. Bi aldi horietan bi elementu hauek egindako propaganda ulertzeko instrumentalak baitira.

E.M. Wright propaganda agentzia

Bilboko blokeoaren erdian, Lizaso agentzia honekin lan egiteko irizpide bila zegoen Bilbon. Akordio ia itxita zuten, eta azkenean E.M.Wright propaganda eta kazetaritza agentziarekin 1937ko apiril bukaeran itxiko du kolaborazio akordio. Propaganda agentziak egingo duen lehendabiziko lana Agirrek Gernikaren sarraskiaren ostean argitaratuko duen aldarria prentsa britainiarrean zabaltzea izango da 1937ko apirilaren 27an.⁵⁵⁵

E.M. Wright izen bereko zuzendari batek kazetari independentez osatutako propaganda eta prentsa agentzia kooperatiba bat da. Londoneko prentsaren gehiengoan zegoen kaletik oso gertu – agentziaren gutuneko goiburuan jartzen duen bezala, *off Fleet Street*- kokatua, Salisbury Square Housen. Agentziak jokatzeko modu partikularra zuen. E.M.Wrightek estrategia orokorrak finkatu eta kontaktuak errazten zituen bitartean, proiektu bakoitzean kazetari bat ezartzen zen proiektu-buru. Euskal propagandaren kasuan, 1943an *Home Security*

⁵⁵³ *The Guardian*, (1937-04-24)

⁵⁵⁴ SAF- DP-1184-08 Rapport que presenta el delegado de Londres (1937-02-11)

⁵⁵⁵ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:297/05

ministeritzako prentsa burua bilakatuko den, Theodore J. Lovell izango da pertsona hori⁵⁵⁶, *El Jesuita* goitizena jarriko diote Lizasok eta Agirrek. Langileen artean Robert Hawes azpimarratu behar da. Lizaso eta Jose Luis Colina 1936an Londona etortzerakoan Hawes jaunaren laguntzaz mugitu ziren Ingalaterrako kapitalean. Hortaz, Wrightekin bere bidez kontaktatu izana pentsatzea ez da inongo astakeria. Hala ere, badirudi Albisu eta Mendialduatarrek izango direla Wright agentziarekin kontaktatuko dutenak. Parisen ezarritako *Euzko-Deya* bezalako astekari bat Londonen ezartzea dirua xahutzea iruditzen zaie momentu honetan eta halakorik ez argitaratzeko Axuriagerra eta Agirrek hartutako erabakiarekin ados daudela esan ostean⁵⁵⁷:

Es necesario por lo tanto encontrar un medio eficaz que llenera por lo tanto el cometido que repito es necesario y a tal fin, tras muchas patadas acompañado de los Mendialduas he conseguido hablar y hacer exponer al presupuesto a Mr. E.M. Wirght (sic), una de las empresas de publicidad más importantes y formal de Inglaterra. Adjunto la propouesta, no tan cara como esperaba. Dirua begiratu gabe hartzeko gomendatzen du Albisuk eta behar bada partiduoak dirua aurreratuz. Ondoren, estatu Espainiarraren bidez errekuperatzeko asmoa duten dirua da gainera.

Agirrek kontuan hartu zuen iradokizuna eta Lizasori hala dio 1937ko maiatzean: *no sé nada de la propaganda con la casa inglesa que vengo insistiendo desde el mes de enero supongo que habéis concluido todo*⁵⁵⁸. Agirrek gutuna idazten duenerako akordioa itxita zuten, elkarlana apiril bukaeran jarri baitzen martxan. Zoritxarrez, ez dakigu zein terminotan hasi zen zehazki Wright agentzia lan egiten, alabaina, 1937ko uztailaren 9rako £317 ordaintze zaizkiola badakigu. £197 zuzenean propaganda agentziako langileen soldatak eta gastu finkoetarako. Beste £20 prentsa eta interesgarriak gerta zitezkeen indibiduoak entretenitzeko erabiliko ziren. Azken £100 Barclays bankuko 32, Strant Brancheko kontu batean gordeko ziren hilero, trust txiki bat osatzeko. Diru hau erabili ahal izateko Lizasoren esanbidezko adostasuna beharrezkoa izanik. Propaganda kanpaina berezietan funtsa erabiltzeko edo bestelako emergentzietarako gordetzen zen. 1938ko urri arte £317 ordainduko zizkion Euskal Gobernuak agentziari eta lehendabiziko urte osoa, 1938ko apiril arte Marino Gamboak ordainduko zuen. Printzipioz Paristik ordaindu behar zela dirudi, baina Parisek bitarteko guztiak gerrara bideratu behar zituzenez lehen ordainketak Ingalaterratik egiteko agindu zen Bilbotik⁵⁵⁹:

Lizaso cuando Albisu marchó Londres llevo encargo imprimir este P.G.E. covacha contrato casa B.Right [Wright] propaganda. Me ha extrañado mucho que pagos no hayan verificado. Con primer dinero exista Londres páguese primer plazo contrato pues Paris necesita totalidad fondos subsistencias materiales guerra. Una vez viene Bilbao hablar asunto propaganda una vez cerrado contrato casa Ingles.

Esan eta egin Gamboak, 1937ko martxo aldera ezarriko duen *Marino Gamboa Ltd.* enpresak lehendabizi eta *Mid-Atlantic Shipping Co.*k ondoren aseko ditu enpresa britainiarrarekin dituzten betebeharrak⁵⁶⁰. Gamboak ordaintzeko ezintasuna azaltzen duenean, 1938ko maiatzetik aurrera Pariseko ordezkarietatik egingo zuten hilabetero transferentzia. Agentziaren egitearekin pozik egoteaz gain, Ingalaterrak gero eta garrantzia gehiago hartu zuen Euskal Gobernuaren jardun diplomatikoan 1938ko bigarren sei hilabeteetan. Horregatik, Lizasok zein Agirrek erabat beharrezkotzat zuten kontratuarekin jarraitzea⁵⁶¹. Hainbeste estimatzen zuten agentziaren beharra, ezen zuten akordioa indartuko da 1938ko urrian. 1938ko azarotik aurrera £500, hau da, 88.000 Fr inguru ordaintzeraino. Wright agentziarekin zuten kontratuzko harremana 1939ko

⁵⁵⁶ EAH.EG.LD.S: Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:600 L:228/01 Lizasok Loveli (1943-12-21)

⁵⁵⁷ SAF-BBB-281-1 Albisu eta Francisco eta Daniel Mendialduak Agirrerri (1936-12-11)

⁵⁵⁸ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02 Agirrek Lizasori (1937-05-10)

⁵⁵⁹ EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V.:500 L.249/01

⁵⁶⁰ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02 Wrightek Lizasori(1937-07-09); SAF-DP-206-11: Lizasok Zarrabeitiari (1937-12-02) eta Gamboak Lizasori (1938-04-23)

⁵⁶¹ EAH.SA.S:Delegación de Londres. L:9/913 Lizasok Iralari (1938-04-23). Gamboak ezin du Zarrabeitiak 1937-11-30 aprobatu zuen £317 ordainketa Agirrek Lizasori behar-beharrezkoa zela esan zion

uztailean bukatuko da. Halere, abuztuan Lovell jaunari, £40 ordainduko zaizkio azkenekoz. Bai Lovell zein Wright jaunekin harremana, horren estu ez bada ere, hurrengo urteetan mantendu egingo da maila pertsonalean⁵⁶².

1938ko urrian kontratua handitu eta berritzerakoan hainbat gertaera esanguratsu jazoko dira. Alde batetik, Wright agentziak propaganda ez zuzenaren alde egin eta elkartearen kanpoko beste kazetari bat kontratatu zuen artikulu eta gutunak idazteko. Idazkaritza zerbitzua ere eskainiko zaie Ecclestoneko ofizinan⁵⁶³. Horrez gain, agentzia berbera euskaldunentzat ez ezik, Katalanentzat lan egiteko aukera aztertuko da. Euskaldunentzat egiten ari diren bezalako lana katalanentzat egin ezkerro, zenbat gehiago ordaindu beharko zen itauntzeko eskatzen dio Agirrek Lizasori. Badirudi, £200 libra gehiago ordaindu ezkerro egin zitekeela, alabaina, eta 1938ko urrian katalan eta euskaldunek aurkeztutako memorandumetan prestatzen lagundu bazuen ere, ez dakigu azkenean ziur Katalanentzat ere lanean aritu ziren⁵⁶⁴. Sakonago ikertu behar den auzia da.

Orokorrean, agentziak, lantzen ari den gaia kontuan, gizartearen eta prentsaren analisia egiten du lehendabizi. Ondoren, prentsara artikuluak igorri, liburuxkak argitaratuz edo *Letter to Editorsetako* eztabaidetan parte hartuz kanpaina ezberdinak abian jartzen saiatzen dira. Kanpaina horiek propaganda zein kontrapropagandakoak izan daitezke. Egoera aztertuta, aurreko egunetan argitaratutako informazioari erantzuten eta horiek beraien ikuspuntuaren alde moldatzen saiatzen baitira. Propaganda-kontrapropaganda hau zuzen eta oldarkorra izan daiteke batzuetan. Ez zuzena eta ez agerikoa besteetan. Betiere, eta esan bezala, testuingurua oso kontuan izaten saiatzen dira hurrengo pausua eman aurretik. Euskal propaganda gehienetan oso ezkutuan egindakoa izango da. Hortaz, identifikatzeko nahiko zaila. Agentziakoak defendatzen duten kausaren alde lagun dezaketen kazetari, politikari eta pertsonaia garrantzitsuak identifikatu eta horiengana hurreratzen dira. Horrela, horiek eskuratu ditzaketen fabore pribatuez gain, batzuetan idatzitako artikulu eta editoreentzako gutunak sinatzea ere eskatzen zaie. Argitalpenetan ere lagunduko diete. Liburu, pelikula edo artikuluak nola eta noiz publikatu eta banaketa nola egin iradokiz.

Guzti honez gain, Wrighteko langileek Paristik eta Espainiatik datozen propaganda ideak aztertu eta iradokizun ezberdinak eskaintzen dizkiete. Kontuan izan behar da ingeles gizarte eta prentsaren funtzionamendua Europako beste herrialdeekin oso ezberdina dela. *Snob* britainiarraren pentsamendurako, Erresuma Batuko prentsa erosezina eta inpartzialagoa da Frantsesarekin alderatuz. Frantziar Euskal Gobernuak subentzio ezberdinak banatu zizkion, Baionako Sud-Ouesti esaterako. Pentsaezina zen antzeko zerbait egitea Ingalaterran.⁵⁶⁵ Harrapatu ezkerro benetako eskandalua izango baitzen. Lehendakariaren etsipenerako artikulu batzuk plazaratzea zaildu egiten zuen sistema *zintzo* honek.

Propagandaz gain, lan diplomatiko, itzulpen eta idazkaritza lanetan ere lagunduko diete. FOra, prentsara eta pertsonaia ezberdinei bidaliko zaizkien gutuneko ehuneko handi bat Wrighteko

⁵⁶² EAH.EG.OD.S:Contabilidad Se:Cuentas V:200 L:653/01 eta: L:653/02

⁵⁶³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 1938

⁵⁶⁴ EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:150 L:256/02 Agirrek Lizasori (1938-08-30) *encomienda un estudio de cuánto costaría una propaganda Catalana a su estilo (...) por cuantas libras más al mes de comprometería la agencia a hacer el mismo tiempo que la propaganda vasca una propaganda razonable. Los catalanes que están apurados económicamente le piden auxilio, quizá sea más económico añadir un epílogo a nuestra propaganda que no verificar una cosa independiente. Haz gestiones con Batista y me contestas.* EAH. Lizasok Agirrerri (1938-09-21) creo que con 200 libras mensuales se podría llegar a lo que el gobierno catalán quiere; Lizasok Agirrerri (1938-10-12)

⁵⁶⁵ de Pablo *et al.*, (1999) 56 *The Times* eta *The Daily telegraphi* diru gutxi erabiliz norabide editorialak aldatzeko saiakerak egon zirela adierazten du (SAF- EBB 105-3; EBB 107-5, EBB 121-1)

agenteeek idatzi edo berrikusia izango baita. Hilabetero ofizina horrek egindako lana memoria batean bildu eta Lizasori eta Lehendakartzari kopia bana emango zaizkio. Txosten horietako bat agentziak kaleratutako langile batek prentsara filtratzean, nahiko eskandalu handia eman zen nazionalen aldeko prentsan⁵⁶⁶.

Azaldutako guztia askoz hobeto azaltzen da jarraian azalduko den memorandumean. 1938ko urriko memorandum honetan agentziak orain arte egindakoa eta bere lana nola hobetu dezaken ederki azaltzen baitu⁵⁶⁷:

Our monthly reports give full details of the general direction of activities. The purpose of these notes therefore, is to indicate them in a line, and to suggest how they could be intensified if additional funds become available.

GENERAL PROGRAME OF ACTIVITIES AS AT PRESENT ADOPTED

1. *Statements by the Government: In many cases we suggest these and in all we prepare and issue them.*
2. *Preparation of official Basque Government diplomatic documents and memoranda*
3. *News and articles about the Basques: Up to the present these have been confined in keeping with policy, to stating the Basque case, indicating the strategic importance of the Basque Country, showing the increasing German domination over Euzkadi, indicating the similarities and sympathetic bonds between the Basques and the British, giving a picture of Basque Life.*
4. *Letters to the press. A large and successful service has been maintained here- presenting the Basque case by third parties; initiating new possible lines of a settlement of the Spanish question that would be satisfactory to the Basques; answering criticism of the Basques; re-iterating the general cause, etc*
5. *Publications Department: We prepare and distribute two issues monthly of "Euzko-Deya" (this work also involves the problem of bringing this paper before journalists, with a view to its opinions being quoted by the Press); suggest and prepare pamphlets and booklets ,etc.*
6. *Introductions: We obtain introductions for Mr. Lizaso to M.P.s of various parties, particularly those belonging to the National Government, and to prominent "key" journalists. A Large number of useful and effective introductions has been obtained*
7. *We make arrangements for Mr.Lizaso to give lectures to various societies and bodies, and organise events which are designed to constitute news in themselves (At present sent an event in organisation is a show of Mr. Uzelay´s panel pictures and opening of Basque restaurant).*
8. *Whispering services: This means putting over ideas and suggestions, useful to the Basques, to key journalist and Parliamentary personalities by indirect third-party means.*
9. *Intelligence Service: We obtain reports from the Lobbies and City, etc. On events as they might affect the Basque cause.*
10. *Complete secretarial service- i.e. preparing rights sort of approach to various individuals and bodies preparing suitable letters for signature of Mr. Lizaso etc.*

(This service, briefly summarised has been conducted to the fullest extent which present funds would permit, and has involved the service of)

<i>E.M. Wright</i>	<i>(in a consultative capacity)</i>
<i>T.J. Lovell</i> <i>G.Spence replaced by H.J. Frenchek</i>	<i>On hour-to-hour full service</i>
<i>R.W. Mason; J. Sinclair</i>	<i>(On part-time service)</i>
<i>Memmbers of general journalistic staff in writing and/or placing articles, short items etc</i>	
<i>H.Steel; F. Towers</i>	<i>(In spreading reports by whispering campaigns and indirect contact with lobby and other jourbalists, etc)</i>

The following items in the above service could be extended by additional funds in the directions suggested below (It will be obvious from the nature of the proposal that it is impossible to give and exact figure, but a note of this aspect is appended to each suggestion.)

⁵⁶⁶ *Catholic Herald* (1937-09-03) *How we made Britain support us*

⁵⁶⁷ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:150 L:256/02

- *No.3 could be extended by engaging additional “outside” correspondents and famous contributors to the press to introduce the Basque cause into their articles. A further full-time man would also be necessary to conduct the necessary negotiations with these men, to prepare the additional material and to act as an intermediary in conveying it to them. Naturally this could cost anything- depending on the number of the correspondents engaged. The best method of conducting it would be to obtain. Mr.Lizaso’s approval for each item of expenditure so that it could be strictly controlled at each stage.*
- *No.5 could be expanded by increasing the number of publications issued and the lists to which they are sent. One new publication on Basque children under Franco is about to be issued. A further one is to be considered about the Statute of Basque Autonomy; and yet a further one providing a map of Spain as it will be. “Euzko-Deya” itself could be issued to a very much larger lists of people (The list has hitherto been restricted to the most important persons in each category for reasons of economy)*
- *No.6 the task of arranging for Mr. Lizaso to meet influential members of Parliament, particularly those belonging to the National Government, presents a problem which naturally increases progressively in difficulty. If their number are to be greatly extended it would entail the service of a further contact man, for which an allowance of approximately £50 a month should be made. In addition to this, there are the expenses involved in connection with the meeting itself, usually about £5 for the necessary luncheon or similar hospitality.*
- *No. 7 Could be expanded similarly to no.6 partly by meeting additional individuals of the press, and partly by arranging meetings with, say held-a-dozen correspondents at a time. The expense here, too, would be of a similar nature to that involved by No.6, but perhaps slightly less in amount.*
- *No 10: Arrangements are already being made to increase the press-secretarial service In that addition to the work done here and the office and secretarial facilities provided, one of our staff is in attendance on Mr. Lizaso at Eccleston Square for a considerable part of each day.*

The following is suggested as an entirely new activity, of which a very broad view will have to be taken, since the beneficial results from it will not accrue solely to the Basque Government.

It is that we should create a new Fascist body to carry out propaganda, ostensibly for Franco, with such blatancy that it entirely gives away Franco’s game. For example the type of message it would put over would be : “Why should we not acknowledge the withdrawal of 10,000 Italians as a substantial withdrawal within the meaning of the Non-intervention Committee’s requirements? It is true that it leaves 70,000 Italians still in Spain but these and the belligerent right which would be granted are necessary to produce a Franco, which all good English people desire” “Why do not British people openly hasten Franco victory? It is true that this would create a new frontier for France, but France is a decadent power, and we may as well acknowledge it”, and so forth.

The arrogance and blatancy of these views would in our estimation arouse a tremendous outcry against Franco. It would be possible to bring into references to the Basque cause which in the end would focus attention on the desirability of having an autonomous Basque Country.

This body could be created entirely without our appearing in the matter, and it would take the form of statements to the Press, letters-to-the-editor, articles, news-stories, and the like, backed by pamphlets, and a strong manifesto to every Member of Parliament. The effect of this on members of Parliament would be to enrage the position and give them further ammunition against Franco and to embarrass the Government and silence for ever the pro-Franco elements in Parliament.


The cost of having this body run with a staff and office of its own for the time may be estimated at under £300, including everything. This may appear modest, but it will be readily realised that it would not be possible for such a body to remain in existence for long.

Aurkeztutako zerbitzuetatik, propaganda ezkutua egiteko falangearen organismo hori sortu zenaren berririk ez daukagu. Baina, informazioa bidaltzen zen zerrenda eta Britainia Handia zirkulu diplomatikoa eta politikoetan influentzia zuten pertsonaiekin kontaktu gehiago izateko zerbitzuak kontratatu ziren. Are gehiago, agentziaz kanpoko kazetariak kontaktatu ziren

euskaldunon interesekin bat zetozen artikulua agerkarietan txertatzeko. Hau egiteko pertsona bat kontratatu zen⁵⁶⁸.

Euskal agintariak pozik egongo dira agentziak egindako lanarekin, eta kontratua eteteke arrazoa ekonomikoki ezin sostengatu izana izango da. Denera, £10.000 pasatxo ordainduko zaizkio agentziari zuzenean, zehazki, Lovelli abuztuan ordaintzen zaizkion £40 kontuan £10.246. Gastatutako diru horri, Lizasok agentziaren bidez eskuratutako bileretan ordaindu beharreko gastuak gehitu behar dizkiogu. Zoritzarrez ez dugu zenbaki zehatz bat eta ez dakigu ziur, parlamentariekin izandako hamazazpi afariak aipatutako zifren barruan kontatuta dauden, ala beste bide batetik ordaindu ziren.

Euzko-Deya (England) Ltd.



Ir.12 *Euzko Deyako* gutuna. EAH.EG.LD.S:Delegaciones Se:Lizaso V:500 L:214/01 Sotak Gondrari (1938-07-28)

Londonen izandako euskal propaganda esfortzuen adierazpen erakusgarrietarikoa da Euzko-Deya (England) Ltd. enpresa. 1938ko uztail-abenduan *Euzko-Deya* izendun magazinaren zortzi zenbaki argitaratu eta beste hainbat libururen argitalpenak editatu zituen 1938-9 bitartean. A.C. Hamilton Eddy eta John W. Rowandek abiarazitako enpresak £100 kapitala izango zuen eta 19 Coleman Streeten izan zuen zentrala⁵⁶⁹. Besteak beste, eta aldizkaria argitaratzeaz gain, hainbat liburuxka eta 1938ko abenduak 22an Agirrek Bartzelonan egindako lokuzioaren hitzak Ingelesezt itzultitako esku-orri bat argitaratzeko erabiliko zen.

Editatutako liburuak sakonago aztertut ditugu liburu eta liburuxkei buruzko atalean. Jarraian, *Euzko-Deya. The Voice of the Basque* aztertzea dugu helburu. Bere goiburua dioen bezala, ofizialki, Parisko *Euzko-Deyaren* ingeles edizioa da. Ez du baina Pariskoarekin zer ikusi handirik eta funtsean Ingalaterran euskal delegaritzari arazoak ekiditeko trikimailu bat besterik ez zen. Boletinak Lizasorekin zer ikusia izanez gero, arazoak sortuko bailizkioke⁵⁷⁰. Interesgarria da 1938ko abuztuan Euskal lurraldeetan Alemaniaren interbentzioaren salatzeo kanpainaren baitan, Lizasok berak igorriko diela *Euzko-Deyaren* alea pertsonaia askori. Halere,

⁵⁶⁸ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Report october 1938

⁵⁶⁹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones En Londres Se:Lizaso V:500 L:233/01 Gondrak Hamilton Eddy eta Rowandi (1946-06-25) Euzko-Deyak 1946an duen egoera legalari buruz itaundu. Eddy eta Rowandi. Newspaper bat argitaratzeko asmoa agertzen die, baita argitalpen berri horren izena aldatzeko moduz. EAH.SA.Se:Delegación de Londres Legajo: 9/897 Lizasok Iralari (1938-07-05) Pikabea, urkola, Rodriguez eta Agirrerri ofizialki Euzko-Deyak erlazio zuzenik izango ez duela adierazteko idazten dio. Boletina argitaratzeko Parisko Euzko-Deyaren filiala izango den £100 kapitalarekin konpania bat sortu duetela, (Euzko-Deya (England) Ltd. ere adieraziz

⁵⁷⁰ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/911 Lizasok Agirrerri (1938-04-08) si *el Sr.Embajador se me quejara y me preguntara por que edito yo este folleto o boletin quincenal, yo le contestaria simplemente que en su redacción no me corresponde la menor intervencion y que tengo entendido que esta publicación esta orientada y redactada des Euzko-Deya de Paris aunque la tirada y distribucion se hagan desde Londres*” Ibid. Lizaso a Irala (1938-04-21) Si *el boletin estuviera ligado a lizaos le pondria en una posicion dificil debido a que la embajada ya tiene su propio boletin y solo trataria de temas vascos*

aldizkariaren politika Euskal Gobernuaren politikarekin bat ez datorrela adierazten duen nota batekin: *while the policy of this paper does not in some respects agree in detail with the policy of the Basque Government, it contains some interesting news regarding German intervention in the Basque Country*⁵⁷¹.

Kantzilertza eta prentsari igortzeko informazio boletin bat bezala ulertu behar da Londoneko edizioa. Parisekoak kantzilertza eta prentsa igortzen bazitzaizkion ere, errefuxiatu eta laguntza komiteei zuzentzen zen gehienbat. Ingalaterran argitaratutakoaren kasuan aldiz, K-H Newsletterren formatua imitatzen dute eta 4 orritan artikulua zehatz eta laburrak, Euskal historia eta Espainiar Gerrari estuki loturiko zitak eta Baionako euskal zerbitzuek eskainitako informazioak tartekatzen dituzte (Bayonne news Bureau).

Editoreak ez ziren Pariseko berdinak. Ramon de la Sota izango da 1938ko apiriletik abuztu arte, hau da Estatu Batuetara joan arte, ingeles edizioan lan egingo duena. Berarekin batera Lovell jauna eta *Blackfriars* Ingalaterrako predikarien ordenako hilabetekariko magazinaren editorea zen Victor White eta J. Mitchell Sinclair arituko dira.

Aldizkaria uztailan agertzen bada ere, 1938ko maiatzean irten behar zen argitara lehen zenbakia. Agirrek Lizasori honela idazten dio: *¿Que es lo que os sucede que en las últimas cartas no me habláis nada del boletín Euzko-Deya que debía según tus cálculos haber ya salido en Londres? Dame cuenta de esto en la próxima carta que me escribas*⁵⁷². Francoren agenteen kontrapropagandaren beldur eta Ingalaterrako *the laws of libel*-ekin arazoak ekiditeko abokatuekin kontsultak egin zituzten argitaratu aurretik. Horrexek atzeratu zuen, printzipioz bi-astekari izan behar zenaren agerpena⁵⁷³.

Euzko-Deyaren urteroko harpidetzak 6 txelin edo hiru-hilabetero £1/6 ziren. Harpidetza hauen bidez kostuen zati bat ordaintzea nahi zen, nahiz eta argi zuten oso zaila izango zela bi-astekaria diru sarrera horiekin mantentzea⁵⁷⁴. Hurrengo zerrendan agertzen den erara banatuko zen:

- Parlamentuko kideei
- Lorden ganbaran britainiar kabineteko kideei
- Britainiar dominio eta kolonietako ordezkariak
- Euskal errefuxiatu etxe bakoitzari
- Liberal eta Laborista klubei
- Lizasoren izena aipatu gabe, Lizasoren *friendly contact*
- Britainiar Handiko elkarte politiko garrantzitsuenei (200 bat kopia)
- Egunkari nazional guztiei
- Egunkari probintzial garrantzitsuenei
- Igandekariei, *The observerren* salbuespenaz.
- Londonen ofizina duten egunkari talde guztiei
- Astekari eta hilabetekari politikoei

Talde hauez gain, *Euzko-Deyaren* 50 ale Valentin Agirrereren New Yorkeko euskal etxera igortzen ziren. Beste 50 Eirera Dublineko euskaldunak sal zituzten. Ingalaterran zeuden euskaldunek ere lehenengo zenbakiaren ale bat jasoko dute. Harpidetuko diren esperantzak zituzten⁵⁷⁵. Pixkanaka, eta erabilitako formatuari eskerrak, *Euzko-Deyaren* ingelesko bertsiokak bere helburua bete eta Britania Handiko prentsan oihartzuna izango du. *The Starrek*

⁵⁷¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Report July 1938

⁵⁷² EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/915 Agirrek Lizasori (1938-05-18)

⁵⁷³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Report June 1938

⁵⁷⁴ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Report June 1938 *It is hoped to encourage people to pay a suscription for this paper, thereby defraying the costs; but we ugh to point out, however, that there is little opportunity of many people doing so.*

⁵⁷⁵ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Report July 1938

autodeterminazioaren aldeko jarrera hartuko du eta *The Timesek* artikulu baten erreferentzia egingo dio *while General Franco will hardly appreciate them for their bearing on the situation of the Catalans and Basques in Spain* nahiz eta artikulua ez den nazionalen aurka idatzi.⁵⁷⁶

Azkenean, 1938 bukaeran *Euzko-Deya* erregularri argitaratzeari utziko zion. Arrazoi nagusia prentsa eta gobernuaren presioak direla dirudi, nahiz eta ez dagoen batere argi. Hala ere, eta gauzatuko ez badira ere, 1939 lehen sei hilabetekoan aldizkaria berrargitaratzea pentsatzen dute behin baino gehiagotan. Azkenean, *Euzko-Deyaren* ordezkariak, delegaritzak *Special notes* delakoak bidaltzen hasiko da. Alemaniar influentzia eta frankisten egoera sozio-politiko militarri buruzko informazioetan zentratuko dira nota hauek. Erregularri igorriko zaizkio FOera eta Lizasoren kofiantzako parlamentari zein kazetariei.

Bigarren eta hirugarren aldia

Euskaldunok Espainiar Gerrako arreta bereganatzen ari zirela kontratatu zuten Wright agentzia. 1937ko martxoko Mola jeneralaren ofentsiba hastean. Are gehiago indartu zen Euskal lurraldeetan gertatzen ari zenaren jakin-mina Bilboko blokeoak Britainia Handiko gizartearen eragin zuen ekaitz politikoak. Britainia Handiko atzerri ministroak, Anthony Eden kontserbadoreak euskaldunekiko adeitasuna erakutsi zuen publikoki parlamentuan. Jakingura eta sinpatia horiek lagunduko zuten Gernikako bonbardaketaren ostean Britainiar iritzia euskaldunon alde agertzeak.

Bonbardaketaren aurrean Jose Antonio Agirrek egindako aldarria zabaltzea izango da Wright agentziak egingo duen lehendabiziko lana eta sarraskiaren inguruan eztabaidak hartuko duen izaera kontuan, Lovell eta Hawesek hainbat ekintza egingo dituzte. Hawesek *Timesara* argitaratuko ez den gutun bat igorri eta Lovellek *London News Agencyri* Gernikako argazkiak bidaliko dizkio maiatzaren 10ean. Alberto Onaindiaren, Gernikako sarraskiaren lekukoa, adierazpenak zabalduko dituzte eta *Reuters* eta *Central Newsi* elkarrizketa bat izateko gomendatzen diote Euskal Gobernuari. 1937ko maiatzaren 7an Lizasok argitaratutako karta ere Gernikaren ingurukoa da. Berlin eta Salamancako gezurren aurka egina. *The Timesek* berak argitaratutako informazio bat gezurtatzen saiatzen dena. Horretarako, Bilbon Irailaren 25etik egondako bonbardaketak zerrendatu eta Euzkadin alemaniarren presentzia adierazten duten frogak aditzera ematen ditu. Ikus daitekenez, informazioa azkar zabaltzea dute helburu. Gainera, lehendabizi idatziko diren artikulu eta kartak, ez daude Euskal Gobernuarekin zuzenki lotzerik. Horra hor Wrightek erabiliko duen estrategia bat. Independentek diren pertsonaien firmak erabiliz inpartzialagoa dirudi gutunak⁵⁷⁷.

Bonbardaketak eragindako astinaldia probestuz, Euskal Gobernuak, Britainiar eta Frantziar Gobernuak errefuxiatuak itsasoz Frantziara eramatea nahi du. Horretarako, Lizasok parlamentuan apirilaren 29an emandako hizketaldian bonbardaketan populazio zibilak jasandakoei egingo die aipamena. Wright agentziak hizketaldiaren inguruko deklarazio prentsara bidali eta idatzian Britainiar Almirantegoak zibilak ebakuatuko dituela ematen du aditzera. Modu hartara moldatuko du diskurtsua, *worded in that way*. Hortaz, atzera bota ezker, Britainiar Iritzian eragiteko erabiliko lukete. Ez zuten behar izan. Gainera, apirilaren 29ko

⁵⁷⁶ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Report September 1938

⁵⁷⁷ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:297/05 Wright agentziak egindako ekintzen egunerokoa. Kontrakoa esaten ez bada Wright agentziari egindako erreferentzia guztiak hemendik eratorriak izango dira kapituluan zehar.

diskurtsuaren ostean, *The Timesen* partidu ezberdinetako parlamentari talde batek Euskal umeak Ingalaterrara bidaltzeko eskaera luzatzen du bere kabuz⁵⁷⁸.

Halako gertaera zehatzak momentuko beroaldian ideia batzuk ezartzeko, (euskaldunak nortzuk diren, zergatik ari diren borrokan eta euskaldunon tragedia agertzeko...) eta helburu taktikoak (zibilak ebakuatu, janaria eta material ezberdina jaso...) lortzeko erabilgarrian izanik ere, utz ditzagun gai konkrituak alde batera eta ikus dezagun propagandaren atzean ezartzen den benetako estrategia. Lizasok 1937ko maiatzaren 18an Wrightekin izandako bilera batean argi eta garbi adierazten dira agentziak jasotako jarraibideak eta Lizasoren egiazko jomuga⁵⁷⁹.

Espainiako gerrari buruzko hainbat apunte egiten ditu. Francoren posizioa okerrerantz doa. Bilbo ezin konkistatu dabil, eta lortu ezean Madril ezinezko pieza bilakatuko da. Katalanak indartzen doaz gainera. Ondorioz, nazionalen ezintasun militarren aurrean, Italiar eta Alemaniarrak armistizio baten alde egingo lukete. Hau da Euzkadiri gehien interesatzen zaion egoera, armistizio bat. Egoera militarra lasaitu ondoren, nazioarteko bitartekaritza bat emango zen eta artekaritza horretan eszenatoki idealena bi Espainia ahul aurkitzea izango zen. Horrek, estatu federal baten alde egiteko aukera irekiko luke. Horregatik, federalismoaren ideiarenean alde egin behar du euskal propagandak. Gainera, euskaldunak eta katalanek bitartekaritza mahian Valentzia eta Salamancaren estatu berdina izan beharko lirateke. Justifikazio gisa, euskaldunon konportamendu zintzoa eta euskaldunon eskubideak erabil litezke. Izan ere, nazional eta errepublikarrak ez bezala, gerra humanizatzearen alde gehien egin duen fakzioa izan ziren.

Idea horiez gain, *cornstone* edo propagandaren muina Edenek erabili zituen hitzak izan behar omen dira: Euskaldun gobernua Ingeleseki gehien hurbiltzen zaiena da. Burutapen hauekin armistizioa datorrenerako atmosfera ideala sortu behar da Euskadi mahai gainean beste lehiakideen pare egon dadin *after all the Basque country is the oldest country in Europe and as such should be safeguarded internationally from the extremist of either side of whom either is capable of utterly destroying her, and her civilization.*

Ondorioz, propaganda Euzkadi eta euskaldunon berezitasunak ezagutzera emanez eta Euzkadiren jarrera eta sufrimendua zabalduz bete beharko da. Horretarako, gehienbat *Letter to Editor* atala erabiltzea gomendatzen du Lizasok. Lizaso bera Euskal Gobernuaren ordezkari izanda ezin baitu bere iritzia horren libreki eskaini. Beraz, partiduen politikatik independenteak diren ahotsak errekrutatuta eta gutunetan sailean euskaldunen kausarako interesatzen diren ideiak azpimarratzea izango da propagandaren lan handiena.

Bilera hartan ezarritako ideiak mugarri izango dira Ingalaterran eramango den euskal propagandan. Testuinguruari egokitu arren, bertan seinalatutako estrategiak izango baitira aplikatuko beharreko irizpideen oinarri⁵⁸⁰.

1937ko ekain eta abuztu bitartean gerraren eguneroko kontuak zabaltzeaz gain, Gobernu Britaniarra presionatzen jarraituko dute zibilak ebakuatu eta Kantauriko portuen blokeoak ekiditeko. Deklarazio ofizialez gain, populazio zibilaren sufrikario eta Bilboko blokeoan Lehen Mundu Gerran euskal ontzidiak egindako sakrifizioak gogoratuko dituzte⁵⁸¹.

⁵⁷⁸ *Times* (1937-05-01) Kathorine Atholl, Noel-Buxton, Arthur Salter, Ellen Wilkinson, Eleanor Rathbone, Irene Ward, Megan Lloyd George, John Withers, Harold Nicolson, Thelma Cazalet, Philip Noel-Baker, Anthony Crossley, Lytton, Patrick Hannon, David Grenfell sinatua.

⁵⁷⁹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/ Lizaso eta Wrightekin 1937ko maiatzaren 18an izandako bilera.

⁵⁸⁰ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01

⁵⁸¹ *Manchester Guardian* (1937-04-21)

Behin euskaldunentzat gerra bukatuta, orduan hasiko dira propaganda kanpaina garrantzitsuenak. 1937ko irail-urrian euskal lurraldea galduta Euskal Gobernuak mundu mailan Euskal Kasua ezagutarazteko propaganda plan bat ardaztuko beharko du. Lurraldea galduta izan arren, bitartekaritza etortzen denerako prest izateko helburuz.

Lizasok eta Wright agentziak kontuan zuten nazioarteko eta Britainiar Erresuma barneko aktualitateak euskal auzia ahantzarazi egingo zuela, *unless it is actively represented and kept to the forefront by continuous and intensive propaganda*. Horregatik, propaganda plan bat aurkeztuko du Lizasok 1937ko irailean. Ordu arte egin dena, eta izan dituzten arazoengatik inguruko analisi bat egin ostean, beharrezko propaganda jarduera aurrera eramateko, hainbat kritika eta eskakizun egingo ditu Parisa⁵⁸².

Esan bezala plana egoeraren analisi batekin hasten da. Britainiar iritziak ezta prentsak ere ez du nahi euskal arazoengatik inguruko etengabeko deklarazio jario bat. Britainiarren gehiengoak ez dira politikoki aktiboak, hortaz, euskal kasua bizirik mantendu nahiko bada, politikoa ez diren jarduera, ohitura eta halako huskeriak diruditen bitxikeriak zabalduz mantendu behar da audientzia britainiarren interesa.

Agentziak egindako eta egingo duen lanaz ere aipatzen da. 1937ko irail arte, Euskal Gobernuaren politikaren deklarazioak eta jardueraren inguruko berriak zabaltzen zituzten Londonen, baita Baionako euskal komiteak egiten zuen lana ere. Etorkizunera begira, Lizasori kontaktu berriak erraztu eta informazio diplomatikoa konfidentzialaren berri emango zion agentziak. Kontaktu horiek probestuz, *Anglo-Basque Society* bat ezarri nahi zen, nahiz eta kanpaina katolikoaren eraginez oso zaila izango zela iritzi. Ingalaterran dauden umeak direla eta, aberriratzearen aldeko faxisten kanpaina erantzun eta haien inguruko berriak zabaltzea zen asmoa, betiere, *keeping before the British public their fine qualities and thereby, the fine qualities of their nation*. Azkenik, euskal nazioaren ezaugarriak ezagutarazi eta nazio honen etorkizuna artikulatu eta gutunetan aipatzen jarraituko zuten.

Propaganda guzti hori egiteko baina, Euskal Gobernuak informaziorik ez diela pasatzen kezkatzen dira Ingalaterratik. Parisko *Euzko-Deya* erregulariki jasotzen badute ere, hau laguntza komite eta euskal errefuxiatuei zuzentzen da eta ez du propaganda eraginkor baterako balio. Euskal ohitura eta eguberrietako jaien buruzko informazioa edota euskal lurraldean izan zen eta zegoen pertsekuzio eta justizia erreportaiak bezalako dokumentuak pasatzeko eskatzen du.

Guzti hau konpontzeko eta Ingalaterrara informazio hori heltzeko, *Maintenance of a continual flow of information from these centres* [Paris, Bayonne, Valencia] eskatzen du. Egunerokotasunaz gain informazio gehiago eskuratzeko hainbat galdetegi pasatzen ditu. Galdetegi horretan, gobernuak eta bere politikaren inguruko politiken eta presidentearen hizketaldi eta jardueren inguruko itaunketak dira. Horrez gain, mundu mailan ezagunak diren euskaldunen berri emateko eskatzen du. Hala, Britainiar prentsa eta iritzia aspertu gabe, informazio guzti hori erabiliz, euskal auzia bizirik mantentzeko berriak eskuratu nahiz ziren.

1937 bukaerarako informazio kanalak hobetu eta 1938an zehar Euskal Gobernuaren propaganda aparatua espezializatu eta eraginkorrak bilakatuko direla egitate bat da. Informazio gehiago eskuratuz, eta horiek britainiar interesei lotuz, hainbat kanpaina abiaraziko ditu Wright agentziak. 1938ko apiril-maiatz aldera Euskal lurraldearen konkistan izandako paperaren ordainetan Alemaniarrak eskuratzen ari ziren abantailak salatzen hasiko dira. Aurretik, Euskal

⁵⁸²EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Report on Propaganda development in Great Britain

kostaldeak, eta industriak Britainiarrentzat zuten garrantzia azpimarratu zuten Kanpaina abian zen bitartean berriz, Alemaniak Euzkadiren kontrola izateak Frantziaren seguritate nazional eta Britainiarren itsas-bide inperialentzako suposatzen zuen arriskuak nabarmenduko ziren. Kanpaina prentsaren bidez abiaraziko zen, baina bestelako kanalak ere erabiliko ziren. Garrantzitsuena, *An analysis of German domination in Euzkadi* liburuxka izanik⁵⁸³. 1938 erdialdera Britainia Handian ez ezik, urte bukaeran eta hurrengoko hasieran Estatu Batuetan erabiliko zen idatzia. Alemaniaren nagusitasunak, gauza bat erakusten zuen: Ingeles eta Frantziar interesak arriskuan zeudela.

Zabaldu zuten ideia bat izan zen, konkistatu arren Euzkadi ez zegoela baketuta. Azken ideia 1938ko kanpaina ezberdinetan erabiliko zen. Euskal umeen inguruko eztabaidetan adibidez, aberriratzek oraindik umeen gain izan zitzakeen arriskuak aipatuko zituzten (militarizazio, ideologia totalitarioen ezarpena...) eta espainiaren izaera plurinazionala agerian jarriko ziren. Euskal, Katalan eta Galiziar eskaerei aterabiderik eman ez zein, espainiar arazoak jarraituko zuten. Kanpaina horiez gain, gerraren humanizazio saiakerak jarraituko zuten. Horregatik, fusilaketak salatzen jarraitu zuten eta trukaketa orokor baten aldeko kanpainak egin zituzten.

Prentsan eta liburuxkak ez ezik, 1938an bestelako kanalen bidez propaganda egiteko saiakerak emango ziren. Material, modu eta ideia hauek Paris eta Bartzelonan sortu eta mundu mailara zabaltzeko pentsatuak dira. Londonen 1938 ekain-uztailean hiru astez aritu zen Eresoinka da adibide garbi bat. Euskaldunak modu entretenigarri batean ezagutarazteko balio izan zuen. Hala euskal eta ingelesten arteko laguntasun sentimenduak estutu eta dantza eta abesti artean ia-antzeran ezina den mezua propagandistiko argi bat proiektatzen zuen: Euskaldunen irudi idiliko bat hain zuzen ere. Kasualitatez, Espainiar gerran potentziek babestutako bitartekaritza bat eman zitekeen aukera errealitate bat zen garaian egon ziren Londonen. Lizasok Eresoinkaren emanaldiak erabiliko zituen bere kontaktu politikoak indartzeko.

Entretenimenduko negozioan Eresoinkaz gain, pelikulak ere erabiltzen saiatuko ziren. Kasu honetan ez zuten aurreko egitasmoak izan zuen arrakasta eskuratu. Euskal Gobernuaren propaganda zerbitzuak Ingalaterran pelikulak erakusten saiatuko dira. Zoritxarrez, helburu komertzialak zituzten, eta ikerketa bat egin ostean hori lortzea ezinezko zela ondorioztatuta, Proiektzio pribatuz gutxi batzuek haratago, alde batera utziko zen Euskal gobernuak prestatutako pelikulak Erresuma Batuan botatzea.

Ikusi dugunez, propaganda gauzatzeko nabari diren arazo nagusiak Londonera heltzen zen informazio murrizta eta Britainiarren aktualitatean euskal auziak izan zezakeen interesak dira. Aktualitate fokua zabaltzea interesatzen den gaitik urruti badago, ez da erraza horren inguruan propaganda egitea. Bestelako modu ez zuzenak bilatu behar dira gaia interesgunean kokatzeko eta hori egiten saiatuko dira; ideiak transbertsal eta tangenzialki adieraziz.

9. PRENTSAN PROPAGANDA

Behin eta berriro aipatuko dugun bezala, prentsa da propaganda kanal erabakigarriena. Hasieran ikusi dugu Erresuma Batuko prentsaren antolaketa eta hauek Espainiar Gerra eta euskaldunekiko izan zituzten begiradak. Orokorrean, gerrak aurrera egin ahala begirada horiek euskaldunen aldekorantzko joera izango zuten. Wright agentziak eta Lizasok egindako lanak fruituak eman zituenaren seinale. David Deaconek aztertu bezala, euskaldunek sekulako sona

⁵⁸³ *Manchester Guardian* eta *The Daily Telegraph* (1938-05-24)

eskuratzen dute gerran zehar. Adibidez, 1937 erdialdean Errepublikarrei buruzko titularren %68 biltzen dituzte⁵⁸⁴.

Pilaketa hori, gerraren fokua Bizkaian izan zenean zentratzen da batik bat. Halere, bertan behin ekain-abuztuan gerra bukatuta, eta interesa mantentzea erraza ez bada ere, euskaldunen kasua ez da prentsatik desagerraraziko. 1937ko apirilean Wright agentzia kontratatuta, kanpaina ezberdinen bidez Euskal Gobernuari interesatzen zitzaizkion gaiak prentsa britainiarrean eztabaidagai bilakatzeko eskuratuko baitzuten.

Auzi horiek txertatzeko hainbat estrategia eta modu erabiliko ziren. Zuzenki edo zeharka izan zitekeen parte hartzea. Zuzenei dagokionez, Euskal Gobernuak, gainontzeko agenteak bezala, deklarazioak ofizialak egiten zituen bere jarrera garbi azaltzeko. Horrez gain, artikulua eta prentsari gutunak idazten zizkieten Lizasok eta Gondrak bere izenean ordezkari bezala. Gutun eta artikulua, euskal ordezkarien izenean egin beharrean, Wright agentziak prestatutako artikulua eta gutunak, beste batzuen sinadurapean argitaratuko zituzten.

Modu ez zuzenari dagokionez, euskaldunok idatzi edo adierazitako berri eta informazioak prentsan oihartzuna izateari dagokio. Kasu hauetan, kazetari, editore edo gremioko pertsonaren batekin bildu ostean argitaratutako berriei, edo aurretik argitaratutako idatzi baten agertutako ideiak errepikatzen direnean jazotzen da. Azken ideia adibide garbiena, *Euzko-Deyan* azaldutako berri edo notiziak errepikatzean datza.

Esan daiteke propaganda agentziak kanpainak funtzionatzen zuela. Edozertan hasi aurretik, helburu batzuk ezartzen ziren. Horretarako, egoeraren analisi bat egiten zuten eta helburu horietara heltzeko ideia ezberdinak bota. Kostuak eta aldeko eta kontrako puntuak hausnartuta abiatzen ziren. Hurrengo gaiak ezberdinak ditzakegu: Alemaniarren influentziaren gorakada euskal lurraldeetan eta lurralde hauen garrantzia estrategikoa Britainiar inperioaren komertzio bideekiko. Gai kultural eta historikoekin euskaldunak ezagutarazi eta haienganako sinpatia bilatzeko aipatzen ziren. Besteak beste, euskaldunen ohiturak (gabonak, jateko moduak...) eta Lehen Mundu Gerran britainiarren gerra esfortzuari egindako laguntzat ezagutarazten ziren. Espainiar gerra bukatzeko akordio baten beharra, eta Euskal eta kataluniar aldarrikapenak aintzat hartzeko beharra ere aipatzen zen. Guzti hau bi modutara egin zitekeen. Artikulu, berriak eta nota laburrak idatziz edota editoreei gutunak bidaliz.

Artikulu eta notak nola funtzionatzen den ulertzea ez da zaila. Aldiz, editoreentzako gutunak ezberdin funtzionatzen dute. Ingeles argitalpenek, euren linea editorial eta aktualitatearen inguruan eztabaidatzeko orri bat utzi ohi zuten. Argitalpenaren ildoan alde, aurka eta horiekin ados ez zeuden iritziak ere onartzen ziren, eta erantzuteko aukera izaten bazen ere, normalean ez ziren prentsa espainiarrean bezala bizpahiru gutunetik pasatzen. Azken ideia hau aprobetxatuz, batzuetan azken gutuna editoreari interesatzen zitzaionarekin amaitutzat ematen zen eztabaida. 1938ko otsailean Francis Woodlock apaiza eta Angel Gondraren artean izandako ika-mikan ez zuen Lizaso eta Gondraren azken erantzuna argitaratu⁵⁸⁵:

[Erantzuna ez argitaratzea] *very significant- indicating, as it does, the real pro-Fascist policy of this paper, which incidentally, is considered as the "mouthpiece" of the National government. Confirmation of this bias is shown in the refusal by the paper to publish a letter signed by Mr. Lizaso on the bombing of Guernica.*

⁵⁸⁴ Deacon (2008), 130

⁵⁸⁵ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Report February 1938 *Daily Telegraph* (1938-02-09) (1938-02-15) (1938-02-18) 15ean, WM.Dorsett batek ere erantzuten dio Woodlocki

Errebelde eta Errepublikarrak gerra hasiera hasieratik aritu ziren. Arthur Loveday, Enrique Gabana, Del Moral eta Merry del Valek idatzitako gutunak erantzun zituzten Enrique Moreno, Ramos Oliveirak. Euskaldunon kasuan, Lizaso bera ere heldu bezain pronto aritu zen gutunen bat edo beste idazten.

Wright agentzia kontratatzean beste dimentsio bat eman zitzaion penintsulako gertaeren inguruko gerra epistolarrari. Agentziaren zereginetako bat nazionalek egindako adierazpenak erantzutea zen. Horretarako, Ingalaterrako eta Euzkadiko pertsonaia ezberdinen zerrenda bat osatu zuten. Pertsonaien lanbide eta esangura zein zen kontuan izen batekin edo bestearekin erantzuten zen Wright agentziak idatzitakoa. Gehienetan partiduen politikatik independenteak ziren izenak bilatzen ziren. Nahiz eta ez beti. Adibidez, 1937ko azaroan Lizasok eta Lovellek gutun batean *Atheneae Cluba* kritikatuko dute Lord Philipmorrek, *Friends of National Spaineke* zuzendariak, propaganda egiten utzi ziotelako. Kasu honetan, Philipmorren postura argia delako erabiliko zuten izena.

Beste batzuetan, zerrendako izen anonimo bat erabiliko lukete. Editoreek metodologia anonimo honen berri bazuten, eta askotan, propaganda ezkutua zirelakoan ez zen gutuna argitaratzen. Noski, prentsa liberal eta laboristan esku zabalagoak izan ohi ziren euskaldunekin editoreak. Editoreen parte hartzearen adibide da *The Univerzen* Lizasok Gil Roblesen artikulu bati M. Etxevarria izenpean erantzun zion gutunari idatzi zion oin oharra. Gutuna hasieran, Etxevarriaren erantzunak *Red* propagandaren ideiak azpimarratzen dituela esan eta hurrengo astean argitaratuko den Goma artzapezpikuaren artikulu batekin alderatzeko eskatzen du⁵⁸⁶.

Gutunak kontrapropaganda egiteko erabiltzeaz gain, kanpaina ezberdinak abian jarri eta bizirik mantentzeko balio zuten. Adibidez, argitalpen batean artikulu bat txertatzean hurrengo egunetan artikuluari erreferentzia eginez idazten zen gutunetan. Ideia garrantzitsuenak azpimarratuz eta hala zabaldu nahi zen mezua biderkatuz.

Artikuluei dagokionez, Wright agentziak espainiar euskaldunek idatzitako artikulua baino materiala eta batik bat notizia freskoak eskatuko ditu. Zoritxarrez, urte hasieran bezala, komunikazioa ez da inoiz oso arina izango eta Parisko *Euzko-Deyaz* gain ez da material askotxo helduko. Horrez gain, artikulu asko idatzita bidaliko dituzte Paris eta Baionatik, baina agentziak berridatzi edo askotan baliorik ez dutela iritzita ez dira informazio eskuratzeko baino askoz gehiago erabiliko. Inozoak diruditen, baina propagandistikoki euskaldunak ezagutarazteko balio zezaketen informazio asko bilatu zuten agentziako langileak. Euskal eta Britainiar historian zeuden elkarguneez gain, euskal ohiturak, jateko moduak, eta kirolariak interesa zuten. Jacques Borotraren artikulu bat argitara zuten *News Chronicle*en adibidez, *Borotra's Secret of Youth is Be a basque* titulupean *I am Basque, and the Basques are very strong people* dio⁵⁸⁷. Halako huskeriak benetako garrantzia zuten. Euskaldunak ezagutarazi eta haiekiko sinpatia eskuratzea zen xedea. Huskeriez ari garela, Euskal Gobernuako lehendakariaren biografia labur bat argitaratzea lortu zuten 1938an. Aldasoreen biografia labur bat ere argitaratuko du Lady Cynthia Tohill ezagunak. Aldasorok 800.000 pertsonarentzat jatekoa eskuratzeko esperientzia kontatzen du. Gainera, Euskal eta Britainiar gizarteek, inportazioen behararen inguruan dituzten antzekotasunak nabarmentzen ditu. Propaganda onena ezkutuan eta era inozoan egiten dena da, eta halako huskeriekin hautsik harrotu gabe interesatzen ziren informazio ezagutaraztera ematen ziren⁵⁸⁸.

⁵⁸⁶ *The Universe* (1937-02-05)

⁵⁸⁷ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Report October 1938

⁵⁸⁸ *Our Woman's world; The Kensington News; West London Times* (1938-01-07)

Esan dugun bezala, informazio falta ikaragarriaz kexatzen ziren agentziatik. Egoera iraultzeko, galdetegi ezberdinak prestatu eta Paris eta Baionara, baita Euskal Gobernuako kontseilariei ere bidali zitzaizkien. Galdetegiak, euskal ohitura eta bestelako txikikeriez gain, galdera politikoak ere barnebiltzen zituen. Paristik ez diote behar besteko garrantzia emango eta asko kostako zaie bidalitako orriei erantzutea. Informazio gehiena, Lovell 1938ko udan Frantziara bisitan joan zenean eskuratuko zuen. Agirre eta Torrerekin biltzeaz gain, hainbat aterpetxe, tartean *La Rosarie* bisitatuz eskuratuak.

Paristik informazio gutxi bidaliko bazuten ere, bidalitakoarekin lortu zuten zerbait egitea. Adibidez, Leizaolak Espainiako Gerran bonbardaketei buruzko datu teknikoak eskaini zituen. HOak atera berri zuen ARP agerkarian, 1938ko ekain-abuztu bitartean⁵⁸⁹.

Informazioaz gain, Paristik eta Baionatik artikulu sortak bidaliko dira Ingalaterran argitaratu daitezkeen. Aurreko zatietako batean ikusi bezala, Agirreren aginduz, Pantaleon Ruiz de Olanok gidatuta hainbat autorek Euskal gizarteari buruzko artikulu ezberdinak idatziko zituzten 1938an zehar. Juan Gorostiagak, Aranguren medikuak edota Policarpo Larrañaga dira izen horietako batzuk. 1938ko apirilera Ruiz de Olanok idatzitako zazpi artikulu Londonera bidali badira ere, hauek argitaratzea ez da horren erraza. Agentziaren iritziak, euskaldunek idatzitako artikuluak *not suitable for publication* dira Erresuma Batuko audientziari begira. Egia da, gertaerak benetan jazo bezala islatzen direla (oso garrantzitsua den zerbait), baina *anti-Spanish bias* handia erakusten dutenez euskal eta katalan iturriak erabili dituela argiegi dago. Artikuluak erakusten duten beste arazoetako bat euskal kasuan gehiegi zentratzen direla da. Era orokorrago batean idatzi behar da, eta ahal bada Britainiar interesekin, zeharka bada ere, gaia lotuz. Britainiarrak ez daude Euskaldunon arazoetan interesatuta. Euzkadi interesatzen zaie, han zer jazo den eta bertako bizitza, ohitura eta xehetasunak jakin nahi dituzte. Horietako batzuk Britainiar interes-nazionalekin elkar badaitezke, orduan are interesgarriagoa gertatuko zaie. Halere batzuk argitaratuko dira. Adibidez, Alemaniar fortifikazioei buruz idatzitakoa *Reynolds News* igandekariko *leading article* izango da eta hainbat gutun idazteko informazioa eskaintzen du gainera. Horrez gain, euskal ekonomiari buruzkoa modifikazio batzuekin *The Economist* entzutetsuan argitaratzen saiatuko dira. Bertan, euskal ekonomia alemanen eskuetan izatean, Britainiarrentzat suposatzen dituen arriskuez dihardu. Agentziak artikuluak analizatu ostean, uste du hobe dela Erresuma Batura *basic facts* bidali eta bertan idatziko dira. Ez du merezi Olanok horiek idazten ibili behar izatea, gero berdin-berdin modifikatu beharko baitira⁵⁹⁰.

Olanoren artikuluak bezala, 1938ko ekainean artikulu gehiago iritsiko dira Baionatik. Olanoren kasuan bezala, aditu batzuek idatzitako artikulu konkretuak dira. Horietako, hiru bakarrik izango dira argitaragarriak. Adibidez, Gipuzkoako burdinari buruzko artikulu bat egongo da, eta Wrightekoek ez dute uste Britainiar interesa piz dezakeenik. 1938ko uztailean nahikoa burdin heltzen zen Britainia Handira. Beste artikuluei dagokionez, hirurak argitaratuko dira. Lehena, Echegarayek Wentworth Webster euskal aztertzaileari buruz idatzitakoa Uxbridge inguruko egunkari probintzial batean argitaratu zuten. Dionisio Azkuek nekazaritzari buruz idatzitako *The Mowers*, nekazaritzari buruzko *The Countryman* hiruhilabetekarian argitaratuko da. Hori gutxi ez eta Toronto Star Weekly eskatuta Kanadan ere irakurtzeko aukera izango dute 1938ko urrian.

⁵⁸⁹ Leizaola eta Ugalde (1981), 811-6

⁵⁹⁰ EAH.SA:Se:Delegación de Londres L:9/906 Lizasok Agirreri (1938-04-21) *Articulos OLANO: siendo utilizados cree que sobre la potencialidad economica puede aparecer en THE ECONOMIST, (mejor revista economica) de los 7 solo 3 podran ser insertos en toda su extension. Aun asi, los PUNTOS FUERTES estan siendo metidos en CARTAS AL DIRECTOR. (...) le he pedido a Olano articulo con datos suministrads por Lasarte sobre influencia Alemana. Sera aceptado*; EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01: Report april 1938 eta Report august 1938 Olanok Lovellekin elkartu ostean esan ziona.

Azkenengo artikulua Jose Miguel Barandiaranek euskal arrazaren antzinakotasunari buruzkoa da; *Antiquity* eta *Nature* bezalako aldizkarietara helaraziko dute⁵⁹¹.

Artikulu hauekin erabilitako dinamikak argi erakusten du agentziak nola funtzionatzen zuten. Lehenik eta behin, britainiar audientziarentzat interesgarriak diren edo ez erabakitzen da. Hala bada, artikulua gaia eta kontuan, argitalpen egoki bat bilatzen da. Agerkariaren irisgarritasuna eta audientzia aintzat izanik, noski.

Hainbat argitalpen lortu arren, Paristik ez zuten ulertzen zergatik ezin zen Frantzian zuten arrakasta Erresuma Batuan ihakindatu. 1938ko urrian, *Le Temps* egunkariak hilabete hartako 17an Vicente Egia Sagarduyren hileta-elizkizun katolikoaren berri eman zuen. Notiziak Errepublika barnean kultu katolikoaren normalizazioaren seinale argia zen.

Agirrek gogor presionatuko du Lizaso antzeko artikulua bat argitaratzeko prentsa britainiarrean. Halere, Lizasok agentziakoekin hitz egin ostean hurrengo erantzungo dio⁵⁹²:

Me aseguran que era imposible conseguir uno parecido en este país [Le Tempseko argitalpena]. Ellos dicen conocer por experiencia el periodismo francés y los “procedimientos” para lograr estos resultados de propaganda. El periodismo francés es sobornable. De ahí su poco prestigio. Lo más que se podía intentar aquí es la inserción de un artículo parecido o la reproducción íntegra o parcial del mismo en algún diario, semanario o revista de poca importancia. Si fuera la primera vez que esto nos ocurriera, también yo me indignaría como tu te indagabas por teléfono. Pero he de decirte con la franqueza que me caracteriza, que a lo largo de estos dos años de experiencia en la propaganda y colaboración estrecha con esta buena gente me han demostrado que casi siempre tienen razón en sus juicios (...)

Tengo especial interés de que sea el propio Wright, propietario y director de la casa de propaganda quien te explique las dificultades y modalidades especiales de la propaganda editorial en este país.

Artikulu osorik argitaratu ez bazen ere, berriarekiko hainbat aipamen izan ziren, *Manchester Guardian* eta *The Daily Telegraphen*. Gainera, agentziaren lanei eskerrak, *Manchester Guardianen* euskaldun errefuxiatuak Kultu erlijioso eta tolerantzia erlijiosoaren berrezarpenaren alde egindakoa azpimarratzen zuen artikulua bat eta *Church Timesen* Jerrold jauna kritikatzeko aprobetxatzen da *The Basques are against Franco. Since their country was conquered, their priests have been cruelly used by Mr. Jerrold's “Catholic General Gordon. Now, in Barcelona, their dead are given Catholic Burial*⁵⁹³. Aipamen hauez gain, beste ekintza batzuk ere hartu dira. Katolikoak indarra duten eremuetako agerkarietara *Le Tempseko* artikulua laburpen bat bidali dute. Horrez gain, *Euzko-Deyaren* artikulua nagusia gai honen inguruan izango da. Bukatzeko, izaera ezberdineko hainbat gutun prestatu dituzte interesatzen diren ideiak azpimarratzeko. Alde batetik, euskaldunek sinatutako gutunak bidaliko dira eta bestetik *People and Religion Group* izenpean argitaratzen saiatuko dira beste gutun batzuk. *One of the most significant recent happenings* deritzo hileta-elizkizunari, *the end of such unfortunate intolerance (...)* due entirely to persistent agitation by the Basques, whose loyal adherence to the Church is, of course, an accepted fact. Horrez gain, katolikoak ez diren agerkariarentzat ere gutun bat prestatu dute, *What a victory for Christianity it will be if the horrors of the civil war in Spain are brought to an end through the influence of religious faith and tolerance* eta katolikoak direnentzako beste bat⁵⁹⁴:

Recognition of the individual's right to free worship was due to pressure exerted by the Basque Catholics, who even despite the abuse they have suffered have long worked towards this end. (...) The questions remain for Republic Spain, once again, fully accepts the Catholic church will the

⁵⁹¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Report June 1938

⁵⁹² EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/905 Lizasok Agirrerri (1938-10-26)

⁵⁹³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:295/01 Report November 1938

⁵⁹⁴ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01

Catholic press continue to take sides and support Franco, or will it adopt an impartial attitude, the lack of which has disappointed many of us.

Argi ikus daiteke audientzia bakoitzarentzat material ezberdina sortzen zutela. Material ezberdina sortzeaz gain, Britainiar prentsan interesa izan zitzaketen gaiak proposatzen zizkion agentziak Parisi eta Euskal pertsonaia esanguratsuei. Adibidez, 1938ko azaroan Iruxo Londona etortzean Lovellek idatz ditzakeen artikuluei buruzko hamar iradokizun luzatzen dizkio. Guztiak, aurretik aipatutako patroiak jarraitzen dituzte. Iruxo justizia ministro izan zenez, lehenengo lau iradokizunak Euskal eta espainiar sistema judizialarekin dute zer ikusia. Britainiar justiziarekin alderaketak egin ezker *some legal paper would be interested*. Hurrengo biak Euzkadiri buruzko anekdota eta ohiturak deskribatzearen ingurukoak dira, Gabonetako ohiturak eta euskaldun garrantzitsuen biografiak motzak. Euskaldunok mundu mailako arazoak nola ikusten dituzten idazteko iradokitzen du. Espainia eta Txinako gerretan beligerante-eskubideei edota Euskal ikuspuntu batetik mundua baketzeko beharrei buruz. Ikusten denez, Euskal ikuspuntua adierazteko eskatzen badio ere, britainiarren aktualitateko interesak dituzten gaiak proposatzen dira.

Bestalde, Iruxo prentsa munduko editore eta kazetari ezberdinekin harremanetan jartzeko pare bat afari bat antolatuko zizkieten. Helburua ireki berria zen delegaritzaren berri eman eta agente hauek euskal ordezkariekin harremanetan jartzera ohitzea zen. Horretarako atzerri korrespontsal eta, *Catholic Worker* salbu, prentsa katolikoko editoreei guztiei gonbita luzatu zitzairen. Katolikoak euskal kausara hurreratzeko beste saiakera bat ari ziren gauzatzen 1938ko azaroan. Atzerriko korrespontsal ugari etorri baziren ere, ez zen azaldu afarira, *none of the British catholic press showed to the meeting. entirely dominated by Fascist elements*⁵⁹⁵.

Editore eta kazetariei hurreratzeko taktikaren bidez eskuratutako abantailei buruzko kasua izango da aztertuko dugun azkena. Bide honek, euskal ordezkari batekin bildu ostean, editore edo kazetari esanguratsu batek hauen aldeko notizia bat ezartzean datza. Adibide esanguratsua Herbet Sidebotham, *Scrutator*, ezagunak 1938ko azaroan *Sunday Timesen* idatzi zuen artikulua da. Argitalpen honek min handia egin zion nazionalen propagandari eta polemika gogor batek jarraitu zion.

Lizasok *Scrutator* Nelson Levarren bidez ezagutu zuen. Reform Clubean elkartu ziren biak 1938 azaroaren 3an. Lizasok euskal kasua zabal eta luze adierazi zion bitartean, Sidebothamek hainbat kontatu pasa zizkion, *The Observerreko* Garvin editorea, Barrington-Ward *The Timeseko assistant-editorra*, Lord Camrose *The Daily Telegrapheko* jabea.... Elkarrizketaren ostean, eta kontaktuak errazteaz gain, hiru egun beranduago, azaroaren 6an, *Sunday Timesen* Espainian mundu-potentzia nagusiek babestutako bake negoziazio bat izateko konferentzia bat iradokitzen du. Bere ustez, egokiena lau Espainia existitzen direnez, soluzio federal bat izango litzateke, hau da, nazionalistei gehien interesatzen zitzairen aterabidea. Horregatik, hurrengo egunean Lizasok gogotsu eskertuko dio idatzia⁵⁹⁶.

Sidebothamek plazaratutako ideiaaren alde egiteko gutun armategia prest izango du propaganda etxeak. Gutonok ez dira nazionalak idatzitakoaren aurka bakarrik erantzuteko, Errepublikarrek idatziko zituztenak erantzuteko prest izango dira. Rudolf Liebmanek artikulua harira, Ramos Oliveriak Philipmorri egindako erantzuna aztertuko du. Enbaxada espainiarreko prentsa

⁵⁹⁵ *Ibid.* Etorri ziren korrespontsalak nazioka sailkatuta: 1938-11- 30: AEB (6), Latinoamerica (5), Belgika(3), Frantzia (10) y Suitza (4); 1938-12-1 Txina, Txekoslovakia (4) Yugoslavia (1) Lituania (2); 1938-12-2, Dinamarka (3) Estanoia (3) Finlandia (2) Herbeereak (4)

⁵⁹⁶ *Sunday Times* (1938-11-06); EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/02 Lizaso eta Sidebotham korrespondentzia. *Scrutatorrek* azaroan 15ean W.Elliot osasun ministroa aurkeztuko dio.

agregatuak *still misses the point*. Falta den puntu garrantzitsua Iberiar penintsulan herri ezberdinak daudela da hain zuzen ere, eta *the war in Euzkadi has not become a war of invasion only recently, it never was anything else but brutal invasion of a peaceful and mildly democratic community for purely strategic and mercenary interests*⁵⁹⁷.

Gutunen gerraz gain, beste gerla bat eragingo zuen artikulua. Iruxo eta Merry de Valen artekoa. Scrutatorrek idatzitakoa erantzuten ez zuten bi hauek bakarrik parte hartu. Sidebothami erreferentzia egiten zion Lord Philipmore faxistaren gutun bati Philip Hemingwayk kazetariak erantzutean hasiko da polemika. Terrore gorria, terrore zuria bezain gaizki dagoela gogorarazi ostean, Scrutatorrek ondo dioen bezala, euskaldunen artean komunistarik ez dagoela azalduko du Hemingwayk. Gernika eta Durango bezalako sarraskiek aditzera ematen dute, nazionalek ez dutela gurutzada bat egin, arrazoi politikoengandik gerra modernoa baizik⁵⁹⁸.

Hemingway erantzunez sartuko da Merry del Val eztabaida honetan, Gerra aurretik, euskaldunen artean, Eibar, Irun, Donosti edo Pasaian komunistak zeudela esanaz. Txurien sarraskiak, tartean Gernika eta Durangokoak, ukatuta bukatuko du artikulua, baina benetan erantzunaren mamia Iruxo eta Monzoni Guadalupeko heriotzak egotzi eta Euskal Gobernuari ontzi-presondegietan jazotako tortura eta tratu txarren erantzule egiten ditu.

Irukok del Val auzitara eramatea pentsatu arren, azkenean, artikulua luze batekin zehatz erantzungo dio *Sunday Timesen* aurretik Valek esandako *gezurrei*.⁵⁹⁹ Komunistak Euzkadin badaudela onartzen du, Ingalaterran bezala. Erresuma Batuen antzera, Euzkadi demokrazia bat da. Euzkadik errepublikan izandako gatazka gehienak kanpotik etorritako espainiarrak eginak izan direla gogorazten dio. Horrez gain, ez dira euskaldunak, apaizak espetxeraten dituztenak. Zamakola kasua aipatzen du. Are gehiago, Goma da Aita Santua kritikatzeko duena, ez Iruxo.

Gernika eta Durangoko sarraskien ingurukoak erantzuteko Canterburyko deana testigu jarriko du eta behin ia guztia erantzunda, egungo Euzkadiko egoera azalduko du. Implizituki Emandako datuak Euskal Gobernuaren garaiarekin alderatzen ditu. Euskal lurraldeetan 60.000 preso daude guztira. Oruen, 1500 emakume eta 600 Saturraranen⁶⁰⁰. Gainera, egoera oso larrian daude, zelda bakoitzeko zazpi pertsonarekin.

Azkenerrako uzten du Guadaluperen auzia. Txuriek 14.000 fusilatu dituztela esan eta Irukok heriotza horietan parte hartu ez izana gaineratzen du. Karrera diplomatiko kontsularen erreferentziaz gain, Merry del Valen inguruko jende askoren, tartean familiakideen, gutunak ditu gerra humanizatzeko egindako lana eskertuz.

Artikulu hau argitaratzerakoan, Lecherekin batera egin zioten bisita *The Sunday Timeseko* editoreari. Lechek Irukok idatzitakoa egiaztatu zuen. *Al editor le ha impresionado mucho. Tengo la impresión de que hemos logrado, además de colar el artículo cortarle a Merry del Val la posibilidad de repetir la suerte y dejarnos un amigo en aquel periódico*⁶⁰¹.

⁵⁹⁷ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01

⁵⁹⁸ Hurrengo artikulua guztiak kontrakorik ez bada esaten hemen: EL.MI Caja 1 J1(10967)

⁵⁹⁹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones En Londres Se:Lizaso V:150 L:256/02 Irukok Agirrerri (1938-12-06) *Hablamos de mi querrela contra Merry del Val. Llamo a su abogado Señor Stevens [de Azcarate]. Este es gran amigo de los Vascos. Me recordó enseguida a Epalza. Cree que no podrá hacerse nada.*

⁶⁰⁰ Saturrarán eta Oruen gehiago sakontzeko Badiola (2015), 26-44: 1124 preso kontatzen ditu; Jiménez, León *et al.* (2009), Calvo eta Fernandez (2016)

⁶⁰¹ *Ibid.* Irukok Agirrerri (1938-12-07)

Polemika luzatu egingo da. Goma eta Alba ere sartuko dira esandakoak edo esan gabekoak egiazatu eta gezurtatzera, baina artikulua hauekin ikusten dena zera da, Scrutator bezalako komentaria garrantzitsu batek idazterakoan sortzen duen asaldura. Zalaparta horrek aditzera ematen digu zeinen garrantzitsua den azkar erantzutea Polemikak gainera, Britainiar kazetaritza zirkuluetan egiaren garrantzia zenbaterainokoa den erakusten digu. Egia hori, betiere, lekukoek esandakoaren autoritatearen arabera sailkatzen da. Iruxoren kasuan, Leche bezalako diplomatiko bat ondoan izateak lagunduko zion.

10. LIBURU ETA LIBURUXKAK

Eguneroko prentsaren ostean, liburu eta liburuxkak izan ziren Britainia Handian Espainiako gerrari buruzko propaganda zabaltzeko formatu garrantzitsuenetako bat. Zentzu honetan, euskaldunen kasua zabaltzen lagundu zuen George Steerrek idatzitako *The Tree of Guernika: A field study of the modern war* (1938) da adibide adierazgarriena⁶⁰². Gaur egun, oraindik ere, Euskal lurraldeetan Gerra Zibila aztertzeko baliagarria den liburu honek, euskaldunak idealizatu egiten ditu. Kontakizun pertsonal honetan, Euskal Gobernuaren alde lerratu ziren euskaldunak euskaldun bakarrak balira bezala aurkeztu eta Alemaniarrek eta Italiarrek konkistatuak benetako tragedia bat pairatu zutela irudikatuz. Gerra lehendabiziko pertsonan bizi izan zuen britainiar-hegoafrikarra jaiotzez- batek, inongo ageriko erakunderen laguntzarik gabe idatzia. Horixe da bila daitekeen propagandarik onena⁶⁰³.

Halere, liburuak aztertu aurretik, goazen liburuxka edo panfletoetan zentratzera. Hein handi batean, propaganda mota tradizional hau izan baitzen prentsa haratago gehien erabiliko zen kanala. Erresuma Batuan sortutako laguntza komiteak eta partidu politikoek hainbat panfleto argitaratu zituzten. Agintari errepublikarrak, izan enbaxadako prentsa ofizinatik, Parisko ordezkarietatik edota Valentziako propaganda idazkaritza-ordetik, ez ziren atzean geratu eta irla britainiarretara bideratuta argitalpen ugari bidali zituzten. Hainbeste lan eta hain koordinazio gutxirekin argitaratzen ziren harako, ezen Vicente Álvarez-Buylla, Erresuma Batuko Espainiako kontsul orokorra, Jose Giral, orduan Estatu Ministroa, kezu agertzen zaio: Organismo espainiarrek argitaratutako liburu eta liburuxken artean lehia omen zegoen⁶⁰⁴.

Espainia Nazionalari loturiko zerbitzuak ez ziren atzean geratu. Halako askok txosten itxura hartuko zuten, Lehen Mundu Gerran alemanen sarraskiak argitara emateko egin zen *Bryce* txostenean oinarrituz. Adibidez, gerra hasi eta gutxira Errepublikarren *Red Terrora* aditzera emateko komunisten sarraskiak ikertzen zituen panfletoak edota gernikaren inguruan ikusiko dugun *Informe Herran*⁶⁰⁵.

Euskal agintariak ere kanpora begira prestatu zituzten hainbat idatzi. Gehientsuenak Euskal Gobernuaren egitearekin zer ikusia zutenak. Erakundea ezagutaraztea eman nahi zen lehendabizi. Horregatik editatu zen liburuxka batean Errepublikarekin adostutako Euskal Estatutua osorik agertzen zen. Erakundearen izatea zabaltzeaz gain, erakundeak hartutako erabakiak eta gerran zehar balio humanitarioak nola defendatu ziren aditzera emateko hainbat txosten prestatu ziren. Sarraskien inguruko propaganda ere eman zen aditzera. Gernika eta Durangoren bonbardaketen inguruko hainbat argitalpen osatuko zirelarik. Horiez gain, gerra

⁶⁰² George Steerren inguruan, Autore Ugari (2003)

⁶⁰³ Buchanan (2007), 39 *It is now clear that Steer worked assiduously behind the scenes in support of the Basques, in collaboration with the Basque government. While it would be an exaggeration to suggest that Steer choreographed the British response to the Basque crisis, there is no doubt that his private briefings influenced political opinion just as his newspaper dispatches influenced public opinion*

⁶⁰⁴ Garcia, (2009), Vicente Álvarez-Buylla a Giral (1938-1-26)

⁶⁰⁵ *A preliminary...* (1936). *The second and third...* (1937)

baino lehen eta gerran zehar Euzkadiri buruzko informazioa zuten bestelako idatziak ere egin ziren: ekonomikoak, errepresioari buruzkoak, azterketa soziologikoak...⁶⁰⁶

Aipatutako txosten horien gehiengoa txosten formatuan baino, E.M. Wrightek prentsara igortzeko artikulua osatzeko eta, publiko egin beharrean, gerran interesa izan zezaketen kazetari, politiko eta influentzia zuten pertsonaiei banatzeko erabiliko ziren. Halere, txosten formatuetan argitaratu ziren batzuk. Adibide garbiena, Leizaolak osatutako *Report on the Administration of Justice during the Civil War* da. Britainiar iritzia Euskal Gobernuaren eredugarritasunean hezteko jomuga zuen dokumentua 1938ko martxo aldera banatu zen. Idatzia Leizaolak ondu eta Lovellek britainiar audientzien eskakizunetara xehetuko zuelarik⁶⁰⁷. 17 orritan zehar, Euskaldunok justizia nola aplikatu zuten adierazteaz gain, Francoren justiziarekin konparatzen du, £22-d.10 balio izan zituen hura inprimatzeak.

Txosten honez gain, Ingalaterran 1938 urte erdialdetik aurrera hainbat liburuxka argitaratuko ziren. Argitalpen hauek Lizasok aurrera eramanez zituen propaganda kanpainekin zer ikusi handia izango dute.

1938ko maiatz-ekainean argitaratuko da lehendabiziko panfletoa: *The Basque country and European peace. An analysis of German domination in Euzadi*. Tituluak berak adierazten duen bezala, Europar bakearentzat, hau da, Frantziar eta Ingalaterrarentzat Alemaniarrak Euzkadin duten nagusitasunaren arriskuaren analisi bat da. Bi azpiatal nagusitan banatzen da, benetako muina bigarrenean dagoelarik. Euskal historiari buruzko zati batek irekitzen du idatzia eta Alemaniarrak Euzkadin egiten ari diren propagandaz gain irabazi dituzten abantaila ekonomiko eta militarrei buruz dihardu bigarrenak. Parisen idatzia, Londonen Wright agentziak berriatzi zuen.

Kasu honekin, argiki ikusten da Euskal propagandak alemaniarrak gerran irabazitako abantailak nola salatzen dituen. Etorkizunerako Euzkadiren kontrolak Frantziaren seguritateari eragiteaz gain, Britainiarren lotura komertzialak arriskuan jar ditzakeela nabarmentzeko egina. Aspektu ekonomikoei dagokionez, penintsula iparraldeko mineralak, Londonerantz joan beharrean, berrarmatzean zegoen alemaniar ekonomiarantz zihoazen. Dagoeneko bazekiten guzti hau Frantziar eta Ingeles Estatu Nagusiek jakina zutela. Baina ideia hauek indartzeko apropos egindako propaganda da. Seriotasun handiarekin prestatuta. Berehala arrakasta lortu zuen. Uste baino askoz ere handiagoa. Agentziaren hitzetan: *Far more important and widespread reactions than were first anticipated*. National Labour Partyko Harold Nicholshonek liburuxkaren informazio jasotzean *Time and Tiden* aldizkarian galdera bat luzatzen du. Zertara joan direla uste duzue Bilbora mugitu diren 500 familia alemaniarrak? Lidell Hart militar eta liberak ezagunak bere egingo zituen liburuxka honetan agertzen diren ideia nagusiak. Ideiokin eta Wright agentziak pasatako informazioarekin *Britain and Spain* argitaratuz⁶⁰⁸.

Alemaniarrak euskal lurraldeetan eskuratzen ari ziren prebendak salatzean, ingeles audientziari heltzea zuen helburu kanpaina honek. Baita lortu ere. Orokorrean, prentsan aldaketa sakon bat nabari daiteke. Francoren aldeko egunkariak ere ideioi jaso ez ezik, alemaniar ezarpena kritikatu baitute. Adibidez, *The Daily Telegraph*ek aurretik argitaratzen ez zituen gutunak

⁶⁰⁶ Sebastian (2012)

⁶⁰⁷ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:297/05 Lovell (1938-02-15)

⁶⁰⁸ EAH.SA.S:Delegación de Londres L:9/915 Lizasok Agirrerri (1938-05-16). Mr Stevens abokatuarekin izandako elkarrizketan ateratako informazioa. *Estado Mayo muy preocupado sobre la intervención alemana en Euzkadi*; *Ibid.* L:9/903 Lizasok Basalduari (1938-09-21) Frantziako Estatu Nagusiak Ebro arte militarki euzkadiz jabetzeko planak pentsatu omen ditu; *Ibid.* L:9/916 Lizasok Iralaro (1938-05-25) *Folleto de la intervención alemana en Euzkadi será "Algo serio"* Hart (1938)

argitaratzen zituen orain. Era berean, *Daily Express* isolazionistak alemaniarren aurkako kanpaina bat hasiko du gerra bukatzean, zehazki Lizaso Lord Beaverbrocken idazkaria partikularra zen George Thompsonekin bildu ostean⁶⁰⁹.

Erresuma batuan ez ezik, Estatu Batuetan ere interes handia altxatu zuen eta *Ante gran éxito folleto intervención estimo necesario hacer un segunda edición*⁶¹⁰. Ez dakigu bigarren edizio hau egin zen hala ez, baina badakigu 5.000 aledun lehen edizio honek £82-10-3 balio izan zituela⁶¹¹. *Autonomous Government of Euzkadi* izenpean argitaratu zen. Argitalpen honen ondorioz Lizaso espainiar enbaxadatik joan egingo zen.

Lehen liburuxka honen arrakastak animatuta bestelako argitalpenak egitea pentsatu zuten. Kasu hauetan, *German Dominationen* erabilitako Euskal Gobernuaren auto-edizio formatua erabili beharrean, Euzko-Deya Ltd. enpresaren bidez argitaratuko dituzte liburuxkok. Hurrengo 1938ko urrian etorriko da: *Basque Children under Rebel Control. Franco's System of Education in Euzkadi*. Autore gabe agertzen bada ere Lizasok idaztitako testua da. Idatziaren jomuga britainiar iritziari Euskal umeak nazionalen esku dauden eremura zergatik joan behar ez diren gogoraraztea da. Francoren edukazio sistemari egiten zaio kritika. Euskaldunon izaera galarazteaz gain, balore autoritario eta antidemokratikoetan hezten omen dira umeak. Justifikazio gisa, nazionalen prentsako berriak eta panfleto ezberdinak aipatzen ditu. Guztira 3.000 bat ale inprimituko dira, eta 2.810 banatu ostean, geratzen direnak NJC oparituko zaizkio. £2-10 salduz, geratzen diren 2.000 ume ingururen mantenturako dirua eskuratzeko.

Azaroan, Galeuzka erakundearen izenean *The True basis of Peace in Spain* argitaratzen da. 4 orriko liburuxka honetan, ideia nagusia bat azpimarratu nahi da: Autonomien desira konpondu ezean, ez da bakerik izango Espainian. Espainia lau herrialde eta arrazaz osaturik zegoela argudiatuta, Gaztelarrak ez diren eta autonomia nahi dutenek herrialdearen %38 osatzen dutela dio. Argumentua indartzeko, errepublikan zehar Euskadi, Galizia eta Kataluniako autonomia plebizituen datuak eta Iberiar penintsulako kolorezko mapa eder eta handi bat, non hiru herrialdeak agertzen diren, erakusten da. Ondorioz, herrialdearen zati handi baten desirak errespetatu ezean, bakea ez da posible izango: *unless justice is done to the fundamental right of the different nationalist*. Esku orria argitaratu ostean badirudi abendurako maila internazionalen entzute handiko abokatu batek Euskal estatutuaren analisi bat presatzen ari zirela. Ez dakigu argitaratu zen.

Gerra Zibilean zehar argitaratutako azken liburuxka, *The Basques and The Communists* da. 1939ko otsail-martxo aldera Matxin de Ondartzape izengoitia erabiliz argitaratu zuen euskal apaiz batek. Britainiar katolikoek nazionalen aurka osatutako diskurtsua eraisteko idatzia. Nazionalen kristau printzipioen aurka armak hartu izana egotzi izan diote EAJri. Ideia hauei seriotasuna emateko 1938 bukaera aldera Valladolideko Unibertsitateko osatutako komite batek, Manuel Ferrandis, unibertsitate dekanoa, Ricardo Magdalene, erakundeko agirizaina eta Francisco Anton irakasleak txosten batean Euskal lurraldeetako herri guztiak bisitatuta ostean Euskal Gobernu anti-patriotikoa izateaz gain, ez katolikoa ezta humanitarioa ez zela zehazten zuten⁶¹². Txosten honi erantzuteko argitaratzen da eta gehienbat pertsonaia katolikoei bidaliko zaie liburuxka. Ondartzapek hiru galdera egiten ditu Euskal nazionalismoaren inguruan:

⁶⁰⁹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:75 L:297/03; *Daily Express* (1939-06-07) Osteentzat mesa ematearen *90 basque priest concentration camp near vitoria since fall of Bilbao*; *50.000 Basque still in jail*.

⁶¹⁰ EAH.SA.S:Delegación de Londres L:9/902 Lizasok Agirre (1938-09-01)

⁶¹¹ EAH.EG.OD.S:Contabilidad. Se:Cuentas. L:642/05 1938ko uztaileko gastua

⁶¹² *Informe sobre...* (1938); *Catholic Herald* (1938-12-16) *Catholic Herald*eko *Merry del Valen hitz hauek erantzuten badiuzte ere ez dira argitaratuko*.

- Elkarlanean aritu al dira Komunismoarekin?
- Kooperatu al dute komunistekin?
- Hartu duten jarrera egokia izan da edo beste jarrera bat hartu beharko lukete?

Lehendabizikoari ezezko borobil batekin erantzuten dio. Aita Santuak kondenatu duen bezala, euskaldunak ere ez dute partekatzen komunismoaren ideologia. Aldiz, komunistekin batera aritu direla aitortzen du. Nazionalen aurka, autodefentsa printzipioa aldarrikatuz eta erailak ez izateko lankidetzan jardun dute. Beraz kooperatu bai, baina, Amalurra ez galtzeko eta demokratikoki ezarritako gobernu bat defendatzeko emandako elkarlana da. Kooperatu baino gehiago, bide berdina hartu dutela esan daiteke. Azken galderari erantzunez, bi aspektu hartzen ditu kontuan erlijioso eta politikoa. Erlijiosoari dagokionez, egia da ezin izango luketela Komunistekin bat egin, baina Franco faxista bilakatuko den susmoa dute. Hortaz, beraiekin ere ez lukete bat egiterik. Hortaz, euskaldunok erabaki gogorra hartu behar izan dutela ondorioztatzen du Ondartzapek eta *martyred nation* dira euskaldunak horregatik. Gorriek beraien sinesmenei erasotzen dieten bitartean, faxistek Euskal berezitasunari erasotzen baitiete.

Ikus daitekenez Euskal Gobernuak hauspotuta laupabost liburuxka argitaratzen dira Londonen. Gerra bukatu ostean, ere jarraituko dute argitalpenek. Adibidez Frankismoaren prentsa artikuluak erabiliz 1939ko maiatzean osatutako *Whither: The new Spain*. Argitaratutako liburuxken gehiengoa ez da salmentara bideratzen, politiko eta kazetarientzat izan ohi zen. Beraz, Euskal Gobernuak bere gain hartzen du produkzio guztiaren kostua. Argitalpenak testuinguru berezietan egiten dira, momentua kontuan izanik jomuga zehatz batekin eginak dira. Alemaniarren nagusitasunari buruzkoa, Alemania Britainia Handia eta Frantziaren interes geopolitikoaren erdian dagoenean egin zen esaterako. Aldiz, katoliko eta komunismoaz diharduena katolikoaren iritzia baldintzatzeko nazionalen kanpaina indargabetzeko egina egongo da⁶¹³.

Liburuak

Liburuaren formatuak liburuxken antzeko logikak jarraitzen ditu. Halere, sakonagoak eta luzeagoak izan ohi dira. Aldarri zuzen eta zehatzek, argumentu luze eta ñabardura handiagokoei bide ematen diete. Espainiako Gerra Zibilak eztanda egitean Erresuma Batuan eragin zuen zirrarak, liburuaren merkatuan sekulako *best-sellerrak* izatera eraman zuen. Gerra hasi eta berehala ikus ditzakegu lehendabiziko adibideak. Errepublikaren alde egingo duen lehen autoreetako bat John Landon-Davies dugu. *New Chronicle* liberaleko langilea Espainian hiru aste egon ostean azarorako argitaratuko du *Behind de Spanish Barricades*. Espainiako gerra demokratikoki hautatutako gobernu baten aurka dela zehaztuta Gobernu Britaniarraren ez interbentzioa eta Alemaniar eta Italiarren etorrera sutsuki kritikatzeko ditu. Nazionalen alde Allison Peers Liverpooleko Unibertsitateko hispanistak idatziko du, *The Spanish Tragedy*. Irailerako bukatua, Primo de Riveraren diktaduratik Gerra Zibil arteko garaia artekoa aztertzen duen lan honetan Gerra Zibilaren zergatiak aztertzen ulertzen saiatzen da. *Inpartzialki* eginagatik ere altxamenduaren ardura Manuel Azañari egotzen zaiola dirudi eta gainera 1934ko urrian dagoeneko altxamendu bat egon zela nabarmentzen du⁶¹⁴.

Hasierako liburu hauek sekulako arrakasta komertziala izango dute, eta gatazkan zehar sortuko diren hainbat liburu 200.000 aletik gora saltzera helduko dira. Arrakasta komertzialaren atzetik etorriko ziren hainbat idazle izango badiren arren, orokorrean, argitaratuko diren lanek

⁶¹³ Aizpurua (2009), 14-5 Londresen argitaratutako esku-orri baten berri ematen du. *Euzkadi Military Importance*. Ez dugu ezer aurkitu horren inguruan.

⁶¹⁴ Landon-Davies (1936); Peers (1936)

alderdikeria handia erakutsiko dute. Autoreak argiki ideologizatutako idazleak direlarik. Espainiako bandoen arteko gerra, Britainia Handiko editorialek beraiek imitatu egingo dutela dirudi. Hortaz, nazionalen *Spanish Press Service* eta Errepublikarren *United Editorialek* izan zezaketen norgehiagoka logikoa beste argitaletxe batzuen artean ere eman zen. 1937ko irailean *The Battle of the Books* bat nabari dela ematen da aditzera. Penguin editorialak hasitako serie merkeak, hau da liburuak 6d. besterik ez, orokortzen ari zela nabaritzen du⁶¹⁵. Bataila editoriala ez ezik ideologikoa bilakatu zen. Eskubi eta ezkeraren artekoa hain zuzen ere, eta 1930. hamarkadaren bigarren erdian orokortua. Logikoa denez, Espainiako Gerra Zibilak zer esan handia izan zuen.

Kontserbadoreen aldetik, *Right Book Club* dugu harpide gehien zituen liburu saltzailea. Gero hitz egingo dugun *Left Club Booken* aurka egiteko 1937ko otsailean Foyle aita-alabek sortua, 1937ko apirilera 10.000 harpide ziren eta urte bukaerarako 25.000. Victor Gollancz klubak ez bezala, ez zuen editorialik eta jarraian ikusiko ditugun editorialen liburuak erabiliko zituen. Espainiako Gerra Zibilari dagokionez, *Constablek* argitaratutako Douglas Jerrolden autobiografia *Georgian Adventure* eta Jerrolden beraren argitaletxeak *Eyre & Spottiswoodek* argitaratutako Harold Cardozoren *The March of Nations* izango dira lehenak 1937 bukaeran⁶¹⁶. 1938an *Longmansek* Arnold Wilsonen *Thoughts and Talks* eta *The Catholic Truth Society*ren William Foss eta Cecil Gerahtyren *The Spanish Arenak* jarraituko diote. Bukatzeko, 1939an *Stanhope Press* Arnold Lunnen *Revolutionary socialism* argitaratuko dute.

Right Book Clubek Arthur Bryantek sortutako *National Book Association* izango du lehiakide nagusi eskubian. Baldwinnek lehendakari eta William Hutchsinon *Hutchsinon & Co.k* babestutako ekintzak honek ez du arrakastarik izango. Ez baita inoiz 5.000 harpidetik pasako. Bryanten proiektuak kontserbadoreetatik distantzia txiki bat hartu eta moderaziora bideratuko du hasiera batean, apolitiko bezala salduz. Halere, moderazioaren atzean, goranahi pertsonala ezkututzen zela diote autore gehienek. Era berean, eskubi ezta ezker izatearen jarrera apolitikoak ez omen zion mesederik egin marketin aldetik. Polarizazio garaia omen⁶¹⁷.

Ikus daitezkeenez, nazionalen aldeko ikuskera duten liburuak argitaratuko dituzten editorialak hurrengo hauek izango dira: *Eyre & Spottiswoode*, *Hutchsinon & Co.* edota *Burns Oates & Walshbourne* eta *Catholic Truth Society* katolikoak. Jerrolden editorialak nazionalen Errepublikarren sarraskiak salatzeke egindako txostenak argitaratu zituen, baita Gernikako bonbardaketa nazionalen egin zutela gezurtatzen zuen, *informe Herran*. Txosten ofizial guzti hauez gain, gerra bukatzeaz zela, 1939an Allison Peerssek eliza zuritzeko egiten duen saiakera ere argitaratuko du⁶¹⁸.

Jerrolden argitaletxea Burgoseko gobernuaren txosten ofizialen bozeramaile izan bazen, *Catholic Truth Society* Goma artzapezpikuaren dokumentu eta liburuxken argitaletxea bilakatuko zen. Elizari loturiko beste lan batzuk ere editatu zituen gainera. Adibidez, elizaren ondasunen ingurukoak⁶¹⁹. Halere, ez zuen beste editorial katoliko batek bezain besteko tirada izango. *Burns Oates & Walshbournek* 1937an zehar Espainiako iraultzak gorriak sortu zuen kaosa azpimarratzen zuten lanak argitaratu zituen gehienbat, baita Allison Peersen lanen bat ere:

⁶¹⁵ *The Times* (1937-09-28) (1937-10-01) Kexu agertzen da gutun batean Hugh Walpole liburuak oso merke saltzen dituztelako; *Catholic Herald* (1938-07-01) *Right Book Clubek* xumea izan arren notizia bulletin bat atera duela iragartzen du. Pixkanaka *Left Clubekoekin* "beraiek" hasten ari direla ziurtatzen du.

⁶¹⁶ Rodgers (2003). Klubaren selekzio komitea hurrengo hau zen: Christina Foyler, Derek Walker-Smith, Norman Thwaites M. C., Trevor Blakemore eta Anthony Ludovici.

⁶¹⁷ Dietz (2018), 108-110; Soffer (2008), 159-162; Berthezène (2004), 233-236

⁶¹⁸ *A Preliminary ...* (1936). *The Second and ...* (1937) *Guernica. The Official...* (1938). Peers (1939)

⁶¹⁹ *The War in...*(1938); Parker (1937); Feeney. (1937)

*The Church in Spain*⁶²⁰. Peersen *Our debt to Spain* ere argitaratuko du. Erljio katolikoaren historiari begiratzan duen lan honetan, Espainiak historian zehar ezarri duen ordena zibilizatorioa aztertzeaz gain, Franco Salazarrek Portugalen egin bezala Ordena Kristau berria ezarriko duela iradokitzen du. Argialetxe honek Merry del Val markesak gerra bukatu ostean euskal nazionalismoari egindako eraso *Spanish Basque and separatism* ezagutaraziko du. Liburu hau Ondartzapek argitaraturikoari eta Iruixorekin izandako polemikaren harira pentsatutakoa da; euskaldunen aurkako kontrapropaganda argia. *The Basque Country and European peace* liburuxkarekin ere oso erasokor azaltzen da. Hala ere, Lizasok ondo pentsatu ostean, erantzutea ez zuela merezi erabakiko du⁶²¹. Merry del Vali *Catholic Truth Society* argitaratuko dio beste lan bat. Kasu honetan Komunisten aurkako panfleto bat. *Constable & Co.* argialetxeak ere aristokrata honen beste lan bat emango du aditzera, *Spain: six of one half-a-dozen of the other*. Ez da izango nazionalen alde argitaratuko den lan bakarra, eta Antonio Ruiz Vilaplanaaren liburuaren itzulpena *Burgo's justice* argitaratuko du besteak beste⁶²².

Altxatuen aldeko aipatuko dugun azken argialetxe garrantzitsua *Hutchinson & Co.* da. Gerran hasieran, Hubert Knickerbockerrek Toledoko alkazarrari buruzko liburua argitaratzeaz gain, agian Gerra Zibilean zehar Britainiar iritziaren gainean influentzia handiena, gutxienez gehien salduenetakoa, izan zuen Atholleko Dukesak idatzitako *Searchlight on Spain* liburuari erantzuteko idatzitako *Daylight on Spain* ere argitaratu zuen argialetxeak⁶²³.

Atholl, NJCko presidentea, Espainian egona zen 1937ko apirilean. Madril eta Valentzia bisitatu zituen Ellen Wilkinson eta Rachel Crowdy emakumeekin batera. Argitaratu zuen liburua propaganda frankista Gernikaren eta altxamenduaren inguruko justifikazioen gezurrak agerian usteko idatzia izan zen. Errepublikak ezarri zenetik aurrera 1938 arte gerran izandako ekintzak aztertuz, Errepublikak eskaintzen zuen modernizazio eta demokratizazioaren aurkako altxamendu bat zela argudiatzen du. Euskaldunen inguruko aipamen ugari izango dira azterketan zehar: Irun, Gernika, Durango, Euskal umeen ebakuazio eta Santoñari buruz ere dihardu. Ingalaterran bakarrik 300.000 aletik gora salduko ditu. Lehen hiru-hilabetean hiru edizio izango ditu jada, 100.000 kopiako tiradarekin azkena. Frantsesera ere itzuliko da.

Atholli, troskismoaren mundutik ere erasotu zitzaion. *Revolutionary Socialist Party*ko *The Socialist* hilabetekariaren editoreak, Frank Maitlandek, idatziko du *Searchlight on the Duchess of Atholl*. Halere, guri *Daylight on Spain* sakontzea interesatzen zaigu. Horrenbesteko arrakasta izan zuen Athollen liburuak, ezen Sarolearen liburua zabaltzeko Hutchinsononen sei peniko serie merkean inprimatu zuten⁶²⁴. Charles Sarolea Edinburgheko Unibertsitateko Frantzes irakaslea zen, *Friends of National Spain*eko partaidea⁶²⁵. Saroleak idatzitako hamaika gutunetan oinarritzen da liburua. Arrazoiketaren orde z laidoztaketa erabiltzen du gehiago Athollen aurka egiteko: *Duchess is an instrument of world-wide conspiracy. Directed from Moscow*. Atarikoan bertan Comte de Saint Aulairrek Athollen jarrera aristokrazia orokorrean pairatzen ari den *snobismo* fenomeno baten ondorioa dela dio: *Consisting in the flattering*

⁶²⁰ Bardoux (1937); Berryer (1937); Fuller (1937); Peers (1937b) (1938)

⁶²¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:297/05 1939-05 11 nota. Merry del Val (1939), which attacked the Basque pamphlet *The Basque Country and European Peace*, Mr.Lizaso decided that it was not worth the while to answer this attack.

⁶²² Ruiz Vilaplana (1938); Sarolea (1938)

⁶²³ Knickerbocker, (1936) Knickerbocker 1937ko apirilean Bizkaiko kanpaina bete-betean deportatu egingo dute. 1937ko *Washington Timesen* (1937-05-10) Gonzalo de Aguilera zentsorearen aurka egingo du eta euskal nazionalistak gauzatzen ari diren jazarpena salatzearekin batera, etorkizunean gizarte antisemita eta antidemokratiko bat sortzen ari dela ere badio.

⁶²⁴ Bowd (2011), 195-216: Alpert (1984), 436 dio dohainik banatu behar izan zutela Sarolearen liburua

⁶²⁵ Maitland (1938)

illusion that one is embracing new truths though in reality they are but old errors. Saroleak, Lord Philipmorren iradokizunez, Comte de Saint Aulairri eskatuko dio bere erantzunari sarrera bat atontzeko. Azken honi, liburuak duen propaganda arriskuaz ohartarazi eta liburuak zirkulazio luzea izango duela hitzeman ondoren luzatuko dio atariko idazteko gonbita:

That book is all the more mischievous and dangerous because instead of being published as usual price of 10/6, she had published it in Bolshevik series at the price of 6d (extra Penguin series price 6s) which is being circulated in hundreds of thousands of copies (...) As my book will appear in several languages in English together with an American edition, in Spanish, in German, in Italian and in French, it occurred to me that it would be extremely good pro-Franco propaganda if my book appeared with a substantial introduction by yourself. It would be all the more advisable because our two books will be largely complementary.

Athollen liburua gezurrez beteta zegoela uste zuten benetan Saroleak. Argitaratzean, 1938ko abenduan Albako dukeak:

congratulate you very heartfelt on your excellent book "Dailight on Spain" and at the time to tender you my best thanks for the solid help you have given to our cause with this work. (...) Its issue in much a cheap form should go dare to neutralize the damage done by the Duchess of Atholl's effusion, though I fear is always more difficult catch up with a lie than to start one.

Wellingtonek ere antzeko ideia bat botatzen dio Saroleari: *because truth stands out in the open (...) national Spain has nothing to hide.* Hutchinsons & Co. langile batekin, R.W. Goodwin, izandako korrespondentziak liburuaren egitean Ingalaterran Nazionalen propagandan parte hartu zutenen gehiengoak zuzenketak egin zituztela ikus daiteke: *further corrections from various experts in Spanish Affairs- The Marquis del Moral, Mr. Arnold Lunn, Lady Maxwell Scott and General Maxwell Scott and Lord Philipmore*⁶²⁶. Guztiak erabat inpartzial eta Gerra Zibilean adituak, noski...

Liburuak Bigarren Errepublika biolentziazko kaos bat zela esanaz justifikatzen du altxamendua. Horrez gain, Britainiar interesen aurkako altxamendua ez dela ere argudiatzean zentratzen da idatzia. Nazionalak Alemania eta Italiarekin aliatu beharra izan bazuen ere, irabazi politikoak eskuratuko zituztenaren ustea ez omen zen egia. Ideiok zabaldu izanaren errua, propaganda frankistaren eraginkortasun ezari egozten dio. Horregatik omen zoazen Errepublikarrak narratibaren gerra irabazten. Arrazoi hau benetan sinisten zuten eta horrexegatik Albako dukearekin oso kritikoa agertzen da⁶²⁷. Saroleak prestatutako erantzuna kontrapropaganda nazionalaren nolakotasunaren erakusle dugu. Bi propagandista famatuk idazteaz gain, idazketa prozesuan hainbat propagandistak hartzen duten parte.

Pertsonaia ezagunek beste liburuen sarrerak idaztea ez da nazionalak bakarrik egingo duten gauza. Athollek ere antzeko hainbat idatzi idatziko ditu. Arthur Koestlerren *Spanish Testament* da horietako bat. 1938 hasieran argitaratutako liburuaren egilea zen Koestler komunista zen. Otto Katzen bidez 1936ko abuztuan izan zen lehendabizikoz nazionalen lurraldean. Han eskuratutako dokumentuak *Committee of Enquiry into Breaches of International Law Relating to Intervention in Spain* egindako txostena osatzeko erabiliko ziren. Katzek berriro bidali zuten espainiarra eta orduan atxilotu zuten Luis Bolinek Malagan. Prentsan kanpaina handi batean ostean, heriotza zigorrak salbatu eta 1937ko maiatzaren 14an askatuko zuten. *Spanish Testament* Victor Gollancz Ltd. argitaratutako zuen. Gollancz Ingalaterrako ezkertiar argitaratzaile eta liburu saltzaile nagusia zen. 1936an *Left Book* klubaren sortzaile. Bazkideek bakarrik erosi zezaketen

⁶²⁶ Edinburgh University Library. Charles Sarolea funtsak. Coll-15/86 Saroleak Count'Alairri (1938-07-28) Albak Saroleari (1938-12-15) Wellingtonek Saroleari (F.G.) (Saroleak Goodwini 1938-10-28)

⁶²⁷ *Ibid.* Saroleak Count'Alairri (1938-07-28) *the anti-Franco propaganda in Great Britain is terrifyingly active and effective, whereas the pro-Franco propaganda is lamentably insufficient (...) The duke of Alba is the Diplomatic agent of the Franco Government. He is popular in society but he does not suffer from superfluity of brain, and he is no match for the Jewish protagonists*

titulu bat ateratzen zen hilabetero eta sekulako arrakasta izan zuen egitasmoak. 40.000 harpidedun zituen lehen urtea amaitzerako eta Gerra Zibil garaian 65.000 bat. Gehiengoa komunista. Hilabetero aterako zen liburua jabeak berak, Harold Laski eta John Stracheyek osatutako batzorde batek aukeratzen zuten. Canterburyko deanaren delegaritzaren txostena argitaratzeaz ere arduratuko da Gollancz Ltd. Horiez gain, katolizismoaren inguruko argitalpenak, Errepublika eta Gerra Zibilean zehar ematen diren gertakizunak eta gesta heroikoak ere argiratu ditu. Otto Katzek, Simon izenpean argitaratu zuen *The Nazi Conspiracy* nabarmendu behar da. Dokumentu “ofizialen” bidez, alemaniarren parte hartzea nabarmentzen duen liburua da. 1938ko abendurako Gollanczek Londoneko Unibertsitateko irakasle zen Harold Greavesek argitaratutako *Truth about Spain*-en euskaldunekiko sinpatia handiak erakusten ditu liburu honetan 67. orritik aurrera. Azaltzen den informazioa Wright agentziak pasatakoa da. Ez dute liburuaren argitalpenaren aldarrikatuko, baina halako laguntzak zer esan handia izango dute Ingalaterran argitaratuko diren liburu eta panfletoetan. Horrez gain, Euzko gudarostean aritu zen Irlandarraren, Sullivan Predrgast, argitaratzen saiatu ziren. Zoritxarrez, ezezkoa jaso zuten. Badirudi, ordurako *insider* istorioen momentua pasata zegoela⁶²⁸.

Penguinek argitaratu zuen Athollen liburua. Beste argitaletxe batek, *Hodder and Soughtonek*, argitaratu zituen Euskal Gobernuaren irudi ona proiektatzen zituzten liburuak. Besteak beste, goian aipatu den George Steerren lana. Steer eta Atholli ahal zuen neurrian lagundu zion euskal delegaritzak. Eskatutako informazioa ematen adibidez. Wright agentziak prentsan ateratzen ziren erresenak zabaltzen eta erantzungo zituzten. *Searchlight on Spainen* kasuan hala diote Wrighteko langileak: *Our only work to help to the press to pay attention. United Editorial* errepublikarrak editatutako lan batzuetan ere, antzeko jokaera izango dute. Henry Brintonen *Christianity in Spain* adibidez. Azken liburuak honek, *has made justice to the religious nature of Basques*⁶²⁹.

Beste aparatu eta pertsonen egindako lanak laguntzeaz gain, Euskal Gobernuak ere bazuen bere aparatu propioa. Errefuxiatutako talde bati liburuak idazteagatik ordaindu, edo behin idatzirik zutela erosi egiten zizkion interesgarriak izan zitezkeen liburuak⁶³⁰. Asmoa gutxienez hilabetean behin liburu bat argitaratzea zen. Guztiak ez ziren argitaratu, baina horietako batzuek editatzerakoan benetako arrakasta komertziala eskuratu zuten Frantzian 1937 erdialdetik aurrera, nahiz eta erregulariki 1938ko otsail-martxoan hasi ziren hilabetero liburu bana argitaratzen. Liburuaren gehiengoa H.G. Peyre argitaletxeak argitaratuak izan ziren. Argitaletxe honen eskubideak Frantziara eta lehen edizio bat ateratzera besterik ez ziren mugatzen⁶³¹. Leizaolak Lizasori honi buruz hitz egiterakoan, liburu programa ona dutela jakinarazten dio 1938 hasieran, baina Ingelesera itzultzeko beharraz ohartarazten dio⁶³². Liburuaren salmentaren inguruko gestioak Ramon Sotak eramango ditu. Liburuaren nondik norakoetan sartu aurretik baina interesgarria da ideia bat azpimarratzea. Egiten diren liburuaren ingeleserako itzulpenak,

⁶²⁸ Koestler (2011), 782-95; 817-23; 853-5; 871; Koestler, (1937); Report of a recent... (1937); Cox (1937); Loewestein (1937) Stewart, (1938) Simon (1937); EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Sulivani buruz Report march & december 1938;

⁶²⁹ *Ibid.* Report July 1938

⁶³⁰ Aizpurua (2009)

⁶³¹ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/ 916_Iralak Sota MacMahoni (1938-05-23) *A las casas editoras francesas solo les corresponden los derechos en Francia y de la PRIMERA EDICION. Trata de que se edite sin COSTES y si no es posible ver en qué condiciones. En US ya han hecho gestione para ver si publican en inglés; Le clerge Basque...* (1938); Montserrat (1937); Abergoeyn (1937) Eguizale (1938)

⁶³² EAH.SA.Si:90 L:11/1052 Leizaolak Lizasori (1938-01-07) *De asunto libros tenemos un programa bastante bueno. Tenemos unos cuantos en prepacion. Te tendre al tanto de esto. Habra que hacer algunas traduccions al ingles.*

maila handiko itzultzaile britainiar batek egiten dituen, Stanley Richardson -espainiar enbaxadako itzultzailea- eta britainiar ingelesaren unibertsaltasuna zela eta, Estatu Batuak eta Irlandarako ere balio duen hizkeran daude eginak. Beraz, baliteke Irlandan eta EEUtan hasiera batean irla britainiarerako prestatutako itzulpenen bat erabiltzea⁶³³. Paristik nahiko urgentzia erakutsi zuten idazten ari ziren liburuak itzuli eta ahalik eta azkarren argitaratzeko. Helburu horrekin 1937ko urrirako dagoeneko bidali dizkio Tarragoren eta Zumetaren bi liburu Iralak Lizarori⁶³⁴.

Argitaratu zen lehen lana Alfredo Mendizabalen *The martyrdom of Spain: origins of a civil war* liburua izan zen. Geoffrey Blesen *The Centenary press*-ek argitaratu zuen. Bles C. Lewisen idazle ezagunaren eta Luigi Sturzoren *Church and State* (1939) argitaratzailea zen, baita Jacques Maritainen lan askorena ere⁶³⁵. Azken honen sarrera izateak lagunduko zuen bere argitalpenean ziur. Ez dakigu Wrightek inongo paperik hartu zuen lanaren argitalpenean, baina badakigu propaganda agentziak ahalik eta *review* onenak lortzean zentratu zela. Atentzioa Mauritainen hitzaurrea azpimarratzean jarri zuten. Hainbeste ezen sarrera esku-orri bezala editatzea pentsatu zen. Mendizabalen liburuarekin gertatzen ez zen bezala, Montserrat izengoitiarekin Victor Tarragok idatzitako liburua Lovellek ez zuen egoki ikusten Erresuma Batuko audientziarentzako. Iritzian gehiegi zentratzen omen zen gertaera faktiko nahikoa adierazi gabe⁶³⁶.

Sota 1938 apiril-maiatzean hasi zen liburuak argitaratzeko lanetan. Ezeren aurretik, Wrightek kontaktatu zuen literatura agente batekin egin zuen kontsulta. Hark ezan zion ez zegoela Espainiako Gerran Erljioaren jorratzen zuen liburuetan interesik. Hortaz, komertzialki bideraezinak izango zirela. Kostuak kostu, Lizasok uste zuen beharrezkoak zirela iritzi katolikoa bereganatzeko; horregatik, Parisi esfortzu ekonomiko bat eskatzen zion. Lizasoren interesa Agirrek ere partekatzen zuen. Haren ustez, Aita Santua faxismoaren aurrean gero eta oldarkorrago agertzen ari zenez, Ingeles katolikoei ez zitzairen elizako buruaren lorratza jarraitzea besterik geratuko eta euskaldunok defendatzen zuten demokraziaren alde egin beharko zuten laster. Hau gertatu arte hor egongo zen itxaroten Euskal Gobernuak hauen laguntza jasotzeko zain⁶³⁷.

Idea honekin buruan, 1938ko maiatzean hasi zen Richardson Iñaki Azpiazuren lana itzultzen. Gainera, jokabide berri bat pentsatu zuten Wright agentzia eta Sotak. *Catholic Herald*en Mendizabalen liburua aitzaki euskaldunen aldeko gutun bat sartu zuen agentziak. Gutunaren aurka zerbait idatzi zuten guztiek Azpiazuren lana, Iñaki Abergoyen izengoitiaz idatzitako *Sept*

⁶³³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01 Iralak Lizarori (1938-05-30) *Aun cuando no dispongamos de todos ellos en Inglaterra, nos conviene las traducciones para hacerlo en los estados Unidos, donde probablemente encontraremos facilidades para la edicion sin que nos cueste a nosotros nada*

⁶³⁴ *Ibid.* Iralak Lizarori (1937-10-17) *Tarrago, Zumetaren bi liburu itzultzek bidali. Gren urgencia porque queremos publicarlo rápidamente en esta lengua, con el fin de difundirlo por Inglaterra y los Estados Unidos.*

⁶³⁵ *Ibid.* Iralak Lizarori. (1938-03-30). Lizasok aipatu zuen Sturzorekin hitz egin ostean, Tarragoren liburua argitaratzeko etxe bat interesatuta zegoela. Baliteke Bles izatea. Ez dirudi etxe honek argitaratu zuenik

⁶³⁶ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:50 L:293/02 Itzulpen bat artxiboan; (copia de Montserrat); Lovellen iritzia Report december 1937

⁶³⁷ EAH.SA.Se:Delegación de Londres Legajo:9/915 Lizasok Agirreti (1938-05-16) *Sobre LibroS:Comercialmente, la edición inglesa tiene forzosamente que ser un fracaso y habrá que cargar los gastos de publicación al capítulo general de gastos de propaganda; Ibid. L:9/917 Lizaso a Irala (30-05-1938) el problema de la guerra de España y los libros que tratan de ella ya no tienen mercado y menos en este País tratándose de temas religiosos. Ibid.L:9/916 Lizasok Iralari (1938-05-16) Comercialmente no interesan los libros a ninguna casa inglesa, habría que hacerlo con una partida extraordinaria. ¿Hay presupuesto? Yo creo que sería eficaz en los medios católicos especialmente después de lo que ha pasado en Roma; Ibid. L. 9/914 Agirrek Lizarori (1938-05-23) Interesan libros para entrar en el campo católico Para explotar actitud papa ante fascismo (...) tendrán que abandonar a los fascismos y se encontrarán en la necesidad de la democracia y orden que preconizamos*

mois et sept jours dans l'Espagne de Franco jaso zuten. Horrez gain, britainiar katolikoek euskaldunen liburuen berri izateko *The Monthera* beraien erreseina egiteko bidali ziren frantsesko bertsiok. Bat bera ere ez da aztertuko jesuiten agerkarian⁶³⁸.

Maiatzerako Londonen *Le drame d'un peuple incompris* eta *Un cardinal Espagnol y los Católicos Vascos*, besterik ez zituzten itzuliak. Gainera, lehendabizikoa Bilbon ez omen zuten ondo itzuli eta 1938ko irailean berriro itzuli beharko du itzultzaileak. £16 jasoko ditu horren ordainetan. 1937ko azaroan antzeko kopuruagatik itzuli zuen *Un Cardinal español y los católicos vascos*, £15 eta urte bete beranduago kopuru berdinean ingelestuko du Azpiaturen beste lan bat *Le Case the Basque Catholic*. 1938ko azarorako, 2601Fr, hau da £15 ingururen truk. 1938ko abuzturako prest zeuden *Le clerge basque* eta Dr. Azpilikueta (J.A. Aguirre) *Le problema Basque*. Guztira £60 erabiliko ziren itzulketak egiteko⁶³⁹.

Azkena itzuli zen Azpiaturen lana izango da gehien erabiliko dena azkenean. Frantzesen idatzitako edizio luzean bezala, Azpiazu izengoiti berri batekin datorkigu: J. de Hiriarte *The Case of the Basque Catholic*ekin elizako hierarkiak gerrari eta euskaldunei buruz duen iritzia aldatzea espero dute. Bi zatitan banatzen den lan honetan, euskaldunok Eskubi espainiarrarekin dituzten tentsioak azaldu eta gerra nork eta zergatik deklaratu zuen azaltzen saiatuko da. Eskubiak hasitako gerra Komunismoaren aurka baino Errepublikaren balore demokratikoen aurka lehiazteko altxatu zela esan ostean, euskaldunak bi indar estremistaren erdian balore demokratikoak ezartzen saiatzen ari direla izango da tesi nagusia. Lehenengo zatian, 1931tik artzapezpikuen entziklikak erreparatuz Errepublikaren zilegitasunaz dihardu. Gehiengoaren eta elizaren bendizioa zuen sistema honen aurka egon dira hasieratik Eskubiak. Era berean, ezkerria 1934ko urrian altxatu egin zen. Eskubidearen jarrera Anti errepublikarrak eta ezkerren jarrera Anti-klerikalak euskaldunak erdi bidean utzi zituen, bai Errepublikan zehar baita Gerra Zibila lehertzean. 1936ko otsaileko hauteskundeetan jada kristianismo, ordena eta justizia sozialen alde egindako kanpainari eskerrak EAJk hauteskundeak irabazi eta estabilitatea ekarri zion euskal gizarteari. Beraz, ideia demokratiko, kristau eta errepublikar zaleei jarraiki hartu zuten eskuinen aurka joateko erabakia 1936ko uztailaren 18ko altxamenduan.

Euskaldunok asmatu egin zuten erabakian. Nazionalisten aurka errepresio gogorra hasi baitzen uztailan bertan. Iruñeako Batzoki eta *La Voz de Navarra* itxi eta Gipuzkoa konkistatzean 3.000 pertsona, tartean 19 apaiz, sententzia eta epai zuzenik gabe erail zituzten. Praxian bidezkoen aldean, eta ez basatienean, egoteaz gain, arrazoiketan ere justuen aldean daudela baieztatzen du. Errepublika legez kontrakoa zela dioten argudioak desmuntatuta, berehalako errebolta komunista bat ezinezko zela diosku. Horregatik, errebeldeek erasotu zituzten euskaldunak eta hauek defenditu besterik ez ziren egin⁶⁴⁰.

Liburuen kanpainan Ramon Sota arituko zen, 1938ko apiriletik abuztu arte. Ondoren, Estatu Batuetara joatean agenziak hartuko zuen geratzen zen lana bere gain. Itzultzailea esan bezala,

⁶³⁸ *Catholic Herald* (1938-05-6) Kasualitatez, editoreak gutun honi bakarrik erantzun dio oin-ohar batean; *The Month* (1938 Uztaila) *Le Clergé Basque. Rapports présentés par des Prêtres Basques*. Pp. 158. Price, 10.00 fr. *Le Problème Basque*. By Dr. de Azpilikoeta. Pp. 244. Price, 25.00 fr. *Sept Mois et Sept Jours*. By Inaki de Aberrigoyen (prêtre Basque). Pp. 159. Price, 10.00 *The Month* (1938 Azaroa) "*Le Cas des Catholiques Basques*. By J. de Hiriarte. Pp. 45. *Le Problème Basque en Espagne*. By Camille van Deyck. Pp. 19."

⁶³⁹ EAH.EG.OD.Se:Contabilidad Se:Cuentas L:638/03-643/01-643/02-645/01; EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/900 Gondrak Iralari (1938-08-10)

⁶⁴⁰ J. Hiriarte. Frantzeseko edizioaren analisi labur bat: Cesar (2014), 48-49

Stanley Richardson poeta zen. Espainiar enbaxadarentzat lan egiten bazuen ere, euskaldunen oso aldekoa⁶⁴¹.

Euskaldunok, Alfredo Mendizabalen liburuaz salbu, ez dute lortuko liburuak komertzialki editatzea. Aipatutako kasuan ere, ez dago argi inongo paperik izan zuten Euskal Gobernuaren propaganda aparatuek. Gerra Zibilarekin loturiko gai erlijiosoei buruzko liburuek ez zuten merkaturik 1938ko Britainia Handian. Hala zeritzoten behintzat merkatu anglosaxoiko editore nagusiek. Liburuon helburuko audientzia euskal gobernuari horrenbeste interesatzen eta konbentzitzea kostatzen ari zitzairen hierarkia eta iritzi katolikoa zen. Sinpatia haiek bereganatzea zen jomuga. Horregatik, edizio komertzialen ezintasunaz jabeturik, autoediziora jo zuten⁶⁴². Katolikoak erakartzeko egindako liburuen propaganda hau, ez da eskusiboki Erresuma Batura mugatuko. Irlandara eta Estatu Batuetara begira ere egina dago. Euskaldunok besterik egin ez zezaketen propaganda izanik, Errepublikak ordaintzea bilatuko da⁶⁴³.

11. HITZALDI ETA KONFERENTZIAK

Aurrez-aurreko hitzaldi eta konferentziak, izan publiko zein pribatuak, kanal propagandistiko garrantzitsu bat osatzen zuten. Britainia Handian ematen ziren halako hainbat mota ezberdintzen ditugu. *Hyde Park* bezalako toki enblematikoetan arratsaldero gai politikoez aritzen ziren hizlariak nazioaren kultura politikoan zeharo errotuta zeuden. Sustraituta zegoen beste ekitaldi mota bat alderdi eta egitasmo politikoek antzoki eta leku publikoetan bilkura handiak egitea zen. Izaera pribatua dagokion beste mota bat da *clubetan* ematen ziren hizketaldiak. Erresuma Batuan zehar milaka *club* ezberdin zeuden. Interes ezberdineko erakunde hauetan ere hitz egingo zen aktualitateari eta gai konkretuei buruz eta Gerra Zibileko propaganda egiteko erabiliko ziren toki horiek. Azkenik, parlamentuan bertan ere parlamentariak antola zitzaizketen hizketaldiak ditugu.

Vyvyan Adamsen presidentziapean parlamentari ezberdinei hamazazpi hitzaldi-afari eskaini zizkien Lizasok britainiar parlamentuan. 1938ko azaroaren 23an hasi eta Gerra Zibilean zehar parlamentari taldeen aurrean hamaika hitzaldi eta galdera-erantzun txanda eskaintzeko aukera izango ditu donostiarrak. Falta diren seirak 1939 apiril-uztail bitartean izan ziren. Halako bilkuretan euskaldunei buruzko auziak eta gerrak britainiar interesei nola eragin ziezaioken ziren gai nagusiak. Euskaldunontzat gatazkatik aterabide posible ezberdinei buruz ere arituko zen. Hasieran kontserbadoreak bakarrik biltzen ziren, baina pixkanaka oposizioko kide nagusiak ere gonbidatu zituzten, 300 bat guztira. Aparteko propaganda mota honekin zirkulu politiko garrantzitsuenekin ideiak banatzea ahalbidetzear gain, lotura pertsonal zuzenak baimendu zizkion Lizasori. Iruxo bigarren afarian izan zen 1938ko azaroaren 31an. Hona hemen haren usteak⁶⁴⁴:

A Lizaso ya le puedes enviar como plenipotenciario a la conferencia de la Paz. Hubo una discusión de dos horas (...) Lizaso hablo con un aplomo y una seguridad que no tendrá tratado sus ideas los profesores de Oxford y Cambridge. (...) Todos eran conservadores y reconocieron la necesidad indiscutible de un régimen federal para Cataluña y Euzkadi. Lizaso les coló a Galicia. No les

⁶⁴¹ Patterson (2007), 70 Richardsonen *Air-raid over Barcelona* poema aztertzen du. Ironikoki 1941 bonbardaketa batean zenduko zen. EAH.SA.Se:Delegación de Londres Legajo:9/899 Gondrak Iralari (1938-07-22) Bilboren bonbardaketari buruzko informazioa ere eskatu zion Gondrari lan baterako.

⁶⁴² Ez dakigu zenbat gastatu zuten Azpiazuren ingelesko edizioa editatzen 1938ko abenduan kontzepturik gabeko 22.785 Fr. asignazio bat du Londreseko delegaritzak. Baliteke ordaintzeko erabili izana

⁶⁴³ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/913 Agirrek Lizasori (1938-04-26) *LibroS:Los libros de Azpiazu Iñaki, y el clerge basque interesan que aunque en Inglaterra los catolicos tengan otra vision especialmente interesante para Irlanda*. EAH.EG.LD. Se.:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:150 L:800/06 Agirrek Del Vayori (1938-06-17)

⁶⁴⁴ EAH.GE.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:150 L:256/02 Irukok Agirrerri (1938-12-01)

cabe en la cabeza a estos ingleses, el que Franco, para el que tienen toda su simpatía, sobre la República, sea tan pollino como para derogar los Estatutos (...) lo achacan al sentido alemán (...) indudablemente los más de los que estaban allí hubieran preferido para España, una victoria para Franco en Castilla y del gobierno catalán y vasco en Cataluña y Euzkadi. La solución federal a base de Castilla con Franco y Euzkadi y Cataluña autonómicas, era lo que más acomodaba a su idiosincrasia. Yo creo que han quedado convencidos de que con Franco no se puede ir a ninguna parte. Esa idea gana terreno cada día entre la masa conservadora inglesa.

Parlamentuaz bestalde, Lizasok *Club* pribatuetan ere eman zituen hainbat mintzaldi. Garaiko Ingalaterran interes ezberdin eta zehatzak biltzen zituzten *Club* ugari zeuden. Klub horietako batzuk agerkariak argitaratzen zituzten. Lizasok horietako batzuetan hitz egitea lortzeaz gain, bere hizketaldiak hitz bilakatuz argitaratu ziren elkarteko aldizkarietan.

Propaganda kanal zehatz hau aztertu aurretik, garrantzitsua da masa-hizketaldiei buruzko hainbat gauza argitzea. Euskaldunok asko erabili ez bazituzten ere, errepublikar eta nazionalak eta beraien aldeko/kontrako partidu politiko eta elkarteek euren ideiak zabaltzeko erabili zituztenez garrantzia izan zuten Britainiar iritzia itxuratzean. Astero-astero, egunero ez esatearren, talde politiko eta erakunde ezberdinetako hizlariak egoten ziren Londoneko puntu ezberdinetan. *Hyde Park* zen puntu nagusienetarikoa [Ir.13]. 1937ko martxoan Luis Ortuzarrek Axuriagerrari halako baten berri ematen dio⁶⁴⁵:

me encontré con el Marqués de Portago (...) el pasado Domingo coincidimos en una de esos mítines al aire libre que como Vd. Sabe se celebran en Hyde Park. Hablaba entre otros un obrero en contra del fascismo pidiendo ayuda a los obreros ingleses para sus camaradas los obreros españoles que luchan contra los que quieren acabar con la democracia- que el clero no podía estar con Franco pues también había clero católico que estaca con los que luchan al lado del gobierno.

Eli Etxeberriak hizketaldi hauen inguruan hala dio 1946ko apirilean⁶⁴⁶:

Llevo cinco años en Inglaterra, he llegado a apreciar lo que significa para un Pueblo el que sus hijos de diversas tendencias sepan respetarse mutuamente. Quien no ha visto la escena típica de un parque del centro de Londres, en el que en un espacio no mayor que la plaza de Eibar están hablando al mismo tiempo oradores que defiende el comunismo, el socialismo, el anarquismo, el catolicismo, el protestantismo, Salvation Army etc, sin presenciar ningún incidente que dé lugar a intervención del guardia que sonriendo plácidamente, oye a uno y a otro orador para distraerse, no puede tener una exacta idea de lo que significa el termino convivencia. Yo admiro esta civilidad, demostración de madurez democrática, y deseo que los vascos lleguemos a practicar una perfecta convivencia

Egunerokotasunetik haratago doazen hitzaldi handiagoak ere egon ziren. Kasu hauetan erakunde ezberdinak deituta, ia-ia manifestaldiak bilakatu ziren hizketaldiak izan ziren Gerra Zibilean zehar Erresuma Batuko puntu ezberdinetan. Esan behar da Britainiar kultura politikoaren espresioak zirela eta ez Espainiako gaiekin loturiko salbuespenak.

Bere baitan eksklusiboki Gerra Zibilari lotuta ez bada ere, 1937ko urtarrilaren 24an Manchesterreko *Free Trade Hallean* partidu laborista barneko *Socialist League* korronteak, komunistekin eta *Independent Labourrekin* batera abiaraziko zuten *United Front*. Helburua, faxismoaren aurkako Chamberlainen kanpo-politika iraultzea zen. Manchesterren, Stafford Cripps (laborista), Jimmy Maxton (ILP) eta Harry Pollittek (komunista) hitz egin zuten. Partidu laboristaren zuzendaritza aurka izanda ere, hipotetikoki partidu laboristak zuzenduko zuen frontea zuten jomuga. Laborismoaren militantzia deituz, eta komite nazionala presionatzeko hainbat manifestaldi deitu ziren. Hiru hizlari egon ohi ziren. Nahiz eta ez zuten frontea osatzea lortu antzeko inizatibak abian jarri ziren presio popularraren ondorioz. Partidu Laboristak ez

⁶⁴⁵ SAF-BBB. 281-1 Ortuzarrek Axuriagerrari (1937-03-30)

⁶⁴⁶ de Pablo *et al.* (1999), X

interbentzioarekiko zuen politika aldatu eta gobernua presionatzeko *Spain Campaign Committee* bat osatu zuen. Probintzien barna hainbat manifestaldi eginda, 1937ko abenduan jo zuen goia kanpainak, *Albert Halleko* manifestaldian. Noski, ez ziren *rally* bakarrak izan, baina bai entzutetsuenetakoak. Askotan hauetan hizlariak esandakoak esku-orrietan argitaratuko ziren.⁶⁴⁷

Nazionalei dagokionez, beraien agenteek nahiko goiz hasiko dira hitzaldiak eskaintzen. Ez dira hasiera batean, horrenbeste manifestaldi masiboetan zentratuko, goi-mailako zirkulu aristokratikoetan baizik. Merry del Val markesak klub ezberdin askotan izan zen mintzaldiak eskaintzen azaro erdialdetik apiril bukaera arte. Adibidez, Oxfordeko, *Royal Institute of International Affarisen* izan zen eta parlamentuko kontserbadoreri zuzendu zitzaizen parlamentuan 1937ko otsailaren 2an. Azken hartan, Moraleko markesarekin batera aritu zen. Horrez gain, Moraleko Markesa *1900 Club* politikoan, *Junior Carlton Club*, *Colonel Dawnay's Club*, *Oxford University* eta *Caxton Halleko Conservative association*, *Aldershotem* hitz egin zuen. Halere, nazionalen aldean agian hizketaldi gehien eman zituen pertsona Enrique Gabana apaiza izan zen. 1936ko urrian izan zen lehena *Breakspeare clubean*. Azaroan *Friends Hallen*, Enrique Morenorekin, errepublikar zalearekin, eztabaida gogorra izan zuen. Ondoren, Erresuma Batuan barna aritu zen: Liverpoolen, Carlisten eta *Catholic Women's league* antolakundeko idazkari zen Lady Sibil Fraserrek antolatuta Glasgoweko unibertsitatean. Egun hartan, 1937ko martxoaren 19an, ordu bete lehenago Archibal Sinclair liberalak Espainiari buruz hitz egin zuen⁶⁴⁸. Honen ostean, Edinburgh, Dundee eta Irlandan izanda gero 1938an FOk hizketaldi politikoak egitea galarazi zion Gabanari.

Egindako mintzaldi guztietatik garrantzitsuenen artean kokatzen ditu bi aste jarraietan zehar Westminsterreko *Catholic Evidence Guilden Acción Católica*ko zuzendari eta *a los miembros la famosa asociación de los oradores que en parques plazas, playas y otros lugares publicaos se dedican a predicar catolicismo* egindakoak. Audientziak askotan galdetzen omen zieten Espainiari buruz eta ondo azaltzeko, Espainiar tragediari buruzko jatorria ezagutzeko jakin-mina zuten. Ez da ahaztu behar, hauek izango direla *Hyde Parken* berbetan aritzen zirenetako batzuk.

Ronald Flaxan, *Catholic Evidence Guild*eko hizlari nagusietako bat horrenbeste galdera jasotzen ari zen, ezen Hinsleyri idatziko zion ea nola erantzun behar zituen itauntzen. Artzapezpikuak gai soziala ekidin eta erlijiosoei bakarrik erantzuteko agindu zion, modu orokor eta laburrean batean erantzun zitzan gomendatuz⁶⁴⁹.

⁶⁴⁷ UWA ATUC:292/946/11/12a

⁶⁴⁸ Gabana, (1939)

⁶⁴⁹ Villis (2013), 30



Ir.13 Hyde Parkeko izlaria Aranzadi JEI-00147-34

Aipatu berri ditugun moduko mintzaldiak ere erabili zituzten propagandista nazionalek. 1937ko urtarriletik aurrera *Hyde Parken* igandero agente bat egongo zen bertaratuei hitz egiten. Bigarren bat kontratatu zen Londonen zehar 1937ko uztailearen 11-18 bitartean 28 hitzaldi eskaintzeko eta estrategia hau 1937ko irail-urri arte mantenduko zuten. Probintzietara hedatzea eta guzti pentsatu zuten. Ondoren, estrategia aldatu eta aire-libreko ekintzak bilera handiagotara pasatzeko intentzioa zuten⁶⁵⁰. Baita egin ere, 1938ko martxoaren 23an *The Friends of National Spainek* antolatuta *Queen's Hall* famatuan sekulako manifestaldia eskaini zuten. 3.000 pertsonak gora arte bete zuten, beste asko sartu ezinik geratu ziren bitartean. Inge den anglikanoaren hitzaldiak izan zuen inpaktu handiena eta antolakunderako harpidetzak %25 egin omen zuen gora.

Manifestaldiaren oihartzuna probestuz, *The Case for National Spain* panfletoan ospakizuneko hizketaldiak bildu zituzten. 20.000 ale argitaratuz. Horietako 15.000 *Friends of National Spainek* ordainduz. Maiatzean 20.000ko bigarren edizio bat egin eta Londoneko prentsa eta propaganda zerbitzuei horrenbeste argitaratzeko baimena eman zitzaien.⁶⁵¹ *Queens Hallen* bertan izan ziren antzeko *rally* politikoak. Philipmorrek 1939ko otsailean izango zen Espainia berria eta Erresuma Batuaren arteko harremanei buruz elkarretaratzera gonbidatu zuen Merry del Val.

Errepublikar zaleak ere egingo zituzten antzeko manifestaldiak. Klubetan egindako hizketaldietan ezagunak dira Enrique Morenok Oxforden egindakoak. Era berean, saiakera egin ziren Leocodio Cobo eta José Manuel Gallegos katolikoak Ingalaterrara joan eta Gabanak egin

⁶⁵⁰ AGA 54/6803 Informe hecho por Moral. Friends of National Spain (1937ko uztaila). Lovedayek: Oxford University Conservative Association, Folkstone & Three twons in the South of England, Conservative Associations. Denville, Numerous meetings in the North of England eta Bristolen ere. Mary Allen: Exeter, Bristol eta Bath. Lunnek Woolwichen. Denville, Moral eta Lunnekin batera Londoneko eliza katolikoak antolaturiko hainbat hitzaldi eman zituen.

⁶⁵¹ AGA 54/6803 Albak Kanpo Harremanetarako ministerioari (1938-03-24). Albak Merry Vali (1939-01-28); *The case For national Spain*; AGA 6701 Albak Kanpo harremanetarako ministerioari (1938-05-06)

zuen eran herrialde osoan zehar solasaldiak eskaintzeko. Ez zieten sartzeko baimendu⁶⁵². Aldiz, manifestaldi masiboetarako dagokionez, agian Isabel Palenciak eta Luis de Jimenez Asuak 1936ko urriaren partidu laboristaren Edinburghko kongresuan egin zutena azpimarratu behar da⁶⁵³.

Publiko zabal bati zuzenki zuzentzen ezagutzen den euskaldunon parte hartze bakarra 1937ko uztailean Europako gutxiengo Nazionalen 13. kongresuan izan zen. Ramon Sota eta Antonio Labayen izan ziren kongresuan. Nazionalen aurka eta euskal nazionalisten aldeko deklarazio bat eskuratzen saiatu arren, ez ziren halakorik egiteko baimenik eman Lord W.H. Dickinson liberalak. Beraz, alde egin zuten kongresutik. 1936ko abenduan, Parisen eman zen gaztedi antifaxistaren kongresuan izan ziren, eta Londonen argitaratu zituzten hizketaldiaren kopiak⁶⁵⁴.

Ageriko hitzaldi hauez gain, E.M. Wright agentziako langile batek 1938ko azaroan bi hizketaldi eskaini zituen. Lehendabizikoa, Londresko St. George Unibertsitateko *St. George Literary and Social Union* en eta bestea, Ipswich Industrial cooperative-ko hezkuntza departamentuak babestu zuen. 2000 pertsona bildu ziren bigarren hizketaldia entzuteko⁶⁵⁵.

Euskal Delegaritzaren kasuan, Wright agentziaren aholkuak entzunez, halako manifestazio masiboetan ez ezik, aukerako klubetan hitz egitearen alde azalduko ziren. Klub horietako askok aldizkariak zituzten eta emandako mintzaldiak argitaratzen zituzten gehienetan. Batzuetan zirkulazio gutxiak, besteetan milaka alekoak. 1930. hamarkadan gizonezkoz osatzen ziren zer esan handiko soziazitate eremuak ziren. Egunerokotasuneko gaien eztabaidak aurrera eramateko lekuak. Batzuetan, gai konkretuen inguruan berriketan egiteko ardatzuak, bestetan zertxobait zabalagoko gaiez solasteko antolatzen ziren.

Lizasok bere kabuz hainbat klubetan hartuko du parte, edo gutxienez, gonbitak luzatuko dizkiote bertan parte hartzeko. Hurrengo hauek izango dira: *Whitefriars Club*, *The Linguistic Club*, *Delphian Club* eta *The People and Freedom Group* ezagunak izango dira. Lehendabizikoa, kazetari, politiko eta literatur munduko klub eksklusiboa da. Bigarrena, hizkuntza eta linguistikaren interesa duten irakasleek osatua. Orotara 3000 bazkide. Hirugarrena aldiz, kazetari, enpresario eta parlamentariak biltzen diren tokia da. Mundu sozio-politikoan zer esan handia zuena. Azkena berriz, Luigi Sturzak Londoneko erbestean osatua, espektro katoliko antifaxista biltzen duen taldea da. Gerora, demokrazia kristauarekin lotu izan dena⁶⁵⁶.

Whitefriars klubean birritan arituko da hizketan Lizaso. Bat 1937 bukaeran eta bestea 1939an. Robert Hawesen bidez eskuratuko du bertan izateko aukera. Lehena, 1937ko azaroan izango da eta 20 minutuko solasaldi txiki bat emango die bertaratuei. Bigarren aldian joan zenekoa jarraian aztertuko dugu⁶⁵⁷. Bigarren berriketaldian, euskaldunon tragediari buruz dihardu Lizasok. Ez interbentzioaren fartsa gaintzea lortu ez bazuten ere janaria bidali zioten *the oldest democracy in Europe the most akin to Great Britain*. Isolazionismoari eskerrak mendeetan zehar *saved from foreign invasion* eta arrazoi horren medio *different language from Spain*. Egun Espainiarekin alderatuz, Euskadik *lack of poverty, economic system based on small*

⁶⁵² AHN-Diversos Araquistain 23, A106 (Del Vayok Araquistaini, 1936-10-25) *Llevan estas líneas los P.P. Lobos y Gallegos que van al congreso antifranquista en Bruselas. Sería interesante que realizaran actos en Paris o aun en Londres a su regreso.*

⁶⁵³ Jimenez eta Oyarzabal (1936)

⁶⁵⁴ Estevez (1995), 273; *The Times* (1937-07-16)

⁶⁵⁵ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:295/01 Report november 1938

⁶⁵⁶ Sturzak euskaldunekin izandako harremanak sendoak izan ziren, gerora latinoamerikan eta mundo mailan zabalduko den taldea izango da. Euskaldunok ere harreman handiak izango dituzte elkarrekin eta Gerra Zibilak taldearen sorkuntzan garrantzia handia izango du. *British Committee for Civil and Religious Peacen* programan jarraituko dutela esan daiteke. Mauro (2017), 15-16; Arrieta (2009), 203

⁶⁵⁷ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:214/01 W. Barrettek Lizasori (1937-11-22); *Ibid.* V:50 L:293/02: Speech by Mr. Lizaso at the Whitefriars club dinner

farms and industrialist. Paradisu inter-klasista hau oso erlijiosoa zen, gainera 1839 arte *completely free*. Gerra karlistak galduta askatasunak galdu zituen herria. 1931 erregimen berriak ikusi zuen Espainia arraza ezberdinez osatuta zegoela eta autonomia emateko prest agertzen da. 1933 azaroaren 5ean autonomia botoen %90 irabazi zuena. Gerrak eztanda egitean zen autonomia indarrean jartzekoa.

Gerrari buruz, errepublikaren legitimitatea defendatzen du. Franco errebelde bat dela esan eta altxamenduak kristautasunaren aurkakoa denez, doktrinaren aurkako mugimenduzat jotzen du errebeldeena. Euskaldunek horrenbeste maite dituzten indibidualismo, justizia sozialaren eta sentimendu nazionalen aurkako ere badira. Ondorioz, ezin bere alde egin euskaldunek eta Errepublika aukeratu zuten halaberrez.

Behin elekzioa eginda terrore kanpaina abiarazi eta goian aipatutako ideia guzti horiek suntsitzeko eraso zuten Alemaniar eta Italiarrek euskal lurraldea. Gerra beraz ez da gerra erlijioso bat, ez da faxismo eta komunismoaren arteko norgehiagoka ere ez. Arazo nazional eta ekonomikoetan oinarritu behar da bera ulertzeko. Are gehiago, ez da gerra zibil hutsala. Nazio barneko gatazka hiru egunetan bukatu zen, errebolta huts egitean. Herriak ez zuen gerra hau nahi eta hankapean hartu zuen azkar. Orduan etorri ziren Italiar eta Alemaniarrak Francoren laguntzan, eta honen ostean etorri den borroka Faxismoaren eta demokraziaren arteko borroka bezala ulertzen du Lizasok.

Ez da gerraren genesiaren kritikara mugatuko eta gerra gainditu eta aterabide bat ere proposatuko du. Britainia Handiaren gustuko dena gainera. Iberiar penintsularen kokaera estrategikoa dela eta Espainia neutral bat erabat beharrezkoa zaio, bai Erresuma Batua eta Frantziarentzat ere. Espainia gerran izanik ziurtatu ezin daitekeen zerbait. Arazoa konpontzeko hurrengo hiru puntu irizpide bete behar dira:

1. Tolerantzia erlijiosoa. Autoritate zibil eta militarren bereizketa bermatuz.
2. Justizia soziala. *Extraneos* diren teoria komunista, anarkista eta faxistak ekiditeko.
3. Estatu Federala. arraza guztiek bere burua gobernatzeko duten eskubidea defendatuz.

The Linguistic Clubeko hizketaldia ezberdina izango da. Printzipioz, 1938ko azaroaren 28an Lizasok euskararen inguruan eskaini behar zuen solasaldia. Behin mintzaldia eginda, klubeko aldizkarian argitaratuko zen. Azkenean, frantseseg egiteko eskatzerakoan berriketaldia bertan behera geratuko zen, A.T. Pilley klubeko ohorezko idazkariak hitz egin edo ez, argitalpena egitea onartu baitzion. Ignacio J. Lizaso izenpean agertu zen⁶⁵⁸.

People and Freedom Groupen emango den hizketaldia *Germany and the Basque Country* titulua hartuko du. Gaia argia azaltzen du izenburuak. Dr. Fairfieldek antolatuta 1939 martxoaren 23an ospatuko da. Entzuleen artean, Mrs. Beers zegoen. Durangoko bonbardaketa izan zenean testigu izan zen emakumea. Hurrengo egunetan, irratiz Britainia Handirako hitz egin zuen Madriletik⁶⁵⁹. *Delphian Clubi* buruz ez dugu informazio gehiago eskuratu. Beraz ezin dugu baieztatu han hitz egin zuenik. Jarraian aipatuko ditugun elkarteekin antzeko zerbait gertatzen zaigu. Wright agentziak sei erakunde gehiagotan hitzaldiak emateko iradoki zizkion Lizasori. Kontserbadore ezkertiarren, tartean Winston Churchillen, *The New Commonwealth* kluba. Kuakeroen *The Society of Friends*. *The International Students Services* unibertsitariora edota George Lloyd sortutako *The Council of Action for Peace and Reconstruction* liberala. Nazioen liga defendatzen zuen *The League of Nations Union* eta guztietan erradikalena zen,

⁶⁵⁸ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:295/01 Report november 1938 Lovellek A.T. Pilleyiri (1938-11-14)

⁶⁵⁹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/02

Bertrand Russell eta George Lansbury laboristaren *The Peace Pledge Union*⁶⁶⁰. Ez dugu berri gehiagorik hauen inguruan.

Lizasoz gain, Euskal Gobernuak hainbat kide izan ziren Erresuma Batuan propaganda lanetan. Leizaola eta Aldasorok aukera izan zuten aukerako audientziako klub baten edo besten hitz egiteko. Lizasok 1938ko urtarrilaren 26an *The Basque and Fascism* izenpeko solasaldi bat eskaini zuen *Cambridge Unionen* prestigiotsuan. Aurretik John Simons ogasun ministro britainiar Liberal-nazionalarekin bazkaldu zuen. Simons HOko buru izan zen 1937ko maiatza bukaera arte, hortaz, *Basque Children*-ak etorri zirenean errefuxiatuei buruzko ardura zuen goikargua zen. Leizaolak Aldasororekin batera Glasgowko unibertsitatea bisitatu zuten aste pare bat lehenago. Leizaola Harvardera abiatu eta Aldasorok berriketan aritu zen Edinburgh University Cosmopolitan Clubean. Urtarrilaren 23an izandako hizketaldiari buruz hala idazten dio klubeko lehendakariak Lizasori *The meeting Sunday night was one of the most interesting we have had (...) club committee is coming in for a lot of reflected glory for having arranged it*. Izandako arrakastaren kariaz, unibertsitateko magazinera Euskaldunon inguruko artikulua bat idazteko eskaera jasotzen du. Aldasorok idatziko badu ere, Lizasoren iritzi, zirkulazio txikitako agerkerientzako idatzi aurretik berarekin hitz egiteko eskatzen die⁶⁶¹:

permitiría aconsejaros, tanto a ti como a Leizaola, que todos los artículos que podáis preparar y que a nuestro juicio puedan ser interesantes para este país, me los mandéis directamente aquí, que yo me preocupe de que sean insertos en revistas importantes.

Aukerako klub eta unibertsitate partikularretan mintzaldiak egitea propaganda egiteko beste aukera bat izan zen Euskal ordezkariarentzat. Ez dirudi asko erabiliko den kanala izango denik, alabaina, erabili egingo dute.

12. FILMEAK: GUERNIKA ETA EUZKO-DEYA

Euskarri audiobisuala Gerra Zibilean zehar propaganda bideratzeko beste kanal bat izan zen. Euskal Gobernuak lehendabizi Bilbon eta ondoren Bartzelona eta Parisen hainbat zinta, *Guernica* (1937), *Elai Alai* eta *Euzko-Deya* (1938) grabatu zituen. *Guernikak* Frantzia hasiera batean sortutako espektatibean ostean Ingalaterran hainbat emanaldi emateko saiakerak egin zituzten. Propagandaz gain, aspektu komertziala interesatzen zitzaientzen, hau da, dirua egitea. Filmak Frantzia arrakasta minimo bat izatera heldu zen, Ingalaterran aldiz, ez zuten nahi adinako difusiorik eskuratu bisualizazioaren bat edo beste izan bazen ere. Jarraian euskarri audiobisualak Gerra Zibilean zehar izandako garrantzia propagandistikoa aztertuko dugu, eta Britainia Handian Euskal Gobernuak egindako pelikulak zabaltzeko saiakerak adieraziko dira.

Santiago de Pablok aztertu du zinearen inguruan Euskal Gobernuak aurrera eramandako propaganda⁶⁶². Bestelako kanalek zuten helburu berbera zuen bide honetatik egindako propagandak, hau da, demokrazien iritzi publikoari so eginez demokrazien laguntza bilatzea. Bide honek, gainera, beste kanalek eskaini ez zezaketenez zerbaiten potentzialtasuna zuen, dirua egitearena hain zuzen ere.

Aipatutako zinema propagandistikoa ez ezik, De Pablok berak aztertu du Gerra Zibilean zehar euskaldunei erreferentziak egiten dizkien Ingalaterrako albistegiak⁶⁶³. Bi aldi nagusitan ezberdindu daitezke Euskal Herriari buruz agertutako notiziak. 1936ko uztaila-iraila bitartean

⁶⁶⁰ *Ibid.* L:295/01 Memorandum of Wright to Lovell (1938-11-04)

⁶⁶¹ *Ibid.* V:500 L:214/01 John Simonsen Lizaso (1938-01-23); G.M. Laen Youngek, President and Editor of *The Cosmopolitan* Lizasori (1938-01-25); EAH.EG.Comercio y abastos.S:Secretaría Particular V:215 L:473/06 Lizasok Aldasorori (1938-02-11)

⁶⁶² de Pablo (2006); de Pablo (2007); Fernandez eta de Pablo (2012); de Pablo (2018)

⁶⁶³ de Pablo (2018)

eta 1937ko maiatza-ekainean. 1936ko ikustaldietan Gipuzkoako kanpaina eta batik bat Iruneko gertaerak ematen dira. 1937 erdialdeko bisualizazioetan aldiz, Ingalaterrarako umeen ebakuazioak eta Bizkaiko kanpaina dira fokua, tartean Gernikako bonbardaketa eta Bilboko konkista⁶⁶⁴. *Newsreels* hauetan etxe bakoitzaren ñabardura ideologikoak nabariak badira ere, eskainitako albisteak nahiko neutral adieraziko dituzte. Azken finean, albiste informatiboak izan ohi ziren. Neutraltasun hori izanda ere, bai *newsreel*, bai dokumentaletan, euskaldunen inguruan sortutako iruditegia aproposa izan zen hauen propagandarako. Hein handi batean Euskal Gobernuak bilatzen zuen irudia zabaltzen baitzuten, hau da, Gerraren erdian bakearen oasi idealizatu zirudien Euzkadik.

Euskal Gobernuak antolatutako zine sekzioa, presidentziaren idazkaritza orokorraren baitan kokatuko da, Bilbon Bruno Mendigurenek zuzendutako Propaganda eta Kanpo Harremanetarako departamentuaren baitan. Hor zine kabinete bat osatuko delarik. Badirudi Teodoro Hernandorena, *Euzkadi* (1933) filmaren sortzailea izango dela kabinetearen martxan jarriko duena⁶⁶⁵. Gerrak eztanda egiterakoan zinematografia gauzatzeko baliabide oso gutxi zeuden Bizkaian eta lehendabiziko esfortzuak beharrezko materiala erostera bideratu ziren. Arazo hauek zirela eta bi erreportaje grafiko besterik ez ziren egin Bilbo erori aurretik. *Entierro del benemérito sacerdote vasco José María de Korta y Uribarren, muerto en el frente de Asturias* (1937) eta *Semana Santa en Bilbao* (1937). Tituluek argi erakusten duten bezala, euskaldunon kristautasuna azpimarratzen dute bi zintek. Badirudi beste proiektu bat ere izan zutela Bilbo erori aurretik. Maiatzetik azarora iraun zuen 1937ko Parisko nazioarteko erakusketa handirako Euskaldunekin loturiko pelikula bat egitea pentsatu zela uste da, *El pueblo más viejo de Europa. El estado más joven de España*⁶⁶⁶; alabaina, Jose Maria Uzelaik⁶⁶⁷ gidatutako euskal komisioak ez zuen nahi izan edo ez zuen lortu pelikula hori sortu eta erakustea.

Zine kabinetea Bilbon sortu bazen ere, kabineteko filmak Parisen sortu ziren eta haren kargu Nemesio Sobrevila izan zen, 1937ko martxotik aurrera Biarritzik Frantziako hiriburura lekualdatuta hasi zen lanean Bilbotarra⁶⁶⁸. Sobrevila Bartzelonatik Bilbora etorriko da abioiez martxoaren 18an. Nahiz eta bera Bilbon izan, eta goiko paragrafoan hitz egindako bi filmak, hurrenez hurren, martxoaren 18 eta 25an filmatu ezin dugu ziurtatu Sobrevilak parte hartze zuzena izan zuela bi lan horietan. Seguraski Leopoldo de Cerrok grabatutako irudiak erabili zituztela aldiz ziurragoa da⁶⁶⁹.

Guernicaren muntaketa eta beste filmen muntaketa Frantziako hiriburuan eman zen. Parisen kokatutako departamentu honetan Jose Maria Beltran aragoiarra arituko zen Sobrevilarekin batera. De Pablok, bi pertsonaia hauek Euskal Gobernuarentzat 1938 erdialde arte lan egin zutela iradoki izan du⁶⁷⁰ eta Beltranen kasuan behintzat ala da. 1938ko ekainean kobratzen baititu azken 3.000 Fr.⁶⁷¹. Bi pertsonaia hauez gain, Eduardo Mendibil, Estatu ministerioko propaganda idazkariordetzan euskal sekzioaren burua zena aipatzen da propaganda

⁶⁶⁴ de Pablo (2012), 41

⁶⁶⁵ de Pablo (2006), 80, *parece que quien ayudo a poner en Marcha la sección de cinematografía fue Teodoro Hernandorena, jefe de la sección de Educación Física del Departamento de Cultura durante la guerra*

⁶⁶⁶ Puyal (2015), 10; CDMH, PS-Barcelona, 47/11

⁶⁶⁷ Jose Maria Uzelai margolari ezaguna. Euskal Gobernuko Bellas Artes departamentuko zuzendaria, Parisko Euskal sekzioa antolatzeaz arduratu zen. Londonera exiliatuko da eta 1949an itzuliko da Busturiara, Txirapozu jauregira.

⁶⁶⁸ EAH.EG.Comercio y Abastecimiento.S:Secretaria particular V:200, L474/02 Nemesio Sobrevila *Resumen de mis trabajos trabajos de propaganda cinematografica al servicio del País Vasco y de la República (1937-09-25)*. Txostenean Euskal Gobernuari egozten dio Gernikako irudiak galtzean erakutsitako interés falta.

⁶⁶⁹ de Pablo (2006), 82 eta 100

⁶⁷⁰ de Pablo (1998)

⁶⁷¹ EAH.EG.OD.S:Contabilidad Se:Recibos V:100, L:704/01

audiobisualaren bultzatzaile bezala. Besteak beste, Mendibili eskerrak eskuratu zituzten *Guernica* pelikularako Espainiako Frantziako enbaxadak *Banco Comercial para Europa del Norte* bidez emandako 15.000 Fr.⁶⁷².

Bestelako pertsonaiak ere kolaboratu zuten. Robert Petiot eta Agustin Ugartetxeak esaterako. Petiotek *Hearst Metrotone Newserako* egiten zuen lan. Kate hau, paradoxikoki, *Metro-Goldwyn-Mayer* eta nazionalen aldeko William Randolph Hearst amerikarrarena zen. Petiotek maiatzean heldu zen euskal lurraldera eta Santanderra erretiratu zen. Ondoren Kataluniara pasa eta Frantziara itzuli zen 1938an. Zoritxarrez, hilabete eskas izan zuen Euskal Herriko irudiak grabatzeko. Petiot Sobrevilaren bidez heldu zen Bizkaira. Kamera profesionalen faltan, Petiotekin akordio batera iritsi zen: grabatutakoa bere enpresarentzat eta euskaldunentzat izan beharko zen. Grabazioak Parisa igortzen ziren Baionako ordezkariaren bidez⁶⁷³. Ugartetxearen lana ez zen Petioten grabazioen kalitatera heltzen, alabaina, denbora luzeagoz eta une garrantzitsuagoetan egon zen kamera amateur batekin grabaketak egiten. 1937ko martxorako Ugartecheak Euskal Gobernuaren igarobide bati eskerrak frontean zehar grabazioak egiteko baimena eskuratu zuen. Zoritxarrez, kameraren kalitate baxuagatik Sobrevilak ez zuen irudien gehiengoa erabiliko *Guernica* muntatzeko. Frankistak Gernikan sartu baino egun bat lehenago, 1937ko apirilaren 28an Ugartechea bonbardatu berri zen hirian sartu eta filmatu egin zuen. Kontuan izanik, Petiot maiatzean etorriko zela, jaurlaritzak Gernika bonbardatu osteko zituen irudi bakarrak ziren horiek. Kalitateari arretarik erreparatu gabe eta bere inportantzia propagandistikoa kontuan izanik Sobrevilak *Guernica* filmean txertatu zituen irudiok⁶⁷⁴. Conrado Bernat, Armando Seville eta Léon Belletk ere aritu ziren, noiz ala noiz, Euskal Gobernuarentzat material audiobisuala grabatzen⁶⁷⁵.

Zoritxarrez, Gernika bonbardatu osteko irudi hauetako batzuk lapurtu egin zituen filma errebelatzera eramane zituen etxeak, *Société AGFA photo*. Etxeari emandako 16 bobinetako batek Gernika izena zuen eta hori da, hain zuzen ere ostu edo galduarazi zutena. Eman aurretik, Beltranek ohartarazi zuen AGFA etxeak jatorriz enpresa alemaniarra zela, baina beste etxeek filma errebelatzeari uko egitean ez zen beste aukerarik geratu. Zorionez, eta nahiz eta eszena onenak ostutako bobinan zeuden, beste argazki-film batean bazeuden bonbardatutako Gernikari buruzko hainbat irudi.

Irudi galduak errekuperatzen saiatu zen Euskal Gobernuak eta etxeak bobina itzultzeari uko egitean 1937ko abuztuaren 21ean demanda zibil bat jarri zion jaurlaritzak etxeari. Errebelazioa egitegatik atzeratutako eguneko 5.000 Fr eskatzen zizkion, eta falta zen pelikula zatia agertzen ez bazen 200.000 Fr. *Guernica* pelikula karrete hori gabe 1937ko urriaren 15ean estreinatu zen Parisen, partiduko autoritate nagusienak bertan zirelarik. Frantsesko bertsioaz gain, espainieraz eta ingelesezkoak ere egin ziren. Gainera, bertsio guztietan, ingeleseko mezu bat zuen txertatuta, hala zioen zati batek: *A testimony of gratitude towards the solidarity shown to the unfortunate Basque Children, the innocent victims of the destructive force that has wrecked their homes in razing villages*⁶⁷⁶. Argi eta garbi adierazten da umeen eta bonbardaketan biktimen sufrimenduaren instrumentalizazioa.

Estreinalditik aste gutxitara, Mendibilen gestio batzuei eskerrak, eta eszena konprometituenak falta baziren ere, zintaren zati bat berreskuratzea lortu zuten. Horrez gain, auzibidea bukatzeko

⁶⁷² de Pablo, (2006) 79-82 Ikusi: EAH.EG.BEY:C-39/1-2

⁶⁷³ de Pablo (2007), 628-9

⁶⁷⁴ de Pablo (2007), 630-32

⁶⁷⁵ de Pablo (2007), 627

⁶⁷⁶ <https://filмотека.eus/es/fondos/decada-1930/guernika>

kopuru bat eskaini zien AGFAk. Zinta saboteatua zegoelako auzibidea mantendu egin zuten. Oraindik ere gainera, irudi konprometituenak falta ziren. Hala ere, 1938 otsailean aditu judicial batek adierazi zuen filmak ez zuela sabotajearen indiziorik agertzen. Ondorioz, estrategia berri bat jarri zuten martxan. Pelikula berreskuratzeari uko egin eta filmaren zatia galtzegatik eta zinta itzultzean izandako atzerapenagatik eskatu zitzaizkien kalteordainak. Auzia 1939ko abuztuan itxi zen. AGFAk 100.000 Fr. kalteordainak ordainduz⁶⁷⁷.

Ingalaterran entzungo dituen iradokizun batzuen ostean, *Euzko-Deya*, *Guernika Berria* bezala ezaguna, muntatuko du. *Guernikako* estreinaldiaren ostean berreskuratutako eszenak eta baita *Elai Alai* filmeko hainbat eszena gehituko dizkio film berriari. Banda sonoro osoa ere aldatuko dio. Euskal musika hutsez osatuz. Zaharraren antzeko mezuak transmitituko ditu, baina kasu honetan irudi berriak ez ezik, beste izaera bat ematen zaio, folklorikoago eta propagandistikoagoa da. Esan bezala, gehienbat *Elai Alai*eko euskal umeen dantzak eta Mendibilik erosi zituen grabazio berri batzuk gehituko zaizkio⁶⁷⁸.

Guernika, *Elai Alai* eta *Euzko-Deyaren* muntaketaz gain, bestelako proiektu batzuetan ere arituko dira lanean zine kabinetea utzi arte Sobrevila eta Beltran. Hainbat dokumental eta zinta labur osatzen ari ziren kontratua bukatu zitzaizkionean, besteak beste, *Euzkadi y la Guerra de España* delakoan, hau da *Euzko-Deyaren* edizio berri batean.

Sobrevila eta Beltranek Euskal Gobernuarentzat lan egiteari uztearen arrazoi nagusia ekonomikoa da, nahiz eta diruaren kontuak EAJk Sobrevilarekin zituzten tira-birekin nahastu. 1938 ekainerako jaurlaritzak 350.000 Fr. inguruko galerak zituen sekzio honekin. Hasiera batean propaganda egitea ez ezik, pelikulak komertzialki esplotatzea espero zuten *Guernika* filmarekin. Horregatik, gobernuak Sobrevilari 1937ko azaroan 100.000 Fr. erosi zizkion pelikularen eskubideak. Ez ziren zituzten espektatibak bete⁶⁷⁹.

Diru galera gelditzeko asmotan eta ziurrenik sekzioa ixten joateko, erabat birmoldatu zen zine kabinetea. Alde batera utziko da ordu arte osatutako estruktura profesionala eta 1938ko abuzturako Eduardo Mendibilekin batera, kamera eta operadore bana arituko dira Paristik lanean. Garai honetan, zuten material guztiarekin tematika ezberdineko hainbat film produzituko dira. Gehiengoa, hau da, 8.000 metro karratu Espainiako filmotekan dago, VASCONGADAS izeneko atalaren azpian. Beste zati bat, Londoneko delegaritzan gordeko zen Gerra Zibila bukatzean. Mendibilek zuzendutako aparatua 1938ko azarorako itxiko da⁶⁸⁰.

***Guernika*, *Euzko-Deya* eta *Elai Alai* Erresuma Batuan**

Orain arteko Santiago de Pablaren ikerketen arabera, *Guernika* Ingalaterran zabaltzeko lehen kontaktuak 1938ko urtarrilean hasiko dira eta afirmazioa hau ez da gezurra. Hala ere, film honen aurretik Euskal film bat gauzatzeko saiakera bat egon zen. Londoneko delegaritzak

⁶⁷⁷ de Pablo (2006), 109-119

⁶⁷⁸ de Pablo (2006), 159: *En la documentación Euzko-Deya aparece como GUERNICA RENOVADA. (...) EL Sr. Lizaso mando al Sr. Irala un rapport interesante, para la modificación de dicha cinta u que esta tuviera un mayor valor de propaganda y explotación. Adaptándome a el he rehecho el film para presentarlo allí y ver si encontráramos una casa con solvencia suficiente para encomendarle la labor de distribución. Para ello he tenido que cambiar por completo el sentido del film Guernika. No podía ser presentado como de actualidad lo ocurrido hace un año. Por otro lado, se le han introducido elementos nuevos, sacado de todo el material que UV. [Diaz Mendivil] ha remitido, así como música exclusivamente vasca. Ha ganado mucho el film y ahora podrá presentarse fácilmente en el mundo. Lo que, aparte de ser un magnífica propaganda, podrá ser un éxito económico si es que su distribución se ocupa alguien con cariño. (...) Incluyan nuevas tomas de ELAI ALAI y de destrucción de Guernica*

⁶⁷⁹ *Ibid.*, 106

⁶⁸⁰ *Ibid.*, 171-4 eta 182-3 1939an New Yorken Manu Sotak Ramon Sota MacMahonekin bildutako materialarekin filmaren bat egiten saiatuko direla dirudi.

kontratutako propaganda agentziak 1937ko ekainaren lehen egunetan euskal dantza tradizionalak edo abestiak filmatzeko ikerketa txiki bat abiatu zuen. Ikerketa aurrera egin eta 1937ko abuztuaren 5ean Romney Brent aktoreari itaundu zioten proiektuaren inguruan. Ez dirudi aurrera atera zenik, nahiz eta 1937ko azarorako zine-etxeren batek Euskal ume errefuxiatuekin filma bat egiteko nahia adierazi zuen. Zentzu honetan adierazgarria da *Guernika* filma Ingalaterrara heldu baino egun bat lehenago, 1938ko urtarrilaren 27an Pariseko Paramounteko agentziari Euskal umeak grabatzearen inguruko galdeketa egiten zaiola⁶⁸¹.

Kudeaketa honen ondorengo egunean, urtarrilaren 28an helduko da *Guernika* Britainiar uharteetara eta E.M. Wright etxeko G. Spencerrek langilea arduratuko da filmari buruzko informazioa jasotzeaz⁶⁸². Pelikula heltzeko gestioak baina lehenago hasiko dira, zehazki 1937ko azarorako E.M. Wright propaganda etxeak hasiko zituen Londoneko euskal delegaritzaren eskarira filma uharteetan zabaltzeko kontaktuak. Inongo promozio eta komertzializaziorik egin aurretik Ingalaterrako zine munduan esperientzia duten aditu talde batek filma ikusteko beharra dutela adierazten dute Wrighteko langileek eta Paristik norbaitek filma ekartzea gomendatzen dute. Esan bezala, filma 1938ko urtarrilaren 28rako helduko da eta zinematografiaren munduko hainbat adituk ikusiko dutelarik. Horien artean, *Progressive Film Institute*ko Ivor Montague zegoen, zeinak filma komertzial eta propagandistikoa bilakatzeko hainbat aldaketa iradoki zituen⁶⁸³. Egindako oharra kontuan hartuta aldaketak egin zitzaizkion eta hauen ondorioz osatuko da *Euzko-Deya*. Film hau 1938ko maiatzean erakutsiko zaie berriro ere aditu talde ezberdinei. Bitartean 1938ko martxoan Montaguek berak eta *Progressive film institute*ko langile eta Montaguearen emazte zen Eileen Hellsternek *Guernika* 35mm tik 16mm pasatzeko iradokitzen die euskal agintariei. Horrela, posible izango zen laboral-liberalen 400 lokaletan emititzea, 120.000 pertsona inguruk ikusiko zutelarik. Iradokizuna ez zen bete. Ideia hau Wright agentziako G.Spencerrek ere Lizasori iradoki zion. Kino Films, prest omen zegoen 35mm tik 16mmtara pasatzeko eta erakutsiko ziren zinemak *League of Nations Union's branches, Labour party locals, Liberal Party organisations, Co-operative Guilds, and similar bodies* izango ziren. 1938 Apirilean Wright agentziak egindako erreportaian argi eta garbi adierazten du ez duela Euskal Gobernuaren erantzunik jaso honen inguruan: *No Word from Basque Government about the offer of Progressive Film Institute to take up the film*⁶⁸⁴. Ziurrenik ez zen interesatzen ez zelako dirudik egingo. Gainera, benetan interesatzen audientzia kontserbadoreen masa soziala zen.

1938ko apirilera bukatuko zuen Sobrevilak *Euzko-Deya* muntatzen. Parisen maiatzaren 4ean erakutsi ostean maiatzaren 5erako igorriko dio Iralak Lizasori. De Pablok dioenez, Sobrevila Londonen izan zen maiatzaren 13 eta 23 bitartean. Tarte horretan, kontratatutako agentziak *Euzko-Deya* eta baita *Elai Alai* filmen hiru emanaldi antolatu zituen. Hiru taldetako adituak hartu ziren kontuan. *propaganda film distributors, makers, renters and exhibitors of news, travel and foreign films* eta *“purely commercial film interests*. Inbitazioak bidali eta hiru emanaldi eman ziren. Lehendabizikoa maiatzaren 16an. Bertan izan ziren, Seligman (Spanish

⁶⁸¹ EAH.EG.LD:S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:297/05: Nota (1937-06-01): *Preliminary investigation of the possibilities of filming Basque folk dances or folk songs, either through one of the News Reel companies or by private contract// Approach the English Folk Dance society to suggest a visit by experts to an especial demonstration of Basque dancing. To get permanent record of the dances and to compare similitudes/dissimilitude*. Ikus de Pablo, (2006) 168 Nota, (1937-08-05) Set enquiries on foot for contacting Romney Brent, a film actor, who is of Basque extraction” Nota (1937-01-07) *Paramount have been approached in Paris re-film of children*

⁶⁸² EAH.EG.LD:S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:297/05

⁶⁸³ de Pablo (2012), 48-9 Ivor Montaguek *Behind the Spanish lines* (1938) pelikula grabatu zuen, non Bartzelonan kokatuta dagoen Euskal Gobernuaren buruzko egunerokoa erakusten duen. EAH.EG.LD:S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Spencerrek Lizasori (1938-03-06) eta Report april 1938

⁶⁸⁴ EAH.EG.LD:S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:297/05 Nota 1938ko apirila

Earth sales managerra), Riley (*Techinque Film Ltd.*), Grahan (*Ace Filmseko* editorea) eta Thornton (*English Folk Dance and Song Associationeko* kidea). Bigarrena maiatzaren 18an. Burton (*Unity Films Ltd.*ko zuzendaria) eta Granville (*Kino Films Ltd*) bertaratu ziren. Azkenengo emanaldia, maitzaren 19an izan zen. Ivor Montaguek (*Progressive film institute*) ikusi zuen filma, *March of Time* enpresa Estatu Batuarren Londoneko korrespondentsala Edgar Ansteynekin batera. Hiru emankizunetan Ramon Sota, Sobrevila eta Wrighteko ordezkari bat, ziurrenik Spencer, izan ziren. Aditu guztiek aho batez adierazi zieten ez *Euzko-Deyak* ezta *Elai Alai*ek ez zutela, Britainiar audientziari dagokionez, film komertzialak izateko aukerarik. Komertziala ez izateko arrazoi nagusia, erakutsitako irudiak nahiko ezagunak zirela zen. Gainera, *human touch* delako intimitatea falta zutela adierazi zioten Sobrevilari. Hala ere, bazegoen Ingalaterran filma zabaltzeko beste aukera bat. 16mm zintara pasa ezkeren NJC edota *English Folk Dance and Song Associationek* antolaturiko diru bilketak egin zitezkeen, nahiz eta diru hori elkarte horientzat izango zen, Euskal Gobernuak dirudik ikusiko ez lukeelarik.⁶⁸⁵

Egindako erakustaldiak nahiko emaitza kazkarrak eman bazituen ere, hainbat iradokizun jaso zituen filma ikustera gerturatu zirenen eskutik. Gehiengoak erakutsitako materialarekin zuen zer ikusia. Philip Thortonek £20ren truk dantza euskaldunei buruzko dokumental bat eginez dirua irabaz zitekeela uste zuen. Bestalde, Grahanek proposamen interesgarri bat luzatu zuen. Euskal Gobernuak materiala utzi eta *March of Timeko* langileek monografiko bat muntatzeko aukera hain zuzen ere⁶⁸⁶. Era berean, Montaguek ikusitako materialarekin £150tan bi zinta munta zitezkeela esan zien. Bata dantzaren ingurukoa. Bestean dantzak sartuko baziren ere, Euskal Herriari buruzkoa izango zen. Bertan Euskal paisaien irudiak eskaintzearekin batera Gerra Zibilari buruzko informazioa txertatzeko aukera izango lukete. Arrakasta izan ezkeren, gehienez £70-80tako diru sarrerak izango zituztela kalkulatu zuen⁶⁸⁷.

Grahanek egindako proposamenarekin zer ikusia zuen beste aukera bat sortu zen. Sobrevilak Parisen Euskal Gobernuak esku artean zituen zintei buruz hitz egin zien eta *Gaumont British Picture Corporation Ltd.* eta *March of Time Ltd.*-ko ordezkariari. Euskal Gobernuak zine sekzioak bere esku zituen zintak bi korporazio horiei eskaini zizkien. Etxe hauetako Parisko ordezkariak materiala ikuskatzera joango zirelakoan gelditu ziren. Azkenean *Gaumonteko*, Howard jauna besterik ez zen interesatu. Howardi 1938ko uztaileko film guztien zerrenda bat pasako zioten eta abuztuaren 4an zerrenda jaso eta Parisko ofizinetara igorri dutela erantzungo die *Gaumont* etxeko langileak⁶⁸⁸. 1938ko irailean negoziazio batzuen berri badago ere, ez dirudi ezertan mamituko zenik⁶⁸⁹.

Euskal Gobernuak Britainia Handian aurrera eramandako politika audiobisuala nahiko kaskarra izan zen. Azken finean, ezarritako helburuak ez ziren inolaz ere bete. Sortutako hiru pelikula nagusiak ez zuten arrakasta komertzialik eskuratzeko aukerarik izan eta beraien irisgarritasun propagandaistikoa oso eskasa izan zen. Emanaldi pribatu gutxi batzuk besterik ez baitziren eman. Gainera, ildo honetan egindako iradokizunak, besteak beste, 1938ko martxoan egindakoa

⁶⁸⁵ EAH.EG.LD:S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:15 L:299/02 Elai Alai and Euzko-Deya

⁶⁸⁶ de Pablo (2006), 161-2 de Pablo Sobrevilaren txosten bat jarraitzen du, eta honek adierazitako iradokizunak oso optimistak dira E.M. Wright etxeak egindako erreportaiarekin alderatu ezkeren

⁶⁸⁷ EAH.EG.LD:S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:15 L:298/02 Report on Showing of films (1938-05-19).

⁶⁸⁸ Anasagasti *et al.* (2019), 236 De la Sotak Iralari (1938-07-11) *Esperamos con verdadero interés a que Sobrevila nos mande con la mayor urgencia la lista completa del material con que cuenta. Esta lista hemos quedado en entregársela a Mr. Howard, de la Gaumont British Corporation Ltd. Quien después de estudiarla, mandará a algún representante suyo a París, a ver el material que le interesa. A este Sr. Le interesó mucho la idea de hacer una película completa y corta, de la vida del Pueblo Vasco, haciéndolo con el material con que cuenta el Sr. Sobrevila, metiendo algunos trozos de valor político.* EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:297/05: Nota (1937-08-05)

⁶⁸⁹ de Pablo (2006), 162

erantzunik gabe geratu zen. Badirudi, Sobrevilak pentsatzen zuen bezala Euskal Gobernuak ez zuen behar besteko atentziorik jarri filmen zabalkuntza edo gutxienez, bestelako intentzioak (ekonomikoak) zituen ez zitzaion propaganda hutsa bakarrik interesatzen kanal honen bidez.

13. BIZKAIRAKO BIDAIAK: POTESKIN BIDAIAK?

Gerra turismoa edo turismo politikoa bezala ezagutzen diren bidaiak propaganda egiteko beste kanal bat izan ziren Gerra Zibil garaian. Beren herrialdeetan entzute edo karisma handiko pertsonaiak ekarri eta benetako gertaerak lehen pertsonan ikusi ostean hark ikusitakoa bere herrialdean kontatzean zetzan propaganda mota honek. Erresuma Batua da pertsonaia eta turista gehien bidali zituen herrialdea. Nolabait herrialde hartan norbait zerbaiten testigu izanak, *eye-witness*, autoritate maila bat eskaintzen zion irakurleen aurrean⁶⁹⁰.

Errepublikaren alde lerratu ziren hiru administrazioak, Valentziako gobernuak, Generalitateak eta Euskal Gobernuak⁶⁹¹ esfortzu handia egin zuten bisitariak erakartzeko. Era berean, estuki monitorizatzen zituzten kanpoko komisio guztiok. Uneoro, agente bat zegoen bisitariekin eta oso zuzendutako bidaiak ziren. Aldez aurretik erabakita zuten zer ikusi, nora joan eta zein informazio eskaini. Euskal Gobernuaren kasuan, Bruno Mendigurenen departamentua arduratzen zen bisiten kontrolaz. Bisitarien kontrolaren ardura zuen agenteetako bat zen Julio Sarasua. 1937ko apirilaren 29an, Gernika bisitatzera joan behar zen Georges Perniardekin. Azkenean Esteban Urkiaga *Lauxeta* joan eta biak atxilotuta bukatu zuten. Ezaguna da *Lauxateren* patu zitala⁶⁹².

Arnold Lunn katoliko britainiarrak Errepublikaren aldekoen lurraldera egindako bidaiak Poteskin erakoak balira kalifikatuko ditu. Poteskin egia ezkutatzeko Errusia komunistan erabiltzen ziren propaganda bidaiei zeritzen. Ez da ahaztu behar, Llundun frankista sutsu eta katolikoa bi aldiz izan zela Espainian. Hortaz, ezberdin antolatzen baziren ere, nazionalak ere erabiliko zuten propaganda bide hau. Luis Bolinek 1938ko otsailetik aurrera *Servicio de Nacional de Turismo*ren baitan antolatu zituen *Gerra Bideak* osatzean sistematizatuko ziren. Beste bandoak bezala beti zituzten gidariak ondoan⁶⁹³. Besteak beste, Neville Chamberlainen ezkonarriba eta ez interbentzioko azpi-batzorde iraunkorreko idazkari zen Francis Hemmingek bisitatu zituzten⁶⁹⁴. Zati honetan, laburki bada ere, 1937ko ekainaren 19 arte euskal lurraldeetara

⁶⁹⁰ Lekuko britainiar eta anglosaxoiak sinesgarritasun handiagoa zutela Southword (2013)

⁶⁹¹ Garcia (2006)

⁶⁹² Ahotsak.eus AN-107/005 Julio Sarasua. *Ni nintzan eurokin juateko.[lauaxeta eta Perniard] Eta 'Gudari'ko redakziñotik esan esaten... (...) Gran Vía 41 zan redakziñua genkaguna. Eta eskillarak jeisten giñala esan estan [Lauxetak]: "Aizak, Julio, Gernikako argazkiak eta?". Esan nesan: "Ez -gure fotografia Garai zan-, ez dogu etara. Bildurtu egin zan eta ez dittugu etara". Orduan esan estan: "Bueno, juan hari Carlton-era, hotelera -han zeon Lehendakaritza- eta Bruno Mendigureni eskatixuaz argazkixak". "Relaciones Exteriores" zan Bruno Mendiguren. Eskatu niozen. Juan nintzan hara eta nik esan nion: "Aizu, baiña Gernikara ez noia zurekin?". Eta: "Ez, ni juango nok kazetari fransesak". "La petite de Gironde" kua zan kazetarixa. Eta txoferra zan hamen Rigoitiakua, Rique. Eta gu zain eta zain eta zain arrasalde guztian. Eta halako baten, illuntzian, agertu zan Rique. Eta esan nesan: "Lauaxeta nun dagok?". Eta: "Prisionero jausi dittuk". Eta: "Zelan?". Berak esan eskun zelan izan zan: kotxiakin [heltzera] Gernikara eta dana apurtuta zelan zeon, ba, kotxia utzi zuten eta txoferra, ba, sarreran. Aitzen dozu? Eta Lauaxeta sartu zan kazetarixakin, ba, Gernikara, erakusteko Junten Etxia eta dana. Hemen https://ahotsak.eus/eibar/pasarteak/ab-107-005/ (2022-09-1)*

⁶⁹³ Larrinaga (2022) Bost bide pentsatu eta hiru bide erabili ziren. 1938ko uztailetik Aurrera inauguratu ziren Iparraldeko bideak. Euskal lurraldeetan 1101 km-ko Donostia-Oviedo (Irún, San Sebastián, Santander, Covadonga, Oviedo, Bilbao, Irún.) antolatu zen. £9 edo 400 Pesetako kostua zuen bide honek. Orokorrean, dibisa asko ez baziren lortu ere, 8.000 turista pasatxo etorri ziren. Britania Handiko 13 agentzia turistiko aritu ziren lanean, eta propaganda ona izan zen. Martin (2022) Bideen funtzionamendua azaldu ostean, Errepublikarrekin alderatuz, nazionalak bi elementuak propaganda eta turismoa inbrikatzea lortu zituztela diosku, errepublikarrak ez bezala, zeinek lehendabizikoa lehenetsi zuten.

⁶⁹⁴ CDMH, INCORPORADOS 1499 *Lady Chamberlain viuda Sir Austin Chamberlain recorre ruta Guerra España encuéntrase esta ciudad visitando huellas barbarie destrucción marxista haciendo elogios contraste bienestar espana*

etorritako bisitari bidaiak aztertzea izango da. Egiatan, ez ziren asko izan, eta batik bat, Canterburyko denaren bisita aztertuko da.

FOek, Henry Chilton Donibane Lohitzüinen ezarri zuen enbaxadarekin elkarlanean saiakerak egin zituen propaganda helburuekin egindako bidaiak eragozteko. Ez interbentzio zorrotz baten izenean, 1936ko azarotik aurrera bisitariak ekidin edo gutxienez, deklarazio bat sinatzera behartzen zitzairen, alderik hartu ez eta iritzi politikoak egingo ez zituztela sin eginaraziz. Hain deklarazio anbiguorekin ez zen zaila berau saihestea, hortaz, 1937ko martxorako, negozio, lan humanitario eta fede oneko kazetariei bakarrik murrizteko helburua zuten, baina iritzi publikoak FOk halako erabakiak ezartzea eragotzi zuen. Ondorioz, bisitariak konfliktoan parte hartzea eragotzi eta gertu dauden eremuak saihesten saiatuko dira, erabat lortuko ez badute ere. Kasu honetan ere, askoz ere gogorragoak izango dira Errepublikaren lurraldera zuzentzen ziren bidaiariekin⁶⁹⁵.

Jose Inazio Lizasoren iritziak, atzerritar korrespontsalak bidaliz egingo da propaganda efizienteena. *ya que sus impresiones serán más tarde reflejadas en la Prensa*⁶⁹⁶. Lizaso eta Agirrereren ustez, errealtatea ikusi ostean, konbentzitu egingo zituzten Euskal Gobernuaren jarrera zela egokia eta modu horretan idatziko zuten Londoneko prentsan. Otsailaren 11erako dagoeneko sei korrespontsal bideratu zituen Euskal lurraldea bisitatzera Lizasok. Askoz gehiago izango ziren azkenean. Erresuma Batutik Euzkadi bisitatu zuen ia pertsona orok Lizasoren abalarekin egin zuen. Zentzu honetan, George Steer kazetaria aipatu behar da. Leah Manning bera eta *Basque Childrenak* bilakatuko zirenak artatzera abiatutako mediku eta erizainak ere bere bermeaz igaro ziren Bizkaiko eremura.

Euskal lurraldeak bisitatu zituzten komisio politikoak ere goiko paragrafoan aipatutako prozesu berdina egin behar izan zuten. Adibidez, Gernikaren bonbardaketaren ostean, bonbardaketaren inguruan frogak biltzera etorri zen komisio laboristak eta baita Canterburyko deanak zuzentzen zuten komisioa Lizasoren bidez sartu ziren Euskal lurraldean. Itsasoz edo *Air Pyrenees* bidez ezarritako hegaldiak ziren Euzkadi autonomora heltzeko modu bakarra. Esan bezala, Lizaso gogor aritu zen interesa zitekeen edozein pertsona edo batzorde bidaltzeko. Horren adibide da jarraian kontatuko duguna. 1937ko urtarril bukaera eta otsailean zehar eliza anglikano batzorde batek bisitatu zuen Espainia eta, alferrik izan bazen ere, beraiek Euzkadira bidaltzeko eginahalak egin zituen.

Nazioen ligan kontaktuak zituen Henry Brinton abokatua eta Percy Bartlett kuakeroaz gain, anglikano talde bat Espainiara zetorren. Rochester (Dr. Francis Underhill) eta Chichesterreko (Dr. A.S. Duncan Jones) deanarekin batera izan ziren Philipip Usher, Gloucesterreko artzapezpikuren ordezkaria, eta Henry Carter, metodista. Urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra bitartean aritu ziren eremu errepublikarrean, eta otsail erdialdera argitaratu zen txosten

nacional con rastro destrucción de hordas marxista su paso (1938-08-31) Desde Oviedo (a Lady Chamberlain) acompañala Señor Merry de Val representando ministro interior (...) invitada por esposa generalísimo Franco tomar en Pazo Miras hoy realiza excursiones por rías gallegas en todas poblaciones visitadas recibió grandes demostraciones respecto afecto (1938-08-02). Lady Chamberlain e hijo llegaron ayer san Sebastián terminada excursión turística España nacional en San Sebastián visitaron exposición guerra extranjero capturado a marxistas seguidamente marcharon a zumaya residencia ilustre pintor Ignacio Zuloaga quien organizo exposición cuadros Londres beneficio comité filantrópico lady Chamberlain acompañados Merry del Val siguieron viaje hasta frontera (1938-09-11); CDMH, INCORPORADOS, 1500. Esta mañana llegó Hemming secretario comité NO intervención puente Irún recibido diplomático Merry Val trasladaronse San Sebastián visitando detenidamente exposición material Guerra Cogido Rojos obsequiado salió Bilbao visitando ciudades furia roja Bilbao cena ofrecido alcalde (1938-10-11)

⁶⁹⁵ Garcia (2008), 97-8

⁶⁹⁶ SAF-DP-1184-08

erlijiosoaren egile dira. Hasiera batean Bilbo, Bartzelona eta Madril bisitatzeko intentzioa zuten, bildutako informazioarekin eliza anglikanoak osatutako batzorde bati erakusteko asmoz. Batzordean Yorkeko artzapezpikuak eta Bradford, Ripon, Corydon eta Southwelleko apezpikuak osatzen zuten. Lizasok Bilbora eramateko eginahalak eta bi egin bazituen ere, ez zen nahikoa izan eta Madril Bartzelona eta Valentzian bakarrik izan ziren. Bilbo bisitatzeko nahi handia erakutsi zuten. Erantzun antiklerikalik izateaz gain, isolatua zegoen eta *no English journalist have been able to make any report on the conditions*. Zoritxarrez, erabilgarri zegoen *Air Pyrennesetako* hegazkina apurtu zenez, Frantziako Tolosan zain egon ostean etxera bueltatu ziren. 196 libra gastatu zituen espainiar enbaxadak bidaia antolatzen. Hala ere, merezi izan zuen. Errepublikarrentzako benetako propaganda izan baitzen. Estatu ministerioko buru zen Del Vayo sozialista, Hernandez hezkuntzako ministro komunista, Garcia Oliver justizia ministro anarkista eta Manuel Irujoekin, karterarik gabeko euskaldunen ordezkaria zen ministroarekin elkarrizketatu eta idatzitako txostenean Errepublikarren aldetik sarraskiak izan direla adierazi arren, elizaren aurkako *godless propagandarik* izan ez dela dio, anti-klerikalasuna bi gauzen ondorio izan dela justifikatuz. Alde batetik, jendearen kartsutasunari egozten dio. Bestetik, erre eta apurtu diren eliza guztietan armak zeudela. Hurrengo hau jartzen du klerikoen hilketaren inguruan *unless the parish priest was actively unpopular he was not killed by his own people*. Ateratako ondorioek izan zitzaizketen konnotazio positiboaz erausi eta gogor kritikatu zuten agerkari kristauak. *Mornig Post* aristokratak txostena agertu aurretik kritikatu zuen. Baita gero ere. Ez zuten onartu errepresio erlijiosoaren zama katolikoengan jartzea. Britonek txostena erabiliz, gobernu britainiarra kritikatzeko du.⁶⁹⁷

Aurrekoa ez bezala, Bizkaira etorri zen Hewllet Johson, Canterburyko deana, buru zuen batzordea. Bederatzi kideko batzordea zen. Canterburyko deanaz gain, Monica Whately, Londoneko laboristen buruetako bat; Mrs. Beer emakume katolikoa; eliza askeko John MacMurray irakaslea eta D.R. Davies; eta Kenneth Ingram, Iredall, Olga Levertoff eta Hannah Laurie anglikanoak osatzen zuten espedizioa. Zati bat besterik ez zen izan Bizkaian. Paristik Bartzelona eta Valentziara abiatu ziren bi bikote. Besteek, Bilbon amaitu zuten: Caterburyko deana, Whateley eta Beer andereak eta MacMurray eta Daviesek. Errebeldeen propaganda egiazkoa zen ala ez zehaztea zuten jomuga.

Hasiera batean, FOk Bilbora etortzea eragotzi nahi izan zien, baina sortu zen eskandalu mediatiokari eskerrak posible izan zuten Espainiara bidaiatzea. 1937ko martxoaren 29an igarobidea onartuta bilbora abiatu ziren. Whatelyk dioen bezala, zorion edo zoritxarrerako, Durangoko bonbardaketaren lekuko izan ziren. Hortaz, eskuratu ahal izan zuten informazioa borobiltzeko askoz ere interesgarriagoa izan zen bidaia zen Whatelyren iritziz. Goian esan bezala, uneoro zaindu zuten euskal agintariak egiten ari zirena. Siesta txiki batez salbu norbait izan zuten alboan denbora guztian. Batzordeak argitaratutako txostenean zibilen bonbardaketak gaitzestearekin batera, euskal lurraldeetan normaltasun zibil-erlijiosoa nabari dela zehazten dute. Gainera, Irujoekin izandako elkarrizketa txiki batean Euskaldunok Errepublikak sortutako duen espainiartasun berrian zer esana izango dutela aipatzen du⁶⁹⁸.

Canterburyko aipazaren batzordeari bere egonaldiaren xedean laguntzeko Bruno Mendigureni hainbat argazki eta dokumentu prestatzeko aginduko diote. Hala argazki kolekzio ezberdinak bildu eta eskainiko dizkie Mendigurenek batzordeari. Horietako batzuk Gollanczek

⁶⁹⁷ Report of a Group ... (1937) *The Daily Telegraph* (1937-01-22) *Citizen* (1937-02-20) *The Times* (1937-01-30) (1937-02-04) (1937-02-09) *Manchester Guardian* (1937-02-05) *The Morning Post* (1937-02-09) (1937-02-16) *The New Statesman* (1937-02-28).

⁶⁹⁸ CBDG 18 FO 371/21390 W 6392; *Manchester Guardian*, (1937-03-31); Report of a recent ... (1937). ;*The new statesman* (1937-04-17) *Manchester Guardian* (1937-02-26)

argitaratutako txosteneko argazkiak izango dira ziurrenik. Era berean, Euskal Gobernuak sortutako txosten ezberdinak ere prestatu eta interesatzen zaizkienak emateko agindua jasoko du Mendigurenek: Erromari aurkeztutako dokumentuen kopiak, trukeei eta gerraren humanizazioari buruzko txosten eta panfletoak...⁶⁹⁹

Canterburyko deanaren bisita Euskal Gobernuari ez ezik, Errepublikaren propagandari izpi berriak zekarzkie. Bai batzuek, zein besteek bazekiten gatazka Ingalaterran jokatzen zela. Erreferentziatzen ari garen txostena bezalakoek iritzi publikoa bereganatzeko bidea errazten zuten. Julio Del Vayo Estatu ministroak, Parisko enbaxadore zen Arakistaini hala diozta⁷⁰⁰:

No; en mi opinión todo lo que quepa sacar de la política internacional para nuestra causa, hay que obtenerlo en Paris y en Londres, y en Londres más que en ningún otro sitio... Hay que ganar Londres a toda costa (...) De una parte sacudiendo a la opinión pública en todos los sectores, y en ese aspecto la visita de la delegación eclesiástica británica ha sido un acierto insuperable. De otra llamando constantemente al interés brutal y egoísta del British Empire.

Interes hori, Frantzia, Errusia, Txekoslovakia eta Errepublikaren arteko laguntasunean egituratzeko beharraz bukatzen du gutuna.

Ikusi dugun bezala, Canterburyko deana eta Gernikaren inguruan zer gertatu zen argitzeko etorri zen batzorde laboristaz salbu ez zen apenas talde handiagorik etorri Euzkadira. Kazetariez eta hornikuntza ontzietako kapitain eta eskifaiaz gain, NJCan inguruan lan humanitario gauzatzen zebiltzan pertsonaien bat edo beste besterik ez zen etorri. Azken hauek, Leah Manning, anbulantziak ekartzera, eta *Basque Childrenak* erbesteratzeko umeen osasuna egiaztatzerako etorri zirenak ziren. Pertsonaia hauen istorioak eta elkarrizketak erabiliko ziren Ingalaterran propagandarako, baina, Errepublikarekin alderatuz, baita nazionalekin ere nahiko bisitari gutxi izan zituzten. Lurraldearen isolamenduak zer esan handia izango zuen kopurua horren baxua izateko.

14. EUSKAL FRENTE KULTURALA: ERESOINKA ETA EUZKADI

Ernest Gellnerren hitzetan nazionalismoa kulturari izaera politiko bat aitortzeko saiakera da⁷⁰¹. Gerra Zibil garaian, Euskal Gobernuak, eta hein handi batean bere kide jeltokideak, kultura are gehiago politizatu eta adituek euskal fronte kultura izendatu duten inizatiba multzo bat abiarazi zuten. Multzo honen barruan barnebildu ditzakegu, bai Eresoinka abesbatza zein Euzkadi futbol taldea. Hurrengo paragrafoetan, fronte kultural honetako bi egitasmo horiek Britainia Handian izan zuten jarduera aztertuko dugu. Saiakerak egin arren, futbol taldeak ezin izan zuten Ingalaterran jokatu. Koruak berriz, 1938ko ekainaren 13 eta uztailaren 2 bitartean, 24 emanaldi eskaini zituen *Aldwych Theatren*. Zinemaren kasuan ikusi dugun bezala euskal kasua lau haizetara zabaltzeaz gain, errefuxiatuentzat dirua eskuratzeko helburua zuten egitasmookin. Euskal agintarien atsekaberako, ez zen inolako errenta adierazgarririk eskuratu bide hauetatik.

Esan bezala, kultura are gehiago politizatu egin zen 1936-1939 bitartean. Gernikako zinaren ostean, Euskal Gobernuak martxan jarri zenean, Justizia eta Kultura departamentua Jose Maria Leizaolaren esku geratu zen. Boterera heldu bezain pronto benetan programa kultural handinahia abian jarri. Folkloreari lotutako aholkularitza bat jarri zen martxan eta hezkuntzari loturiko inizatiba ezberdinak abiarazi ziren. Euskal Unibertsitatea eta Euskal eskolak esaterako. Egia esan, folklore aholkularitzaren helburua hezkuntzari hertsiki loturik zioan. Hurrengo hau

⁶⁹⁹ EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría. L:18/05 Lehendakariatzako Idazkaritza Nagusiak Bruno Mendigureni (1937-04-03)

⁷⁰⁰ AHN, Diversos-Araqistain 23, 121 Del Vayok Araquistaini (1937-04-09)

⁷⁰¹ Gellner, (2009), 58

zen bere funtziotako bat: *la recopilación (...) de las danzas, juegos y canciones tradicionales de Euzkadi, y seleccionar las más adaptables a la Educación Física Escolar*⁷⁰².

Bilbon ez ezik, erbestean antolatu ziren aterpetxe eta kolonia ezberdinetan EAJk saiakera ugari egin zituen *euskaldunak* eta *bestelako* euskal biztanleak ez nahasteko. Horrela, milaka urteko euskal eredu kulturala munduari erakutsi nahi zitzaion. Euskal bereizgarritasuna mantendu eta erakutsarazteak hautu politiko eta propagandistiko garbia ezkututzen zuen atzean: Euskal singularitatean ideia saltzea hain zuzen ere. Ezberdinketa hauek egiteko beharrarekin batera, diru iturrien eskasia eta euskal kasua munduan zehar zabaltzeko beharra agertu ziren gerrak aurrera egin ahala. Bilbo erortzean, are premiazkoagoak bilakatu ziren behar horiek. Horrela, hainbat inizatiba abiarazi ziren. Guk hemen, Euzkadi futbol talde eta Eresoinka aztertuko baditugu ere, ez ziren bakarrak izan. Elai Alai korua eta 1937an Jose Maria Uzelaik 1937ko Parisko Nazioarteko Erakusketan Espainiar Errepublikaren pabiloiaren barruan komisariatuturiko erakusketa ere kontuan izan behar dira.

Ingalaterran eta Irlandan, euskal kulturarekin loturiko banakakoren batek emankizunen bat emateko asmoen berri ere badugu. Diogenes Eguileorrek, Manuelen Eguileor ezagunaren anaia, Euzkadiko Gurutze Gorriarentzat dirua biltzeko kontzertuak emateko asmoa zuen. 1937ko maiatza eta ekain aldera Ingalaterrara lehendabizi eta ondoren Irlandan *tourneé* bat egin nahi zuen.⁷⁰³ Aurretik, Eguileorri Bruno Mendigurenek, propaganda sekzioaren arduradunak, Bilbotik ateratzeko igaro-bide bat eman zion. Bertan adierazten zenez, *euzko-ertija zabaldu ta Euzkadi ren GURUTZ GORIJA rentzat sorospidia lortutearen. Atzeriajan ertitar ekitaldija betetia EGILEIR TAN DUGEN i ardurateu deutso*⁷⁰⁴. Ez dakigu bere helburua bete zuen.

Euzkadi futbol taldea

Kirol ikuskizunak Gerra Zibil hasieratik erabili ziren atzeguardiako morala altu mantendu eta dirua eskuratzeko. Gipuzkoan Eibarko Defentsa batzordeak 1936ko irailak 6an Eibarko Fronte Popularrak Elgoibarko Lerun futbol zelaian futbolari ezagunez osatutako bi talderen arteko norgehiagoka antolatu zuen. Partida honen kronikan, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arteko norgehiagoka bat iragarri zen irailaren 20rako⁷⁰⁵.

Bilbon ere hainbat partida jokatu ziren. Euskal selekzio batek 1936ko abenduan dirua biltzeko asmotan Kantabria eta Asturiasen aurka jokaturako bi partidaren berri dugu. Partidu politikoen arteko partidak ere jokatu ziren. EAJ eta EAE hiru aldiz aritu ziren nor baino nor gehiago. Nabarmenena 1937ko otsailaren 7an jokatu zena, *pro-avión Euzkadi* izenpean. 20.000 lagun inguru bildu ziren eta Jose Antonio Agirre, lehendakaria, eta bere kontseilariak dirua eskuratzear gain, propaganda bainu ederra hartu zuten partida hartan⁷⁰⁶.

Partida horien arrakasta ekonomikoak bultzaturik, euskal auzia mundura zabaltzeko asmotan martxoaren 30ean Bizkaiko Futbol Federazioak baimena eskatu zion Espainiako Futbol Federazioari Parisen *tourneé* batean parte hartzeko⁷⁰⁷. Ricardo Irezabal, Pedro Vallana eta

⁷⁰² Sebastian (2001), 120

⁷⁰³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01 Marcelino Agirrezabalak Lizasori (1937-05-14)

⁷⁰⁴ EAH.EG.LD.Se:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:75 L:17/01

⁷⁰⁵ *Frente Popular* (1936-09-6) (1936-09-9)

⁷⁰⁶ Sagarna (2022)

⁷⁰⁷ EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría.V. 300 L:18/05: *Delegacion propaganda ocupese tournee football (...) Kid Tunero pide diez mil francos más gastos de viaje estancia él y manager para boxear Pinedo Bilbao diecinueve abril stop Jeff Dickson iría Bilbao tres cuatro días antes y haría propaganda si pagamos gastos viaje estancia*

Melchor Alegriak osatuko komisio batek osatu behar zuen taldea. Manu Sota jeltokidea arituko zen taldearen ordezkari politiko gisa⁷⁰⁸. Selektzioa osatuko duen gehiengo zabal bat sortu berria zen Ertzaintzakoak ziren. Hortaz, EAJren oso gertuko jokalariak. Anekdotak bezala, jokalari horiek gerraren hasieran Getxon Britaniako ontziteriako V. flotaren selektzio bati sekulako jipioa eman zioten, 11-0 irabaziz. Luis Ortuzarrek antolatu zuen partida hau⁷⁰⁹.

Euskal Gobernuaren fronte-kulturalaren parte izango den Euzkadi taldeak estreinakoz 1937ko apirilaren 26an jokatuko du Parisen. Gernika bonbardatzen ari ziren bitartean, 3-0 irabaziko du estreinako partidari. Pragan, Polonian, Sobietar Batasunean eta Norvegiar ibili ostean, eta behin Bilbo erorita, Mexikon, Txilen eta Kuban arituko ziren, munduan zehar euskal arazoa zabaltzeaz gain, euskal errefuxiatuentzat dirua biltzeko helburuz. Esan ohi izan denaren aurka, ez da zinez selektzio bat izango, talde bat baizik. Seguraski, FIFAREN politikaren aurka ez joateko hartutako neurria. FIFAREN politikan estatu bakoitzak selektzio bakarra izan dezakeela dioskuna hain zuzen ere. FIFAK presio egin zuen behin eta berriz euskal konbinatuaren aurka. Esaterako, 1938ko martxo eta maiatza bitartean taldeak Argentinan zituen konpromisoak ezin izan zituen bete. Futbol erakundeak ez ziren Argentinako klubei baimenik eman partidak jokatzeke. Kontu honetan Argentinako barne ministerioak ere zer esan handia izango zuen. FIFAK eta Argentinako ministerioak ezarritako hesien ondorioz, diru galera ederra eragin eta taldeak ia porrot egin zuen. Horrez gain, talde barneko tentsio pertsonal eta politikoak nahasturik taldekideren bat edo beste Espainiara itzuli edo Argentinan geratzera eramanez⁷¹⁰.

Talde honen azken abentura Mexikoko Ligan izango da, *Club Deportivo Euzkadi* izenpean arituko baitira 1938-9 denboraldian. Nahiko denboraldi itxurosoa egin zuten, azpitxapeladunak izan eta inpresio bikaina eskainiz. Ikerlari batzuek, taldearen partehartzeak Mexikoko profesionalizatzearen aitzindari eta bultzatzaile izan zirela diote⁷¹¹.

Taldea osatu bezain pronto, 1937ko apirilean, jarri zen Londoneko hainbat talderekin harremanetan Ramon de la Sota McMahon. Tottenham Hotspurrek *por falta de fechas*, eta Chesleak eta Arsenalek *por encontrarse de gira por el continente* ezin izan omen zuten adostu partidurik jokatzeke. Euzkadi taldea Ingalaterrara eramateko saiakerak aurrera egiten ez badute ere, Ameriketara zehar taldearen emaitzak Wright agentziaren bidez zabaltzeko agindua jasoko du 1937ko abenduan Lizasok Agirreraren bidez⁷¹². Mexikon zenbiltzan orduan.

1938ko ekainean Chelsearekin ongintzazko partidu bat jokatzeke saiakera egin zuen Manu Sotak. Egiatan, bitartekari bezala E.M. Wright agentziako langile den Robert Hawesek egingo zuen eskaera⁷¹³. Kasu honetan ere ezezkoa gailendu zelarik. Erantzunean argi eta garbi adierazten zen *Football Associationek* (FA) betoa jarri ziola⁷¹⁴.

Ikusi dugun bezala, FA ez da Euzkadiren jarduna oztokatzen saiatu zen erakunde bakarra. FIFAREN presioak eta Argentinako Ministerioarenak Argentinan hitz hartutako sei partida bertan behera uztera eramango zuen taldea. Kasu honetan ere, debekuen berria prentsan zabaltzeko beharra azaltzen dio Agirrek Lizasori⁷¹⁵.

⁷⁰⁸ Estomba (2007)

⁷⁰⁹ EAG.LO.L:62 *En Ertzaña había diez de los once del equipo de España así que no necesitábamos mas que buscar un guardameta.*

⁷¹⁰ Estomba (2007)

⁷¹¹ Zamora (2010)

⁷¹² EAH.EG.LD.S:Delegaciones.En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01

⁷¹³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones.En Londres Se:Lizaso V:300 L:297/05 Nota 8th June

⁷¹⁴ Anasagasti *et al.* (2019) 238

⁷¹⁵ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/910Agirrel Lizasori (1938-04-07)

Ingalaterran inoiz partidarik jokatu ez bazen ere, taldea sortu zenean, helburua Ingalaterran eta Dublinera eramatea zen. Partidez gain, eta Parisen egin bezala, arte ederretako sekzioak erakusketa kultural bat antolatu nahi zuen, 150 koadro, 25 busto eta Tomas Meaberen eskolen argazkiak erakusteko asmoaz⁷¹⁶.

Eresoinka⁷¹⁷

Eresoinka abesbatza, dantza talde eta orfeoi batek osatutako elkarte da. Gerra garaian fusilatutako Esteban de Urkiaga, *Lauaxeta*, euskal poetak sortutako ele batean du oinarria: ere (doinu, musika) oin (oina) eta ka (-ren ekintza). Eusko Jaurlaritzak euskal propaganda mundu osoan zabaltzeko abian jarritako iniziatiba hau 1937ko abenduan hasi eta 1938 bukaeran desegingo da. Arrazoi nagusia ekonomikoa izango delarik⁷¹⁸.

Eresoinkaren genesia Bilbo erori aurretik Agirrek eta Axuriagerrak *Coro Nacional Vasco* delakoan aurkitzen da eta bigarregoa EAJri loturiko Donostiako Euzko Abesbatzan. Hala partaidearen gehiengoa jeltokia izango da. Eresoinkaren estreinaldia Parisko Pleyel aretoan 1937ko abenduaren 18 izan zen, alabaina, abesbatzaren entseguak hiru hilabete lehenago, irailaren 18an hasiko dira Saran.

Euskadi futbol taldean bezala, Manu Sotak izango zuen Eresoinka aurrera eramateko ardura politikoa. Berau zen jaurlaritzaren komisio artistikoen buru eta Euzkadi taldean ondoan izan zuen Jose Maria Uzelaik partehartu zuen abesbatzan. Uzelairekin batera Antonio Guezala margolariak rol garrantzitsu bat jokatu du, emankizunen dekoratuaz arduratuz. Aipatutako hirukoteak, Enrique Jorda Gallastegirekin batera komisio bat osatu dute 1937ko irailean. Batzorde honek erabaki behar zuen programa eta abesbatzak egin beharreko emanaldiak. Laukote honekin batera, koruko zuzendariak, Gabriel Olaizola eta dantzen arduradunak, Jesus Luisa Esnaolak, osatu dute erabakiak hartzen zituen organismoa. Hasierako batzorde nagusi honetan parte hartzen dutenak osatu dute Eresoinkaren zuzendaritza batzordea:

- Manu Sota, lehendakaria
- Gabriel Olaizola, koruaren zuzendaria.
- Jose Etxebe, koruaren prestatzailea
- Antonio Gezala, dekoratuen arduraduna.
- Jesus Luisa Esnaola, Dantzan zuzendaria. 1938ko urrian, Leoncio Pildainek ordeztu du.
- Aurora de Abasolo. Kantuko irakaslea.

Taldearen eguneroko jardunean Pedro Maria Garate arituko zen lehendakaritzaren ordezkari gisa eta propaganda sekzioak administratzaile batzuk izendatuko ditu. Lehenengoa, Carlos Billabeitia izango da eta haren laguntzaile arituko da, Arturo Altuna.

Elkartearen genesia, 1937ko abuztuan izan zen. Euskal osteen gehiengoa (EAE eta EAJko hainbat batailok) Santoñan kapitulatzeaz zela. Olaizolak abuztuaren 19an Biarritzetik Santanderra egindako bidai batean Agirrerren instrukzioak jaso zituen mundu osoan aritu beharko zen Euskal abesbatza bat osatzeko. Hizketaldi batzuen ostean abuztuaren 23an Kantabriatik Baionara Olaizola bera eta koruko kide bilakatuko ziren hainbat pertsona ebakuatuak izan ziren, tartean

⁷¹⁶ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01 Mendigurenek Iralari (1937-03-?) Iralak Lizasori pasako dio mezua

⁷¹⁷ EAH.EG.OD.S:Contabilidad Se:Intervención General V:100 L:678/08 1938ko Abenduaren 31an idatzitako txostena erabiliko da Eresoinkaren historia egiteko: Agrupación artística vasca "ERESOKINKA"; Arana (1986)

⁷¹⁸ Badirudi Euskal aurrekontueei 996.551 Fr., hau da, £7380 inguruko gastua suposatu zizkiola Eresoinkak. de Pablo (2006), 104. Hala ere, esango nuke 1937an bakarrik gastatu zena hartzen da kontuan diru horretan. 1938ko urtarillaren letaik 1938ko otsailaren 9 arte beste 27.000 Fr gastatu ziren gutxienez. Euskal Gobernuaren aurrekontua lan zehatzago bat eskatzen dute

Gobernazioko idazkari nagusi zen Jesus Luisa donostiarra. Ebakuatuek Baionan korua abian jartzeko komisió bat osatu zuten. Olaizola eta Luisaz gain, Jose Etxabe, Serafin Lakatza, Txomin Sagarzazu eta Pedro Maria Garate. Komisió honen ardura, korua osatzea zen. Horretarako, Angelun, *Villa Endaran*, egin zituzten audizioak. Behin taldea osatuta, Sarara abiatu ziren, eta irailean zehar egituratuko da elkarteá. Saran Poste eta Maitagarria hoteletan hartu zuten ostatu eta bi hilabeteko entseguak eginda Parisa abiatu ziren. Bert, Flores, Terminus eta Perrin hoteletan hartu zuten ostatu. Santa Genoveva parrokián egin zituzten azken hilabeteán entseguak. Paris ostean Belgikara abiatu ziren (Bruselan eta Anberes). Ondoren, etorri ziren Gante, Amsterdamen, La Hagan, Hilversum, Utrecht, Haarlem, Rotterdam, aharik eta apirilean Parisa bueltatuko ziren arte. Bertan Parisko teatroán izan ziren ekain arte. Ekainean zehar Londonen izango ziren, eta handik bueltan Saint Germain-en Layen zegoen Belloyko gazteluan hartu zuten ostatu. Urtea bukatu arte, Port Mary, Baionan, Bry Sur marne, La Rosariego hospitaleán (Ilbarritz), Miarritzen, Dax, Doniban-Loitzünen, Chateau de Bellyon, Por Marly, Fontenay-sur-Siene eskaini zituzten emanaldiak.

Emankizunetan gehienbat euskal kanta eta dantzak nahastuz, helburu euskal kultura zabaltzea zuten. Halere, ez zen hau xede bakarra. Euskaldunon irudia kristautasunarekin lotzea berebizikoa zen. Horregatik, eta baita beraien benetako sinesmen kristauak artatzeko Jose Elordi kaperaua taldeko partaide egin zuten. Beste bi abade bazihozen taldeán, baina bikotea kantuan bakarrik zentra zedin hartu zen aipatu berri dugun erabakia.

Parisko estreinaldia esperotako arrakasta izan ez bazuen ere arrakastatsua izan zen. Manu Sotaren hitzak adierazgarriak dira zentzu honetan: *lo que debería de ser un éxito rotundo, no ha sido más que un buen éxito al fin*⁷¹⁹. Izandako entzutea zela eta Arnold Meckel, ikuskizunen munduan Parisko enpresari garrantzitsuena prest azaldu zen Europan zehar Eresoinkaren ikuskizuna esplotatzeko. Adibidez, Londonen egindako bidaian Meckel jaunak esangura handia izan zuen. Londonen izan zen 1938ko maiatzaren 13tik 20ra ekaineko bidaia prestatzen⁷²⁰.

Londonerako bidaia

Londonen Eresoinkak eskaini zituen emanaldiak ekainaren 13tik uztailearen 2 arte luzatuko dira. Guztira 26 emankizun. *Aldwych Theathren* izango dira horietako 24. Hiru astetan zehar arituko dira bertan. Igandetan deskantsua hartzen badute ere, asteazken eta larunbatetan saio bikoitzak eskainiz. Falta diren bi saioak Londoneko *Folklore Societyn*, ekainaren 19an eta, ekainaren 28an, *Club Leicester Gallery of Artisten* emango dira. Lehendabizikoan dantzariak eta koruak emanaldi txiki bat eskainiko dute eta bigarrenagoan dantzariak bakarrik izango dira.

Eresoinkaren jomuga propagandistikoa kontuan, ez da batere harritzekoa estreinatutako aurretik dagoeneko Agirrek Londonen aritzeko nahia izatea. Eresoinkaren bidez ezagutaraztea era dotorea dela deritzo: *Nuestra alma nacional entre en Inglaterra de esta forma fina y elegante*⁷²¹.

Agirrereren ideiak Pedro Garatek berak ere bazituen, eta 1937ko azaroan Eresoinkaren ikuskizuna Londonera eramateko saiakerekin hasi zen. Azaro hasieran Lizasori neguan zehar, 1938ko urtarrilean, *Convent Gardenen English Folk and Songs Societyk* antolatuta hainbat herrialdeetako ordezkariak festibal folkloriko bat egitekoa zela adieraziko dio. Garatek Eresoinkak bertan parte hartzeko helburua zuenez, *Cecil Sharps Houseko* Violet Aldordekin jarri nahi zuen harremanetan. Lizasok erantzun zion berak kontaktatu ezkerok, berehala bertan behera geratuko

⁷¹⁹ Anasagasti *et al* (2019), 243 Autoreek oin oharretan Pedro Garatek Agirrereri igorritako nota bat adierazten da; beraz baliteke Garatek bidalitako eskutitza izatea eta ez Manu Sotak. Ez dute iturria zehazten.

⁷²⁰ EAH.EG.OD.S:Contabilidad Se:Intervención General V:100 L:678/08

⁷²¹ EAH.EG.LD S Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02 Agirrek Lizasori (1937-11-18)

liratekeela negoziaketok. Abesbatzaren izaera politikoa argi geratuko litzateke eta. Horregatik, beste norbaitek egin beharko zituen gestiook. Abenduan zehar Wright agentzia ere jarri zen harremanetan *Convent Gardenen* ospatzekoa zen festibalean parte hartzeko; baina dagoeneko beteta zeuden eta talde batzuei ezezkoa emana zieten ordurako. Aurreko urteetako programa handinahia beharrean programa simple bat eskaini asmo zuten. Hala ere, Frantziako talde batek euskal dantzaren antzeko mugimenduak egin zituen erakustaldi hartan⁷²². Lizasok iradoki bezala, beste norbaitek ereman zituen Eresoinka Ingalaterran antzezteko ardura. Beste hori, Ramon Sota gaztea izan zen. Nahiz eta Londoneko hainbat agentzia teatralekin bildu, Sota, Marino Gamboa eta Lizasoren iritziz, Eresoinka ekartzeko saiakerak, azkenean egin zen bezala, Paristik egin behar ziren. Paristik adostu ziren kontratuak eta Parisko agentzei laguntzen besterik ez zen aritu Ramon Sota⁷²³.

1938ko apiril erdialdera Jose Maria Agirrek, lehendakariaren anaiak, Luis Ortuzarri Eresoinka Londonera eramateko komite bat osatzeko eskatu zion. Batzordea Euskaldunekin negozioko egiten dirua irabazi duten Oliver, Morgan Morris eta Gamboaren laguntza eskatzeko gomendatzen dio, £4000-5000 inguru. Eresoinkaren arrakasta artistikoa eta kritika izugarria zela eta Ingalaterran aritzea beharrezko ikusten du. Arazo ekonomikoak medio, Ingalaterran aritzen ez balira, taldea desegin eta hala propaganda aukera handi bat galduko lukete *perdiendo esta gran arma de propaganda y que sin duda en Londres nos daria a conocer perfectamente*. Ortuzarri luzatutako eskaera bete eta apilira bukaerako lotu zituen £4.000⁷²⁴. Lizasok Agirrerri idatzi zion lez, delegazioak profesionalen esku utziko zuen antolakuntza⁷²⁵:

Ortuzar ha logrado de algunos armadores un aval de £4.000 para traer aquí a nuestro grupo. Ramoncho Sota esta en contacto con su tío Manu y Garate (...) si Eresoinka viene, constituirá para nosotros una magnífica propaganda. Todos los detalles de organización lo llevarán exclusivamente profesionales sin que intervenga, para nada, la Delegación.

Behin dirua eskuan, Ramon de la Sota arduratuko zen aspektu teknikoez eta Pariseko taldearekin zuzenean berak eraman zituen kontu guztiak. Teatroa lotzerakoan arazoak izan bazituen ere, guztiak konponduko zen Arnold Meckel⁷²⁶ eta bere ordezkariak, Eugene Grunberggreek, maitaza erdialdera Londona bidaiatzean. Meckel eta bere laguntzaileak erreserbatuko zituzten Eresoinkak erabiliko zituen hotel eta hostalak, besteak beste, Osborne, Forty Six Hotel eta Galsdworthy hotel⁷²⁷. Beraz, dena prest zegoen ekainaren 12an taldea Londona heltzerako⁷²⁸.

Londoneko audientziari eta bidaia luzeetara doitzeko espektakulu berri bat prestatu zuen Jose Maria Uzelaiek: Lurrun Kresala [Ir.14]. Estanpak modifikatu, orkestra desegin eta dekorazio eta jantzien zati handi bat aldatu zuen hartara. Orkestra ez ezik, Jesus Elosegui bere egunerokoan dioskun lez, taldeko 21 kide geratu ziren Parisen, gaixo eta konpromizu ezberdinak zituztenak. Azkenik, 86 pertsonako espedizioa, zuzendaritza eta ordezkariak barne,

⁷²² EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01 Pedro Garate eta Lizasoren arteko korrespondentzia 1937ko azaroa Pedro Garate Lizasori (1938-11-05) Lizasok Garateri (1938-11-08)); *Ibid.*V:300 L:295/01 E.H Wright etxearen Abenduko erreportaia

⁷²³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01 Garatek Lizasori (1938-11-25) Lizasok Garateri (1938-11-27)

⁷²⁴ EAH.LO.L:5 Jose Maria Agirrek Ortuzarri (1938-04-15); EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01 Heliodoro de la Torre Angel Gondrari (1938-04-28)

⁷²⁵ Anasagati *et al* (2019), 245 Lizasok Agirrerri (1938-04-30)

⁷²⁶ Arnold Meckel (1893-1938) Eresoinka Londresen ari dela hilko da. *The Daily Telegraph and The Morning Post* (1938-06-27); *The Times* (1938-06-28) Arnold Neckel (Meckel beharrean) *La Populaire* (1938-06-30)

⁷²⁷ Orain arte etxe partikularretan ostatu hartu zutela esan izan da.

⁷²⁸ EAH.SA.Se:Delegación de Londres Legajo: 9/916 Lizasok Agirrerri (1938-05-19)

joan ziren Londonera⁷²⁹. Eresoinkaren barne txosten baten arabera, 17 kide besterik ez ziren geratu Parisen, ez Elozeguik dioskun 21, eta han geratu zirenak berehala Zabala andere sudamerikarrak utzitako *Chateau Belloyra* abiatu ziren. Etorkizunean taldearen operazio zentro bilakatuko zen mansiora.



Ir.14 Lurrin Kresala Aranzadi-JEI.00144-06

Diru kontuei dagokionez, Iñaki Anasagastik eta Koldo San Sebastianek ustetan, £550 gastua eta £150-200 inguruko sarrerak besterik ez zituzten izan⁷³⁰. Badirudi datuok ez daudela ondo. Gogoratu behar da Ortuzarrek £4.000 abala eskuratu zuela badaezpada. Gainera, Euskal Gobernuaren ogasuneko paperen artean Pedro Garatek 1938ko uztailearen 7an sinatutako £1.882 balantze batek iradokitzen digu [Ir.14] hori izan zela azken emaitza, gutxienez jaurlaritzak jarri zuen diruari dagokionean⁷³¹.

Liquidacion de cobros y envio de cheques a Londres		Francia de comidas, extraordinarios de otros, limpieza ropa de cama etc.	
Revisado cheque a Michel	£ 200.00.0		£ 133.18.16
Revisado cheque a Debizar	500.00.0	Pagado propaganda Mr. Claud segun contrato	419.40.4
Revisado de Mariano Garibon	300.00.0	5 años Hotel Belloyer Zentro	£ 877.8.11
Revisado de Mariano Garibon	50.00.0	A deducir	
Revisado de Mariano Garibon	50.00.0	Requisito primera semana	£ 141.13.9
Entregado en Paris a S. Manuel de la Iba	50.00.0	Segunda semana	197.12.11
Entregado en Paris a Pedro Maria de Garate	250.00.0	Tercera semana	161.0.6
Revisado en Londres por cuenta de produccion	30.16.4		500.13.2
Revisado de Ramon de la Iba segun que le hicieron para su otro caso	2.2.0		376.15.9
		Pagado cuenta gastos y sujeciones Grumborg	86.6.4
		Pagado cuenta gastos viaje anterior	10.6.6
		Revisado a la aduana	50.00.0
		Revisado del Restaurant Le coucou, domingo llegada	16.13.0
		Pagado cuenta del Hotel de la primera semana	224.8.0
		Pagado cuenta y habitaciones de la segunda semana	145.8.0
		Pagado cuenta de comidas y cenas de la unidad de la segunda semana	45.0.0
		Pagado cuenta de Restaurant de las comidas de la unidad de la segunda semana	46.12.0
		Pagado cuenta Hotel de 15 dias 9 julio	185.12.0
		Cuenta de distintos gastos	13.10.0
		Cuenta de distintos gastos	19.8.6
		Liquidacion Manuel de la Iba gastos y devuelto pago	56.14.9
		Entregado a Ramon de la Iba para pago cuenta produccion program e impresos	7.13.0
		Saldo	15.11.4
			£ 1982.18.4

Paris a 7 de Julio de 1938
Iñaki Anasagasti

Ir.15 Eresoinkaren gastu batzuk. EAH.EG.OD.S:Contabilidad Se:Cuentas V:500 L:646/03

⁷²⁹ Aranzadiko Artxiboa. Jesus Elozeguiren eguneroko (1938-06-11) Gogoratu behar da orkestra ez dela taldeko zati bat, externalizatuta zegoela. Bestalde, badakigu 14 dantzari aritu zirela Londresen. Olaizolak dio 57 pertsonako koroa izan zela Londresen. Olaizola (2007), 221-2 Ziurrenik artikuluko hontatik ateratako informazioa erabiliko dute Anasagasti eta San Sebastian (2020), 111-2

⁷³⁰ Anasagasti eta San Sebastian (2020), 111-2

⁷³¹ EAH.EG.OD.S:Contabilidad Se:Cuentas V:500 L:646/03 Hemen daude kontabilitaderako erabilitako datuak

Gastuekin kontaktarekin hasteko, ikuskizunaren publizitatean bakarrik £500 baino gehiago xahutu ziren. Alan Brandek, Eresoinkak kontratatutako publizitate agenteak, £224 jasoko ditu. Beste £195 egunkarietako anuntzioetara bideratu eta Grunbergi, hau da Meckelen ordezkariari, beste £85 ordaindu zitzaizkion Eresoinkari buruzko propaganda gauzatzeko. Teatruaren alokairu eta mantenuak ez ziren merkeak. Hiru asteko alokairua £450 balio izan zuen eta bestelako gastuak gehituz guztira £877 behar izan zituzten hiru astez emanaldiak eman ahal izateko. Guzti honi, hotelak, £454 (asteetan banatuta 224-145-185) eta £300 bat gehitu behar zaizkio jatekoari dagokionez. Azken gastu handia Paristik Londonerako bidaia da. Kasu honetan, *Agence Francais de Voyages* arduratu zen. Guztira 46.000 Fr. inguruko gastua suposatu zuen, hau da £340 inguru. Paristik Dieppera trenez eta handik New Havenera barkoz egindako bidaia £1.800 hauetatik kanpo kokatzen dira. Hortaz, Londonen 3 astez aritzeko gastuen kapitulua £2.000tik gora kokatu behar dugu. Guzti hau, Eresoinkako partaideen soldatak ahaztu ezkerro gainera.

Guztira irabazitako diru kopurua ez zen £500tik asko igoko. Takillan £500 eskuratu ziren. hurrenkera honetan: lehen astean, £141, bigarrenetan £197 eta azkenengoan £161. Beste zerbait irabazi zen emanaldien programak saltzen, nahiz eta ez den adierazgarria horietatik eskuratutakoa. Errepublikari ere eskatu zitzaion dirua espedizioa finantzatzeko: 300.000 Fr., £2.200 inguru. Ez dakigu zerbait ordaindu zuten⁷³².

E.M. Wright agentziaren iritziz, Alan Brand eta Meckelek ideatutako publizitatea ez zen batere egokia izan eta esperotako sarrera kotak eskuratuko ez balira egindako kanpainaren ondorio izango zela uste zuten. Hasteko, koruaren iragarkia hiru egunkaritan besterik ez zen publikatu hasiera batean eta eskeinitako deskripzioa ez omen zen batere ona. Ez zen abesbatza profesional bat balitz bezala adierazten. Eresoinkak entsegatzen bederatzi hilabete besterik ez zioan ikuskizun amateurra zirudien iragarkian. Horregatik, eta ahal zuten neurrian Brandekin kolaboratzen saiatu zen agentzia eta hainbat iradokizun egin zizkieten. Teatro munduan mugitzen ziren pertsonaia interesgarriak: kazetari, zuzendari eta kritikoei Eresoinkaren programak eta informazioa bidali zieten. Horrez gain, Britainiarren interesa pisteko, E.M. Wrighteko agente batek prentsara programari buruz eta Eresoinkako partaide ezberdinen istorioak zabalduko zituen. Gainera, estreinaldirako aktibitate bereziren bat prestatu eta jende esanguratsuari gonbidapenak luzatu zizkieten.

ALDWYCH. (Tem. 6404.) Mon. Next, at 8.30.
Subs. Evgs., 8.30. Mats., Wed., Sat., 2.30.
FIRST VISIT TO THIS COUNTRY.
ERESOKINKA
BASQUE MUSIC AND DANCE SPECTACLE.
102 BASQUE Artists. (Two weeks only.)

Ir.16 *The Times* (1938-06-11)

ALDWYCH. (Tem. 6404.)
EVENINGS, 8.30. MATINEE, SAT., 2.30.
Owing to STRIKING SUCCESS, 4 extra perf.
ERESOKINKA
BASQUE MUSIC AND DANCE SPECTACLE.
"A most attractive programme—variety and charm. The Besses reminded one of the great Russian chorus of pre-war days. Lively incident, presented spontaneously, and without any self-consciousness or theatricality. A visit to the Aldwych Theatre is thoroughly recommended."
—*The Times*.

Ir.17 *The Times* (1938-06-30)

Estreineko eginkizunaren arrakastari eskerrak prentsan benetako laudorioak jasoko ditu. Garrantzistuena agian *The Timesek* idatzitako onezko kritika da. Gondrak Iralari lehendabiziko aktuazioari buruz prentsak idatzitako ebakinak bidaltzean, *el más formidable* bezala katalogatzen du. Are garrantzitusagoa dena, egunkari honek gutxitan idazten ditu kulturari loturiko berriak⁷³³. Kritikak hala dio: Eresoinkak biziraun duen antzineko folklorea eskainiz *a most attractive program* aurkeztu zuen atzo gauean. Londonen dagoeneko English Folk-dance

⁷³² EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París) Secretaría V:150 L:800/06 Agirrek Del Vayori (1938-06-10) eta Agirrek Del Vayori (1938-06-17)

⁷³³ EAH.SA.Se:Delegación de Londres Legajo: 9/917 Gondrak Iralari (1938-06-15)

Societyk antolatutako ekitaldietan euskal umeek ikusteko aukera izan bazuten ere, aurkeztutako programak duen *vairty eta charm* konparaezinak dira. *An old civilization of their own* zuen *attractive people* honen emankizuna ikustea gomendatzen du⁷³⁴. Pentsara anutzio eta informazio igortzeaz gain, Brandek hainbat irratsaiotan aritzeko zitak eskuratu zituen⁷³⁵.



Ir.18 Eresoinkaren iragarkiak Aldwych JEI 00145-21

zen eta ez zuten izan Belgrade Squaren antzezteko parada⁷³⁶.

Helburu horien adierazgarri garbia da prestatutako programa⁷³⁷. Euskal dantza eta tradizioez jositako argazki eta grabatu ederrez apaindurik, antzeztuko diren dantza eta kantak euskeraz zein ingelesez transkribitzen dira. Pentagrama handietan idatzita aurki daitezke kantok, esplikazio laburrekin: txistuaren historia, ikurriña zer den eta euskal dantza ezberdinen (erregioa adiearzten dira (nafarroa, gipuzkoa...)) eta antzeztuko denaren azalpenak ere baduade.



Ir.19 Aldwych Theatre JEI 00141-30

Programaren lehen orrian sarrera gisa azaltzen den lehen kanta Agur Jaunak da. Soinu honen letrek argiki adierazten dute euskaldunen kristautasuna. Hitzaurrea Eresoinka hitzaren esanahiarekin azalpenarekin hasiko da. Gero, Gernikako bonbardaketa aipatu eta hitzaren sortzaile zen *Lauxetaren* istorioa kontatuz: kazetari bati Gernika erakusten ari zela atxiki eta Gasteizen eraila. Ondoren, euskaldunen eta haien artearen berri emanez itxiko da. Euskaldunak jatorri misteriotsuak dituzten *unique people* dira. Euskaldunon *strong individuality* historian zehar jasandako isolaziaren eredu izanik. Guzti hau sortutako artean isladatzen da. Ez dago European horrenbeste dantza aldaera kontserbatu dituen arrazarik. Horra hor euskaldunei buruz egin nahi den propaganda: arraza bakar eta berezia zirela hain zuzen ere. Historia propio izanik, berezko izaera eta genioa propioa dute espainiarrekiko ezberdina.

Hein handi batean lortu zuen bere helburu propagandistikoa. Eresoinka aritu zen bitartean, apenas izan zen konfrontaziorik euskaldunon aurka prentsan. Gainera, euskaldunok

⁷³⁴ *The times* (1938-06-14) Ez da kritika bakarria noski, eta gainera, Parisko emanaldiek ere Ingalaterrako prentsan izan zuten oihartzuna.

⁷³⁵ EAH.EG.LD:S:Delegaciones En Londres Se:Lizaso V:300 L:297/05 Irratsaiotetan azaltzeaz gain, koroko partaideak Londreseko toki esanguratsuetan argazkiak ateratzea, Txistu eta koroa filmatzea, hainbat gramofono grabaketa egitea eta bestelako jardunaldietan, Royal College of Music edota Hyde Parken, aritzea ere iradokitzen dute

⁷³⁶ EAH.EG.LD.Se:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París) Secretaría V:150 L:800/06 Agirrek Del Vayori (1938-06-10) eta Agirrek Del Vayori (1938-06-17)

⁷³⁷ Londreseko Eresoinkaren programa ikusi nahi izan ezkerro: EAH.LO.L:41

ezagutarazteko balio izan zuen. Era berean, irabazi politiko-diplomatikoak eskuratzeko ere erabili zuten. Eresoinkaren emanaldiak momentu benetan delikatu batean izan ziren. Errepublikarentzat dena behera zetorrela. 1938ko apirilean bitan zatitu zen errepublikak kontrolatzen zuen lurraldea. Nazionalak baina ezin izan zuten Gustavo Duran teniente koronelak ideatutako defentsa sistema irauli eta Valentzia salbatu egin zen azken momentuan, beste behin ere, Espainiako gerra itopuntu batean gelditu zen. Ondoren, euskaldunek bere erradakzioan zer esan handia izan zuten 13 puntuak plazaratu zituen Negrinek 1938ko maiatzaren 1ean eta armistizio bati buruzko ideiak areagotu egin ziren. Eresoinkaren kontzertuetara joateko hainbat gonbidapen luzatu zituzten. Adibidez, bertan izan zen Vyvyam Adams politikari ingelesa. 1936-7 bitartean Bizkaiko golkoa zaindu zuen V. flotaren kapitaina, Harold M. Burrough ere izan zen ikuskizunean⁷³⁸. Gonbita guztiek ez zuten arrakasta izan. Adibidez, John W. Dulanty, Irlandako goi komisarioak, ezin izan zuen etorri Vansittartek bezalaxe⁷³⁹. Pertsonaia politiko eta militar garrantzitsueri gonbita luzatuz, Espainiako Gerra Zibilari buruz pil-pilean zebilen zurrumuruaren arira, mediazioari buruz euskaldunei interesatzen zitzaizkien ideiei buruz era ez zuzenean hitz egiteko erabili nahi zuten.

Kultura eta kirolaren bidez, hau da *soft-powerren* bidez, diplomazia eta propaganda egiten saiatu ziren euskaldunak. FAren betoa zela eta ezin izan zuen Londona etorri futbol taldeak. Halere, bere balentriak eta Argentinan eta Polonian izandako beto eta kanporatzei buruzko informazioa azaldu zen Britainiar Handiko prentsan.

Eresoinkak ere izan zuen segida Ingalaterrara etorri aurretik. Parisen egindako estreineko emankizunak aipatu ziren prentsa britainiarrean⁷⁴⁰. Londonen aritzerakoan ohiartzuna biderkatu egin zen. Arrakasta artistiko handia izan zuen euskal enbaxada kulturala errepresentatzen zuen talde honek. Lizasok eta Gondrak hauen emanaldietara influentzia zuen pertsonaia orori luzatu zioten ekitaldira etortzeko gonbita.

Londoneko emanaldiak nahiko arrakastatsua bezala kalifikatu daitezke. Hasierako bi hasteko bira, hiru astera luzatu baitziren. Orohar baina, diru larri kostatu zitzaion jaurlaritzari, eta horri zurren espainiar errepublikak egindako kontribuzioa gehitu behar zaio. Ondorioz, Euskal Gobernuaren atsekaberako ez zen arrakasta ekonomikorik gauzatu Eresoinkarekin.

Horregatik, gerra aurrera euskal finantzak musukulua galtzen ziozen. Gainera, Errepublikaren laguntza finantzieroa gero eta txikiagoa zen. Eresoinka kinka larrian egona zen Londona etorri aurretik, eta Ingalaterran izan ostean *Chateau de Belloy* dohainik utzi zitzaiolako biziraun zuten beste urte betez, 1939ko uztail arte, koroak. Abesbatzak Londonen egon ostean gauzatutako proiektuek kontuan, mundura begiratu beharrean, barnera begira egindako propaganda politiko eta ekonomiko gisa ulertu behar da.

Lizasok Agirrerri idatzitako hitz batzuek ederki laburbitzen dute Eresoinkak izan zuen balio propagandistikoa⁷⁴¹:

Todo cuanto puede decirte con respecto al éxito artístico y valor de propaganda de Eresoinka es poco. Su visita a Londres ha sido un verdadero acierto y no tengo palabras para alabar la labor de todos los componente de la agrupación. Puedes estar orgulloso de todos estos muchachos que se han portado como verdaderos patriotas. No quiero hacer excepciones. Todos ellos merecen por igual mi elogio y felicitaciones más sinceras. Todos ellos merecen también un buen descanso.

⁷³⁸ Ojanguren (1990), 138-40

⁷³⁹EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:215/01 Dulanty hilabete berandu erantzun zion Lizasoren erantzunari. Dulanty lizaso (1938-07-18) Lizasok Dulantyri (1938-07) Erantzun berantiarra erantzunez, Lizasok De Valera Irlandako presidentea ezagutzeko nahia adierazten dio. Hala ere, badirudi ez zela erantzunik izan kasu honetan ere.

⁷⁴⁰ *The Times* (1937-12-22)

⁷⁴¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:150 L:256/02 Lizasok Agirrerri (1938-07-06)

Perico Garate y Manu de la Sota te habran ya comunicado los resultados de estos inolvidables dias de actuacion de Eresoinka en Londres.

Puesto que los primordial es la propaganda de nuestras cosas y de nuestro pueblo lo que en dinero haya podido suponer la primera presentacion de Eresoinka en Inglaterra no creo debe preocuparos demasiado.

Se ha hecho patria y esto es a mi juicio lo importante. Ademas creo que el campo queda admirablemente abonado para una segunda visita que yo, sin entrar desde luego en cuestiones monetaria y tienedo exclusivamente en cuenta el aspecto de praganda, tengo el deber de recomendar como extraordinariamente convniente.

Han sido muchas las personalidades politicas qu ehe invitado a asistir a las representaciones y todas ellas, sin excepcion ha saludo impresionadas y encantadas.

Ramontxo Sota ha colaborado conEresoinka con verdadero entusiasmo y creo que tanto su tio como Garate lo han apreciado asi.

15. EUSKALDUNON LAGUNEN NAZIOARTEKO LIGA: INGALATERRAKO SAILA. NAHI BAINA EZIN.

Liga de los Amigos Vascos (LIAB) antolakunde ezagunak, Ingalaterran izandako eraketa aztertuko dugu jarraian. Frantzia gertatu moduan, elkartaren funtzioa, aspektu kulturalen babespean, propaganda eta kontrapropaganda egiteko *lobby* lana egitea izan zen, tokiko pertsonaia garrantzitsuak horretarako erakunde baten baitan bilduta. Aurrez, Ingalaterran, antzeko erakunderen bat sortzeko saiakerak izan ziren arren, 1939 otsailera arte ez zen formalki osatuko erakunde hau, Londonen kokatua. Arrakastarik ez zuen izan ordea, eta nahiko azkar disolbatuko zen. Izan ere, Ingalaterran, gizarte mailan, beste nazioetako kausak defendatzen zituzten erakunde politikoak ez ziren ongi ikusiak, partzialegi zirelakoan. Hala, Manuel Irurok Landabururi aipatzen zion moduan, kudeaketa informalak aurrera eramatea erraza zen bitartean, kudeaketa formalak (LIAB bezalako erakunde batek aurrera eramango zituenak, esaterako), kostata gauzatuko ziren⁷⁴².

Liga internacional de los amigos Vascos

1938ko abenduaren 16an, Parisen sortu zen *Liga internacional de los Amigos Vascos* erakundea, Frantzia itzal handia zuten pertsonaiak osatuta. Manuel Inchaustiren proiektu handienetako bat izan zen, azken hau inoiz erakundeari formalki atxikitu ez zen arren, eta euskal gatazka mundu mailan ezagutarazteaz gain, Euskal Gobernuaren lan asistentzian laguntzea zuen hasierako egitekoa. Frantziak Francoren gobernu onartu ostean, berriz, Euskal Gobernuaren pantaila legala bilakatuko zen, harik eta Naziak Paris hartu arte, bederen. Elkarre honetan, Euskal Gobernuaren ordezkari postua beteko duena, Xabier Landaburu izango da, mundu mailako erakundearen idazkari orokorraren papera betetzen zuena; eta beraz, instituzio honen egunerokoaren zama hartu zuen bere gain.

Proiektu hau sortzeko proposamena, Manuel Inchaustirena izango da, zeinak EBBri, 1938ko apirilaren 28an Endaran izandako bilera batean luzatuko dion. Frantsesez zein Ingelese idatzitako esku-orri batean, erakundeak izango zituen helburuak zehaztuko ziren, hau aste bete eskasera, maiatzaren 5ean, argitaratuz⁷⁴³. Frantziako ligaren atala, bitan banatuko zen, helburu hauek kontuan hartuz. Batetik, errefuxiatuei laguntzera bideratuta, Euskaldunei Laguntzeko saila eratuko zen; eta bestetik, berriz, euskal kasua munduan zehar zabaltzera bideratuta, Interes Orokorraren atala (informazio edo propaganda izena ere hartu zezakeena).

Atal hauek, aurretiaz, batzorde eta komite ezberdinetan, euskaldunen alde lana egin zuten pertsonaiak bete ziren, gehienak sona handikoak izanik. Hala, goi-mailako politikari, kazetari

⁷⁴² Arrieta, (2021), 161 Irurok Landaburui (1939-6-6)

⁷⁴³ Larronde (1998) 96-7; Arrieta, (2021), 161

eta kargu eklesiastiko garrantzitsuek osatuko zituzten egitura hauek, ohorezko komite bat osatuz. Verdier kardenala buru, Eduard Herriot Frantziako presidente ohiak, Maurice Feltin Bordeleko artzapezpikuak, eta Germaine Malaterre-Sellier sufragistak, Paul Rivet irakasleak eta Champertier de Ribes politikariak osatzen zuten zuzendaritza; Ernst Pezet, eragin handiko kazetari eta politikaria zen idazkari orokorra, eta Solange Lamblin demokrata, idazkari laguntzailea.

Aurrez esan moduan, bi azpiatalek osatzen zuten erakundea. Alde batetik, laguntza humanitarioa eskaintzera bideratutako atala zegoen; Euskaldunei Laguntzeko saila, alegia:

- Lehendakaria: Aire eta Daxeko: Mathieu gotzaina.
- Lehendakari-ordeak: Fontenelle gotzaina eta Jacques Maritain.
- Diru-zaina: Claude Bourdet.
- Idazkari Orokorra: Ernest Pezet.

Beste aldetik, propaganda egiteko erabili zen Interes orokorren komitea hala osatzen zen:

- Lehendakaria: François Mauriac.
- Lehendakari-ordea: Raymond Laurent.
- Diru-zaina: Georges Hoog
- Diru-zain laguntzailea: M. E. Goienetche.
- Bokalak: Philippe Serre, Louis Guillet eta George Lacombe

Aurrez kontatutakoa, egun historiografiak egindako lanek ezarritakoa da. Hala, apirila baina lehenago, jada urte bereko urtarilean, Inchaustik proposamena luzaturik zion Gobernuari, Iruok Agirreri aditzera emana, *sobre el desarrollo de esa institución llamada a ser el mejor amigo y la ayuda más eficaz de Euzkadi, el día del armisticio* esanez. Erakundearen kudeaketarako, Paul Vignaux proposatzen zen idazkari orokor gisa, *profesor de la Soborna, cristiano liberal, vasquista y gran amigo mío, de cuyo dinamismo espero* arrazoituz. Iruoren iritziz, idazkariak izan behar zuten erakundearen giltzarria. Bestalde, batzordearen muina, Jacques Maritain, François Mauriac Francisque Gay eta Paisko haien lagunek osatuko lukete, lehendakari gisa Lloyd George nahi zuelarik Iruok, Roosevelt Estatu Batuetako presidentea ohorezko lehendakari bilakatzearekin amesteraino. Alberto Onaindia bera ere, tartean izango da. Proposamenari, memorandum bat ere atxikituko zitzaion, urtarrilaren 8an idatzia; 1938ko maiatzaren 5ean botako diren ideietako asko, bertan azaltzen ziren jadanik. Frantziako atalak, urte bukaerako izango duen funtzionamendua ere nabari daiteke txosten honetan, zehaztasun nabarmenarekin⁷⁴⁴.

Frantzian egin bezala, Europa eta Amerikako beste herrialdeetan, komite ugari osatuko ziren (edo gutxienez, horiek eratzeko saiokak izango ziren): Ameriketako Estatu Batuetan, Argentinan, Venezuelan eta Belgikan, esaterako; baita Ingalaterran ere. Azken herrialdean izandako saiakerak izango ditugu jarraian hizpide.

Anglo-Basque society

LIABeko Ingalaterrako atalak, 1939ko otsaila aldean ekingo dio bere bideari. Zoritxarrez, Ingalaterran antzeko elkarteekiko zen mesfidantza zela eta, batez ere, ez zuten nabaritasun eta

⁷⁴⁴ SAF- IRUJO-24-3 Memorandum-proyecto sobre la creación de una Liga de Amigos de Euzkadi. (1938-01-08); Iruok Agirreri (1938-01-7); Vignauxek Iruori (1938-01-22) proiektuan parte hartzeko prestutasuna agertzen badu ere, gogorarazten dio mundu mailatik begiratuta, Euzkadiko askatasuna baino federalismoaren ideia dela aterabide erreal eta egokiena. EAH.EG.Kultura Se:Secretaría General.Correspondencia V:200 L:477/03 Inchaustik Leizaolari (1938-2-15) Aurreko egunean Ziauriz eta Lasarterekin hitz egin zuten LIABari buruz eta Iruori bidalitako erregelamenduen zirriborroa bidaltzen dio. Karta horretan Paul Vignauxi aurreko (1937) azaroan proiektua aipatu ziola idazten du Inchaustik eta Leizaolarekin dagoeneko abenduak (1937) hitz egin zuten egitasmo honekin hasteko asmoz.

eraginkortasun handirik erakutsi, eta azkar itxi zen. Horri, elkartearen egiturak eta idazkaritzak, denbora gutxian jasandako aldaketa nabarmenak gehitu behar zaizkio. Hala ere, behintzat, errefuxiatuentzat diru bat biltzeko, eta dirudienez, baita joera sozio-kulturaleko hainbat ekintza antolatzeko ere, gai izan zen gutxienez⁷⁴⁵.

LIAB osatzeko lehen saiakerak, ez ziren 1939ko otsailean hasiko. Izan ere, 1936ko urrirako, BBBren izenean, Lizaso eta Jose Luis Cortina Britainia Handia eta Irlandako iritzia biltzen aritu zirenean, datu gehiago ez jakin arren, Irlandako alderdi orotako kideek *Euzkadiren Lagunak* izeneko batzorde bat eratu zela dirudi⁷⁴⁶.

Bestalde, era horretako erakunde bat sortzeko ideia, ez zen batere berritzailea Britainia Handian. Esaterako, 1900. urtean sortutako *Scoto-Italian Society*-k bizirik jarraitzen zuen 30eko hamarkadan, eta 1935ean, Alemania Naziak, *Anglo-German Fellowship* izeneko erakunde bat sortu zuen. Azken honetan, Wilfrid Aslheyk, Mount Templeko baroiak, kristal hautsien gauda (*Kristallnacht*) jazo arte zuzendu zuen (1938ko azaroak), Londonderryko markesak ere parte hartuz. Errepublikaren aldeko pare bat komite ere existitzen ziren: *The Friends of the Spanish Republic*, Victor Churchilek zuzenduta; eta Philip Noel-Bakerren *The Friends of Spain*. Beste bandoaren aldeko organismo bat ere, *The Friends of National Spain*, 1937ko martxo-maiatza alderako osatuta zegoen⁷⁴⁷.

Londonen kokatzen zen euskal delegaritzak, Irlandan bezalaxe, 1937an, antzeko presio talde bat biltzeko asmoa agertuko zuen; eta 1939an Anglo-Basque Society abian jarri aurretik, hainbat saiakera egingo ziren 1937an zehar. *Friends of the Basque Society* osatzeko lehendabiziko kontaktuak 1937ko maiatzean hasiko ziren, hasiera batean Robert Hawkes arduratuz. Honek, berehala, A.K. Page-Wilson eta B.P. Hughes-Prestonen baiezkua eskuratuko zuen. Pixkanaka, elkartea osatzen zenbiltzala, prentsa katolikoak gogor erasotuko zuen ekintza. Hala, prentsa katolikoaren oposizioak, jende berria errekrutatzeko zailtasunak ekarriko zituen, lehen saiakera hau alde batera utziz.

Liga osatzeko bigarren ekinaldi bat izan zen abuztua eta iraila aldean, berriro ere Hawesen bidez, eta berriro ere huts eginez. Hainbat gonbidapen luzatu ziren: Philip Calboten baiezkua jaso zuen, baina gonbidapena Victor MacClure idazleari, edo politikari famatuak ziren Atholleko dukesa eta MacNamara kapitainari ere luzatuko zitzaien. Politikari, funtzionario eta idazle ezagunez gain, akademian inguruan zebilen hainbat jenderi ere idatziko zioten; hala nola, Gilbert Murray eta Julian Huxley-ri (Aldous-en neba). Eliza anglikarrarengana ere saiatu ziren hurbiltzen, Linton Smith, Rochesterreko apezpikua gonbidatuz. Azken hirukoteak ezeko gutunarekin; MacNamara kapitainak ere, *felt dangerously near intervention in spirit to join such a committee* adieraziz, uko egingo zion⁷⁴⁸. Hawes jauna, Lizasorekin batuko da 1937ko irailaren 13an, elkartearen etorkizunari buruz erabakitzeko, elkarterako sonako jendea eskuratzeko ezintasuna dela eta. Hortaz, bertan behera geratuko da ahalegin berri hau ere.

1938ko martxoan, Ramon Sota MacMahon unibertsitate giroko batzorde bat osatzen ahaleginduko da. Ramon Sota, Cambridgeko Unibertsitateko ikaslea izandakoa zen, bere osaba Manu Sota aurrez izan zen bezala. Azkena irakasle ere izan zen. Bertan lortutako kontaktuekin, euskaldunen lagunak elkarrekin bat osatzen saiatu zen. Unibertsitateko gazteek osatutako talde batetik abiatuta, nazio mailara eskalatzea zuen xede; britainiar iritziari euskal kasua

⁷⁴⁵ EAH.LO.L:4

⁷⁴⁶ SAF-BBB-281-1

⁷⁴⁷ Nick Crowson (2002), 207 Ikusi elkarrekin honetan parte hartu zuten kideen zerrenda; Garcia (2008), 95 *Friends of Spanish Republic*

⁷⁴⁸ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:297/05; Lovell Lizasori (1938-12-22)

gerturatzeko, hizketaldi, klase eta manifestazio ezberdinak egitera bideratu zen eraturako talde hau, dirudienez, arrakasta handirik gabe.⁷⁴⁹

Aipaturako bi eginahalek, ez zuten aurrera egin. Oro har, nahiz eta influentzia askoko pertsonaiak bildu, hauek ez ziren oso ezagunak. Horrez gain, prentsa katolikoaren erasokortasunak, erakunde hauek berehala bertan behera uztera eramango zituen. Izan ere, bertara hurreratu ziren asko, ez ziren eroso sentitzen prentsaren erasoan mehatxupean. Eta gainera, asko beldur ziren, euskaldunen alde propaganda egiteagatik, ea ez ote zuten nahi gabe britainiar interesen aurka egingo. Arrazoi horiek medio, huts egin zuten inizatibek.

Azkenean gauzatu zen proiektua, Inchaustik proposaturako erakundearen baitakoa izango zen. 1938ko irailean hartuko da, berriz, antolakunde bat antolatzeko ideia. Agirrek, Lizasori, Inchaustiren proiektuaz jakinaraziko dio, honakoa aginduz: *debes ponerte en su absoluta disposición porque es hombre de grandes inquietudes y a quien debemos profundo reconocimiento. (...) se hará lo mismo en las repúblicas Sud-americanas. Aunque la cosa marche lentamente puede ser un instrumento de singular eficacia para el futuro. Préstale toda la atención.* Egokia izanagatik ere, Ingalaterran izan ditzakeen zailtasunak zerrendatzen dizkio: elkarte sortzea zaila ez izan arren, sona handiko pertsonalitate politiko eta sozialak biltzeko erronka.⁷⁵⁰

Izan ere, aurretiaz, antzeko batzordeak sortu ziren, baina izaera politikoa zuten batzordeek ez zuten irauten. Ingalaterran kokoteraino omen zeuden propaganda atzerritarraz. Euskal ordezkariak ere saiaturik ziren halako erakunde bat martxan jartzen, baina prentsa katolikoaren aldetik jasandako kanpaina benetan diabolikoa medio, bertan behera laga behar izan zuten egitasmoa. Era berean, nominalki existitzen ziren arren, baziren euskaldunen alde aritzen ziren hainbat pertsona. Aipagarria da ere, bukatzeko, *Friends of National Spain-en* porrota. Hasieran, izena eman zuten askok, prentsaren eraso gogorak jasan izan behar izan zituzten, eta alde egingo zuten bertatik; honi, haiek luzaturako prentsa adierazpenen inpartzialtasuna ukatzen zuen iritzi orokorrak.⁷⁵¹

Zailtasunak zailtasun, aurrera egingo zuten egitasmoarekin, eskaini zitzakeen abantailak gehiago zirelakoan⁷⁵². Besteak beste, Britainia Handiak Francoren gobernuari aitortuko balu, erakunde Euskal Gobernuaren pantaila legala bilakatuko zatekeen⁷⁵³. Badirudi, bi egitasmo ezberdinek talka egin zutela. Alde batetik, Ortuzar eta Gamboak, 1939ko otsailean *The International League of Friends of Euzkadi* jarri zuten abian. Beste aldetik, berriz, E.M. Wright agentziak lagunduta, lehendakariaren ordezkariak *Anglo-Basque Society* delakoa eraturiko du 1939ko martxotik aurrera. Bi kasuetan, euskaldunek zein espainiarren batek hartuko dute parte.

1939ko otsailaren erdialderako, eta Luis Ortuzarren kontaktu sarea probestuz, Marino Gamboa idazkari zela, 62 libra eta 1000 Fr. bildu zituzten euskal errefuxiatuen alde. Horretarako, 7/8

⁷⁴⁹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01: Friends of the Basque Society; Lovell a Sota (1938-03-?) *looking forward to learn when the meeting to get the new Anglo-Basque society operating. (...) plans mad ready to put them in operation.*

⁷⁵⁰ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/901 Agirrek Lizasori (1938-08-30)

⁷⁵¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:215/01 : Lizasok Manuel Inchaustiri (1938-09-07);

⁷⁵² Zailtasunak: EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Lovellek Lizasori (1938-09-20) gogorarazten dio egun Ingalaterran halako erakunde bat formatzea ez dela erraza. Hasteko, euskaldunen alde aritzen diren parlamentari eta pertsonaiak ez baitute ofizialki beraien izena emango. EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:295/01 Lovellek Lizasori (1938-12-22) Gogorarazten dio tory askok ezingo dituztela publikoki euskaldunak babestu, beraz, baliteke erakunde "leftist" bat geratzea.

⁷⁵³ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:5/566 Lizasok Agirrerri (1939-02-11) *En caso de reconcomiendo problemas para hacer propaganda a través de la delegación se podría hacer a través de una entidad de amigos de Euzkadi que ahora si tendría utilidad práctica*

Bury Court ofizinetako helbidea erabili zuten, *The International league of friends of Euzkadi* izenpean⁷⁵⁴. Ez dugu berri askorik honen inguruan. Hala ere, Lizasok, Agirrerri, beste donazio bati buruz hitz egingo dio, data horien inguruan: *De los donativos para la "liga de los Amigos de Euzkadi" me he ocupado ya. Dos de ellos habrán llegado ya. Di en este sentido el encargo a los compatriotas Laboa e Iriarte que se hallan establecido en Milford-Haven. Dentro de unos días hará una remesa otro vasco de Londres. En total remitiremos L 50 que son las que me envié Eliodoro*⁷⁵⁵. Ortuzarrek, Londonen kokaturik ziren itsas-negozioen munduan dirua eskuratzen zuen bitartean, Lizasok, Gales inguruan arrantzaren negozioak ezarri zituzten euskaldunei, LIABen izenean eskatuko zien laguntza. Ziurrenik, bi ekintzak, koordinaturik egindakoak dira.

Ildo beretik, E.H.Wrightek Lovell jauna, 1939ko otsailerako, lanean zen. Elkarte bat osatzeko baldintzak ezagutzeaz arduratuko da. Hala, irabazi askorik ez duen erakunde bat osatzerakoan, hau ez dela inon erregistratu behar jakingo du; nahikoa zen helbide bat ematearekin. Horregatik, hasiera batean, *Euzko-Deyako* ofizinak iradokiko ditu helbide gisa, gero hauek erabiliko ez badira ere. Lovellek, lehendakari posturako, Vyvyan Adams torya proposatuko du; eta lehendakari-orde posturako, Lord Castlereagh⁷⁵⁶. Nahiko optimista zirudien Manuel Irujo erakundea abiatzearekin. 100 bat parlamentari kontserbakorekin batera kazetari ugari sartuko lirake Ingalaterrako sekzioan. Buruan baina, Lovellek aipatutako ordena aldatuta adierazten dio Agirrerri, Castlereagh buru eta Adams idazkari postuak eskainiko zitzaizkien eta Bower komandanteari elkarteko parlamentarien buru.⁷⁵⁷

Hasierako plan hauek, martxoan egikarrituko dira, martxoaren 15ean izandako bilera batekin oinarriak ezarriko direlarik. *Anglo-Basque Society* izenez izendatuko da, eta erakundea zuzentzeko, bederatzi puntu izango dituen estamentuak idatziko dira. Organismoaren helburu gisa, hurrengo hau ezarriko da: *foster the historic friendship and preserve the cultural and social links between British and Basque people*. Bilera horretan, LIABeko britainiar sekzioa osatzeaz gain, beste erakunde bat osatzeko iradokizuna luzatuko dio bigarrenagoz, Lovellek, Lizasori: *Basque World League*. Bigarren hau, beste erakundearekin paralelo osatu ahal izango den organismoa izango litzateke. Berton, euskaldunak bakarrik arituko lirake, propaganda egin eta Euzkadiren borroka bizirik jarraitzeko intentzioz⁷⁵⁸.

Martxorako *Anglo-Basque Society* martxan jartzeko prest izan arren, eragozpen batzuk sortuko dira, erakundea funtzionamenduan jartzea eragotziko dutenak maiatzera arte. Zoritxarrez, Britainiar munduan *Anglo-German Fellowship* delakoaren inguruan zegoen eztabaida zela eta, nahikoa mesfidati begiratzen ziren, momentu hartan, bestelako herrialdeekin laguntasuna eta anaitasuna sustatzeko organismoak. Testuinguru labain honetan, Vyvyan Adamsen aurkako artikulua bat idatziko zuten *Sunday Expressen*; bertan, Britainiar interesen aurka, euskaldunon alde parlamentuan afariak antolatzen zebilela egozten zitzaion⁷⁵⁹. Artikulu honen ondorioz,

⁷⁵⁴ EAH.LO.L:4 Ortuzarrek Alberrori (1939-06-05) *por iniciativa mía (...) se recaudó una pequeña cantidad para atenciones a vascos" entidad formada por extranjeros (incluso algún buen Español) (...) Cantidad ya distribuida.*

⁷⁵⁵ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:5/579 Lizasok Agirrerri (1939-02-20)

⁷⁵⁶ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:295/01 Lovellek Lizaso (1939-02-15)

⁷⁵⁷ Arrien (2014), 127

⁷⁵⁸ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:295/01 Lovellek Lizasori (1939-03-17); EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:257/02 Agirrek Lizasori (1940-03-05) Badirudi Inchaustiri ideia gustatu eta Agirrek baimena eman ostean Ameriketako hainbat errepubliketan abian jarri zuela inziatiba.

⁷⁵⁹ *Sunday Express* (1939-03-19)

Lizaso, Adamsek *Anglo-Basque Society*ko lehendakartzari uko egingo ziola, eta afari gehiago egingo ez zituela beldur zen; zorionez, ez zen hala gertatu⁷⁶⁰.

Bestelako arazo bat ere bazegoen jendea errekrutatzerako garaian. Pertsonaia asko euskaldunen alde agertzen ziren arren, Errepublikaren aurkakoak ziren. Horren adibide da Robert Bower⁷⁶¹ politikari kontserbadorea, zeinak honako mezuaren bidez uko egingo zion parte-hartzeari: *Though Mr. Lizaso and his friends have my every sympathy (...) feel that they have sold their birth right in the attempt to get a political mess of pottage. Had their zeal in defence of their Faith been as great as that they showed in defence of political autonomy, they would indeed have been worthy of all praise*⁷⁶².

Britainia Handian, ikusi dugun moduan, erresistentzia politikoak handiak ziren. Hori dela eta, eta apirilean parlamentuan oporrak hartzen dituztela kontuan hartuta, pixka bat atzeratuko da erakundearen antolaketa, eta maiatzera arte, ez zaio helduko berriz gaiari. Maiatzean, ohorezko idazkari bat izendatuko da: W. Grummitt. Honen lokal bat, 18 Henrietta Street kalean kokatua, izango da erakundearen helbidea. Erakundearen barne-araudia berriro zehaztuko da, eta aurreko bederatzi puntuen ordean, hamahiru puntuko berri bat zehaztuko da.

Erakundeak, ez du inolaz ere Frantziako LIABen eredia jarraituko, eta jarduera sozio-kulturak antolatzerara mugatuko da⁷⁶³. Politika eta propaganda arloak, hasiera batean alde batean uzteko hautua hartuko da, aurkako testuingurua dela eta; kontu handiz arituko dira egindako ekintza guztiekin. Hau, Lizasok Agirrerri erakundeari buruz informazioa luzatzean, argi ikusten da: *La Asociación de Amigos de Euzkadi, que aquí tomara la forma de Asociación Anglo-Vasca, está en marcha. Contamos con adhesiones muy buenas, pero por las circunstancias delicadas del momento, preferimos obrar en este asunto con una extrema prudencia*⁷⁶⁴. Zoritxarrez, ez daukagu maiatzera bitartean elkarrearen kide zirenen zerrendarik, hala ere, besteak beste, George Steer, Wickham Steed edo Vyvyam Adams gonbidatzea pentsatu zutela badakigu. Izan ere, zuhurtzia handiz luzatzen ziren gonbitak. Gonbidapenak ekainerako bidaltzea pentsatuta zuten arren, uztailean arte itxarongo zuten elkartera batzeko mezua igortzeko. Lan honetan, pertsonaia garrantzitsuak errekrutatzeaz gain, hainbat ekintza antolatzeko helburua ere bazuten⁷⁶⁵:

- Parlamentuko afariak antolatu
- Euskal artisten erakusketa bat antolatu Londoneko galeria batean
- Euskal gaiekin zerikusia zuten hizketaldiak antolatu
- Batzordeko kideek prentsan, Letters to editor eta artikuluak sinatzeko esperantza.

Uztailaren 21ean, Lizasoren erabaki pertsonal baten harira, Grummittek ohorezko idazkaritza postua John Stevensen esku utziko du. Stevens jauna, Petch & Co. Lizasoren abokatua zen.

⁷⁶⁰ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:5/568 Lizasok Agirrerri (1939-03-21); Se:Delegación de Londres L:5/569 Lizasok Agirrerri (1939-03-22)

⁷⁶¹ 1938ko Apirilaren 4an Bowerrek Emmanuel Shinwell laboristak parlamentuan belarrondoko bat jaso ostean izandako arazo sanitarioengandik egingo zen ezaguna. Shinwell Rab Butlerri *Go back to Poland*” ohikatu zion jo zuen honek.

⁷⁶² EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/02 Robert Bowerrek Robert Masoni (1939-03-06)

⁷⁶³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:297/05 Report march 1939

⁷⁶⁴ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:5 /577 Lizasok Agirrerri (1939-05-22)

⁷⁶⁵ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Report june 1938: A Brigadier General Spears, MP, Col. Nathan MP, A. Alexander MP, Henry Guest MP, Wedgwood Benn MP, B.Grenfell MP, Harold MacMillan MP, Daniel Hopkin MP, J.P.L. Thomas MP, Emyris Evans MP, A.M. Lyons MP, R.G.J. Boothy MP, Vizvount Cranbone, Countess of Oxford and Asquith, Duke of Montrose, R.K. Law MP, Duncan Sandys MP, J.W. Banfield MP, Harold Nicholson MP, Ronald Cartland MP, Vyvyan Adams MP, Lord Faringdon, Viscount Cecil, Sebastian Earl, Archibald Sinclair MP, Herbert Sidebotham, J.B. Priestley eta Frank Gubb

Elkartearen helbide berria, 18, Airlie Gardens izango da. Hirugarrenez aldatuko dira estatutuak. Kasu honetan, bost artikuluz besterik ez da osatuko barne-araudia, idazkariari erabakitze eskubide zabala eskaintzen diolarik gainera. Idazkaria izendatu eta aste betera, makina bat gonbidapen luzatuko ditu idazkari izendatu berriak. Dakigula, Robert Cartland MP kontserbadorea eta Hugh Dalton MP laboristak baiezkoa emango diote kide bilakatzeari; aldiz, Duncan Sandys, Lord Cranbone, Paul Emerys-Evans politikariek, uko egingo diote.

Uztailetik aurrera, *Anglo-Basque Society*ri buruzko informazioa galdu egiten da. Ez dakigu zer gertatzen den erakundearekin. Kasualitatez, 1939ko uztailaren 20a da parlamentuetan antolatutako afarien azken eguna. Britainia Handia gerran sartzearen, eta halako erakundeekiko zegoen mesfidantza zela eta, baliteke, John Stevensesk kudeatutako erakundeak oso profil baxua mantentzea edo egitasmoa erabat baztertea. Bigarrena gertatu zela dirudi. 1939ko abenduan, Iruxok ez zuen uste ideia ona izango zenik Ingalaterran LIABaren sekzioa garatzea.⁷⁶⁶

1939an porrotaren ostean, 1945an *Institute of Basque Studies* bat ezartzeko egitasmo bat izango du delegaritzak. Elkartea erabat kulturala izango litzateke, izan zitekeen izaera politikoa zeharo gutxituz. Mayer industrialak Gordon irakaslea eta Charles Duff eta Rodney Galloperi gonbidapenak luzatzea pentsatzen da. Institutua Galesko Aberystwyth unibertsitatearen inguruan garatu nahi zuten. Ez daukagu egitasmo honen inguruko berri askoz gehiago. Era berean, 1939an, Espainiarrek, arrakasta gabe, *Anglo-Spanish Friendship* batzorde bat ezartzen saiatu ziren, eta 1946-7an Euskaldunek Errepublikaren diruarekin kontratatutako propaganda agenteak hainbat miting antolatu zituen *Friends of Spain* jarri zuen abian⁷⁶⁷.

SARRASKIZ-SARRAZKI

Hurrengo atal honetan, Euskal Gobernuak Gerra Zibilean zehar Erresuma Batuan izandako sarraski eta krisi humanitario ezberdinen gaineko erabilera propagandistikoa aztertuko da. Kasu kasu, gertaera bakoitzaren historikotasuna adierazi ostean, Ingalaterran aipamen hauek nola zabaldu ziren ikertzea dugu helburu, batik bat, eztabaidan euskal delegaritzak jokatu zuen papera neurtuz. Aztertuko diren kasu guzti hauek ez dira kasu isolatuak eta hein batean edo bestean Euskal Gobernuak mundura zabaldu izan nahi zituzten ideia nagusiekin bat datoz. Ideia horiek Euskal Gobernuaren legitimitatea eta giza-legetasuna, nazionalen legitimitasun eza eta barbarismoari gainjartzean datza.

16. EUSKAL APAIZEN FUSILAMENDUAK

Aztertuko dugun lehen kasua 1936ko udazkeneko apaizen fusilamenduak izango dira. Orotara, hamasei apaiz fusilatu zituzten. Irailean fusilatu zituzten lehendabiziko biak eta ondoren urri eta azaro bitartean beste hamahiru. Gehienbat Gipuzkoan, Hernani eta Oiartzunen. 1937ko maiatzean Zornotzan fusilatu zuten azkena. Hurrengo hauek dira hildakoak:

APAIZA	ATXILO	TOKIA eta EGUNA	KARGUA
Santiago Lucas Aramendi 38 urte		Iruñea, 1936/9/3	Armada kapitana
Antonio Bombin		Guardia, 1936/9/10	Frantziskotarra
Martin Lekuona 29 urte	1936-09-29	Hernani, 1936/10/7	Oreretako koadjutore

⁷⁶⁶ Arrien (2014), 127

⁷⁶⁷ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Gondra V:25 L:306/04

Gervasio Albizu 65 urte	1936-09-29	Hernani, 1936/10/7	Oreretako koadjutore
Jose Ariztimuño 39 urte	1936-10-15	Hernani, 1936/10/17	Donostiko laguntzaile
Jose Adarraga 55 urte		Hernani, 1936/10/17	Hernaniko laguntzaile
Jose Sagarna 25 urte	1936-10-19	Marnikan, 1936/10/20	Berriatuako koajutore
Alejandro Mendicute 45 urte	1936-10-15	Hernani, 1936/10/23	Donostiako kapilau
Jose Otano 28 urte	1936-10-12	Hernani, 1936/10/23	Tolosako Korazonista
Jose Joaquin Arin 61 urte	1936-10-21	Oiartzun, 1936/10/24	Arrasateko artzapez
Leonardo Guridi 40 urte	1936-10-21	Oiartzun, 1936/10/24	Arrasateko koadjutore
Jose Markiegi 40 urte	?	Oiartzun, 1936/10/24	Arrasateko koadjutore
Jose Peñagarikano 64 urte	1936-10-21	Hernani, 1936/10/27	Etxeberriko koajutore
Celestino Onaindia 38 urte	1936-10-21	Hernani, 1936/10/29	Elgoibarko koajutore
Jorge Iturricastillo 30 urte	1936-11-1	Oiartzun, 1936/11/8	Maringo ekonomoa
Roman Urriaga 49 urte		1937-05-19	Zornotzako karmeldarra. Konbentuko nagusia.

Eraildako hamasei apaizen inguruan egindako ikerketak andana aurki ditzakegu, beraien kasuak xehetasun handiekin ezagutzera garamatzatenak⁷⁶⁸. Anxo Ferreiras ikerlariak hamazazpigarren bat ere gehitzen dio zerrenda honi: Eladio Celaya. 1936ko abuztuaren 14an Bardenasen hil zuten 72 urteko Casedako apaiza. Beste bi izen ere gehitzen ditu hildakoen artean. Kasu honetan espetxean zendu ziren. 1938ko azaroaren 21ean 77 urteko Juan Izurrategi, Elorriko parrokoa, Dueñasen hilko da. Felix Lahuerta, Sestaoko apaiza, Arrasaten kokatutako Santa Agueda psikiatrikoan zendu zen 1938ko abuztuaren 17an⁷⁶⁹.

Hildako guzti hauek beste prozesu eta afera handiago baten zati bat besterik ez dira: Euskal kleroaren auzia hain zuzen ere. Elizjendearen babesa ezinbestekoa zen bando nazionala biltzen zuten sektoreen propagandarako. Ondorioz, apaizak errepublikarekin izateak eta hauek garbitzean, Gurutzadaren ideia ez ezik, Errepublikaren aurka erabiliko zen *Red Terror* ideia zalantzan jartzen zen. Errebeldeen kasua erlijiozko arrazoietan oinarritzen ez zenaren seinale. Paradoxikoki, euskal nazionalistek egotzen zitzaizkien azkenengo ideia. Autonomia estatutuaren orde zaldutela ordena kristaua, hau da, interes politikoak kristautasunari gailendu zitzaizkiola alegia.

Hemen gehienbat Gipuzkoako kasuan hil ziren apaizen prozesuan zentratuko gara. Prozesuan zehar militar eta karlistak baturik Gasteizko gotzaia Mateo Mugica egozteraino helduko dira 1936ko urriaren 14an. Euskal nazionalismoak egindako hautuak fronte berri batean aritzera eramane zituen nazionalak. Aurretiaz gutxi gustuko zuten nazionalismoa errotik erauzteko nahia areagotuz. Apaizen errepresio prozesua abuztu bukaeran hasiko da.

⁷⁶⁸ Iturralde, (1978), 390; Kattin-Txiki (2013); Aizpiru *et Al*, (2007)201-215 Martinez (2004), 374-389; Dionisio (2012), 283-296

⁷⁶⁹ Ferreiro, (2013), 76; (2016), 67

Abuztuaren 6an Gasteizko eta Iruñeako gotzainek, Mateo Mugika eta Marcelino Olaecheak, inongo alderdikeriaren gaintik mugimendu nazionalaren alde lerratzeko agintzen zien euskal nazionalistei pastoral baten bitartez. Komunismoaren aurka kristauen batasuna aldarrikatuz⁷⁷⁰. Ez zuen esperotako emaitza izan eta Gipuzkoa eta Bizkaiko kleroaren zati handi batek aurre egin zion indar errebeldeei. Ondorioz, militar zein karlistek *nacionalistas exaltados* eta *destacados propagandistas* ziren apaizak zigortzeko nahia adierazi zioten abuztu bukaera eta iraila hasieran Mugikari. Apezpikuak Fidel Azurzarekin, *Junta De Guerra Carlista de Guipuzcoa*ko presidentearekin, elkarbanatutako korrespondentzian nabari daiteke nahi hori. Ildo beretik doaz, Gipuzkoako karlisten batzordeko komisario zen Luis Barrios teniente-koronelak Karlisten Batzar Nazionaleko bi kideren, Jose Luis Zamanillo eta Lamamié de Clairac, iraila bukaeran idatzitako gutunak.

Azurzak abuztuaren 22an eskatzen dio Gasteizko gotzaiari apaizak zigortzeko. Honek jaramonik egin ez eta irailaren 2an, autoritate militarari zuzenduko dira karlistak, Caballanesi hain zuzen ere⁷⁷¹. Antzeko hitzetan zuzenduko zaio Fal Conde autoritate eklesiastikoari. Irailaren 8an Segura artzapezpikuari igorritako mezu batean aditzera ematen du ados dagoela apaizak fusilatzearekin. Gerra kontseilu baten bidez egin behar dela adierazten du ordea, ez militarrek erabiltzen duten beste moduetan. Mezuan argi geratzen da fusilagarriak diren hautagaien zerrenda: *aun aquellos en quienes no se pruebe participación activa, pero que sean de la docena de exaltados, antiguos forjadores de la indisciplina separatista, si es solamente el indicio de que habían estado alentando esto, también deben caer*⁷⁷².

Ikusten den lez, militarrek izango dira apaizak hiltzeaz arduratuko direnak. Goma artzapezpikua bezala, Karlistek gerra kontseiluak eskatuko dituzten arren, erabakiarekin ados daude. Karlistek Gipuzkoaren kontrola eskuratu berri zuten eta behin eta berriro eskatuko dute errepresio indartzeko. Martinez Sanchezek adierazten du Luis Barriosek Molari idatzi ziola iraila bukaeran *mano dura* eskatuz. Ziurrenik, Francisco Rodriguezek 1936ko irailaren 21an erreketeko kapitanei eskatutako txostenak ere zer esana izan zuen errepresioaren gogortzean. Txosten honetan Donostiako autoritate eta biztanleriak nazionalismoarekin esku oso zabala izateaz gain, sutsu defendatzen dituztela salatzen du. Laguntasun eta anaitasun loturez gain, eskertze handia sor omen zieten nazionalistei gerra garaian izandako jarrera zela eta. Udaletxe eta diputazioan ere ez da inongo purgarik gauzatu hasiera batean. Ondorioz, biktimak izan dituzten familiak haserre daude. Gainera Donostiako biztanleria ez da nazionalisten oso aldekoa. Kleroari buruz hitz egiterakoan Donostiako artzapeza, Vicente Barrena eta *la mayor parte del clero de Guipúzcoa* euskal nazionalistatzat ditu. Gaineratzen du Gipuzkoa bezalako herri katoliko mugimendu nazionalera batu ez izana abade hauen errua dela. Apaiz hauek dira *Españaren*

⁷⁷⁰ Rodríguez (1984): Gomak idatzitakoa da pastoralak. Ragner (2001), 206 Gomaren iritziaren aurka egiteko askatasun askorik ez zutela, nahiz eta badirudien libreki sinatu zuela, nahiz eta gero iritzi aldatu Mugika, (1945), 8 *a medida que iba libberandome de la tupida costra de infundios con que la propaganda procuraba envolverme impidiéndome ver claro*

⁷⁷¹ UNAV 133/280 Azurzak Mugicari (1936-08-22) *La campaña separatista desarrollada en esta provincia, está causando estragos de índole moral y material. La afeción. A esa campaña, de personas dedicadas a la cura de almas ha hecho prendiese en esas gentes sanas del País con la seguridad de un artículo de fe. El error llega a los extremos más incomprensibles y da lugar a la Autoridad militar que tenga que ajustar su conducta a la profundidad de ese desvío*; Mugicak Azurzari (1936-08-26) Azurzak Mugicari (1936-08-27) *Esa primera Autoridad [eclesiástica] conoce perfectamente la actuación que se denuncia conoce perfectamente cual ha sido la actuación del partido nacionalista vasco durante el régimen republicano y la adhesión pública y fervorosa de una gran parte del clero vascongado a dicha actuación* eta Gallego eta Pazos (2001), 142 Documento 1-54 Anexo 4 a Documento 1-50: Carta de la Junta Carlita de Guerra de Guipúzcoa- Presidente de la Junta de Defensa Nacional quejándose de las medidas que pretende tomar el Obispo de Vitoria. 2.IX.1936

⁷⁷² Martínez (2004), 382-3

aurkako gorrotoa ezarri diotenak herri zintzo katolikoari. Elizkizunetan euskara erabiltzea ere gorroto horren adierazletzat deritzo⁷⁷³.

Barrios, Zamanillo eta Lamamiéren arteko gutunetan argi ikusten da goian adierazitako prozesua. Barriosek dio euskal apaiz nazionalista asko daudela eta gainera asko aske dabilta, lehendabiziko momentuetan atxiki diren gutxi batzuk kenduta. Arazoa konpontzeko, guztiak Gasteizeko seminariora bidaltzea proposatzen du. Zamanillori ez zaio egoki iruditzen guztiak Gasteiza bidaltzea, baina beharrezko deritzo apaiz horiek atxilotzea. Militarrek egin beharko luketen lana da hori. Karlistak sazerdote horiek identifikatzera zedarritu beharko lirateke lista ezberdinak gauzatuz. Hala ere, eta gerrako bandoan ateratzen diren izen guztiak atxikitzeke beharra ikusten du. Gerrako bandoan ateratzeak, abadeak babesten dituen 120 canon orokorra balio gabetzen duen testuinguruan baitaude⁷⁷⁴.

Irailaren 24ean, *Junta Central de Carlista de Guerrak* Burgoseko Defentsa batzordeari idatzi baten bidez kezu dira Gipuzkoan jarraitzen den errepresioaren inguruan eta orokorki ez ezik, euskal klero nazionalistaren aurka *urge actuar*⁷⁷⁵.

Karlistek eskatu bezala, Caballanes irailaren bigarren astean Donostian izan ostean errepresioa gogortuko da Gipuzkoan orokorrean eta apaizen aurka zehazki⁷⁷⁶. Errepresioaren gogortzearen eta berau militarrek erantzule ziren adibide da Rafael Latorrek, orduan teniente koronela, idatzitako memorietako pasadizo bat. Latorre Iruretagoyena koronelaren zutabeko azpi-zutabe batekin Deba konkistatu berri zuen 1936ko irailaren 23an eta egun hartantxe hertsatu zuten Aguirre jesuita:

*Otro incidente muy curioso tuvo lugar al ordenárseme la detención del P. Aguirre, jesuita, y separatista furibundo, uno de los que, en unión de Ariztimuño, también sacerdote, causaron grave y gran daño a la causa nacional. Me dieron antecedentes de la vida que llevaba y entre ellos que, por la mañana, después de celebrar misa, daba un paseo por la playa. Le esperé y dirigiéndome a él con toda mesura y corrección que tenía orden de detenerle lo que constituía para mí un gran dolor por mis acendradas convicciones religiosas y tratarse de un sacerdote y además jesuita. Le cité para las once en mi despacho de la Comandancia Militar donde también concurriría el cura párroco de la localidad. En la entrevista convinimos, después de grandes protestas por parte del jesuita, que quedaría detenido en la casa del párroco hasta tanto se recibiese la orden de conducirlo a San Sebastián; podría celebrar misa y cumplir todos sus deberes religiosos: todo se realizó con la mayor discreción posible a fin de evitar el menor escándalo. Vino la orden y se le impuso por jurisdicción competente la penalidad de residencia en Canarias. ¡Bien poca, por cierto, después de haber sido parte activa de ese inconcebible contubernio comunista-separatista y mayor contubernio aún en cuestiones de religión!*⁷⁷⁷.

Pasartean argi identifika daitezke militar askok elizjendea giltzaperatzerakoan azaltzen zituzten eskrupuluak, baita nazionalismoarekiko barrengo hegigoak ere. Atxiloketa prozedimenduak ere nabari daitezke: goitik datorren atxiloketa-agindua, aurrekariak bildu eta herrian atzeman ostean

⁷⁷³ UNAV 133/264 Informe que eleva el capital jefe de policía al servicio del requeté a petición de Don Francisco Rodríguez. Al servicio del General Mola sobre situación de San Sebastián: (1936-09-21) 4º Asunto clero. - *El actual Arcipreste de la ciudad Vicente Barrena es francamente nacionalista y lo es la mayor parte del clero de Guipúzcoa, uno de los factores más decisivos en la gestación del movimiento nacionalista, ya que el espíritu eminentemente católico de este pueblo sería fácil de encauzar por otros derroteros muy distintos si los pastores de almas hubiesen predicado el amor a España en vez de infiltrarles el odio a la madre patria. En plena guerra y mientras los nacionalistas vascos consentían y cooperaban el asesinato de hermanos suyos de religión, los mendigoizalez (tropa nacionalista) acudía uniformados a confesar y comulgar. Otra prueba de celebración de misas con canticos en vascuence y el descaro de este clero culmina en el hecho de que en el día de hoy y en el solemne Te Deum que con la presencia del Excmo. Señor Gral. Caballenas se ha celebrado en la iglesia de Sta. Maria de ha cantado el himno de San Ignacio en vascuence*

⁷⁷⁴ UNAV 133/264 Barrios Zamanillo eta Lammieri (1939-09-26) Zamanillo Barriosi (1939-09-29)

⁷⁷⁵ Mikelarena (2015), 237-8 Junta Central Carlista de Guerrak Burgoseko defentsa batzordeari (1936-09-24)

⁷⁷⁶ Barruso, (2004)

⁷⁷⁷ Latorre (2019), 71

Donostiara bidali. Horrez gain, hil ez zituzten baina, hala ere, erreprimitu zituzten beste apaizek jasandako errepresioa ere ikusten da. Kasu honetan, Kanariasa deserriratzeari. Espainia barnean deserriratu ugari izan ziren, baita atzerrira ere. Atxiloketa eta erbesteratze guzti hauek erabiliko zituen euskal propagandak.

Behin atxiloketa prozedimenduak eta karlistak militarrei luzatutako eskaerak ikusirik, argi dago fusilamenduak militarrek zuzendu bazituzten ere, karlisten eta kleroko hierarkiaren onespena zutela.

Urriaren bigarren astean ekingo zioten fusilamenduei eta inongo epaiketarik gabe aurrera eramango zituzten hilketak guztiak. Donostiako epaitegiak arduratzen zen Ramiro Llamas komandanteak sinatuko zituen Ondarretako kartzelan apaizak aske geratzeko aginduak. Behin aske zeudela partida batek hartu eta Hernani eta Oiartzunera eramanda hilko zituzten⁷⁷⁸. Hilketak hauen berri Gomak urriaren 26an izango du. Angel Lizasoainek igorritako nota baten harira⁷⁷⁹:

el ánimo del clero de Guipúzcoa está deprimido y el vecindario católico práctico, hoy en su totalidad, están asustados e indignados ante estos hechos que causan un enorme perjuicio a la religión, pues siempre habrá quien pueda propagar que el ejército lleva ya fusilados a ocho sacerdotes, cuando los rojos solo m ataron a dos: el párroco de Pasajes y un coadjutor de Iciar (Deva).- El juez militar comandante Llamas se ha dejado decir que sacerdote que llegue y sea nacionalista, él lo despacha enseguida. Esto causa triste impresión, cuando no es éste el criterio que se sigue con los seglares nacionalistas. Ello empeora la causa de la religión

Berehala, egunean bertan, Fidel Dávila eta Francorekin bilduko da eta Francok guztia moztuko zuela zin egin zion. Ez omen zen inor gehiago hilko⁷⁸⁰.

Hitzak hitz, hurrengo egunetan Celestino Onaindia, Jose Peñagarikano eta Jorge Iturricastillo hilko zituzten. Gomak guzti honen berri Pacelliri heriotza gehiago egongo ez zirela esan ostean izan zuen. Maguregi jaunak bidalitako eskutitz bati eskerrak izango zuen horren berri: *el honor de exponer a V.E. los fusilamientos de dos sacerdotes beneméritos [Peñagarikano eta Onaindia] en circunstancias raras (...) en virtud de órdenes de la autoridad militar, y no por reacción espontánea de los falangistas, ni otras milicias*⁷⁸¹. Iturricastilloren heriotza bi aste beranduago jazo zen, eta badirudi kasu honetan Ramiro Llamasen erresistentziak izan arren, goitik etorritako ordenak jarraitu zituela epaile berezi honek⁷⁸².

Heriotza guzti hauek justifikatu egingo dizkio Gomak Pacelliri 1937ko martxoan bidalitako txosten batean: *no se hizo más que aplicar a algunos sacerdotes la pena señalada en estos*

⁷⁷⁸ Euzko Apaiz (1984), 123; Jose Arin, Guridi eta Jose Markiegiren kasuak aipatzen ditu. SAF- DP-1293-03 Alejandro Mendicute aske geratzen zen dokumentua. Onaindia(1973), 39 Celestino eta Peñagarikanok fusilamenduak aipatu

⁷⁷⁹ De Meer (1992),195

⁷⁸⁰ Pazos eta Anton (2001), 286 Documento 1-163 Carta del Card. Gomá al Card. Pacelli. Informa del fusilamiento de sacerdotes por la autoridad militar del Gobierno nacional. (1936-11-08) *Tenga Su Eminencia la seguridad de que esto queda cortado inmediatamente». A mi regreso de Toledo me he avistado con el Sr. Sangróniz, Jefe del Gabinete Diplomático y en contacto íntimo con el General Franco, quien me ha asegurado que se habían ya tomado medidas rápidas y energicas para que no se reprodujera lo ocurrido. De hecho, no se ha producido ningún nuevo fusilamiento de sacerdotes.*

⁷⁸¹ *Ibid.*, 276-7 1-158 Carta de D. Jerónimo Maguregui al Card. Gomá informándole del fusilamiento de dos sacerdotes vascos por los nacionales. 7.XI.1936

⁷⁸² Kontran: Sierra (2001), 415 Sierra Navaren ustez, Llamasen iritzitan Iturricastillo ez zen apaizak ez fusilatzeke aginduan sartzen eta horregatik eman zuen hiltzeko agindua. Behin Iturricastillo erailda Llamas frentera bidali zuten eta Gerra zibilean zehar hilko zen: *el telegrama urgente y fulminante de Franco y Fidel Dávila le mando cese inmediato de más fusilamientos de curasen Ondarreta, Llamas se jacto ante sus oficiales de que la orden no comprendía a Iturricastillo (...) Franco, enterado, le destino de seguido a primera línea del frente de Belchite, Zaragoza de los más mortíferos a la sazón. (...) un mortero enemigo acabo con el desobediente en dos meses.*

casos y que por igual se aplica a los no sacerdotes⁷⁸³. Militarrek fuero eklesiastikoa errespetatu ez bazuten ere, apaizak epaiketa baten ostean erail zituztela dio. Gerran izandako jarrera izan omen zen beraien hilketen arrazoia. Mugika gotzain kanporatuak ez du bat egingo ideia honekin eta, pribatuan bada ere, hala adieraziko dio Vatikanuari:

discrepamos totalmente en una cosa, y mi conciencia y mi condición de prelado de los sacerdotes asesinados en la diócesis de Vitoria, provincia de Guipúzcoa (...) me obliga a dirigir este escrito a la Santa Sede; ya que, como merecía de suyo el caso, no me parece edificante dar a la luz pública otra carta mía, rectificando lo que a todo trance debo rectificar

Publiko egin ezker, egoera lastu eta militarrek apaizen hilketak, atxilotak eta erbesteratze gehiago egingo zituzten beldur zen Mugika⁷⁸⁴.

Pedro Barrusok idatzitako ondorioak ederki laburbiltzen dituzte gure ideiak⁷⁸⁵:

En la actualidad podemos afirmar que este posicionamiento, parte de una premisa falsa, como es la implicación de los sacerdotes en la lucha. Está claro que éstos, no tomaron parte en la lucha contra las tropas navarras. De hecho, la única integración de sacerdotes en unidades militares se produjo en los batallones nacionalistas con posterioridad a la detención y ejecución de los sacerdotes. Está claro que la ejecución de los sacerdotes se debió a denuncias procedentes de las propias localidades en las que ejercían su ministerio y por su vinculación, mayor o menor, con el nacionalismo

Puntu bat gehituko nioke ondorio hauei. Ez lirateke inolaz ere aurrera aterako elizak benetan planto egin izan balu.

Fusilatutako Apaizak Euskal Gobernuaren propagandan

Propagandaren ikuspuntutik, apaizen fusilamenduek argudio ezin hobea eskaini zion Euskal Gobernuari. Nazionalen argudioak zalantzan jarri eta gerrari buruz nazionalismoak eratuko zituen arrazoibideak sendotzeko balio izango zion.

Pariseko *Euzko-Deyan* lehendabiziko zenbakian argitaratuko dute notizia. Lehendabiziko orrialdean EAJtak gerran hartutako erabakiak justifikatu ondoren, notizia bigarren orrialdean dator. Faszistek bizia kendu dieten apaizen hamabi izen aipatzen badira ere 30 bat apaiz fusilatu direla esanaz. Badakigu 16 edo 17 izan zirela azkenean, alabaina, ez da harrizkoa huts egitea, eskura zegoen informazioa ez zen egokiena. Horrez gain, Gasteizko seminarioan 120 bat apaiza atxikitu dituztela ere esaten da. Informazioa soilik eskaintzen da notizia honetan, baina berehala instrumentalizatuko dute. 5. orrialdean Irlandarrei zuzentzen zatzaizkie ingelesez. O'Duffyren *Christian Front*-a kritikatu du, baita Franco ere. Euskaldunak aberria maitatzeagatik jazartzen dabil azkena, tartean hildako eta espetxean dauden apaizak aipatuz. Horregatik, Francoren alde agertu beharrean, euskaldunon alde egiteko deia luzatzen zaie Irlandarrei⁷⁸⁶.

Euzko-Deyak behin eta berriro gogoraziko ditu eraildako abadeak. Guztien artean Aitzol izango da gehien aipatuko dena. 4 eta 5. zenbakietan adibidez, bere bizitza eta obraren biografia labur bat idatziko da⁷⁸⁷. Joaquin Arini eta beste abadeen informazioa ere eskainiko du Parisko aldizkariak⁷⁸⁸. Hasieran aipatuta 30 abadeak denborak aurrera egin ahala *benetan* gertatu zenera hurbiltzen joango dira. Hala ere, idatzitako notizia guztiak ez dira egia izango. Adibidez, *Mas sacerdotes católicos vascos fusilados* notizian ia 20 elizgizon hil dituztela esan ostean,

⁷⁸³ Pazos eta Anton (2002), 39 Anexo a Documento 4-20. Informe del card. Gomá a la Santa Sede sobre asuntos vascos. Incompleto. (1937-02-20) Egun batzuk lehenago idatzi arren, martxoaren 3an bidaliko du gutunean

⁷⁸⁴ Aizpuru et al. (2007)212-3

⁷⁸⁵ Barruso, (2006)

⁷⁸⁶ *Euzko-Deya, Paris* (1936-11-29)

⁷⁸⁷ *Euzko-Deya París* (1936-12-10) eta (1936-12-13)

⁷⁸⁸ Arini buruz: Oiz Mendi, *Euzko-Deya, Paris* (1937-01-17) eta beste apaizei buruz: (1936-12-24)

ezezagunak diren 4 apaiza gipuzkoar Beran agertu direla diote. Ez dugu Beran erail zen apaizen kasurik ezagutzen⁷⁸⁹. Urte bukaeran, aipatutako zenbakiak justifikatzen saiatzen dira. Euskaldunok 14 kasu konkretu ezagutzen dituztela baieztatzen da, baina gehiago izan daitezkeela iradokiz. Gutxienez beste 6 identifikatu gabe daudenak. Artikulu honetan ere, errebeldeek apaizak inongo prozesu judizialik gabe fusilatu zituztela salatzen da, eta horregatik kruzadaren ideia aurka idazten du artikulugileak. Azkenean, diozesian dauden 2.000 apaizetik 1.200 kanporatu nahi direla esanez bukatzen da⁷⁹⁰.

Euzko-Deyak mundura zabaltzen hasitako notiziak Londona egin zuen bere bidea. Agirrek 1936ko abenduaren 22an eskainitako irratsaioaren ostean⁷⁹¹, Londonera enbaxadak 105 fusilaturen zerrenda bat plazaratu zuen hurrengo egunean, tartean 15 euskal apaizen izenak agertzen zirelarik⁷⁹². Enbaxadak ateratako listarekin jarraiki, *Spain. Catholic and Protestant Priests, Freemasons and Liberals shot by rebels* argitaratu zuen. Euskal Apaizen heriotzez zein apaiz ebanjelicoren heriotzaz mintzo da liburuxkako zati batean. Horrez gain, liburu eta liburuxka ugaritan Euskal Apaiza Errepublikaren alde agertzea eta apaizen fusilaketak Gerra Santuaren aurkako ideia errefusatzeko erabiliko dira⁷⁹³. Enbaxada honetako prentsa zerbitzuek editatutako beste lan batean ere gogoratzen dira apaizok. Fernando de los Riosek eskainetako lau hizketaldi biltzen dituen liburuan, laugarrenean, 1936ko abenduaren 30an NBC bidez irakurtzen duen irratsaioan hala dio: *And I mourn, too, for the thirty Basque priests executed by the rebels, whose names were published by the Catholic Government of that Region*⁷⁹⁴.

Agirrereren irratsaioak erantzun azkarra izan zuen. Goma kardenalak 1937ko urtarrilaren 10ean Iruñean *Carta Abierta al Sr. Jose Antonio Aguirre* idatziz. Francoren ezagutzapean eta dirulaguntzarekin zabaldua, atzerrira begiratuta idatzitako gutun bat da⁷⁹⁵. Ez da aurreko urtean idatzitako *El Caso Español* adierazitako idietatik asko aldentuko. Bertan apaizen erailketak erlijio-arazoeekin loturik ez zeudela esan eta bigarren puntuan, gerra arrazoi erlijiosoetan oinarritzen dela arrazoituta hurrengo hau dio:

(...) también lamentaríamos, profundamente, la aberración que llevara a unos sacerdotes ante el pelotón que debiese fusilarlos; porque el sacerdote no debe apearse de aquel plano de santidad ontológica y moral, en que le situó su consagración para altísimos ministerios. Es decir, que, si hubo injusticia, por la parte que fuese, la deploramos y la reprobamos con la máxima energía. No creemos que la haya en amar bien al propio pueblo: por esto nos resistimos a creer que algunos sacerdotes hayan sido fusilados por el mero hecho de ser amantes de su pueblo vasco.

Bukaeran, esandakoa berresten du:

Señor Aguirre, que aquellos sacerdotes sucumbieron por algo que no cabe consignar en este escrito, y que el hecho no es imputable ni a un movimiento que tiene por principal resorte la fe cristiana de la que el sacerdote es representante y maestro, ni a sus dirigentes, que fueron los primeros sorprendidos al conocer la desgracia.

⁷⁸⁹ *Euzko-Deya París* (1936-12-06)

⁷⁹⁰ *Euzko-Deya, París* (1936-12-31) *Hemos dicho de 14 o 32 sacerdotes. Porque nosotros, encerrados en el ámbito de la verdad no queremos transponer sus fronteras. (...) bien tenemos noticias de otros seis sacerdotes fusilados, que hacen un total de 20*

⁷⁹¹ Discurso pronunciado por... (1936) Gerra santua ez zela adieraz, eta elizaren isiltasuna salatzen du: *Díganlo los sacerdotes asesinados por los facciosos y aquellos otros tantos beneméritos sacerdotes que han sido desterrados a lejanas tierras por el enorme terrible delito de amar al pueblo en que vieron su primera luz. No compagina con las ideas cristianas el paganismo de los escritos de los periódicos fascistas. No nos encontramos ante una guerra religiosa.*

⁷⁹² *The Times* (1936-12-23) *Daily Herald* (1936-12-23) Apaizen heriotzak azpimarratzen ditu. *Manchester Guardian* (1936-12-23)

⁷⁹³ Koestler (1937), 108-13 Espainian zehar hildako apaiza protestanteen kasu zehatzak ere adierazten dira.

⁷⁹⁴ de los Rios (1937)

⁷⁹⁵ Dionisio (2012), 293-295

Agirre eta Gomak izandako polemika Ingalaterrako astekari eta hilabetekarietara heldu zen. *Catholic Herald* 1937ko otsaileko 12. zenbakiaren azalea *Separatism and twisted facts. Basque leader answered by Cardinal Goma* goiburupean artzapezpikuak Agirreri emandako erantzunak adierazten dira. Zenbaki berdinean, G.S. Burnesk erromatik idaztitako gutunean, *Taking sides*, Agirreri *weak Catholicism* egozten dio. Hurrengo aste arte itxaron beharko da Euskal lehendakariaren aldeko zerbait irakurtzeko⁷⁹⁶.

Ez zen auzi honen inguruan aldizkari katolikoetan eman zen polemika bakarra izan. 1937ko otsailean, Señor M. Etxevariaren alia erabiliz, Lizasok, Gil-Roblesen, 1937ko urtarrilaren 22an idatzitako artikulu ezagunari erantzuterakoan hildako apaizak aipatzen ditu. Gogoan izan behar da, ofizialki Lizasok ezin duela propaganda egin. Horra hor izengoitia erabili behar izateko arrazoia⁷⁹⁷:

Let Gil Robles visit the province of Gipuzkoa where in the days of the Red Government not a single priest was murdered, and let him find out who were the assassins of more than twenty ministers of the Lord. Perhaps his Christian conscience may feel remorse for having had the audacity to attack the Catholic of the Basque Country, and to deny that they were such.

Are interesgarriagoa da *The Universe* Lizasok igorritako karta nola testuinguratzen duen, eta F.G. Sturrupek zenbaki berdineko 3. orrialdean eta Goma artzapezpikuak hurrengo astean aterako den artikulu irakurri ostean esaten direnak birpentsatzeko eskatzen die (*Carta Abierta al Sr. Joe Antonio Aguirre*) beraien irakurleei. Publikoki *The Universe*kin izango den eztabaida bakarra izango da, ez baitiote gehiago Lizasori parte hartzen utziko.

Prensa liberal eta laboristak askoz harberago izango da halako notiziekin. 1937ko otsailean Manchester Guardianek apaizen fusilaketen inguruan informatuko du. *Shooting of priest by rebels disgusts Catholics*⁷⁹⁸ Hildako apaizei buruz aritzeaz gain, apaiz asko erbesteratu egin dituztela salatzen da. Horrez gain, euskaldunak erdi bidean kokatzen ditu artikulu honek *Its opposition [euskaldunena] to Communism and Fascism* Ez da prentsan agertuko den notizia bakarra. Antonio Ramosek 1937ko uztailean hasi eta azaro arte *The Morning Post*eko editore zen, Howell A. Gwynnerekin izandako eztabaidetan presente izan zen Euskal Apaizen auzia⁷⁹⁹. Ramosek aterako du lehendabizi gaia. Gwynneri errepublikaren sarraskiak salatzean, nazionalk egindakoak esatea ahaztu zaizkio, tartean zerrendatzen diren 13 apaizen hilketa. Gwynneren erantzuna irmoa da. Hil bazituzten *frial trial* baten ostean izango zen. Egin zutenatik hilko zituztela dio ez beste arrazoiengatik. Ramosek, apaizek armak hartu zituztela gezurtatu eta garantiazko epaiketa bat izateko aukera izan gabe hil zituztela azpimarratuz bukatzen du gai honen inguruko eztabaida.

Noizbehinka hildako apaizen inguruko erreferentzia solteak ikusiko ditugu. Adibidez, Bilbo erori ostean Lizasok ateratako nota ofizial batean eraildako apaizei erreferentzia txiki bat egiten die⁸⁰⁰. Horrez gain, Euskal Gobernuak bultzatuta argitaratuko diren liburuetan ere izango da auzi honen inguruko informazioa. Jean Pelletierrek Aitzol apaizaren kartzelaldian jasotako torturak oroituko ditu adibidez⁸⁰¹.

Apaizen heriotzen polemikak 1937ko otsailean izan zuen indarra lasaitu egingo da denborarekin, eta hasieran izan zitzakeen istorio sentsazionalistak alde batera utzi eta hildako apaizak estatistikak bilakatuko dira propagandan. Gainera, hildakoez gain, errepresaliak

⁷⁹⁶ *Catholic Herald* (1937-02-12) eta (1937-02-19)

⁷⁹⁷ *The Universe* (1937-02-05)

⁷⁹⁸ *Manchester Guardian* (1937-02-18)

⁷⁹⁹ Gwynne eta Ramos (1937), 17, 19, 25, 47

⁸⁰⁰ *SUNDAY RIME*, (1937-06-27)

⁸⁰¹ Pelletier (1938)

pairatzen ari direnengan hasiko dira gehiago zentratzen. Euskal apaizen kasua ez dela kausa pertsonal eta indibiduo batzuen fusilaketara mugatzen adierazi nahiaz: askoz ere erro eta iriskera sakonagoak dituen auzia da. Hala, 1938ko urtarrilaren 18an Wright agentziak Lizasoren izenean prentsara *Basque clergy persecuted* nota aterako zuen. 414 euskal apaiz jazartuak direla salatuko du deklarazio ofizialean⁸⁰²:

- 15 hildako (eta askoz gehiago hiltzera kondenatuak)
- 138 kartzelan
- 153 beren posturik kendu eta euskal lurraldeetatik kanpora bidaliak
- 69 Espainiatik kanpo erbesteratuak

Salaketa hauen aurreko astean, otoitz egiteko, Euskara eragotzi izanarekin zer ikusia izango dute ziur⁸⁰³. Gainera, estatistiketara pasa izanak bere garrantzia propagandistikoa du. Esaterako, 1938ko martxoan Ingalaterran zabalduko zen Leizaolaren *Administration of Justice* panfletoa estatistikez jantziko dute. Horrela, Britainiar Gobernuak egindako txosten bat dirudi, eta hala estrukturatuta *mere propaganda* baina zerbait gehiago ikusten du britainiar audientziak informazioa. Txostenaren helburua euskaldunon eredugarritasunean heztea da⁸⁰⁴. Londonen prestatutako txosten horretan ez zituzten hildako euskal apaizak aipatu, baina Leizaolak Lizasori idatzi ostean, informazio gehitu eta dagoeneko bidali zituzten txostenei gehigarri bat bidaltzea erabaki zuten: *conviene no dejar de mencionar a los sacerdotes (...) puede imprimir en dos hojas (...) enviarlas a los que hayas remitido ya el folleto*⁸⁰⁵.

Hildakoen zenbatekoaz haratago, *Church Times* anglikanoak beste meloi bat zabalduko du. Hildako apaizak Francok Gomari hildakoak izango ez ziren hitza eman ostean hil zirela adierazi zueneko⁸⁰⁶. Adierazpen hauen harira *The Universeko* editoreak, George Bernardek hainbat informazio argitaratutako ditu. Betiere, *publicly alleged murder* hitza erabiliz. Haren ustez, informazio horien inguruan eztabaida handi bat izango du Lizasorekin eta gutun pertsonalen irakurketak argi adierazten digu prentsa katolikoaren jarrera⁸⁰⁷. Horregatik, Lizasok *The Universen* agertutako informazio horiek zuzendu nahi ditu. Astekari katolikoa Francoren aldekoa dela ulertzen badu ere, justizia egin eta egia adierazteko eskatzen dio. Hasteko, *callous murder-retako* batzuk Gomak Francori apaizak hilko ez dituela zin egin ostean gertatu izan direla. Justiziaz hitz egiten ari garela, hildakoez gain errepresioa jasaten ari direnak kanpoan ez uzteko eskaera ere luzatzen dio Bernardi. Honen erantzunean hildako eta errepresio jasaten ari diren apaizak, ez daude apaizak eta euskal nazionalistak direlako errepresioa jasotzen, beraien akzioen ondorioz, justuki erreprimituak izaten ari direla iradokitzen du.

Alegazio hauen aurrean Lizasok, erantzunik gabe geratuko den gutun luze batean, egunkari katoliko eta katolikoek izan behar duten jarreraren inguruan idazten dio. Ondoren, *The Universe* nazionalen alde lerratuta dagoela erakusteko hainbat harpidetza eta erreboltaren inguruko egiten dituen justifikazioen faltsutasunak zerrendatuz jarraitzen du. Hain ondo informatua egonik armak hartu dituen euskal apaizen izenak eta Euskal apaizen atxiloketen zergatiak esateko erronka joaz.

⁸⁰² *Manchester Guardian* (1938-01-20)

⁸⁰³ *Daily Herald* (1938-01-12)

⁸⁰⁴ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:294/01 Report febrero 1938

⁸⁰⁵ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01 Justiziaren inguruan egindako erreportaiaren hasieran ez zituen sartu, Leizaolak Lizasori (1938-03-15) *conviene no dejar de mencionar a los sacerdotes. (...) puede imprimir en dos hojas (...) enviarlas a los que hayas remitido ya el folleto.*

⁸⁰⁶ *Church Times* (1938-01-21)

⁸⁰⁷ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:214/01 George Bernard Lizasori (1938-02-03) Lizasok Bernardi (1938-02-10) Bernardek Lizasori (1938-02-11) Lizasok Bernardi (1938-02-19) Lizasok Bernardi (1938-03-02)

1938ko martxoaren 2an, otsailaren 18an Sturup falangistak argitaratutako *Basque clergy may go back without fear to Spain* artikuluari Lizasok gutun bat bidaliz erantzungo dio. Euskal apaizak bueltatu ezker salbu ez daudela adierazi nahi du gutunean. Beldur izateko arrazoien artean, epaiketarik gabe eta fuero eklesiastikoa errespetatu gabe eraildako 15 apaizak gogoratzen ditu lehendabizi. Gainera, Artzapezpikua eta bikarioa, beste 200 bat apaizekin, erbestera eta 100 bat apaiza hiltzera kondenatuak izan direla gomutatuz, ez itzultzea zentzuzkoena dela adierazten du. Noski, ez zen argitaratu.

Propagandaren moduei begiratu, errebeldeei egin dutena onartzera eskatzeko sentsazionalismotik, informazio konkretu eta estatistiko baterako eboluzio bat nabari da. Hildakoen informazioa ematek, apaizen jazarpena aditzera ematera pasako da fokua. Azkenean, biak auzi berdinen adierazpena baitira, euskal kulturaren jazarpenarena hain zuzen ere. Informazio hauek katoliko mundura bideratzeko helburua bazuten ere, anglikanoen munduan kristauenean baino gehiago eragingo zuen. *Church Times* benetan kritikoa aritu zen eta 1937ko urtarrilean mugimendu antiklerikal handia bazela onartu bazuten ere, erlijioaren aurkako mugimendurik ez zela esan zuten.

Frantzian ez bezala, katolikoek modu konparatiboan hartu zuten auzia. Hau da, 15 hildakoak ezin dira *Red Terror*ak jazarritako hainbat milaka apaizekin alderatu. Gainera, arbiuati beharrean, hildakoak *justuki* eta garantiako prozesu baten ostean erail zituztela zabaltzen zuten. Gutunen bat eta artikuluetan agertutako matizazioen bat salbu, gehienbat, *The Tablet* eta *Blackfriars* dominikarren astekari neutralistan, kanpaina latza egin zuen prentsa katolikoak Euskal Gobernuaren aurka. Hainbeste ezen, Lizasok, berak bidalitako informazioa gaizki interpretatu eta buelta ez emateko, prentsa katolikoari informazioa pasatzeari utziko zion.

Apaizen heriotza hauek noizbehinka jarraituko zuten agertzen. Adibidez, 1938an *United Editorial* errepublikarren aldeko editorialak argitaratuta Francoren aginpean egindako sarraskien zenbaketa bat egiten da. *Franco's rule* titulupean argitaratuko dute. Hemen fusilatutako apaizen zenbakiak ematen badira ere gehiago zentratzen dira erbestean dauden apaizetan. Liburuxka hau, Charles Duffek editatutako *The War in Spain* aldizkarian azalduko da. Zenbaki batean eraildako aipazen zerrenda bat eskainiko du, eta handik hilabetera, artikulua horri erreferentzia eginez 1937tik aurrera 1,300 *indesirable* egotzi direla salatuz jarraitu⁸⁰⁸.

17. BONBARDAKETAK: GERNIKA ETA DURANGO

Oraindik eta, seguraski, etorkizunean ere, zibilen aurkako bonbardaketen auzia Espainiako Gerra Zibileko gairik eztabaidatuenetarikoa izango da. Eta nola ez, mundu mailako sinbolo bilakatu den Gernika⁸⁰⁹ da guztietan gai arantzatsuen. 2021ean Gernikaren bonbardaketaren inguruko polemika berriro piztu da. Rafael Dávila militarrek, Fidel Davila, Emilio Mola hiltzean Iparraldeko ejerziaren buruzagiaren ilobak, eskola *neo-franquistaren*⁸¹⁰ tesiak erreproduzitzen ditu berriki idatzitako liburu batean. Bonbardaketaren errua Alemaniarek eta Italiarek egotzen zaie. Franco eta Molaren aginduen aurka egindako sarraski bat izan omen zen Mando frankistak ezer ez zekitela argudiatuz⁸¹¹. Xabier Irujo, Paul Preston eta Angel Viñas

⁸⁰⁸ *The War in Spain* (1938-03-19) (1938-04-16)

⁸⁰⁹ Pierre Villes Soutworthen liburuaren sarreran itauntzen du ea zergatik ez zen Durango izan sinboloa Guernika beharrean. Southworthek 1939-1970 bitartean Gernikaren inguruan izandako eztabaidak ikertzen ditu. Hortik aurrera egon dira beste eskola

⁸¹⁰ Herbert Southworthek sortutako terminoa

⁸¹¹ Davila, (2021)

historialariek prentsan erantzun diote⁸¹². Eztabaidak luze dirau eta Gernikaren auziak isuritako tinta guztia irakurtzea ezinezkoa den arren, egun historiografiak nahiko akordio zabalak ditu. Halere, eztabaidagarri dauden bi gai geratzen dira. Biak ala biak, gaur egun ere, inplikazio politiko handikoak. Bata bonbak botatzeko agindua nork eman zuen zehaztean datza. Bestea, hildakoen zenbatekoan. Behean aztertuko ditugu.

Inondik inora ere, ez da Espainiako Gerran zehar izandako bonbardaketa guztien propagandaren inguruko azterketarik egingo. Ezinbesteko da gogoan izatea Gernikak eta Durangok bezainbesteko oihartzuna izan zutela 1936ko urriko Getafeko sarraskiak eta 1938 martxoan zehar Bartzelonako Italiar abiazioaren erasoek⁸¹³. Hala ere, euskal kasura mugatuko gara.

Durango eta Gernikako kasuan zentratu aurretik, abiazioak eta bonbardaketek Britainia Handian ikuspuntu militar eta politiko batetik jokatu zuten garrantzia aztertuko dugu. Espainiako Gerra Zibilean abiazioaren indar suntsitzaileak gogor eragin zuen Britainia Handiko iritzian. Irla batean biziz eta *Royal Navy* indartsu batekin, zerutik besterik ezin zitzaizkiren erasoak jaso. Ondorioz, Espainiako Gerra Zibileko bonbardaketen inguruko berriak britainiar militarren eta autoritateek ez ezik, atentzioarekin jarraitu zuen populazioaren zati handi batek.

Durango-Gernika eta beste 290 izua zabaltzeko operazio

Xabier Irujo ikerlariak Mola jeneralaren azken abisu ezagunarekin *Arrasaré Vizcaya* izenburutu duen lanean sistematikoki aztertu du Euskal zeruan eman ziren operazioak. Guztira, 1242 operaziotan 2000 bonbardaketa zenbatu ditu. 1096 errebeldeak egindakoak diren bitartean, 146 besterik ez zituzten egin errepublikaren alde lerratu zirenek. Zerrendaketa hutsaz haratago doan lan honetan. Bonbardaketen izaerak kontzeptualizatu eta denboran testuinguratzen ditu. Hiru motako bonbardaketak izan zirela diosku: Taktikoak, estrategikoak eta izua zabaltzekoak. Errebeldeen 1096 operazioak ehunekoetan aztertuz, gehiengoa taktikoak izan ziren, %60,7 (665), %12,7 (139) estrategikoak eta %26,6 (292), hau da, laurden bat baino gehiago, izua zabaltzekoak. Errepublikarren kasuan, %4,9 (8) izan ziren mota horietakoak. Zenbakiak ikusterik besterik ez dago bando nazionalak zeruen nagusitasuna izan zuela jabetzeko. 1937ko apirilaren 10an Henry Chiltonek bidalitako mezu batean Hidalgo de Cisnerosen etorreraren berri ematean hala dio abiazioari buruz, *are being strengthened considerably, both in men and machines, and confidence is felt that a stop will soon be part to the destructive activities of the insurgent Air Force, which has proved the most powerful arm in the present offensive*. Ez interbentzio batzordearen laguntzaz, Errepublikak bidali behar zituen abioiak ez ziren iritsi eta abioia benetan bilakatu zen *the most powerful arm in the present offensive*. Bonbardaketak noiz izan zirenen arabera hiru aldi ezberdintzen ditu Irujok: 1936ko udazkena, 1936ko negua eta bonbardaketen gehiengoa zentratzen zen, Bizkaiko ofentsibaren baitan eman zirenak⁸¹⁴.

Gure lanean interesatzen zaizkigun Durango eta Gernika, izua zabaltzeko operazio eta Bizkaiko ofentsibaren baitan kokatu behar ditugu. Izua zabaltzeko operazioak suntsipen indarra erabiliz, etsaia psikologikoki eta materialki ahitzean datza. Bonbardeoak ikusten eta entzuten egoteak benetako eragina dauka gizakion psikologian. Orohar, Euzkadiko lurraldean izua zabaltzeko 292 bonbardaketa operazio zenbatu ditu. Horietatik zortzi errepublikarrek gauzatuak. Halako izaerarekin egindako lehen operazio garrantzitsua, Alemaniatik etorri berria zen Condor Legioak 1936ko irailaren 25an Bilbo bonbardatu zueneko izan zen. Eragindako sarraskiari

⁸¹² *Publico* (2021-Abuztuak 3) <https://blogs.publico.es/dominiopublico/39538/confeccionar-historia-escribiendo-sobre-lo-que-nunca-ocurrio/>

⁸¹³ Getafeko argazkiak Arturo Bareari eskerrak gorde omen ziren: Barea (2012), 275-84 1938ko martxoko bonbardaketak Garcia (2008)

⁸¹⁴ Irujo, (2020); CBDG Kew I FO 371/ 212289 W 7016 Chiltonek Edeni (1937-04-10)

erantzunez, *Jaime I* tripulazio errepublikarrak preso eskuindarrez beteriko Altuna Mendi eta Cabo Quilatesi eraso egin zioten. Hurrenez hurren, 29 eta 42 preso hilko zituzten. 71 guztira⁸¹⁵.

1937ko urtarrilaren 4an, Gasteizko aerodromotik 3 Junkers-57 trimotara kaza patruila batzuek babestuta, guztira 22 aparatu, abiatu ziren Bilborantz. Aurreko egunean egindako antzeko operazio bat egitera. Urtarrilaren 3an hildako bat eta zortzi zauritu utzi bazituen, urtarrilaren 4an bost pertsona hil eta hainbat zauritu utzi ostean, errebolta bat eman zen. Arratsaldeko 15ak inguruan izan zen operazio alemaniarra eta behin bonbak bukatuta jendea Gobernazio aurrean bildu zen ordu t'erdia beranduago. Handik 5.000 bat pertsona Larrinagarantz abiatu ziren. 17etatik 20.00etara iraun zuen oldarraldian 55 pertsona hil zituzten. Larrinagatik batzuk El Carmelora abiatu, eta presoan erresistentziari eskerrak, 7 pertsona besterik ez zituzten hil bertan. Gertaerok jasotzen ari zirela Defentsa departamentuari laguntza eskatuta Deustoko unibertsitatean kantonatuta zegoen UGTko Asturias 7 batailoia Angeles Custodios babestera bidali zuten. Presoak babestu beharrean eraso egin zieten. Zeuden 189 presotik 109 hilko zituzten. Batailoi hartako bigarren konpainia Casa Galernara abiatu eta 53 pertsonaren bizitzarekin bukatu zuten. Guztira, 224 hildako. Euskal Gobernu eta EAJren artean nahiko iskanbila izan zen gertaeron harira. EAJko buruak Monzonen dimisioa eskatu arren, Agirrek ez zuen onartu eta Euzkadiren orrietan Monzonek zuzendutako departamentuak hainbat artikulu zentsuratuko ziren.

Hasierako sarraskiaren erantzule zen abioietako bat Bilboko defentsek jo eta tripulazioko sei kidetik lau hil egin baziren ere, beste bik Adol Helmmmer eta Karl Gustav Schmidtek jausgailua ireki eta bizirik lur hartu zuten. Lehendabizikoa Torre Urizar inguruan erori eta herritarrek lintxatu bazuten ere, bigarrena bizirik atxikitzea lortu zuten. Biek gordeta zituzten txosten, eguneroko eta bestelako karnetak erabiliko ziren parte hartze alemana salatzeke. Schmidti elkarrizketa bat eta guzti egingo zitzaion.

Bilboko jazoeren ostean ez zen halakorik berriro gertatu. Ez Durango ezta Gernikako sarraskiek ez zuten erreboltarik sustatu. Aldiz, erresumin internazionala eragin eta Britainia Handiko gobernuak babesten zuen ez interbentzioko fartsa kinka larri batean jarri zuen.

Deskribatu berri ditugun bezalako izua eragiten zuten bonbardaketek 1937ko apiril-maiatzean joko zuten goia. Martxoaren 31an hasitako Bizkaiko ofentsiba oso geldo zihoan eta hura azeleratzeko erabiliko ziren. Bi hilabeteotan, egunero, batzaz beste, 10 operazioko egingo zituzten Molaren aginduetara zeuden hegazkinek. Irujoren hitzetan, Euzkadin ez ezik, Goring, Luffwaffeko buruaren helburua izua mundura zabaltzea zen⁸¹⁶.

Ez da ahaztu behar aireko indar guztiak Alfredo Kinderlanen menpe zeudela, Kondor legio alemaniarra eta Italiako aire indarrak barne. Gernika eta Durangoko eztabaiden inguruan erantzulea nor izan zen zehaztea, ez da gure laneko helburua, baina horren inguruan izandako eztabaida sakonak izan dira. Guk bat egiten dugu bonbardaketen agindua emateko azken erabakia nazionalen goi-mailako militarren buruek hartuko zutela⁸¹⁷.

Behin hori zehaztuta, goazen Durangoko bonbardaketaren nondik norakoak aztertzeraz. Uste denaren aurka, Italiarrak izan ziren Durangoko bonbardaketaren erantzuleak eta ez

⁸¹⁵ Azcona eta Lezamiz, (2012) Jarraian datorren informazioa hemen; Landa, (2007), 82 7 hildako aipatu.

⁸¹⁶ Irujo (2017)

⁸¹⁷ *Ibid.* 97 eta (2021), 160 Francori egozten dio Gernikako bonbardaketaren erantzule bakarra, ez Mola, ez alemaniar-italiarrak, ezta Kinderlan. Irazabal (2019), 21 Alfredo kinderlanen egunerokoa jarraituz, Kinderlan berak, Hugo Sperrle (alemanen burua), Vincenzo Velardi (Italiarren buru), Emilio Mola, Jose Solchaga (Iparraldeko Indarren Estatu Nagusiko buru) eta Francisco Franco

Alemaniarrek. Guadalajarako porrotaren ostean, Condor Legioaren baitan aritu baitzen abiazio italiarra. Martxoaren 31ko goiz hartan, Soria eta Logroñotik aerodromoetatik abiatu eta Idiazabalen elkartu ziren 9 Fiat 214 eskadroiko 4 Savoie 81ekin. Guztiak batera goizeko 8.30 hasi eta zazpi minutu iraun zuen bonbardaketa egin zuten Durangon. Alde zaharra izan zen helburua. Populatuen zegoen aldea hain zuzen. Bomba guztiak 150 metroko erradio batean bota zituzten, Kurutzia kalea eta Ezkurdia plazaren tartean. Besteak beste, Santa Maria Uribarriren portikoa apurtu, Agustindarren Santa Rita moja-etxea birrindu eta Jesuiten San Jose etxean meza ematen ari zen Rafael Billabeitia hil zuten. Eguneko raid bakarra izan ez zen honetan, Agustindarren konbentutik ihesi zoazen 11 moja eta emakume gazte bat ere akabatu eta 20 kg-ko 12 su-eragile bomba erabiliko zituzten.

Arratsaldeko 16.30 beste saio bat egin zuten italiarrek. Oraingoan, 6 Savoie 81, hiru 214 eskadroikoak eta beste hiru 213koak, 7 CR-32k babestuta. 214 eskadroia berriro parte zaharrean zentratu zen, kasu honetan axisaren beste zentzuan eta Zehar Kale izan zen helburu, 5.000 kg bomba bota zituztelarik. Goizeko esperientziaren ostean, zibilak kanpoalderantz ihesi joan eta CR-32ak metrailatu egin zituzten. Bonbak baino heriotza gehiago eraginez gainera. 213 eskadroiak ondoan zegoen *Hijos Mendizabal* enpresa-militarra oso osorik utzi bazuen ere, tren estazioa txikituko zuen.

Jon Irabazabalen ikerketak erakusten du Durangoko bonbardaketa etsaia desmoralizatuz izua-zabaltzeko gerra esperimentu bat izan zela. Nazionalak ondo zekizkiten Durangoko puntu estrategiko guztiak, izan faktoria militarrek, leku estrategikoak edota batailoien etxeak, baina tren komunikazioa eteteko jo zituzten errailak eta Jesuiten eta Santa Susana elizak salbu -zeinetan batailoiak konbentuetan zeuden ez elizan- ez zen beste elementu esanguratsuren inguruan bonbarik erori. Gainera, 214 eskadroiko egunerokoetan argi adierazten da bonbek helburu guztiak jo zituztela, bat ere ez erratuz. Horrez gain, 1937ko maiatzaren 28an Durango, Eibar eta baita jarraian hitz egingo dugun Gernikari buruz Joachin Richtofenek, Kondor Legiora Luffwaffek ezarritako analistak txosten batean hiru herri hauek Polonia eta Belgikako herri txikien konparatzen ditu. Hortaz, argi dago hemen ikasitakoa etorkizunean aplikatzeko erabili zela, esperimentuaren ideia indartuz.

Durangon izandako sarraskiak 336 biktima utziko zituela kalkulatu du Irazabalek. Gehienak CR.32en balek asasinatuta. Horren baxu zihoazen Italiar pilotuak ezen, ondo zekitelako zibilak metrailatzen ari zirela, batik bat emakume eta umeak. Durangoko biktimen zenbatekoa hein handi batean zehazterik ahal izan bada ere, askoz ere zailago da, egiatan ezinezkoa egungo iturriekin, Gernikako bonbardaketaren zenbatekoa zehaztea. Ondorioz, sekulako eztabaidak inguratzen du gai hau. Minimalista batzuek, Salas Larrazabalek, esaterako, 126 pertsonetan kokatzen du hildakoen kopurua. Aldiz maximalistek, 1654an jartzen dute gutxiengoa. Xabier Irujoren ustez, figura hori handiago da⁸¹⁸.

Bonbardaketa 1937ko apirilaren 26ko 16.20 hasi eta 19.40 bukatu zen. Gasteiz, Burgos eta Soriako aerodromoetatik abiatuta Alemaniarrek 24 hegazkin bonbaketari eta 19 ehiza-hegazkin erabili zituzten bitartean italiarrek 3 bonbaketari eta 13 ehiza hegazkinekin, guztira 59 aparatuk, parte-hartu zuten. Junkers 52, Hinkle He111, Dornier Do17 eta Savoia Marchetti S;79 bonbaketariek gain, Messerschmitt BF109 eta Fiat Cr32 ehiza-hegazkinak eta bien tarteko hegazkina zen He51k erabili ziren.

⁸¹⁸ Salas (2012); Vicente Talonek (1970) ia 200-enara igotzen du; Irujo (2015); EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:100 L:40/01 Iralak Lizasori *por encargo de Leizaola te envío nota sobre el bombardeo de Guernika. (...) Oscila de 1.654 a 2.000 puesto que como las tropas de Franco entraron días después, no hubo tiempo de calcular matemáticamente, aunque la impresión es la última cifra que te doy.*

Gernikako ekialdetik He51 bakarra azaldu zen lehendabizi 16k aldean. Alarma jo eta populaziori babeslekuetatik ateratu zen. Zoritxarrez, ez zen eraso amaitu. He51, Bf.109 eta Cr32 batzuek zentrotik inor ateratzea eragotziko zuten. Gainera, zelatan zebiltzan He51k noizbehinka bonbak botako zituen. Setiatuta zeudela, 17ak aldera orduan hasi zen momentu gogorrena⁸¹⁹:

veintiún Junkers Ju52 volando en cuña cerrada, ejecutaron un bombardeo Koppelwurf en alfombra, de norte a sur, lanzando una mezcla de bombas destructoras e incendiarias que redujo la villa a escombros. Los primeros grupos de bombardeos lanzaron bombas destructoras mientras que los últimos lanzaron las incendiarias. Describiendo un cirulo ejecutaron varios pases sobre el centro urbano de Gernika hasta dejar caer toda su carga. Después de quince minutos de bombardeo pesado sobre el pequeño núcleo urbano de la villa todo comenzó a arder.

Behin bonbardaketa astuna bukatuta hirugarren fasean sortutako setioak sutetik inor ateratzea galarazi zuen. Horrela bonbardaketak eragindako sarraskia suak biderkatzea nahi zen. Bukatzeko, 100 minutuz babesgabe zegoen populazioaren metrailaketa gauzatu zen.

Bonbardatutako area oso txikia izan zen: Gernikako kasko zaharra. Bonba gehienak, 340x700 m azalera batean kontzentratuz. Arma fabrika eta komunikabideak ez ziren ukitu, beraz, izua zabaltzeko bonbardaketa izan zela argia da. Guztira 41 tona bonba erabiliko ziren. Dentsitate altuko *Koppelwurf* bonbardaketaren esperimendu bat izan ala ez, Euskal Gobernuak sarraskia, euskal arima deuseztatzeko saiakera balitza salduko du. Errebeldeen hasierako bertsio batek Gernika bonbardatu ez zutela esan ostean, bertsio aldatu eta ofizialki *Herran txostenean* iturburu ezezaguneko hainbat bonba erori zirela onartu arren, Gernikaren suntsipena su baten ostean 20.00etan hasi zela mantenduko dute.

Propaganda: egiaren bataila

Durangoko bonbardaketak izan zuen nazioarteko eta Britainiar prentsan oihartzuna. *The Times*ek ia-orrialde erdi bat eskainiko zion Durangoko bonbardaketaren 4 argazkiri. Alde zaharreko bi argazki, eta bi eliza suntsituta ikus daitezke. Oin-oharretan 200 hildako inguru aipatzen dira. Jesuiten elizan meza ematen ari zen apaiza eta beste 25 pertsona hil zirela ere esanez eta Santa Marian zegoen apaiza eta Santa Barbarako komentuan eraildako 12 lekaima ere aipatzen ditu berriak. Ez dira argazki gogorrenak, baina bando nazionalak txikizioak eragiten dituela argi eta garbi erakusten da⁸²⁰.

Hewlett Johnson, Canterburyko deana buru zuen komitea bertan izateak lagundu zion Durangoko bonbardaketari. Ingalaterrara begira, Radio Euzkaditik hitz egin zuen eta Gernika bonbardatu zuten egun berdinean publikatu ziren *Manchester Guardianen* Johnsonen hitzak:

We visited Durango the next afternoon. As we approached it, we witnessed a renewal of the bombardment by six rebel bombers accompanied by a number of fighting planes. Afterwards we entered the town and found ourselves in a scene of indescribable desolation. A great part of the town was destroyed. Artikuluaz gain, are garrantzitsuagoa zen 30 bat orriko txosten bat ere argitaratu zuten. Euskaldunon katolikotasuna adieraztearekin batera, Durangoko bonbardaketa salatzen zuen idatzi honek⁸²¹.

⁸¹⁹ Irujo (2020), 160-3

⁸²⁰ *The Times* (1937-04-06)

⁸²¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En París. Secretaría. L:332/01 Telegrama. Abril 37 *llego comisión cristianos británicos testigos bombardeo durango dean anglicano cantebury hablo radio mundo ingles* = presidente Euskadi; *Report of a religious...* (1937); *Manchester Guardian* (1937-04-26)

Durangoko kasuan, eztabaida nagusia ez da bonbardaketa izan zen ala ez zentratuko. Bere izaeran jarriko da atentzioa. Euskaldunek zibilen aurkako eraso bat bezala ikusten bazuten ere, Alfonso Merry del Valek, Ingalaterra nazionalen ordezkarietako batek, Durango interes militarren ondorioz bonbardatuko zela adieraziko du. Onartu egingo du bonba nazionalek hil zituztela meza ematen ari zen Santa Mariako apaiza eta baita hainbat Jesuita ere. Horietako gehienak nazionalekiko sinpatiak zituztenak, baina, aurretik elementu militarren aterpe bezala erabili zituzten eraikuntza horiek. Horregatik: *Under the circumstances the bombardment must be reckoned a perfectly justifiable act, regrettable though its consequences were to be*⁸²².

Durangok atentzioa bereganatu bazuen, Gernikak interes hori biderkatu eta sumindura eragingo zuen britainiar gizartean. Benetako lurrikara izan zen. Ez dago erabat argi zergatik egin zuen eztanda iritzi internazionalak, baina, baliteke Durango eta apirileko blokeoak euskal kasua ezagutaraztearekin batera, errebeldeen gezur eta gertaeren inguruko diskurtsuen aldakortasunak britainiar iritzia sarraskituen aldera balantzatu izana. Kasualitatez, Wright agentziaren lehen lana Gernikaren ingurukoa izan zen.

Gernika bonbardatzerakoan, hainbat korrespontsal zeuden Bizkaian. Ezagunenak, George Steer (*Times*), Noel Monks (*Daily Express*) eta Christopher Holme (Reuters). Dirudienez, egun hartan Bruno Mendigurenek gidatutako departamentuak zentsurarik gabe utzi zizkien artikulua bidaltzen. Hala, apirilaren 28an prentsa anglosaxoian Gernikan jazotakoaren inguruan antzeko istorioak argitaratu ziren. *Morning Post* barne⁸²³. Steerren artikuluan *The Tragedy of Guernican* lekuko laguntzaz bonbardaketa deskribatzen zen. *News Chronicle* benetan gogorra izan zen. *Franco wipes out town: 800 victims of barbaric air-raid. Fugitives fall under bullets of swooping rebel planes. Daily Herald* *The worst atrocity of the Century* deitu zion⁸²⁴.

Salamancak berehala gezurtatu zuen Gernika bonbardatu izana. Egun hartan euria egin omen zuen. Interesgarriak gertatzen dira Salamancatik Bolinek Ingalaterrara nazionalen agenteei (ONALOri, ziurrenik Alfonso Olanori) bidalitako telegrametan hartutako jarrera ikus daiteke⁸²⁵. Apirilaren 27an hala dio: *En esta villa destacada por su industria armera aparece el barrio más rico destruido por el incendio intencionado de los elementos rojos vizcaíno que al igual que en Irun han querido dejar la huella de su barbarie*. Handik bi egunera esandakoetan berretsi eta ideia berri bat agertuko da: jomuga militarra.

Fugitivos vascos cuentan espantadas tragedias de villa como Guernica quemada y destruida por fuego intencionado de los rojos cuando nuestras tropas hallabanse más de quince kilómetros de distancia indignación tropas nacionales es grande por calumniosas maniobras rojos que después destruido fuego sus mejores ciudades intentan culpar aviación nacional cuando esta solo persigue objetivos militares. Apirilaren 30ean, *Destrucción (...) Guernica es semejante a la producida en Eibar (...)*.

Maiatzaren 2an bertsioa aldatuko dute. 26an abioiak atera baziren ere ez zuten Gernika bonbardatu. Hori bai, bertan helburu militar bat izan zitekeenez, 26an baino lehenago agian bonbardatu zuten Gernika. Bolinek bertsio aldaketa hau erakusten du Ingalaterrara maiatzaren 14an bidalitako telegraman. Hala ere, Londoneko prentsak halako sarraskia nazionalei egozteak sumina eragiten dio. Ez omen zuten horren gogor kritikatu Madrilen eta Bartzelonan benetan jazotako errepublikarren hilketak:

As if obeying orders, many English French newspapers are using minute event, such as hypothetical bombardment small town for campaign intended present national Spain as antihumanitarian and opposed principal law of peoples, thus serving ends red soviet faction dominating Spanish red

⁸²² Merry de Val (1939), 28-30

⁸²³ *Morning Post* (1937-04-29 eta 30) Nazionalen bizkarretara alemaniarak izan zirela iradoki zuen.

⁸²⁴ *News Chronicle* (1937-04-28) *Daily Herald* (1937-04-28)

⁸²⁵ CDMH-INCORPOADOS-1505

zone said press clamorous against bombardment open towns attempting blame national as authors outrages national Spain. rejects energy such injurious campaign and denounces maneuvers before world. Press now clamoring kept silent (...) newspapers today defining so-called humanitarian principals kept silent or spoke timidly or even attempted justifying such barbarous crimes [Errepublikak hildakoak] also remaining silent (...) recently schools Valladolid and many towns rear guard miles fronts bombarded by red planes numerous victims among women children (...) now Basque soviet hordes burnt blown up Eibar industrial hard-working city just before our troops entered. They used dynamite sprayed petrol until most building destroyed but those who today weep for Guernica remained unmoved and were not scandalized. Irun suffered equal fate before European journalist witnessed from Henday with same negligent or culpable silence. Guernica only sic kilometers from fighting line was important crossroads filled red troops retiring towards other defenses. Guernica during nine-month important factory arms munitions operated. Would not have been surprising had national planes marked Guernica as objective. Laws war allowed it rights people not contrary. **Objective was classical military with importance justifying bombardment. Yet it was not bombarded.** Maybe some bombs fell Guernica during days when our planes pursued objectives of military importance. But destruction **Guernica Great fire Guernica explosions during whole day occurred Guernica where work of same who at Eibar Irun** (...) demonstrated ability incendiarism dynamiters. (...) Let maneuver at service of red Spain cease and let world know that Guernica case so clumsily exploited turns against government of incendiaries and assassins who at Russia orders pursue systematic destruction Spain National Wealth.

Maiatzaren 5erako *The Times* aldakortasun hau aipatu eta Evelyn Shuckburgh FOko funtzionarioak, Salamancako propaganda zerbitzuen eraginkortasun eza azpimarratu zuen⁸²⁶. *The Timesek* Salamancatik etorritako komunikatua aztertzean, apirilaren 26an nazionalak Gernika bonbardatu ez eta abioirik zeruan ibili ez izana ez dute gezurtatzen. Are gehiago, hiru orduz abioiak ibili zirela informatu zuten, kasualitatez *The Timeseko* Bilboko korrespontsalaren arabera bonbek iraun zuten denbora berbera. Egindako politika informatibo eskasak zer ikusia izango zuen Luis Bolin zentsorea kargugabetzarekin.

Egunkari gubernalistaren ildo kritiko beretik, heldu zioten auziari anglikanismoaren artzapezpiku nagusiek. Yorkeko artzapezpikuak, Dr. Templek, eta Winchesterrekoak, Dr. Garbettek, sarraskiaren aurrean higuina adierazi zuten. Halako metodoak zibilen aurka erabiltzea erabat arbuiatuz eta nazionalen egotzi zieten gertaera⁸²⁷. Hierarkia katolikoak bestelako jarrera bat hartu zuen. Hinsley artzapezpikuaren bozeramaile zen *The Catholic Timesek* argi zuen bere jarrera hasieratik. Ezinezkoa zen gezur bat besterik ez omen zen Gernika. Mitotzat jo zuten.

The Tablet eta *The Catholic Herald* erreserba gehiago izan bazituzten ere, ahotsa eman zieten berehala Gernika legendatzat zutenei. *Heraldek L'Aubere* Onaindiari eginiko elkarrizketa publikatu zuen arren, aste beteko epean Onaindia erasotzera pasako da. Egia esan, apirilaren 30an bertan, iritzi kontrajarriak emango ditu aditzera. Nazioarteko sekzioak hildako kopuru handia izan dela onartzeaz gain, *Guernica has been reduced to ruins and the death toll is enormous* jarriko du. Haatik, ondoko orri batean honela dio: *after the way in which our press has fallen for the Guernica massacre story, (...), but the truth remains the truth for all that. The Tabletek* ekainaren 5ean Douglad Jerrolden artikulua publikatzean bertsio faxistari eutsiko dio⁸²⁸.

⁸²⁶ Southworth, (2013) 74-86 *Asi pues, vemos como los textos impresos en los diarios de Londres, New York, París, y otros lugares demuestran hasta la saciedad que los rebeldes mentían cuando decían que ningún avión había despegado el 26 de abril. Este hecho influyo sin duda en los redactores- sobre todo en Inglaterra- en cuanto a su toma de posición respecto a quienes decía la verdad sobre Guernica*

⁸²⁷ *Manchester Guardian* (1937-04-30 eta 1937-05-3) Yorkeko artzapezpikuak 1937ko urtarrilean (1937-01-26) dagoeneko gogor kritikatu zuen

⁸²⁸ Southworth (2013), 285 *Catholic herald* (1937-04-30) nahiko era kontraesankorrean erantzungo du

Arlo diplomatikoan eragin handia izango zuen ekintza izan zen. Britainiar iritzia oldartzean, parlamentuko oposizioak berau aprobetxatuz presio egin zion Britainiar Gobernuari egia ikertzeko. Orokorrean, Edenek, FOeko funtzionario talde batek bezala, bazekian zer gertatu zen; baina, momentuko testuinguru beliko-diplomatikoak zekiena pribatuan gordearazi zion. Iritzi nazionala lasaitze aldera bi ekintza nagusi prestatu zituen. Alde batetik, ez interbentzioko azpi-batzorde iraunkorraren bidez gaitzespen bat lortzen saiatuko da. Azkenean, substantzia askorik ez zuen komunikatu hutsal bat plazaratu zen ekainaren 18an, bi aldeei zibilak errespetatzeko eskatuz. Hasiera batean, ingelesek aurkeztutako eskemekin alderatuz deskafeinatutako deklarazio bat, alegia. Bestalde, egia ikertze aldera nazioarteko komite bat abiarazten saiatuko da. Maiatzaren 6an parlamentuan hori egingo duela adierazi ostean, 18an idatziko die beste estatuei. Alemaniak eta Italiak ez dute erantzungo eta Portugalek hura gauzatzeko ezintasuna argudiatuz muzin egingo dio parte hartzeari.

Egitasmo hauek aurrera eramateko, Alemaniak, Italiak eta Portugaldarren erresistentziak izan zituen, baina baita Alex Legerren, Frantziako kanpo-harremanetarako idazkariordearen erreserbak ere. Egiatan, Portugaldarrek adierazitako ezintasunak ez dira gezurrak. Apirilaren 29an Gernika Francoren eskuetan erori ostean, bere baimena beharko bailitzateke halako ikerketa bat gauzatzeko. Ekainaren 21 eta uztailak 12an oposizioak oraindik ere halako batzorde bat eskatzen jarraituko duen arren, azkenean, ez da halakorik gauzatu.

Gernikaren inguruko auzia ikertzeko izan zen hiru pertsonen osatutako batzorde bat maiatzaren Bilbon. 1936ko irailean sortu eta Rathbone andereak zuzentzen zuen Atzerriko parte-hartzeak Nazioarteko Eskubideak Urratzen dituen batzordeak bidalitako ordezkari laborista bat zen. Ronald McKimmon Wood, 20 urtez 1934 arte Farnborough kokatutako *Royal Aircraft Establishment* aritu zen aeronautikako aditu bat, Geoffrey Henry Cecil Bing abokatu ezaguna eta Henry Pursey, *Royal Navy*ko beteroa. 1936ko abuztuaren 24an erretiratu zen komandantea. Halere, Bilbon egon ostean, Santanderra joan zen eta bertan kontsularen faltan, kontsularen zereginak bete zituen. NJCren ordezkari ere arituko zen han⁸²⁹.

Southworthek dionez, batzordekideak maiatzaren 22-28 bitartean izan ziren Bilbon. Arrazoi jakinak direla eta ezin izan zuten Gernika bisitatu. Orduan, lekuko ezberdinak elkarrizketatu gauzatu zuten ikerketa. Bingek Ojanguren, Bilboko britainiar kontsul-ordea eta Gernikatik Stevensonekin, apirilaren 27an pasa zena, Gernikako alkatea, Jose Labauria eta bertako apaizarekin, Eusebio Arronategui, hitz egin zuen. McKinnon Woodek maiatzaren 25ean txosten bat pasa zion Bilboko prentsari. Txostenaren arabera, Alemaniatik Italiara egiten zuten bidaia hegazkinak, eta handik penintsulara. Martxoaren 20an etorriko ziren lehendabiziko atzeritar hegazkinak. Woodek alemaniarren parte hartzea berretsi nahi zuen. Haren ustez, ideia honek demokrazietan izango zuen eragina. Horregatik, Hans Wandel pilotu alemana elkarrizketatu zuen. Pilotu alemaniarrek inongo diskriminazio eta gupida gabe, hau da zibilen aurka ere, gerra egiteko agindua zutela esan zion hark.

Batzordea maiatzak 28 arte Bilbon izan zirela diosku Southworthek, baina badirudi Santanderra joan zirela ondoren, edo gutxienez horretarako intentzioa izan zutela. Maiatzaren 26an Euzkadiko lehendakariaren igarobide bat gordeta dago, non *miembros de la comisión inglesa investigadora de la participación extranjera en nuestros frentes que llevo a Bilbao hace unos días. Se traslada a Santander para llevar a cabo las mismas gestiones*. Purdey behintzat abiatuko zen, ez dugu besteen berri⁸³⁰.

⁸²⁹ *Euzkadi*, (1937-05-18); Southworth (2013), 342-3; *The Times* (1936-08-24).

⁸³⁰ EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:75 L:17/01

Aipatu dugun zailtasunez haratago, nazioarteko ikerketa batzordeak aurrera ez eramateko arrazoen artean garrantzitsuena Alemania lasaitzeko hautu politikoa zegoen. *The Times* horretan zebilen. Geoffrey Dawson *Timeseko* editoreak Berlineko korrespontsalari, H.G.Daniels hala idatzi zion⁸³¹:

He hecho todo lo posible, noche tras noche para alejar del periódico todo lo que pudiera herir sus susceptibilidades. Verdaderamente, no puedo pensar en nada que se haya publicado ahora, ni desde hace muchos meses, que ellos pudieran entender como excepción o comentario injusto. No cabe duda de que todos estaban enojados por la primera historia de Steer sobre el bombardeo de Guernica, pero su exactitud en lo esencial no ha sido nunca discutida, y no ha habido ninguna tentativa de subrayarlo ni de insistir sobre el asunto.

Hainbeste gaiztotu zen giroa ezen maiatzaren 15ean Wandel pilotuaren atxilotetaren berri ematean Alemanian *The Times*, *Daily Telegraph*, *Daily Express* eta *News Chronicle* konfiskatu egin zituen polizia sekretu alemaniarrek⁸³².

Azkenean, Agirrereren apirilaren 29ko eta Azcarateren maiatzaren 5eko eskariak, Edenek maiatzaren 6an jaso zituen arren, ez ziren bete eta ez zen inongo nazioarteko ikerketa batzorderik eratu. *Informe Herran* bezala ezaguna den batzorde batek egindako txostena eta Valladolideko unibertsitateko beste batzorde batek gauzatutako txostenak besterik ez ziren argitaratu. Biak nazionalek eginak.

Egia esan, nahiko baldarrak izan ziren bi txosten horiek egitean. Gernikaren eztabaida pasatzen utzi beharrean, nazionalak benetan saiatu ziren haientzat legenda eta gezurra zen horri aurre egiten. Aldizkari katolikoak izan zituzten bozeramaile, baina bestelako bideak ez zituzten baztertu. Liburuak, hizketaldia eta editoreei gutunak. Gainera, publikoaren gehiengoa euskal diskurtsua sinetsita zuenez, Londoneko euskal aparatu propagandistikoa ia-ia kontrapropaganda apur bat egitera besterik ez zen mugatu beroaldia pasa ostean. Gernika bera gerrako beste sarraskien pare, Badajoz eta Getafe, jarri zen segituan eta 1938rako biolentziaren aurkako sinbolo nagusi bilakatu zen.

Gernikaren bonbardaketa izaterakoan E.M. Wright agentziarekin firmatu berri zuen kontratua Londoneko ordezkartzak. Euskal Gobernuak Gernikaren inguruan aurrera eramanean zituen kanpaina propagandistikoaren elementu ugari erabiliko zituzten. Hasteko, Agirrek bonbardaketaren harira egindako mezua zabaltzea izan zen agentziak egindako lehendabiziko lana apirilaren 27an. Era berean, Lizasok propioki deklarazio bat atera zuen prentsarentzat eta Robert Hawesek artikulu bat idatzi zuen sarraskia salatzen.

Halere, euskaldunak beraien kabuz publikoari begira sortutako propaganda ez dute zuzenean beraien izenean egingo. Ez da agerikoa izango euskaldunok egiten duten propaganda eta Britainiarren pertsonaiak egingo dute euren ordeztasunaz: *El esfuerzo de propaganda relativamente pequeño hecho por los vascos y republicanos en torno a Guernica. Se explica por la razón, evidentísima de que la labor realizada por ellos en los países neutrales, la hacían otros, la gran prensa o los católicos liberales.* Katolikoek partetik Frantzian bezain besteko laguntza izan ez bazuten ere, katoliko eta sektore kontserbadoreei esker ezagutarazi ziren Gernika eta Durangoko sarraskiak⁸³³:

Sectores del catolicismo más liberal se desgajaron de la opinión sellada por la jerarquía eclesiástica, que favorecía tradicionalmente a los franquistas. También se conmueven los círculos conservadores. (...) La narración de lo ocurrido en Guernica alcanzo al publica inglés y

⁸³¹ Preston (2008), 336-7

⁸³² *The Times* (1937-05-15, 1937-05-19) Wandelen egunerokoan apirilaren 26an GUERNICA jartzen zuela adierazi zen.

⁸³³ Nuñez Diaz (2003), 217

americano a través de la prensa conservadora de tal modo que convenció a personas que normalmente se contarían entre los opositores de esa información

Goian esan bezala, ageriko propaganda ez zen horrenbestekoa izan, baina ez du esan nahi egon ez zenik. Agirrek eskatuta, Aita Onaindia munduari Gernikan gertatutakoa zabaltzera bidali zuen atzerrira. Onaindia Gernikako lekukoa izan zenez, salaketa Vatikanora eramateko agindu zioten⁸³⁴. Frantzia hainbat elkarrizketa egin ostean, Valerio Valeri, Vatikanoko nuntzioarekin elkartuko zen, baina ezin izan zuen Italia zeharkatzeko igarobidea eskuratu. Bere testigantza erabakikorra izan zen iritzi katoliko Frantzesaren bereganatzeko. Londoneko ordezkariak aurretiaz Burdeos eta Rotterdamen agertutako elkarrizketaren zati bat itzuli eta banatu egin zuen Britainia Handiko prentsan maiatzaren 3rako⁸³⁵. Horregatik, Onaindiaren aurka sekulako kanpaina abiatu zen. Astekari katolikoetatik egin zitzaion eraso eta gehienbat bere tituluaren inguruan trahatu ziren. Valladolideko dean edo kanonigo. Zer zen? Apaiza faltsua izateaz ere egotzi zioten. Haserre agertu zen, Luigi Sturzo italiar demokristaua alferrikako eztabaida inozo horren ondorioz. Valladolideko kabildoarekin zituen arazoak arazo, Onaindiaren hitzak ez zuten gutxiago balio⁸³⁶.

Editoreetara gutunak bidali eta artikuluak ere argitaratu zituzten. Lizasok gutun bat idatzi zuen *The Times*en. Aldizkariko ildo editorialarekin bat egin eta prentsa Naziaren aurka egiten zuen: *your leading article on Guernica today is an effective retort to the allegations of the Nazi press in Germany*. Lovellek berak *Sunday Times*en. Gernikaren partikulartasuna azpimarratzen du. *There have been many air raids in the Spanish war, but none has been followed by so spontaneous an outburst of world indignation. This surely would seem to indicate that the destruction of Guernica was an unnecessary act of savagery.*⁸³⁷ Lizaso eta Agirrek *el jesuita* goitzen jarriko dioten Lovellek, Gernikako argazkiak pasatu zizkion maiatzean London News Agencyri maiatzak 10ean. Argazkiez ari garela, Gernikako dokumentu grafiakoak banatzeko Lizaso eta Atholl maiatzaren 2an bildu eta hainbat ideia finkatu zituzten propaganda aurrera eramateko. Argazkiok prentsa kontserbadorean, liberal eta laboristaren aurretik, kokatzea interesatzen zaio⁸³⁸:

Special Instructions

1. *The Art Editor of the News Chronicle would like to have a special page clear to carry pictures. If he is not given some sort of exclusiveness Mr. Lizaso would like the pictures to appear in the following papers in order of precedence:*
 - *The Times*
 - *The Daily Telegraph*
 - *The Manchester Guardian*
 - *The News Chronicle*
 - *The Daily Herald*
 - *The Daily Express*
2. *It is important that the Monday papers should publish some declarations made by the Canon at the Cathedral of Valladolid, testifying as an eye witness to the terrible bombardment of Guernica. He is going to Rome to lay the facts before the Pope*
3. *The following notice to appear, if possible, Don Jose Ignacio Lizaso, Basque delegation in London has received the following statement from the Basque Government:*
4. *Mr Lizaso wishes the appeal to be drawn up afresh, in view of the latest information to hand.*

⁸³⁴ *The Daily telegraph* (1937-04-30) *Daily Herald* (1937-04-30)

⁸³⁵ Southworth, (2013), 231, Bertsio luzeago bat GERNIKA 1937 argitaratu zen; Wright agentziak Steerri eskatu zion Maiatzak 10ean Onaindia Erromara heltzen zenerako artikulu bat egiteko. Ondoren, Reuters eta London Central newsi banatzeko. Horrez gain, bi agentziekin elkarrizketa bat izan zezakeela iradoki zioten propagandako adituek Lizasori.

⁸³⁶ *Ibid.*, 241-2

⁸³⁷ *The Times* (1937-05-07) *Sunday Times* (1937-05-16)

⁸³⁸ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L.245/01; *Manchester*

5. *Can Mr. Lloyd George be persuaded to write a letter to the papers applauding the decision of the British Government to protect vessels, and also to applaud the initiative of the NJC in creating a special fund for the evacuation of the Basque children, as appeared in yesterday's Times in a letter signed by the Duchess of Atholl and others.*
6. *Mr. Lizaso is prepared to advance the sum of £100, if several well-known people can be persuaded to write to different papers enclosing part of this money as a contribution to the NJC, and appealing for further help from other readers.*
7. *Mr. Lizaso would like all cutting up-to-date including those which may not have originated from this office.*
8. *Can the NJC write to various papers suggesting that the editors of those papers themselves should start raising funds for the evacuating of the Basque Children*
9. *Can something be published in the Catholic Press as soon as possible.*
10. *Attached is a copy of a cable received from the Information Bureau of the Basque Government at Bilbao.*

Argazkiez gain, prentsa katolikoan sartzeko beharraz dihardute. Gernikaren oihartzuna aprobetxatuz, Euskal umeak Britainia Handira etortzeko dirua biltzeko deiak luzatuko dituzte. Azkenean, bigarren puntuan jartzen duenaren aurka, Onaindiak ez zuen lortu Erromara joatea, baina Agustin de Ysusi, Bilboko apaiz zaharrenak, eta Pedro Menchaka, Gasteizko katedralako kanonigoak, Ciano, Italiako atzerri ministroa, eta Burdeoseko Italiako kontsul orokorraren laguntzaz sekretuki heldu ziren. Gasteizko barrutiko hogeita bi apaizek sinatutako gutun batean Gernika eta Durangoko bonbardaketak salatzen dituzte, lehena Ramon Galbarritu, Mugikaren Bizkaiko bikario delegatua zelarik. Erroman ez zuten harrera onik izan. Mugikaren laguntza izanda ere Aita Santuaren eskuin eskua zen Giussepe Pizzardorekin elkarrizketatzea ez zuten lortu, alabaina, Estatu idazkari zen Pacelli kardenalarekin zortzi minutu bildu ziren. Bisitaren helburu zen gutuna aipatzean bukatutzat eman zuten elkarrizketa. Gestio hau ezkutuan eraman zen eta ez zen hilabete beranduago, ekainaren 11 arte, publiko egin. *Euzkadi* egunkariak ez ezik, *The Timesek* eta beste egunkariek ere emango zuten argitara. Onaindia Valladolideko barrutikoa zenez ez zuen sinatu. Mesfidati hartu zuten prentsa katolikoak gutuna. *The Tabletek*, bi bonbardaketak, Durango eta Gernika, barne biltzen dituelako *confused document* deritzo. *The Monthek* zalantzan jartzen du bidaiaren eta istorioaren egiazkotasuna. Nola artatuko dituzte Vatikanon antikristoarekin daudenak?

Considering that the Red Basque clergy, as far as they are freely associating with the enemies of the Christian name, are acting in direct defiance of their Bishops, it is not likely that, until they had purged their offence, Rome would receive them on whatever errand.

Galbarritu berak, *Mi cuestión de conciencian* dokumentua izenpearazi ziotela aitortu eta *The Tabletek* artikulu horri erreferentzia egitean, Galbarrituk jendearen haserrea kleroaren gain erortzea saihesteko sinatu zuela adierazi zuen. Ironikoki, Galbarritu Santo Domingoko kartzelan espetxeratua hilko zen gerran⁸³⁹. Adibide hauekin, argi ikusten da prentsa katolikoak euskaldunei buruzko notiziak zalantzan jartzeko joera.

Prentsan egindako lanaz gain, Lizaso berak apirilaren 29an parlamentuko ganbaran hizketaldi bat eskaini zuen Gernikaren sarraskia nabarmenduz. Sarraskiaren beroaldia probestuz, populazio zibila ebakutzeko baimena eskuratzea zuen helburu. *Conviene desarrollen intensísima propaganda ayuda Euzkadi población civil despertando mundo necesidad ayuda país democrático defiende su libertad. Comunique a Azcarate este telegrama agradeciendo sus trabajos*⁸⁴⁰.

⁸³⁹ Southworth (2013), 237-40 *Euzkadi*, (1937-06-11); *The Times* (1937-06-11); *The Tablet* (1937-07-03) (1937-08-14) *In case of refusal, I shall not be in a position to maintain order among a populace breathing vengeance. The month* (1937 abuztua) (1937 iraila)

⁸⁴⁰ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02 Agirrek Lizasori (d.g)

Bestalde, Euskal Gobernuak berak Ingalaterrara begira hainbat ekintza prestatu zituen. Adibidez, maiatzaren 4an hurrenkera honetan hitz egin zuten Bilboko irratitik: Bonifacio Echegaray, eta dagoeneko aipatu ditugun Labauria, Arronategui eta Leizaola. Gernikako esanahiaren, eta sarraskiaren inguruan aritu ziren. Munduan Gernikan jasotakoa zabaltzeko Bilboko irratirik indartsuena erabili zuten, eta euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez aritu. Atzerrira ez ezik, nazionalen lurraldera bideratutako irratsaioa zen. Gainera, beste kanaletan ere jaso zuten eta irratiak zuen efektu biderkatzailea bilatu zen. Esaterako, *Manchester Guardianek* jaso zituen esandakoak eta *Gernika 1937* izenpean editatu zen liburuxka bateko azken orrietan ere ingelesez oso-osorik eman ziren lau hizlarien saioak. Liburuxka hori ingelesez eta euskaraz argiratu zen, benetako esfortzu grafiko handia eginez. Onaindiaren lekukotza ere bazuen eta bonbardaketa alemaniarrek egin zutela adierazten zuten frogak. Hans Wandel, Walter Kienzle, Gunther Schultze Plank pilotuei kendutako materiala erakusten zuten⁸⁴¹. Badirudi, liburuxka hau 1937ko urri aldera egin zela. Ingeles eta euskara hutsean bat eta Frantzes eta euskaraz egindako beste bat. 2.500 ale egin ziren hizkuntza bakoitzeko⁸⁴². Bestalde, badirudi Gernikari buruzko beste liburuxka bat egin zela. Kasu honetan Bilbon ondua. Baiona bidez igorri zen Ingalaterrara eta hiru hizkuntzatan eginda dagoela adierazten dio Mendigurenek Lizasori. Azken datu hau dela eta Gernikaren inguruko bi liburuxka ezberdin egingo zirela pentsaraztera garamatza. Durangoko kasuan, existitzen da bat hiru hizkuntzatan argitaratua. Oso gogorra da. Gernikakoarekin alderatuz askoz sentsazionalistagoa. Hildako dezente agertzen dira. Canterburyko deanaren erreportaia eta Ramon Galbarrituren gutun bat ere ematen dira aditzera. Hildakoen zerrenda bat eta alemaniarren esku-hartzea adierazten duen froga batzuekin bukatzen da. Propaganda departamentuko argazkilaritza kabineteko Esteben Guerequizek parte hartu zuen liburuxkak egiten⁸⁴³.

Liburuxkaz ari garenez, Euskal Gobernuaz at beste erakundeek sortutako materiala ere izan zen. Isabel Brown komunistak Durangoko bonbardaketaren harira *Durago; A Martyred City* du. Azcaratek bultzatutako *The Friends of Spain* elkarteak *Foreign wings over the Basque Country* bonbardeketen inguruan argitaratutako artikulu esanguratsuenak bilduko ditu. Bonbardaketaren egiazkotasuna zalantzan zutenei kontrapropaganda egiteko egina⁸⁴⁴.

Garrantzitsua da laburki bada ere aipatzea Errepublikak berak nola erabili zituen propagandistikoki eta baita diplomatikoki euskal bonbardaketak. Propagandari dagokionez, hainbat esku-orri editatu zituen⁸⁴⁵. Panfleto horietako batzuk Lizasori bidaliko zaizkio. *El clero vascoren* 500 ale jasoko ditu adibidez⁸⁴⁶. Espainiako Londoneko enbaxadak Gernika eta Durango aipatuko ditu behin baina gehiagotan idatziko dituen artikuluetan. *People's fight for liberty* Gernika sinbolo bezala erabiltzen du sarreran: *destruyendo lugares venerables, como Guernica, cuna de la cultura vasca y tumba ahora de centenares de mujeres y niños*⁸⁴⁷. Horrez

⁸⁴¹ Sebastian (2007b) *Manchester Guardian* (1937-05-06);

⁸⁴² EAH.BEYSi:C-37/1-2 V:4 Iralak Osoriori (1937-10-08) *el folleto de Gernika se ha editado en frances e ingles. En ingles primero. En cada lengua unos 2500 ehmeplares. En Inglaterra se repartieron con anterioridad*

⁸⁴³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02 Mendigurenek Lizasori (1937-06-04) *Folleto Guernica hecho en 3 idiomas e intercalando euzkera. Debido escasez metriles no se ha podido hacer una GRAN TIRADA. (...) mándaselo a sobre todo a entidades y personalidades influyentes, hoteles, emisoras de radio, prensa, etc...y dando el menor numero posible a los particulares.* Southworth (2013), 175

⁸⁴⁴ Brown, (1937); Friends of Spain (1937)

⁸⁴⁵ *El clero vasco, fiel ...* (1937). Lau hizkuntzatan idatzita (Italieraz, Ingelesez, Frantsesez eta gazteleraz); *La destrucción de* (f.g.) (Hiru hizkuntzatan idatzia: Ingelesa, frantsesa eta gaztelera); *El catolicismo en...* (1937) Gernikako informea eta apaizen heriotzei buruzko informazioa.

⁸⁴⁶ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01 Mendibilek Lizasoi (1937-08-02)

⁸⁴⁷ Ramos (1937) 7 Bukaera aldera Durango, Gernika eta Bilboko bonbardaketen argazkiak ikus daitezke.

gain, Parisko 1937ko nazioarteko erakusketan Picassoren Gernika izango da artelan garrantzitsuen eta berehala sarraskiaren sinbolo bilakatuko dena.



Ir.20. 1937 Parisko nazioartekoe erakusketa. CDMH-PS-FOTOGRAFÍAS,42,53

Diplomaziari dagokionez, Agirrek bultzatu Azcaratek Edeni eskatutako nazioarteko batzordeaz gain, Nazioen Ligara Alvarez del Vayok eraman zuen auzia. 1937ko maiatzean, Del Vayok Guadalajarako batailaren ostean bildutako dokumentuekin CTV eta División Littorioren parte hartzea argi eta garbi adierazi zuen liburu zuri bat prestatu zuen. Frantziak eta Ingalaterrak ez interbentzioa altxatzeko eskatzen zituzten dokumentuak baziren ere, ez zuen hauen politika aldarazi. Vayok Gernika ere izan zuen hizpide⁸⁴⁸, euskaldunentzat horren sinbolismo handia zuen herrian zibilen triskantza ahalbidetutako eraso barbaroa bat bezala kalifikatuz. Emakume eta umeak ez ezik herri baten arima hiltzen saiatu den eraso. Totalitarismoen eta zehazki alemaniar hegazkinen esperimendu bat. Del Vayok Agirrerri eskertzen dio 1937ko maiatza bukaeran Nazioen Ligan aurkezteko emandako informazioa. Bi gobernuen arteko kolaborazioaren seinale.

Halako garrantzia hartu zuen Gernikak, ezen Wright agentziaren txostenek diotenez, beraiek ezer egin gabe, Gernika propaganda elementu bikaina bilakatu zen. 1938ko txostenean esango zuten bezala: *Guernica still the prime example of totalitarian frightfulness*. Gernikaren inguruan ateratzen ziren notiziak birproduzitzen lagunduko bazuten ere, gehienbat kontrapropagandan egin zuen lan agentziak. Haatik, ez zen guztia kontraerasoan geratuko. Gernikaren lehen urteurrenaren aurrean Lehendakaria American eta *British Press* agentziak zabalduko zuten deklarazio-protesta bat egin eta umeen kolonietan bi minutu isiluneak egiteko iradokiko diete. Iralari komentatuko dio ideia Lizasok eta kolonietara joango diren argazkilariak kontratatuko dituzte egun hartarako. Notaren inguruan Paris eta Londonetik batera igorri behar zuten⁸⁴⁹.

⁸⁴⁸ ONUko artxiboa Geneva R3661/1/29135/17950 [https://archives.ungeneva.org/situation-en-espagne-discussions-a-la-97e-session-du-conseil-mai-1937;EAH.EG.LD.S:Secretaría General \(Bilbao, Barcelona, París\). Secretaría V:150 L:800/06 Del Vayok Agirrerri \(1937-05 31\) Al agradecer Vuecencia envió sus distintos telegramas que vinieron a completar muy valiosamente mi dossier \(...\) impresión aquí dominante sobre el éxito logrado en el asunto de España uno de cuyos principales aspectos era la destrucción de Guernica condenada solemnemente por el Consejo de la Sociedad de las Naciones en resolución votada unanimidad ayer](https://archives.ungeneva.org/situation-en-espagne-discussions-a-la-97e-session-du-conseil-mai-1937;EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:150 L:800/06 Del Vayok Agirrerri (1937-05 31) Al agradecer Vuecencia envió sus distintos telegramas que vinieron a completar muy valiosamente mi dossier (...) impresión aquí dominante sobre el éxito logrado en el asunto de España uno de cuyos principales aspectos era la destrucción de Guernica condenada solemnemente por el Consejo de la Sociedad de las Naciones en resolución votada unanimidad ayer)

⁸⁴⁹ EAH.SA.Se:Delegación de Londres L:9/912 Lizasok Iralari (1938) Omenaldian egon behar dira *todos los que vieron en el bombardeo de Gernika el crimen cometido contra indefensos ancianos, mujeres y niños. (...) durante muchos días los diarios no hablaron de otra cosa. (...) Hay contratados fotógrafos para que vayan a las colonias*

Halako eskemak proposatzeaz gain, George Steeren liburua *The Tree of Guernika*, liburuaren genesian informazioa hornitu eta bere zabalkundean lagunduko zuten. Liburu hori instrumentala suertatuko da Frankistek aurkeztuko dituzten esfortsuak itozteko. Godfrey Nicholson *antiappeasement toryak* Lizasori idatziko zion ingalaterrak saldukeria hutseko jarrera zuela Espainiako gerran. Halere⁸⁵⁰,

there are thousands and thousands of our people who believe that it is the duty of great nations to be prepared to sacrifice much for the sake of small free nations and (...) nobody who has read the recent rebel report on Guernica, and Mr. Steer's book of the Burgos Committee, accusing your president of the desire for power, striving to wrest from Spain her ancient (Basque Province)! But then it never belonged to Spain any more the Catalonia did.

Aipatzen den txostena, nazionalek egindako *Informe Herran* bezala ezagutzen den idatzia da. Bi epaile eta 2 ingeniari egina. Txostenean Gernikan bonbardaketaren bat egon zela baieztatzen badu ere, herria benetan suntsitzearen erantzukizuna 20.00etan, hau da, bonbak bukatzean, hasi zen suari egozten dio. 1937ko maiatzean hasi ziren txostena egiten. Gernika abuztuaren 9an besterik ez zuten bisitatu eta 22 pertsonaren lekukotzak jaso ostean, irailaren 8rako bukatuko dute lau azpiatalez osatutako idatzia. Southwordek kontraesan handiak nabari ditu ondorio eta lekukotzat aztertuta. Britainia Handian bakarrik argitaratu zen, ingeles hutsean eta Douglas Jerrolden *Eyre and Spottiswood* argitaletxean. Badirudi Albako dukearen iradokizun baten ostean egituratu zutela ikerketa erreportai bezala⁸⁵¹. Albak Gernikaren itzala ikaragarria dela *nunca se podrá desmentir por completo, la leyenda negra que alrededor de Guernica se quiere hacer* adierazi ostean, horrela jarraitzen du⁸⁵²:

en nuestro deber hacer lo posible para lograrlo y sobre todo para que quede algo escrito que sirva mañana al historiador para poner en su punto lo ocurrido.

*Con tal objeto y teniendo siempre muy presente la peculiar mentalidad del pueblo inglés tan apto a **tomar como artículo de fe todo aquello que se le presenta bajo la cubierta de la legalidad o investigación oficial** aunque esta, este hecha por el propio interesado, me permito sugerir a V.S. se constituya una Comisión de Investigación compuesta de **funcionarios judiciales** que tomes declaraciones oficiales de **Ingenieros** y de Aviación y a vecinos de Guernica de todos los cuales habrá de reproducir los nombres, etc, etc. Dicha comisión podría reunir algunos informes de técnicos y fotografías.*

Una vez convenientemente recogida y preparada toda la documentación a que hago referencia; por la Oficina de la Delegación de Prensa y Propaganda en Londres se publicaría un folleto, poniendo en claro lo ocurrido en Guernica.

Arnold Wilson parlamentariak egindako sarrera bat du txosten ofizialak. Wilson parlamentuko kide eta militarra Espainian izan zen. Bere jarrera argi ikus daiteke *Thoughts and Talks*en. Berak bezala gutxi omen zekiten gaiari buruz, eta Gernikarrek esan zioten antzera, Gernika supiztaileek erre zuten⁸⁵³:

Guernica is off the main road; it has been the subject of so much discussion that I need only say that no one acquainted, as I am, with the effects of bombardment from the air can doubt that most if not all the material damage was caused by willful incendiarism- and such is the verdict of the inhabitants.

1938ko martxoan argitaratu bezain azkar erantzun zitzaion Euskal Gobernuaren partetik. Lizasok Agirrerri Westminsterreko elizan saltzen den ikerketa honen berri ematen dio. Errebeldeen propaganda guztia bezala, 1/6d prezio merkean saltzen den liburuxka *asqueroso*-a ahalik eta azkarren erantzuteko beharra adierazten du, nahiz eta benetan kritika oso txarrak

vascas ese día ... se debería de facilitar la nota a la misma hora tanto en París como Londres (...) cuando se entrega solo en París los diarios no lo recogen (...) si lo hace esta delegación la reciben mejor y la casa de propaganda contratada la distribuiría con mayor éxito

⁸⁵⁰ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:275 L:297/04 Nicholsonek Lizasori (1938-04-18)

⁸⁵¹ *Guernica: The Official...* (1938) eta *Informe sobre...* (1938); Southworth (2013),198-216an aztertu

⁸⁵² AGA 54/6700 Albak Arias Pazi (1937-06-25)

⁸⁵³ Wilson (1938)

jasotzen ari dela zehaztu. Erantzun hori Lizasok idatziko duen *A cynical apologia* gutunean ikus daiteke. Ikerketa nazionalaren faltsutasuna frogatzeko Onaindia eta Arronateguiren lekukotzak aipatzen ditu⁸⁵⁴. Hitzok *The Daily Telegraph* ez ditu argitaratuko. Egunkari honek euskaldunon aurka dituen aurriritzien beste seinale bat.

Errebeldeek egindako saiakera kontrajarria gertatuko da beraien interesentzat. Ez da ahaztu behar, argitaratu eta gutxira hasiko direla Italiarrek Bartzelonan hasiko duten bonbardaketa kanpaina. Hortaz, beste saiakera antzu bat egingo dute Gernikako legenda zuritzeko. Bartzelonako bonbardaketak direla eta, Gernika behin baino gehiago erabiliko da simil bezala eta horrek euskaldunon tragedia britainiar iritziari etengabe gogoraratzea ekarriko du.

Ondorioa bezala, euskal propagandak bonbardaketen aurrean nola funtzionatzen duen ikus dezakegu. Lehendabiziko fasean, notiziak eta datuak ezagutarazten dituzte. Datu horiek diskurtso bat finkatzera bideratzen dira: helburu militarrek baino elementu zibilei erasotzen zaiela bonbardaketetan. Asko azpimarratzen da hildakoen zenbatekoa, baita hegazkinen erasotzeko moduak: su-eragilezko bonbak, ume eta emakumeen metrailaketa eta herri eta ondare kristauan eragiten diren txikizioak. Guzti hau prentsara igorritako informazioz gauzatzen da. Gertatu denaren inguruko informazioa igortzeaz gain, lekukotzak eta antzeko frogak atxikitzen dira. Gainera, egindako komunikatu diplomatikoak, izan protesta edo eskakizunak, prentsatik kanalizatu ohi dira.

Bonbardeaketak presente daudela eta iritzi publikoa alde, Gernikaren kasuan behintzat berau instrumentalizatzen dute argiki. Ingeles gobernuari ebakuazio zibila baimentzeko presionatzen zaio eta, testuinguru horretan, ume batzuk Ingalaterrara ekartzeko baimena ere eskuratzen da.

Hasierako zabalkundea eta diskurtso definitiboa ezartzen den bitartean kontrapropaganda egingo da. Benetan errektiboa izango da hau. Hasierako beroaldia pasata, orduan aterako dira liburuxka eta liburuak. Denbora luzeagoaz mantenduko da eztabaida horien bitartez. Bide hauek prentsan aldeko eta kontrako erreakzio izango dituzte. Beraz, eztabaida kanal ezberdinen bitartez erretroalimentatu delarik. Gernikaren kasuan, horren erraz eskuratuko dute diskurtsuaren kontrol morala, ezen kontrapropaganda minimo bat besterik ez dute egin behar. Gernika sinbolo bilakatzean behin eta berriro aipatzeko aukera izango dute, zehaztasunetan sartu gabe. Erreferentzia bat bilakatuko baita.

Erreferentzia horri atxikiko zaizkion mezuak baina aldatu egingo dira. Gernikaren eta Durangoren kasuan, hasierako txikizio eta triskantza nahiak salatzen, alemaniarren presentzia eta gerra esperimenduak aurrera eramaten ari direla azpimarratzera pasako dira propagandan. Azkenean, interesatzen zaien audientziara ohitzen dira diskurtsuak eta Ingalaterran Alemaniarren nagusitasuna azpimarratuz eskuratzen zen britainiarren interesa 1938an zehar.

18. BASQUE CHILDREN

1937ko maiatzaren 22an 3.861 ume (2.156 mutil eta 1.705 neska)⁸⁵⁵, 95 andereño, 120 laguntzaile, denak emakumeak, eta 15 apaiz, Santurtziko portutik Southamptonerantz abiatu ziren Habana ontzian. Umeei Bilbon osasun azterketak egin zizkieten beste 4 pertsona ere

⁸⁵⁴ EAH.EG.LD.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría V:100 L:40/01 Lizasok Agirreri (1938-03-24) Lizasok 15 egun baino lehen liburuxka txiki batekin erantzuteko beharra adierazten badio ere ez da halako ezer egingo Erantzuna. *Manchester Guardian* (1938-03-29)

⁸⁵⁵ 3886 ume aipatzen dituzte beste iturri batzuk.

bazihoazen, bi mediku, Audrey Eva Rusell eta Richard Ellis eta bi erizain, Eileen Henriette Moore eta Margaret Nelson⁸⁵⁶.

Britainia Handirantz joandako ume guzti hauen historia xehetasun handienarekin jorratu duen lana Gregorio Arrienen *Salvad a los niños vascos!* dugu. Ebakuazioa bere genesitik aztertu eta umeei ondoren jasotakoak, erbestea, aberriratzeara edo itzulera, ere biltzen ditu zehaztasun ikaragarriarekin Arrienek. Propaganda nazionalak lau haizetara zabaldu zuenaren aurka, hau da, umeen ebakuazioak arrazoiketa propagandistikoa zuela, lan honexek oinarri humanitarioak besterik ez dizkio aitortzen ebakuazioari.⁸⁵⁷ Gure lanaren arabera, errebeldeen iritzia ez zegoen erraturik. Haatik, haiek umeak aberriratzeko egindako kanpainan erabilitako argudioek, hasitako lurraldean hezteko behar eta eskubidea, egiatik baino kontra-propagandatik gehiago zuten.

Arrienek egindako arrazoibide humanitariok ere bazuen edena, ume eta emakumeak hil baitziren bonbardeoetan. Hala ere, Euskal Gobernuari sekulako karga kentzen zion ikuspuntu asistentzial batetik begiratu ezker. Jaten emateko aho gutxiago. Gainera, aho horiek hobeto jan zuten Ingalaterran zeuden bitartean eta beraien osasunak hobera egin zuen. Guzti hau ahaztu gabe, Ingalaterra, Frantziara, Mexikora, Belgikara, Danimarkara eta bestelako lurraldeetara bidalitako haurrek propaganda benetan baliagarria eskaintzen zion Euskal Gobernuari euskal auzia nazioartera zabaldu eta bizirik mantentzeko. Gerra Zibilean zehar ume eta emakumezkoen sufrimendua lehendabizikoz erabili zen sistematikoki propaganda helburuekin⁸⁵⁸ eta euskal kasua ez da inolaz ere beste erabilera honetatik at ulertu behar. Londreseko delegaritzak ume errefuxiatuen dimentsio propagandistikoa esplotatu baitzuen. Horretarako, ordezkaritzak kontratatu zuen agentziak umek egindako ekintza ezberdinak, argazkiak eta bestelako berriak prentsara igortzen zituen.

Ebakuazioa

Ingalaterra antolatutako umeen espedizioa marko zabalago baten baitan txertatu behar da: 1937ko euskal umeen ebakuazioa. Ingalaterrako 3.861etaz gain, Frantziara 22.800, Belgikara 3.278, SESBera 1.600, Suitzara 250 eta Danimarkara 100 ume errefuxiatu ziren, guztira 32.000 bat⁸⁵⁹.

Espedizio guzti hauen iturburua 1937ko urtarrilaren 4ko Bilboko bonbardaketan kokatu daiteke. Gerrak ziraun bitartean, erasoetatik salbu egoteko umeak atzerrira bidali nahi izan zuten guraso askok. Urtarrileko erasoaren harira, Juan Graziak zuzendutako departamentuak umeak ebakutzeko 1.600 eskaeratik gora jaso zituen. Hala ere, lehen espedizioa martxoaren 21etara arte atzeratu zen. Frantziar eta Britainiar armadaren babes eskuratuta, Bermeotik Donibane Lohitzünara eraman zituzten 450 ume. Oleron irlako *Maison Heureuse* kolonia udatiarrean bukatuko zutenak. Martxoaren 31an Molaren osteez hasitako ofentsibak eta Durango eta Gernikako bonbardaketak prozesua zeharo azkartu zuen. Ingalaterrako agintariak neutraltasun arduratsu baten izenean errefuxiatuak hartzera uko egiten zioten bitartean, maiatzerako Frantziak hainbat milaka ume harturik zituen. Apiril bukaera aldera baina, Britainiar iritzi

⁸⁵⁶EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01 Lizasok Oruetazabalari (1937-05-07) Lau pertsona hauek Bilborantz doan Biarritz-Bilboko hegazkinean sartzeko eskatzen du. Britainia Handiko Osasun Ministeritzat umeak sartzeko eskatu duen inspeksioa egin dezaten; Bi medikuek artikulu asko idatziko dituzte Euskal umeei buruz: Aillen Moorrek ere Moore (1937), 192–94

⁸⁵⁷ Bell (1996); Buchanan,(1988) Lizasok berak umeen inguruan egindako lana ez du propaganda zentsu negatiboan hartuko. Haren ustez, benetan egiten ari ziren lan humanitarioa Avelino Barriolari bidalitako gutun batean honek Umeak aberriratu nahi ez dituzten eta Katalunian eta Frantzian dauden gurasoen zerrenda bidaltzean gurasoen zerrenda bidaltzean: *ha dejado de ser un problema humanitario para convertirse en politico* dio.

⁸⁵⁸ Jorge eta Alegre (2019), 211

⁸⁵⁹ Carballés (1998)

publikoaren presioan Whitehalleko agintarien erabakiak aldatzera behartu zituen. Francoren itsas blokeoak sortutako sumindurak eztanda egin zuen Gernikako sarraskiaren polemikarekin.

Gernikaren eta baita Durangoren bonbardaketak sortutako erresumina ez da arrazoi bakarra, nahiz eta lehenengoak prozesua azeleratu. Aurretiaz zetorren ume euskaldunak Erresuma Batua ekartzeko ideia. Dagoeneko 1937ko otsail bukaeran NJCko batzorde bilera batean James Macnamara kontserbadoreak umezurtzak Ingalaterrara ekartzea proposatuko du. Beste kontseilariak ideia gustuko ez eta Frantzia leku aproposagoa ikusten dute. Halere, ez da inolaz ere eskala handiko ebakuazio batez ari. Halako proposamena lehendabizikoz, Raphael Stevensonek luzatuko du. Apirilaren 8an, Agirreren bermea jasoz Edeni telegrama bat idatziko dio⁸⁶⁰:

(...) owing to dangers to Bilbao civilian population from repeated aerial bombardments I have, in collaboration with French Consul, who is telegraphing in identical terms, proposed to Basque Government large scale evacuation of women and children. Basque Government are eager to accept proposal and promise to issue necessary passports without political discrimination. I submit for consideration most urgently by H.M.G., in consultation with French Government, that have suggested themselves here.

Jakina den bezala ez zen eskaera berehala beteko. Aldiz, 1937ko apirilaren 24ean helduko ziren Leah Manning eta Edith Pye Bilbora. Lizasorekin hitz egin ostean, anbulantzia unitate bat utzi eta euskaldunok bizi zuten egoeraz informatzera etorriak. Manningen memoriei jarraiki, Agirrerekin elkarrizketa batean Euskal umeak ebakutzeko proposatu zion heldu eta hurrengo egunean. Lehendakariak 4.000 bat haur ebakatu nahi zituztela eman zion aditzera. Orduan gehitxo zirela iritzi zuen Manningek, nahiz eta aipatutako zenbakiarekin aurrera jarraitu⁸⁶¹.

Tratu hauetan zenbiltzala eman zen Gernikaren bonbardaketa. Sarraskiak sortutako sumindura olatua probestuz, eta oposizioarekin aliaturik, hurrengo egunetan NJCk *Royal Navy*ak zibilak ebakutzera eta artatzera behartu nahi zuen gobernuak. Kontrako aldean, nazionalak ez haserretzeko, Gobernu Britainiarrak neutralitatearen banderari eutsi nahi zion. Halere, prentsaren presioei, Gobernu Frantziarra zibilak ebakutzen hasi zela gehitu behar zaio. Beraz, maiatzaren 1erako lortu zuten gobernuaren ebakuazio baimena. Era berean, Apirilaren 29an John Simonsen Wilfrid Roberts euskal umeak Ingalaterrara etortzeko baizkoa emango zion. Betiere, gobernuak dirurik jarriko ez zuen premisarekin⁸⁶².

HOaren argi berdea zutela hainbat pertsonalitatek, Atholleko dukesa buru, maiatzaren 1ean diru-bilketarako deia luzatu zuten *The Times*eko gutun baten bidez. Gainera, NJCen dagoeneko kolaboratzen zuten hainbat agentziak, *labour movement* eta baita Eliza katolikoarekin bat egin eta *Basque Committee Children* osatuko zuten. Halere, umeak etorri arte NJC izenpean egin ziren gestio ofizial guztiak. Komitea ofizialki 1937ko maiatzaren 31an sortu zen⁸⁶³.

BCC osatzeko, Lizasoren papera ezinbesteko izan zen. Eginahalak egin zituen eliza katolikoa gerturatzeko. Maiatzaren 4an, Walter Citrine, James Middleton eta Vicent Tewsonekin izandako bilera batean umeekin propagandarik egin behar ez dela dio, eliza katolikoa kausa honetara erakartzeko. *Senor Lizaso stated that it was essential that the committee should not be used for any political propaganda purpose. It would defeat its own object and the Basque people would*

⁸⁶⁰ Petrus (2011), 308-9; CBDG 16 FO 371/213691

⁸⁶¹ Manning (1970)

⁸⁶² Petrus (2011), 327 Petrusen iritziz, gobernu britainiarrak uste zuen Francok berehala irabazi eta umeak azkar itzuliko zirela. Gainera, Bilboko blokeoaren ostean Gobernuak utzitako irudia, hau da, frankisten alde zegoela, irauli egin behar zuen; Simonsen Roberts (1937-04-29)

⁸⁶³ UWA. ATUC: 292/946/39/107 Basque Children's Committee: Minutes of Executive Committee meeting (1937-05-31); CDB 15-HO 213/288 Robertesk Samuel Hoareri (Home Secretary) (1937-06-08)

*suffer in consequence. He repeated that he thought it essential that the Catholic organizations should be associated with this work*⁸⁶⁴. Lizasok esaten duena esaten duela, hierarkia katolikoaren babesa ez zuen umeen ongizateagatik bakarrik jaso nahi, baizik eta katolikoak euskaldunen aldeko ikuspuntua hartzeko bide bezala ikusten zuen. Azkenean, eliza katolikoak lortu zuen komitean sartzea. Besteak beste, erbestean zen Gasteizko gotzainak, Mateo Mugikak, apirilaren 28an bidalitako gutunak lagunduko zuen Hinsley artzapezpikua konbentzitzen. Canon Craven izendatu zuen bere ordezkaria BCCn⁸⁶⁵. Bestalde, oso haserre agertzen da Leah Manningekin. Bere kabuz, eta kanal ofizialak at antolatzen baitzebilen espedizioa. Adibidez, Lizasori aginduak bidali zizkion⁸⁶⁶, eta Bevin, Attlee eta Citrineri ere hainbat telegrama idatzi.

Maiatzeko lehenengo hiru asteak zeharo nahasiak izan ziren. Umeak ebakutzeko baimena eskuratu bazen ere, bi gairen inguruan eztabaidak izan ziren Gobernuaren eta NJCeko partaideen artean. Alde batetik, Gobernu Britainiarren laguntza finantzarioa bilatu zuten. Bestetik, ez zeuden ados Ingalaterrara ebakutu beharreko zenbakiaren gainean. Aspektu ekonomikoei dagokionez, maiatzaren 6an gobernuak lagunduko duelako esperantzan, jasotzen duten £1 bakoitzeko £1 bat emateko eskatzen diote gobernuari Atholl eta Robertsek. FO erabat aurka azaldu zen. George Mounseynek ez interbentzioaren aitzakia erabiliz, ideia baztertu zuen. Eskerak eskaera, umeak sartzen baimentzerakoan gobernuak dirurik ez jartzea izan zen umeak ekartzerakoan baldintza handiena. Bestalde, zenbakiari dagokionez, nahiko eztabaida izan zen azken momentu arte. Betiere, argi utzi zuten autoritateek, NJCk zituen baliabideen arabera erabakiko zela etorriko zirenen kopurua. Maiatza hasieran 4.000 umez hitz egiten bazen ere, gobernuak diru-bilketa hauspotzeko propaganda zela uste zuen. Horregatik, FOk Stevensoni bidalitako telegrama batean maiatzak 15ean onartu zituzten 2.000 haur ekatzea, 900 mutil eta 1.100 neska. Manningek eta Ellis eta Rusell doktoreak behin baino gehiagotan eskatuko zuten Bilbotik zifra biderkatzeko⁸⁶⁷. Azkenean, John Simonsek erreguei erantzunez maiatzak 18rako onartu egingo du 100 emakume eta 15 apaizekin batera 7-15 urte bitarteko 4000 haur herrialdean sartzea. Kontuan izan behar da maiatza erdialderako ia £20.000 eta 2.000 umerentzako ostaturatuta zutela.⁸⁶⁸

Politikoki dibertsitate handiko espedizioa izan zen, eta erbeste garaian arazo handiak izan ziren dibergentzia guzti hauen ondorioz. Aipatu dugun azken kartan, hau da, Simonsek maiatzaren 18an bidalitakoan, politika sentsibilitate guztiak, baita nazionalen aldeko umeak ere, bidezko kopuruetan bidaltzeko behartzen zion Britainiar Gobernuak gizarte laguntzako departamentuari. Hasiera batean jeltxideentzat, ELA eta EAJ batera, 650 postu bakarrik zeuden. Presioa egin eta proportzionaltasuna aldarrikatuz, 1.200 postu eskuratze lortu zuten. Halere, errebeldeen aldekoen kopuru txikia bidali zuten, 300 bat⁸⁶⁹. Tentsio politikoak oso markatuak ez baziren ere,

⁸⁶⁴ UWA.ATUC:292/946/16a/39 Spanish Situation. Evacuation of Basque Children: Memorandum of interview with Jose I. de Lizaso (1937-05-04)

⁸⁶⁵ J. M. Barandiaran Fundazio. Barandiaranen funts pertsonala. Se:Seccion Ync. Si:Y3-Ync0600.0746 Mugikak Hinsleyi (1937-04-28) Hinsleyek Mugikari (1937-05-07) Eliza katolikoak umeak ondo zaindu eta babes espiritualak eskainiko diela esateaz gain, sortuko den komitearekin kolaboratuko dutela hitz ematen dio. Verdier artzapezpikuak Hinsleyeri laguntza behar bazuen eskatzeko idatzi zion Verdierrek Hinsleyi (1937-05-11); Se:Ync Si:Y3; Ync0605 0748 Mugikak Hinsleyri (1937-05-17) eskerrak emanez

⁸⁶⁶ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02 Manningek hainbat telegrama bidez Lizasok Agirre eta Telesforori jarraibideak eskatu arren ez dirudi inoiz erantzun ziotenik.

⁸⁶⁷ UWA.ATUC.292/946/37/180(i) Manningek Citrineri (1937-05-14) *Impossible you should realize intense anxiety which is being felt here fate fourthousand children who have been promised evacuation England. Government department responsible working day and night complete organization. Everything ready for Monday. Stevenson declares no authorization from foreign office. Beg you name civilization and humanity obtain this authorization immediately*; CDB 15- HO 213/288 aurreko telegrama berdina Simonsi. Beste bat ere, bidaliko diote Manning, Ellis, Rusellek Simonsi (1937-05-15) zenbakia igo eta 15 urteko umeak arte hartzeko eskatzen zioten.

⁸⁶⁸ CDB 15- HO 213/288 Simonsek Robertsi (1937-05-18) Robertsek Baldwini (1937-05-13)

⁸⁶⁹ Arrien (2014)

eman ziren. Adibidez, Vicarage, Pampinforden kokatutako kolonia batean *Ayuda* magazina argitaratu zuten umeez. Ildo sozialista jarraitzen zuten gurasoen seme-alabak izanik, Agirrerri aldizkaria ez bidaltzea erabaki zuten. Azkenean Grazia sailburuordeak hala eskatuta lehendakaria ere igorriko zioten haiek egindako magazina⁸⁷⁰.

Espedizioaren arrakasta ikusirik, Graziaren departamenduak Lizasori itaundu zion ea posible izango zen beste espedizio berririk antolatzea. 1937ko ekainaren 7an Robertsek jakinarazten zion Lizasori, etorkizun batean espedizio berriei erabat atea itxi gabe, momentu horretan Erresuma Batuan zeuden umeez aurrez arduratzea zela lehentasuna. Irlandar errepublikako ordezkariari, J.Dulantyri, ere idatzi zitzaion umeak Irlandara bidaltzeko aukeraz. Egitasmo batek berak ere ez zuen aurrera egin⁸⁷¹.

Aurreko atalen batean ikusi ditugu Southamptoneko Stoneham kanpamentuan izandako arazoak⁸⁷². Intendentzia arazoez gain, umeen jokabide txarra zen beste bat, eta berau izan zen uztailaren 24an 18 haur Erresuma Batutik botatzera eraman zituena. Guztiak 15 urte inguruko mutilak ziren. Galesko hegoaldeko Camarthenshire kanpamendura bidali zituzten Southamptonen zuten konportamendu txarra beste haurrei ez kutsatzeko. Southamptonetik Galesa bidean trena zazpi aldiz gelditu zuten. Horrez gain, haiekin zihoazen laguntzaileei jaramonik egin ez eta batzuetan eraso eta guzti egiten zieten, laguntzailerik gabe utzi zituzten. Lizasoren arabera kanpamendutik gertuen zegoen herrira heltzean kotxe baten ispilua apurtu eta denda bat ere harrikatu eta hori gutxi ez eta beste kotxe bat hartu eta hainbat kilometroz gidatuta erdi-apurtuta utzi zuten. Jokabide horiek zirela eta uztailaren 24an egotzi zituzten herrialdetik Parisa 18 mutiko⁸⁷³. Egotzi zituzten hauek baina ez ziren Erresuma Batua utzi zuten lehenak izan.

Bilbo erotzeaz zela, konportamendu hauek aitzakia, orduan hasiko zen prentsan euskal umeen aurkako propaganda kanpaina. Umeak lapurtu, kristalak apurtu eta neskak jotzen zituzten astakirtenak omen ziren. Ideia hauez gain, astekari katolikoak ere *The Tabletek* Bilboko konkistaren egunean, Joseph McCormack, Hexham eta Newcastleleko apezpikuaren pastoralara emango du aditzera. Apezpikuaren iritziaren aurka, umeak inoiz Erresuma Batura ekarri behar ez zirela irizten duen, bizi duten egoera lazarria dela eta 325 aterpe emango diela zin egiten du. Ez gobernuak ezta NJCK laguntzarik emango ez dionez, sinisdunen laguntza biltzeko deia da pastoralara. Agian, enpresa arriskutsua iruditu diezaiokete askori, baina ezin omen zuten ume hauen fedea arriskuan jartzen utzi.

Elizak gutxi barru hasiko zen aberriratzeko kanpainan erabiliko zuten pastoral honetan ikusten diren bi ideia. Haurren sufrimendua leuntzeko egindako lan humanitarioa azpimarratu ostean, kostu handia dutela ematen da aditzera. Gainera, umeak Ingalaterrara inoiz ekarri behar ez zirela esaten da. Hala, erbesteratzea akats bat izan zen ideia aditzera emanez, umeak lehenbailehen itzuliz akats hori konponduko litzateke. Hurrengo astean, Canon Cravenek erakunde katolikoek

⁸⁷⁰ EAH.GLD.Se:Idazakaritza partikularra V:200 L:410/09 Graziak Vicarageko koloniko umei (1937-08-12)

⁸⁷¹ UWA.ATUC. 292/946/39/96 Minutes. (1937-06-07/8) OTHER BUSINESS:(a) Letter from Basque Delegation: *Mr. Roberts read a letter from the Basque Delegation in London which had just been handed to him. Senor Lisaso thanked the Committee for the work it had already done on behalf of his government; asked if he might have facilities for inspecting the centres where the children were placed; and enquired whether the Committee could undertake the responsibility for a further three to four thousand children. The Committee, while loath not to respond in view of the necessity of getting the children away from Bilbao, unanimously agreed that until it could see its way clear in regard to the financing of the children already in England, no further responsibility could be undertaken. Agreed that a financial statement showing the commitments and income be got out for the next Committee;* Arrien (2014) 170-1

⁸⁷² *Catholic Herald* (1937-05-28) Kanpamenduen funtzionamendu txarra aitzaki hartuta eraso egingo zion

⁸⁷³ Arrien (2014) 189-191 Easleighko kanpamendu zeuden beste zazpi gehiago ere bidali behar zituzten herrialdetik, azkenean konportamendua hobetuko zutela zin eginda ez zituzten kanporatu

umeen alde egindako lan dena laburbiltzen duen taula bat argitaratuko du aldizkariak. 1579 ume izan zituzten bere gain erakunde katolikoek eta editorialean hurrengo hau dio *The Tabletek*: *will soon become clear that the Basque children in this country will be better off in their own land again. The Monthek* ere gogor kritikatu du maiatzeko ebakuazioa, zeinak *has all the appearance of an anti-Nationalist move*. Umeen espirituekin oso kezkatuta adierazten da editoriala⁸⁷⁴:

we learn with some misgiving that some hundreds have been entrusted to the Salvation Army—not that we doubt the humanity of these good folk, but rather fear that their care for the bodies of their charges may be in all good faith extended to their souls, with the aim of rescuing them from Popery! We can only hope that sufficient priests and teachers accompany the exiles.

Apika-apika prentsa katolikoa itzulerarako bidea prestatzen zioan etorreratik hilabete eskasera.

Itzulera: Repatriation Committee

Umeak etorritakoan ez zekiten ziur zenbat denbora egon behar ziren herrialde anglo-saxoian. Ez zuten espero oso luze izango zenik. Nahiz eta denbora laburrerako izan, ez zegoen inongo itzulerarako plan zehatzik. Itzultzeko lehen eskakizunak 1937ko ekainean etorriko ziren. Guraso batzuk Espainia nazionalen bizi ziren, beste batzuk eremu Errepublikarreen eta asko Frantzian. Lehen eskaera indibidual horiek erantzuteko zama Euskal delegazioaren gain erori zen. Momentu hartan, Espainiara itzultzeko baldintza egokiak ez zirela uste zuten hauek. Gainera, euskal delegatuak umeak eskatzen zituzten pertsonen moralitatea gaineko ikerketa egiten zuten. Hortaz, kasuan kasuko erabakiak hartu ziren, eta betiere Euskal Gobernuak bakarrik zuen umeak itzularaztekoan azken hitza⁸⁷⁵.

Ekainerako ikusi ditugun lehen kritika horiek, areagotu egingo dira uztail-abuztu bitartean. *The Universen* uztail hasieran, Sturup falangistak Franco eta nazionalen ordezkari bailitzan idatziko du. Ez du ulertzen nola ez dituzten dagoeneko umeak bueltan bidali eta Bizkaian haiek jasotzeko prest daudela adieraziko du. Parlamentari eta herritar ezberdinengandik umeak noiz itzuliko galdezka zituen Macnamara kapitainak. BCC komiteak umeak aberrira itzultzeko gogoia aho batez partekatzen zuen. Hala ere, ez zitzaizkien iruditzen egoera politikoak hori baimentzen zuenik⁸⁷⁶.

Itzulerarako ideia beraz, indarra hartzen zioan. Sturupen eskaerak, Falangeak itzulera bultzatzeko egindako kanpainaren barnean txerta dezakegu. Falangeak aktiboki idatziko zien guraso eta tutore legalei atzerrian zituzten semeen itzulera eskatzeko. Etorriko ziren umeak artatzeko Bilbon zentralizatuko zuen zerbitzu bat eratuko zuten. *Delegación Extraordinaria de Repatriación de Menores*. Ofizian Diputazio kalea, 7-1 izango zirelarik⁸⁷⁷.

Abuztuan zehar, Monsinore Antoniutti, Vatikanoko Estatu Idazkaritzaren ordezkari ofiziosoa heldu zen Bilbora eta Isidoro eta Ramon Griful jesuitek zuzendutako zuten idazkaritza apostoliko bat ireki zuen, Gran Via 58. Arduren artean kanpoan zeuden umeak aberriratzea zuen. Horren berri ematen du *The Tabletek* eta Westminsterreko artzapezpikuak Ingalaterra zeudenen hurrengo informazioa eskatzen du astekari honen bidez Bilbora igortzeko⁸⁷⁸:

(1) Euskal umeen nondik norakoak

⁸⁷⁴ *The Tablet* (1937-06-19) (1937-06-26) *The Month* (1937 ekaina)

⁸⁷⁵ Arrien (2014)199-202

⁸⁷⁶ *The Universe* (1937-07-02) UWA. ATUC. 292/946/39/83 BCC Minutes (1937-07-05)

⁸⁷⁷ Arrien (2014),427-8 Ofizialki izen honekin 1938ko uztailaren 1ean jaioko den erakunde Atzerriko ministerioari atxikita egongo da. Aurretik, Junta teknikoaren justizia komisioari atxikita zegoen eta Antonio Maseda Bauza lehendakari izan zuen *Junta de la Protección de Menores* eraman zuen aberriratzea aurrera

⁸⁷⁸ *The Tablet* (1937-08-21)

(2) Ume eta gurasoen izenak eta beraien jaioterria. Familiak lokalizatzeko era etxera bueltatzeko baliagarria izan daiteken edozein berri ere bidali.

Bilbon zela Antoniuttik Gabana ezagutu eta bere ordezkari gisa bidali zuen irailean Ingalaterrara. Gabanaz gain, falangearen lider ingelesa, F. Sturrupe, organismoaren delegazio nazionalaren atzerri zerbitzuen aginduak jasoaz gisa bereko lanetan zebilen. Asmo berdinarekin, Albako dukea bere kabuz egitasmo bat jarri zuen martxan urri hasieran: Wellingtoneko dukeak zuzendutako *Spanish Repatriation Committee*. Komite hau buruan zuela, Albako dukeak Gabanari egiten ari zen kudeaketak bertan behera usteko esan zion 1937 irailaren 30ean⁸⁷⁹.

Nazionalen aldekoen presio mediatiko eta umeak Ingalaterran mantentzearen presio ekonomikoa gero eta zama handiago bilakatzen zebilen *Basque Children Committerentzat*. Sturrupe 2.000 umeren gurasoek itzuli nahi zutela ziurtatzen zuen. Azken notizia hau Gabanaren arabera faltsua bazen ere, eragina izan zuen komitean. Horrez gain, *The Universek*, abuztu bukaeran, umeak propaganda politikoa egiteko ekarri zituztela salatu zuen berriro. Horri erantzunez, NJCko Robertsek umeak Ingalaterra eduki nahi ez zituztela adierazten du. Gerrak eragin ditzakeen arriskuak eta umeen gurasoen nahietan oinarritzen direlarik umeak aberriratu edo ez erabakitzeke. 1937ko abuztu bukaerarako Bilboko egoerak hobera egin duela adierazten dute; baina gurasoen nahia umeak itzultzea dela egiaztatzeke Bilbora Janet Campbell eta Norman Whitek osatutako komisio bat bidali nahi zuten⁸⁸⁰.

Abuztuan bertan, *The Catholic Herald* itzuli nahi dutenen 330 umeren zerrenda nominal bat argitaratuko du eta irailean Gabanak eta Sturrupe ere hainbat zerrenda aurkeztuko dituzte. Gehiegi zirelakoan eta asko faltsuak, Sturrupe eskariak baztertu eta Gabanari egingo diote kasu. 990 izenekoa zerrenda da delegatu apostolikoak aurkeztu duena. Halere, eskaintako zerrendan hainbat akats nabaritu dituzte. Hauen presioari urrian Albak sortuko duen komiteak eragingo duena gehitu behar zaio⁸⁸¹.

BCC barruan eta baita Euskal Gobernuak agintariak ere bazekiten pixkanaka umeen itzulera martxan jarri behar zutela. Horretarako, eta batik bat, gurasoen nahiaren aurka inor ez aberriratzeko tentu handiz jokatzeko eskema bat jarri nahi izan zuten abian. Urriaren 1ean, Tewson sindikalistaren proposamen bati eskerrak atera zen komite judizial bat abiarazi zuen BCCK. Hamar egun beranduago Robertsek adierazten zuen hurrengo helburu hauek zituen: Komiteak hartu beharreko aberriratzeko politika zehazteko iradokizunak eman eta Gabanaren aplikazioak berrikusi eta haien zilegitasuna zehaztea hain zuzen ere.

Urriaren 10, 16, 18, 19, 29 eta 23 bildu zen batzordea *Court Room of the Incorporated Law Society* Carey Street, Chancery Lane, Londonen. NJCak proposatutako hiru abokatu gain - Sir Holman Gregory, K.C Theobald Mathew, Esq., Richd.R. Ludlow, Esq-, Joseph Vaughan Barrister aritu zen idazkari eta parte ezberdinen hiru ordezkari ere egon ziren bilerotan. Arnold Wilson, Albak bultzatzen zuen *Spanish Repatriation Committeteren* ordez, Gabana eta Euskal

⁸⁷⁹ Arrien (2014)

⁸⁸⁰ UWA, ATUC, 292/946/39/70 Minutes Basque children (1937-08-31) Lehen umeen espedizioarekin batera azaroaren 13an sartuko dira laburki Bilbora: 292/946/39/43 (1937-11-23) Minutes NJC

⁸⁸¹ *The Catholic Herald* (1937-08-20) (1937-09-14) Gabana lehendabiziko umeen espedizioarekin batera etorriko da. Sturrupe eta Alba kexu agertuko dira bere jokabidearekin; Sturrupe eta Gabanaren arteko erlazioak berehala apurtuko ziren. Gabanak ez zion utziko kolonia katolikoak bisitatzen eta *The Catholic Herald* (1937-09-17)

Gobernuaren ordez Miguel Uranga. Urangak D. Pritt abokatu eramango du berarekin. Wilsoni Lovedayek ere ordeztuko dio bileretako batean⁸⁸².

Bilbon arriskurik ez zegoela eta aurkeztutako 800 izenetatik 387 egiazkoak zirela egiaztatu ostean emandako lista hartatik 500 ume nahi bezain pronto aberriratu zitezkeela erabaki zen ezarritako batzordean. Bilera hauetan, BCCk ezarritako irizpideak gogorregiak zirela iritzita edo presioa gehitzeko asmoz, batzordean Westminsterreko ordezkariak, Canon Cravenek dimititu egin zuen. Presioak presio, umeak NJC eta Euskal Gobernuaren ardura eta, hauen delegazioz, BCCrena zirela adierazten zion Britainiar gobernuak Albari⁸⁸³.

Lehendabiziko espedizioan 152 ume bidaliko ziren, hogeiren bat laguntzaile eta maistra batzuekin batera. 1937ko azaroaren 13an helduko ziren Bilbora. Hasierako espedizio hauek gauzatuta Antoniuttik Hinsley eskertuko du. Halere, eta umeen itzuleran lana aktiboki egiten jarraituko badu ere, delegazio apostolikoa gehiago zentratuko da etorritako umeen zaintzan. Gabana bera lehen espedizio horretan itzuliko da Bilbora, Alba eta Sturrupekin izandako arazoan ondorioz bidali zuten bueltan. Azken bi hauek beraien artean kolaboratuko zuten, nahiz eta azkenean Sturrupek bera ere ekuaziotik kanpo geratu. 1937ko abenduan Jose Villarverdek, Albaren idazkariak Masedari umeak ebakutzeko Sturrupekin plana aurkezteko dio. Ez dakigu ziur baina baliteke Bilbon ezarritako zen *Delegación Extraordinaria de Repatriación de Menoresekin* zer ikusia izatea. Maseda, delegaritzatza hau abiarazi zuen *Junta de la Protección de Menoreseko* zuzendaria zen. Abendu horretan Villaverdek beste gutun batean, Macnamara kapitaina konbertso bilakatu dutela idazten dio Jose Antonio Sangronizi, Macnamara 1936ko azaroan etorri zen batzorde parlamentariako kide zen. NJCren sortzailetako bat. Orain, aberriratzeko batzordean zegoen⁸⁸⁴.

Kide eta plan berriak eskuratzen doazen bitartean, 1937ko urritik aurrera, Espainiako prentsa nazionalak eta agerkari katolikoek erasoak indartuko dituzte. *The Catholic Herald* *Hoja oficial del lunes de la Provincia de Guipuzcoak* azaroaren 29an emango duen notizia bat errepikatuko du. Euskal *Shadow governmentak* Londoneko ordezkariari agindu dio umei ez usteko nazionalen eremura joaten eta beharrezko bada errepublikar eremura bakarrik aberriratzeko. Artikuluak *Is not monstrous?* itaundu ostean, umeak ganadua bezala, propaganda bide bat zabaltzeko besterik esportatu ez dituztela adierazten du. Hau egiten dutenak ez dira katolikoak, katolikoek izena usurpatu dutenak besterik ez⁸⁸⁵.

Albako dukearen arabera, 1938ko otsailerako, ia 1.200 ume etorriko dira bederatzi espediziotan: 1937ko azaroak 13 eta 19; abenduak 2 eta 1938ko urtarrilak 3, 7, 19 eta 26; eta otsailak 2 eta 17. Haren iritziz, geratzen diren 2600 umeak aberriratzeko arazo gehiegi jartzen ditu Atholleko dukesak zuzendutako batzordeak. Ez dago eskaerarik 2.250 buruz eta horiek ez ditu Espainiara bidaliko. Aldiz, beste 350en kasuak gertutik ikertzen dihardute⁸⁸⁶.

Aberriratzea pixkanaka gauzatzen ari zela, prentsa katolikoaren erasoaldiak ez dira geratuko. Martxoan Bartzelonako bonbardaketan erdian, gogoan ditu J.K. batek bonbardaketan harira

⁸⁸²UWA. ATUC. 292C/946/2/110ii (1937-10-11) Basque Children Minute; 292/946/39/58 (1937-10-01) Basque Children Minute; 292/946/39/53 (1937-10-26) (1937-10-28) Report of Repatriation Committee ; Report on joint meeting of the National Joint Committee for Spanish Relief and Basque Children's Committee on 28 October 1937

⁸⁸³ Arrien (2014), 431-32, 437

⁸⁸⁴ AGA 54/6700 Villaverdek Masedari (1937-12-24) Villaverdek Sangronizi (1937-12-21)

⁸⁸⁵ *The Catholic Herald* (1937-12-10)

⁸⁸⁶ *The Tablet* (1937-11-20) eta CDBG 58 -AGA54/67011 Albak Burgosa (1937-02-19)

ebakuatu ziren euskal umeak. Emozioa erabiliz gorriek propaganda egiten dutela adieraziko du. Francok aireko nagusitasuna duenez, zibilen heriotzak ziurrenik faltsuki akusatuz⁸⁸⁷:

It is notorious that the adherents of Red Spain stick at nothing in order to excite prejudice against the Nationalists. The hapless Basque children were removed in thousands, in some cases permanently, from their families in Spain on the unfounded plea that Franco would mal-treat them. The generous emotion of pity was thus unjustifiably aroused and exploited for political ends. And because this righteous struggle for the survival of Christian civilization has largely to be conducted by the modern method of bombing, a movement of protest on humanitarian grounds against the general use of the air-weapon is being engineered both here and in America. (...) whereas there is no trustworthy evidence that the latter have attacked really open'' towns and villages, Salamanca has abundant records of extensive Red bombings of Nationalist centres of no military significance, during the first part of the war, before Franco had established supremacy in the air. Now, when the cessation of bombing on both sides would be of immense and disproportionate value to the Reds, is the moment chosen for the issue of this humanitarian appeal.

Gorriak ez bezala, Franco gerra benetan humanizatzen saiatu omen da eta ez du propaganda egin umeen ebakuazioan: *We are familiar with the campaign for bringing many of the Basque children away from Bilbao out of the reach of Franco's bombs, though he had offered to establish for their security a neutral area; I cannot remember a similar effort to rescue women and children in Barcelona and elsewhere from the knives and torture of armed criminals and imbeciles.* Eraso haez gain, *The Month* 1938ko maiatzean Paul McGuire America jesuitarako idatzitako *The Basque Children* artikulua gomendatzen du. McGuirek errepublikarrek egindako sarraski handiena deitzen dio umeen ebakuazioari: *committed by the Spanish Reds and their foreign abettors by the forced and unnecessary exile of thousands of helpless children*⁸⁸⁸.

Erasoak eraso, 1938an zehar umeak Espainiarako bidea egiten jarraitu zuten. Normalean ebakuazio masiboekin. Adibidez, maiatzerako 2an ia 500 ume atera ziren Britania Handitik. Abendurako 2.175 haur espainiarra bidali zituzten. Erresuma batuan 1.704 ume geratzen ziren Morgan doktorea eta BCCko idazkaria zen Arne anderearen arabera. Azken zifra hori martxoan 1.600era jaitsiko da eta maiatzerako 1.100 besterik ez dira izango⁸⁸⁹. 1939ko maiatzean egindako estatistika batzuen arabera horrela banatzen dira itzultitakoak:

Bilbo	Bartzelona	France	Beste norabait	
268	3	35	1	1937 abendu arte
1.755	56	101	11	1938
457	-	34	5	1939ko maiatz arte
2.480	59	170	17	2.726

2.726 haurrei hildako zortzi haurrak gehitu eta txostenaren arabera 3.889 haur etorri zirenez 1.155 geratzen omen dira Ingalaterran 1939ko maiatzean⁸⁹⁰.

1939ko irailean, Mundu Gerra hasterakoan guztiak Espainiara itzuliko ziren zurrumurrua izan zen. Azkenean, 1939ko bigarren erdialdean 500 ume inguru gehiago itzuli ziren, eta 1940 hasieran beste 128. Matematikak ez badigute huts egiten, Mundu Gerra benetan hasterako 500 ume inguru besterik ez ziren geratzen irletan⁸⁹¹.

⁸⁸⁷ *The Month* (1938 martxo)

⁸⁸⁸ *The Month* (1937Abendua) (1938 Maiatza)

⁸⁸⁹ CDBG Kew 1 FO 371/24148 W 8052; W422; W4186-4188

⁸⁹⁰ UWA. ATUC:292/946/38/85 Report on repatriation 3.889ko hiru maiatzaren 23 ostean etorri ziren

⁸⁹¹ Arrien (2014), 446-7

Euskal Umeen inguruko propaganda

Orain arte ikusi dugu prentsa katolikoak euskal umeen aurka erakutsitako erasokortasuna. Prentsa espezifikoa honez gain, umeen aurka oso gogor aritu ziren gehienbat *Daily Mail* eta *Morning Post*. Etorri bezain pronto eraso zituzten. Heldu berritan *Catholic Herald*ek *Genuine sympathy for the victims* erakutsi bazuen ere, kritika sotil bat egingo zion espedizioari. Etorreraren atzean Francok aurkakotasuna eskuratzen dela salatzen du *mixed motives have crept into the British humanitarian movement and that under cover of humanitarianism and even Christianity exists the keen desire to see Franco brought to his knees*⁸⁹². Bestalde, prentsan agertutako zurrumuru batzuen ondorioz, epidemia ezberdinak zituztenaren zurrumurrua gezurtatu behar izan zuen Ellis doktoreak⁸⁹³. Epidemia arriskuaz gain, umeen konportamendu eskasa ere lau haizetara zabaldu zen. Horregatik, Lizaso abuztuan adierazpen bat ateratu behar izan zuen. Bertan, umeak Ingalaterran zenbat denbora izango ziren erabakia NJCK eskuetan zegoela esan eta ziurrenik euskal lurraldean baldintzak hobetzean izango da itzulera. Bitartean, Ingalaterrak eskaintzen dizkien pribilegioez gozatzen jarraituko dute (janari egokia, segurtasuna...). Betiere, azpimarratzen du ez duela Euskal Gobernuak inongo helburu politikorik, Britainiar erakunde humanitarioen lana izan zela gogoraraziz. Adierazpen hauen aurka oso gogorak ez badira ere, gerora erabiliko den argumentu bat agertzen da: umeak mantentzeko zailtasun ekonomikoa⁸⁹⁴. Lizasok esan duenaren aurka, oinarri politiko argi bat dauka haurren ebakuaziok, edo gutxienez, haurren presentzia esplotatu egingo dute irabazi propagandistikoaren mesedetan. Maiatzaren 24an hala idatziko dio Lizasok Agirrerri⁸⁹⁵:

Prensa inglesa sin excepción ocupase recepción cariñosa niños llegados Southampton. Publicanse fotografías y hacen resaltar conducta ejemplar llegada. Ayer di por radio un mensaje agradeciendo al público inglés la acogida cordial dispensada a los evacuados. Sugiero gafas declaraciones corresponsales periódicos ingleses Bilbao en parecidos términos. I wish on behalf of the Basque people to thank the British people for the wonderfully generous welcome accorded to our children at Southampton and for the loving care which is being taken to ensure their health and happiness. I hope that it will not be long before we can welcome them back to their own homes but we Basques are comforted with the thought that until that time comes, they will be secure and happy under the protection of Great Britain to the children I send this message. Remember those you have left behind fighting bravely for our dear Basque country and all it means to us. Behave worthily of them. Be the mirror in which you may reflect their worth so that when you return home once more as I pray you may do soon you will be the better fitted by your sojourn in Britain to build up our country again in the pattern of its old and proud traditions and dwell in peace again with God and man.

Euskal umeak jasoko dituzten erasoak ez dira, hasieran behintzat, horrenbesteko eraso argi eta zuzenak izango. Hauek irail-urri aldera areagotuko dira Itzuleraren kanpaina hasterakoan. Urangak Graziari irailan idazten dio hasi dela aberriratzearen aldeko propaganda. Batez ere, Irlandan dabilta honen aurka gogor. Erresuma Batutan berriz, tirada gutxiko egunkarietan agertzen dira gisa honetako notiziak. Halere beldur da ez ote den Espainiatik etorri berri den *Daily Mail*ko korrespondentsala halako propaganda egiten hasiko⁸⁹⁶.

Urangak zituen beldurrak areagotu eta orduan hasiko zen jazarpena. Parlamentuan hainbat diputatu oso erasokor arituko ziren *Bolshevik agitators* eta *Those little devils* deitzera helduz⁸⁹⁷.

⁸⁹² *The Catholic Herald* (1937-05-28)

⁸⁹³ *The Lancet* (1937-05-29) Umeak Bilbon artatzeko zailtasunen eta aurkitutako patologien berri ematen du. Ume ingelesekin dituen estadistikekin alderatzen du.

⁸⁹⁴ *Manchester Guardian* (1937-08-06) *Evening Standard* (1937-08-14)

⁸⁹⁵ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:255/02 Lizasok Agirrerri (1937-05-24)

⁸⁹⁶ EAH. GLD.S:Idazkaritza partikularra V:200 L 410/10 Urangak Graziari (1937-09-06)

⁸⁹⁷ *Blackley Guardian* (1938-02-05) Nairne Stewart Sandeman parlamentariak umeak doilortarazten saiatu zen hitz hauekin. Benetako ekaitz politikoa sortu zituzten hitzok

Baina ziurrenik aberriratzeari buruz gehien idatzi zuen pestona izango zen Arthur Loveday. *Spanish Repatriation Committee*ko idazkaria. 100 gutun baino gehiago, gehienbat probintzietako egunkariei, idatziko ditu komite horren izenean. Umeen bueltarako Bilboko egoera sozio-politiko egokia dela eta haien mantenuaren kostuak oso garestia gertatzen ari dela azpimarratuko du. Adibide garbi bat, BCCko Vicent Ducanekin *The Spectator* izandako ikamika da. Duncanek egotziko dio ume guztien aberriratzek bi eszenario besterik ez dituela uzten. Kontuan izanik, guraso asko eremu errepublikarrean daudela itzultzeak Francoren bonben azpian edo haren uztarriean bizitzera behartuko ditu; beste aukera, gurasorik gabe daudenek erreformatario eta umezurztegitan pilatzea da. Duncani erantzutez, BCCk Bartzelonara umeak bidali dituela esan eta horrez gain, frogarik gabeko nazionalen aurka egindako akusazioak gezurtatzen diru. Bilbon egindako ikerketek kontrakoa adierazten omen dute. Adibidez, komiteko hiru kide Bilbon egon ziren 1938ko urrian eta Bilbo zona segurua dela ikusteko aukera izan zuten. Ez bakarrik gurasoak dituztenentzat, baizik eta *Social Welfare Centre* sistema egoki bat omen zutela egiaztatu zuten⁸⁹⁸.

1939ko azaroaren 14an, BCCren diru-laguntza eskaera berri bat salatuko du Lovedayek. Gastu hau, astero £500-750 kostua duten eta dagoeneko espainiartuak izan behar ziren 1.000 haur mantentzeko. Are gehiago, *many of them have been converted into Christ-hating little Communist*. Gastu handia eta jasotako hezkuntza dela eta, gurasoen baimen edo baimenik gabe bidali behar dira bueltan honen iritziz. Bi astera erantzun zioten Roberts eta Rathbonek. Hasteko, umeak ez dira nazioaren zama ekonomikoa, BCC eta erakundearen aldekoena baizik. Gainera, 500 bueltatzeko momentu egokiaren zain daude, hortaz ez dira 1.000 kontatu behar eta ahalik eta lan handiena egin dute umeak beraien sinesmenetan hezi eta ez alienatzeko⁸⁹⁹.

Times eta *The Spectator* bezalako prentsa neutralean izandako eztabaidak askoz ere beroagoak izan ziren alde bat edo besteren alde egiten zutenen orrietan. Arrazoimena beti izango zen berdina. Itzuleraren aldeko prentsak, umeak inoiz etorri behar ez zirela argudiatuko zuten. Orain egoera egokia zegoenez guztiak bidali behar ziren bueltan. Umeak Britainiar Handian izatea oso garestia zen gainera. Ondorioz, dirua ez zen britainiar txiroentzat bideratzen. Emozioetara ere jotzen zuten eta komunistak, doilorrak eta halako biraoak ere botatzen zizkieten. Guztiaren gainetik baina, propagandarako armak zirela egozten zitzaien.

Prentsa liberal eta laboristak, ideioi gogor egingo die kontra. Hasteko, diru pribatua erabiltzen dutela erantzungo zaie; eta egoera politiko eta militarraz gain, gurasoen nahia errespetatzen saiatzen ari dira umeak bidaltzerako garaian. Erresuma Batuko egoerak hobeto jateko aukera eskaini die eta guraso asko Frantzia edo kartzelan dituzte. Gainera, egoera militarrik ez badu ere, beldur dira falangean sartu eta doktrinatzeko saiatuko diren. Philip Jordan, euskal frontean egondako *News Chronicle*ko kazetariak idatzitako *Should they go back?* Artikulua Barnetteko, Rowley Lodge, kolonian pozik jolasten dauden haurrak, trimindutako Bilbo eta Gernikaren ilustrazioekin kontrajartzen ditu. Italiar eta Alemanentzat ia 4.000 *target* gutxiago ziren, halere:

no sooner had the Basque children landed in England than a propaganda campaign- as unscrupulous as it has been mean in spirit- was begun for their return. No room here to rebut all the lies that have been told. Reds, Savages, Cannibals, Thieves bezalako hitzak erabili dira umeen aurka, gehienbat prentsa katolikoak. Ume hauek gaitzetsi beharrean, katolikoak ongi etorria ematen lehenak izan beharko lirakeke.

⁸⁹⁸ AGA 54/7246; *The Spectator* (1938-03-25) (1938-04-08); *Evening Post* (1938-10-08)

⁸⁹⁹ *The Times* (1939-09-14) (1939-09-27)

Behin katoliko eta kontserbadoreen kanpaina salatuta, Bilbo itzultzeko segurua ez dela adierazten du. Gobernu Britainiarrak ondo dakien bezala, populazio zibilaren erailketak hasi besterik ez dira egin. Gainera, Gabana apaizak ekarritako listan dauden guraso askoren benetako nahia haurrak ez itzultzea justifikatzeko, *EL Correo Español*ek abuztu bukaeran ateratako artikulu batean eskaerak eskatzeko gurasoak derrigortuak izan direla dio, kasu konkretu bat aipatuz. Giza legezkoa den auzia erabat politizatuz *Rebel agents provocateurs have turned from a humane charge into a political instrument*⁹⁰⁰.

Luigi Sturzo ere Jodanaren iritzi berekoa izango da. Katolikoek umeen aurka egindako propaganda *verdaderamente escandalosa* dela adieraziko dio Agirreri abuztuaren 3an izango duten elkarrizketa batean. Hark kontrapropaganda egiteko beharraz hitz egingo dio lehendakari. Benetan larria da umeak gutxi arte hil arteko borrokan egon diren etsaiei ematen baitzaizkie. Gurasoek nahiko balute ezin omen da ezer egin, baina kontuan izan behar dute oso litekeena dela guraso hauek presionatzen ari direla agintari berriak. Agirrek Sturzoren hitzoi hurrengo hau gehituko dio⁹⁰¹:

La prensa católica inglesa esta envenenada. La prensa católica de allí, los semanarios, porque no hay diarios son escandalosamente franquistas. Habréis leído la carta que al arzobispo primado inglés ha dirigido a Goma. Hay que intensificar la propaganda con hechos, con datos. Hoy mismo he visto un número del Boletín de información que se publica a cargo de Lecaroz y hay que utilizar sus datos para llevar al mundo la convicción de lo que esos barbaros fascistas hacen. De lo contrario la opinión los juzga cruzados.

Euskal Gobernu eta umeak

Beste gaiekin bezala, E.M. Wright etxeak oso presente izan zituen euskal umeak propaganda egiterakoan. Egia esan, propagandaren jardun handiena umeek egiten edo egin behar zutena jaso eta interesatzen zena zabaltzera mugatu zen. Kolonietan eta nazio mailan umeek egiten zituzten dantza, erakusketa eta abesbatzen emanaldiak adibidez. Ildo honetan aipagarria da Philip Thorton ezagunak gidatuta, Londoneko Rudolf Steiner Hallean hainbat kolonietako umeren emanaldia. Whitney etxeko neskek *Las Hilanderas* dantzatu bazuten, Colchesterreko umeek ezpatadantza eta makila dantzez gozatu ahal izan zuten ikusleak. Horrez gain, Cambridgeko umeek euskal, kataluniar eta galiziar kantak kantatu zituzten. *The Times*ek eskainitako notizian euskal eta ingeles abesti eta dantza folklorikoen antzekotasunak nabarmenduko ditu. Gainera, Katalanez eta Galizieraz kantatzea ere ez da kasualitatea⁹⁰².

Euskal umeak prentsan presente izatea interesatzen zen, gehienbat diru-bilketen zenbatekoak ez jaisteko. Normalean kolonietan antolatutako ekintzak probintzia mailan mantentzen ziren, baina argazki eta anekdota interesgarriak prentsa nazionalera bidaltzen saiatzen ziren. Halako berriak sortzen saiatu zen agentzia. Adibidez, 1937ko azaroan hiru ideia otu zitzaizkien. Lehendabizikoa, Margaret eta Elizabeth izena zuten neskatxa guztiek infanta britainiarren aurrean aurkezpen txiki bat ematea. Ez dirudi gauzatu zenik, aldiz, infantei panpina bana bidaltzeko ideiak arrakasta izan zuela dirudi. Bigarrena, euskal tradizioak zabaltzea izan zen. Euskal janari tradizionala edo gabonetan zehar zituzten ohiturak adierazi eta zabaltzeaz gain, jendea gonbidatuko zuten euskal abegikortasuna dasta zezaten. Ideia honi jarraiki hainbat berri zabaldutako prentsan zehar euskal ohiturei buruz. Hirugarrena, mutikoak eskudroi anti-aereoetan boluntario izateak istorio ona izango zela iruditzen zitzaien. Ez dakigu hura bete zen, baina 1938ko martxoan umeetako bat armada britainiarrak deitu zuen eta prentsan agertu zen

⁹⁰⁰ *News Chronicle* (1937-11-11)

⁹⁰¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:249/01 Agirrek Iralari (1937-09)

⁹⁰² *The Times* (1938-01-17) Cambrideko umeak ezkertiarak dira, sozializten semeak. Hortaz, ziurrenik federazio eta autonomian sinisten bazuten; ez zuten euskal independentziarik nahi

hura. Beste istorio bat izan zen Miren Bilbaori eginiko erreportajea. Lau urteko haurra. Ingeles eta euskaraz primeran egiten zuen. Halako bitxikeria politez gain, argazkiak eskuratu eta zabaltzea beste lan handi bat izan zen. Gehienbat umeak jolasean eta pozik azaltzen ziren argazkiak interesatzen ziren. Haien alaitasunak gerran bizitako izuarekin kontrastatzean propaganda efektu ona eskuratzen zelakoan zeuden⁹⁰³.

Pasadizo guzti hauen xedea euskal haurrekiko irudi alai eta abegikor bat eskuratzean zetzan. Honela, diru bilketak mantendu eta aberriratzeko kanpainaren aurka errazago egin zezaketen. Istorioez gain baina, ez ziren alde batera baztertu prentsara igorritako artikulua eta gutunak. Horietan, aberriratzeko umeentzako suposatuko lukeena ematen zen aditzera. Mutilak gerrarako errekrutatu edo izaera militarra duen FET de la JONSen gazte erakundetan engaiatuko zituzten. Horrez gain, Erresuma Batuan zoriontsu eta osasuntsu bizi direla ematen da aditzera. Ume baten hitzak errepikatzen dira gutunetako batean: *I wish I was never back... we shall soon lose all the good health we gained*. Beste batean, haurrak gogoz kontra aberriratzeko dabiltzala gogoratzen dute. Bukatzeko, Albak sortutako komiteari eraso egingo zioten. Eskuin muturreko pertsonaia ugarik konposatzen zuten eta umeen aurkako sekulakoak esandakoak ziren asko. Birao horiek haien kontra egiteko erabiliko zituzten⁹⁰⁴.

Halako gai arantzatsuetan sartzen baziren ere, ez zitzaizkien gehiegi interesatzen eztabaida politizatzea. Edo gutxienez, Euskal delegatuekin lotu zezaketen kritikarik egitea. Ez da ahaztu behar hasieratik umeen espedizioari egindako akusazioak, hau da, jomuga politikoekin egindako ebakuazioa zela. Ideia hauek zirela eta, etorreraren urteurrena bete zenean ez zuten ezer berezirik antolatu delegaritzatik. Kolonia guztietara esker mezu bat besterik ez zuten igorri. Francoren jarraitzaileak kanpaina bete-betean zeuden eta ez zen interesatzen Euskal autoritateei umeekin propaganda egiten zuten salaketarik jasotzea. Horregatik, agentziak lau haizetara zabaldutako berrien gehiengoak kutsu kulturala izan zuten.

Lizasok ere parte hartu zuen Euskal umei zegokion ekintza propagandistikoetan. Prentsan ikusi ditugun adierazpenen bat edo beste egin zuen. 1938ko azaroan, liburuxken atalean gainetik aztertu dugun *Basque Children under Rebel Control. Franco's System of Education* idatziko zuen umeak aberriratzeko arriskuek adieraziko zituen eta probintzietako prentsan oihartzuna eskuratzeko aterpetxe ezberdinak eta umeek antolatutako ekintzaren bat edo beste bisitatuko ditu. 1937ko abuztuan Manchesterren hainbat kolonia bisitatu zituen eta 1937ko urrian High Wycombekoa. Manchesterreko koloniak bisitatzeko asmoak argiak ziren. Lau kolonia elkarren artean oso gertu zeuden. Londonen ostean Manchester populazio gehien kontzentratzen zuen eremua zen. Londresen aurkako aurriritziak zituzten eta harrotasun lokal handia zuena gainera. Prentsan *misconduct* ezberdinak eman zirela zabaldu zen eta horiei erantzuteko beharra ikusi zuten. Bi prentsa talde zeuden aurrez aurre, *Allied Newspaperrek* kontrolatutakoak eta beste bi *Manchester Guardian* taldekoak. Egunkari hau seguruenik munduan influentzia gehien duen argitalpenen artean kokatu behar da.

Wright agentziak argibide argiak eman zizkion Lizasori. Prentsa Lizaso hotelera heldu bezain pronto artatu behar zuen eta *my nationals* ikusteko gogotsu zegoela adieraziz. Ondoren, Manchesterreko hospitalitatea eskertu eta Euzkadi buruzko deskripzio txiki bat emateko aprobetxatu behar du. Deskribapenean ingelesek zituzten hainbat mito deuseztatuz. Esaterako, EAJren posizioa eta hauek komunistekiko zuten erlazioa argi utziz. Umeen *misbehavior* zurrumurruei ere erantzun behar zien. Horiek gezurtatuz. Bukatzeko, Guardianeko editorea zen,

⁹⁰³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:297/04 Report November 1937; L:294/01 Report march 1938

⁹⁰⁴ *Ibid.*

Crozierrekin bilduko zen,⁹⁰⁵. 1937 bukatu aurretik, High Wycombeko umeak ere bisitatu zituen. Hauek kontzertu bat egitekoak ziren eta ondo ateraz gero, gabonetarako disko bat grabatzeko intentzioa zuten. Ez dakigu azken emaitza. *Salvation Army* Birminghamen zuen koloniara ere gerturatu zen Lizaso. Han Ball bat antolatu zuten. Mediak atentzio eskaini bazion ere, ez zen erabat bilatzen zuten propaganda. Kazetariak ez zioten nahikoa erreparatzen Euskal ohiturei, eta umeak espainiarizat hartzen dituzte gainera⁹⁰⁶.



Ir.21 Lizaso *Salvation Army* Claptonen umeak etorri aurretik koloniako sukaldea ikuskatzen (1937-05-21)

Ondorioz, agentzian bere esanahi latindarrean saiatu zen propaganda egiten, hau da euskal umeen berri propagatzen. Bazekiten ezin zutela oso propaganda agresiborik gauzatu, umeak propagandarako erabiltzen zituzten salaketak jasotzera ezin baitziren arriskatu. Peter Andersonek nabarmendu duen bezala, Euskal Gobernuak gizalegetasunaz gain, helburu propagandistikoak zituen umeak Ingalaterrara ekarriaz. Francoren zibilen bonbardeoez haratago, nazionalen biolentziaren sinbolo bilakatu baitzituzten haurrok. Hala, Britainiar Gobernuak publikoki behintzat nazionalen alde agertzeko aukerak zapuztu zituen, besteak beste, beligerantzia eskubideak ukatuz. Haratago joan zen baina gobernuaren eta EAJren helburua. Berehalako xede diplomatikoetan laguntzeaz gain, estrategia zabalago bat bilatzen zuen. Euskal Gobernuak, Francoren alde ez bezala, gerra humanizatzen zuen aktorea zen. Beraz, umeen espedizio hau hurrengo moduan ulertu behar delarik: *as part of a consistent tactic to secure a propaganda victory as well as to expose and stop the Francoist atrocities both on and behind the lines*⁹⁰⁷.

19. ZIBIL ETA PRESOEN AURKAKO SARRASKIAK

Aurreko zatian ikusi berri dugu Ingalaterrara ebakuatutako umeen kasua. Hein handi batean alemaniarrek Gernika bonbardatzearen ondorioz ahalbidetua. Britainiar iritzia bereganatu eta hango Gobernuak presio horiei erantzunez, gerra azkar bukatuko zela iritzita, populazio zibila ebakuatu eta *Basque Childrenak* Erresuma Batuan jasotzea baimendu zuen. Hala ere, haratago ere bazion ebakuazio hau. Guzti hori ez zen posible izango gerra hasieratik euskal agintariak

⁹⁰⁵ *Manchester Guardian* (1937-08-14)

⁹⁰⁶ *Birmingham Gazette* (1937-12-01)

⁹⁰⁷ Anderson (2017b), 317

hasitako giza-legezko politika aurrera eraman izan ez balitz. Politika hori aztertzea baino, politika horren erabilera propagandistikoa aztertzea izango da jomuga atal honetan.

Beste aldeekin alderatuz, Euskal Gobernuak hartutako komunikazio politika askoz ere irekiagoa izan zen. Ezer ezkutatzeko eta ondo jokatzeko, etengabe gerra humanizatzen saiatzen zegoela saldu nahi izan zuten, hau da exenploa ematen zeudela adieraziz. Barbaroen aurrean modu zibilizatuak mantendu eta jokaera horrekin irabazi politikoak eskuratzea espero zuten. Bere agindupeko lurraldean sarraskiren bat zegoenean, horren berri eman eta kontrolez kanpoko indibiduoek eginak zirela ziurtatzen zuten. FOarekin izandako lehen bileran Lizasok berak Euskal Gobernuaren jokaera, Errepublikar eta Nazionalen jokabideekin alderatuko du, euskaldunak ezberdinak direla adieraziz⁹⁰⁸. Aburu berekoa zen Ralph Stevenson. Bilboko blokeoaren harira nagusiei telegrama bat igorri zien: *Is he [euskaldunak] not superior in every way except numbers, to his Spanish oppressor?*⁹⁰⁹ Aspektu horietan moralitatea ere sartzen zen.

Sarraskirik handiena babesik gabe defendatu ezin diren pertsona zaurgarriak hiltzean datza. Horregatik gerra modernoek adierazi dezaketenez txikizioen aurrean emakume eta umeak, hau da, populaziorik zaurgarriena babesteko deiak egiten dira. Ildo beretik, gerraren lege humanitariok errespetatuz, antzeko maila batean kokatzen dira atxilotuak. Horregatik, artzapezpiku anglikanoen biltzarrean kristoren izenean aldarri bota zuten 1936ko azaroaren 16an:

*In the name alike of Christianity and humanity, we appeal to the leaders of both armies in Spain to restrain reprisals to spare the lives of prisoners, and to protect women and children*⁹¹⁰.

Espania barruan, Gerraren humanizaziorako deiak Gipuzkoan hasiko dira. Donostian Loiolako kuartelak erori ostean hainbat militar Ondarretan preso hartuko dituzte. Uztailaren 27-31 kuarteleko Leon Amilibia hil egingo dute uztailaren 29an. Hurrengo egunean, Ondarretan beste preso batzuk hil eta 31an Tolosan ere hainbat pertsona asasinatuko dituzte. Barrusok, *justicia espontanea* deitu dio fenomeno honi. Bat-bateko gertaera hauek gaitzetsi egingo dituzte GBB eta ELAk⁹¹¹. Donostia pairatzen ari zen itsas-bonbardaketei erantzunez gerrako komisariak Barrusok *Justicia revolucionaria* deitu duena aplikatu eta abuztuaren 13, 18 eta 26 Larrañaga buru duen batzorde batek 17 militar epaitu eta fusilatu egingo ditu⁹¹².

Erligioso eta eskuindarren hilketak zein Badajozeko albisteak mundura zabaltzen ari zirela, abuztuaren 29an Edenek, barne-politikan sartu gabe, dei egiten die bi aldeei gerra humanizatzeko eta masa-hilketak alde batera usteko. Ez dirudi dei honek oihartzun handirik izan zuenik. Hasteko, Irun erortzean, Guadalupera seguruago egongo zirelakoan ekarri zituzten: Honorio Maura, Antonio Elosegui eta Joaquín Beunza hil zituzten irailaren 4ko arratsaldean Guadalupeko komandanteak, Pedro Santillanek alde egin ostean⁹¹³. Prentsa frantsesean sekulako garrantzia izan zuten ekintzok. Nazionalak gainontzeko sarraskien egin bezala asko exageratu ziren. Errepublikarren aldeko erretorika baten baitan egindako azterketan, Koestlerrek argi adierazten digu kasuaren analisia. Hasierako lintxamendu eta eliza erreketak onartzen baditu ere, gobernuak kontrola hartu zuenetik presoek tortura eta zibilen aurkako erailketa sistematikoa *Lies- all of it* direla dio. Guadalupeko kasua aztertzean, *of all these stories of the*

⁹⁰⁸ CDBG KEW 1: FO 371/ 212290 W8936 Lizasok Mounseyekin bilera

⁹⁰⁹ CDBG 7 FO 371/ 21291

⁹¹⁰ *Morning Post* (1936-11-18) Canterburiko artzapezpikua, Upsalako artzapezpikua, Dr. Eidem, eskoziako elizako liderra eta biltzarreko moderatzaile lanetan aritu zen, Dr. Lamont eta Federal Council of the Evangelical Free Church. Rev. Aubrey. Frantziako protestanteen federazioko lehendakaria, Dr. Boegner ere bertan izan zen

⁹¹¹ *Frente Popular* (1936-08-02)

⁹¹² Barruso (1996), 160-162 Barruso, (2004)

⁹¹³ Barruso (2019) Aurreneko bi biktimak abuztuaren 25ean Antonio Escales (CEDA, Irún) eta Mariano Alfaro (JAPekoa.) Irailaren 5an beste bost. CEDAko Carlos Abia, Joaquín Solbes, aduanako zaindari eskuindarra, José Alexandre eta Irungo zinegotzi tradizionalista, Jesús Ayestaran

maltreatment of hostages the most impressive was that foisted on the world in the early days of September, 1936: the famous myth of the hostages in Fort Guadalupe during the Siege of Irun. 170 hildako egon zirela esateraino heldu zen prentsa. Ez dirudi Ingalaterran halako garrantzirik izan zuenik eztabaidak berandu arte⁹¹⁴.

Koestlerrek dioen antzera hilketa sistematikoekin bukatu egingo da, edo asko gutxituko dira behintzat. Ez dira haatik sarraskiak bukatuko. Euskal Gobernuak osatu aurretik Altuna-Mendi eta Cabo Quilates presondegietan gertatutako ankerkeriak aipatu behar dira. Biak ala biak, Bilboren bonbardaketan ostean izan ziren. Irailaren 25ean, Altuna Mendin 29 preso hil zituzten eta 35 Cabo Quilatesen. Urriaren 2an, ontzian zeuden beste 47 hilko zituzten *Jaime Iko* marinelek. Halere, larriena urtarrilaren 4an Larrinagako espetxean izan zena da, 224 hildakorekin.⁹¹⁵ Prentsan ingelesean hilketa hauen aipamenak egon badaude ere, ez dira espero bezain bestekoak izango eta ez dira oso zehatzak. Errefuxiatu batzuk adieraziko dutenez, Euskaldunon eta gorrien arteko errebolta batek 204 pertsona hilko direla ziurtatuko eta Euskal agintariek gertukoek onartuko ez baduten arren, Agirrerri dimisioa aurkeztera eraman zion. Beste berri batzuen arabera, Euskal Gobernuak onartu omen zuen zibilek lau pertsona exekutatu zituztela matxinada baten ostean⁹¹⁶.

*Catholic Herald*en, Merry de Valek goian aipatutako gehiegikerietako bati erreferentzia eginez, ontzi batean 200 pertsona erail dituztela salatuko du. Espero du ez direla *faltsuki* Francori sarraskiak egitea egozten dieten *self-styled Basques Republic minions* izan. Gorriek militarki gainditu dielako jazo dela uste du. Ramon Sota gazteak artikulua erantzuteko prest aurkeztuko bada ere, ez dirudi Euskaldunon partetik erantzunik argitaratuko denik magazin katolikoan⁹¹⁷.

Halako gertaerak izan baziren ere, Euskal Gobernuak presoan egoera hobetzeko saiakerak egin zituen. Adibidez, Euskadiko tribunala eratu zuen garantzia judizialak betetzeko. Gainera, presoan trukaketak ahalbidetzeko nahi argia zuen. Noski, guzti hori lau haizetara zabalduko zuten. Batik bat, trukaketak Francoren gobernuaren erruz aurrera eraman ez zirenean⁹¹⁸.

Euskal lurraldeetan errepublikarren sarraskiak horiek izan baziren, Gipuzkoan nazionalak egindakoak ez ziren atzean geratu. Uztail bukaeran Beasainen hasitako fusilamenduak jarraipena izan zuten, batik bat, irail bukaeratik aurrera. Hernanin eta Bidasoako harrobietan ehundaka izan ziren fusilatua⁹¹⁹. Gerraren lehen zatiko fusilatzeak oso era orokorrean zabalduko ziren. Apaizen eta pertsonalitate garrantzitsuen kasuak eszepzioak izango ziren, nahiz eta goian ikusi bezala klerikoen hilketen lehen berriak oso lausoak izan. Eraikitez gain, 1937 hasieran emakume eta presoekiko tratu txarrak dituztela eta hurrengo notizia zabalduko du. *Daily Herald*ek: *300 women ill-treated at Ondarreta* ⁹²⁰. Presoan daudenez gain, Bizkaita kanporatzen berri emango da.

1937ko apirilean, Mimosaren bidez, Londonen *sobre expulsiones de familias* ingelesez ilustratutako esku-orriak jasoko dituzte. Otsail hasieran, familiakide bat Errepublikarren aldean borrokan zegoelako makina bat pertsona egotzi zituzten. Agirrek Del Vayori 500 pertsona

⁹¹⁴ Koestler (1937), 133-4 ikusi, Irujo eta Merry del Valen polemika laneko 9. atalean 169-170

⁹¹⁵ Azcona eta Lezamiz (2012)

⁹¹⁶ *Birmingham Gazette* (1937-01-12) (1937-01-13)

⁹¹⁷ *The Catholic Herald* (1937-01-08) EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Paris. Se:Secretaria. V:50 L:332/01 Sotak Picaveari (1937-1-11) Sotak Heralden dituen kontaktuen bidez, erantzun nahi zion.

⁹¹⁸ Anasagasti eta Junod (2012); Leizaola (1938)

⁹¹⁹ Barruso (2005); Aizpuru *et al.* (2009)

⁹²⁰ *Daily Herald* (1937-02-11)

egotzi dituztenez, kantzilerietan kexatzeko eskatzen dio. Kexa diplomatikoaz gain, euskaldunok aipatutako esku-orria kazetarien artean banatu eta 1937ko maiatz hasieran hainbat egunkaritan aipatuko dute gertakaria⁹²¹.



Ir.22 Josefa Berridi erdian EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:100 L:282/04

Emakume eta umeen sufrimenduaren erabilera handiena baina, bonbardaketen harira izango da. Durango eta Gernikako bonbardaketetan eta ebakuaziorako laguntza eskatzen den guztietan, pertsona zaurgarri hauek jasotzen ari diren tratu gizagabea azpimarratzen da. *Euzko-Deyak* Durangoko bonbardaketan 130 hildako egon zirela zehazten du hasieran batean. Ia denak zibilak omen ziren. Emakume, ume, pertsona zahar eta apaizak, hau da, talde zaurgarrienak. Bonbardaketen harira, Euskal komunikatuak hurrengo terminotan idazten ziren: *The German Air Force (...) bombs and machine gunning the civil population who threatened with death are forced to flee to the fields. There are many victims, especially among the women and children*⁹²². Helburu militarrek baino gerra modernoa muturreko puntu bateraino eramaten ari zirenez, apropos populazio zibila akabatzen ari zirela esan nahi zen. Errepublikak ere estrategia berdina erabiliko zuten. *como Guernica, cuna de la cultura vasca y tumba para centenaes de mujeres y niños*⁹²³.

Bizkaiko ofentsiba bukatuta, euskal lurraldea baketu gabe zegoela adierazi nahiko du Euskal Gobernuak. *No peace without tolerance* Populazio zibila ez badute hiltzen, kartzelan sartu edota lan esklabua egitera behartzen ari ziren ez zutelako nazionalak bezala Espainia irudikatzen. Horregatik erabat jazarrita aurkitzen da euskal gizartea. Ez diete, haien kultura espresatzen utziko. Bando nazionalak euskaraz meza ematea eragotziko zuten, *Basque prayers ban*. Beste artikulua batean, Mundakan euskal kaleen izendegia aldatu zela salatuko da eta parlamenturaino helduok da euskararen galarazpena. Cocks laboristak Edeni itaunduko dio honen inguruan

⁹²¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londrees, Se:Lizaso V:500 249/01; EAH.EG.S:Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París) Secretaría V:150 L:800/06; CDMH-1531 aipamenak Onanidia (1973), 280 197ko otsailak 9 Azkoitiatik 6 emakume eta 9 ume. Otsailak 10, Elgoibartik 7 emakume eta 8 ume Eibarra bidali. Otsailak 11 elgoibartik 21 eta zestoatik 11 ume eta emakume espultsatu eta otsailaren 13an 153 pertsona bidali zituzten Lekeitiora. 109 Ondarroatik, 5 Azpeititik, 2 Zestoatik, 3 Debatik, donostiar bat eta elgoibartar bat eta 32 Azkoitiar. Espultsatutakoaren artean, 97 urteko Agustina Berridi ondarroarra zegoen.

⁹²² *Euzko-Deya, Paris* (1937-04-04) *Manchester Guardian* (1937-05-02) *The Times* (1937-03-30)

⁹²³ Ramos (1937)

1937ko uztailean. Lizasok dionez, euskal propagandari eskerrak, galarazpenak lasaitu egin beharko dituzte⁹²⁴.

Salaketa hauekin egoera humanizatzeaz gain, nazionalak munstro suntsitzaile gupidagabe batzuk bezala irudikatu nahi dira. Hala, demokraziez horren ezberdin den totalitarismoak zein besteko desgrazia eragin ditzaken aditzera emanez. Jazarpenen narratiba honetan, Santoñako paktuak garrantzia handia izango du. Paktuaren arabera, euskal gudarien buruzagiei exiliatzen utzi eta osteak jazarri gabe geratu behar lirake. Gainera, ezin zituzten armada nazionalen engaiatu soldaduak. Paktua, Italiarrek, zeinentzat baldintza gabe errenditu ziren, nazionalen presioz ez zuten bete. Britainiar parlamentura helduko zen Santoñako auzia. Atholleko dukesaren hitzak ederki erakusten dute euskaldunok erabilitako diskurtsua *Another violation of the laws of the war was the repudiation, already referred to of the terms on which the Basques surrendered at Santoña. This has led to the execution of some hundreds, and the imprisonment of thousands.* 1938rako, Atholleko dukesak, Euskal Gobernuak eskainitako datuak erabiliz, 60.000 preso, 50.000 pertsona jazarpen ezberdinak pairatzen eta 13,853 exekutatu zihoazela aipatzen du. Ironikoki, errepublikarren propagandak ere erabiliko zuen paktua eta Santoñako presoen heriotza bere helburu propagandistikoetan Erresuma Batuan. *Spain at War*reko lehendabiziko zenbakian *Extermination of the Basques* titulupean hala diote⁹²⁵:

It is not our intention to dwell upon atrocities. But we would draw attention to the rebel idea of "honour" and what may be called the rules of war. When Bilbao surrendered, terms were made, (...) One clause provided that the leaders of this group should be given their freedom. Many of them have been executed after a mock trial. (...), Hierro of Bilbao of December 22nd has given, under the heading of "Sentences carried out" and with the note "In fulfillment of sentences passed by Tribunals, the following condemned persons have been executed by garroting" a list, of which we can provide any reader with a copy, containing eighty names of men and the names of three women. The latter were shot

Errepublikarrek aipatzen duten notizia, El Duesotik Bilbora pasa zituzten presoek buruzkoa da. Abenduan ez ezik, 1938an zehar erailketak jarraitu egin zuten. Azkarrago edo geldoago, nazionalak ez zioten fusilatzeari inoiz utzi⁹²⁶. 1938ko martxoaren 10-12 bitartean beste 61 preso erailak izan zirela salatuko zuen Lizasok Londonen, tartean hiru emakume. Interesgarria da emakumeak hiltzean enfasia egiten dela: *Franco murders women. Senora de Merino, a leading member of the Republican Women's Association, Irun. Senora Berta Pena Parra, a married woman who leaves five-children and Senora Adelaide Fernandez Perez, a widow who leaves six children*⁹²⁷.

Heriotzok ekiditeko propaganda kanpaina ezberdinak egin ziren. Adibidez, 1938ko urtarrilean, Euskal Gobernuaren garaian izandako sarraski baten urteurrena zetorrela eta presoen itxurazko matxinada bat asmatu, *a mock rising* eta aitzakiarekin Santoñatik Bilbora ekarritako hainbat preso exekutatu nahi omen zituzten urtarril hartan. Atholleko dukeari egindako gestio batzuei

⁹²⁴ *Euzko-Deya*, London (1938-12-9); *Daily Herald* (1938-01-12) *Basque Prayer Ban. All use of the Basque language even for prayers and sermons and of Basque national costume has been prohibited by General Franco. The ban, Senor Lizaso, London delegate of the Basque Government, states, is complete and the penalties are severe.* EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:275 L:297/04; *The Times* (1937-07-13) Cockseri euskaldunek *Diario Vasco* (1937-04-16) Alfonso Valverdek Donostiako gobernadore militarrek euskaraz aritzeko galarazpena pasako diote

⁹²⁵ Atholl (1938), 214 eta 253; EAH.SA.Se:Delegacion de Londres. L:9/910 Lizasok Agirrerri (1938-04-05) Arthur Sinclairrek Santoñaren gaia atera zuen parlemantuan; *Spain at War* (1938-01-22)

⁹²⁶ Anderson (2012) Fusilamenduak ez geratzeko arrazoi nagusietako bat armistizio orokor bat saihestea zen.

Errepublika militarri erabat konkistatu nahi zuen, inongo bake-negoziatarik erabili gabe

⁹²⁷ *Daily Worker* (1938-03-28) *Many of the others were among the Basque Government officials Army officers and political leaders who, together with 25.000 Basque soldiers, placed themselves in the hands of the invading forces at Santona to avoid further bloodshed and reprisals against the civil population. An undertaking had been given to them that they would be allowed to leave the country. This undertaking was completely violated*

eskerrak, Lucio Arteché, Alejo Arataza eta Jose Rezolaren heriotzak gerarazi zirela ere zabalduko zuten egunkarietan⁹²⁸.

Santoñako paktua ez betetzeaz eta erailketez gain, hauei eskainitako tratuak, Kataluniako frontean nazionalekin *made to fight* eta kartzelako pilaketak *seven in each cell*, osatuko zuten propagandaren zati handi bat⁹²⁹. Kontuan izan behar da, etengabe trukaketa orokor bat bilatuko dutela euskal agintariak preso hauekin eta nazioarteko presio handia mantenduko dute ahalik eta exekuzio gehien prebenitu eta baita populazio zibilarekiko tratua txarra izan ez zedin. Horregatik, euskal lurraldeetan izandako bestelako errepresioa motak ere adieraziko ziren. Besteak beste, 1937ko azaroan, Lovellek Ramon Sota Aburtuk eskuratuta informazio bat *The Daily Telegraph and Morning Post* kontserbadorean txertatuko du. Helburua presoak esklabo bezala ez erabiltzeko saiakera da. K.S. Robson kazetariak *Shortage of workers* titulupean minetako lanetan lehen gizon zahar eta umeak erabiltzen ari baziren, orain presoak erabiltzen zirela salatzen du⁹³⁰.

Presoen egoera, erailketak eta abusuak buruz, bi modutara emango da. Kasu oso konkretuak aipatuz eta horiek erabiliz osatutako estatistika zehatzen bidez. Londoneko *Euzko-Deyan* lehendabizi eta ondoren *Special notes* batzuen bidez adieraziko dira. Boletina eta notak, pertsonaia garrantzitsu (kazetari, diplomatiko eta politikoa) zehatz batzuei bidaliko zaizkie. Bietan, Baionako zerbitzuek hornitutako informazioz beteko dira. Euskal lurraldean alemaniarrek eskuratzen ari ziren ezarpena du hizpide gai nagusi. Hala, alemaniarrek eskuratzen ari diren mineralak presoen lan esklabuaz probestuz egiten direla salatuko du adibidez: *Basque as slaves in African colonies*, Kritika politikoaz gain, *Euzko-Deyan*, errepresio kasu oso konkretuak salatuko dira. Benetako informazio xehea ematen saiatuko dira. Adibidez, 1938ko irailean esan bezala, eta betiere *Euzko-Deyaren* arabera, 30.000 pertsona zeuden preso. Beste hainbeste kontzentrazio esparruetan zeuden eta 120.000 pertsona erbestean. 50.000 pertsonaren aurka haien eskubide zibilak urratzen zituzten kausak irekiak zeuden. Jazarritako asko erlijiosoak ziren. 250 Nanclares de la Oca, Burgos eta Donostian zeuden eta beste 350 apaiz erbestean kanporatuak zituzten. Bizirik zeudenez gain, 13.853 exekutatu zihozen dagoeneko, gehienbat frontierik izan ez zen Nafarroa eta Araban⁹³¹.

Zuzengabeko zuzentza honen aurrean, oso bestelako jokabidea erakutsi zuen Euskal Gobernuak, haren propagandaren aburuz behintzat. Chetwoderen truke-batzordea abian jartzean, presoen sufrikario arintzeko nahia berretsi zuten. Euskaldunek Frankisten konkistan gerturatzean Larrinagan zein El Dueson aske utzi zituzten preso guztia. *Generous behaviour (...) not reciprocated by the rebels*⁹³².

Azken kasu bezala aztertzeko, 1937ko urri bukaeran, Londonen Jose Inazio Lizasok aliatu zituen parlamentariak, (Leah Manning, Katherine Murray-Atholl, Eleanor Rathbone, Wilfrid Robers eta Henderson Steward) eta prentsara igorritako komunikatu bat interesatzen zaigu.

⁹²⁸ *Manchester Guardian* eta *Daily Herald* (1938-01-03) *Manchester Guardian* (1938-01-29))

⁹²⁹ CDMH- INCORPORADOS 1486 Delaprok Ducalbari (1937-08-27) 35.000 *prisioneros hechos los últimos 3 días. 17 batallones con abundante material de guerra; Euzko-Deya. London* (1938-10-31)

⁹³⁰ *Daily Telegraph and The Morning Post* (1937-11-25) EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:500 L:214/01 Ramon Sotak Aburtok Lizasori (193-11-18) Errusiak ezartzerakoan mundua sumindu egin zen *ante tamaña monstruosidad*. Antzeko jazoera euskal lurraldean ekiditeko kanpaina bat hasteko gomendatzen du.

⁹³¹ *Euzko-Deya London* (1938-09-11) (1938-09-20)

⁹³² *Ibid.*

Notiziak nola zabaltzen ziren eta errebeldeek nola erantzuten zuten argi adierazten baitigu. Aipatutako oharrean, 30.000 zibil preso daudela esateaz gain⁹³³:

war in our country has not finished but is now directed towards unarmed and defenseless men and women and their children. Twenty-seven of the Basques women who were recently repatriated from France to San Sebastian to be near their relations in prison, following assurances of personal safety were immediately imprisoned at an improvised goat at San Sebastian Kursaal, and were executed without trial on October 18.

Manchester Guardianek ez ezik, Daily Herald-ek War on Women eta News Chronicle-ek Franco Massacre of Women izenburuak erabili zituzten berriaren berri emateko. Auzi hau baina, ez zen Erresuma Batuan hasi, Frantzia baizik. 1937ko urriaren 29ean Parti Républicain, Radical et Radical-Socialiste partiduaren kontrolpean zegoen La République kazetak Donostiako Kursaalean, Urriaren 18ean, hamaika emakume fusilatu zirela argitaratu baitzuen. Hori gutxi ez eta, bi egunetara, betiere artikularen hitzetan, hilaren 21ean, beste hogeita zazpi emakume erail zituzten nazionalistek Gipuzkoako atzeguardian. Orotara, ia berrogei emakumeren heriotzaren berri ematen digu. Exekutatzeko arrazoia: espioitza delitua. Pierre Dominiquek, berriaren autoreak, argi eta garbi adierazten du zelatariak baino, Frantziak kanporatu eta Kataluniatik sartzeko aukera izan arren Irundik etxera bueltan zetozen emakumeak zirela. Guztiak, gainera, Errepublikar armadan dituzten senitartekoak.

Zehazki, urriaren 26an Agence Espagnek Euzko-Deyako Hendaiako ofizinek helarazitako informaziotik eskaintako notizia izango da: *Vingt-sept femmes espagnoles qui avaient librement choisi d'être rapatriées par la frontière d'Irun, viennent d'être fusillées par les rebelles.* Estatu Batuetaraino zabalduko du United Pressek Arthur Herrison Larochek idatzitako notizia⁹³⁴.

Informazio Euzko-Deyak eman bazuen, euskal autoritateen eskutik eratorritako informazioa izan behar eta hala zen. Lizasorentzat sarraskiaren iturria Jose Maria Lasarte, Baionako Villa Mimosan egoitza zuten Euskal Zerbitzu Sekretuen burua zen. Urriaren 28an idatzi zion Lasartek Lizasori telefonoz esandako hilketen gertaera berretsiz eta honek aipatutako parlamentari-errei pasa zien informazioa⁹³⁵. Lasartek telefonoz Baionako zerbitzuek argitaratzen zuten buletinetan apuntatuta geratu zena pasako zion⁹³⁶.



Ir.23 La République (1937-10-29)

⁹³³ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L.245/01; Manchester Guardian; Daily Herald, Wester Mail; Dundee Courier, Belfast Telegraph, News chronicle (1937-10-30)

⁹³⁴ La République (1937-10-29); Emakumeak egotzi ziren testuingurua: Barruso (1999), 122; Agence Espagne (1937-10-26 eta 30) Euzko-Deya, Paris (1937-10-31) Daily Worker (1937-10-28) 38 Spanish women recently repatriated to Fascist territory have been shot by the insurgents, says the Basque news-papers, Euzko-Deya, published in Paris. 27 of the women had taken refuge in France. Following the recent French Government order for the repatriation of Spanish refugee, they asked to be returned to Fascist territory. They were shot immediately on arrival. The other 11 returned some time ago were detained in the Kursaal jail, San Sebastian, before execution. The Knoxville news sentinal, (1937-10-27); Harrison La Roche Southworth (2013), 406 Arthur Herisson Laroche dela Harrison La Roche

⁹³⁵ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L.249/01 Lasartek Lizasori (1937-10-28)

⁹³⁶ Boletín de información, 7 (1937-10-31)

El trato a las mujeres refugiadas que vuelven a la zona rebelde.

A las mujeres refugiadas en Francia que, a consecuencia de la medida adoptada por el Gobierno Francés de cerrar los refugios que sostenía, han pasado a la zona rebelde, se las recibe de manera como, sin duda, ellas no podían esperar.

Empiezan por despojarles del dinero que llevan al pasar la frontera. A una pobre mujer que entraba con cuatro hijos y que llevaba 14 pesetas se las quitaron.

Muchas de ellas pasan a ser detenidas para lo que se han habilitado los bajos del Kursaal y el viejo frontón de Atocha, y algunas han sido fusiladas. Nuestras informaciones aseguran que son 27 las mujeres que, hasta ahora, han sido fusiladas.

Ir.24 Boletín de información (1937-10-31)

Apunte horiek, 1937ko abuztutik ardaizten hari zen Araba sareak pasatakoak dira eta Emakume hauek Atotxako frontoi zaharrean egon ziren informazioa ziurrenik Itziar Mugikak eman zuen. 1937ko irailean hasi zen sarearekin kolaboratzen eta Gipuzkoako agente garrantzitsuenetarikoak bilakatu zen, *Shalus*. Bere laneko eginkizunak zirela eta, 1937-1938 artean muga zeharkatzeko pasaportea zuen. Hortaz, Donostia-Baiona kotxez egiteko arazorik ez. Gainera, frontoi horren pare-parean bizi zen⁹³⁷.

Gure iritziz ez da benetako gertaera bat. Egia da Euskal Gobernuak barne txostenetan benetan jazo zela esaten duten dokumentuak badaudela. Baina ez dugu fusilatutakoen izen zerrendarik aurkitu eta halako sarraski handi bat eman bazen, ez dirudi logikoa muturreraino esplotatu ez izana⁹³⁸. Halere, momentu interesgarri batean gertatzen da emakumeen hilketa akusazioa. Santoñan lehendabiziko 15 preso hil berri zituzten nazionalak eta gainera Erresuma Batuan euskal umeen aberriratzeko prozesua errealitate bat bilakatzen ari zen. Sekulako presioak zituen BCC eta euskal delegaritzak umeak Espainiara bidaltzeko. Frantziak egotzitako emakume babesgabeak hiltzen zirela jakiteak, Euzkadi baketu gabe zegoela ematen zuen aditzera umeak salbu ez zeudela adieraziz. Hortaz, gure iritziz, kontrakoa ebidentziarik bilatu ezean kutsu propagandistikoak dituen notizia faltsua da.

Faltsua izan edo ez garaian interesa piztu zuen. Jean Herbertte, garai hartan Frantziako enbaxadore izateari uztear zenak, Frantziako Atzerri Ministerioko artxiboetako txosten baten arabera, Bilboko Ingalaterrako kontsula izandako Ralph Stevensoni 27 emakumeren hilketari buruz berri emateko eskatu zion. Nazionalak Albako dukeari irmoki gezurtatzeko eskatzen diote urriaren 31ko adierazpen baten bidez⁹³⁹. Prentsa delegaritza eta Ingalaterrako nazionalen zerbitzu arteko telegrametan, Gernikako bonbardeotik ez zen notizia baten aurrean halako premiarik nabari:

Importante nota oficial salamanca 31 hase facilitado a publicidad siguiente nota el portavoz oficial del estado español ha tenido conocimiento de las declaraciones aparecidas en parte de la prensa inglesa y hechas por el llamado representante en Londres del gobierno vasco en ellas habla del fusilamiento de mujeres repatriados en la zona nacional de la existencia de 30.000 en las cárceles de Santona y Laredo de seiscientas sentencias de muerte en esas dos poblaciones del norte y del encarcelamiento de dos mil sacerdotes el portavoz oficial del estado español no se cree obligado a rectificación alguna de manifestaciones hechas por quien dice representar una institución inexistente primera y esencial falsedad que quita toda autoridad al autor de ellas no obstante su aparición en algunos diarios le hace elevar su voz para desmentirlas rotundamente y categóricamente y también para mostrar su extrañeza porque periódicos de solvencia reconocida acojan en sus columnas semejantes inatranas.

⁹³⁷Sabino Arana Fundazio (2019), 128 Notizia egia izatekotan, presondegi berri baten berria ere izango zen.

⁹³⁸AGMAV, 70, 9, 2, 12 Kursaaan 27 emakume hil zituztela baieztatzen du, halere, *no está confirmada en cuenta a nombres*

⁹³⁹Jimenez (2009b), 215; CDMH Incorporados Delpro Albari (1937-10-31)

New Statesman and Nationen Lizasok egindako alegazioen aurkako idatzi bat azaldu zen berehala. Horregatik, Atholleko dukesak berria baieztatzeko eskatu eta hala egingo du azaroaren 8an Lizasok. Nazionalen aldeko Arnold Wilsoni idatziz, Rathbonek ere hartu zuen parte gertakari honen inguruko egia argitzeko. Carrasco Formiguraren atxiloketa eta Santoñako 14 heriotzez kezu agertu ostean jazarpena geratzeko laguntza eskatzen dio⁹⁴⁰:

The prisons are inadequate. All kinds of building are being used as prisons. More than 35000 souls are detained. Assassinations are perpetrated in hundreds. They are not now only confined to men and priest but women are also victims (...) On the 18th October, 27 women were taken out of the Kursaal at San Sebastian and were killed. What makes situation even graver is that these women formed part of an expedition of refugees transferred to Basque territory under Franco's rule by order of the French Government, as most of them have their families there, several of them imprisoned.

Wilsonen Albari informazio eskatuta berehala erantzungo dio. Gezurra dela eta, Lizasoren salaketak ez bezala, prentsak ez dituela goian aipatu berri ditugun bere adierazpenak publikatuz erantzungo dio:

The second series of allegations, though Miss Rathbone chooses to make them anonymous, are word for word those of a certain Señor Lizaso, who, calling himself the Representative in London of the Basque government, recently make identical accusations in the London Press. I immediately sent an official communication from Salamanca to all the Agencies of the London Press, categorically, denying the truth of these allegations. In no newspaper was my denial given the courtesy of publication. In addition to this Spanish Press Service reproduced my denial in their pamphlet of November 1st. Though this was received by the whole of the London Press it met with the same fate as mine. I would add that Señor Lizaso, who calls himself the Representative in London of the Basque government, is apparently the Representative of an institution which does not exist and has never had any legal existence. (...) does not preclude (Rathbone) the possibility that his article is a propagandistic article.

1937ko abenduan, Rathbonek Donostian bere ordezkariak egiten ibili zen apaiz batek igorritako informazio konfidentzialki pasako dio. Kasu honetan, Donostian azken lau hilabeteetan bi pertsona besterik ez dira fusilatu eta Kurusaalean kartzelak ez, barrakoiak daudela ziurtatu omen diote apaizari. Lizasoren erantzuna da gai honen inguruan aurkitu dugun azken dokumentua. Apaizak esandakoa gezurtatu eta Kurusaala kartzela dela esateaz gain, beste iturri batzuen bidez eskuratutako informazioarekin hasieran egindako salaketak berresten ditu⁹⁴¹. Hor bukatzen da polemika, edo guk behintzat ez dugu aipamen gehiagorik aurkitu.

Propaganda ikuspuntutik benetan interesgarria da kasua. Euskal Gobernuaren adierazpenei egiazkotasun maila altua ematen baitzaie, ez aldiz Salamancakoei. Harritzekoa da Albak igorritako adierazpena ez duela prentsan inork publikatu, edo hobeto esanda prentsa katolikoak bakarrik argitaratuko du ukapenaren nota *Spanish Press Serviceko* O'Neillen informazioari kasu eginez. Egun berean, *the representative of an institution which does not exist*-ek egindako beste deklarazioak, hau da Lizasok, gezurra direla esanaz. Kasu honetan, 2.000 apaiza desagertu eta 600 Euskal Gobernuko funtzionario heriotza-zigorra jaso dutela ere gezurtatzen du⁹⁴².

⁹⁴⁰ AGA 54/6929 Rathbone Wilson (1937-11-01) Alba Wilson (1937-11-04)

⁹⁴¹ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:300 L:245/01 Lizaso eta Rathbone korrespondentzia

⁹⁴² *Catholic Herald* (1937-11-05) (...) have spread abroad another batch of Franco atrocities. (...) in the *Manchester Guardian* and vouched for in the *New Statesman* by the "Christian Foodship Committee," (...): "Two groups totalling 38 Spanish women, recently repatriated to rebel territory, have been shot by the insurgents. The larger group, 27 in number, had taken refuge in France, and following the recent French Government order for the repatriation of Spanish refugees, had elected to return to rebel territory. The other 11 had also returned there not long ago and were detained in the Kursaal Prison at San Sebastian before being shot. Not the first time drawing the attention of Mr. H. C. O'Neill, of Spanish Press Services, to the report, the *Catholic Herald* was informed that the report emanated from Euzko-Deya, a Basque paper published in Paris. (...) similar accusation emanated from this source and was published in the *News Chronicle*. On that occasion sufficient detail was given to enable the information to be

Euskal propagandak zibil eta presoek pairatutako gehiegikeriak propagandan zabal erabili zituzten. Erakunde eta arraza zibilizatu bezala, Euskal Gobernuak beti saiatzen omen zen talde zaugarri hauek zaindu eta babesten. Gutxieneko tratu humanoak ematen zitzaizkion eta gerra gizalegetasunaren barnean ematen saiatzen ziren. Beste aldeak aldiz, ez zituen horiek errespetatzen. Gerra modernoa muturreraino eramanez eta basakeria handia erabiltzen zuten. Gerran ez ezik, behin konkistatutako lurraldeak indarrez zapaltzen jarraitzen zuten gainera, pertsona horiek bere zuten Euskal kulturarekin zer ikusia zuen oro deuseztatzeko asmoz. Britainiar iritziari hori ikusarazteko, euskal agintariak egiazko informazio zabalten saiatuko ziren, hau da, gutxienez iturriak erabiliz eskuratutakoak. Ondorioz, kasu oso konkretu eta eskuratutako informazioarekin sortutako estatistikak zabalduko zituzten.

20. ONDORIOAK

Lanari amaiera emateko, aurretik ezarritako helburuak aztertu eta gero etorkizunera begira jarraitzeke geratu zaizkigun ildo batzuk adieraziko ditugu. Hasieran ezarritako helburuak banan-banan aztertuko ditugu.

1. Ordezkararen lana hobeto ulertzeko Jose Inazio Lizasoren biografia labur bat taxutzea. Gerra aurretik izandako ogibidea eta ideologia garrantzitsuak baitira bere Londonen eginikoa hobeto ulertzeko.

Lizasoren biografiari dagokionez, nahiz eta bere osotasunean idatzi dugun, gehienbat Errepublika eta Gerra Zibileko urteak sakondu ditugu. Bere gaztaro eta nerabezaroa, eta bere familiaren inguruko berririk ez dugu apenas. Donostiako alde zaharrean bizi zirela besterik ez. Bigarren Mundu Gerratik aurrerako denbora ere ez dugu oso sakon aztertu, nahiz eta bere ogibide eta EBBrekin 60 eta 70. hamarkadan izan zituen ezadostasunak eta bere pentsamendu politikoa azaldu. Jelistak zen. Katoliko eta kontserbadorea. Hitz larritan jarrita, demokristau. Europa federal batean bete-bete sinisten zuena. Betiere, Europa horrek euskal jendarteari behar zuen autonomia eta askatasuna eskaintzen bazion, noski. Jomuga hori eskuratzeko aldera, nahiko pragmatista azaltzen da bizi osoan zehar. Errepublikan estatutuaren alde agertzen den bezala, frankismoan zehar konfederazio federal batez gain, Euzkadiri askatasun partziala eskaini zekiokkeen ia-edozein sistema onartzeko prest zegoen, izan monarkia liberala edo errepublika berri bat.

Bere bizimoduari dagokionez, nerabezaroan, britainiar uharteetan ikasketak egin ostean, *sportman* bat bilakatuko da, batik bat futbola gustuko zuena. *El Dia* sortu berriari kazetari jardun eta segidan GBBk bere mezua zabaltzeko sortuko duen Gipuzkoa Idazkaritzan lan egitera pasaz. Lizaso izango da idazkaritzaren sortzaile eta hiruzpalau urtez arituko da bertan. Antolatutako jardueren artean, 1933ko Aberri Eguna, *Euzkadi-Europa*, eta estatutuaren alde eginda kanpaina goraiatu behar ditugu. 1935ko martxoan idazkaritza utzi eta gerlak *Banco Guipuzcoanon* lanean dela harrapatuko du Lizaso. Kulturgintza ere nabarmenduko da garai honetan. Euzko Pizkundeko liburuzain izateaz gain, Errepublikan zehar Euzko Gaztediko lokaletan euskal historia eta kultura nazionalismoaren ikuspuntutik gazteleraz zabaltzen zituen Erdel Batzarra sortuko du horretarako, Euskal Batzarra ihakindatuz. Euskal kulturaren gaztetan erakutsitako grina bizi osoan mantenduko du.

Lizasoren biografia orokorra osatu dugun arren, oraindik, bere familia eta gaztaroaren berri gehiago eskura daitezkeela uste dugu. Bigarren Mundu Gerratik aurrera izandako kontaktu

politikoak ere, ez ditugu horrenbeste sakondu. 1947 arte oso aktibo aritu zen Agirre eta Iruixoren esanetara Errepublikaren estrukturan lanean, eta behin Londoneko delegaritzaz utzita. Londonen Gerra Zibiletik aurrera ereindako sarea behin baino gehiagotan erabiliko zuen Euskal Gobernuaren politikei laguntzeko 1950 eta 1960. hamarkadetan. Egiteke geratu den azterketa bat da hau.

2. Londoneko, euskal delegaritzaren lehendabiziko urteak hobeto ezagutu. Haren sorreraren nondik norakoak zehaztu eta Espainiako gerran zehar izandako iniziatiba eta harreman diplomatiko eta paradiplomatiakoak aztertzea.

Lanean zehar delegaritzaren inguruko sorrera zehaztuta gelditu da. Ingalaterran sartzeko arazoak gaindituta, Espainiar enbaxadan ezarriko da 1936ko abendu bukaeran eta bertan izango dira 1938ko urri arte. Ondoren, 14 Eccleston Squareko ofizinetara pasaz. Lizasoz gain, Espainiako Gerran zehar ordezkartzen lana egin zutenak identifikatu ditugu. 1937ko ekainean helduko da Angel Gondra idazkari lanak egiteko. Ramon Sota 1938ko martxo-abuztu bitartean izan zen propaganda lanetan laguntzen eta 1938ko urritik aurrera izango da delegaritzan Aurora Unzueta takimekanografista.

Lehendabiziko hilabeteetan kontaktuak egiten aritu ostean, martxoko ofentsibak zirkulu politikoetan nabaritasuna eskainiko dio Lizasori. FOarekin lehen kontaktuak 1937ko maiatzean helduko dira, eta 1938-39. urtean zehar Lizasok Errepublikarren barneko tentsioei buruzko notiziak, eta batik bat, alemaniarrek nazionalak kontrolatutako euskal lurraldeetan ezartzen ari ziren influentziaren gaineko notak pasaz harreman zuzena eskuratu zuen funtzionario britainiarrekin. Zirkulu diplomatikoetan kontuan hartuko zuten pertsona bilakatuko da. Britainiarrak Francoren karta jokatzeko ari baziren ere, ezin zuten, beste aukera posible berririk baztertu; are gehiago, informazioa ia dohainik eman eta pertsonalki gustukoena zuten agente politikoa bazen. Hortaz, nazioarteko eta Britainiar barne politikara egokitu eta eskema ezberdinak proposatuko dizkie.

Proposamen horiekin, Lizaso Britainiar Gobernuarekin bake negoziaketak antola zituzan saiatuko da. Xede horrekin, 1938ko ekainean, 1938ko abenduan, baita 1939ko otsailean ere hainbat bake-eskema aurkeztuko dituelarik. Euskaldunon zoritxarrerako proiektuak aurkeztu zirenerako egina zuten erabaki estrategiko garrantzitsua britainiar autoritateek: Libraren indarra erabiliz Francoren neutraltasuna erosiko zutelara hain zuzen ere. Beraz, euskaldunon saiakerak saiakera, beste gobernu batzuk (Italia edo Alemania) eta batik bat, nazionalak ez bazuten bakea sinatzeko asmorik, Whitehalletik ez zuten halako konferentzia edo eskemarik babestuko.

Eman ez ziren bake hizketaldietan, euskaldunok beste agente baten gisara parte hartzea zen helburua. Potentzia demokratikoei babestuta eskari minimo batzuk (eta zergatik ez maximalista batzuk ere) segurtatzea espero zuten. Horretarako, Lizaso Erresuma Batuko masa kontserbadore (hemen barnean kokatzen dira *Liberal National Party* eta *National Labour*) eta katolikoa euskaldunon alde jartzen saiatu zen. Liberal eta laboristen zuzendaritza eta jarraitzaileak bere alde egiteko ez zuen arazo berezirik izango. Askok lagunduko zioten azken hauek, batik bat, esfortzu humanitarioan. Halere, gerrak aurrera egin ahala, ohartuko da, bere benetako helburua, Euzkadirentzat askatasun handiena ziurtatzea ez dagoela liberal eta laboralen agendan. Aldiz, kontserbadoreak hobeto ulertzen omen zituzten Lizasoren eskariak. Paradoxikoa badirudi ere, gerra amaitzerako Francori babes eskainiko zioten kontserbadore askok, are gustukoago izango zituzten euskaldunak. Gehienetan baina, maila pribatuan aitortuko zuten beren babes, eta laguntzeko egin zituzketen mugimenduak ere formatu hartara mugatuko ziren. Bazeuden salbuespenak. Nabarmenena, Vyvyan Adams izango zen. Parlamentuan ia 300 parlamentari

bildu zituzten hamazazpi afari antolatzen lagundu zion Lizasori. FOarekin ere harremanetan jarri eta prentsan euskaldunon aldeko aldarriak egin zituen, besteak beste. Sektore honetan gero eta babes gehiago izanagatik ere, ez zuen modu zuzenean inoiz lortu ez Baldwin, ez Chamberlain ezta Churchillekin biltzerik ezta hauen babesik. Areago, momentu kritikoetan publikoki indiferentzia nabarmendu zen, eta hauen laguntasuna baino gehiago etsaitasuna nagusituz. Francoren neutraltasunak abantaila gehiago zekartzan.

Katolikoek iritzia bereganatzeko kanpaina ezberdinak egin arren, hierarkiarekin sekulako talka handiak izango ditu. Gerra hasieratik, Francoren gurutzadaren alde egin eta euskaldunak kristautasuna lehenetsi beharrean, politika aukeratu zutela leporatuko zieten. 1937ko maiatzean *Basque Children Committee* parte hartuko zuen hierarkia katolikoak, baina printzipioz gerturatzeko aukera bat izan zitekeena, kontrakoa bilakatu zen. 1937ko abuzturako, lehenago ez bada, prentsa katolikoa gogor hasi zen umeen kontura Euskal Gobernuaren erasotzen. Hautentzat umeak propaganda arma bat besterik ez ziren. Benetan eraso gogorrak irakur daitezke prentsa katolikoan. Ironikoki, *The Catholic Herald* egindako erasoak kontuan, editorearekin harreman adeitsuak izango dituzte Lizasok eta Iruok 1939an. Noski prentsa eta hierarkia aurka izateak ez du inolaz ere esan nahi iritzia katolikoa kontrari zutela euskaldunak eta honen jakitun prentsa katolikoa askotan euskal nazionalistak erasotu beharrean mutu geratu edo kritika oso arinak jaurti beharra zuten. Beraien kritikak, askotan zituzten helburuentzat kaltegarriak izan baitzitezkeen⁹⁴³.

Espainiar enbaxadorekin izandako harremanari dagokionez, horiek asko aldatu ziren 1936tik 1938ra. Lizaso heldu zenean optimista azaltzen zen enbaxadako ordezkari eta langileekin batera, Ingalaterrako iritzia eta politikariak Errepublika eta Euzkadiren alde bereganatzeko zituztelakoan. Iritzia haien alde erakarri izan bazuten ere, ez zen nahikoa izan ez interbentzio politika aldatzeko. Egite honen alde, Azcarate berarekin hasieran izandako harremanak oso gertukoak izango dira, baita, Antonio Ramon Oliveriarekin ere, baina batez ere Antonio Cruz Marinekin izango du lotura handiena. Espainiar langileekin harreman estu eta adeitsuak izan arren, enbaxadako langileen bizkarrera, 1937ko maiatzetik politika alternatibo bat darama Lizasok. Bere interesak Errepublikarren interesetik oso urruti baitzeuden, eta ezkutuan bada ere, oso argi utziko dio hori Britainiar Gobernuari.

Lizasoren azpijokoa diplomazian ez ezik propagandan nabaritu da. Enbaxadan, susmatuko badute ere, ez dakite E.M. Wrightekin sinatutako kontratuaz ezta FOarekin Lizaso garatzen ari zen kontaktuez ezer. Politika bizfalok honek interes talka sortu eta harremana asko gaitzotuko da 1938ko bigarren erdialderako. *The German intervention in the Basque Country* argitalpenaren harira, enbaxadoreak enbaxadan jarraitu ahal izateko baldintza bat jarriko dio: argitaratutako guztia enbaxadako argitalpen zerbitzuek edo berak pertsonalki onetsita ostean argitaratuko beharko zen. Ondorioz, enbaxada uztea erabakiko du Lizasok. Egoera hau probestuz, etxe-enbaxada bat alokatu, eta Londonen egingo den euskal politika erabat bereiziko da orduanik aurrera. Euskaldunak eskuratuko duten influentzia politiko-propagandistikoa kontuan, 1938ko abenduan, Azcaratek Iruoren bidez berriro enbaxadara erakartzen saiatuko bada ere, euskal ordezkariak ez zitzaizkion dagoeneko interesatzen. Katalanei ere antzeko proposamena luzatzen zaie.

Atal honetan aipatutako lotura asko ezagunak badira ere, politikariekin banan-bana izandako harremanen azterketa sakonago bat eskertuko litzateke. Laboristekin, batik bat, Citrinekin izandakoak ondo aztertu ditu Buchanane, baina Atholl eta Rathbone anderearekin izandakoak

⁹⁴³ Tom Vilis (2013)

oso gaietarik aipatu izan dira. Gutxiago ezagutzen den Vyvyan Adamsekin izandako harremanak ikerketa bereiztu bat eskatzen du. Adamsekin izandako laguntasunak ahalbidetu zuen zirkulu kontserbadoreetara gerturatzea. Adams, *antiappeaser* garrantzitsu bat, Lizasoren urpeko bilakatuko da euskaldunen influentzia kontserbadoreen artean zabaltzerakoan.

Ez ditugu aztertu Lizasok eta Londonen ezarritako delegaritzak Irlandan izandako harreman diplomatiko eta egindako propaganda saiakerak. Ez da ahaztu behar Agirrek Erresuma Batua eta Irlandako ordezkari izendatu zuela abenduan. 1936ko urrian Dublina egindako bidaien ondorioz IRAko O'Donellekin euskal delegatu batzuekin, Mendialduarekin, bildu zen helduko ez ziren arma eta bolondresak Euzkadirako bidaltzeko asmotan. Egia da, George Gilmoren bidez eta 1937an zehar Ramon Labordak propaganda gira bat egin zutela herrialde hartan, baina 1937ko ekainean Lizasok *Irish Timesen* idatzitako artikulu bateko hitzak kontuan ‘*Oh! Ireland! Ireland!. What a disappointment you have been to the Basque people*, ez dirudi arrakasta handirik izan zutenik. Azken bi urteetan, panorama asko argitu da, baina sakontzeko iturri berriak geratzen direla uste dugu⁹⁴⁴.

3. Londonen Euskal Gobernuak izandako agente eta misio ezberdinak zeintzuk izan ziren zehaztu: Ogasun, merkataritza eta gizarte laguntzako sailen ordezkariak.

Lan honetan zehar, gaingiroki izan bada ere, Euskal erakundeek 1936-39 bitartean Londonen Euskal Gobernuaren interesak defendatzeko izendatu zituen hainbat agenteren berri eman dugu. Gehienbat historiatu eta aipamen labur bat egin zaie. Gure interesa ez zen hauek sakon aztertzea, baina lehendakarietako euskal delegaritzak asistentzialki eta ekonomikoki lagundu zutenek, haiei buruz zerbait jakitea garrantzizkoa iruditu zaigu.

Dagoeneko ezagutzen ziren Euskal umeak artatzeko Gizarte Laguntzak eta Kulturak izendatutako Miguel Uranga eta Pedro Atutxaren izendapenak. Baita Vicente Amezagaren egonaldia ere. Beraz, nahiko labur aztertu ditugu. Ez zen ezer ezagutzen Santiago Aznarrek izendatu zuen Manuel Urrutia industria ordezkariari buruz. Laburki aipatu dugu. Zoritxarrez, bere misioaren inguruko informaziorik ez dugu ia eskuratu. Halere, Urrutiak *Mid-Atlanticen* ontzidikoko ikuskatzaile kapitain bezala lehenengo eta gero *Pair Fishing Co.* lan egin eta 1944an Espainiar sindikatuen delegatu izango da Milford Havenen. *Mid-Atlanticen* lan egin zuen beste langile batek, Victor Saez, 1939 erdialdean ELAren ordezkari gisa haritu zen. Lizaso eta Gondrarekin elkarlanean itsas-gizonak artatu eta *Oficina de colocación obreraz* arduratu zen gehienbat.

Bestalde, Marino Gamboaren berri bazen, baina honek sortutako sare enpresarialari buruz apenas ezagutzen zen. 1937ko martxoan sortutako *Marino Gamboa Ltd* eta *Mid-Atlantic Shipping Co.*ren hasierako garaiei buruzko informazioa eskaini dugu. *Marino Gamboa Ltd*. Euskal Gobernuaren diruaz eta Bilbon zeuden enpresek emandako botereak erabiliz ezarriko den negozioa da. Helburua Euzkadin zeuzkaten barku eta lehengaiak salduz librak irabaztea zen. Hala, gerrak sortutako beharrei aurre egiteko, batik bat armak eta lehengaiak erosi eta errefuxiatuak artatzeko. Enpresa honek 1937ko uztail arte funtzionatu zuen. Ondoren, Errepublikarekin aliatuta eratuko zuten *Mid-Atlantic & Shipping Co.* Lehen hilabetetan enpresa honen barnean izandako tentsio politikoetan zentratu gara.

Marinorekin batera, ogasuneko ordezkari izan zen Pedro Albisu aritu zen Londresen. Gamboaren enpresan ez ezik, *Mid-Atlanticen* 1938 arte euskal ogasuneko interbentore aritu zen. Lehenago, 1936ko irail aldera Londresko Banco Bilbaoko sukurtsalaren inguruan zebilen.

⁹⁴⁴ Cullen (2021); McCreanor (2022); Nuñez (2017), 473-5; Ikus. SAF-BBB-281-1

Bertan Albisuk Euskal Gobernuaren nazioarteko operazioak ahalbidetu, librak eskuratu eta informazio finantzaria pasatzen zuen Paris eta Bilbora. Banco Bilbaoko kontuak kudeatu eta Londresko egoitzara egindako bi urre bidalketetan paper garrantzitsua jokatu zuen. 1937ko martxoan, Bilboko Banco Bilbaoko kontseiluak Londreseko sukurtsaleko zuzendari izendatuko zuten, alabaina, enpresarekin izandako pleitu baten ostean, epaia nazionalen alde zegoen kontseiluari arrazoi eman eta ez zuen inoiz kargua hartuko. Bilboko bankuko kontu horiek pixka bat argitzen saiatu gara lanean zehar.

Ez gara sartu, Milford Haven eta Cardiffeko portuetan ezarritako euskal enpresak aztertzeko. Gerra aurretik dagoeneko bazenbiltzan arrantza negozioan hainbat euskaldun, baina Gerra Zibilean zehar egitasmo berriak sortuko ziren. Ganboaren diruarekin Iriarte eta Mikel Laboak lehendabizi eta gero Elias Esnarrizaga zuzendari izan zuten *Pair Fishing Co.Ltd* da adibide garbiena. Enpresa honek Irujo eta Lizasoren euskal delegaritzak ekonomikoki lagunduko zuten Bigarren Mundu Gerran. Ez da enpresa bakarra izango. Laboak berak *United Trawlers Limited* osatuko zuten beste sozio baltzuekin. Santiago Chaussondarrek (aita-emeak) ere bazuen beste bat. Euskal Gobernuak arrantza zuzendari ohia Francoren aldera pasako da bere semearekin batera. Milford Haven eta Cardiffen ezarritako euskaldunek bere baitan beste lan bat osatzeko aukera eskaintzen dute.

Lanean zehar, eta oso laburki bada ere, EAJren kapitalarekin dirua irabazteko Luis Ortuzarrek sortu zuen *Continental Transit* aipatu dugu. Ez da gai erraz bat eta ez dugu batera sakon aztertu, halere, Ortuzarren paper-sotan kontsultatutako informazioak enpresa honen inguruan izandako auziaren inguruko datu berriak eskaintzen dituelakoan gaude.

4. Delegaritzak Ingalaterran aurrera eramandako propaganda helburuak eta erabilitako kanalak identifikatu.

Propaganda helburuei dagokienez, lehendabizikoa iritzi britainiarrean Euskaldunak ezagutaraztea eta beraien kasua ahal zen neurrian interes publikoan bizirik mantentzea izan zen. Interes horren sugarrak ez itzaltzea garrantzitsua zen bigarren helbururako: Euskaldunak Britainiarrei presio eginez, Espainiako gerra munduko potentziak burututako, Erresuma Batua eta Frantziak zuzenduak baziren hobe, bake-negoziaketa mahi batera ekartzea. Negoziaziootan, euskaldun eta katalanek, beste bi bandoak besteko erabakitzeak eskubidea izanez gainera. Horregatik, bi Espainiak gero eta ahituago heldu hobe. Aurrekari bezala, Versaillesko itunean Belgikak eskuratutako abantailak zituzten buruan.

Hala ere, interesgarria da euskaldunok egindako propagandan nabari daitekeen eboluzioa. Hasierako momentuetan euskaldunok dituzten eskubideez hitz egingo bada ere, behin Wright agentzia kontratatzean, propaganda ingeles audientziaren behar eta gustuei egokituko da. Emozio eta zilegitasunez hitz egin beharrean, hau da, Britainiarri euskaldunon eskubideez aritu beharrean, Britainiarrei interesatzen zitzaizkien kontuetan murgilduko dira. Euzkadin alemaniarrek eskuratzen ari ziren nagusitasuna eta Euskal lurraldeak Britainia Handiaren Commonwealtharen itsas-bideetan zuen garrantzia estrategikoak izango dituzte eztabaidagai Jarraituko dute bidezkoak diren eskariez hitz egiten, baina bigarren maila batean kokatuko da ideia hori. Ez da ahaztu behar, zilegitasun horrek inplizituki zer esan nahi duen. Euskaldunak konfiantzazko jendeak direla. Demokratikoak eta Erresuma Batuko antzeko gizartea dutenak.

Goiko helburuak erdiesteko erabilitako propaganda aztertuta, orokorrean, kanal tradizionalen bidez egindako propaganda erabili zutela esatera garamatza. Garrantzitsuena prentsan egindakoa izan zen. Gehienbat gutunen bidez eta ondo txertatutako artikulak erabiliz ideia ezberdinak plazaratuko zizkioten Britainiar iritziari. Egindako kanpainak, batik bat Alemaniaren

nagusitasunarenak espero ez zituzten kotak eskuratu zituen. Kanpaina honen arrakastan zer ikusi handia izan zuen *The German domination* liburuxkak eta *Euzko-Deyako* notiziek. Prentsan ez ezik, argitaratutako esku-orri eta liburuxkak gauzatzen ari ziren kanpainekin dute zer ikusia. Iritzi katolikoari hurreratzeko saiakerak berriro hasiko dira 1938 bukaeran eta 1939 hasieran. Horra hor, Komunismoari buruzko liburuxka eta J. de Hiriarteren *The Case of the Basque Catholicen* itzulpena.

Ildo honetan, aipagarria da Wright agentziaren erabilera. Agentziak propaganda bide horiek nola funtzionatzen zuten ongi ezagutzen zituen. Hortaz, egindako lana optimizatzen laguntzearekin batera, arriskutsuak eta ekonomikoki zaugarriak gerta zitezkeen abenturak ondo ponderatzera eraman zieten euskal agintariei. Adibide garbiena zinemaren kasua da. Abentura hau hasi aurretik interesatzen zen merkatuan prospekzioak egiten lagundu zieten Wrighteko langileak. Agentzia izan ezean, baliteke zineman izandako gastuak askoz handiagoak izatea. Frantzian idatzitako liburuekin egindako saiakerekin antzeko prozesu bat jaso zen.

Kanal ez-tradizionalei buruz, Eresoinka aipa dezakegu. Abesbatza hiru astez aritu zen Londonen eta propaganda ikuspuntu batetik arrakasta itzela izan zen. Wright agentzia Parisen kontratatutako propaganda agentzia egindako lanaz kexatu bazen ere, azkenean kolaboratu eta propaganda eraginkorrago bat eraman zuten bi agentzien artean, nahiz eta espero baino diru gutxiago atera.

Ez dugu aztertu iratiaren bidez egindako propaganda, Hortaz, baliteke bide berri hau esplotatu izana Londonetik. Badakigu irratsaioren batean edo beste parte hartu zuela Lizasok. Hipotesi bat botatzera ausartuko bagina hurrengo hau izango zen: iratiaren bidez egindako propaganda ez zen oso esanguratsua izan. Hala ere, Lizasok iratian hitz egin zuen bezala, ez da ahaztu behar Bilbon zegoen iratia zela penintsulatik Erresuma Batuan hobekien entzuten zen seinalea eta Euskal Gobernuak lehendabizi eta nazionalek gero erabili egin zutela. Hortaz, Britainia Handian irati bidez egindako propaganda sistematikoki aztertzea interesgarria gertatuko litzateke. Ildo honetan hasteko lehen pausua, 1937 bukaeran Leizaolak 1937ko urte bukaeran emandako irratsaioa izan daiteke, BBCko newsletter guztietan aipatuta Wright agentziaren txosten baten arabera inpaktu handia izan baitzuen⁹⁴⁵.

Bestalde, Lizasok propaganda aurrera eramateko eskuratu zituen kontaktuak izan zuten garrantzia ikusita, zaila irizten zaigu agentziaren laguntzarik gabe halako sarea osatzeko aukera izatea. Argitalpen guztietako editoreekin eta Erresuma Batuko kazetari garrantzitsuenekin hitz egin zuen. Gainera, propagandan eta FOari aurkeztutako notak ingeles maila altu bat agertzen dute. Nabaria zen natibo batek edo maila oso altuko ingelesa zuen pertsonaren batek zuzenduak zirela.

Orokorrean, zituzten errekurtsuak ikusirik, eta kontuan izanik Euskal Gobernuak ez zuela inongo lurralderen kontrol efektiborik, Errepublikarren gainean eta nazioarteko iritzian zuten eragina esplotatuz lan ederra egin zutela esan daiteke. Egia da azkenean ez zirela helburu politikoak bete, baina Euskal errefuxiatuentzako errekurtsu gehiago ziurtatu eta nazioarteko presioari eskerrak euskal lurraldeko jazarpena arintzea eskuratu zuten.

5. Sarraski-propagandak izan zuen oihartzunaren azterketa egin 1936-1939 aldirako, hau da: Euskal ordezkariak Britainiar prentsa igorritako informazioaren azterketa ikerketa kasu zehatzen bidez aztertu: Euskal apaizen erailketa, Durango eta Gernikako bonbardaketak, *Basque Childrenen* kasua eta zibil eta preso erailketak.

⁹⁴⁵ EAH.EG.LD.S:Delegaciones. En Londres Se:Lizaso V:75 L:297/04 Repot November 9- December 7 1937

Goian aipatutako euskal lurraldeetan jazotako sarraski propagandak aztertu ostean, nabarmentzekoa iruditzen zaigu Erresuma Batuan ez direla esklusiboki Euskal Gobernuak zabaldukoak izango. Errepublikak sarritan erabiliko ditu gertakari zorigaitz hauek. Halere, Euskal Gobernuak eta Errepublikak erabilitako propaganda moduak antzekoak direla afirma daiteke, patroiz argi bat nabari baita bietan. Hasieran gertakariak oso era orokorrean eta tremendistetan zabalduko badira ere, denborak aurrera egin ahala estatistikak eta kasu konkrituak erabiltzera pasako dira.

Beste aldeak ere emozioei so eginez, propaganda mota hau erabiliz, 1936ko urri alderako kleriko eta eskuindarren hilketa masiboak aise zabalduko ditu Erresuma Batuan. Sarraskion aurrean, Franco komunismoaren eta kristautasunaren ordenaren alde borrokan ari den bastioi bezala irudikatzen saiatuko dira: *Caudillo* askatzailea. Horregatik, sarraskiak alde batean besterik ematen ez direla adieraziz irudikapen horri aurka egiteko Errepublikar eta nazionalistek sarraskien berri emango dute. Hala nazionalak gerra osoan zehar mantenduko zituzten hainbat kontzeptu, *Red Terror* eta gurutzada ideiak, indargabetu nahi ziren. Osera, nazionalen aldekoek egindako gehiegikeriak kategorikoki ukatuko dituzte eta onartu ezker, justizia militarra erabiliz errudunak bakarrik zigortzen zituztela esanaz osatuko zuten narratiba. Hala justifikatzen zituzten antikristoaren aurka erabili beharreko metodo defentsibo bortitzak.

Ondorioz, taktika interesgarri bat hartuko dute errepublikar eta nazionalistek. Gehiegikeriak jazo zirela onartzen badute ere, horiek altxamenduaren ondorioz, sumindutako masa batek (espainiarrak) eraginkakoak izan direla argudiatu eta kontrola berreskuratzean sarraskiak eten egin direla adieraziko dute. Aldiz, nazionalak gauzatutakoak, modu hierarkiko eta kirurgikoan aginduta egin dira. Mendeetako aginpide atzerakoien aurrean, Errepublikak ezarri nahi duen modernizazioen aurka kontrarreforma bat gidatzen ari omen ziren. Zapaltzailearen espresioa izanik, Errepublikak eraikitakoa txikitu beharreko markoan kokatzen zituzten nazionalen erailketak.

Taktika honetan, euskal nazionalistak narratiba alternatibo bat osatu zuten, erdi bideko narratiba hain zuzen ere. Euskal lurraldeetan gehiegikeriak ekiditen saiatu badira ere gertatu direla onartuko dute. Halere, ez dituzte beraiek gauzatu. Gerraren aurrean bi oposizioen artean trabaturik aurkitu omen ziren. Orduan, autonomia eskuratu eta gerra humanizatzea joko zuten. Errepublikar gorriak kontrolpean mantentzen saiatzen ari ziren bitartean, nazionalak euskal nazionalistak konkistatzera ekin dute euskal askatasun eta kultura oro suntsitzea dutelarik konkista horren asmoa.

Marko diskurtsibo orokor hauetan kokatuko dira sarraski-propaganda kasuak. Gertaera espezifikotan zentratuz, eta Euskal Gobernuaren narratibaren arabera eraildako apaizek euskal kultura bultzatzeagatik jasoko dute pena kapitala. Inongo epaiketarik gabe gainera. Horrek gerra arrazoi sozio-politikoetan oinarritzen zela arrazoitzeko balio zien euskaldun eta errepublikarrei. Beraien defentsan nazionalak, apaiz hauen akzioak (armak izan, gorrien alde egin...) justizia militarrek hiltzeko irizpena eman ostean erailko zituzten. Ikusi da, paseo teknikaren bidez hilko zirela gehiengoa. Hortaz, ziurrenik eta Gomak artzapezpikuak argudiatu izan duenaren aurka, epaiketarik gabe eta, zuten izaera kontuan, abertzaleak izateagatik hilko zituzten. Ez milizianoekin aritu edota espiak izateagatik.

Bonbardaketen kasuan, gerra metodo bortitzak gerraren humanizazioaren aurkako legeak urratu eta euskaldunei sufriarazteko metodo totalitarioak zirela argudiatuko zen. Durango eta Gernikako kasu esanguratsuez gain, Bilboko eta Elorrioko bombardaketek ere oihartzuna izango zuten. Euskal nazionalistak aldiz, herri-ireki eta populazio zibila bombardatzea albo ondorio bat

besterik ez dela esan eta bando nazionalak jasandako bonbardaketen aurrean prentsak azaltzen duen isiltasun hipokrita salatzen dute. Besteak beste, Almeria, Iruñean eta Cabran⁹⁴⁶.

Gernikaren kasua benetan da berezia. Ez dago argi zergatik, baina faktore asko batera gurutzatu eta Gernika bonbardaketaren sinbolo ez ezik, populazio zibilaren sufrikarioaren erreferentzia bilakatu zen. Ondo esplotatuko dute lorpen hori euskal nazionalista eta errepublikarrek. Ironikoki, propagandaren ikuspuntutik gauza handirik egin gabe sekulako errenta aterako diote. Esan daiteke gizarte ingelesak, eta munduko zati handi batek bezala, barneratu egingo duen sinboloa dela. Faktore horien artean, nazionaliek gezurra esan eta berau justifikatzeko aurrera eramandako politika komunikatibo eskasa, Bilboko blokeoaren ostean Britainiar iritzia Euskaldunekiko abegikortasun handia, eta Alemaniarren parte hartzeak ere zer esan handia izango zuen. Ez interbentzioko politika fartsa bat zela argi adierazteaz gain, Europako edozein tokitan Alemaniarrek taktika hori erabil zezaketela errealitate bilakatu baitzen.

Azken kasua, presoen eta zibilen erailketena da, eta batik bat Santoñan atxikitakoei dagokiena. Gerran zehar euskal nazionalistak etengabe bilatuko dituzte truke masiboak. Euskal Gobernuaren garaian gerra humanizatzen saiatzen ari direla adierazteaz gain, zituzten presoen egoera lasaitu eta mantenu kostuak jaisteaz gain haiek erailtzeko arriskua gutxitzen zen. Ondoren, Santoñan geratuko diren presoak berreskuratzen saiatuko dira. Helburua ahalik eta bizi gehien salbatzeaz gain, Katalunian ejerzitu berri bat eskuratzea da eta berriro ere humanizazioaren ideia plazaratzen dute. Horregatik, britainiarrek ezarriko duten Chetwoderen truke ofizinarekin babesle nagusiak izango dira. Santoñan urriaren 15etik aurrera hasi, eta gero Larrinagan eta Deuston jarraituko duten fusilaketak gogor erabiliko dira propagandan. Gerra baten aurrean euren herria ohoretsu defendatzeagatik heriotza zigorra jasotzen ari diren preso errugabeak zirela adierazteaz gain, presoak kondizio krudeletan dituztela eta horietako asko lan batailoietan edota berriro frontera bidaltzen ari zirela ere salatuko da. Salaketari indar gehiago emango diona, italiarrekin nazionalistek sinatutako akordio bat apurtu izana izango da. Nazionalak gerrako ohorezko lege minimoak errespetatzeko gai ez dira, ez negoziatzen ezta presoen tratamenduan.

Sarraski-propagandarekin emozioetara heltzea bilatzen da. Beste bandoa munstro bat bilakatu. Hala ere, eta aldarri humanitarioan geratuko ez badira ere, behin nazionalistek propaganda agentzia kontratatuta, propaganda ez da horrenbeste zenbaki infinituek eragiten duten emozioetan zentratuko. Datu eta kasu konkretuen bidez azalduko dituzte gehiegikeria hauei buruzko informazioak. Ez da ahaztu behar, halako propaganda mota honek azkar saturatzen dituela helburu duten gizartea eta sinesgaitzak izatera iritz daitezkeela. Ostera, iritzi publikoak horiengan duen interesa galduko luke. Askoz ere sinesgarriagoak dira kasu konkretu eta zehatzak. Gainera, propaganda guztia sarraski propaganda motara mugatzea ez dirudi aukera onena denik. Beste modalitate eta estrategien konplementu bilakatuko dira beraz gerrak aurrera egin ahala eta momentu zehatz eta jakinetan plazaratu.

21. BIBLIOGRAFIA

BIBLIOGRAFIA

- A preliminary official report on the atrocities committed in southern Spain in July and August, 1936, by the Communist forces of the Madrid government*, (1936), Eyre and Spottiswoode, London
- Aizpurua, Mikel, Apaolaza Urko, Odriozola, Jon eta Gomez, Jesus Mari (2007), *1936ko Udazkena. Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*, Alberdania, Irun
- Aizpurua, Mikel (2009), *El informe Brusiloff*, Alberdania, Irun

⁹⁴⁶ Boris (2019)

- Aizpurua, Mikel, (2017), “Sindicalismo agrarista y nacionalismo vasco (1933-1936)”, *Historia y política: Ideas, procesos y movimientos sociales*, 38, 259-287
- Abergoeyn, Iñaki de (Azpiazu)(1937), *Sept mois et sept jours dans l'Espagne de Franc.*, Peyre, Paris
- Aceña, Pablo eta Pedro Schwartz (1997), *El primer banco español en Gran Bretaña: Cincuenta años de Historia de la Sucursal del Banco de Bilbao en Londres, 1918-1968*, Fundación Empresa pública, Madril
- Alonso Carballés, Jesus (1998), *1937. Los niños vascos evacuados a Francia y Bélgica. Historia y memoria de un éxodo infantil, 1936-1940*, Asociación de Niños Evacuados el 37, Bilbao
- Alpert, M. (1984), ‘Humanitarianism and politics in the British response to the Spanish Civil War, 1936-9’, *European History Quarterly*, 14, 423-440
- Alvarez Gila, Oscar, Sanz, Eneko eta Morales Angulo, (2010), *Las delegaciones de Euskadi (1936-1975), Antecedentes históricos de los siglos XVI al XIX, origen y desarrollo*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz
- Álvarez Gila, Oscar eta Stephen Murray (2013), “From Bilbao to Merthyr: Basque Industrial Migration to Wales in the Late 19th, Early 20th Centuries”, *Vasconia* 39, 5-26
- Anasagasti, Iñaki eta Koldo San Sebastian (2018), *Ordezkaritzak (1936-1980) Eusko Jaurlaritzaren Atzerriko ordezkaritzak*, Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Bilbao
- Anasagasti Iñaki eta Marcel Junod (2007), *Delegado del Comité internacional de la Cruz Roja. Su mediación ante el Gobierno vasco y los sublevados durante la Guerra civil en Euzkadi*, Argitalpen Zerbitzuak, Gasteiz
- Anasagasti, Iñaki, Larronde, Jean Claude eta Koldo San Sebastian (2019), *Los años oscuros. El nacionalismo vasco en la posguerra 1937-1946*. Alberdania, Irun
- Anasagasti, Iñaki eta San Sebastian Koldo (2020) *Si caemos sigan cantando*, Ikeder, Bilbo
- Anderson, P. (2012), *The Chetwode Commission and British Diplomatic Responses to Violence behind the Lines in the Spanish Civil War. European History Quarterly*, 42(2), 235–260
- Anderson Peter (2017a), British Government Maritime Evacuations in the Spanish Civil War, 1936–1939 War in History, 26, 1, 65–85
- Anderson, Peter (2017b), “The Struggle over the Evacuation to the United Kingdom and Repatriation of Basque Refugee Children in the Spanish Civil War: Symbols and Souls”, *Journal of Contemporary History*, 52, 2, 297–318
- Anom. (1937), *Spain. Catholic and Protestant Priests, Freemasons and Liberals shot by rebels*, Press Department of the Spanish Embassy, London
- Arana, Jose Antonio (1986), *Eresoinka, embajada cultural vasca 1937-1939*, Servicios de Publicaciones Gobierno Vasco, Gasteiz
- Arasa, Daniel (1995), *Exiliados y enfrentados (los españoles en Inglaterra de 1936 a 1945)*, Ediciones de la Tempestad, Bartzelona
- Arias Gonzalez, Luis (2013), “El papel del oficial de prensa en el Bando Nacional: Gonzalo de Aguilera Munro”, *Investigaciones Históricas*, 33, 199-234
- Arrieta, Leyre (2007), *Estación Europa. La política europeísta del PNV en el exilio (1945-1977)*, Tecnos, Madril
- Arrieta, Leyre (2009), “Landarburu. Un alavés europeísta”, *Sancho el Sabio*, 31, 199-220
- Arrieta, Leyre (2018), Dilemas del nacionalismo vasco en la Guerra Civil, 171-185, Sergio Valero Gómez, Marta García Carrión (Koord), *Desde la capital de la República: Nuevas perspectivas y estudios sobre la Guerra Civil española-en*. Universidad Politécnica de Valencia, Valentzia
- Arrieta, Leyre (2021), *Al servicio de la causa vasca. Biografía de F.J. Landaburu (1907-1963)*, Tecnos, Madril
- Arteche, Jose (1970), *El Abrazo de los muertos*, Icharopena, Zarautz
- Atholl, Katherine (1938), *Searchlight on Spain*, Penguin, London
- Autore Ugari, (2003), *Korrespontsaleen eginkizuna Espainiako Gerra Zibilean: George Steer-i omenaldia*, Gernikako Udala, Gernika
- Aupi, Vicente (2017), *Crónicas de fuego y nieve. La Guerra Civil Española y los corresponsales internacionales en la Batalla de Teruel*, Dobleuve, Teruel
- Avilés, Juan (1996), “Un Alba en Londres: la misión diplomática del XVII duque (1937-1945)”, *Historia Contemporánea*, 15, 163-177
- Azaña Manuel (2000), *Diarios completos: Monarquía, República, Guerra Civil*, Planeta, Madril

- Azcarate Pablo (1976), *Mi embajada en Londres durante la guerra civil española*, Ariel, Barcelona
- Azcona, Jose Manuel eta Julen Lezamiz, (2012), “Los asaltos a las cárceles de Bilbao el día 4 de enero de 1937”, *Investigaciones históricas*, 32, 217-236
- Badiola, Ascension (2015), *La represión franquista en el País Vasco. Cárceles, campos de concentración y batallones de trabajadores en el comienzo de la posguerra* [Doktorego lana, UNED]
- Ball, Stuart (1990 Apirila), “The Politics of Appeasement: The Fall of the Duchess of Atholl and the Kinross and West Perth By-Election, December 1938”, *The Scottish Historical Review*, 69, 187, 49-83
- Barandiaran, Jose Miguel (2009), *Diario Personal. Volumen II (1936-1953) Durante los años de su exilio en el País vasco continental*, Fundación José Miguel de Barandiaran Fundazioa, Ataun
- Barea, Arturo (2012), *La Forja de Un Rebelde, La Llama III*, Editora Regional de Extremadura, Badajoz.
- Barruso, Pedro (1995), “El intento autonómico del verano de 1934. La actitud del ayuntamiento de San Sebastian”, *Vasconia* 23, 375-403
- Barruso, Pedro (1996), “La política de justicia de la Junta de Defensa de Guipúzcoa”, *Sancho el Sabio*, 6, 155-186
- Barruso, Pedro (1996b), *Verano y revolución, La Guerra Civil en Guipuzcoa*, Hiria, Alegia
- Barruso, Pedro (1999), “El difícil regreso. La política del "Nuevo Estado" ante el exilio guipuzcoano en Francia (1936-1939)”, *Sancho el Sabio*, 11, 101-142
- Barruso, Pedro (2001), *El frente silencioso la Guerra Civil española en el sudoeste de Francia (1936-1940)*, Hiria, Alegia
- Barruso, Pedro (2005), *Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*, Hiria, Donosti
- Barruso, Pedro (2006), “La represión del clero diocesano guipuzcoano durante la guerra civil, Sociedad Estatal de Conmemoraciones Culturales (zuz.) La Guerra Civil española 1936-1939 [Recurso electrónico]: congreso internacional, Madrid 27, 28 y 29 noviembre de 2006
- Barruso, Pedro (2011), Diplomáticos ante la revolución: el Frente Popular de San Sebastián y el Cuerpo Diplomático al comienzo de la Guerra Civil (julio-septiembre de 1936), Gonzalez Calleja Eduardo eta Rocio Navarro (zuz.), *La España del Frente Popular: política, sociedad, conflicto y cultura en la España de 1936*, 241-56, Comares, Granada
- Barruso, Pedro (2019), *Lo que el río también vio*, Hondarribiko Udala, Hondarribi
- Barruso, Pedro eta Juan Carlos Jimenez de Aberasturi, (2011), *El comienzo de la Guerra Civil en Euskadi a través de los documentos diplomáticos franceses. Los informes del embajador Jean Herbertte (San Sebastián: julio-octubre de 1936)* Kutxa Fundazioa, Donostia-San Sebastián:
- Bartley, Paula (2019), *The Mighty Atom: Ellen Wilkinson, 1891–1945*, Bartley, Paula, *Labour Women in Power. Cabinet Ministers in the Twentieth Century*-n. 87-115
- Bardoux, Jacques (1937), *Chaos in Spain*. Burns Oates & Washbourne, London
- Berkman, John (2021 urria), “The Influence of Victor White and the Blackfriars Dominicans on a young Elizabeth Anscombe: An Essay accompanying the Republication of G.E.M. Anscombe’s ‘I am Sadly Theoretical: It is the Effect of Being at Oxford’ (1938)” *The New Blackfriars*, 707-727
- Bell, Adrian (1996), *Only for three months: The Basque Children in Exile*, Mousehold, Norwich
- Berthezène, Clarisse (2004 otsaila), “Creating Conservative Fabians: The Conservative Party, Political Education and the Founding of Ashridge College”, *Past & Present* 182, 211-240
- Berryer (Joaquin Reig), (1937), *Revolutionary justice in Spain*, Burns Oates & Washbourne, London
- Blasco Olaechea Carlos, (1983), *Diálogos de guerra: Euskadi 1936*, Izarra, Usurbil
- Boquera, Ester (2015), *La batalla de la persuasio durant la Guerra Civil. El cas del Comissariat de Propaganda de la Generalitat de Catalunya (1936-1939)* [Doktorego lana, UAB]
- Boris, Juan (2019), “Los bombardeos aéreos republicanos en territorio sublevado durante la guerra civil española (1936-1939)”, [Doktorego-lana, Alicante]
- Bou Jordi eta F. X. Medina (2000), “¡Cada día, catalanes, acordaos de Euzkadi! La Semana Pro-Euzkadi (Barcelona, junio de 1937)”, *Sancho el Sabio*, 13, 137-150
- Bowd Gavin (2011), “Scotland for Franco: Charles Sarolea Vs the Red Duchess”, *Journal of Scottish Historical Studies* 31,2, 195-216

- Bowers, Claude (1954), *My mission to Spain: Watching the rehearsal for World War II*, Simon & Schuster, New York
- Branciforte, Laura María (2006), “El Socorro Rojo Internacional y su intervención en España” La Guerra Civil española 1936-1939 [Recurso electrónico]: congreso internacional, Madrid 27, 28 y 29 noviembre de 2006
- Brown, Isabel (1937), *Durango: A Martyred City. Relief Committee for victims of fascism*, Relief Committee for Victims of Fascism, London
- Buces, Juces (2017), *Euzko Gudarostea*, Aranzadi Zientzia Elkarte, Azpeitia
- Buchanan, Tom (1988), ‘The Role of the British labour movement in the origin and work of the Basque Children Committee, 1937–1939’, *European History Quarterly*, 14, 155–174
- Buchanan, Tom (1997), *Britain and The Spanish Civil War*, Cambridge University Press, Cambridge:
- Buchanan, Tom (2003), “Edge of Darkness: British ‘Front-line’ Diplomacy in the Spanish Civil War, 1936–1937”, *Contemporary European History*, 12, 279-303
- Buchanan, Tom (2007), *The Impact of the Spanish Civil War on Britain: War, Loss and Memory*, Brighton: Sussex Academic Press
- Cable, James (1979), *The Royal Navy and the Siege of Bilbao*, Cambridge University Press, Cambridge
- Cal Martínez, Rosa (2001), “Las incautaciones de bienes: Notas sobre la radio.” *Historia y Comunicación Social*, 6, 11-29
- Calleja García, Eduardo (2019), “Catolicismo y República, 1931-1933”, *Ayer* 113(1), 77-105
- Calvo, Monica eta Javier Fernandez (2016), “Orue, la prisión habilitada para mujeres. De la represión al olvido”, *Bidebarrieta*, 26, 76-87
- Cándano, Xuan (2006), *El Pacto de Santoña*, La Esfera de los Libros, Madrid
- Cloud, Yvonne (1937), *The Basque children in England, an account of their life at North Stoneham camp*, Gollancz, London
- Cortésao, MA Araquistain, Luis, Irujo, Manuel eta Carlos Pi i Sunyer (1945), *La Comunidad Ibérica de Naciones*, Ekin, Buenos Aires
- Cox, Geoffrey (1937), *Defence of Madrid*, Victor Gollancz, London
- Cesar Moreno, Antonio (2006), “Unidad de Destino en lo Universal. Falange y la Propaganda Exterior (1936-1945)” *Stud. hist., H.ª cont.*, 24 107-131
- César Moreno, Antonio (2010), “El protagonismo propagandístico de falange exterior en Europa durante la Guerra Civil: el caso de Gran Bretaña, Francia y Alemania”, *RHA*, 8, 8, 59-71
- César Moreno, Antonio (2014), “Literatura de propaganda religiosa extranjera sobre la Guerra Civil Española”, *RiHC*, 2, 1, 42-61
- Crowson, Nick (2002), *Facing fascism. The conservative party and the European dictators, 1935-1940*, Rutledge, London
- Cullen, N. (2021), “Oh Ireland! What a Disappointment You Have Been to the Basque People’: Irish Non-Intervention in the Spanish Civil War” *Society*, 58, 104–111
- Daugherty, W. E. eta Janowitz, M. (zuz.)(1958), *A Psychological Warfare Casebook*, The John Hopkins University Press, Baltimore
- Davila, F. (2021), *La guerra Civil en el Norte*. La esfera de los libros, Madrid
- Deacon, David (2008), *British news media and the Spanish Civil War: tomorrow may be too late* [Doktorego lana, Loughborough University]
- Dietz, Bernhard (2018), *Neo-Tories: The Revolt of British Conservatives against Democracy and Political Modernity (1929–1939)*, Ian Copstakek itzulia, Bloomsbury Academic, London
- Dionisio, Miguel A. (2012), “El Cardenal Isidro Gomá y la cuestión vasca”, *Hispania Sacra*, 64, 261-314
- Discurso pronunciado por el Excmo. Sr. Presidente del Gobierno de Euzkadi D. José Antonio de Aguirre ante el micrófono de Radio Euzkadi, el día veintidós de diciembre de mil novecientos treinta y seis, (1936), Editorial Vasco, Bilbao
- Edwards, Jill (1979), *The British government and the Spanish Civil War*, Palgrave Macmillan London
- Egaña, Iñaki et al. (1999), *1936, Guerra Civil en Euskal Herria. Vol. V*, Aralar, Andoain
- EGI (1966), *El Pueblo Vasco frente a la cruzada franquista*, Donostia
- Eguizale, Ibon (1938), *Un homme, un clergé, un peuple*, Peyre, Paris
- El catolicismo en la España leal y en la zona facciosa* (1937), Servicio Español de Información, Madrid-Valentzia

- El clero vasco, fiel al Gobierno de la República, se dirige al Sumo Pontífice, para hacer constar que la vandálica destrucción de Durango y Guernica se debió exclusivamente a aviones alemanes*, (1937), Ediciones Españolas, Madril-Valentzia
- El nacionalismo vasco con la revolución de octubre de 1934* (1936)(E.g.)
- Estevez, Xosé, (1992), “El nacionalismo vasco y los Congresos de Minorías Nacionales de la Sociedad de Naciones (1916-1936)” Hainbat Autore, XI Congreso de Estudios Vascos. Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europan, 311-322, Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, Donostia-San Sebastián
- Estevez, Xosé, (1995), “¿Protodiplomacia exterior o ilusiones ópticas? El nacionalismo vasco, el contexto internacional y el Congreso de Nacionalidades Europeas (1914-1937)”, *Vasconia*, 23, 243-275
- Estevez, Xose (2009), “El Galeuzca histórico: la búsqueda trinacional de la soberanía (1923-1959)” *HERMES*, 29, 72-83
- Estevez, Xose (2012), La visita de una Comisión de Observadores catalanes a Gipuzkoa en mayo de 1933”, *BOLETÍN DE LA R.S.B.A.P.* 63,1-2, 327-336
- Estomba, F. (2007), “El equipo Euzkadi: Del mito político a la realidad histórica (1937-1939)”, *Historia Contemporánea*, 35, 791- 816
- Euzko Apaiz Taldea (1984), *Historia de la guerra civil en Euzkadi*, V Haranburu, Donostia
- Feeney, Thomas (1937)*The church in Spain rich or Poor?*, Catholic Truch Society, London
- Ferreiro Anxo (2013), *Consejo de Guerra Contra el clero vasco (1936-1946): La iglesia vasca vencida*, Intxorta Kultur Elkartea, Arrasate
- Fernandez Joxean eta Santiago De Pablo (zuz)(2012), Cine y guerra Civil en el País vasco= Zinema eta Gerra Zibila Euskal Herrian, Donostia Kultura, Donostia
- Ferreiro Anxo (2013), “El clero vasco y la guerra civil”, *Hermes*, 52, 2016, 62-72
- Fleay, C. eta M. L. Sanders (1985), “The Labour Spain Committee: Labour Party Policy and the Spanish Civil War”, *The Historical Journal*, 28, 187-197
- Flint, James (1987 iraila), ““Must God Go Fascist?”: English Catholic Opinion and the Spanish Civil War”, *Church History*, 56. 3, 364-374
- Friends of Spain (1937), *Foreign wings over the Basque Country*, Friends of Spain, London
- Fyrth Jim (1986), *The signal was Spain. The Adi to Spain Movement in Britain 1936-1939*. Lawrence and Whisart, London
- Fuller, J.F.C (1937), *The conquest of Red Spain*, Burns Oates & Washboune, London
- Gabana, Enrique (1939), *Mi Misión en Inglaterra*, Librería Litúrgica Rafael Casulleras, Bartzelona
- Gallego, Jose Andres eta Anton Pazos (2001), *Archivo Gomá: documentos de la Guerra Civil. Vol. 1, julio-diciembre de 1936*, CSIC, Madril
- Gallego, Jose Andres eta Anton Pazos (2002), *Archivo Gomá: documentos de la Guerra Civil. Vol. 4, marzo de 1937*, CSIC, Madril
- Gamboa, José María eta Jean-Claude Larronde (2005), *La guerra civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel Barandiaran*, Ediciones Bidasoa, Bilbao
- Garcia Hugo, (2006), “El turismo político durante la Guerra Civil: viajeros británicos y técnicas de hospitalidad en la España republicana, 1936-1939”, *Ayer* 64, 4, 287-308
- Garcia Hugo, (2007), “Seis y media docena: propaganda de atrocidades y opinión británica durante la Guerra Civil Española”, *HISPANIA Revista Española de Historia*, 67, 226, 671-692
- Garcia Hugo (2008), *Mentiras necesarias: La batalla por la opinion brítanica durante la Guerra Civil*, Biblioteca Nueva, Madril
- Garcia Hugo (2009), “La propaganda exterior de la República durante la Guerra Civil. Origen, éxitos y miserias de los servicios de París”, *Mélanges de la Casa de Velázquez*, 39, 1, 215-240
- Garitaonandia, Carmelo, de la Granja, José Luis eta Santiago de Pablo (1990), Comunicación, cultura y política durante la II República y la Guerra civil, Servicio Editorial, Universidad del País Vasco, Leioa
- Garitaonandia, Carmelo (1990), Política de comunicación de las Juntas de Defensa del gobierno Vasco durante la Guerra Civil, *Garitaonandia et al.en* (1990), 24-45
- Gely, Carlos (2004), *Conferencia pronunciada en el CARI, con motivo del homenaje al Embajador Daniel García Mansilla, Buenos Aires, 21 de agosto de 2002*, Cari, 22, 1-107

- González Calleja, Eduardo (1994), “El Servicio Exterior de Falange y la política exterior del primer franquismo: consideraciones previas para su investigación”, *Hispania*, 186, 54, 279-307
- González Calleja, Eduardo (2012), “La prensa carlista y falangista durante la Segunda República y la Guerra Civil (1931-1937)” *El Argonauta español*, 9
- Goigogana, Iñaki (2018), “The Basque Intelligence service in the Americas”, 181-216, Xabier Irujo eta Queralt Solé (zuz.) *Nazi Juggernaut in the Basque Country and Cataluna*, Reno University Press, Reno
- Goigogana, Iñaki, Irujo, Xabier eta Josu, Legarreta (2007), *Un nuevo 31: Ideología y estrategia del Gobierno de Euzkadi duran te la segunda guerra mundial a través de la correspondencia de Jose Antonio Aguirre y Manuel Irujo*, Sabino Arana Fundazioa, Blbo
- Guernica. The Official Report of the Commission appointed by the Spanish Nationalists to Investigate the Causes of the Destruction of Guernica on April 26-28. 1937* (1938), Eyre and Spottiswoode, Londdon
- Gwynne, H eta A. Ramos Oliveira (1937), *Controversy on Spain between H.A. Gwynne and A. Ramos Oliveira*, United Editorial, London
- Granja Jose Luis de la, (1988), “EL estatuto, el gobierno, los partidos y los sindicatos vascos en la guerra civil (1936-1937)”, *Geronimo de Uztariz*, 2, 1988, 95-107
- Granja, Jose Luis de la (1990), La ideología del PNV en la Guerra Civil a través del diario Euzkadi, *Garitaonandia et al.en* (1990), 99-125
- Granja Jose Luis de la, (2004), “1934: Un año decisivo en el País Vasco. Nacionalismo, socialismo y revolución”, *Sancho el Sabio* 21, 2004, 11-25
- Granja Jose Luis de, (2018), “Los padres fundadores de Euzkadi en la Guerra Civil: José Antonio Aguirre e Indalecio Prieto”, *Sancho el Sabio*, Extra 1, 2018, 15-34
- Gurrutxaga, Amagoia (2013), *Zarauzko postalak, 36ko gerra*, Zarautzko udal, Zarautz
- Hernández, Carlos (2019), *Los campos de concentración de Franco: Sometimiento, torturas y muerte tras las alambradas*, Ediciones B, Bartzelona
- Hart, Liddell (1938), *Britain and Spain*, Liberal Publication Department, London
- Ibarzabal, Eugenio (1978), 50 años de nacionalismo vasco 1928-1978, Ekin, Bilbao
- Ibarzabal, Eugenio (2019), *Ajuriaguerra el hermano mayor*, Erein. Donostia
- Iglesias Gema (1993), *La propaganda política durante la Guerra Civil Española*, [Doktorego lana, UCM]
- Iñiguez, Miguel (2016), *Armas vengan de donde vengan: las dificultades de abastecimiento republicanas y su viraje al mercado negro durante el primer año de guerra (julio 1936-mayo 1937)* [Doktorego lana, UCM]
- Informe sobre la situación de las provincias Vascongadas bajo el dominio rojo separatista* (1938), Universidad de Valladolid.
- Irazabal Jon (2019), Bombs over Biscay. The other Guernicas: Otxandio, Durango, Elorrio, Irazabal, J., Arnabat i Mata, R. eta J.M. Thomas i Andreu (koord), *Boms over Biscay, Barcelona and Dresden (1937-1945): From the Spanish Civil War to the Second World War*, URV publications, Bartzelona
- Irujo Manuel (2003), La Comunidad Occidental Europea. *Larrodén, Jean Claude et al, Congresos de Estudios Vascos*, 259-281, Eusko Ikaskuntza, Donostia
- Irujo, Xabier (2012), *Expelled from the motherland. The Government of President Aguirre in Exile (1937-1960)*, Reno University Press, Reno
- Irujo, Xabier, (2015), *Guernika, 1937: The Market Day Massacre*, Reno University Press, Reno
- Irujo, Xabier (2017), *Gernika 26 de abril de 1937*, Critica, Madril
- Irujo, Xabier (2020), *Arrasaré Vizcaya: 2000 bombardeos aéros en Euzkadi (1936-1937)*, Argitalpen zerbitzua- Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa
- Iturralde, Juan (1978), *El catolicismo y la cruzada de Franco*, Izarra, Donostia. (II bolumen)
- Jean Claud Larraonde (2003), “Histoire du VIIème Congrès d’Etudes Basques. Biarritz, 1948” Jean Claud et al. Congresos de Estudios Vascos, 17-61, Eusko Ikaskuntza, Donostia
- Jimenez, E, León, A, Orbegozo, Pego, L, Perez, Al eta L. Vozmediano (2009), *Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturrarán durante la guerra civil española y la primera posguerra. Hacia la recuperación de su memoria*, Emakunde, Gasteiz

- Jimenez de Aberasturi, Juan Carlos (1999), *De la Derrota a la esperanza, Politicas vascas durante la Segunda Guerra Mundial (1937-1947)*, IVAP, Oñati
- Jimenez de Aberasturi, Juan Carlos (1991), Los vascos en la II Guerra mundial: El consejo Nacional Vasco d Londres (1940-1944), Eusko Ikaskuntza, Donosti
- Jimenez de Aberasturi, Juan Carlos (2002), “Irujo en Londres 1939-1945”, *Vasconia*, 32, 2002, 99-132
- Jiménez de Aberasturi, Juan Carlos eta Moreno, Rafael (2009), *Al servicio del extranjero: Historia del Servicio Vasco de Información (1936-1943)*, Antonio Machado Libros, Madril
- Jiménez de Aberasturi, Juan Carlos (2009), Kanpo Arazoetako Ministerioaren Artxibo Diplomatikoak (Quai d’Orsay)(Paris), J. L. de la Granja eta S. de Pablo (zuz.), *Gerra Zibilak Euskadin izan zuen bilakaerari buruzko iturri dokumentaletan eta bibliografikoen gidan (1936-1939)*, 180-220 Eusko Ikaskuntza, Donostia
- Jiménez de Asua, Luis eta Oyarzabal de Palencia, Isabel, (1936), *The Agony of Spain. Speeches by L. Jiménez de Asúa and Isabel Oyarzábal de Palencia to the Annual Conference of the Labour Party, Edinburgh*, The National council of Labour London
- Jorge David, (2012 azaroa), “México y Chile ante la guerra civil española: dos polos opuestos de actuación latinoamericana en la Sociedad de Naciones”, *XV Encuentro de Latinoamericanistas Españoles*, Madril, 1449-1460
- Jorge, David (2017), “Gran Bretaña y la Segunda República española: prejuicios históricos y progresiva hostilidad”, Egido, Ángeles (zuz) *La Segunda República y su proyección internacional-en 160-87*, Catarata, Madril
- Jorge, David eta Alegre David (2019), *Comunidades Rotas: Una historia global de las guerra civiles, 1917-2017*, Galaxia gutenberg, Bartzelona
- Kattin-Txiki Taldea (2013), *Isiltzen ez den isiltasuna. Lurpetik berreskuratutako memoria*, Oiartzungo Udala, Oiartzun
- Keene, Judith (2001), *Fighting for Franco: International Volunteers in Nationalist Spain during the Spanish Civil War*, Leicester University Press, Leicester
- Knickerbocker, Hubert (1936), *The siege of the alcazar: A warlog of the Spanish Revolution*, Hutchinson. London
- Koestler, Arthur (1937), *The Spanish testament*, Gollancz, London
- Koestler, (2011), *Memorias*, Lumen, Bartzelona
- La destrucción de Guernica* (d.g.), Servicio Español de Información, Madril-Valentzia
- Landa, Carmelo (2007), Memoria de una matanza en la Euskadi autónoma durante la Guerra Civil, *Bidebarrieta*. 18, 79-115
- Landon-Davies, John (1936), *Behind de Spanish Barricades*, Martin Secker & Warbug, London
- Larrinaga, Carlos (2022), “Las Rutas de Guerra. Propaganda y turismo en la España franquista durante la Guerra Civil”, *Ayer* 127, 3, 219-247
- Larronde, Jean-Claud (1998), *Exilio y solidaridad - la liga internacional de amigos de los vascos*, Bidasoa Liburuak, Irun
- Laswell, H. D (1927), *Propaganda Technique in the World War*, Nueva York
- Latorre, Rafael (2019), *Ganar la Guerra perder la paz*, Planeta, Bartzelona
- Le clerge Basque. Rapports présentés par des Prétés Basques aux Autorites ecclésiastiques* (1938), Peyre, Paris
- Leizaola, Jesus Maria (1938), *Report on the Administration of Justice in the Basque Country during the Civil War. Presented by Jesus Maria de Leizaola*, King and Jarred Ltd, London
- Leizaola, Jesus Maria eta Martin Ugalde (1981) *Obras Completas de Jesus Maria Leizaola*. Tomo 1, Sendoa, Donostia
- Lezamiz, Julen (2016), *El patrimonio bancario y artístico cultural vasco durante la Guerra Civil Española. Incautaciones, evacuaciones, embargos y pleitos* [Doktorego lana, EHU]
- Little, Douglas (1985), *Malevolent Neutrality: The United States, Great Britain and the Origins of the Spanish Civil War*, Cornell University Press, London
- Little, Douglas, (1988), “Red Scare, 1936: Anti-Bolshevism and the Origins of British Non-Intervention in the Spanish Civil War”, *Journal of Contemporary History*, 23, 291–311
- Loewestein, Hubertus (1937), *A catholic in Republican Spain*, Victor Gollancz, London
- López de Maturana, Virginia (2016), “La Guerra Civil en Álava a través de la prensa un estudio de los discursos propagandísticos en Pensamiento Alavés y Norte”, *El Argonauta español*, 13

- Luengo, Félix, “Comentarios sobre el ‘Alzamiento Nacional’ de 1936 en San Sebastián: la actitud del Coronel Carrasco”, *Letras de Deusto*, nº 37, 1987, pp. 61-76
- Macklin, Graham, “Major Hugh Pollard, MI6, and the Spanish Civil War. *The Historical Journal*, 49, 1 (2006), 277–280
- Maitland, Frank (1938), *Searchlight on the Duchess of Athol* Revolutionary Socialist Party, Edinburgh
- Manning, Leah (1970), *A Life for Education*, Victor Gollancz, London
- Martin, Elisa (2022), “Dualismo turístico durante la Guerra Civil Española. Salvaguarda del patrimonio cultural vs. promoción turística”, *PASOS. Revista de Turismo y Patrimonio Cultural*. 20, 4
- Martínez, Santiago (2004), *Los papeles perdidos del cardenal Segura, 1880–1957*, Eunsa, Iruñea
- Martínez, Santiago (2011), “No se puede servir a dos señores: Fermín Yzurdiaga, 1937”, *Príncipe de Viana*, 254, 379-394
- Marquina, Antonio (2006), “El Pacto Galeuzca: planteamientos confederales de Euzkadi y Catalunya tras la Guerra Civil” *UNISCI Discussion Papers*, 10, 423-432
- Mauro, Diego (2017), “Católicos antifascistas en Argentina (1936-1943): Luigi Sturzo y las tramas locales de People & Freedom Group Itinerantes”, *Revista de Historia y Religión*, 7, 9-31
- Mayoral, Miguel (2013), *Evacuación y acogida en Francia de los refugiados de la Guerra Civil Española procedentes del Frente Norte 1936 – 1937* [Doktorego lana, Universidad de Salamanca]
- McCreanor, Kyle (2022), “Ireland, the Basques and the Spanish Civil War”, *Irish Historical Studies*, 46, 169, 136-154
- McGovern, John, [1938?], *Terror in Spain: how the Communist International has destroyed working class unity, undermined the fight against Franco, and suppressed the social revolution*, Independent Labour Party, London
- Meer, Fernando (1992), *El partido nacionalista vasco ante la Guerra de España (1936-1937)*, Eunate. Iruñea
- Mees, Ludger (2006), *El Profeta Pragmático. Aguirre, el primer lehendakari (1939-1960)*, Alberdania, Irun
- Mees, Ludger (2008), “Tan lejos, tan cerca. el Gobierno Vasco en Barcelona y las complejas relaciones entre el nacionalismo vasco y el catalán”, *Historia Contemporánea*, 37, 557-591
- Mees, Ludger, De la Granja, J.L., de Pablo, S. eta Jose Antonio Rodriguez Ranz (2014), *La Política como Pasión, el lehendakari Jose Antonio Aguirre (1904-1960)*, Tecnos, Madril
- Mendizabal, J.M (2006), *Gudaris y rehenes de Franco (1936-1943): Diarios de José Manuel Mendizabal “Mañul”, José Luis Lasa y Fernando Agirre*, Alberdania, Irun
- Montserrat Victor (Tarrago) (1937), *Le drame d’un peuple incompromis. La guerre au Pays Basque*, Peyre, Paris
- Merry del Val, Alfonso (1937a), *The conflict in Spain. Communistic Mis-Statements refuted*, Burns Oates & Washbourne, London
- Merry del Val, Alfonso (1937b), *Spain. Six of one and half-a dozen of the other*, Burns Oates & Washbourne, London
- Merry del Val, Alfonso (1939), *Spanish Basque and Separatism*, Burns Oates & Washbourne, London
- Mir, Gregori (2006), *Aturar la Guerra: les gestions secretes de Lluís Companys davant el Govern britànic*, Proa, Bartzelona
- Mikelarena, Fernando (2015), *Sin Piedad, Limpieza política en Navarra, 1936. Responsables, colaboradores y ejecutores*, Pamiela, Tafalla.
- Mikelarena, Fernando (2020), “Contrabandistas de ganado y redes de evasión en Navarra durante la guerra civil española”, *Cuadernos de historia Contemporanea*, 42, 2020: 263-283
- Molas, Bàrbara (2020), “Transnational Francoism: The British and the Canadian Friends of National Spain (1930s–1950s),” *Contemporary British History*, DOI: 10.1080/13619462.2020.1802248
- Moore, Aileen (1937, May), “The Escape of the Basque Children”, *Nursing Mirror and Midwives Journal*, 192–94
- Morrison, Herbert (1960), *An Autobiography*, Odhams Press, London
- Mota Zurdo, David (2016), *Un sueño americano. El Gobierno vasco en el exilio y Estados Unidos (1937- 1979)*, IVAP, Oñati
- Moradiellos Enrique (1990), *Neutralidad benévola. El gobierno británico y la insurrección militar española de 1936*. Pentalfa, Oviedo

- Moradiellos, Enrique (1991), “The Origins of British Non-Intervention in the Spanish Civil War: Anglo-Spanish Relations in Early 1936”, *European History Quarterly*, 21, 339–64
- Moradiellos, Enrique (2001), “Una guerra civil de tinta: la propaganda republicana y nacionalista en Gran Bretaña durante el conflicto español”, *SISTEMA*, 164, 69-97
- Moradiellos, Enrique (2009), Gran Bretaña durante la Guerra Civil, Viñas, Angel (zuz) *Al servicio de la Republica. Diplomaticos y Guerra Civil*, 89-118, Marcial Pons, Madrid
- Moradiellos Enrique (2015), Negrín: *Una biografía de la figura más difamada de la España del Siglo XX*, Ediciones Peninsula, Bartzelona
- Moreno, Enrique (1936), *Catholics and The Civil War in Spain*, The National council of Labour, London
- Mugica, Mateo (1945), *Imperativos de mi conciencia* (i.g.)
- Muñoz, Francisco (2017), *El museo ausente. La evacuación del museo de Arte Moderno de Bilbao a Francia durante la Guerra Civil* EHU-UPV, Bilbao
- Niebel, Ingo (2009), *Al infierno o a la gloria, Vida y muerte del ex cónsul y espía Wilhelm Wakonigg en Bilbao, 1900-1936*. Alberdania, Irun
- Nuñez, Xose, (2017), “Ecos de Pascua, Mitos rebeldes el nacionalismo vasco e Irlanda (1890-1939)”, *Historia Contemporánea* 55: 447-482
- Nuñez Diaz, Marta (2003), La prensa de Guerra Republicana ante el bombardeo de Gernika, Autore Ugari, (2003), 208-223
- Ojanguren, Angel (1990), *De procónsul británico en Bilbao a delegado vasco en Roma*, Fundacion Sabino Arana, Bilbo
- Olaizola, Imanol (2007), “Concierto en tres tiempos”, *Musiker*, 15, 201-243
- Olaya, Francisco (2004), *El expolio de la República. De Negrín al Partido Socialista, con escala en Moscú: el robo del oro español y los bienes particulares*, Belacqua, Bartzelona
- Onandia Alberto (1973), *Hombre en la Paz*, Ekin, Buenos Aires
- Onandia, Alberto (1983), *El pacto de Santoña*, Laiz,
- Ordozgoiti Koldo (2012), *Euskara hegaz: Euskal irratiak 80 urte*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia
- Otaegui Lourdes (1996), “Aitzol eta Euskaltzaleak”, *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 41, 3, 499-507
- Pablo, Santiago de, (1988), Navarra y Álava ante el Estatuto Vasco (1931–1936): Dos procesos autonómicos paralelos, *Principe de Viana*, 10, 401-414
- Pablo, Santiago de (1998), “El bombardeo de Genrika: información y propaganda en el cine de la Guerra Civil”, *FilmHistoria*, 8, 2-3, 225-248
- Pablo, Santiago de eta Igor Basterretxea (2006), “El País vasco en el cine documental extranjero”, *Historia y Política: ideas, procesos y movimientos sociales*, 15, 171-190
- Pablo, Santiago de (2006), *Tierra Sin Paz*, Biblioteca Nueva, Madrid
- Pablo, Santiago de (2007), “Una guerra filmada. El cine en el País Vasco durante la Guerra Civil”, *Historia Contemporanea*, 35, 623-652
- Pablo, Santiago de (2008), *En tierra de nadie. Los nacionalistas vascos en Álava*, Ikusager Ediciones, Gasteiz
- Pablo, Santiago de (2012), *Vencer o Convencer*, Fernandez eta de Pablo, (2012), 39-59
- Pablo, Santiago de, (2018), “Horror y solidaridad: el cine del Reino Unido y la guerra en Euskadi”, *Sancho el Sabio*, Extra 1, 85-111
- Pablo, Santiago de, Mees, Ludger; eta Rodríguez Ranz, José Antonio (1999), *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, I:1895-1936*, Critica, Bartzelona
- Pablo, Santiago de, Mees, Ludger; eta Rodríguez Ranz, José Antonio (2001), *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, II:1936-1978*, Critica, Bartzelona
- Palanca, Jose Alberto (2015), *Deva. Estación de verano, 1936*, Círculo Rojo, Madrid
- Pardo San Gil, Pedro, (2012), “Marinos vascos en la Fuerzas Navales Francesas Libres”, *Itsas memoria: revista de estudios marítimos del País Vasco*, 7, 547-577
- Parker, A (1937), *The Catholic Church in Spain. Londres*. Catholic Truch Society, London
- Patterson, Ian (2007), *Guernica and Total War*, Harvard University Press, Harvard
- Peche, Jon (2016), *Juan Gracia Colás: (1891-1941): biografía del primer consejero de Asistencia Social del Gobierno Vasco*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria.Gasteiz.
- Peers Allison (1936), *The Spanish Tragedy*, Methuen & Co., London.

- Peers, Allison (1937a), *Spain, the Church and the orders* Londres. Eyre and Spottiswoode, London.
- Peers, Allison (1937b), *The Church in Spain*. Burns Oates & Washbourne, London
- Peers, Allison (1938), *Our debt to Spain*, Burns Oates & Washbourne, London
- Pelletier, Jean (1938), *Seis meses en las prisiones de Franco: crónica de hechos vividos*, Edicioens Españolas, Valentzia
- Petrus, Gabriel (2011), *Humanitarian relief in the Spanish Civil War (1936-39): The independent and non-partisan agencies* [Doktorego lana, Royal Holloway University of London
- Pizarroso Alejandro (1990), *Historia de la propaganda: notas para un estudio de la propaganda política y de guerra*, Eudema, Madril
- Pizarroso, Alejandro (2001), “Intervención extranjera y propaganda. La propaganda exterior de las dos Españas”, *Historia y Comunicación Social*, 6, 63-96)
- Pizarroso Alejandro (2005), “La Guerra Civil española, un hito en la historia de la propaganda.” *El Argonauta español*, 2
- Preston, Paul (2007), *Idealistas bajo las balas, Corresponsales extranjeros en la guerra de España*, Debate, Madril
- Preston, Paul (2018), “Britain and the Basque Campaign of 1937: The Government, the Royal Navy, the Labour Party and the Press”, *European History Quarterly*, 48, 3, 490-515
- Pugh, M. (2006). *The Liberal Party and the Popular Front. The English Historical Review*, 121 (494), 1327–1350.
- Pulpillo, Carlos (2018), “Gran Bretaña: objetivo de la propaganda Franquista en la Guerra Civil. El caso del Noticiero de España” *Historia Actual Online*, 46 (2): 109-121
- Puyal, Alfonso (2015), “Películas junto a pinturas: cine en el pabellón español de la Exposición Internacional de París 1937”, *Hispanic Research Journal*, 16, 1, 1–14
- Raguer, Hilari (2001), *La pólvora y el incienso. La Iglesia y la Guerra Civil española (1936-1939)*, Atalaya, Bartzelona
- Rainbird, Stephen (2018), “Examining Front-line Diplomatic British Attitudes to the Spanish Civil War through John Leche and his Shifting Sympathies in Spain, 1937-1938“, 204-214, Mark Gant, Anneliese Hatton, Paco (Koord), *New Journeys in Iberian Studies: A (Trans-)National and (Trans-)Regional exploration*. Cambridge Scholars, Publishing, Cambridge
- Ramos, Antonio (1936), *The Drama of Spain 1931-1936*. The National council of Labour
- Ramos, Antonio (1937), *People’s flight for liberty*, Press Department of the Spanish Embassy, London
- Ramsay, Scott (2018), “Ensuring Benevolent Neutrality: The British Government’s Appeasement of General Franco during the Spanish Civil War, 1936–1939”, *The International History Review*, 41, 3, 604-623
- Ramsay, Scott (2020), “Ideological Foundations of British Non-Intervention in the Spanish Civil War: Foreign Office Perceptions of Political Polarisation in Spain, 1931-1936”, *Diplomacy & Statecraft*, 31, 1, 44-64
- Ramsay, Scott (2021), “Salamanca, May 1937: The Eighth Marquis del Moral and the Turning Point in General Franco’s Foreign Policy Towards Great Britain in the Spanish Civil War”, *Bulletin of Spanish Studies*, XCVIII, 10, 1613-1639
- Ranz, Jose Antonio (1998), *Guipuzcoa y San Sebastian durante la II República*, Kutxa, Donostia.
- Report and findings of the Committee of Enquiry into Breaches of International Law Relating to Intervention in Spain* (1936), Taylor & Sons, London
- Report of a Group of Anglican and Free Churchmen who visited Spain, January 29 to February 9, 1937* (1937), Victor Gollancz, London.
- Report of a recent religious delegation to Spain, April 1937, by the Dean of Canterbury et al.*, (1937), Victor Gollancz, London.
- Rios Fernando (1937), *What is happening in Spain?*, Press Department of the Spanish Embassy, London
- Rodgers, Terence (2003), “The Right Book Club: Text Wars, Modernity and Cultural Politics in the Late Thirties”, *Literature & history*, 12, 2, 1-15
- Rodríguez Francisco (1984)”, *El obispo olaechea y su pastoral conjunta sobre el nacionalismo vasco (1936)*”, *Vasconia*, 4, 329-267
- Rojo, Severino (2008), “La propagande nationaliste basque en France au cours de la guerre civile espagnole (1936-1937) : le journal Euzko-Deya”, *Revue roumaine de l’Université Alexandru Ioan Cuza de Iasi*. 91-103

- Roquero Ussía, María Rosario, (2013), “ El caso Idiakezlengua, prensa y política en la II República”, *Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián*, 46, 479-527
- Ruiz Vilaplana, Antonio (1938), *Burgos Justice; a Year's Experience of Nationalist Spain*, Translated by W. Horsfall Carter, Constable & Co., London
- Sabino Arana Fundazioa. (2019), *Red Álava 1936-1947. Ekinez osatutako elkartasun sarea. Red solidaria y de acción*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo
- Sagarna, Iñaki (2022), *Ez EUSKADI ezta EUSKAL HERRIA*, Euskal Selekzioa. Zer ezkututzen da izaren borrokaren atzean? [Gradu Amaierako Lana, EHU]
- Salas, Jesús (2012), *Guernica. El bombardeo. La historia frente al mito*, Galland Books, Valladolid
- Sanchez de Asiain, Jose Angel (2012), *La financiación de la Guerra Civil Española*, Critica, Madril
- Sarolea, Charles (1938), *Daylight on Spain: The answer to the Duchess of Atholl*, Hutchinson, London
- Sebastian Lorenzo (2001), “La represión económica bajo el primer Gobierno vasco. La Junta Calificadora Central (1936-1937)”, *Vasconia*, 29, 169-184
- Sebastian Lorenzo (2001), “La asesoría técnica de en Folklore vasco del Departamento de Cultura de Euzkadi (1936-1937)”, *Sancho el Sabio*, 15, 113-138
- Sebastian Lorenzo (2007a), “Alfredo Espinosa Orive (1903-1937): Detención, procesamiento y ejecución de un consejero del Gobierno Vasco”, *Sancho el Sabio*, 27, 213-244
- Sebastian Lorenzo. (2007b), “El bombardeo de Gernika y la propaganda radiofónica del Gobierno Vasco”, *Eusko News*, 391
- Sebastian Lorenzo. (2012), “Una aproximación a la propaganda durante la Guerra Civil. Los folletos editados por el Gobierno Provisional del País Vasco (1936-1937)”, *Vasconia*, 38, 839-86
- Sierra, Luís (2001), “Testimonio del padre j. M^a Lacoume, S.I., capellán interino de la cárcel de Ondarreta de San Sebastián (Guipúzcoa) sobre la represión nacional de clérigos vascos locales desde octubre de 1936 a junio de 1937”, *Hispania Sacra*, 53, 407-415
- Simon O.K. (Otto Katz) (1937), *The Nazi conspiracy in Spain; Truth about Spain*, Victor Gollancz, London
- Smith, Trevor (1935), *San Sebastian and the Basque Country: A Companyon guide* Institute of Hispanic studies, Liverpool
- Sobrevila, Gaizka (2018), “Dossier II. 1961, La primera operación policial contra ETA”, *Quadernos de criminología: revista de criminología y ciencias forenses*, 40, 26-31
- Soffer, Rena (2008), “Political Ideas and Audiences: The Case of Arthur Bryant and the Illustrated London News, 1936–1945”, *The Parliamentary History Yearbook Trust*, 28, 1, 155-167
- Southworth, Herbert (2013), *La Destrucción De Guernica Periodismo, diplomacia y propaganda e historia*, Historia Comares, Granada
- Steer, George (2019), *Gernikako Arbola. Gerra modernoaren landa-azterketa bat*, Itzultzailea, Koro Navarro. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- Stewart, Margaret (1938), *Reform under fire: social progress in Spain 1931-1938*. Fabian Society and Victor Gollancz
- Talon, Vicente (1970), *Arde Guernica*, San Martin, Madril
- Tápiz Fernández, José Marí (1998), “, Locales del partido y transmisión ideológica. El caso de los Batzokis del PNV durante la II República”, *Vasconia*, 27, 211-224
- Tapiz, Jose Maria (2001), “Las organizaciones culturales del PNV durante la II República”, *Sancho el Sabio*, 15, 93-112
- Teixedor, Felix (1990), *La prensa Guipuzcoana durante la Guerra Civil (1936-1939)*, *Garitaonandia et al.en* (1990), 175-192
- The second and third reports on the Communist atrocities committed, (1937), Eyre and Spottiswoode, London
- The War in Spain. Pastoral letter of the Spanish Bishops (1938), Catholic Truth Society. London
- Thomas, Hugh (1976), *La Guerra Civil Española*, Gribaljo Bartzelona
- Tuñón Lara, Manuel (1991), “¡Todavía la No Intervención! (Julio-Agosto, 1936)”, *Historia contemporánea* 5, 171-186
- Tusell, Javier eta Genoveva Garcia Queipo (1993), *El Catolicismo Mundial y la guerra de España*, Biblioteca de autores cristianos, Madril

- Ucelay de Cal, Enric (1995), “La Guerre Civile espagnole et la propagande franco-belge de la Première Guerre Mondiale“, 77-90 or. Martin, Jean Clement & Gabriel Ranzaton. (zuz.), *La Guerre Civile entre Histoire et Mémoire Nantes*, Ouest Edition.
- Ugalde, Alexander (1996a), *La acción exterior del nacionalismo vasco (1890-1939): historia, pensamiento y relaciones internacionales*, IVAP, Oñati.
- Ugalde Alexander (1996b), “La actuación internacional del primer Gobierno Vasco durante la Guerra Civil (1936-1939)“, *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 6, 187-210
- Ugalde, Alexander (1997), “Entrada del nacionalismo vasco en el Congreso de Nacionalidades Europeas, 1929-1930: siguiendo la documentación del Fondo Apraiz”, *Revista internacional estudios. Vascos*, 42, 2, 403-421
- Ugalde, Alexander (2019), EuroBasque (1947-2018) La contribución vasca al federalismo europeo, Gráficas Uncilla, Bilbo.
- Ugarte, Javier (1998), *La nueva Covadonga insurgente. Orígenes sociales y culturales de la sublevación de 1936 en Navarra y el País Vasco*, Biblioteca Nueva, Madrid
- Ugarte, Javier (2009), El Carlismo en la Guerra del 36: La formación de una cuasi-estado nacional-corporativo y foral en la zona vasco-navarra, *Historia Contemporánea*, 38, 49-87
- Valdaliso, Jesús (1991), “Growth and Modernization of the Spanish Merchant Marine, 1860-1935”, *International Journal of Maritime Study*, 33-58
- Valdaliso, Jesús (2003), “Bandera y colonias españolas y marinos vizcaínos, y capital y comercio británicos. Las navieras anglo-bilbaínas en el último tercio del siglo XIX”, *Itsas-Memoria*, Untzi Museoa, Donostia.
- Vilis, Tom (2013), *British Catholics and Fascism Religious Identity and Political Extremism Between the Wars*, The Palgrave Macmillan, Hampshire
- Viñas Angel, (2006), *La soledad de la República. El abandono de las democracias y el viraje hacia la Unión Soviética*, Marcial Pons, Madrid
- Viñas, Angel (2007), *El escudo de la República. El oro de España, la apuesta soviética t los hechos de mayo de 1937*, Marcial Pons, Madrid
- Viñas Angel, (2009), *Al servicio de la república: Diplomáticos y Guerra Civil*, Marcial Pons, Madrid
- Viñas Angel eta Blanco Juan Andres, (Ed.)(2017), *La Guerra Civil española, una visión bibliográfica*, Marcial Pons, Madrid
- Voigt, Fritz (1938), *Unto Caesar*, Constable, London
- Walton; John K. (1994), “British Perceptions of Spain and their Impact on Attitudes to the Spanish Civil War: Some Additional Evidence”, *Twentieth Century British History*, 5, 3, 283-299
- Wilson, Arnold (1938), *1935-7: the diary of a member of Parliament*, The Right Club, London
- Zamora, G. (2010), *El equipo de Futbol Euzkadi en México 1937-1939*, [Doktorego lana, Universidad Autonoma de Mexico].
- Zeraoui, Zidane (2016), “Para entender la paradiplomacia” *Desafíos*, 28, 1, 15-34

Webgrafia

- Amasa Billabona Oroitzen (2014-02-14), 'Apunta bien traidor' últimas palabras de Valeriano Saizar. Hemen: <https://www.amasavillabonaoroitzen.net/web/es/decerca/104-apunta-bien-traidor-valeriano-ultimas-palabras-valeriano-saizar> Azkenengo kontsulta (2022-09-01)
- Amasa Billabona Oroitzen (2014-05-19), “Definición Franquista de la muerte de Saizar: “a causa de la guerra, por arma de fuego.” Hemen: <https://www.amasavillabonaoroitzen.net/web/es/decerca/122-hilketaren-definizio-frankista-gerraren-ondorioz-suzko-armaz-hila-2> (2022-09-01)